

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Euskal lerrokatze linguistiko elektoral Hego Euskal Herrian

Doktorego Tesia

EGILEA: Haritz Garmendia Iturria

ZUZENDARIA: Eguzki Urteaga Olano

2021

“Pentsamendu propiorik gabeko herria, herri hila da”.

Paulo Iztueta Armendariz (2019)

“Oraindik ez garela nazio politiko bat, bere Estatuarekin, baina, tirriki-tarraka, nazio natural bat izateari oraingoz eutsi diogula. Gure naziotxoaren naturaltasunetik hasi beharko dugu meditazioa: politika egiten hasi baino lehen, zer garen gu, politika egin nahi omen dugunok, eta zer nahi dugun politikarekin”.

Joxe Azurmendi Otaegi (2017)

“[56ko] Belaunaldi berria gaur egun maiz entzuten den ideia baten eusle konbentzitu zen. Gizakia kokatua dagoela, ingurumari zehatz baten kondizionamendu jakinen arabera forma hartua. Gizakia zerbait ez bada, hori izaki abstraktua dela. Eta azken ideia faltsu baina zabaldu hori inguruko herri eta pertsonak zapaltzeko eta errealitatetik ihes egiteko biderik lasterrena eta unean uneko euskaldunaren askapenerako eragozpenik eraginkorrena izan zela eta izango dela”.

Alaitz Aizpuru Joaristi (2015)

“Gaizki esanak barkatu. Eta... gertu nago zuekin borrokan hasteko...”.

Txillardeggi (1961)

ESKER HITZAK

Ikerketaren nondik norakoak azaldu aurretik, esker hitzekin hasi nahi nuke. Hasteko eta behin, eskerrak eman beharrean nago doktore tesiaren zuzendari den Eguzki Urteagari, ikerketak iraun duen bitartean emandako laguntzagatik. Behar izan dudan bakoitzean laguntzeko prest egoteaz gain, askatasuna eman dit ikerketa ongien iruditu zaidan moduan bideratzeko.

Eskerrak baita ere tramite administratiboetan lagundu didaten guztiei, bereziki Iñaki Barcenari. Urte hauetan guztietan Doktore Programako zuzendari gisa makina bat aldiz lagundu dit paper kontuekin. Era berean, eskerrak EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailari, ikertzaile gisa bertan egon naizen bitartean beso zabalik hartzeagatik.¹ Ezin aipatu gabe utzi Joana eta Itsaso. Hasierako urteak ez dira samurrak izaten eta guztia errazagoa izan da zuen ondoan. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko beste hainbat laguni ere mila esker. Era berean, mila esker, Joseba, ikerketa txukuntzen laguntzeagatik.

Lan honetan zeharka bere ekarpena egin dute HEFAko Fakultatean Antropologia Graduan eduki ditudan ikaskide eta irakasleek, baita *Euskal Nazionalismoa XXI. mendean* masterrean ezagutu nituenek ere. Beraiekin izandako solasaldietan asko ikasi dut. Horietako zenbaitek gainera beharrezko laguntza eman didate hainbat momentutan. Horregatik guztiagatik, mila esker guztiei. Bestalde, nonbait eroso sentitu banaiz, hori izan da Joxe Azurmendi Katedraren inguruan osatu den lantaldean: Haritz, Alba, Ekai, Iñaki, Antonio, Mikel... mila esker zuei denoi. Inoiz baino beharrezkoagoa da ikertzaile euskaldunak elkartu eta euskaraz eta euskaratik munduari erreparatzea. Espero dut Joxe Azurmendi Katedra aurrerantzean asmo bera duten beste ikertzaile askoren topaleku izango dela.

Alde horretatik, eskerrak eman beharrean nago 56ko belaunaldiari eta haren ondorengoei. Lan hau ez zen posible izango zuek guztiok hamarkada luzez egin duzuen lan eskergagatik izan ez balitz. Bereziki, bihotzez eskertu nahi nieke Paulo, Juani, Ibai eta Alaitzi.

Amaitzeko, etxekoentzat dira nire azken esker hitzak. Esker mila aitaren eta amaren aldeko sendi guztiari, bereziki izeba Josuneri. Eskerrak baita ere bikotekideari, bide luze

¹ Ikerketa honek EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak EHUUn ikertzaileak prestatzeko eskaintzen duen dirulaguntza jaso du 2018ko martxoaren 12tik 2020ko abenduaren 3ra bitartean.

honetan laguntzeagatik. Lan hau zuena ere bada. Alde horretatik, lan hau eskaini nahi diet ikerketa honek iraun duen bitartean gure artetik joan diren Iñigo eta Jexux osabei.

AURKIBIDEA

ESKER HITZAK.....	5
ABIAPUNTUA	15
LEHEN ATALA: PROPOSAMEN TEORIKO-EPISTEMOLOGIKOA EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA AZALTZEKO	27
1. EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA AZALTZEKO MARKO TEORIKORIK AURKITU EZINDA.....	29
1.1 Portaera elektorala azaltzeko eredu desberdinak.....	29
1.1.1 Eredu Soziologikoa: gizarte egitura eta botoa	30
1.1.1.1 Lazarsfeld eta besteak: posizio soziala eta botoa	30
1.1.1.2 Lipset eta Rokkan: alderdi sistema eta lerrokatze elektorala.....	34
1.1.1.3 Bartolini eta Mair: clivajea kategorian analitiko gisa	39
1.1.2 Eredu psikosoziala: Campbell eta alderdiekiko identifikazioa	44
1.1.3 Eredu ekonomikoa: Downs eta izaki arrazional egoista	50
1.1.4 Eredu desberdinen inguruko balorazioa eta hautua	54
1.2 Eredu soziologikoaren mugak ertzeko kasuak azaltzeko: begirada modernoa auzitan	59
1.2.1 Lerrokatze linguistikoko elektorala azaltzeko irizpideak.....	59
1.2.2 Euskal kasuaren izaera: periferikoa edota nazionala?	65
1.2.2.1 Hurbilpen periferikoa: errealitatea kategorian erdaldunetara bihurtzen.....	65
1.2.2.2 Hurbilpen nazionala: errealitate gutxituarekin bat egiten ez duen eredu ideala	71
1.2.2.3 Nazio zapalduaren eredu: errealitatea osotasunean barne biltzeko ahalegina	75
2. ERTZEKO KASUAK ARAZOA BAINO GEHIAGO BIDE ERAKUSLE: EUSKAL NAZIO ZAPALDUAREN EREDUA.....	79
2.1 Ikerketa postmodernoa: ertzetatik ezagutza(k) sortzen.....	84
2.1.1 Alternatiba postmodernoen barne aniztasuna.....	84
2.1.1.1 Modernitatearen amaieraren irakurketa positiboa zentroko begiradatik: Lyotarden kasua	87
2.1.1.2 Modernitateari kritika ezkerretik baina zentroko begiradatik: Laclau eta Moufferen kasua	92
2.1.1.3 Modernitateari kritika dekoloniala Latinoamerikatik: Grosfoguelen kasua	98
2.1.1.4 Modernitateari kritika Euskal Herritik: aldagai ezezaguna askatu nahian.	103
2.1.2 Soziologia postmoderno kritikoa: pluralismo epistemologikoaren aldarria ertzetatik	106
2.1.2.1 Ausentzien soziologia: nazio zapalduaren piztuera epistemikoa	109
2.1.2.2 Soziologia emergentea: estatu-nazioaren baitako nazio zapalduen ezagutzari legitimazioa.....	111
2.1.2.3 Elkarrizketa interkulturala: uni-bertsalismotik pluri-bertsalismorako jauzia	115
2.2 Euskal pentsamendu deszibilizatzailea: ezagutza iturri eta proiektu askatzaile gisa	118
2.2.1 Nazio auzia eta dikotomia etniko/zibikoa: biolentzia epistemikoaren muina.....	122
2.2.1.1. Nazio zibikoaren ideia: menderakuntza legitimatzen duen kontakizun modernoa ..	123
2.2.1.2. Nazioaren ideia klasikoa: pitzadura ez da naturala, menpeko egoeraren isla baizik ..	130
2.2.2 Euskal nazioaren dibisio –etniko/zibikoa– josten.....	135
2.2.2.1. Alderdi politikoak Hego Euskal Herrian	136
2.2.2.2. Irizpide berria alderdi sistema sailkatzeko	139
2.2.3 Hego Euskal Herriko alderdi sistema Nazio zapalduaren ereduaren arabera.....	144

BIGARREN ATALA: LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALAK HEGO EUSKAL HERRIAN	153
3. EUSKARAREN BILAKAERA JURIDIKO ETA SOZIOLOGIA.....	157
3.1 Euskararen inguruko legedia: hizkuntza bat, hainbat errealitate	159
3.1.1 EAEko kasua: euskara hizkuntza ofiziala bai baina ezagutzeko derrigortasunik ez.....	161
3.1.1.1 Herri administrazioa	162
3.1.1.2 Hezkuntza sistema	164
3.1.1.3 Komunikabideak	167
3.1.2 NFEko kasua: euskara hizkuntza ofiziala soilik eremu euskaldunean.....	170
3.1.2.1 Herri administrazioa	171
3.1.2.2 Hezkuntza sistema	173
3.1.2.3 Komunikabideak	175
3.2 Euskara, mendeko hizkuntza bere lurraldean	177
3.2.1 Hizkuntza gaitasuna	178
3.2.2 Hizkuntza transmisioa	181
3.2.3 Hizkuntza erabilera	185
3.3 Hausnarketa euskararen mendeko egoeraren inguruan.....	189
4. HEGO EUSKAL HERRIKO SISTEMA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK.....	191
4.1 Hauteskunde autonomikoetako legediaren oinarriko elementuak.....	197
4.1.1 Hautesle errolda	198
4.1.2 Hauteskunde barrutia	200
4.1.3 Ordezkaritza kopurua legebiltzarrean	202
4.1.4 Hauteskunde formula.....	204
4.1.5 Hauteskunde muga.....	206
4.1.6 Hautagai zerrenda	208
4.2 Hauteskunde autonomikoetako emaitza elektoralen azterketa.....	210
4.2.1 Hurbilpen instituzionala: alderdi sistemaren ezaugarriak	212
4.2.1.1 EAEko kasua: pluralismo polarizatua EAJ alderdiaren inguruan ardaztua.....	219
4.2.1.2 NFEko kasua: pluralismo polarizatua UPN alderdiaren inguruan ardaztua.....	228
4.2.2 Hurbilpen geografikoa: hauteskundeetako argazki elektoralak.....	235
4.2.2.1 EAEko hauteskunde autonomikoak	237
4.2.2.2 NFEko hauteskunde autonomikoak	249
4.3 Hausnarketa Hego Euskal Herriko sistema politikoaren inguruan	261
5. ERREALITATE SOZIOLOGIA ETA ELEKTORALEN ARTEKO HARREMANA	265
5.1 Metodologia	267
5.1.1 Datu iturriak	267
5.1.2 Laginaren ezaugarriak.....	269
5.1.3 Datuen analisi	270
5.1.3.1 Analisirako tresna estatistikoa.....	271
5.1.3.2 Analiaren prozedura	273
5.2 Emaitzak.....	275
5.2.1 Lerrokatze linguistiko elektoralak Hego Euskal Herrian	275
5.2.1.1 Bi kasuak: euskal eta espainiar lerrokatzea.....	276
5.2.1.2 Euskal kasua: nazio zapaldua eta pitzadura kultural/politiko.....	282
5.2.2 Euskal lerrokatze linguistikoaren ñabardurak.....	285
5.2.2.1 Arabako kasua	285
5.2.2.2 Bizkaiko kasua	289
5.2.2.3 Gipuzkoako kasua.....	292
5.2.2.4 Nafarroako kasua	296
5.3 Irekidura.....	299

HIRUGARREN ATALA: EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA HEGO EUSKAL HERRIAN	303
6. METODOLOGIA	305
6.1 Datuak ekoizteko teknikak eta laginketa	305
6.1.1 Laginketa.....	305
6.1.2 Elkarrizketen inguruko xehetasunak.....	311
6.2 Datuen analisia	313
6.2.1 Lehen mailako analisia: edukien analisia	313
6.2.2 Bigarren mailako analisia: eredu idealak	316
7. EMAITZAK.....	319
7.1. Non gorpuzten da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara?	322
7.1.1 Sistema soziala: Euskal hiztun elkarte.....	322
7.1.1.1 Ukipen egoera: hizkuntza gatazka eta hizkuntzaren ordezkapena	324
7.1.1.2 Hizkuntza identitatea euskal hiztun elkarte elebidunean	327
7.1.1.3 Bizipen linguistikoak eta jarrerak.....	329
7.1.2 Sistema normatiboa: Euskal nazionalismoa	343
7.1.2.1 Euskal naziotasunaren inguruko pertzepzioak	344
7.1.2.2 Euskal hiztun elkartearen eta estatuaren arteko harremana	351
7.1.3 Sistema organizatiboa: Euskal erakundetzea	358
7.1.3.1 Euskal erakundetze prozesu akeztua.....	358
7.1.3.2 Alderdi politikoak Hego Euskal Herrian	370
7.1.4 Hausnarketa euskal saretze bertikalaren inguruan	375
7.2. Zergatik bozkaten diete euskal hiztunek euskal alderdiei?	379
7.2.1 Hauteskunde autonomikoak: Espainiar estatu-nazioa erreproduzitzen duen erritua	380
7.2.1.1. Estaturik ezean nazio mailako hauteskunderik ez.....	383
7.2.1.2. Hiritartasun espainiarra, euskal naziotasuna eta parte hartzea	385
7.2.2. Alderdi sistema eta portaera elektoral.....	389
7.2.2.1. Alderdi sistemaren egitura.....	390
7.2.2.2. Botoari emandako zentzua.....	396
7.2.2.3. Botoa eta lehentasunezko bazkidea	403
7.2.3. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna	407
7.2.3.1. Lehen hizkuntza	408
7.2.3.2. Ideologia nazionala	411
7.2.3.3. Ingurune soziolinguistikoa	412
7.2.3.4. Gainerako aldagaiak.....	415
7.2.4. Hausnarketa lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan.....	418
LAUGARREN ATALA: ONDORIOAK	421
BOSGARREN ATALA: BIBLIOGRAFIA ETA DATU ITURRIAK.....	439
SEIGARREN ATALA: ERANSKINAK	451

AURKIBIDEA: Taulak

1. taula: Hautesleen portaera elektorala azaltzeko ereduak, oinarrizko lanak eta ideia nagusiak	30
2. taula: Clivajearen barne egitura	41
3. taula: Clivajearen hezurdura eta berau osatzen duten sistemak	44
4. taula: Europa Mendebaldeko clivajeen sorrera.....	62
5. taula: Emaiza elektorak Espainiako autonomietan, 2015/2016ko hauteskunde autonomikoetako kasua.	67
6. taula: Boto emaileen boto oroitzapena, 2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan eta autodefinizioa euskal nazionalista gisa (%tan). Taula gurutzatua	73
7. taula: CIS erakundeak 2016ko hauteskundeetan inguruan egindako inkestaren emaitzak (%tan).....	73
8. taula: Taula gurutzatua, autodefinizioa euskal nazionalista gisa eta euskara gaitasunaren autopertzepzioa (%tan).....	74
9. taula: Estatu-nazioaren mugak matrize tenporal/espazial gisa estatu gabeko nazioetako fenomenoak azaltzeko.....	77
10. taula: Modernitatearen inguruko diagnostikoak.....	85
11. taula: Ausentzien soziologiak bidean galtzen den esperientzia soziala berreskuratzeko proposatzen dituen bost premisa epistemiko.....	111
12. taula: Pentsamendu abismalaren adibidea. Mendebaldeko pentsamendu modernoak	112
13. taula: Nazio eta nazionalismoen inguruko oinarrizko galderak ikuspuntu modernotik	125
14. taula: Pentsamendu modernoak nazio auziaren inguruan eraikitako kartzela epistemikoa.....	126
15. taula: NFEko hauteskunde autonomikoetara aurkeztu diren alderdi politikoak (1983-2015).....	137
16. taula: EAEko hauteskundetara aurkeztu diren alderdi politikoak (1980-2016).....	138
17. taula: Euskal Herriko alderdi sistemaren gaineko interpretazioa	141
18. taula: Begirada modernoaren eta Nazio zapalduaren ereduaren arteko bateragarritasun-eza	145
19. taula: Euskal Herriko populazioaren bilakaera 1877tik XXI. mendera arte	154
20. taula: Euskal hiztun kopuruaren bilakaera 1877tik 2016 arte.....	158
21. taula: EAEko herri administrazioiko hizkuntza eskakizunak	163
22. taula: EAEko herri administrazioiko langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	164
23. taula: Eredu linguistikoak irakaskuntza ez unibertsitarioan	165
24. taula: Hizkuntza ereduak ikastetxeen izaeraren arabera (1982-1990)	166
25. taula: Programa ikusiena euskal hiztunen eta euskal herritarren artean, 2016an	169
26. taula: Bost programa esanguratsuen audientzia orokorra, euskal hiztunen artekoa eta adinaren arabera %tan (2016)	169
27. taula: Hizkuntza ereduak Nafarroako hezkuntza sisteman	173
28. taula: Nafarroako hezkuntza sistema (2016/2017 ikasturtea)	175
29. taula: 2016an, hizkuntza gaitasuna lurraldearen arabera (%tan)	179
30. taula: Elebitasuna Hego Euskal Herrian euskara erraztasunaren eta adinaren arabera (2011).....	180
31. taula: EAEko hizkuntza transmisioa erkidegoaren arabera	182
32. taula: Elebidunak lehen hizkuntzaren eta eremuaren arabera Nafarroan (2016).....	183
33. taula: Hizkuntza erabileraren bilakaera lurraldearen arabera (1991-2016)	185
34. taula: 1978ko abenduaren 6ko Espainiako Konstituzioa onartzeko erreferendumeko datuak	192
35. taula: 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferenduma	193
36. taula: Nafarroako Parlamentuaren tamaina 1980-2016 bitartean.....	202
37. taula: Eusko Legebiltzarraren tamaina 1980-2016 bitartean	203
38. taula: Alderdiek jasotako botoak eta lortutako eserlekuak: Araba, 2016ko hauteskunde autonomikoak.	204
39. taula: Alderdiek jasotako botoak eta lortutako eserlekuak: Bizkaia, 2016ko hauteskunde autonomikoak.	205
40. taula: Baliozko botoen bilakaera EAEko hauteskunde autonomikoetan (1980-2016)	207
41. taula: Ordezkaritza lortzeko gutxieneko boto kopurua EAEko hauteskunde autonomikoetan (1980-2016)	207
42. taula: Baliozko botoen bilakaera NFEko hauteskunde autonomikoetan (1983-2015).....	208
43. taula: Ordezkaritza lortzeko gutxieneko boto kopurua NFEko hauteskunde autonomikoetan (1983-2015).....	208
44. taula: Alderdi sistemaren izaera aztertzen duten hurbilpen desberdinak eta ikertzaile nagusiak	211
45. taula: Sartoriren eskala alderdi sistemak sailkatzeko	213
46. taula: Zatikatzea eta AEK indizea EAEko eta NFEko alderdi sistemetan	214
47. taula: Aldebiko oposizioa EAEko alderdi sistemetan.....	217
48. taula: Zentralitate elektorala EAEn eta NFEen	218
49. taula: Estatuko presidentea eta Hego Euskal Herriko lehendakari autonomikoak (1980-2016)	218
50. taula: EAEko hauteskunde autonomikoetan alderdi politiko nagusiek lortutako ordezkari kopurua	220
51. taula: NFEko hauteskunde autonomikoetan alderdi politiko nagusiek lortutako ordezkari kopurua	229
52. taula: Euskal bloke abertzalea hegemoniko den udalerrri nagusiak (2016).....	238
53. taula: Hautesle errolda handiena duten udalerrietako emaitza elektorak (2016)	239
54. taula: Euskal alderdi abertzaleak hautagai zerrendek jasotako botoen %80a lortzen duten udalerrriak (2015)	251

55. taula: Hautes errolda handiena duten udalerrriak hautagai zerrendek jasotako botoen %aren arabera (2015).	252
56. taula: Udalerrri kopurua datu soziolinguistikoetan agertzen direnak.	270
57. taula: Udalerrri kopurua datu elektoraletan agertzen direnak.	270
58. taula: Analisi elektoralak egiteko geografia elektoralak eskaintzen dituen hiru dimentsioak.	271
59. taula: Zenbaki bidezko analisi korrelatiboa egiteko kontuan izan beharreko aldagaiak.	272
60. taula: Zenbaki bidezko analisi korrelatiboaren adibidea.	273
61. taula: Korrelazio koefizienteak kalkulatzeko gurutzatzen diren aldagaiak.	274
62. taula: Korrelazio koefizientea lortzeko gurutzatzen diren datuak (EAE).	274
63. taula: Korrelazio koefizientea lortzeko gurutzatzen diren datuak (NFE).	275
64. taula: Euskara gaitasunaren eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa Hego Euskal Herrian.	278
65. taula: Gaztelaniaren transmisioaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa Hego Euskal Herrian.	280
66. taula: Etxeko gaztelania erabileraren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa.	281
67. taula: Korrelazio koefizientea. Arabako udalerrietako euskara transmisioaren eta botoaren arteko harremana.	286
68. taula: Korrelazio koefizientea. Arabako udalerrietako etxeko euskara erabileraren eta botoaren arteko harremana.	287
69. taula: Korrelazio koefizientea. Bizkaiko udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak.	290
70. taula: Korrelazio koefizientea. Gipuzkoako udalerrietako euskara transmisioa eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak.	293
71. taula: Korrelazio koefizientea. Gipuzkoako udalerrietako etxeko euskara erabilera eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak.	294
72. taula: Korrelazio koefizientea: Nafarroako udalerrietako euskara transmisioaren eta etxeko euskara erabileraren eta botoaren arteko harremana.	298
73. taula: Laginketaren ezaugarriak.	306
74. taula: CISen galdetegia, 3154 zenbakia.	306
75. taula: Laginaren ezaugarriak.	307
76. taula: Elkarrizketak egin diren udalerrriak euskara indizearen eta lurraldearen arabera.	310
77. taula: Elkarrizketatuak soslai desberdinen arabera multzokatuta.	310
78. taula: Elkarrizketatuen soslaia eta udalerrria.	311
79. taula: Kode nagusien inguruko xehetasunak.	315
80. taula: Eredu idealak: euskal lerrotatze linguistikoaren sendotasuna hauteslearen ezaugarrien arabera (+ /-).	317
81. taula: Emaitzen atalaren laburpen taula.	321
82. taula: Hurbilpen desberdinen atzean dagoen eskema orokorra. Euskal nazionalismoaren faseak.	352
83. taula: Hiritartasun inposatua duten hautesle euskaldunen kasua.	382
84. taula: Euskal lerrotatze linguistiko elektoralaren eredu ideala.	408
E1. taula: 1980ko eta 2016ko hauteskunde autonomikoetako desfasea orekatzeko irizpideak.	460
E2. taula: 1983ko eta 2015eko hauteskundetako autonomikoetako desfasea orekatzeko hobetsitako irizpideak.	462
E3. taula: Datu soziolinguistikoak eta Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.	463
E4. taula: Datu elektoralak eta Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.	463
E5. taula: Analisi korrelatiboa egiteko erabili den lagina. Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.	463
E6. Taula: Datuak gurutzatu gabe gelditu diren udalerrriak.	463
E7. Taula: Hego Euskal Herriko udalerrriak.	470

AURKIBIDEA: Irudia

1. irudia: Atal metodologikoaren diseinua.....	22
2. irudia: Tesiaren hezurdura.....	25
3. irudia: Botoaren zentzua ulertzeko marko interpretatiboa.....	47
4. irudia: Jatorriaren arabera clivajea: bi eredu desberdin.....	63
5. irudia: Espainiar estatuko alderdi sistemak; “ohikoak” (Madril) eta “eszentrikoak” (EAE).....	67
6. irudia: Analisi elektoral eta clivaje periferikoa.....	68
7. irudia: EAEko alderdi sistema (1998).....	69
8. irudia: NFEko alderdi sistema (2015).....	70
9. irudia: EAEko alderdi sistema (1998): oinarrian bi partikularitasun nazional.....	72
10. irudia: Alderdi sisteman ordezkariak lortzen duten alderdiek jasotako botoak %tan.....	139
11. irudia: CISEk hobesten dituen irizpideak alderdi sistema bereizteko.....	140
12. irudia: Alderdi sistemen banatzeko proposatzen dugun irizpidea.....	144
13. irudia: Hego Euskal Herriko alderdi sistemak (1980-1983).....	150
14. irudia: Euskal alderdien bilakaera hauteskunde autonomikoetan (EAEko hauteskundeak).....	151
15. irudia: Espainiar alderdien bilakaera hauteskunde autonomikoetan (EAEko hauteskundeak).....	152
16. irudia: EHko biztanleriaren hazkundera (1950=100).....	154
17. irudia: Euskararen bilakaera azken mendeetan.....	157
18. irudia: Hizkuntza eredu bakoitzean ikasleen ehunekoak izandako bilakaera.....	167
19. irudia: Euskara eta gaztelania gaitasuna %tan Hego Euskal Herriko udalerrietan (2016).....	178
20. irudia: 2016an, euskal hiztunak lurraldearen eta adinaren arabera (%tan).....	179
21. irudia: Hizkuntza gaitasunaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011.....	181
22. irudia: Hizkuntza transmisioa lurraldearen arabera, 2016an (%tan).....	182
23. irudia: Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera Hego Euskal Herrian (2016).....	183
24. irudia: Euskara (ere) lehen hizkuntza duten herritarrek EAEko udalerrietan (%tan).....	184
25. irudia: Hizkuntza erabilera Hego Euskal Herrian (2016).....	185
26. irudia: Euskara erabileraren bilakaera lurraldearen arabera %tan (1989-2017).....	187
27. irudia: Euskara (ere) lehen hizkuntza duten herritarrek EAEko udalerrietan (%tan).....	188
28. irudia: EAEko eta NFEko hauteskunde autonomikoetako hautesle errolda.....	200
29. irudia: Hego Euskal Herriko barruti elektoralak hauteskunde autonomikoetan.....	201
30. irudia: Babes elektoral handiena lortu duten lehen eta bigarren alderdia, udalerrri mailan.....	237
31. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoral hautagai zerrendek jasotako boto kopuruaren arabera (2016).....	238
32. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	239
33. irudia: EAEko bloke elektoral nagusiek lortutako babes elektoral 1980-2016 bitartean (%tan).....	240
34. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoral %tan (2016).....	241
35. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	242
36. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoral %tan (2016).....	243
37. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	244
38. irudia: Espainiar ezkerrek jasotako babes elektoral %tan (2016).....	245
39. irudia: Espainiar ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	246
40. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoral %tan (2016).....	247
41. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	248
42. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoral %tan (2016).....	248
43. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).....	249
44. irudia: Babes gehien lortu duen alderdia eta bigarren babes handiena lortu duena udalerrri mailan.....	250
45. irudia: Alderdi abertzaleek jasotako babes elektoral hautagai zerrendek jasotako babes elektoralaren arabera (2015).....	251
46. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	252
47. irudia: NFEko bloke elektoral nagusiek lortutako babes elektoral 1983-2015 bitartean (%tan).....	253
48. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoral %tan (2015).....	254
49. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	254
50. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoral %tan (2015).....	255
51. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	256
52. irudia: Espainiar ezkerrek jasotako babes elektoral %tan (2015).....	257
53. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	257
54. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoral %tan (2015).....	258
55. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	259
56. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoral %tan (2015).....	260
57. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).....	260
58. irudia: Irudi bidezko analisi korrelatiboaren adibidea.....	272
59. irudia: Lerrotatze linguistiko elektoral hauteskunde autonomikoetan: Madril, Bartzelona, Coruña eta Bilboko kasuak, 2015.....	276

60. irudia: Hizkuntza gaitasunaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko harremana Hego Euskal Herriko udalerrietan.	278
61. irudia: Euskararen transmisioak eta etxeko euskararen erabilerak euskal boto abertzalearekin duen harremana; Azpeitiako eta Tuterako kasuak.	280
62. irudia: Etxeko euskara erabileraren eta euskal alderdiek jasotzen duten babes elektoralaren arteko lotura Bizkaiko udalerrietan.	283
63. irudia: 2001ean Etxeko euskara erabilera %90 baino handiagoa duten udalerrietan euskal alderdiek lortu izan duten babes elektorala.	284
64. irudia: Arabako udalerrietako euskara gaitasuna eta alderdi abertzaleek jasotako babes elektorala %etan (2016).	285
65. irudia: Arabako udalerrietako etxeko euskara erabileraren eta euskal botoaren bilakaera (1994-2016).	288
66. irudia: Bizkaiko udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektorala %tan (2016).	289
67. irudia: Bizkaiko udalerrak. Euskal eskuinak jasotako babes elektorala eta euskara gaitasuna.	291
68. irudia: Bizkaiko udalerrak. Euskal eskuinak jasotako babes elektorala eta etxeko euskara transmisioa.	292
69. irudia: Gipuzkoako udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdiek jasotako babes elektorala %tan (2016).	292
70. irudia: Udalerri bateko euskara transmisioaren eta boto espainiarraren bilakaera (1991-2016).	294
71. irudia: Etxeko euskara erabilera eta ezkerreko alderdiak, euskaldunak eta espainiarrak.	295
72. irudia: Etxeko euskara erabilera eta eskuineko alderdiak, euskaldunak eta espainiarrak.	295
73. irudia: Euskara gaitasuna eta euskal botoa (2015).	297
74. irudia: Euskara gaitasunaren eta euskal botoaren bilakaera (1994-2015).	297
75. irudia: Euskal saretze bertikalaren oinarritzko hiru geruzak.	322
76. irudia: Hauteskunde autonomikoetan erreproduzitzen den gurpil zoroa.	381
77. irudia: Euskal lerrokatze linguistiko elektorala. Sendotasuna eta dinamikotasuna.	423
78. irudia: Euskal saretze bertikala.	425
79. irudia: Euskal lerrokatze linguistiko elektorala interpretatzeko eskema.	428
E1. irudia: Kode zuhaitza.	467
E2. irudia: Hego Euskal Herriko udalerrak.	469

ABIAPUNTUA

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralala da lan honen ikerketa objektua. Hasierako asmoa zen aipatutako lerrokatzea bere osotasunean aztertzea. Alabaina, azkenean erabaki dut ikerketa Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen barrutira mugatzea bi arrazoirengatik: batetik, ikerketa honek zituen baliabideak mugatuak zirelako; eta, bestetik, Hego eta Ipar Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko eta elektoralala osotasunean aztertzeko zailtasunak zeudelako, bereziki datu iturri amankomunen faltagatik. Alde horretatik, bi helburu ditu Hego Euskal Herriko euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko azterketa honek: bata, abertzale bozkatzen duten euskal hiztunek beren portaera elektoralari ematen dioten zentzua aztertzea; eta bestea, azterketa horretatik abiatuta soziologia modernoak ertzetako ikerketa objektuak (kasu honetan, estatu gabeko nazioak) azaltzekoan dituen mugen aurrean, proposamen teoriko eta epistemiko alternatiboa aurkeztea. Azkenerako ikerketa aipatu berri diren bi helburu horien inguruan zurkaiztu bada ere, luzea izan da horra iritsi arteko bidea. Horregatik, ikerketa honen hastapenak eta ikergaiaren interesa zehazten dira aurrena.

Euskaldun gisa nituen kezkak argitzeko asmoz eman nuen izena 2014/2015 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen zuen *Euskal Nazionalismoa XXI. Mendean* masterrean. Benetan aberasgarria izan zen Leioan egin nuen urte hura. Bertan, euskal ikerketetan erreferente diren hainbat ikertzaile aurrez aurre ezagutzeko parada izan nuen, besteak beste, doktore tesi honen zuzendari Eguzki Urteaga. Bere kasuan, hauteskunde soziologiaren inguruan eman zuen ikastaroa. Izan ere, euskal alderdi politikoen bilakaera elektoralala aztertzen aritu da azken hamarkada hauetan (Urteaga, 2007; 2020). Ikastaro horietako batean proposatu zidan ikerketa egitea euskararen eta boto abertzalearen inguruan. Aurretiaz, euskararen errealitate soziolinguistikoaren inguruan hainbat ikerketa eginak zituen (Urteaga, 2004; 2006; 2019). Horrela, iruditzen zitzaien interesgarria izan zitekeela bi ikerlerroak uztartu eta euskal lerrokatze linguistiko elektoralala aztertzea. Masterrean hasi nintzenean ez nuen buruan gisa honetako proiektu batean murgiltzea. Alabaina, bitan pentsatu eta gero, proposamenari baiezkoa eman nion arrazoi sinple batengatik: sarritan soziologian askatu gabe dauden korapilo nagusiak ezkututzen dira naturalizatuta ditugun ekintzen atzean. Nire kasuan euskararen eta boto abertzalearen arteko harremana modu naturalean bizi nuen. Horregatik, iruditu zitzaidan ikerketa interesgarria izan zitekeela. Edonola ere, ikerketaren inguruan izan dezakedan interes pertsonaletik haratago, ikerketa honek bi modutara erantzuten dio gizartearen interes orokorrari.

Batetik, lan hau kokatzen da *Electoral Studies* edota Ikerketa Elektoral gisa ezagutzen den diziplinarteko esparru akademikoan. Jakina da sistema demokratikoetan hiritarrek beren borondate politikoa adierazteko duten tresna nagusia hauteskundeak direla. Are gehiago, borondate nazionala da estatu-nazioa antolaketa politiko gisa legitimatzen duen ideia. Horregatik guztiagatik, sistema demokratikoetan gizarte osoari eragiten dio hauteskundeen gaiak. Arrazoi horregatik, hainbat agentek interes handia erakutsi izan dute hautesleen portaera elektoralaren gaineko ikerketen inguruan. Horren erakusle da Soziologia eta Politika Zientzien inguruko mundu mailako aldizkari entzutetsuenetan Ikerketa Elektoralek duten presentzia.² XX. mendean zehar asko izan dira ikerketa elektoralak aztertzeaz arduratu diren ikertzaileak, eta horietako batzuen testuak jada klasikoak dira Soziologiaren eta Zientzia Politikoen ikerketa esparruan (Lipset eta Rokkan, 2012 [1967]). Ondorioz, ez da harritzekoa gure aurretik beste batzuk ere aritu izana Hego Euskal Herriko hautesleen portaera elektoralara aztertzen (Llera, 1985; Linz, 1986; Ruiz Olabuenaga et al., 1998). Horien artean daude euskaraz argitaratu duten zenbait euskal ikerlariren lanak (Larzábal, 2015 [1974]; Harluxeta et al., 1979; M. Aizpuru, 2010; Alkorta, 2016). Horietan guztietan, ordea, zeharka aipatzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaia. Intuizio handiko artikulua solteetatik haratago (Basterretxea, 1980; Alberó, 2005), ez dut aurkitu lan hau egiteko orduan ikerketa objektu gisa euskal lerrokatze linguistiko elektoralara duen monografiko edo ikerketa sakonik. Gauzak horrela, ikerketa hau nire ustez ekarpen garrantzitsua da Hego Euskal Herriko hautesleen portaera elektoralaren inguruan ezagutza osoagoa izateko bidean. Edonola ere, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko azterketak duen potentziala ez da mugatzen Ikerketa Elektoralen barrutira. Aitzitik, begirada finduz gero, aukera eskaintzen du diseinu egoki baten bidez pentsamendu modernoaren oinarritzko premisak auzitan jartzeko. Aurreko guztia gutxietsi gabe, horretan datza ikerketa honen balio erantsia.

Lan honetan esaten denean pentsamendu modernoaren oinarritzko premisak auzitan jarri nahi direla, besteak beste, erreferentzia egin nahi zaio filosofia modernoaren aitabitxi den Descartesek proposatzen duen gogoaren eta gorputzaren arteko bereizketari. Metaerrelato honen gainean oinarritzen da XVII. mendetik aurrera garatu den Europa mendebaldeko zientziagintza modernoa, eta ondorioz, berebizikoa da azken

² *American Journal of Political Science* bezalako aldizkari entzutetsuan adibidez, sarri samar argitaratzen dituzte Ikerketa Elektoralen inguruko argitalpenak. Argitaratzen den ale bakoitzeko artikulua bat edo bi izaten dira ikerketa elektoralen ingurukoa. Era berean, badira aldizkariak soilik ikerketa elektoralak argitaratzen dituztenak. Horietan ezagunenetakoa da *Electoral Studies* aldizkaria. Azken honen kasuan, ia urtero argitaratzen da artikuluren bat euskal kasuari erreferentzia egiten diona. Alabaina, ia beti atzerriko ikertzaileak dira euskal kasuaren inguruan hizketan dihardutenak (Rivero, 2015; Ansolabehere eta Puy, 2018; Superti, 2020).

horrek Soziologia modernoan utzi duen arrastoa. Ikerketa honen helburua ez da Soziologia gutxiatea jarduera zientifiko gisa. Aitzitik, pentsamendu moderno auzitan jartzearekin lortu nahi dena da soziologia begirada modernotik egiteak dituen muga epistemikoak azpimarratu eta Gizarte Zientziak egiteko modu berriei bidea zabaltzea (Wallerstein, 2006). Lan honetan euskal soziologia postmodernoa aldarrikatu nahi da, begirada modernoak “ertzeko” kasuak aztertzeke orduan gutxien duen alteritate epistemikoa hizpide hartuta. Honela laburtzen du Immanuel Wallersteinek XXI. mendean Gizarte Zientziek esku artean duten erronka:

¿Qué podemos concluir entonces acerca de los posibles pasos que podrían darse para “abrir la ciencia social”? No hay ningún plano fácilmente accesible en base al cual podamos decretar una reorganización de las estructuras de conocimiento. Lo que nos interesa más bien es alentar la discusión colectiva y hacer algunas sugerencias sobre caminos por los cuales quizá se podría llegar a soluciones. (...) hay varias dimensiones importantes que merecen debates y análisis más completos. Se trata de: 1) las implicaciones de rechazar la distinción ontológica entre los seres humanos y la naturaleza, distinción que forma parte del pensamiento moderno por lo menos desde Descartes; 2) las implicaciones de negarse a considerar al estado como origen de las únicas fronteras posibles y/o primarias dentro de las cuales la acción social ocurre y debe ser analizada; 3) las implicaciones de aceptar la tensión interminable entre el uno y los muchos, lo universal y lo particular, como un rasgo permanente de la sociedad humana y no como un anacronismo; 4) el tipo de objetividad que es plausible a la luz de las premisas presupuestas por la ciencia. (Wallerstein, 2006, 83-84. or.).

Lan honek errotik heldu nahi dio Gizarte Zientzien inguruan Wallersteinek mahaigaineratzen duen problematikari. Horretarako, funtsezkoa da Gizarte Zientzien eraikuntza historikoa nola gertatu den kontuan izatea. Soziologia modernoari dagokionez, eskuliburu gehienek jarraitzen duten ereduen arabera, soziologiak hiru aitabitxi ditu –Marx, Durkheim eta Weber–. Horien artean Durkheim izan zen soziologia jarduera zientifiko autonomo gisa akademian txertatu zuena. Hain zuzen ere, prozesu horretan mugarri izan zen 1897an idatzi zuen *Suizidioa* liburua.³ Horregatik, lan hori hartzen da ondorengo lerroetan hizpide euskal soziologia postmodernoren aldarria egiten duen ikerketa honen xedea zein den argitasunez azaltzeko. Kasu honetan, hauxe da suizidioaren inguruko lanetik interesatzen zaiguna: Durkheimek ikerketa objektuak aukeratzeko orduan erabiltzen duen estrategia.

Ikertzaile frantziarrak ikerketa objektu moduan suizidioaren gaia hartu bazuen, ez zen izan bizitzan zehar ikerlerro hori aztertzeke bokazio berezia izan zuelako. Aitzitik, hautu hori egin bazuen izan zen ikerketa objektu horrek aukera ematen ziolako auzitan jartzeko giza portaeraren dimentsio sozialaren inguruan akademiak ordura arte zituen usteak.⁴

³ Durkheimek (1967 [1893]; 1997 [1895]) aurretik, beste bi lan mugarri idatzi zituen kontuan izan beharrekoak suizidioaren inguruko lana ulertzeko: *Les Règles de la méthode sociologique* (1895) eta *De la division du travail social* (1893).

⁴ Bere arabera soziologia modan egon arren, XIX. mende amaieran katramilatuta zegoen eztabaida filosofikoetan, eta ondorioz, orokortasunetan lurruntzen zen. Horren aurrean, Durkheimek proposatzen zuen eztabaida filosofiko horiek lekutzeko gizarte gertakari konkretuak aztertzea: “Las ciencias progresan

Honakoa zen Durkheimen oinarritzko ideia: zientziagintza modernoa osatzen duten diziplina guztiek beren ikerketa objektua dutela, eta psikologiak giza portaera indibiduala ikertzea xede zuen moduan, gizarte gertakariak aztertu behar dituela soziologiak.⁵ Durkheimek uste zuen giza ekintzarik indibidualena ere begirada sozialaz osatu behar zela. Alabaina, nola frogatu hori guztia? Durkheim jabetu zen hipotesi hori frogatzeko suizidioaren auzia ikerketa objektu gisa ezin hobea zela.⁶ Izan ere, norbere buruaz beste egitea da gizakiak hartu dezakeen erabaki indibidual muturrekoena, lehen begiratuan, antisozialena. Gauzak horrela, giza ekintza antisozialenak ere dimentsio soziala zuela erakusten bazuen, frogatua gelditzen zen soziologia jarduera zientifiko gisa beharrezkoa zela. Ondorioz, legitimatuta gelditzen zen soziologia akademian txertatzeko saiakera. Esan beharrik ez da Durkheimen ikerketa ikuspuntu askotatik maisu lan bat dela. Beste kontu bat da lanean zehar hobesten duen begirada modernoarekin eta korrante funtzionalistarekin erabat ados egotea.

Ikerketa honetan, euskal soziologia postmodernoan justifikatzeko erabili nahi da Durkheimen soziologia modernoa justifikatzeko erabili zuen estrategia bera. Nola egin hori, ordea? Horretarako ezinbestekoa da ikerketa objektu egoki bat izatea eskuartean zeinaren bidez Immanuel Wallersteinek proposatzen dituen puntuak lantzea posible

gracias a la evolución de las cuestiones que constituyen su objeto de estudio. Se dice que avanzan cuando se descubren leyes ignoradas hasta entonces o cuando nuevos datos modifican la forma de plantear los problemas, aunque no se imponga una solución que pueda considerarse definitiva. Desgraciadamente, existe una razón que explica que la sociología no ofrezca ese espectáculo: no plantea problemas concretos. Aún no ha superado la era de las estructuras y las síntesis filosóficas. En vez de arrojar luz sobre una pequeña parcela del campo social, prefiere esas generalidades brillantes en las que se pasa revista a todas las cuestiones sin estudiar ninguna a fondo. (...) Esta obra ha sido concebida con ese espíritu. Si de entre todas las cuestiones que hemos tenido ocasión de estudiar a lo largo de nuestros años de docencia hemos escogido el suicidio para la presente publicación es porque nos ha parecido un ejemplo particularmente oportuno por su indeterminación; de ahí la necesidad de un trabajo previo para precisar bien sus límites. Lo que compensa esa actividad tan concentrada es el descubrimiento de auténticas leyes que demuestran mejor que cualquier argumentación dialéctica las posibilidades de la sociología” (Durkheim, 2012 [1897], 7-8. or.).

⁵ Bere arabera bi diziplina zientifiko desberdin dira soziologia eta psikologia: “El método sociológico, tal como lo practicamos nosotros, se basa en el siguiente principio fundamental: los hechos sociales deben estudiarse como objetos, es decir, como realidades externas al individuo. No hay precepto más demostrado y eso que no es, precisamente, el más fundamental. La sociología, para existir, ha de tener un objeto propio, una realidad propia que no derive de otras ciencias. Si no hay nada real fuera de las conciencias particulares se desvanece por falta de materia propia. Lo único observable serían entonces los estados mentales del individuo que pertenecen al campo de la psicología.” (Durkheim, 2012, 9. or.).

⁶ Honatx bere hitzak: “A nosotros, en cambio, lo que nos parece difícil es evitar que, de cada página de este libro, se desprenda la impresión de que el individuo se ve dominado por una realidad moral que lo supera: la realidad colectiva. Cuando vemos que cada pueblo tiene una tasa de suicidios propia; que esta cifra es más constante que la de la mortalidad general; que si evoluciona, lo hace siguiendo un coeficiente de aceleración que es peculiar de cada sociedad; que las variaciones por las que atraviesa en los diferentes momentos del día, del mes, del año, no hacen más que reproducir el ritmo de la vida social; cuando se comprueba que el matrimonio, el divorcio, la familia, la sociedad religiosa, el ejército, etc., influyen sobre la tasa de suicidios según leyes definidas que, en ocasiones, pueden expresarse numéricamente, se renunciará a considerar a esos estados e instituciones, imaginarias fórmulas ideológicas sin virtud ni eficacia. Por el contrario, se tendrá la sensación de que se trata de fuerzas reales muy vivas y activas que demuestran que no dependen del individuo por la forma en que lo determinan. Cuando el individuo se convierte en un elemento de la combinación de fuerzas, estas acaban por imponerse a medida que se van formando. De ahí que la sociología pueda y deba ser objetiva, pues investiga realidades tan definidas y consistentes como las que son objeto de estudio por parte del psicólogo y el biólogo” (Durkheim, 2012, 10. or.).

den. Lan honetan uste da eginkizun horretarako, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak ikerketa objektu gisa posizio pribilegiatuan aurkitzen dela. Izan ere, bere existentziak aukera ematen du pentsamendu modernoan oinarritzen den soziologiak hobesten dituen premisak auzitan jartzeko, bereziki gorputzaren (*etnia / hizkuntza / partikularra / sentimendua*) eta gogoaren (*zibilizazioa / botoa / unibertsala / arrazoia*) arteko harremanari dagokiona. Sinplea da logika: botoa ematea bada gizarte modernoetan hiritar zibilizatu baten giza ekintza politiko indibidual adierazgarriena, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren existentziak aukera zabaltzen du hauteslearen portaera elektoralak kulturak determinaturik dagoen ala ez aztertzeko. Horretarako, nahikoa da euskal alderdiei bozkatzen dieten euskal hiztunei beren portaera elektoralaren inguruan galdetzea.

Ikuspegi horretatik, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzerakoan kulturaren eta politikaren arteko harremana birformulatzeak hankaz gora jarriko luke egun Hego Euskal Herrian Ikerketa Elektoralak egiteko erabiltzen diren marko interpretatzailea. Izan ere, begirada modernoa hobesten du akademian hegemoniko den korronteak. Azken horrek bereizi egiten ditu hizkuntza –nazio etnikoa– eta botoa –nazio politikoa–. Horrela, estatu-nazioa hartzen da matrize espazial/tenporal gisa eta begirada horretatik ulertzen da printzipioz ez lukeela harremanik egon behar hizkuntzaren eta politikaren artean. Aldiz, bien arteko lotura gertatzen den kasuetan ikertzaileek ulertzen dute modernizazioaren aurkako erreakzioa dela. Hori argi eta garbi ikusten da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoak aztertzen dituzten ikerketa elektoraletan (Llera, 1985; Linz, 1986; Ruiz Olabuénaga et al., 1998). Kasu horietan, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzen da Espainiar estatu-nazioaren periferian gertatzen den anomalia gisa. Ikuspegi horretatik, ikertzaileek ulertzen dute Mendebaldean ikerketa objektu interesgarrienak direla estaturik gabeko nazioetan gertatzen diren lerrokatze linguistiko elektoralak, hala nola: Katalunia, Euskal Herria, Gales, Eskozia edota Galiziako kasuak (Martínez-Herrera eta Barceló, 2014; Pérez-Nievas eta Bonet, 2006). Horrelako fenomenoak aztertzerakoan, gehienera ere arreta jartzen dute Estatu plurinazionalak, adibidez: Belgika, Kanada, Suitza edota Hego Afrikako kasuetan (Lijphart, 1979). Alabaina, bada susmoa pizten duen elementu bat: ez da horren ohikoa galdetzea zergatik diren Madrilen eta Parisen hiritar guztiak frantses edo espainiar hiztunak eta frantziar edo espainiar alderdien boto emaileak. Zer dago isiltasun horren atzean, partikular izatearen eta unibertsaltasunaren arteko tentsioa agian? Beste horrenbeste gertatzen da Hego Euskal Herrian erdal hiztunen eta boto espainiarraren arteko erlazioaren inguruan. Horien artean ez al da gertatzen lerrokatze linguistiko elektoralik? Zein da Estatuak ikertzaileen marko kognitiboak baldintzatzerakoan

jokatzen duen papera? Ikusten den moduan, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan txirikordatzeko dira aurrez Wallersteinek proposatu dituen elementu guztiak, soziologia bide berrietara irekitzeko beharrezkoak zirenak. Hala, behin problema planteatu delarik, korapiloa askatzeko uste da interesgarriena protagonisten esperientzia sozialetik abiatzea dela.

Egiari zor, aipatutako problematikaz jabetu nintzen ikerketari ekin ostean, ez aurrez. Izan ere, hasieran ez nuen zalantzan jarri begirada modernoa. Solik atal teorikoa errealitate enpirikoarekin elkarriketan jarri nuenean jabetu nintzen bien artean desfasea zegoela. Desfase horrek honakoa jartzen zuen mahai gainean: teoria hegemonikoak ez zuen balio protagonisten esperientzia soziala osotasunean jasotzeko. Une horretan, bidegurutze batean aurkitu zen ikerketa. Bi aukera zeuden: batetik, marko interpretatzaile hegemonikoetatik kanpo gelditu ziren esperientzia sozialak teoria hegemonikoaren bidez azaltzen saiatzea, eta horretarako, esperientzia sozial horiek guztiak ahal zen moduan teoriara bihur-murriztu behar nituen; eta bigarren aukera zen teoriaren ahalmena erlatibizatzea eta arreta jartzea teoriak zituen hutsuneetan. Beste hitzetan esanda, begirada modernoak azaldu ezin zituen kasu horietatik abiatuta teoria guztia birpentsatzea. Horrek suposatzen zuen pentsamendu modernoari zuzenketa epistemikoa egitea. Zalantzak izan nituen hasiera batean. Izan ere, eskura nituen baliabideak, ezagutza eta denbora ikusita, bigarren aukera ez zen oso egingarria. Utopia bat zen, egikarizetik urrun. Alabaina, bigarren bidea egitea erabaki nuen, nahiz eta une horretan ez jakin ikerketa non eta nola amaituko nuen. Nekien bakarra zen bide zuzena hartu izanaren konbentzimendu osoa nuela.

Hala, honako galdera hauek sortu zitzaizkidan deskribatu dudana arazo edo problematika horren aurrean:

1. GALDERA: Harremanik badago euskara eta boto abertzalearen artean?
2. GALDERA: Harreman hori berdin bizi dute Hego Euskal Herriko hauteskundeetan abertzale bozkatzen duten euskal eledun guztiek?
3. GALDERA: Soziologia begirada modernoarekin egiteak ahalbidetzen du euskal lerrokatze linguistiko elektoralara osotasunean ulertzea?

Galdera horien aurrean, honako hipotesi hauek hobetsi nituen euskal lerrokatze linguistiko elektoralara azaltzeko orduan:

1. HIPOTESIA: Euskal lerrokatze linguistiko elektorala aztertze lehen baldintza da euskara eta euskal boto abertzalearen artean harremana egotea. Alde horretatik, ikerketa honen oinarritzko hipotesia da Hego Euskal Herrian euskal lerrokatze linguistikoa gertatzen dela. Beste modu batera esanda, euskara ezagutzeak, transmititzeak, egunerokoan erabiltzeak eta berarekiko jarrera positiboa izateak hautesleek euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko duten joera areagotzen duela.
2. HIPOTESIA: Lan honetan uste den arren euskararen erabilerak, transmisioak, ezagutzak eta berarekiko jarrera positiboa izateak euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko joera indartzen duela, desberdinak dira euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko dieten euskal hiztunek hizkuntzaren inguruan dituzten bizipen eta sentimenduak. Abiapuntu horretatik eratorri da ikerketa honen bigarren hipotesia: anitza da euskal hiztunek euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko beren portaerari ematen dioten zentzua.
3. HIPOTESIA: Aurrez aipatu da euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko dieten euskal hiztunek euskal lerrokatze elektorari ematen dioten zentzua anitza dela. Alde horretatik, ikerketa honetan proposatzen den hirugarren hipotesiaren arabera, akademian hegemoniko den begirada modernoaren bidez ezin da euskal lerrokatze linguistikoaren barne aniztasuna bere osotasunean ulertu. Behar epistemiko hori osatzen joateko proposatzen da aztergai den fenomeno soziala euskal pentsamendutik aztertzea.


Ikusten den moduan, ikerketa honen oinarritzko ideia da euskal lerrokatze linguistiko elektorala bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoa dela akademian hegemoniko den begirada modernoa gainditu eta errealitateari beste betaurreko batzuetatik begiratzea. Hipotesi hori baieztatzeko, ordea, ezinbestekoa da aurrez beste bi hipotesiak frogatzea.

Alde horretatik, metodologia mistoaren erabilera hobetsi da lehen eta bigarren hipotesiak frogatzeko. Kasu honetan, Bericategen planteatzen duen konbinazio sistema erabili da lanaren osaketan:

(...) se basa en la idea de que el resultado obtenido en una investigación que aplica el método A puede perfeccionar la implementación de algún componente o fase de la investigación realizada con el método B, logrando así incrementar la calidad de los resultados a obtener por este último. El resultado de A se emplea como input para potenciar B, cuyo output constituye la finalidad de la investigación. (Bericat, 1998, 108. or.).

Metodo kuantitatiboaren helburua da frogatzea euskararen eta euskal boto abertzalearen artean erlazio lineala dagoela. Horrela, bigarren fase batean aztertzen da euskal lerrokatze linguistikoaren parte diren elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzua. Ariketa horrek aukera ematen du euskal lerrokatze linguistikoaren aniztasuna barrutik ezagutzeko. Hori egitean asmoa da erakustea ezinezkoa dela, begirada modernotik eta estatu-nazioa matrize espazial eta tenporal gisa hartuta, euskal nazioan jatorria duen lerrokatze elektoralara bere osotasunean azaltzea.

1. irudia: Atal metodologikoaren diseinua.



Iturria: Egilea.

Egiturari dagokionez, sei atalek osatzen dute lan honen bizkarrezurra. Lehen atala osatzen du proposamen teoriko-epistemologikoak. Atal teorikoaren baitan erakusten da, ertzetako kasuak esplikatzeko, akademian hegemoniko diren marko teorikoak motz gelditzen direla. Eredu desberdinak aztertu ostean, ondorioztatzen da “ertzetako” kasu horiengan pentsamendu modernoan oinarritzen diren marko interpretatzaileek biolentzia epistemologikoa eragiten dutela. Funtsean honakoa da auzia: “ertzetako” kasuei subjektu izaera ukatzen die zentroak eta horrela objektu bihurtzen dituzte. Horren aurrean, marko teoriko berria proposatzen da “ertzetako” kasuak erdigunera ekarri eta fenomeno bere osotasunean azaltzen saiatzen dena. Horregatik zeharkatzen du goitik behera hirugarren hipotesiak lan guztia. Hori guztia aurreneko bi kapitulu egiten da.

Bigarren atalean aztertzen dira Hego Euskal Herrian gertatzen diren lerrokatze linguistiko elektoralak. Hiru kapitulu banatu dira horretarako. Hirugarren kapitulu deskribatzen da zeintzuk diren Hego Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak. Laugarren kapitulu, beste horrenbeste egiten da errealitate elektoralarekin. Horrela, bosgarren kapitulu bi aldagaiak gurutzatzen dira: hizkuntzarena eta portaera elektoralarena. Alde horretatik, datuek erakutsi dute Hego

Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: euskalduna eta espainiarra.

Hirugarren atalean barnetik aztertzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoral. Alde horretatik, beste bi kapitulu bereizten dira: metodologia (seigarren kapitulua) eta emaitzak (zazpigarren kapitulua) izenekoak. Seigarren kapituluan, analisisa egiteko erabiltzen diren datu iturriak, lagina eta tresnak aipatzen dira. Zazpigarren kapituluan, berriz, analisi kualitatiboaren emaitzak aurkezten dira. Emaitzak beste bi puntutan banatzen dira. Aurrena egiten dena da lerrokatzea eragiten duen saretze bertikalaren barne egitura nolakoa den deskribatzea; bigarren puntuan, berriz, aztergai nagusia da saretze bertikal horrek elkarrizketatuen portaera elektoralean duen eragina aztertzea.

Laugarren atalean, berriz, lanaren helburuak eta hipotesiak zein ziren gogoratu eta horien inguruko ondorioak aurkezten dira. Azkenik, ondorio horietatik abiatuta banan banan aipatzen da zeintzuk diren aurrera begira sortu diren ikerlerro eta galdera berriak.

Bibliografiak eta eranskinak osatzen dute bosgarren eta seigarren atala.

2. irudia: Tesiaren hezurdura.

Tesia

ABIAPUNTUA

LEHEN ATALA

Proposamen teoriko-epistemologikoa euskal lerrokatze linguistiko elektorala azaltzeko

1. EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA AZALTZEKO MARKO TEORIKORIK AURKITU EZINDA

1.1 Portaera elektorala azaltzeko eredu desberdinak

1.2 Eredu soziologikoaren mugak ertzeko kasuak azaltzeko: begirada modernoaz auzitan

2. ERTZEKO KASUAK ARAZO BAINO GEHIAGO BIDE ERAKUSLE: EUSKAL NAZIO ZAPALDUAREN EREDUA

2.1 Ikerketa postmodernoa: ertzetatik ezagutza(k) sortzen

2.2 Euskal pentsamendu deszibilizatzailea: ezagutza iturri eta proiektu askatzaile gisa

BIGARREN ATALA

Lerrokatze linguistiko elektoralak Hego Euskal Herrian

3. EUSKARAREN BILAKAERA JURIDIKO ETA SOZIOLINGUISTIKOA

3.1 Euskararen inguruko legedia: hizkuntza bat hainbat errealitate

3.2 Euskara, mendeko hizkuntza bere lurraldean

3.3 Hausnarketa euskararen mendeko egoeraren inguruan

4. HEGO EUSKAL HERRIKO SISTEMA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK

4.1 Hauteskunde autonomikoetako legediaren oinarriko elementuak

4.2 Hauteskunde autonomikoetako emaitza elektoralean azterketa

4.3 Hausnarketa Hego Euskal Herriko sistema politikoaren inguruan

5. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKO ETA ELEKTORALAREN ARTEKO HARREMANA

5.1 Metodologia

5.2 Emaitzak

5.3 Irekidura

HIRUGARREN ATALA

Euskal lerrokatze linguistiko elektorala Hego Euskal Herrian

6. METODOLOGIA

6.1 Datuak ekoizteko teknikak eta laginketa

6.2 Datuen analisisa

7. EMAITZAK

7.1 Non gorpuzten da euskal lerrokatze linguistiko elektorala?

7.2 Zergatik bozkutzen diete euskal hiztunek euskal alderdiei?

LAUGARREN ATALA

Ondorioak

BOSGARREN ATALA

Bibliografia eta datu iturriak

SEIGARREN ATALA

Eranskinak

Iturria: Egilea.

LEHEN ATALA: PROPOSAMEN TEORIKO- EPISTEMOLOGIKOA EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA AZALTZEKO

Lanketa prozesu luze baten emaitza gisa ulertu behar da jarraian aurkezten den proposamen teoriko-epistemologikoa. Etengabe joan da azalberritzen. Diseinuari dagokionez, hasierako ideia zen eredu deduktiboa jarraitzea. Alegia, ikerketa objektuaren inguruan dagoen bibliografia nagusia jaso, landu, eztabaidatu eta ikerketarako hobetsitako eredu teorikoa errealitatearekin kontrastatzea. Alabaina, datu empirikoak atal teorikoarekin kontrastatzerakoan ikusi da desfasea gertatzen dela errealitatearen eta teoriaren artean. Beste modu batera esanda, jabetu naiz begirada modernoan oinarritzen den eredu teorikoa ez dela gai euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren barne aniztasuna osotasunean azaltzeko. Datuak alderatzean ikusten da unibertsaltzat nuen teoriak bere mugak dituela. Horregatik guztiagatik, ikerketaren diseinua egokituz joan da ikerketak aurrera egin ahala.

Azkenerrako, honako irizpide hauei jarraituz osatu da atal teorikoa: behetik gora pentsatu dira kategoriak; ikerketa egin da aztergai den fenomenoaren inguruan ahalik eta esperientzia sozial gehiena barne biltzeko asmoarekin; eta, hirugarrenik, kategorია horiek osatzerakoan, arreta berezia jarri da botere harreman asimetrikoetan. Hori guztia egin da posizio kokatu batetik, hau da, euskal pentsamendutik.

Gauzak horrela, proposamen honek bi prozesu barne biltzen ditu bere baitan: batetik, begirada modernoaren, eta beraz, marko teoriko hegemonikoaren deseraketa; eta, bestetik, marko teoriko berriaren eraketa euskal pentsamendutik abiatuta.

1. EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA AZALTZEKO MARKO TEORIKORIK AURKITU EZINDA

Lehen kapitulu honen helburua da ikergaira lehen hurbilpena egitea. Alde horretatik, hurbilpen honen bidez erakutsi nahi da akademian nagusi den nazioaren gaineko begirada modernoak zailtasunak dituela euskal lerrokatze linguistiko elektoralak bere osotasunean azaltzeko. Horren aurrean proposatzen da nazio zapalduaren begiradatik aztertzea euskal lerrokatze linguistiko elektoralak.

Gauzak horrela, bi azpikapitulutan banatzen da lehen kapitulua: lehen azpikapituluan aurkezten da zeintzuk diren hautesleen portaera elektoralak aztertzeko akademian erreferente diren ereduak; bigarren azpikapituluan, berriz, begirada modernoa dela eta, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzeko eredu soziologikoak dituen mugak azaltzen dira.

1.1 Portaera elektoralak azaltzeko eredu desberdinak

XX. mende hasierakoak dira hautesleen portaera elektoralak aztertzen duten lehen ikerketak. Alde horretatik, historiografia egiterakoan ia aho batez onartzen da ikerlerro horren baitan mugarrak dela Siegfried geografo frantziarrak 1913an idatzitako *Tableau politique de la France de l'Ouest sous la Troisième République* liburua. Gauzak horrela, mende pasako ibilbidea eta ezagutza metatua du hauteslearen portaera elektoralak aztertzea helburu duen ikerlerroak.

Lehen lanak XX. mende hasierakoak diren arren, hautesleen portaera elektoralak azaltzea helburu duten ikerketa garaikideen loraldia hamarkada batzuk geroago iritsi zen, zehazki, II. Mundu Gerra osteko testuinguruan. Urte horietan, AEBko eta Europa mendebaldeko demokrazia liberalak egonkortu eta munduko beste herrialdeetara zabaldu ziren. Sistema politiko horren garapenarekin batera zabaldu zen hauteskundeak eta hautesleen portaera elektoralaren inguruko interesa. Honela laburbiltzen dute testuinguru hura Campbell eta besteek 1960an idatzi zuten *The American Voter* liburuaren sarreran:

Indeed, anyone who reads the literature of voting research must be impressed by its proliferation in recent years. The report of one major study lists 209 hypotheses about voting in political election, which recent work has tended to confirm. Moreover, voting has come to be of interest to widely different fields. (Campbell et al., 1980, 3. or.).

Horregatik, ez da kasualitatea 1940tik 1960ko hamarkada bitartean sortu izana gaur egun hautesleen portaera elektorala azaltzeko akademian bereizten diren hiru hurbilpen edo eredu nagusiak (Kuschick, 2004; Montecinos, 2007; LeDuc eta Niemi, 2014): (1) eredu soziologikoa, (2) eredu ekonomikoa eta (3) eredu psikologikoa edo psikosoziala. Aurrera jarraitu aurretik, kontuan izan behar da sailkapen eredu horiek nagusiki AEBetan dutela jatorria. Hori horrela izanik, eredu horietatik interesatzen dena ez da horrenbeste aztergai konkretuaren inguruan lortutako emaitzak, portaera elektorala azaltzeko hobesten duten begiradaren atzean dagoen eduki teorikoa baizik.

1. taula: Hautesleen portaera elektorala azaltzeko ereduak, oinarrizko lanak eta ideia nagusiak.

	Oinarrizko lanak	Idea nagusia
Eredu Soziologikoa	Lazarsfeld, Berelson eta Gaudet (1944)	Posizio sozialak baldintzatzen du botoa. Ondorioz, lerrokatze elektoralek gertatzen dira hauteskundeetan.
	Lipset eta Rokkan (1967)	Alderdi sistema egituratzeko gaitasuna duten gatazkek eragiten dituzte lerrokatze elektoralek indartsuenak.
	Bartolini eta Mair (1990)	Clivajea eratzeko gaitasuna duten gatazka sozialak dira alderdi sistema egituratzeko ahalmena dutenak.
Eredu Ekonomikoa	Downs (1957)	Egoista eta indibiduala da gizakia. Hori dela eta, interesen arabera kalkulatu razionalak determinatzen du hauteslearen portaera elektorala.
Eredu Psikosoziala	Campbell eta besteak (1960)	Alderdi politikokoekiko identifikazioa da boto portaera baldintzatzen duen aldagaia.

Iturria: LeDuc eta Niemi (2014) eta Montecinos (2007). Egileak moldatua.

Taulan agertzen den moduan, eredu bakoitzak premisa batzuk hobesten ditu giza portaeraren inguruan, eta ondorioz, modu berekia du mundua ulertzeko. Gauzak horrela, eredu bakoitzean mugarri izan diren lanak aztertzen dira jarraian sailkapen horretan argi pixka bat jartzeko. Hiru ereduetan aurrena hurbilpen soziologikoa da eta, beraz, bera aztertzen da lehendabizi.

1.1.1 Eredu Soziologikoa: gizarte egitura eta botoa

1.1.1.1 Lazarsfeld eta besteak: posizio soziala eta botoa

Eredu soziologikoaren baitan lan aipagarriarik bada, hori *The People's Choice: how the voter makes up his mind in a presidential campaign* liburua da, Paul F. Lazarsfeld, Bernard Berelson eta Hazel Gaudetek 1944an argitaratua.

Hainbat ikuspegitatik da berritzailea Columbiako Eskola moduan ezagutzen den ikertzaile talde horrek argitaratutako lana; besteak beste, arlo metodologikoari dagokionez. Ikerketa honen helburuetako bat da kanpainan zehar iritzi emaile gisa jokatzeko duten agenteek –adibidez, irrati eta egunkari/aldizkariak– hauteslearen portaera elektorala baldintzatzeko duten gaitasuna zenbatekoa den aztertzea. Alabaina, nola ikertu hori? Horretarako proposatu zuten “*repeated interviewing of the same people*” moduan izendatu zuten teknika erabiltzea (Lazarsfeld et al., 1948 [1944], 2. or.). Ikerketa honek ekarri zuen berrikuntza ulertzeko garrantzitsua da ordura arte hauteskunde soziologiak egin zuen ibilbidea kontuan izatea.

Aurrez aipatu bezala, XX. mende hasieran argitaratu ziren hautesleen portaera elektorala aztertu zuten lehen ikerketak. Lazarsfeld eta gainerakoei, ordea, hasierako ikerketa horien planteamendu metodologikoak hanka motz gelditzen zitzaizkien beren asmoak aurrera eramateko. Beren hitzetan, “they were useful for the study of the geographical distribution of the political temper of the people and not much else” (Lazarsfeld et al., 1948, 1. or.). Egia da, eurek aitortzen dutela ondorengo hamarkadetan geografia elektoralean baitan aurrerapenak egin zirela. Esaterako, ikerketa elektoralean erreferente ziren Chicagoko Unibertsitateko ikertzaileak, botoaren gaineko analisi ekologikoa egiten hasi ziren hauteskundeetako emaitza elektoralek zentsuetatik lortutako datuekin gurutzatuz. Horrela, datu agregatu bidez posible izan zen aurreneko aldiz erlijioaren, maila sozialaren edota jatorri nazionalaren eta botoaren arteko harremana aztertzea. Edonola ere, teknika horiek guztiek ez zuten balio kanpainan zehar iritzi emaile gisa jokatzeko duten agenteek hauteslearen portaera elektoralean zer nolako eragina duten aztertzea. Alde horretatik, datu indibidualetan oinarritutako inkestak izan ziren Lazarsfeld eta besteen asmoak bideragarri izatea ahalbidetu zutenak.

Egungo politikariak bezala ordukoek ere jakin-mina izaten zuten hautesleen boto asmoak ezagutzeko hauteskundeak egin aurretik. Jakin-min hori asetzeko eta, bide batez, iritzi publikoan eragiteko asmoarekin diseinatu zituzten ikertzaileek lehendabiziko hauteskunde aurreko inkestak. Sinplea da metodo honek eskatzen duen lan prozedura. Laginketaren bidez unibertsoaren zati adierazgarria zedarrizten da eta lagin horren parte diren elkarrizketatuei galdetzen zaie ea zein alderdiri bozkatuko dieten ondorengo hauteskundeetan. Horrela lortzen den argazkia suposatzen da hauteskundeetan gerta daitekeenaren aurreikuspena dela. Teknika horren bitartez posible da iritzi publikoaren argazkia marraztea eta denboraren ardatzean nola aldatzen den aztertzea. Ildo horretatik, teknika honek aukera ematen du ezaugarri

soziodemografikoen arabera boto emaileen joera nola aldatzen den aztertzeke. Izan ere, elkarrizketatuen boto portaera ezagutzeaz gain, inkesta horretan elkarrizketatuen datu soziodemografikoak ere jasotzen dira.

Columbiako ikertzaile taldea hasieratik jabetu zen teknika honen balioaz, eta azken honek beren ikerketarako eskaintzen zituen aukerak nola erabili hausnartzeari ekin zioten. Hala ere, azken korapiloa askatzea falta zitzaien. Honakoa zen eskuartean zuten arazoa: inkesta batetik bestera lagina aldatzean ezinezkoa egiten zitzaien hautesle berberarengan kanpaina elektoralak denboraren bilakaeran zuen eragina aztertzea. Hain zuzen ere, horretan datza Lazarsfeld eta bere taldeak egindako ekarpenaren berritasuna: proposatzen dutena da pertsona berberen gaineko jarraipena egitea kanpaina elektoralak hautesleen portaeran joera aldaketarik eragiten duen aztertzeke.

Never before has the development of the person's vote been traced throughout a political campaign, from his pre-convention attitudes through his reactions to the barrage of propaganda which constitutes the campaign proper to his actual vote on Election Day. Only by such an investigation can we establish more closely the roles of the several influences upon vote (and other political attitudes), from both predispositions and stimuli. (Lazarsfeld et al., 1948, 2. or.).

Gauzak horrela, Lazarsfeldek eta gainerako taldekideek inkesta prestatu zuten AEBko Erie (Ohio) konderrirako. Laginaren tamainari dagokionez, 3.000 hauteslek hartu zuten parte ikerketan. Asmoa zen 1940ko maiatzetik azarora bitartean elkarrizketatuen iritzi politikoen bilakaeraren inguruan jarraipena egitea. Alde horretatik, laginketa estratifikatuaren bidez saiatu ziren laginak ahalik eta antzekotasun handiena izaten aztergai zuten unibertsoarekin. Horretarako kontuan hartu zituzten parte hartzaileen adina, sexua, bizitokia eta gainerako beste aldagai batzuk. Lagin hori lau multzotan banatu zuten eta multzo horietatik batek bakarrik –600 elkarrizketatuk– erantzun zuen galdetegia hilerok. Gogoan izan behar da ikerketak zazpi hilabete iraun zuela. Gainerako multzoak, kontrol talde gisa erabili ziren hilabete jakinetan (Lazarsfeld et al., 1948, 4. or.). Laburbilduz, talde honek proposatutako metodologia erabat berritzailea izan zen, ordura arte inoiz egin gabekoa izateaz gain, bestela egingarria izango ez zen ikerketa egitea ahalbidetu zuelako.

Alabaina, ikerketaren aberastasuna ez da metodologiara mugatzen. Aitzitik, azken hori bitarteko bat besterik ez da ikerketaren oinarritzko helburua erdiesteko. Lan honetan pauso bat haratago ematen da ordura arteko ikerketekin alderatuz. Izan ere, ikerketa honen helburua ez da soilik deskriptiboa, alegia, Ohioko konderra batean 1940ko maiatzetik azarora zehar iraun zuen hauteskunde kanpainak boto emaileen iritzian izan zuen eragina ezagutzea. Ikerketa honen ekarpena da Ohioko kasu partikular horretatik

abiatuta, emaitza horien atzean ezkututzen den eztabaida unibertsalari ekarpena egitea, hau da, giza ekintzaren izaera ezagutzea.

Ikerketa gehienek ikerketa objektu konkretu bat hautatzen dute bere bitartez soziologian askatu gabe dagoen korapiloren baten inguruan gogoeta egiteko. Lan honen kasuan helburu nagusia da hauteskunde soziologiaren oinarri teorikoen inguruan hausnartzea. Horretarako aukera paregabea eskaintzen du hauteskunde kanpaina aztertzeak. Azken batean, hautesleen portaera elektorala zerk baldintzatzen duen aztertzeo aukera ematen baitu: politikak –komunikabideetatik jasotzen duten informazioak– edota posizio sozialak –gertuko sozializazioak–. Alde horretatik, ikerketan defendatzen den ideia da komunikabideek botoan eragiteko duten gaitasuna mugatua dela.

Liburuaren lehen kapituluetan, alderdi errepublikano eta demokraten boto emaileen ezaugarri sozialak aztertzean ikusten da hauteslearen portaera elektoralaren eta bere ezaugarri sozialen artean –estatus sozioekonomikoa, lanbidea, erlijioa, adina eta abar– harreman sendoa dagoela (Lazarsfeld et al., 1948, 16-28. or.). Era berean, datuek erakusten dute boto emaile errepublikanoen eta demokraten artean hainbat auziren inguruan desberdintasun ideologiko nabarmenak daudela –bereziki auzi sozialaren inguruan, baina baita hautagaiak izan beharreko ezaugarrien inguruan edo Europako gerraren aurrean eduki beharreko jarreraren inguruan ere– (Lazarsfeld et al., 1948, 28-39. or.). Behin hori ikusita, Lazarsfeld eta besteek liburuan zehar ondorengo ataletan aztertzen dutena da ea kanpaina elektoralek aldaketarik eragiten duen hauteslearen hasierako boto asmoan. Alde horretatik, ikerketan zehar ikusten da kanpaina elektoralek botoa aldatzeko baino gehiago hautesleen posizioak indartzeko balio dutela.

The first thing to say is that some people were converted by campaign propaganda but that they were few indeed. (...) the people who did most of the reading and listening not only read and heard most of their partisan propaganda but were also most resistant to conversion because of their strong predisposition. And the people who were most open to conversion –the ones the campaign managers most wanted to reach– read and listened least. Those inter-related facts represent the bottleneck of conversion. (Lazarsfeld et al., 1948, 94-95. or.).

Lan honen arabera, bi dira hauteskunde kanpainei hautesleen portaeran eragin mugatua izatea eragiten duten aldagaiak: 1) kanpaina gertuen jarraitzen duten hautesleak izatea botoaren inguruan konbentzimendu handiena dutenak, horrela, kanpainei balio dute botoa aldatu baino gehiago beren iritziak sendotzeko; 2) informazioaren aurrean zaurgarrienak diren hautesleak izatea hein batean komunikabideekin harreman gutxiena dutenak. Bigarren aldagai honi dagokionez, hautesle batzuk informazioaren aurrean zaurgarri izateak ondorioak izan beharko lituzke, nahiz eta informazioarekin harreman gutxi izan. Alabaina, ez da horrela

gertatzen. Lazarsfeld eta besteek aldagai desberdinak aipatzen dituzte fenomeno hori azaltzeko.

Batetik, kontuan izan behar da bi urratseko komunikazio fluxua –“*two-step flow of communication*”– modura izendatzen dutena (Lazarsfeld et al., 1948, 151. or.). Mekanismo honen arabera, komunikabideetako informazioa ez da zuzenean iristen hautesle zaurgarrienengana; aitzitik, inguruan erreferentetzat duten jendearen galbahetik pasatuta iristen da informazioa. Azken horiek dira komunikabideetatik datozen gaiak gertutik jarraitzen dituztenak eta interes handiena dutenak, eta aurrez esan bezala, jende horrek iritzi finkoa eduki ohi du bere botoaren inguruan. Horregatik, hautesle zaurgarriek komunitatetik jasotzen duten informazioa mugatua izateaz gain, baldintzatua da inguruko iritzi emaile horien bitartez.

Beste puntu garrantzitsua da gertuko sozializazioen bitartez jasotzen den informazioak duen balio erantsiari dagokiona –“they have certain psychological advantages over the formal media”– (Lazarsfeld et al., 1948, 150. or.). Lazarsfeld eta besteek iritzi, hauteslearen iritzi politikoa garatzerakoan ez du balio bera irratitik jasotzen den informazioak edota aurrez aurreko harremanean garatzen denak.

Aipatutako bi aldagai horiek dira, beste aldagai batzuekin batera, sistema sozial baten pentsamendu politikoa homogeneoa izatea eragiten dutenak (Lazarsfeld et al., 1948, 150-158. or.). Honatx eredu soziologikoaren abiapuntutzat hartzen den testua, gerora horren ezagun egin dena:

There is a familiar adage in American folklore to the effect that a person is only what he thinks he is, an adage which reflects the typically American notion of unlimited opportunity, the tendency toward self-betterment, etc. Now we find that the reverse of the adage is true: a person thinks politically, as he is, socially. Social characteristics determine political preference. (Lazarsfeld et al., 1948, 27. or.).

Laburbilduz, Lazarsfeld eta gainerako ikertzaileek ikerketa honetatik ateratzen duten ondorioa da hauteslearen portaera politikoa posizio sozialak baldintzatzen duela. Mezu hori da eredu soziologikoaren oinarritzko ideia. Ondorengo urteetan ideia hori garatuz joango dira hainbat argitalpen.

1.1.1.2 Lipset eta Rokkan: alderdi sistema eta lerrokatze elektorala

Lazarsfeld eta beste ikertzaileek proposatutako ideia sinplea eta intuitiboa zen. Alabaina, konplexutasun metodologiko eta zehaztasun teoriko handia eskatzen zuen hura frogatzeak. 1944an argitaratu zen *The People's Choice* lanak agerian uzten zuen portaera

elektoralaren bizkarrezurra lerrokatze elektoralek osatzen dutela. Alabaina, azken horrek ez zuen teorizatu lerrokatze elektoralen jatorri historikoaren inguruan.

Alde horretatik, Lipset eta Rokkan izan ziren aurrenetakoak Europa Mendebaldeko lerrokatze elektoralen jatorriaren inguruan teorizatzen. Ez zen oharkabean pasa euren proposamena. Aitzitik, Soziologia Politikoaren esparruan argitaratu den testu garrantzitsuenetakoa da autore horiek 1967an plazaratu zuten *Party Systems and Voter Alignments* liburuko hitzaurrea. Honakoa da testu horren oinarritzko hipotesia: lerrokatze elektoralara ulertzeko, ezinbestekoa da prozesu historiko baten baitan aztertzea berau eragin duen gizarte zatiketaren jatorria eta bilakaera.⁷ Alabaina, nola identifikatu lerrokatzeek eragiten dituzten gizarte zatiketak eta nola aztertu zatiketa horien bilakaera historikoa? Alderdi sistemaren atzean ezkututzen dira Lipset eta Rokkanen arabera sekretu horiek guztiak.

En las democracias occidentales raras veces se convoca a los votantes para que manifiesten su posición sobre temas sueltos. Lo habitual es que se enfrenten a elecciones entre «paquetes» históricamente dados de programas, compromisos, actitudes y, a veces, *Weltanschauungen*; y su comportamiento actual no puede entenderse sin cierto conocimiento de las series de acontecimientos y las combinaciones de fuerzas que produjeron esos «paquetes». Nuestra tarea es elaborar modelos realistas que puedan explicar la formación de los diferentes sistemas de «paquetes» de ese tipo bajo diferentes condiciones de desarrollo socioeconómico y de política nacional, y ajustar la información sobre estas variaciones del carácter de alternativas a nuestros planes para el análisis de la conducta electoral actual. Tenemos la esperanza de aclarar los orígenes y la «solidificación» de diferentes tipos de sistemas de partidos, y pretendemos reunir materiales para el análisis comparativo de los alineamientos actuales de votantes que están detrás de los «paquetes» de alternativas históricamente dados en los diferentes sistemas. (Lipset eta Rokkan, 2012 [1967], 136. or.).

Aipatutako hitzaurrean, Lipset eta Rokkanek hamabi sistema politiko lehiakor aztertu zituzten lerrokatze linguistiko elektoralen azalpen eredu lantzeko, tartean, Espainiako kasua (Lipset eta Rokkan, 2012, 135. or.). Lagin hori abiapuntutzat harturik, testuan aipatzen da ezinbestekoa dela alderdi sistemaren izaera ulertzeko honako bi une bereiztea: lehen fase batean, autoreek proposatzen dute Estatu bakoitzeko sistema politiko lehiakorraren eta hauteskunde “masiboen” instituzionalizazio prozesua aztertzea; eta, bigarren fase batean, berriz, garrantzia ematen diote alderdi politikoak eratzeko gaitasuna izan duten zatiketa sozialen bilakaera ikertzeari (Lipset eta Rokkan, 2012, 136. or.).

Lehen faseari dagokionez, Lipset eta Rokkanek azpimarratzen dute gatazka kultural-territorialaren eraginez zenbait sistema politikotan estatu-nazioaren sorrera

⁷ Honako hauek dira Lipset eta Rokkanen (2012, 182. or.) hitzak: “Para entender los alineamientos actuales de los electores en los diferentes países no basta con analizar los problemas y la estructura sociocultural contemporáneos. Es aún más importante retroceder hasta la formación inicial de alternativas de partidos y analizar las interacciones de los focos de identificación históricamente establecidos y los cambios subsiguientes en las condiciones estructurales de elección.”

ahalbidetzen duen “komunitate nazionalaren” eraikuntza ahula izan dela. Aitzitik, muturreko kasu batzuetan aipatzen du sistemaren batasuna haustera iritsi zela (Irlanda eta Erresuma Batuko kasua, Norvegia eta Suedia, Afrika eta Asiako estatuak eta abar). Testuak dio, beste kasu batzuetan sistema hautsi ez arren, gatazka kultural-territorialek estatu-nazioaren egituraketan herentzia gaindiezina utzi dutela –adibidez, euskal kasuan–.

Las oposiciones territoriales limitan el proceso de formación nacional; llevadas a un punto extremo conducen a la guerra, la secesión e, incluso, a posibles éxodos. Las oposiciones funcionales sólo pueden desarrollarse después de cierta consolidación inicial de territorio nacional. (...) Las primeras olas de contramovilización amenazaron a menudo la unidad territorial de la nación, la federación y el imperio. (...) En algunos casos las primeras olas de movilización pueden no haber llevado el sistema territorial al borde de la ruptura, pero sí haber dejado una herencia insuperable de conflicto territorial-cultural: las oposiciones catalano-vasco-castellanas en España, el conflicto entre flamencos y valones en Bélgica, y la división inglés-francés en Canadá. (Lipset eta Rokkan, 2012, 150-151. or.).

Horregatik, autoreek aipatzen dute komunitate nazionalaren eraikuntza gorabeheratsua kontuan izatea beharrezkoa dela gerora “komunitate nazional” horren baitan sortzen diren zatiketa sozialak ulertzeko. Bigarren faseari dagokionez, honako marko interpretatzaile hau proposatzen dute Lipset eta Rokkanek komunitate nazionalaren baitan gertatzen diren gizarte zatiketak aztertzeko.

Para abordar esas variaciones, es evidente que no podemos actuar división por división, sino que debemos analizar agrupaciones de líneas de conflicto en cada organización política.

Para abordar las variaciones de estos conjuntos nos ha parecido fructífero diferenciar cuatro líneas de división críticas.

Dos de estas divisiones son producto directo de lo que podríamos llamar la Revolución nacional: el conflicto entre la cultura central que construye la nación y la resistencia creciente de las poblaciones sometidas de las provincias y las periferias, étnica, lingüística o religiosamente diferenciadas (1), el conflicto entre el Estado-nación centralizante, regularizador y movilizador, y los privilegios corporativos históricamente establecidos de la Iglesia (2).

Dos de ellas son producto de la Revolución industrial: el conflicto entre los intereses terratenientes y la clase emergente de empresarios industriales (3) y el conflicto entre propietarios y patronos por un lado y arrendatarios, jornaleros y obreros por el otro (4). (Lipset eta Rokkan, 2012, 151. or.).

Hori horrela izanik, eredu soziologikoaren ezaugarri nagusia da egungo zatiketa sozialen irakurketa historikoa Aro Garaikidera mugatzen duela. Honako aipu hau funtsezkoa da azken hamarkadetan akademian hegemonikoa izan den begirada modernoa ulertzeko:

Gran parte de la historia de Europa, desde principios del siglo XIX, puede describirse en función de la interacción entre estos dos procesos de cambio revolucionario: uno desencadenado en Francia y otro originado en Gran Bretaña. Ambos tuvieron consecuencias para la estructura de división de cada nación, pero el que produjo las oposiciones más enconadas y profundas fue la Revolución francesa. (Lipset eta Rokkan, 2012, 151-152. or.).

Gauzak horrela, Lipset eta Rokkanen interpretazio markoaren arabera, XIX. mende hasieratik hasi eta 1960ko hamarkada arteko Europako historiaren zatirik handiena ulertu nahi duenak arakatu behar du iraultza nazionalak eta iraultza industrialak eragindako gizarteko lau zatiketaren inguruan artikulatzen diren gatazka ardatz

horietan. Izan ere, iraultza horietatik eratorritako zatiketa horiek izan dira Europa Mendebaldeko alderdi sistemak egituratzeko gaitasuna dutenak. Horrek esan nahi du gatazka horien bilakaera historikoa ulertzea ezinbestekoa dela hauteskundeetan gertatzen diren lerrokatzeak ulertzeko. Are gehiago, autoreek azpimarratzen dute gatazka horien logikan artikulatutako alderdi sistema gehienek egiturak 1920-1960 bitartean bere horretan mantendu direla.⁸ Horretan datza lerrokatze elektoralen lehen ezaugarria: lerrokatze elektoralak egonkorrak dira hauteskunde batetik bestera.

Alabaina, horrek ez du esan nahi alderdi sistemak eta lerrokatze elektoralak *de facto* estatikoak direnik. Aitzitik, alderdi sistemaren egitura aldakorra da talde sozial desberdinen arteko gatazkek duten bilakaeraren arabera. Horregatik, Lipset eta Rokkanen arabera, alderdi sistemek badute bigarren ezaugarri bat, aurreneko ezaugarriarekin bateragarria dena: izaera dinamikoa (Lipset eta Rokkan, 2012, 140. or.). Honatx adibide bat: demagun, Estatu bateko komunitate etno-erregional bat bere ezaugarri partikularren defentsa egiteko politikoki antolatzen dela. Talde sozial horrek, gizartean pisu espezifiko adierazgarria duen kasuan, gaitasuna izango du alderdi sistemaren egitura artikulatzeko gatazka kultural-territorialaren inguruan. Horrela, hauteskunderik hauteskunde lerrokatze elektoralak gertatuko dira jatorri desberdineko hautesle eta alderdien artean. Alabaina, etnia hori komunitate “nazional” hegemonikoaren baitan urtzen den unean, gatazka amaitu egiten da eta bere interesak defendatzen dituen alderdi politikoa desagertu. Ondorioz, alderdi sistemaren egituratzaile izateari uzten dio aipatutako zatiketak –etniak– eta zentzua galtzen du lerrokatze elektoralak. Adibide horrek erakusten du aldaketa soziopolitikoak denboraren ardatzean mantso gertatzeak ez duela esan nahi gertatzen ez direnik. Prozesu gatazkatsu horretan ikusten den moduan, gizarte zatiketen saretze bertikala da alderdi sistemaren eta lerrokatzeen sendotasuna baldintzatzen duen aldagai funtsezkoa.

Zer esan nahi du, ordea, *Verzuiling* edo saretze bertikalaren ideiak? Lipset eta Rokkanen (2012, 152-160. or.) arabera saretze bertikala gertatzen da gizatalde batek bere burua eremu desberdinetan erakundetzen duenean.

(...) movimientos religiosos tendieron a aislar a sus seguidores de la influencia exterior a través de la creación de una amplia variedad de organizaciones y organismos paralelos: no sólo construyeron escuelas y organizaron movimientos juveniles propios, sino que también crearon

⁸ Honatx Lipset eta Rokkanen (2012, 177. or.) hitzak auzi honen inguruan: “Hemos llevado nuestra tentativa de sistematizar la historia comparativa de las oposiciones partidistas en los Estados europeos hasta cierto punto de la década de 1920, hasta la inmovilización de las alternativas de partidos importantes a raíz de la ampliación del sufragio y la movilización de sectores fundamentales de las nuevas reservas de seguidores potenciales. ¿Por qué detenemos ahí? ¿Por qué no seguir este ejercicio de análisis de división comparativo hasta la década de 1960? La razón es engañosamente simple: los sistemas de partidos de la década de 1960 reflejan, con escasas pero significativas excepciones, las estructuras de división de la década de 1920”.

sindicatos confesionales diferenciados, clubes deportivos, asociaciones para el tiempo de ocio, editoriales, revistas, periódicos, y en uno o dos casos hasta emisoras de radio y de televisión. Quizás el mejor ejemplo de segmentación institucionalizada sea el que encontramos en Holanda; de hecho, la palabra holandesa *Verzuiling* se ha convertido recientemente en un término acuñado para designar la tendencia a la formación de redes verticales (zuilen, columnas o pilares) de asociaciones e instituciones con el fin de garantizar la máxima lealtad a cada Iglesia y para proteger a los fieles de comunicaciones y presiones contrarias. (Lipset eta Rokkan, 2012, 153. or.).

Saretze bertikalaren funtzioa da talde sozial bereko kideen harremanetarako espazioak trinkotzea eta taldearekiko leialtasuna indartzea. Alderdi politikoak elementu bat gehiago dira saretze bertikalaren baitan. Alabaina, euren eginkizuna ez da nolana hikoia: saretze bertikala egituratu duen mugimendua esfera politikoan ordezkatzeko. Horregatik, bi dira hauteskundeetan alderdiek jasotzen duten babes soziala baldintzatzen duten aldagaiak: saretze bertikalaren dimentsioa eta trinkotasuna. Ikuspegi honetatik, katolikoek saretze bertikala zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta handiagoa izango da hautesle katoliko batek alderdi katoliko bati bozkatzeko duen leialtasuna. Autoreek kristalizazio maila altuko unea deitzen diote lerrokatzea ia erabatekoa izatera heltzen den uneari. Alderantziz, leialtasuna apaltzen duten kasuei, *Ontzuiling* izena ematen diete.⁹ Kristalizazioa muturreko kasuetara iristen denean, Lipset eta Rokkanek aipatzen dute arriskua dagoela, gizarteko segmentazioren ondorioz, sistema politikoak lehia arautzeko duen legitimitatea galdu eta horrela sistemaren batasuna apurtzeko. Alde horretatik, testuan zehazten da sistemaren haustura eragiteko ahalmena erakutsi duten zatiketak bereziki bi direla: etnikoa eta erlijiosoa.¹⁰

Hori horrela bada, zergatik ez dira sarriago hausten alderdi sistemak? Lipset eta Rokkanen (2012, 137-140. or.) arabera, hasiera batean dirudienaren aurka, alderdi politikoak dira sistemaren haustura ekiditen duen elementu nagusietakoak. Izan ere, azken horiek hasiera batean sistema politikoaren baitan dauden interes kontrajarriak adierazteko bitarteko badira ere, aldi berean, sistema politikoa legitimatzen da gatazkaren bi aldeek hauteskundeetan parte hartzea erabakitzen duten unetik. Amaierarik gabeko gupil zoroa bihurtzeko arriskua du gatazkaren eta integrazioaren

⁹ Testuan zehar honela azaltzen da saretze bertikalaren ahultze prozesuaren inguruko fenomenoak: “Utilizan el término *Ontzuiling* para disminuciones en la caracterización de cada sector y *Verzuiling* para los aumentos. (...) cuanto más *ontzuil* en una oposición determinada, más entrecruzamientos de pertenencias múltiples hay en el sistema y, en general, menos intolerancia y desconfianza hacia los ciudadanos situados en el «otro» lado; cuanto más *verzuil* es la oposición, menos previsiones cruzadas hay y menos frecuentes son las lealtades por encima de las divisiones.” (Lipset eta Rokkan, 2012, 156. or.).

¹⁰ Era berean, ezin da aipatu gabe utzi zenbait kasutan zatiketa desberdinek elkar elikatzeko joera dutela. Lipset eta Rokkanen gogorazten dute Herbehereetako kasuan, mugimendu erlijiosoak eta klaseari dagozkionak gainezartzera iritsi zirela: “Donde se encuentra una segmentación más compleja es dentro de los movimientos minoritarios activos e intransigentes: los *Gereformeerden*, los *Hervormden* religiosamente activos y católicos. Los miembros pasivos de la Iglesia nacional tradicional y los *onkerkelijken* tienden a alinearse más por razones de clase que de credo religioso; este fue durante mucho tiempo el único sector del electorado holandés en el que hubo un entrecruzamiento efectivo de influencias” (Lipset eta Rokkan, 2012, 155. or.).

arteko dialektikak. Ikusten den moduan, testuinguru horretan alderdi politikoek paper garrantzitsua jokatzen dute.

La apertura de canales para la expresión de conflictos manifiestos o latentes entre las clases asentadas y las subprivilegiadas pueden haber desequilibrado algunos sistemas en su primera fase, pero, a la larga, fortaleció el cuerpo político.

Esta dialéctica conflicto-integración tiene un interés básico en la investigación actual sobre la sociología comparativa de los partidos políticos. (...) Los partidos ejercen una doble fascinación en el sociólogo. Ayudan a cristalizar y a hacer explícitos los intereses contrapuestos y los contrastes y tensiones latentes de la estructura social existente, y fuerzan a los ciudadanos a aliarse entre ellos por encima de las líneas de división estructurales, así como a establecer prioridades entre sus fidelidades hacia los papeles establecidos o eventuales del sistema. Los partidos tienen una función expresiva (...) Pero tienen también funciones instrumentales y representativas. (Lipset eta Rokkan, 2012, 139-140. or.).

Laburbilduz, Lipset eta Rokkanen arabera alderdi sistemaren jatorrian eta bilakaeran sakondu behar da lerrokatze elektoralak interpretatzeko. Azken horiek, gizarteko gatazka nagusien isla baitira. Alde horretatik, alderdi politikoa da gizarte zatiketek eragindako gatazka horiek eremu politikoan defendatzeaz arduratzen dena. Horregatik, posizio sozial jakin bat duen hautesleek joera izango dute beren komunitate sozialaren interesak defendatzen dituen alderdiei bozkatzeko. Zatiketa sozial guztiek, ordea, ez dute ahalmen berdina lerrokatzeak eragiteko. Iraultza nazionalak eta industrialak eragindako zatiketa sozialek erakutsi dute gaitasunik handiena alderdi sistemen egitura determinatzeko orduan. Alde horretatik, zatiketa horien gainean egituratzen den saretze bertikala zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta sendoagoa izango da hauteslearen posizio sozialaren eta portaera elektoralaren arteko lotura. Ikusten den moduan, testu honek hautesleen portaera elektoralaz azaltzeko begirada eta kategoria berriak plazaratzen ditu, tartean saretze bertikalarena. Kategoria horiek fintzea izango da ondorengo ikertzaileen eginkizuna.

1.1.1.3 Bartolini eta Mair: clivajea kategoria analitiko gisa

Lipset eta Rokkanek idatzitako hitzaurrean azpimarratzen den moduan, alderdi sistemaren bilakaeran bikain islatzen da zein diren sistema politiko baten baitan artikulatu diren gatazka politiko nagusiak. Alderdi politikoen xedea da gizarteko talde sozial desberdinen interesak esfera politikoan ordezkatzeko. Horrela, alderdi politikoak dira lerrokatze elektoralak gertatzea ahalbidetzen duten oinarrizko antolakundeak. Aipatutako eredu teorikoak, gerora, *clivajeen teoria* izena hartu badu ere, komenigarria da aurrez ñabardura bat egitea: Lipset eta Rokkanek (2012) idatzitako hitzaurrean ez da

clivajearen inguruan definiziorik eskaintzen. Hori dela eta, clivaje kategoriak esanahi eta adiera desberdinak hartu ditu urteen joanean ikertzaile desberdinen eskutik.¹¹

Azpikapitulu honen xedea da Lipset eta Rokkanek aipatzen duten saretze bertikalaren ideia aberastea clivaje kontzeptuaren inguruan proposatu diren tresna teorikoekin. Horretarako, Stefano Bartolini eta Peter Mair ikertzaileek 1990an argitaratu zuten *Identity, competition and electoral availability: the stabilisation of European electorates 1885-1985* lana hartu da erreferentzia moduan. Liburu horretan, labur baina aldi berean zehaztasun handiz zedarrizten dira clivajea kontzeptuaren ezaugarriak (Bartolini eta Mair, 2007, 198-204. or.). Urte batzuk geroago, Bartolinik sakonago lantzen du clivajearen ideia *La Formations des Clivages* (2005) artikuluan. Lan honetan, hain zuzen, bigarren artikulua horretan proposatzen den marko interpretatzailearen ingurukoak jasotzen dira bereziki.

Bartoliniren arabera, komenigarria da idazleak clivaje kontzeptua aipatzen duenean irakurleak argi izatea azken hori zertaz ari den. Izan ere, iruditzen zaio clivajea kategorია gisa bestelako zatiketa sozial, ideologiko edota portaerazkoekin berdintzeko joera dagoela. Gogoratu, Lipset eta Rokkanek saretze bertikalaren ideia erabiltzen dutenean, talde sozialekin, ideologiarekin eta azken horiei loturiko erakundeekin lotzen dutela (eskolak, irratiak, telebistak eta alderdi politikoak). Are gehiago, gisa horretako egiturak direla aipatzen dute hauteskundeetan gertatzen den kristalizazio elektoralaren eragile. Ideia horretatik abiatuta, Bartolinik azpimarratzen du clivajearen ideia gizarteko zatiketa sinpleekin berdintzea abiapuntu okerra dela.

L'argument, ici, est plutôt que les divisions historiques auxquelles le terme de "clivage" a été appliqué, en référence à la formation des systèmes de parti (centre-périphérie, urbain-rural, de classe, de religion, etc.), incluaient des bases socio-économiques, attitudinales, idéologiques ou plus généralement, des bases normatives et comportementales ou encore organisationnelles. Aucun de ces clivages historiques n'a été purement "économique" ou "démographique", rarement attitudinal ou idéologique, ou exclusivement comportemental. (...) En conséquence, faire évoluer le concept dans différentes directions par l'addition d'adjectifs qualificatifs le rend non seulement redondant par rapport à d'autres concepts moins théoriques, mais rend vague également sa signification théorique distinctive. L'élargissement de la connotation théorique enlève au concept son aspect dénotatif pour une réalité empirique spécifique. (Bartolini, 2005, 11. or.).

¹¹ Paramioren (2000, 80. or.) arabera clivaje kategoriak hiru esanahi hartu ditzake: "al hablar de cleavages para explicar el voto podemos referirnos a tres hechos bien distintos: 1) correlación entre posición estructural y voto; 2) correlación entre posición estructural e identificación política; 3) coincidencia entre las divisorias sociales y las líneas de confrontación electoral. Tomando el caso de la clase social, al que me ceñiré en lo sucesivo, tendríamos: 1) correlación entre posición de clase y voto; 2) correlación entre posición de clase e identificación con partidos de clase; 3) definición de la confrontación electoral en torno a la oposición entre intereses de clase." Edonola ere, clivajearen inguruko auzia ez da hor amaitzen. Gaiari gehiago sakontzeko, honatx, autore desberdinek clivaje kontzeptuaren inguruan esandakoak jasotzen dituen lagin bat (Zuckerman, 1975; Bartolini eta Mair, 2007; Dalton, 1996; Franklin, 2010).

Bere ustez, clivajeak esanahi zabalagoa hartu behar du azken hori ulertu nahi bada, behintzat, alderdi sistemen egitura baldintzatzeko –eta, beraz, hautesleen portaera elektoralazaltzeko– gaitasuna duen kategoria bezala. Horregatik, Bartoliniren arabera, definizioaren atzean dagoen arazoa ez da linguistikoa, kontzeptuala baizik. Hala, honako bi kategoria bereiztea proposatzen du clivajeari buruz aritzean: zatiketa sinpleak eta konposatuak. Azkeneko honen kasuan, beste bi multzo bereizten ditu: alde batetik, zatiketa korporatibistak, sozialak eta politikoak; eta bestetik, clivajea (Bartolini, 2005, 30-34. or.).

2. taula: Clivajearen barne egitura.

	Zatiketa sinplea			Zatiketa konposatua			
	+	-	-	+	+	-	+
Sistema soziala: <i>Interesaren norabidea</i>	+	-	-	+	+	-	+
Sistema normatiboa: <i>Norabide kultural eta ideologikoa</i>	-	+	-	-	+	+	+
Sistema organizatiboa: <i>Ekintza kolektiboa</i>	-	-	+	+	-	+	+
Sortzen diren zatiketak	Interesezko zatiketak	Zatiketa kulturalak	Atxikipenezko zatiketak	Zatiketa korporatibistak	Zatiketa sozialak	Zatiketa politikoak	Clivajeak

Iturria: Bartolini (2005, 32. or.). Egileak moldatua.

Bartoliniren arabera, clivajea zatiketa konposatua da, sistema soziala, normatiboa eta organizatiboa gainezartzean eraten dena. Horrela gertatzen da oinarri sozialaren eta portaera politikoaren bateratzea. Beraz, clivajearen ezaugarriak aztertzeke ezinbestekoa da sistema horietako bakoitzaren barne logikak aztertzea. Ildo horretatik, Bartoliniren (2005, 14-30. or.) arabera, bi dira prozesu horretan garrantzi berezia duten aldagaiak: bat, clivajearen oinarri soziala; eta, bi, sistema desberdinen gainezartzearen nolakotasuna.

Bartoliniren ustez, clivajearen inguruko analisisa abiatu behar da lerrokatzea eragiten duen zatiketa sistema sozialean ongi identifikatzetik. Bere arabera, norbanako guztiek dute posizio jakin bat estratifikazio sozialean. Azken hori definitzen da euren jabetzaren, hizkuntzaren, hezkuntza mailaren, erlijioaren, arrazaren eta abarren bidez.

Hori dela eta, egunerokotasunean erreproduzitzen diren gatazka sozialen aurrean norbanakoak ez dira ikusle soilak. Aitzitik, norbanako bakoitzak bizipen desberdinak ditu gatazka horien inguruan gizartean duen posizio sozialaren arabera. Horrek eragiten du gizartean posizio bera duten norbanakoek interes objektibo antzekoak izatea. Era berean, Bartolinik azpimarratzen du azken horiek –posizio sozial bera dutenek– elkarrekin harremanak izateko joera dutela. Ildo horretatik, talde horiek zenbat eta talde trinkoagoa osatu orduan eta harreman gutxiago izango dute beste muturrean aurkitzen den talde sozialarekin (Bartolini, 2005, 22. or.). Abiapuntu hori kontutan izanik, Bartolinik (2005, 27. or.) aipatzen du, portaerari dagokionez, bi eredu ideal bereizi behar direla: bat, talde artekoa (talde jakin bateko parte izateak norbanakoen portaera erabat

determinatzen duten kasuak); eta, bi, indibiduala edo pertsona artekoa (norbanakoaren bereizgarri indibidualek bere portaera erabat determinatzen duten kasuak). Hala, Bartolinik dio talde arteko gatazkak zenbat eta intentsitate handiagoa izan orduan eta handiagoa izango dela norbanakoak talde arteko logikan pentsatzeko eta jokatzeko izango duen joera.

Norbanakoaren portaera, ordea, ez dute soilik ezaugarri sozialek baldintzatzen (ezaugarri objektiboak). Beste horrenbesteko eragina du sistema sozialean zatiketa eragiten duen auziaren inguruan norbanakoak dituen uste eta sinesmenek (ezaugarri subjektiboak). Horregatik da garrantzitsua clivajea aztertzerakoan sistema normatiboak kontuan izatea. Izan ere, taldearekiko atxikimendu faltak nahiz taldeak hobesten duen sistema normatiboarekiko leialtasun baxuak pertsona arteko portaera indartzea baitakar.

Cette approche relie, pour les individus, la réalité sociale de l'ouverture aux opportunités avec la probabilité de l'action collective et organisée grâce à l'intervention médiatrice des systèmes de croyances socialement partagés. Dans la mesure où les prohibitions objectives et subjectives au passage (à la sortie) sont faibles, des stratégies de mobilité individuelles peuvent être concevables. Tant que la mobilité individuelle implique une désidentification, elle tendra à réduire la cohésion du groupe. Cet affaiblissement de l'attachement subjectif des membres au groupe du "dedans" tendra : a) à une perception plus floue des différents intérêts de groupes correspondant aux différentes identités de groupe ; b) à la création des obstacles à la mobilisation des membres du groupe pour une action collective au nom de leur intérêt commun. Les processus désintégrateurs sont générés par les options de sortie. (Bartolini, 2005, 30. or.).

Horretaz jakitun, taldeak mekanismo desberdinak ditu pertsona arteko portaerak oztopatzeko. Alde horretatik, identitate kolektiboarena da taldeak duen mekanismo nagusia (Bartolini, 2005, 22. or.). Azken honek, identitate kolektiboaren bidez "gu" bat definitzen du "bestetasunarekin" harremanetan. Horrela lortu nahi dena da elementu sinbolikoen bidez taldeari mundu ikuskera jakin bat eskaintzea, eta bide batez, taldearen muina definitzea eta ertzetako itxiera arauak zedarritzea. Bartoliniren (2005, 22-24. or.) arabera, hiru multzotan sailkatzen dira talde sozialaren identitate kolektiboa edukiz betetzen dituzten kode sinbolikoak: primordialak (identitate kolektiboen oinarritzko elementuak, hala nola: etnia, generoa, arraza eta abar), zibikoak (erritu bidez erreproduzitzen direnak, mitoak, adibidez: pertsona jakin batzuk, leku historikoak, gertaerak) eta kulturalak (subjektu kolektiboa balore batzuekin lotzen da, hala nola: unibertsaltasuna, Jainkoa, arrazoia, aurrerapena, askatasuna, mundu ideala). Printzipioz, edonork du aukera taldearen parte izateko. Alabaina, talde horretatik kanpokoa den norbaitek talde horren parte izan nahi duen kasuetan, behartua dago identitate kolektiboaren oinarritzko elementu batzuk barneratzea. Bestalde, posible da kide direnen eta ez direnen arteko eten hesia zeharkatzea hezkuntzaren bidez edota konbertsioa baieztatzen duen erritu desberdinetan parte hartuz. Era berean, ordea,

taldearen egitura ez da horizontala. Taldeak bere baitan hierarkia du kode sinbolikoek zehazten dituzten irizpideen arabera. Horregatik guztiagatik, talde baten funtzionamenduan berebiziko garrantzia du kode sinbolikoen inguruko eztabaidak. Azken horien nolakotasunak islatzen baitu taldearen egitura, mundu ikuskera eta proiektu politikoa, bai kanpora begira (taldekideak/kanpokoak), baita talde barrura begira ere (muina/ertza). Aldian-aldian etengabe berritzen den proiektua da aipaturikoa. Horrek eragiten du ideologiek –nazionalismoak, sozialismoak eta abar– berebiziko pisua izatea talde baten sistema normatiboan.

Orain arte ikusi da norbanakoak posizio sozial bat duela estratifikazio sozialean eta dituen sinesmenen arabera modu batera edo bestera jokatzeko joera gehiago edo gutxiago izan dezakeela. Aipatutako bi aldagai horiek dira, neurri handi baten, ekintza kolektiboa baldintzatzen dutenak. Alde horretatik, Bartolinik aipatzen du ekintza kolektiboak hiru forma hartu ditzakeela: interes taldeak –zatiketa korporatiboak eraginda–, mugimendu sozialak –zatiketa sozialak eraginda– eta organizazio politiko-elektoralak –zatiketa politikoak eragiten dituenak–. Horiek guztiak, bakoitza bere aldetik, ordea, ez dira gai clivajea gorpuzteko.

Finalement, je pense qu'une caractéristique nécessaire et distinctive des clivages, par contraste avec les autres types de "divisions", est qu'ils sont caractérisés par une "imbrication" dense et profonde, qui recouvre l'appartenance, l'échange de personnel et de ressources parmi les mouvements sociaux, les organisations de corporation et les organisations électorales. En conséquence, du point de vue organisationnel, la spécificité des structures de clivages est l'intégration verticale des différentes formes d'actions organisationnelles. (Bartolini, 2005, 27. or.).

Horregatik guztiagatik, Bartolinik proposatzen du clivajea ulertzea zatiketa korporatibo, sozial edo politikoetatik bereizten den fenomeno sozial gisa. Izatez, clivajea gertatzen da hiru dimentsio horiek txirikordatzen direnean. Momentu horretan, talde artekoa da gizartean posizio sozial bat duen hauteslearen portaera elektoralak hartzen duen forma. Jarraian aurkezten den taula honetan laburbiltzen da Bartolinik clivajearen hezurduraren inguruan esandakoak.

3. taula: Clivajearen hezurdura eta berau osatzen duten sistemak.

	Estratifikazio soziala zurruntasuna/iragazkortasuna	
+		-
<ul style="list-style-type: none"> Talde sozialak eten hesi sendoak Pasabiderik gabeko itxitura 		<ul style="list-style-type: none"> Talde sozialak eten hesi ahulak Pasabidez betetako itxitura
Talde arteko portaera		Pertsona arteko portaera
	Sinesmenen sistema	
Aldaketa sozialean sinestea		Mugikortasun sozialean sinestea
<ul style="list-style-type: none"> Talde identitate sendoa Talde ezaugarri indartsuak Talde arteko portaeraren nagusitasuna Taldeen arteko gatazka gogorra 		<ul style="list-style-type: none"> Talde identitate ahula Talde ezaugarri ahulak Pertsona arteko portaeraren nagusitasuna Taldeen arteko gatazka ahula
	Eragile politikoak	
<ul style="list-style-type: none"> Ekintza kolektiborako eta antolaketako kide izateko aukera handia 		<ul style="list-style-type: none"> Aukera baxua elkarte eta kolektiboen antolakuntzarako
←	EMAITZA	→
Clivajea egituratzeko aukera		"Korporazio" edo zatiketa "politikoetan" oinarritutako erakundeak

Iturria: Bartolini (2005, 29. or.). Egileak moldatua.

Laburbilduz, azpikapitulu honen helburua da *clivaje* kategoria analitikoaren bidez, Lipset eta Rokkanek proposatzen duten saretze bertikalaren ideia aberastea. Horrela, aurrera begira aukera sortzen da kategoria analitiko horien bidez euskal saretze bertikalak hartzen duen forma aztertzeko. Hala, lan honetan clivajearen inguruan hobetsi den adiera da Bartolini eta Mair ikertzaileek proposatzen dutena. Azken honen arabera, saretze bertikala edo clivajea egituratzen da hiru sistemen (sozialaren, normatiboaren eta organizatiboaren) gainezartzea gertatzen denean. Horrela, clivajea zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta joera handiagoa izango dute berau osatzen duten norbanakoek talde arteko portaera izateko.

1.1.2 Eredu psikosoziala: Campbell eta alderdiekiko identifikazioa

Eredu psikosozialaren ezaugarriak zedarritzeko eredu ideal bezala aurkezten da akademian Campbell eta gainerakoek 1960an argitaratu zuten *The American Voter* lana. Liburu honen egileek hitzaurrean aipatzen dute eredu soziologikoa bere aldetik bakarrik motz gelditzen dela hautesleen portaera elektorala azaltzeko. Horregatik, Campbell eta besteek (1980 [1960], 36. or.) eredu berri bat proposatzen dute honako asmo honekin: hurbilpen soziologikoa hurbilpen psikologikoarekin aberastea. Horregatik guztiagatik, interesgarritzat iritzi da ondorengo lerroetan honakoa bi puntu hauetan arreta jartzea: batetik, zein dira autore hauen arabera eredu soziologikoaren mugak? Eta bestetik, zein dira proposatzen duten eredu berriaren ezaugarriak?

Lan guztiek edukitzen dute abiapuntuan oinarritzko galdera edo susmoren bat ikerketaren hari eroale izaten dena. Eredu honen kasuan aipatu da eredu soziologikoaren zuzenketa gisa proposatzen dela. Aurreko atalean ikusi den moduan, Lazarsfeldek eta besteek (1948) azpimarratzen dute botoa azken unean hauteslearen posizio sozialak determinatzen duela. Campbell eta gainerakoak mesfidati agertzen dira premisa horrekiko. Izan ere, hori horrela bada, nola azaldu lau urtean behin gertatzen diren boto gorabeherak, kontuan izanda epe horretan zaila dela gizarte egitura horren aldaketa esanguratsuak izatea?

(...) the distribution of social characteristics in a population varies but slowly over a period of time. Yet crucial fluctuations in the national vote occur from election to election. Such fluctuation cannot be accounted for by independent variables which, over brief spans of time, do not vary. The attitudinal approach directed more attention to political objects of orientation, such as the candidates and issues, which do shift in the short term. It seemed clear that the key to the finer dynamics of political behaviour lay in the reactions of the electorate to these changes in the political scene. (Campbell et al., 1980, 17. or.).

Ikusten den moduan, arreta aldagai sozialetan soilik jartzetik harago, hurbilpen berri honek proposatzen du bestelako begirada batekin hurbiltzea ikerketaren objektura. Alde horretatik, Campbell eta besteek nabarmentzen dute beharrezkoa dela, hautesleen portaera elektoralaz azaltzean, epe motzean eragina duten auziak aintzat izatea, hala nola: momentu horretan interesa sortzen duten auzi politikoak edota presidentetzara aurkezten diren hautagaien inguruan hautesleek dituzten pertzepzioak. Alabaina, nola barne bildu hori guztia eredu teoriko batean? Azalpen eredu berria bere osotasunean ulertzeko komenigarria da lanean zehar aztertutako ikerketa objektuaren eta erabilitako metodologiaren inguruan zenbait argibide ematea.

Ikerketa objektuari dagokionez, *The American Voter* lanean aztertzen da Estatu Batuetako hauteskunde presidentzialetan –1948tik 1956ra bitartean– hautesleek izandako portaera elektoralaz. Campbell eta besteek (1980, 10. or.) arabera, urte horiek aldaketa handiko urteak izan ziren, bereziki 1948tik 1952ra artekoak. 1948ko hauteskundeak, esaterako, Bigarren Mundu Gerra osteko lehen hauteskundeak ziren. Hala, ondorengo urteetan ordura arte lehen mailako arazoak izandako gerraren auzia bigarren mailakoa izatera pasa zen eta “etxe barruko” kontuek hartu zuten garrantzia. Testuinguru horretan irabazi zituen hauteskundeak Harry S. Truman hautagai demokratik. Ondorengo urteetan, ordea, Koreako gerra eta ustelkeria kasuen itzala agertu ziren. Alde horretatik, jendartearen zabaldu zen ideia izan zen demokratek hautagaia ez zela gauza eskuartearen zituen auziak eraginkortasunez jorrazteko. Gauzak horrela, 1952ko hauteskundeetan garaile izan zen Bigarren Mundu Gerran militar gisa aritutako Dwight D. Eisenhower hautagai errepublikanoa. Agintaldi honetan, Koreako Gerrarekin amaitu zuen eta 1956an berriz irabazi zituen hauteskundeak alde

nabarmenez. Testuinguru historikoa aintzat hartzeak berebiziko garrantzia du lan honetan. Izan ere, honako bi aldagairen gainean oinarritzen da analisiaren bizkarrezurra: 1) Eisenhower hautagaia begi onez ikusten zuten bateko eta besteko hautesleek militar gisa egindako ibilbideagatik; 2) alderdi demokratari dagokionez, ustelkeria kasuetan nahastuta egoteaz gain, hautesleei iruditzen zitzairen nazioarteko arazoak kudeatzeko zailtasunak zituela.

Ezaugarri metodologikoen inguruan, berriz, komeni da aipatzea ikerketa 1948az gero Michiganeko Unibertsitateko Survey Research Centre erakundeak osatu zuen datu baseaz baliatu zela. Alde horretatik, erakunde honentzat, 1952ko hauteskundeak mugarriz garrantzitsua izan ziren. Izan ere, hauteskunde horietarako galdetegi berezia osatu zuten aurreneko aldiz. Aurrerantzean, galdetegia aldagai sozialen inguruan artikulatu beharrean, elementu politikoen inguruan antolatu zituzten.¹² Aldaketa horrek ahalbidetu zuen posible izatea hautesleen portaera beste begirada batetik aztertzea. Alde horretatik, datuek erakusten zutenari jarraituz, Campbell eta besteek ondorioztatzen dute portaera elektorala baldintzatzen duen aldagai nagusia hautesleek alderdi politikoeziko duten identifikazioa dela. Edonola ere, lan guztian zehar ikusten da hainbat faktorek eragiten dutela identifikazio hori sendoagoa edo ahulagoa izatea. Faktore horiek guztiek eragiten dute modu batekoa edo bestekoa izatea hautesleen portaera elektoralek hartzen duen forma.

Analytically, it was feasible to organize these spontaneous reactions into a system of attitudinal variables measuring the net partisan direction of the voter's political reactions. Taken as a system, these variables were seen to constitute a field of forces operating on the individual as he deliberates over his vote decision. Some of these forces, such as the personal attraction of a Republican candidate, might pull him toward a Republican vote, whereas resentment of the outcome of Democratic foreign policy would act in the same direction by pushing him away from Democratic party and a suspicion of Republican domestic policies would serve as pressures in the opposing direction. By measuring these forces and calculating the resultant, it was possible to arrive at an excellent prediction of the individual's vote. (Campbell et al., 1980, 16-17. or.).

Ikusten den moduan, Campbell eta besteek lanak erakusten duena da hauteslearen posizio soziala baino gehiago, alderdi politikoaren inguruan hautesleak duen


¹² Campbell eta besteek honela laburtzen dute 1940-1960 bitartean ikerketa elektoralek baita datuak ekoizteko prozesuak izandako bilakaera: "The true power of the interview survey as a tool of voting research was first demonstrated (...) by Lazarsfeld, Berelson, and Gaudet in their study of Erie County, Ohio, during the presidential election campaign of 1940. Much of the method and many of the substantive concerns of contemporary voting research appeared in this study and in its sequel in Elmira, New York, during the campaign of 1948. (...) The first *nationwide* study to utilize the sample survey interview-reinterview design was conducted by the National Opinion Research Center in the presidential election of 1944. (...) In 1948 the Survey Research Center of the University of Michigan conducted a small interview-reinterview study with a sample drawn by probability methods to represent the national population. (...) The Survey Research Center undertook a more extensive study of Eisenhower-Stevenson election of 1952 (...) The project represents a shift in emphasis from explanation in sociological terms to the exploration of political attitudes that orient the individual voter's behavior in an immediate sense. (...) The collection of data from a third sample of the national population was undertaken by the Survey Research Center (...) the information gathered in 1956 follows fairly closely the data of 1952." (Campbell et al., 1980, 14, 15, 16, 17. or.).

identifikazioa dela botoa baldintzatzen duen elementu zentrala (Campbell et al., 1980, 120-146. or.). Beraz, ikertzaileak egin behar duena da identifikazioan eragiten duten aldagaietan sakontzea, hala nola, hauteslearen aldagai sozialetan edota garaian garaiko auzi politikoetan Alde horretatik, *Kausalitatearen inbutua* deitzen diote hautesleen portaera elektorala azaltzeko proposatzen duten azalpen ereduari (Campbell et al., 1980, 24-32. or.). Metafora horrekin adierazi nahi dena da botoa kausa-efektu kate luze baten emaitza dela, hots, aldagai guztien konbergentzia.

The notion of a funnel is intended merely as a metaphor that we find helpful up to a certain point. (...) imagine that the axis of the funnel represents a time dimension. Events are conceived to follow each other in a converging sequence of causal chains, moving from the mouth to the stem of the funnel. The funnel shape is a logical product of the explanatory task chosen. Most of the complex events in the funnel occur as a result of multiple effects as well, but our focus of interest narrows as we approach the dependent behaviour. We progressively eliminate those effects that do not continue to have relevance for the political act. Since we are forced to take all partial causes as relevant at any juncture, relevant effects are therefore many fewer in number than relevant causes. The result is a convergence effect. (Campbell et al., 1980, 24. or.).

Ikusten den moduan, kausalitatearen inbutuaren arabera, infinitua da botoan eragiten duten aldagaien kopurua. Faktore batzuk iraupen luzekoak dira, besteak berriz iraupen motzekoak. Horiek guztiak elkar eragiten dute inbutuan. Alabaina, zein dira dimentsio determinanteak? Alde horretatik, Campbell eta besteek (1980, 30. or.) honako irudia proposatzen dute hauteslearen portaera elektorala azaltzeko:

3. irudia: Botoaren zentzua ulertzeko marko interpretatiboa.



Iturria: Campbell eta besteak (1980, 30. or.). Egileak moldatua.

Irudi honen arabera, bi dira kontuan izan beharreko elementuak: bat, dimentsio politiko/ez politiko; eta bi, auzi externa/pertsonala.¹³ Hortik abiatuta, bi eredu ideal

¹³ Azken dikotomia honi dagokionez, kontuan hartu behar dira honako bi elementu: batetik, faktore exogenoak (gerrak, krisiak, eta abar), eta bestetik, komunikabideek arlo politikoan jokatzen duen papera. Hurbilpen psikosozialak berebiziko garrantzia ematen die komunikabideei norbanakoaren identifikazio pertsonala indartzen eta jendearen pertzepzioak eraikitzeo duten ahalmenagatik: "The major process by which an external event becomes personal is that of communication. That part of our theory that deals with the conditions under which an object or condition moves from a non-political area of the funnel to a political

proposatzen dituzte botoaren zentzua interpretatzeko: $A \rightarrow C \rightarrow D$ eta $A \rightarrow B \rightarrow D$ ereduak. Alde horretatik, 1950eko hamarkadan AEBko hauteskunde presidentzialetara aurkeztu zen Eisenhower hautagaiaren adibideaz baliatzen dira aipatutako bi ereduak adibide praktikoa azaltzeko.

Aurreneko kasuari dagokionez ($A \rightarrow C \rightarrow D$), honakoa da hautesleak bere botoari ematen dion zentzua: pertsonaia ezezagun batek (A) politikara egiten du salto alderdi politiko baten abarara (C). Horrela, hautagaiarekiko iritzi eta sentimendu batzuk garatzen ditu hautesleak, baina beti ere dimentsio politikotik abiatuta. Alegia, aurrez hautesleak alderdiarekiko zuen identifikazioaren araberrakoz izango dira hautagai horrekiko pertzepzioak. Izan ere, hautagaia lehenengoz hautesleen esparru pertsonalera iristen denean ez da iristen auzi ez-politikoengatik. Aitzitik, alderdi bateko hautagai gisa aurkezteagatik egiten da ezagun hauteslearentzat. Horregatik, hautesleak botoa ematen dionean, hautagaia baino gehiago alderdiaren inguruko pertzepzioa da aldagai determinantea (D).

Bigarren ereduaren kasuan ($A \rightarrow B \rightarrow D$), honako logika jarraitzen du hauteslearen portaera elektorala: Eisenhower gaztetan ez zuen inork ezagutzen (A). Baina, 1940ko hamarkadan gerran ibilitako militar garrantzitsu bat izan zenez, jendearen estimua irabazi zuen AEBetako aberriari egindako zerbitzuagatik. Hori dela eta, une horretatik aurrera, AEBko hautesleentzat Eisenhower ez zen pertsonaia arrotza. Are gehiago, komunikabideetan eta izan zuen presentziagatik hautesleek identifikazio pertsonal-emozionala (ez-politikoa) garatu zuten (B). Gizarte estatubatuarrak ongi baloratuta zuen pertsonaia izanik, politikara jauzia egin zuen alderdi errepublikanoaren eskutik. Hala, une horretatik aurrera, hautesleak botoa ematerakoan, Eisenhower militar gisa baloratzeaz gain, hautagai politiko gisa baloratzerara igaro ziren (D).

The object, Eisenhower, began to take on political coloration. This was faint, until his announcement that he would run for the republican nomination. The affect that the individual felt for Eisenhower now was placed in contact with all the political cognitions and predispositions that had been formed independently in the core area of the funnel. (Campbell et al., 1980, 31. or.).

Momentu horretan, Eisenhower militarra Eisenhower politikoarekin urtzen da inbutuaren baitan eta hauteslearen portaera elektorala aldagai horien guztien konbergentziaren emaitza izango litzateke. Alde horretatik, normalena da alderdi demokratarekin lotura sendoa dutenek botoa mantentzea. Alabaina, alderdi demokratarekiko identifikazio ahulagoa duten hautesleen kasuan posible da Eisenhower

area will depend upon examination of communication vehicles such as the mass media and interpersonal communication" (Campbell et al., 1980, 31. or.).

hautagai egokitzen ikustea garaiko auzi politikoei aterabidea bilatzeko. Horren ondorioz, hautesle horiek joera izango dute kasu horretan alderdi errepublikanoari bozkatzeko. Horregatik guztiagatik, Campbell eta besteek (1980, 42. or.), kausalitatearen inbutua planteatzen dutenean, ezinbestekotzat ikusten dute honako hiru puntu gurutzatzea: 1) hautesleak alderdiekin duten identifikazioa, 2) hautesleek eztabaida politikoen aurrean duten jarrera, eta 3) hautagaiaren inguruko iritzia. Izan ere, hautesleak alderdiarekin duen identifikazioa ahula den kasuetan posible da beste biek botoan eragitea.

(...) the importance of personal attributes of the presidential candidates in creating temporary shifts in party fortunes, particularly when there is wide consensus, on the attractiveness of a candidate. To account such consensus, we may ask why people see these attributes as desirable in a President, or why this candidate rather than another was chosen. The first question has to do with perceptions of political roles, whereas the second leads rapidly out of the field of vision of the voter himself into aspects of decision making within political elites. On the other hand, to the degree that a candidate evokes a mixed response, we would want to know primarily what differences in individuals underlie such variation in feeling. Even here, however, the primary antecedent remains political. For the most potent factor differentiating responses is not economic status, social milieu, or variation in deep-seated temperament, but quite simply the political party, which more often than not has been espoused years before the candidate takes up a position as an object in the psychological field. (Campbell et al., 1980, 291-292. or.)

Gauzak horrela, honakoa da askatu gabe gelditu den azken auzia: zerk egiten du hautesle bat alderdi batekin identifikatzea? Alde horretatik, Campbell eta besteek azpimarratzen dute hautesle bat alderdi batekin edo bestearekin identifikatzean berebiziko eragina dutela hauteslearen etniak, posizio sozialak, bizipenek, erlijioak edo baita ere bere lagun edo familiak.¹⁴ Edonola ere, aldagai sozialek ez dute botoan zuzenean eragiten, baizik eta zeharka. Campbell eta besteek uste dute elementu sozialek botoa baino gehiago, hautesle batek hautagai edo alderdi jakin batekin identifikatzeko duten joeran eragiten dutela. Era berean, horrek guztiak beste bi ondorio dakartza: bata, alderdi sistemari egonkortasuna ematea; bestea, hautesleei gertakari politikoak baloratzeko mapa kognitiboa eskaintzea.

Laburbilduz, Eredu psikosozialak egiten duen ekarpen nagusia da azpimarratzea lotura bat dagoela hauteslea identifikatzen den alderdiaren eta politika ulertzerakoan abiapuntutzat duen mapa kognitiboaren artean. Campbell eta gainerakoek, luze eta zabal azaltzen dute nola gauzatzen den alderdiaren eta hauteslearen arteko identifikazioa. Era berean, azpimarratzen dute identifikazio horiek ulertzeko garrantzitsua dela

¹⁴ Campbell eta besteek sakon aztertu zuten posizio sozialaren eta alderdien gaineko identifikazioaren arteko erlazioa. Honatx horren inguruan esandakoa: "Although the fact of membership in a politically alert primary group is of no help to an understanding of the partisan direction of an individual's vote, it does suggest that he is likely to hold a more stable party preference over time. By the same token, such primary group mechanisms are of obvious import in maintaining the patterns of distinctive political behavior long associated with many sociologically defined groupings in the electorate". (Campbell et al., 1980, 293. or.)

hauteslearen testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa kontuan hartzea. Horrela, hurbilpen honek oinarri teorikoa eskaintzen du hurbilpen soziologikoari egotzen zaizkion hutsuneak gainditu eta begirada psikologikotik posizio soziala ez den beste elementu batzuek (hauteskunde kanpainak, komunikabide desberdinek edota hautagai konkretuek) hautesleen portaeran izan dezaketen eragina aztertzeko.

1.1.3 Eredu ekonomikoa: Downs eta izaki arrazional egoista

Soziologiaren eraginpean egon ziren Zientzia Politikoak XX. mendeko 40ko hamarkadatik 60ko hamarkadara doan aroan. Harrezkerotik, ordea, Ekonomia izan da Zientzia Politikoaren esparruan eragin handiena izan duena (Batlle, 2001, 14. or.). Alde horretatik, Anthony Downs da eredu ekonomikoaren oinarritzko printzipioak ikerketa elektoralak aberasteko erabiltzea proposatu zuen autore erreferentea. Bere pentsamendua luze eta zabal azaltzen du *An Economic Theory of Democracy* (1957) liburuan. Urte berean, hilabete batzuk lehenago eredu esplikatibo horren aurrerapena argitaratu zuen *Journal of Political Economy* aldizkarian “*An Economic Theory of Political Action in Democracy*” izena zuen artikuluan. Jarraian, azken testu horretan esandakoak jasotzen dira.

Testu horren ideia nagusia da ekonomialariak jatorrizko bekatuan erortzen direla politika aztergai duten ikerketetan gobernuaren funtzioa zehazterakoan. Alabaina, zertan datza jatorrizko bekatu hori? Honatx bere hitzak:

Los economistas se han contentado con discutir la acción gubernamental como si los gobiernos estuviesen dirigidos por altruistas perfectos cuya única motivación fuese maximizar el bienestar social. En consecuencia, los economistas han sido incapaces de incorporar el gobierno al resto de teoría económica, que se basa en la premisa de que todos los hombres actúan primariamente en función de sus propios intereses. (Downs, 2001 [1957], 110. or.).

Ikusten den bezala, Downsen arabera, ekonomialarien oinarritzko akatsa da sinestea gobernuko kideek motibazio altruistak eraginda hartzen dituztela erabakiak. Bere arabera, guztiz kontrakoa gertatzen da errealitatean. Izan ere, autore honek uste du gobernuan dauden politikariek motibazio egoistari jarraituz jokatzeko dutela. Motibazio egoista horren atzean dio honako hiru elementu daudela: boterea, prestigioa eta irabazi

ekonomiko propioen maximizazioa.¹⁵ Ikuspuntu hori justifikatzeko, bi definizio eta bost axiomatan oinarritzen du eredu esplikatiboa (Downs, 2001, 95-96. or.). Axioma horien bidez, besteak beste, hiru elementu txirikordaten ditu demokraziaren funtzionamendua azaltzeko: (1) gobernuak, (2) alderdi politikoa eta (3) hauteslea.

Eredu esplikatibo horren arabera, gobernuak da gizartearen eta bertako erakundearen gainean hertsadura ahalmen mugagabea duen agente gorena. Hala, alderdi politikoa irudikatzen ditu boterera iristeko instrumentu bezala. Horretarako, honako baldintzak bete behar dira sistema demokratiko batean: batetik, gutxienez bi alderdi politikok izatea gobernuaren kontrola lehiatzeko aukera; eta bestetik, emaitzak direnak direla ere, sistema demokratikoa errespetatzea. Hortik ondorioztatzen du Downsek alderdi politikoa gobernuak ematen duen prestigioari eta botereari zukua atera nahi dion gizon-emakumez osatuta daudela. Beraz, helburu bakarra dute alderdi politikoeak: ahalik eta boto gehien pilatzea (Downs, 2001, 96. or.). Zertarako? Boterea, prestigioa eta irabazi ekonomikoak gozaten jarraitzeko. Hautesleari dagokionez, Downsek dio naturaz egoista dela eta, eskaria/eskaintza kalkulurazionalen oinarrituz, ahalik eta kostu txikienarekin irabaziak maximizatzea izaten dutela helburu. Gauzak horrela, hautesleek bozkatzeko die gobernuaren euren interesak hobekien babestuko dituen alderdiei.

Orain arteko eredu esplikatiboak, errealitatearen inguruan ezagutza perfektua eta informazio osoa duten hiritarren portaera azaltzeko bakarrik balioko luke (Downs, 2001, 96-98. or.). Egoera horretan, norberak bere bakartasunean hartuko lituzke erabakiak, beti ere berari gehien zer komeni zaion pentsatuta. Alabaina, errealitatean, hautesleek ez dute gai baten inguruan ezagutza perfektua, ezta informazio osoa ere. Hala, Downs aurkitzen da aurrez aipatutako teoria hura egokitu beharrean ezagutza ez-perfektua duten hauteslez osatutako gizarte batera.

En este modelo el conocimiento imperfecto significa: 1) que los partidos no siempre saben exactamente lo que los ciudadanos desean; 2) que los ciudadanos no siempre saben lo que el gobierno o su oposición ha hecho, está haciendo o debería estar haciendo para servir a sus intereses, y 3) que la información necesaria para superar la ignorancia de los partidos y de los ciudadanos es costosa; en otras palabras, que deben utilizarse recursos escasos para obtenerla y asimilarla. (Downs, 2001, 98. or.).

¹⁵ Downsek (2001, 94. or.) mehatzari baten kasua jartzen du adibide gisa politikoen jokaera ulertzeko: “Shumpeter señala aquí una objeción crucial a la mayoría de los intentos por introducir el gobierno en la teoría económica: en la realidad no lo consideran como una parte del proceso de división de trabajo, en el que cada agente tiene tanto un motivo privado como una función social. Por ejemplo, la función social de un minero del carbón es extraer el mismo de la tierra, puesto que esta actividad proporciona una utilidad para otros. Pero está motivado para cumplir esta función por su deseo de ganar un sueldo, y no de beneficiar a otros. De la misma manera, en la división del trabajo, cualquier otro agente realiza su función social en primer lugar como medio para lograr sus propios fines privados: la obtención de una renta, de prestigio o de poder. Gran parte de la teoría económica consiste, en esencia, en probar hombres que persiguen sus propios fines pueden, también, realizar su función social con gran eficiencia, al menos en ciertas condiciones”.

Begirada berri honek bi elementu jartzen ditu mahai gainean: informatzeak sortzen duen kostua eta ezjakintasuna. Elementu horiek erabat baldintzatzen dute hautesleen eta alderdien arteko harremana. Downsek (2001, 98. or.) hiru punturen inguruan ematen ditu argibideak: pertsuasioa, ideologia eta ezjakintasun razionala.

Pertsuasioari dagokionez, Downsen (2001, 98-99. or.) arabera, informazio osoa duen hautesleak razionalki funtzionatzen duenez, inork ezin du konbentzitu. Alabaina, zer gertatzen da kontrako kasuetan? Ez-ezagutza dagoen kasuetan, Downsek aipatzen du joera desberdinak agertzen direla. Batzuek argi izaten dute zein alderdik babestuko dituen ongien euren interesak, beste batzuek, aldiz, ez. Azken horiek, informazio aski ez dutenez, zalantzan egoten dira nori bozkatu erabakitzeke. Zalantzan dagoen hauteslea konbentzitzeaz arduratzen dira euren botoa argi duten hautesleak, baita azken horien inguruan artikulatzen diren erakundeak ere. Adibide argiena da gobernuarena. Testuinguru horretan hartzen dute garrantzia demokrazian iritzia baldintzatzeko gaitasuna duten agente (adibidez, komunikabideak) nahiz norbanakoek (iritzi emaileek). Ikuspuntu horretatik, demokraziaren logikak “hautesle bat boto bat” dioen arren, gobernuarentzat hautesle guztiak ez dira berdinak.

Ideologiarena da testuan zehar argitzen duen bigarren puntua. Downsen arabera, alderdien helburu bakarra da gobernu lortzea boterea kudeatzeko. Ondorioz, ez dute modu jakin bateko gizartea eraikitzeke interesik *per se* (Downs, 2001, 101. or.). Planteamendu hori, ordea, errotik aldatzen da informazio inperfektuaren aldagaia agertzen denean. Kasu horretan, paper garrantzitsua jokatzen dute ideologiek. Azken batean, hiritarrak ez du informazio nahikoa gehien komeni zaion erabaki politikoa behin eta berriz baloratzeko. Alde horretatik, etengabe baloratzen ibili beharrean, hautesle askok alderdien ideologiak hartzen dituzte ipar orratz moduan botoaren norabidea zehazteko. Alderdiaren irudi orokorrarekin geratzen dira eta horren arabera hartzen dute erabakia. Horrela, kostu asko aurreratzen du hautesleak.

(...) la falta de información crea una demanda de ideologías en el electorado. Puesto que los partidos políticos están dispuestos a utilizar cualquier método viable para ganar votos, responderán creando una oferta. Cada partido inventa una ideología para atraer los votos de aquellos ciudadanos que desean reducir sus costes votando ideológicamente. (Downs, 2001, 101. or.).

Horrek guztiak, ordea, baldintza bat eskatzen du: alderdiak etengabe ideologiak aldatzen ez ibiltzea eta alderdien portaerak ideologiarekin bat etortzea. Baldintza horiek betetzen diren kasuetan, hautesleak, ideologiaren arabera erabakitzen du zein alderdi bozkatu. Alderdi sistema, azken batean, merkatu bat da: frutak edo objektuak saldu beharrean, jendearen interesak ordezkatzeko dituen ideologiak eskaintzen dituen alderdiez

osatutakoa. Irakurketa horretan oinarritzen da gerora horren erabilia izan den analisi espazialaren idea (Downs, 2001, 102. or.). Logika horren arabera, merkatuan dagoen alderdien ideologiaren eta boto emailearen interesen arabera, alderdi bat(tzu)ek beste(e)(a)k baino boto gehiago lortuko ditu(zte). Horretan datza politikaren jokoak. Alderdiek beren ideologiak egokitzen dituzte, beti ere, ahalik eta boto gehiena lortzeko helburuarekin.

Ezjakintasun razionala da testuak aztergai duen hirugarren puntua (Downs, 2001, 106-108. or.). Informazio inperfektua duten gizarteetan, hauteslearentzat kostua da informatzea. Alde horretatik, Downsek aipatzen du informazio falta hori ez dela hautesleen jarrera apatikoaren emaitza; aitzitik, jarrera razionala da. Nola iristen da ondorio horretara? Downsek azpimarratzen du gizarte informatu batean gizartearen gehiengoak irabazi gehiago lortuko lituzkela. Gauzak horrela, zergatik jarraitzen du gizartearen sektore handi batek informatu gabe? Zergatik ez dute guztiak batera erabakitzen informatzea? Hauteslea egoista delako. Downsen arabera, hautesleak kolektiboki informatzeko ahalegina egingo balu, beti egongo lirateke zenbait hiritar informatzeko ahaleginik egin gabe irabaziak jasotzeko helburua izango zutenak. Interes kolektiboa elikatuz, denak irabazten irten beharrean, bere onura soilik ikusten du norbanakoak. Hori dela eta, kalkulu razionalean oinarritutako erabaki egoistak jendea ez informatzera darama, azken horrek, kostu bat suposatzen baitio.

En consecuencia, es racional, desde el punto de vista de cada individuo, el minimizar su inversión en información política, a pesar de que la mayoría de los ciudadanos podrían beneficiarse sustancialmente si todo el electorado estuviese bien informado. Como consecuencia, los sistemas políticos democráticos se ven abocados a operar a una eficiencia menor que la máxima. El gobierno no sirve a los intereses de la mayoría tan bien como lo haría si ésta estuviese bien informada. Pero nunca se informará bien, puesto que el hacerlo es colectivamente racional, pero individualmente irracional; y, en ausencia de cualquier mecanismo que asegure una acción colectiva, prevalece la racionalidad individual. (Downs, 2001, 108. or.).

Laburbilduz, honako giza irudian oinarritzen da hauteslearen portaera elektorala azaltzeko hurbilpen ekonomikoa: indibiduala eta egoista da gizakia. Horrela, eredu honen arabera ulertzen da hauteslearen portaera elektorala hauteslearen interes propioek baldintzatzen dutela, hots, mozkinak maximizatzeak. Perspektiba horretatik, alderdi politikoak dira boterea eta prestigioa eskuratzea nahi duten gizon-emakumez osatutako taldeak. Ondorioz, ideologiak dira norbanakoaren denbora kostuak saihesteko bitartekoak. Aipatu berri ditugun horiek dira hurbilpen ekonomikoaren oinarri teorikoak.

1.1.4 Eredu desberdinen inguruko balorazioa eta hautua

Aurreko ataletan ikusi da hautesleen portaera elektorala azaltzeko hiru eredu nagusi daudela (soziologikoa, psikosoziala eta ekonomikoa). LeDuc eta Niemi (2014, 148. or.) ikertzaileek dioten moduan, ordea, hiru eredu horietako batek ere ez du azaltzen modu unibertsal batean hauteslearen portaera elektorala. Eredu bakoitzak bere indarguneak eta ahulguneak ditu eta ikerketa objektua aztertzeko modu berekia.

Gauzak horrela, ikertzailearen esku gelditzen da hauteslearen portaera elektorala aztertzeko eredu bat edo bestea hautatzea, edota, zenbaitek egin duten moduan, lan berean eredu bat baino gehiagoz baliatzea. Euskal Herriko sistema politikoa aztertu duten ikerketei erreparatuz gero, ikusten da ikertzaileek eredu desberdinez baliatu direla: batetik, eredu ekonomikoa oinarritu diren autoreak daude analisi espazialaz baliatu direnak (De la Calle, 2005; Ansolabehere eta Puy, 2016); bestetik, eredu psikosozialak eskaintzen dituen premisaz baliatu diren lanak daude (Alkorta, 2016); azkenik, hirugarren multzoa osatzen dute eredu soziologikoak eskaintzen dituen tresna teorikoez baliatu diren lanek (Leonisio eta Strijbis, 2014).

Ikerketa honetan, hurbilpen soziologikoa hobetsi da euskal lerrokatze linguistiko elektorala aztertzeko. Horrek ez du esan nahi beste ereduak (psikosoziala eta ekonomikoa) baliagarriak ez direnik, ikerketa honek dituen helburuak erdiesteko egokiena berau iruditu dela baizik. Erabaki hori hartzerakoan, bi irizpide hartu dira kontuan: batetik, eredu bakoitzaren oinarritzko premisak; eta bestetik, ikerketaren ezaugarriak. Alde horretatik, aurreneko irizpidearen bidez azaldu da zeintzuk diren eredu ekonomikoen mugak; aldiz, eredu soziologikoen hautua justifikatu da bigarren irizpideari jarraituta.

Portaera elektorala, azken batean, giza ekintza konkretu bat besterik ez da hauteskunderen testuinguruan forma eta zentzua hartzen duena. Ondorioz, garrantzitsua da kontuan izatea, portaera elektorala azaltzerakoan, eredu horietako bakoitza gizakiaren gaineko irudi jakin baten inguruan artikulatzen dela. Alde horretatik, eredu ekonomikoa eskaintzen duen azalpenaren atzean dagoen ideia da Ekonomia Zientzietan teorizatu den *homo oeconomicus*arena. Beraz, eredu ekonomikoa osotasunean ulertzeko, ezinbestekoa da *homo oeconomicus*aren atzean dagoen ideia ulertzea. Kontzeptu hau aurreneko aldiz Stuart Millek aipatu zuela esaten den arren, Adam Smithen lanean gorpuzten da eredu ideal gisa.

Este homo economicus que aparece como protagonista en la teoría del consumo de los manuales es egoísta, sólo obtiene utilidad del consumo propio y tiene una capacidad de cálculo formidable que le permite hacer planes óptimos en horizontes de planificación muy largos (maximización intemporal), en condiciones de riesgo (maximización de la utilidad esperada) o de incertidumbre (cálculo bayesiano de las probabilidades subjetivas). (D'Elia, 2009, 37. or.).

*Homo oeconomicus*aren ideia honek honela marrazten du giza izaera: indibidualista, egoista eta bere erabakiak razionalitate instrumentalean oinarritzen dituen. Ikusten den moduan, eredu horrek bete-betean egiten du bat Downsek (2001 [1957]) proposatutako premisekin. Akademian babes handia badu ere, bada eredu honek hobesten dituen premisak okerrak direla dioenik. Kontua ez da berria, urak aspalditik datoz. Mende bete inguru da Antropologia Ekonomikoan *homo oeconomicus* delakoaren gaineko kritikak eta alternatibak argitaratzen hasi zirela (Mauss, 2012 [1924]; Malinowski, 1975 [1922]; Polanyi, 1997 [1944]). Lan horiek, modu batera edo bestera, azpimarratzen dute ezin dela gizartea ekonomiara murriztu, ezta ekonomia espazio autonomo gisa kontsideratu ere; alderantziz, ekonomia ulertu behar da kultura oso baten baitan.¹⁶ Lan horietan ez da guztiz baztertzeko, neurri batean, giza portaerak egoistatik edota razionalitate instrumentaletik zerbait ez duenik. Alabaina, behin hori esanda, nahikoa da *Kularen* edota *Donaren* inguruko ikerketei begirada bat botatzea ikusteko ez dela zuzena giza portaera guztia ezaugarri horietara bihur-murriztea. Orduetik, zenbatu ezin ahala artikulak eta ikerketak argitaratu dira auzi honen inguruan. Alde horretatik, zenbait kritikoren aldetik azpimarratu izan da *homo oeconomicus*arena giza izaeraren irudi partziala izateaz gain, interes jakin batzuen gainean eraikitako kategoria teorikoa dela.¹⁷ Lan honek bere egiten ditu kritika horiek guztiak, eta ondorioz, baztertu egiten da

¹⁶ Aipatutako ideia hori autore bat baino gehiagok aipatzen badute ere, Polanyirenak (1997, 84, 87-88. or.) dira lan honetan jasotzen diren hitzak. Azken honen arabera, homo oeconomicus bezala ezagutzen den giza irudia Mendebaldeko gizartearen asmakuntza ideal bat besterik ez da, hori bai praktikara eramanda berebiziko eragina duena: "Queremos insistir en este aspecto con la máxima fuerza que nos proporcionan sólidas razones. Un pensador de la talla de Adam Smith ha señalado que la división de trabajo en la sociedad dependía de la existencia de mercados o, como él decía, de la «propensión del hombre a cambiar bienes por bienes, bienes por servicios y unas cosas por otras». De esta frase surgiría más tarde el concepto de «hombre económico». Se puede decir, con mirada retrospectiva, que ninguna interpretación errónea del pasado se reveló nunca como una mejor profecía del futuro. (...) El descubrimiento más destacable de la investigación histórica y antropológica reciente es el siguiente: por lo general las relaciones sociales de los hombres engloban su economía. El hombre actúa, no tanto para mantener su interés individual de poseer bienes materiales, cuanto para garantizar su posición social, sus derechos sociales, sus conquistas sociales. No concede valor a los bienes materiales más que en la medida en que sirven a este fin. Ni el proceso de la producción ni el de la distribución están ligados a intereses económicos específicos, relativos a la posesión de bienes. Más bien cada etapa de ese proceso se articula sobre un determinado número de intereses sociales que garantizan, en definitiva, que cada etapa sea superada. Esos intereses son muy diferentes en una pequeña comunidad de cazadores o de pescadores y en una extensa sociedad despótica, pero, en todos los casos, el sistema económico será gestionado en función de móviles no económicos".

¹⁷ Karl Polanyiren *La Gran Transformación* (1944) liburuaren gaztelaniazko itzulpenean, La Piqueta argitaletxeak 1997an argitaratua, Fernando Alvarez-Uría eta Julia Varela hitzaurrean zehar argi eta garbi esaten dute homo economicus delakoa asmakuntza interesatua dela: "El homo oeconomicus es una invención reciente, pues es a la vez proyecto y producto de las sociedades del laissez-faire. La subordinación de lo social a lo económico –que con empeñamiento continúan defendiendo hoy los adalides del neoliberalismo– no solo ha generado en Occidente una ola de miseria que el término cuestión social eufemiza, sino que ha destruido en las comunidades dependientes de África, Asia y América las formas de vivir comunitarias y, por consiguiente, las razones de vivir. El hambre y pobreza que se ciernen sobre estos

eredu ekonomikoa azalpen marko moduan euskal lerrokatze linguistiko elektoralazaltzeko.

Behin puntu honetara iritsita, bi eredu gelditzen dira aukeran: eredu psikosoziala eta soziologikoa. Honako irizpide honetan oinarritu da ikerketa bi eredu horien artean bat hautatzeko: ereduek eskaintzen dituzten tresna teorikoen eta ikerketa objektuaren arteko bateragarritasunean. Azken batean, lan honen helburua ez da eredu bat edo bestearen mugak azpimarratzea, ezta gutxiago ere. Alderantziz, ikerketa honetarako baliagarrien den eredia hautatu nahi da sarreran aipatu den helburua erdiesteko. Alde horretatik, eredu psikosozialaren kasuan, urtea joan eta etorri eredu honetaz baliatzen diren lanek erakutsi dute hautesleen portaera elektoralazaltzeko oso baliagarria dela.¹⁸ Edonola ere, lan honek dituen asmoetarako uste da eredu soziologikoa egokiagoa dela. Izan ere, ikerketaren helburua ez da EAEko edota NFEn euskal alderdi abertzaleei bozkatu dieten hautesleen portaera elektoralaz bere osotasunean aztertzea (hautesle guztien portaera elektoralaz, alegia). Ezta portaera elektoralean eragin duten aldagai politiko desberdinak identifikatzea ere, hala nola, hauteskunde kanpainaren, hautagaien edota auzi politiko baten garrantzia.

Aitzitik, lan honen helburua da Hego Euskal Herrian hautesleen portaera elektoralaren baitan gertatzen den fenomeno konkretu bat aztertzea: euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz. Zehazki, honako puntu hauek aztertu nahi dira bere inguruan: jatorria – *oinarrizko talde soziala*– eta sendotasuna –*saretze bertikala*–. Izan ere, fenomeno horrela aztertzeak aukera ematen du ikerketa honek landu nahi dituen eztabaida epistemiko eta teorikoak lantzeko. Horregatik egin da eredu soziologikoaren aldeko hautua. Aipatutako puntu horiek aztertzeo tresna teoriko egokiak eskaintzen dituelako.

continentes no son cataclismos naturales, ni castigos bíblicos, son efectos derivados de una destrucción sistemática de las raíces de las organizaciones sociales adaptadas a la tierra. El tercermundismo, ese concepto que reenvía a condiciones extremas de desarraigo y pobreza, y del que con ligereza se sirven algunos intelectuales orgánicos para descalificar a sus adversarios, es en realidad un producto del liberalismo desplegado a escala internacional. André Gorz extrajo las conclusiones de esta explicación cuando señaló que «lo mejor que podríamos hacer por el tercer mundo es ayudarlo ideológica, política y técnicamente a ahorrarse un tipo de industrialización que nosotros estamos en vías de superar».

¹⁸ Urrutira joan gabe, honatx eredu psikosozialaren inguruan Rivera eta Jaraízek diotena (2015, 39. or.) Kataluniako hauteskunde autonomikoetako emaitza elektoralak aztertu ostean: “La composición del voto en las pasadas elecciones catalanas del 27 de septiembre difiere entre los partidos que representaban la opción independentista y aquellos que eran contrarios a este proceso. La identificación partidista sigue siendo la variable que aporta mayor explicación (Campbell et al., 1960), pero aporta más en el caso de los partidos no independentistas como el PP, Ciudadanos y PSC (...) nuestro cuadro de resumen de efectos globales muestra que el tema «independencia» se ha convertido en uno de los ejes de la campaña, cómo han desaparecido el resto de los temas (entre ellos la gestión) y cómo se mantiene la identificación partidista. Pero sobre todo muestra el diferente peso de los liderazgos en la composición del voto, el modo en el que los líderes nacionalistas adquieren más protagonismo y el modo en que la ubicación en la escala nacionalista y en la escala ideológica afecta de manera indirecta a la decisión final de los votantes”.

Aurrera jarraitu aurretik, ordea, komenigarria da zenbait ñabardura egitea clivajearen teoriaren inguruan. Izan ere, oraindik zabalik dago XXI. mendearen atarian lehertu zen eztabaida, Lipset eta Rokkanen kristalizazio elektoralaren *–freezing hypothesis–* inguruko hipotesia zalantzan jarri duena. Luze eta zabal idatzi da honen inguruan azken urteetan. Auzia laburtzeko honatx Kriesik egoeraren inguruan egiten duen irakurketa:

The question of the development of the Western European conflict structure and its translation into politics has recently been the subject of a rather intensive debate among European political scientists, a debate which has largely been conducted on the basis of comparative empirical analyses. The results drawn from these analyses diverge considerably, depending on the conceptualization of the fundamental theoretical terms, their operationalizations for the empirical analysis, the types of data used, and the methods applied in the analysis of the data. For some authors, such as Bartolini and Mair (1990), who have studied the long-term development of the class cleavage in particular, the freezing hypothesis, albeit in a somewhat modified version, still applies. Others, such as Franklin, Mackie, Valen and their collaborators (1992), claim that in almost all of the countries they studied an important decline in the ability of social divisions to structure individual voting choice has taken place. They suggest that there is a universal process of decline in cleavage politics, which has gone more or less far in the different Western European and Northern American countries. (Kriesi, 1998, 166. or.).

Ikusten den bezala, bi jarrera desberdin agertu dira eztabaidaren inguruan: batetik, kristalizazio elektoralak ahulduz doala diotenak; eta bestetik, clivajearen teoriak oraindik errealitatea azaltzeko gaitasuna duela uste dutenak. Lipset eta Rokkanen hipotesiari egiten zaion kritika nagusietakoa da, 70eko hamarkadatik aurrera, gizarte egiturak ahulduz joan direla. Baumanen (2004 [2000]) metafora erabiliz, geroz eta likidoagoa da Mendebaldeko gizartearen ondorioz, geroz eta txikiagoa da zatiketa sozialek hautesleen portaeran edukiko luketen eragina. Bartolini eta Mair (2007, 15. or.) ikertzaileek beste begirada batetik begiratzen diote hauteskundeetan gertatzen diren deslerrokatze prozesuei. Beren ustez, clivajearen kontzeptua argitasunez definitu ezean, ezin da ikerketa objektua *–lerrokatze elektoralak–* bere osotasunean aztertu. Ildo horretatik, proposatzen dute clivajea soilik zatiketa sozial edo politiko gisa ulertu beharrean, fenomenoaren dimentsio sozial eta politikoa clivajearen kategoriaren baitan txirikordatzea. Ikuspegi horretatik errealitatea aztertuz gero, Bartolini eta Mair (2007) ikerlariak azpimarratzen dute clivajearen teoriak baliagarri izaten jarraitzen duela lerrokatze elektoralak ulertzeko. Beste modu batera esanda, Lipset eta Rokkanen hipotesiak *–freezing hypothesis delakoak–* ez diola utzi baliagarri izateari. Behin hau esanda, horrek ez du esan nahi deslerrokatze elektoralak gertatu ez direnik Europa Mendebaldeko zenbait hauteskundetan. Horregatik, ikerketaren hipotesia sendotzeko, erabaki da lan honen bigarren atalean badaezpada datu enpirikoen bidez egiaztatzea euskal kasuan lerrokatze linguistiko elektoralak gertatzen dela. Horrela, asmoa da lerrokatzearen existentziaren gaineko zalantzak uxatzea eta bere barneko mekanismoak aurreiritzi horiek gabe aztertzea.

Azalpen teorikoekin amaitu aurretik, azken ñabardura bat. Deslerrokatze elektoralaren fenomenoak ulertzeko Goldbergek honako hiru aldagai bereizten ditu: 1) egiturazko deslerrokatzea (*structural dealignment*); 2) portaerazko deslerrokatzea (*behavioural dealignment*); eta 3) deslerrokatze politikoa (*political dealignment*).

Traditional approaches that examine the decreasing relevance of party voting by cleavage groups distinguish between structural and/or behavioural effects. 'Structural dealignment' refers to changes in group size, such as a declining group of workers or religious people might be responsible for a decrease in cleavage voting. 'Behavioural dealignment', by contrast, concerns weakening party-voter links, like those between workers and left parties. This article adds a relatively contemporary third phenomenon to the existing two approaches: collective voting abstention by certain social groups (e.g., the lower classes), here referred to as 'political dealignment'. (Goldberg, 2020, 68. or.).

Hiru elementu horiek bateragarriak dira Bartolini eta Mair ikertzaileek proposatzen duten clivaje kontzeptuarekin. Horrela, hautesleen artean lerrokatze elektoralak ahultzen den kasutan ulertzen da hiru arrazoiengatik izan daitekeela: batetik, clivajearen tamaina txikitu delako; bestetik, clivajeak hautesleen portaeran eragiteko gaitasuna galdu duelako; eta, azkenik, talde sozialaren parte diren kolektibo batek sistema politiko horretan parte hartzeari uko egin diolako. Bereizketa hori egitea komenigarria iritzi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak osotasunean ulertu ahal izateko. Edonola ere, lan honetan arreta nagusia jartzen da bigarreanean, hots, portaerazko deslerrokatzean (*behavioural dealignment*).

Gauzak horrela, honakoa da aurrera begira egin nahi dena: hautesleen portaera elektoralak azaltzerakoan hobetsi den hurbilpenaren bidez, hau da, eredu soziologikoz baliauz, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzen saiatzea.

1.2 Eredu soziologikoaren mugak ertzeko kasuak azaltzeko: begirada modernoa auzitan

Hurbilpen soziologikoren baitan kokatzen den *clivajeen teoriak* dio lerrokatze elektoralak zatiketa sozial jakin baten inguruan artikulatzen den gizarte gatazka baten ondorioz gertatzen direla. Alde horretatik, zein da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren eragiten duen zatiketa soziala?

Galdera hori erantzun ahal izateko, aurrez, errepassoa egiten da clivajeen teoriak lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko proposatzen dituen irizpideen gainean.

1.2.1 Lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko irizpideak

Lipset eta Rokkanen (2012, 151. or.) lanean proposatzen da zentro-periferia gatazka ardatzaren logikan zedarritzea lerrokatze linguistiko elektoralaren interpretatzeko irizpideak. Irakurketa horri aurrerantzean begirada modernista deituko zaio ikertzaileak nazioaren gaineko ideia modernotik abiatzen baitira auzi linguistikoa esplikatzeko.

Begirada modernista hori praktikara eramaten duen ikerketa erreferente nagusietakoa da Arend Lijphartek 1979an *The American Political Science Review* aldizkarian argitaratu zuen “*Religious vs. Linguistic vs. Class Voting: The “Crucial Experiment” of Comparing Belgium, Canada, South Africa and Switzerland*” artikulua. Lan horren xedea da hierarkia zehaztea botoan eragiten duten aldagai sozialen artean. Horretarako aintzat hartzen den irizpidea da lerrokatze elektoral desberdinen sendotasuna. Alde horretatik, artikulua sarreraren aipatzen da bi direla lerrokatze elektoralari dagokienez akademian historikoki kontuan hartzen diren aldagai nagusiak: erlijioa eta klase soziala. Alabaina, Lijphartek gogorarazten du askotan hizkuntzaren aldagaia alboratuta gelditu izan dela. Horren inguruan dio hutsune hori ez dela gertatzen hauteslearen portaera elektoralan besteak baino garrantzi gutxiago duelako. Hizkuntzaren aldagaiak estatu gutxi batzuei eragiten dielako baizik. Begirada modernoaren arabera, estatu-nazioaren baitako erregioetara mugatzen dira auzi linguistikoak kasu gehienetan.

The major overall conclusion which emerges from comparative studies of the social and demographic bases of voting behaviour is that there are two especially important determinants of party choice: social class and religion. Compared to these two strong factors, the influence of other social and demographic variables tends to be much weaker. However, a third potentially powerful variable –language– has received scant attention so far. The main reason for this underserved neglect appears to be that linguistic cleavages are relatively rare in Western democracies. (Lijphart, 1979, 442. or.).

Horregatik guztiagatik, Lijphartek hasieratik bertatik azpimarratzen du ezinbestekoa dela ikerketaren helburuak erdiesteko lagina ondo hautatzea. Azken batean, funtsezkoa da lagin hori osatzen duten herrialdeek aipatutako hiru zatiketak izatea –soziala, linguistikoa eta erlijiosoa– (auzi linguistikoa ulertzen du zatiketa eragiten duen elementua dela!). Aldagai hori kontuan izanik, Belgika, Suitza, Hego Afrika eta Kanada dira ikerketa honetan aztertzen diren herrialdeak (Lijphart, 1979, 442-443. or.). Alde horretatik, lanean zehar ondorioztatzen da kasuan kasuko partikularitasunak gorabehera, oro har, lerrokatze sendoenak eragiten dituen aldagai nagusia hauteslearen erlijioa dela hizkuntzaren gainetik.

This four-country comparison was described earlier as a “crucial experiment” in Naroll’s sense of the term. It may also have likened to a decisive trial of strength, in which religion turns out to be victorious, language is a strong runner-up, and class finishes as a distant third. Can these findings be explained and interpreted in a broader theoretical framework?. (Lijphart, 1979, 452-453. or.).

Honako bi puntu hauek dira ondorio horretatik lan honetarako interesatzen zaizkigunak: bat, hauteslearen portaera elektorala azaltzerakoan hizkuntzari ematen dion garrantzia klase sozialaren aldagaiaren aurrean;¹⁹ eta bi, Lipset eta Rokkanek proposatzen duten marko teorikoari gaitasuna aitortu izana fenomeno horiek azaltzeko. Bi ondorioak interesgarri diren arren, bigarrenari heltzen zaio jarraian:

Neither is it surprising that linguistic voting turns out to be relatively strong in the four linguistically divided countries. A shared language is regarded as one of the principal building blocks of nationalism both in the traditional literature on this subject and in Karl W. Deutsch’s (1953) more refined concept of a nation as an intensive network of communication. Because language is a crucial differentiator among nations, it is bound to be a major cleavage and a strong source of partisan differences in “nations” that are not linguistically homogeneous. The finding that language is a strong determinant of party choice also accords with the developmental theory of cleavage structures and party systems expounded by Seymour M. Lipset and Stein Rokkan (1967): cultural-territorial conflicts are one of the four basic sources of party system cleavages that they distinguish. (Lijphart, 1979, 453-454. or.).

Ikusten den moduan, Lijphartek ontzat jotzen du lerrokatze linguistiko elektorala azaltzeko Lipset eta Rokkanek proposatzen duten markoa. Horrela, lerrokatze linguistikoen gaineko ikerketen kanona osatzen lagundu zuen Arend Lijpharten aurkikuntzak. Ezin da ahaztu Arend Lijphart mundu mailako autore garrantzitsuenetakoa izan dela. Beste gauza batzuen artean, Amerikako Zientzia

¹⁹ Interesgarria da ikustea nola azaltzen duen hiru aldagaietatik lerrokatze ahulenak eragiten dituen klase soziala dela: “The conspicuous weakness of class voting compared with religious and linguistic voting is not really surprising. True, even without a Marxist bias, one would not be unreasonable to assume that elections in Western industrialized societies are, or should be, “the expression of the democratic class struggle” (Lipset, 1960, 200. or.), and to regard religious and linguistic attachments as pre-modern forces. However, such “primordial” communal loyalties can be extremely tenacious even in the modern world, and they constitute a formidable obstacle to the development of competing cleavages based on objective socioeconomic interest (...) Social class is clearly no more than a secondary and subsidiary influence on party choice, and it can become a factor of importance only in the absence of potent rivals such as religion and language” (Lijphart, 1979, 453. or.).

Politikoen Elkarteko lehendakaria izan zen.²⁰ Horregatik guztiagatik, zuzenean edo zeharka, nabarmena da ikerketa horrek izan duen eragina hizkuntza propioa duten estatu gabeko nazioetan gertatzen diren lerrokatze elektoralak aztertzen dituztenengan. Testuinguru horretan ulertu behar dira Hego Euskal Herriko hauteskundeak aztertzen dituzten ikertzaileen proposamenak. Ildo horretatik, aipatutako ikerketa ez da garrantzitsua esplizituki Euskal Herrian gehien aipatutako autorea delako, baizik eta Espainian erreferente diren beste zenbait autorerekin batera lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzeko jarraitu beharreko kanona osatzen bere lana mugarria izan delako. Gainerakoan, Lipset eta Rokkanen ikerketa sozializatu dutenen artean Juan José Linz izan da Espainiako ikertzaileen artean erreferente nagusia.

Dentro del Estado español las nacionalidades –tanto el País Vasco, Cataluña como Galicia– constituyen una periferia no sólo en el sentido geográfico del término, sino en el sociológico-político que ha dado Stein Rokkan al término en sus muchos trabajos sobre la creación de los Estados modernos en Europa y sobre la resistencia a la plena integración en Estados nacionales de distintos territorios y sus habitantes. Ha sido el mérito del gran sociólogo y politólogo noruego subrayar que en la vida política existen no sólo las tensiones, conflictos y alineaciones partidistas basadas en los conflictos de clase, en las diferencias de intereses y estilo de vida urbano y rural, y los derivados de la tensión religiosa o de religiosidad-secularismo, sino los derivados de la tensión centro-periferia. Tensiones entre un centro de poder político, económico, cultural, lingüístico con ambición hegemonía y regiones, etnias, culturas, en la periferia que han escapado o resistido la plena dominación e integración por el centro «constructor» del Estado. (Linz, 1986, 369. or.).

Aurrez esan bezala, hizkuntzaren aferak estrukturalki Europa Mendebaldean Estatu gutxi batzuei eragiten die, nahiz eta ia Estatu guztietan egon komunitate linguistiko bat baino gehiago dituzten erregioak. Espainia da estatu horietako bat. Azken honen kasuan, zentroko hizkuntzaz gain –gaztelania–, beste hizkuntza batzuk daude Linzek nazionalitate edota periferia deitzen dituen lurraldeetan –euskara, katalana edota galiziera adibidez–. Horregatik, asko dira Espainiar estatuko “erregioetako” hauteskunde autonomikoak aztertzeko Lipset eta Rokkanek proposatutako begirada modernoaz baliatzen direnak (Llera, 1985; Linz, 1986; Martínez-Herrera eta Barceló, 2014).

Azken urteotan, ordea, akademian lan desberdinak agertu dira auzi nazionalaren inguruan bestelako irakurketa osagarriak iradoki dituztenak. Horietako bat da Eva Anduiza eta Agustí Boschen (2012) proposamena. Autore horien planteamenduak aukera ematen du begirada modernoaren inguruan artikulatzen den nazioaren gaineko eztabaida akademikoa problematizatzeko eta lerrokatze linguistiko elektoralak beste begirada batetik interpretatzeko.

²⁰ <https://polisci.ucsd.edu/people/faculty/faculty-directory/emeriti-faculty/lijphart-profile.html>
(azkeneko aldiz begiratuta: 2021/09/02).

Anduiza eta Boschek proposatzen duten marko interpretatzailearen arabera, gaur egun, Europa Mendebaldeko sistema politikotan gertatzen diren lerrokatze elektoral guztien atzean, XVI eta XVIII. mendeen artean gertatuko hiru gertakari historiko daude –Lipset eta Rokkanek, adibidez, teoriarik bi gertakari historiko aipatzen zituzten²¹–. Aipatutako gertakari historikoak honako hauek dira: bat, erreforma protestantea; bi, estatu-nazioaren eraikuntza; eta hiru, iraultza industrialia.

4. taula: Europa Mendebaldeko clivajeen sorrera.

Gertakari historikoa	Zatiketa soziala eta sortutako gatazka	EREDUA	Amaierako clivajea
I. Erreforma protestantea	1 Katolikoak vs protestanteak		Clivaje erlijiosoa
II. Estatu Modernoaren eraikuntza	2 Estatuaren mendekoak vs Elizaren mendekoak		Jatorriaren araberrako clivajea
	3 Komunitate kulturala vs besteak	BELGIKAR EREDUA	
	4 Zentro dominantea vs periferia	MEDITERRANEAR EREDUA	
III. Iraultza industrialia	5 Landaguneko lur jabeak vs hiriguneko industrialariak	ESKANDINAVIAR EREDUA	Klase sozialaren araberrako clivajea
	6 Burgesia vs langileak		

Iturria: Anduiza eta Bosch (2012, 149. or.).

Lipset eta Rokkanen testuaren gaineko interpretazio modernistarekin konparatuz hiru dira proposamen honetatik interesatzen zaizkigun ekarpenak:

- A) Modernitateko gizarte zatiketen sorrera ulertzeko, gutxienez XVI. mendera egiten dute atzera XIX. mendetik hasi beharrean. Horrek aukera ematen du lerrokatze linguistiko elektoralari ulertzeko gakoak Frantziako Iraultzara mugatu beharrean estatu modernoaren sorreraren erroetan kokatzeko.
- B) Horrela birdefinitu egiten da nazio politikoaren ideia. Nazio guztien partikularitasun kulturala azpimarratzen da eta, ondorioz, begirada alternatibo honetatik nazioaren kategoriak ez dio erreferentzia egiten hiritarren batasun politikoari. Bereizi egiten dira lurralde bateko gatazka kulturala eta gatazka territoriala bi eredu desberdin osatuz: gatazka nazionalak (Belgikar eredu) eta zentro-periferia gatazka (Mediterranean eredu).
- C) Erlijio gatazken baitan berezi egiten dira bi eztabaida: lehena erlijio komunitate desberdinen artekoa: katolikoaren eta protestanteena. XVI. mendean ezartzen da gatazka honen jatorria. Bigarrena eztabaida artikulatzen da legitimitatearen inguruan, hau da, estatu-nazioaren eta Elizaren artekoa (izan katoliko edota

²¹ Lehenago aipatu den arren, honakoa da dimentsio tenporalari dagokionez Lipset eta Rokkanen kontakizun modernistaren oinarritzko ideia: “Gran parte de la historia de Europa, desde principios del siglo XIX, puede describirse en función de la interacción entre estos procesos de cambio revolucionario: uno desencadenado en Francia y otro originado en Gran Bretaña. Ambos tuvieron consecuencias para la estructura de división de cada nación, pero el que produjo las oposiciones más encontradas y profundas fue la Revolución francesa. (...) Esto era mucho más que una cuestión de economía.” (Lipset eta Rokkan, 2012, 151-152. or.).

protestantea). Horrela, lehena erreforma protestantearen ondorio den bitartean, Anduiza eta Boschek azpimarratzen dute bigarrena estatu-nazioaren egikaritze prozesuaren ondorio dela.

Anduiza eta Boschek (2012, 145-172. or.) eskaintzen duten begirada berriak hauteskundeetan gertatzen diren lerrokatze elektoralak azaltzeko hiru clivaje proposatzen ditu: erlijiosoa, jatorriaren arabera eta soziala. Alde horretatik, autore hauek mantendu egiten dituzte Lijphartek (1979, 442. or.) azpimarratzen zituen hiru aldagai nagusiak –soziala, hizkuntza eta erlijioa–. Proposamen honen berrikuntza da lerrokatze linguistiko elektoralak *jatorriaren arabera clivajearen* parametroetan azaltzea, eta azken hori, osotasun baten moduan ulertu beharrean tipologia desberdinetan banatzea. Hor dago kokka: zein zatiketa sozialen gainean artikulatzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak eragiten duen jatorriaren arabera clivajea?

4. irudia: Jatorriaren arabera clivajea: bi eredu desberdin.



Iturria: Anduiza eta Bosch (2012, 161-172. or.). Egileak moldatua.

Anduiza eta Boschek arabera, bi dira Europa Mendebaldean lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko baliagarri diren ereduak: gatazka nazionalak eragindako Belgikar eredu eta zentro-periferia gatazka eragindako Mediterranear eredu.²²

Belgikar ereduak azpimarratzen du lerrokatze linguistiko elektoralaren atzean clivaje nazionala dagoela. Kasu honetan, lerrokatze elektoralaren ezaugarri nagusia da Belgikako hiritarrak bi komunitate nazionaletan bereizten direla: flandriarrak eta valoniarrak. Eta bakoitzak bere portaera elektoral propioa du. Hiritartasun bera partekatzen dute –belgikarra– baina desberdina da identitatea nazionala –flandriarra edo valoniarra–. Aurrenekoek herri germanikoekin dute lotura. Bigarrenek, berriz, frantziarrekin dituzte harremanak. Hala, komunitate bakoitzak funtzionatzen du koordinatu linguistiko-nazional propioetan. Alderdi sistema gizarteko zatiketen ispilu izanik, agerian geratzen da Estatuaren errealitate plurinazionala. Horregatik, bitan

²² Jatorriari dagokion clivajearen baitan lau tipologia banatzen ditu. Alabaina, lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko bi eredu hartzen ditu soilik erreferentzia moduan. Ondorioz, sailkapen honetatik kanpo gelditzen dira bizilekuaren –landagune/hirigune ardatza– inguruan artikulatzen den eredu eskandinaviarra eta arrazaren inguruan artikulatzen den eredu amerikarra (Anduiza eta Bosch, 2012, 161-172. or.).

banatzen dira Belgikako alderdi politikoak: alderdi valoniarrek eta alderdi flandriarrek. Hala, valoniarrek jatorri nazional bereko alderdiei bozkatzeko diete eta beste horrenbeste gertatzen da flandriarren kasuan (Anduiza eta Bosch, 2012, 161-165. or.).

Mediterranean ereduaren kasuan, zentro-periferia gatazka ardatzaren logikan artikulatzen dira lerrokatze linguistikoa ulertzeko irizpideak. Eredu honek babesten duen hipotesia da lerrokatze linguistiko elektoralaren atzean, boterearen kudeaketaren auzia dagoela: zentro politiko, kultural eta ekonomiko indartsu baten eta periferiako lurraldeen artean sortzen diren tirabirak. Beste modu batera esanda, ikuspegi honetatik suposatzen da alderdi periferikoek erregio horretako kultur aniztasunaren inguruan sentzibilitate gehiago dutela. Hori dela eta, lurralde horretako hautesleek oinarrian hiritartasuna partekatu arren, portaera elektoral desberdina dute euren ezaugarri etniko-territorialen arabera. Ildo horretatik, zentroko kultura hegemonikoarekin bat egiten duten hautesleek estatu mailako alderdiak bozkatzeko dituzten bitartean, erregio horretako kulturarekin bat egiten duten hautesleek joera handiagoa izango dute Estatu Mailakoak Ez diren Alderdiei (EMEA; alderdi erregionalista eta nazionalistek) botoa emateko. Bereziki, EMEA alderdiei bozkatzeko joera duten hautesleak dira estatuaren periferian kokatzen den erregio horretako komunitate etnikoaren hizkuntza gutxitua ezagutu edo bere aldeko jarrera dutenak (Anduiza eta Bosch, 2012, 166-168. or.).

Ikusten den moduan, Mediterranean eredu Lipset eta Rokkanek proposatzen duten interpretazio markoaren berdina da. Eredu hori, nazioaren gaineko zatiketa etnikoan/politikoan oinarritzen da gatazka linguistiko-nazionalaren korapiloa askatzeko. Ikuspegi horretatik planteamendu nazionala (Belgikar eredu) zentro-periferia ardatzaren baitan urtzen da erreakzio etno-territorial gisa definituz. Anduiza eta Boschek, ordea, bereizi egiten dituzte aurrez aipatutako bi ereduak: Mediterranean eredu eta belgikarra. Azken honen oinarritzeko hipotesia da lerrokatze linguistiko elektoralak Estatu baten aurkako erreakzio baino gehiago ezaugarri kultural berdinak dituztenek zentro politiko propio bat sortzeko partekatzen duten xede kolektiboaren isla direla. Bi aukera horien inguruan, honatx zer dioten Anduiza eta Boschek:

Es evidente que hay un cierto encabalgamiento entre la versión belga (origen nacional) y la versión mediterránea (centro-periferia). Que los politólogos clasifiquen un clivaje de origen bajo la versión de origen nacional o bajo la versión centro-periferia tiene fuertes implicaciones valorativas. Lo que para unos es una clarísima diferencia de identidad nacional, para otros son peculiaridades regionales de raíz folclórica. A pesar de eso, hay un elemento que puede servir para diferenciar las dos versiones. En una versión centro-periferia, la divisoria se basa siempre en un lugar de residencia del individuo. Los dos bandos del clivaje viven en territorios alejados: los unos en el centro del país, los otros en la periferia. En cambio, en la versión nacional, la diferencia no está en el lugar de residencia, sino en la identidad del mismo individuo. Por decirlo de otro modo, el centro-periferia se basa en diferencias dentro de una misma colectividad nacional, en cambio, el clivaje nacional se basa en divisiones entre colectividades. (Anduiza eta Bosch, 2012, 167. or.).

Laburbilduz, atal teorikoan ikusi da jatorriaren arabera clivajearen baitan bi eredu daudela euskal lerrokatze linguistikoa eragin dezaketenak: nazionala edota periferikoa. Alde horretatik, zein da euskal kasua azaltzeko baliagarriena?

1.2.2 Euskal kasuaren izaera: periferikoa edota nazionala?

Aurreko puntuan ikusi da bi direla euskal lerrokatze linguistikoa eragin dezaketen clivajeak –nazionala eta periferikoa–. Behin akademiak eskaintzen dituen aukera desberdinak ikusita, honakoa argitzea komeni da: zein zatiketatan du jatorria euskal lerrokatze linguistikoa gertatzea ahalbidetzen duen clivajeak? Auzia dirudiena baino konplexuagoa da. Anduiza eta Bosch ikertzaileak ez datoz bat elkarren artean Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kasua kategorizatzerakoan. Desadostasun horren berri ematen du ondorengo aipuak:

España es un caso más complicado porque su clivaje de origen es una mezcla entre una versión centro-periferia y una versión de origen nacional. Sin voluntad de sentar cátedra, podríamos decir que hay un centro en la Meseta (que incluiría Madrid, Castilla y León, Castilla-La Mancha, y también Extremadura), una «primera periferia» a su alrededor (que incluiría Andalucía, Asturias, Canarias, Cantabria, Aragón, Murcia, La Rioja, Ceuta y Melilla). Y una «segunda periferia» o unos «centros alternativos» que serían territorios con una identidad nacional diferenciada y que, por tanto, no estarían en ninguno de los dos bandos del clivaje centro-periferia (incluirían al menos Cataluña y Euskadi).” (...) Galicia, Navarra, las Islas Baleares y el País Valenciano pueden ser emplazados en la primera o segunda periferia según las convicciones nacionales de cada uno. Uno de los autores los pondría con Cataluña y Euskadi, pero también es consciente de que ello no es compartido en absoluto por la comunidad académica. También es subjetivo denominarlo «segunda periferia» o llamarlo «centro alternativo». (Anduiza eta Bosch, 2012, 166. or.).

Ikusten den moduan, bi ikuspegi horiek –periferikoak eta nazionalak– talka egiten dute elkarren artean. Autore batentzat, Hego Euskal Herriko kasua Estatu espainiarraren deribatu gisa aztertu behar da (Mediterraneanar eredua edo periferikoa). Aldiz, zentro propio gisa aztertu behar da beste autorearentzat (eredu nazionala).

Ondorengo puntuetan, bi proposamen horien inguruko azterketa egiten da eta, bide batez, zehazten da zein diren proposamen baten eta bestearen indarguneak eta mugak.

1.2.2.1 Hurbilpen periferikoa: errealitatea kategoria erdaldunetara bihurtzen

Euskal kasua aztertzeke orduan, irizpideak hurbilpen periferikoaren arabera zedarritzeak dakarren ondorio nagusia da euskal errealitatea kategoria erdaldunetara bihurtzea. Nola gertatzen da hori? Euskal alderdi nazionalistak Espainiar estatuko

alderdi periferiko gisa kategorizatuz, eta zeharka, horrela adieraziz euskal nazioa Espainiar estatuaren periferia dela.²³ 1980ko hamarkadatik aurrera argitaratuko diren lan eta autore erreferenteek irizpide periferiko horien arabera zedarritzen dituzte Espainiar estatuko autonomia erkidegoetako alderdi sistemak (Linz, 1986; Pallarés, 1991; Montero et al., 1998; Llera, 2016d). Horregatik, berebiziko garrantzia du hurbilpen honen ezaugarriak xehe-xehe aztertzeak. Lagoren adierazpena lagin bikaina da hurbilpen periferikoaren oinarritzko ideia ulertzeko:

[La creación de Estado de autonomías] que supuso la implantación de las diecisiete Comunidades Autónomas y la reforma del Estado, le ha otorgado un papel fundamental al cleavage regional en la democracia española (...) En términos generales, el cleavage regional ha cristalizado en dos resultados electorales complementarios: la existencia de significativas variaciones en la distribución del voto entre las Comunidades Autónomas y la presencia de partidos nacionalistas en algunas Comunidades y de partidos regionalistas en buena parte de las restantes (Pallarés, Montero y Llera, 1997).

Esta heterogeneidad de alineamientos electorales y partidistas en distintas bases territoriales lleva a que España haya que hablar de sistemas de partidos en plural. (...) En este sentido, se pueden distinguir dos grandes modelos territoriales: uno de carácter general, que se desarrolla en doce de las diecisiete Comunidades, y otro excéntrico, que, con algunas diferencias, encontramos en Canarias, Cataluña, Galicia, Navarra y el País Vasco (Linz y Montero, 1999; Ocaña y Oñate, 2000; Vallés, 1991).

El modelo dominante se caracteriza por el apoyo prácticamente exclusivo que reciben los partidos de ámbito estatal. (...) En los modelos excéntricos, las fuerzas nacionalistas o regionalistas cuentan con un amplio respaldo electoral. (Lago, 2002, 136. or.).

Hurbilpen periferikoak Estatu hartzen du irakurketa guztien abiapuntu gisa. Ondorioz, ikertzailea behartuta dago Estatuaren deribatu moduan aztertzerako estatu mailakoak ez diren fenomenoak –nazionalistak eta erregionalistak–. Horregatik, akademian joera dago Espainiar estatuko alderdiak bi taldetan banatzeko: EMA (Estatu Mailako Alderdiak) eta EMEA (Estatu Mailakoak Ez diren Alderdiak; gaztelaniaz, PANE).

Lagares-Diez eta Oñatek (2019, 167. or.) aurkezten duten taulan ikusten da Estatu osoko autonomiak kontuan izanez gero, NFEko eta EAeko hauteskunde autonomikoetan lortzen dituela EMEA multzoak boto ehuneko altuenak. Era berean, Lagok (2002, 136. or.) aipatzen du alderdi sistemak bereiztean EMEA multzoak lortzen duen boto ehunekoen aldagaia dela kontuan izan beharreko irizpidea.

²³ Hurbilpen periferikoaren arabera Iparraldea aztertu behar da Frantziar Estatuaren koordinadetan. Ondorioz, bi zentro desberdinen logikan ulertu behar dira Hegoaldea eta Iparraldea, nahiz eta bi lurralde horietan ordezkariak lortzen duten alderdiak fenomeno nazional beraren parte izan (Linz, 1986, 369-484. or.).

5. taula: Emaitza elektoralak Espainiako autonomietan, 2015/2016ko hauteskunde autonomikoetako kasua.


	PP	PSOE	PODEMO S	C'S	IU	EMEA-1	EMEA-2	EMEA-3	EMA Taulakoak	EMEA GUZTIRA
EAE	10,2	11,9	14,9	2	-	37,6 (PNV)	21,3 (EH Bildu)		39,0	58,9
NFE	4,0	13,6	14	3	3,8	28,0 (UPN)	16,1 (GBai)	14,5 (EH Bildu)	38,4	58,6
Katalunia	8,5	12,8	9,0	18	-	39,8 (JxSI)	8,3 (CUP)	2,5 (UDC)	39,3	50,6
Kantabria	33,1	14,3	9	7,1	2,6	30,4 (PCR)			66,1	30,4
Kanariar Uhartek	18,9	20,3	14,8	6,1	2,2	18,6 (CC)	10,4 (NCa)		62,3	29,0
Balearr Irlak	28,5	19,9	14,7	5,9	1,7	13,8 (MES)	8,0 (EI Pi)		70,7	21,8
Valentzia	27,0	20,9	11,6	12,7	4,4	18,7 (Compr.)			76,6	18,7
Aragoi	28,1	21,9	21	9,6	4,3	7,0 (PAR)	4,7 (ChA)		84,9	11,7
Galizia	48,0	18,1	19,3	3,4	-	8,4 (BNG)			69,5	8,4
Asturias	22,0	27	19,4	7,3	12,2	8,3 (FORO)			87,9	8,3
Errioxa	39,3	27,2	11,4	10,6	4,2	4,5 (PR)			92,7	4,5
Andaluzia	27,1	35,9	15,1	9,4	7				94,5	
Gaztela- Mantxa	38,2	36,8	9,9	8,8	3,2				96,9	
Gaztela- Leon	38,7	26,6	12,4	10,5	4,3				92,5	
Estremad ura	37,5	42,1	8,1	4,5	4,3				96,5	
Madril	33,5	25,7	18,8	12,3	4,2				94,5	
Murtzia	38,0	24,3	13,4	12,7	4,9				93,3	

Iturria: Lagares Diez eta Oñate (2019, 167. or.). Egileak moldatua.

Ildo horretatik, Espainiar estatuko autonomietan alderdi sistemak irudikatzean Lagoren (2002) ereduari jarraituz, bi eredu desberdin artikulatzen dira clivajeen teoriaren arabera: batetik, Estatuko alderdi sistemen “eredu orokorrarekin” bat datozen alderdi sistemak daude bi hankako mahaia osatzen dutenak; bestetik, lau hankako mahaiaren irudia dago EAeko eta gainerako alderdi sistema eszentrikoak marrazterakoan irteten dena.


5. irudia: Espainiar estatuko alderdi sistemak; “ohikoak” (Madril) eta “eszentrikoak” (EAE).

*Madrileko alderdi sistema
(2015)*



X ardatza: –
Y ardatza: ezker/eskuin

*EAeko alderdi sistema
(2016)*



X ardatza: zentro/periferia
Y ardatza: ezker/eskuin


Iturria: Egilea.

Hurbilpen periferikoaren arabera, “eredu orokorrarekin” bat datozen alderdi sistemen eta alderdi sistema “eszentrikoen” artean dagoen desberdintasuna da aurrenekoak soilik clivaje sozialaren gainean artikulatzen diren bitartean, bigarrenak clivaje sozial eta clivaje periferikoaren gainean artikulatzen direla. Beraz, lerrotatze elektoralak alderdi sistemaren isla diren neurrian, perspektiba honetatik ulertzen da ugazabek eskuindar

alderdiei bozkutzen dieten moduan, clivaje periferikoa dela euskal lerrokatze linguistiko elektorala eragiten duena NFEko eta EAEko hauteskunde autonomikoetan.

Lehen begiratuan azalpen egokia dirudi. Alabaina, ertzak arakatzuz gero, ikusten da hurbilpen periferikoak eskaintzen duen interpretazio markoak mugak dituela errealitatea azaltzeko. Bere muga nagusia da desfasea dagoela hurbilpen periferikoa onartzen duten ikertzaileek hobesten duten begirada teorikoaren eta praktikan egiten duten irakurketa elektoralaren artean. Desfasea agertzen da alderdi erregionalistak eta nazionalistak gurutzatzen diren kasuetan. Izan ere, biak ala biak alderdi periferiko gisa sailkatu arren, irakurketa elektorala egiterakoan alderdi erregionalistak estatalisten multzoarekin elkartzen dituzte EMEA multzoa bitan zatituz. Honatx horren adibidea:


6. irudia: Anlisi elektorala eta clivaje periferikoa.



Iturria: Llera (2016b, 56. or.).

Ikusten den moduan, Llerak (2016b, 56. or.) bi multzo bereizten ditu EAEko hauteskunde autonomikoetako bilakaera elektorala aztertzean: nazionalistak eta estatalistak. Kategoria horien atzean dagoen ideia da nazioaren gaineko begirada modernoarena. Alde horretatik, EMEA taldea soilik alderdi nazionalistaz osatuta balego, betiere, begirada modernoaren arabera, arazorik ez legoke analisi elektorala egiteko. Izan ere, EMEA multzoa nazionalista gisa kategorizatzen da eta EMA multzoa estatalista moduan. Alabaina, sailkapenaren mugak azaleratzen ditu 1998ko hauteskundeetan UA alderdi erregionalistak ordezkariak lortzeak. Izan ere, azken hori teorikoki EMEA multzoan sailkatzen den arren, analisi elektorala egiterakoan EMA multzoan sailkatzen du ikertzaileak. Desfase horretan arakatu behar da hurbilpen periferikoaren kontraesana ulertzeko.

7. irudia: EAeko alderdi sistema (1998).



Iturria: Egilea.

Alderdi sistema clivaje sozial eta erregionalaren arabera artikulatuz gero, Unidad Alavesa (UA) alderdia, EAJ bezala, lurraldetasunari dagokionez da alderdi periferikoa. Ikuspuntu sozialetik, berriz, zentro eskuinekoa. Beraz, analisi elektorala egiterakoan, zentro/periferia dikotomiari jarraituz gero, elkartu egin behar dira euskal alderdi nazionalisten botoak eta UA alderdiarenak. Llerak (2016b, 56. or.) proposatutako irudian ikusten den moduan, ordea, praktikan zentzua duena da UA alderdiak jasotako botoak alderdi estatatalen multzoan zenbatzea. Beste modu batera esanda, alderdiak euren nazionalitatearen arabera bereiztea eta ez zentro/periferia dikotomiaren logikan. Lerrokatze linguistiko elektoralei dagokienez, Alberoren (2005) ikerketak argi eta garbi erakusten du datu agregatuak erabiliz NFEan lerrokatze linguistiko elektorala ez dela gertatzen euskal komunitate linguistikoaren eta alderdi periferikoen artean, euskal alderdi nazionalisten artean baizik.


Horregatik guztiagatik, praktikak erakusten du alderdi sistema sailkatzean, clivaje sozialarekin batera, clivaje nazionala izan beharko lukeela EAEn eta NFEan alderdi sistema sailkatzeko beste aldagai nagusia. Horrela, analisi elektorala egiterakoan, bi multzo bereizi behar dira: euskal alderdi nazionalistak eta espainiar alderdi nazionalistak. Banaketa horrek dakar teoriaren eta praktikaren arteko desfasea harmonizatzea. Alabaina, hurbilpen periferikoa hobesten duten ikertzaileek berebiziko ahalegina egiten dute espainiar nazionalismoaren existentzia ezkutatzeko. Horretarako, hamaika kategoria desberdin proposatzen dituzte, tartean, –autonomistak /nazionalistak– dikotomia.

(...) los sondeos políticos en el País Vasco suelen incluir un ítem sobre la adscripción nacionalista vasca de los encuestados en forma dicotómica que, como puede verse (...) Ahora bien, ¿qué es – políticamente hablando– ser no nacionalista (vasco)? El reduccionismo dicotómico a partir de una dimensión que solo se define desde la adscripción nacionalista vasca ya sea por presencia o por ausencia suele llevar aparejado en el debate político la definición por oposición como “nacionalistas españoles”, (...) quienes se consideran no nacionalistas difieren entre sí en relación a la alternativa de organización territorial del Estado que prefieren, pero en su gran mayoría coinciden en la opción por el modelo autonómico (...) por todo ello, vamos a referirnos a este espacio en la dimensión nacionalista como espacio autonomista. (Retortillo eta Leonisio, 2016, 175-176. or.).

Aipatutako ikertzaileek argi eta garbi aitortzen dute korapiloaren muina “espainiar nazionalismoaren” existentziaren gaineko eztabaida dela. Alabaina, lan honetan uste da proposatzen duten aterabideak ez duela korapilo hori guztiz askatzen. Honako zalantzak sortzen dira aterabide horren aurrean: kontraesana da alderdi bat autonomiazalea eta, aldi berean, nazionalista izatea? EAJ ez da euskal nazionalista eta hein handi batean autonomiazalea? PSOE ez da espainiar nazionalista eta aldi berean autonomiazalea? Laburbilduz, lan honetan uste da Retortillo eta Leonisiok (2016, 175-176. or.) proposatzen duten aterabideak –autonomistak/nazionalistak dikotomiak– bi funtzio betetzen dituela: bat, euskal partikularitasun nazionala erreakzio periferiko gisa kategorizatzea; eta, bestea, espainiar partikularitasun nazionala Estatuaren gerizpean ezkutatzea.

EAEko kasuan agertzen den arazo bera gertatzen da NFEko alderdi sistema azaltzerakoan. Kasu honetan, UPN alderdiarekin ateratzen da argitara aurrez UA alderdiarekin ikusi den korapiloa. Alderdi periferikoak zentroaren aurkako erreakzioa badira, nola ulertzen da analisi politiko guztietan UPN alderdiaren botoak beste alderdi periferikoekin elkartu beharrean, alderdi estatalistekin elkartzea? Linzek (1986, 369-484. or.) egina da korapilo hori askatzeko proposamenik ezagunena. Azken honek proposatzen du UPN alderdia bezalako kasuak periferiako lurraldetan gertatzen diren erreakzio periferiko gisa ulertzea. Horrela justifikatzen da analisi elektorala egiterakoan, UPNren botoak alderdi estatalistekin batzea.

8. irudia: NFEko alderdi sistema (2015).



Iturria: Egilea.

Ikusten den moduan, ingeniari-tza teoriko oso bat dago hurbilpen periferikoaren bidez clivaje nazionala ezkutatzeko. Hori gutxi ez eta auzia haratago doa NFEko sistema politikoaren kasuan. Kasu honetan, esaterako, hauteskunde autonomikoak aztertzeko, *Centro de Investigaciones Sociológicas* (CIS) erakundeak egiten dituen inkestetan identitate nazionalen inguruan galdetzean ez da euskal nazionalismoaren aukera

eskaintzen. Soilik identitate erregionalen inguruan galdetzen da, hau da, nafar/espainiar identitatearen inguruan galdetzen da eta ez euskal/espainiar ardatzaren inguruan.²⁴

(...) la dificultad que existe de analizar al nacionalismo vasco en Navarra desde el punto de vista de la opinión pública [es] debido al abandono de la dimensión vasca por parte del CIS en su elaboración de encuestas en la Comunidad Foral. (Leonisio, 2014).

Orain artekoak ikusita, ondorioztatu da hurbilpen periferikoak euskal lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko markoa eskaini beharrean, errealitatea kategoriatu eraldunetara bihur-murritzten duela. Nola iritsi da lan hau ondorio horretara? Labur esanda, ikerketa desberdinak aztertu ostean, ikusi da desfasea dagoela hurbilpen periferikoa hobesten dituen irizpideen eta praktikan analisi elektoralak egiterakoan erabiltzen dituen irizpideen artean. Nahiz eta ikertzaileak praktikan analisi elektoralak egiteko irizpideak clivaje nazionalaren logikan artikulatzen dituen, teoriarik saiaterik da clivaje nazional hori clivaje periferikoaren logikara bihur-murritzten. Horregatik proposatzen dute alderdi sistemen sailkapena EMA/EMEA irizpidearen arabera egitea. Alabaina, alderdi sistematik lerrokatze elektoralen ispilu diren neurrian, lan honetan uste da alderdi sistemaren gaineko irakurketa partzialak erabat baldintzatzen duela euskal lerrokatze linguistikoaren izaera. Horregatik uste da hurbilpen periferikoak praktika eta teoriaren artean eragiten duen desfaseak oztopatu egiten duela euskal lerrokatze linguistiko elektoralak osotasunean ulertzea; izan ere, fenomenoak azaltzeko praktikan erabiltzen den clivaje nazionala desitxuratzen baitu.

1.2.2.2 Hurbilpen nazionala: errealitate gutxituarekin bat egiten ez duen eredu ideala

Hurbilpen nazionalaren indargunea da, teoria eta praktika uztartzerakoan, hurbilpen periferikoak duen desfaseari aterabidea eskaintzen diola. Lerrokatze linguistiko elektoralak zedarrizteko irizpideak Belgikar ereduaren arabera ezarri gero, espainiar alderdi erregionalistak periferiko izaten jarraitzen du, baina desberdintasun batekin: desagertu egiten da “ez nazionalista” kategoriatu. Bestetik, aurrez alderdi nazionalista bezala ezagutzen ziren alderdiek, espainiar periferia izateari utzi eta euskal zentro alternatiboaren logikan artikulatzen dira. Horrela, emaitza elektoralak aurkezterakoan, euskal eta espainiar alderdien artean bereizi behar dira; eta ez, EMA (Estatu Mailako Alderdiak) eta EMEA (Estatu Mailako Ez diren Alderdiak) artean. Hurbilpen nazionalaren ikuspegitik, alderdi sistemaren egituraketa berria nazionalaren

²⁴ Honela dio CISek NFEko hauteskunde autonomikoetako prestatutako hauteskunde osteko inkestaren – 3097 zenbakia– 28. galderak: “¿Con cuál de las siguientes frases se identifica Ud. en mayor medida?: se siente únicamente español/a; se siente más español/a que navarro/a; se siente tan español/a como navarro/a; se siente más navarro/a que español/a; N.S; N.c.”.

ikuspegitik egiten da, ez hiritartasunaren ikuspegitik. Horrela, begirada honetatik ulertzen da Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: espainiarra eta euskalduna.

9. irudia: EAeko alderdi sistema (1998): oinarrian bi partikularitasun nazional.



Iturria: Egilea.

Hurbilpen nazionalak alderdi periferikoen arazoa askatzen badu ere, beste hari batzuk uzten ditu lotu gabe. Izan ere, eredu belgikarrak zenbait ezaugarri ditu euskal kasuarekin erabat bat ez datozenak.²⁵ Jarraian, clivaje nazionalak eragiten duen lerrokatze linguistiko elektoralaren ezaugarriak zeintzuk diren zerrendatzen dira. Horrela aztertzen da euskal kasuak eredu belgikarraren zein ezaugarri betetzen dituen eta zein ez.

1. ezaugarria: “No solo hay partidos preferidos por los valones y partidos preferidos por los flamencos, sino que hay partidos propiamente valones y partidos de los flamencos.” (Anduiza eta Bosch, 2012, 163. or.).
2. ezaugarria: “Ningún partido valón obtiene ni medio punto entre los ciudadanos flamencos, y viceversa (...) Desde luego, debemos tener en cuenta la consideración de que los partidos valones y los flamencos casi no compiten en el mismo territorio. Aunque ello ya es un buen indicador de la existencia de ese clivaje ” (Anduiza eta Bosch, 2012, 163. or.).
3. ezaugarria: “En el caso belga, la lengua es claramente un indicador casi infalible: los valones hablan francés y los flamencos hablan neerlandés” (Anduiza eta Bosch, 2012, 162. or.).

Lehen ezaugarriari dagokionez, euskal alderdi sistemak goitik behera betetzen du eredu belgikarra. Izan ere, hurbilpen nazionalaren logikatik begiratuta, Hego Euskal Herriko alderdi sisteman bi naziotako alderdiak daude: euskal alderdiak eta espainiar alderdiak. Era berean, datuek erakusten dute euskal identitate nazionala duten hautesleek joera handiagoa dutela beren nazio identitatearekin bat datozen alderdiei bozkatzeko. Horren adibide dira EAeko hauteskundearen inguruan azpiko taulan agertzen diren datuak. Ikusten den moduan, euskal alderdiei bozkatzeko die euskal nazionalista sentitzen diren

²⁵ Azpikapitulu honetan, ikerketa EAera mugatu da euskal lerrokatze linguistikoaz azaltzeko eredu belgikarrak balio duten edo ez aztertzeko. NFEari dagokionez, CIS erakundeak egiten dituen hauteskunde osteko inkestetan ez da aintzat hartzen hizkuntzaren aldagaia. Are gehiago, hautesleen identitatearen auzia logika erregionalera bihur-murritzten da euskal identitate nazionala kontuan izan gabe. Horrek guztiak ezinezko egiten du Hego Euskal Herria osotasunean aztertzea, nahiz eta egokiena NFE eta EAeko kasuak batera aztertzea izan.

boto emaileen %74,1ak. Era berean, “ez nazionalista” identifikatzen diren boto emaileek joera handiagoa dute espainiar alderdiei bozkatzeko (%47,3).

6. taula: Boto emaileen boto oroitzapena, 2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan eta autodefinizioa euskal nazionalista gisa (%tan). Taula gurutzatua.

		Autodefinizioa euskal nazionalista gisa				Guztira
		Bai	Ez	Ez Daki	Ez du erantzun	
2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetako boto emaileen boto-oroitzapena	EAJ-PNV	%42,3	%18,8	%25,9	%9,1	%30,4
	EH Bildu	%31,7	%6,3	%8,6	%5,2	%19,0
	Elkarrekin PODEMOS	%6,3	%21,2	%14,8	%5,2	%12,9
	PSE-EE (PSOE)	%1,8	%15,9	%7,4	%5,2	%8,1
	PP	%0,5	%7,1	%3,7	%1,3	%3,5
	Ciudadanos	%0,2	%1,6	%1,2		%0,8
	Libertad Navarra	%0,1				%0,1
	PACMA	%0,4	%1,3	%1,2	%1,3	%0,9
	Recortes Cero	%0,1	%0,1			%0,1
	Los Verdes		%0,1			%0,1
	Partido Comunista de los Pueblos de España		%0,1			%0,1
	Boto baliogabea	%0,1	%0,7			%0,4
	Boto zuria	%0,3	%1,4	%1,2	%3,9	%1,0
	Ez du erantzun	%16,1	%25,5	%35,8	%68,8	%22,9
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	

Iturria: CIS, 3154: 2016ko EAEko hauteskunde autonomikoetako hauteskunde osteko inkesta.

Goiko taula horrek frogatzen du euskal kasuak lehen ezaugarria betetzen duela, ñabardurekin bada ere. Alabaina, zer gertatzen da bigarren ezaugarriarekin? Kasu honetan datuek erakusten dute euskal kasuak ez duela osotasunean betetzen eredu belgikarraren bigarren ezaugarria.

Bigarren ezaugarriaren arabera, valoniarrek ez diete alderdi flandriarrei bozkatzeko eta alderantziz. Euskal kasuan, ordea, lerrokatze linguistiko elektoralak ez da horren zurruna. Alderdi bakoitzaren errealitatea banan bana aztertuz gero, ikusten da EH Bilduren boto emaileen %13,8a ez dela euskal nazionalista sentitzen. Beste horrenbeste gertatzen da espainiar alderdiekin. PSE-EEren kasuan, euskal nazionalista da boto emaileen %11,2a; eta PPren kasuan %7,2ra iristen da datu hori. Alde horretatik, azpiko taulak erakusten du identitate nazionalari dagokionez, alderdiaren eta boto emaileen artean desfase handiena EAJ eta Podemoseko boto emaileen artean dagoela. Bi kasu horietan, boto emaileen %70a baino gutxiagok partekatzen dute nazio kidetasuna alderdiarekin.

7. taula: CIS erakundeak 2016ko hauteskundearen inguruan egindako inkestaren emaitzak (%tan).

Zure burua euskal nazionalistatzat jotzen al duzu?											
Guztira	2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetako boto oroitzapena										
	EAJ-PNV	EH Bildu	Elkarrekin PODEMOS	PSE-EE	PP	Beste	Boto zuria	Boto baliogabea	Ez zuen bozkatu	Ez du erantzun	
Bai	46,1	69,4	83,2	24,5	11,2	7,2	21,4	17,3	7,5	31,7	34,8
Ez	45,4	26,0	13,8	68,9	82,6	86,9	69,8	62,0	92,5	58,7	46,7
Ez Daki	4,6	3,5	1,9	4,9	3,9	3,7	5,2	6,9	-	6,2	6,6
Ez du erantzun	3,9	1,1	1,1	1,6	2,3	2,2	3,6	13,8	-	3,5	11,8
(N)	(2.470)	(598)	(375)	(255)	(160)	(68)	(38)	(20)	(7)	(495)	(455)

Iturria: CIS, 3154. 2016ko EAEko hauteskunde autonomikoetako inkesta post-elektoralak.

Bigarren ezaugarriaren baitan, bada beste aldagai garrantzitsu bat kontuan izan beharrekoa: lurraldetasuna. Anduiza eta Boschek (2012, 163. or.) aipatzen dute eredu belgikarraren ezaugarria dela eremu bakoitzean jatorri nazional bateko alderdia izatea nagusi, ia elkar ez lehiatzeraino. Euskal kasuari erreparatuz gero, datuek erakusten dute bi bloke nazionalen banaketa ez dela horren argia.

Hego Euskal Herrian, esaterako, badira zenbait udalerrri euskal alderdiek botoen ia %100a lortzen dutenak (H. Garmendia, 2015). Udalerrri horiek hain justu dira euskal komunitate linguistikoa eta bidenabar euskararen erabilera nagusi diren udalerrriak (Orexa, Baliarrain, Azpeitia, Amoroto eta abar). Beste horrenbeste gertatzen da Tuteran eta inguruko udalerrietan, baina beste noranzkoan. Azken horien kasuan, euskara ezagutza oso apala da, eta %10 baino txikiagoa da euskal alderdiek lortzen duten babes elektorala (Albero, 2005). Ikusten den moduan, lurraldetasunaren ikuspegitik, Hego Euskal Herriko hainbat puntutan errepikatu egiten dira eredu belgikarrean gertatzen diren bi muturreko kasuak. Alabaina, aipatutako kasu horiek ia-ia salbuespenak dira araua baino gehiago. Izan ere, 10.000 pertsona baino gehiago bizi diren Hego Euskal Herriko udalerrri gehienetan lortzen dute bi nazioetako alderdiek ordezkarietza zabala (%20 baino handiagoa). Ondorioz, aurrez esandako ildotik ikusten da bigarren ezaugarria euskal kasuak zeharka betetzen duela.

Orain arte ikusi da euskal kasua eredu belgikarrera erdizka egokitzen dela. Izan ere, lehen ezaugarria bete arren, bigarrenarekin zalantza gehiago daude. Alde horretatik, zer gertatzen da hirugarren ezaugarriarekin?

8. taula: Taula gurutzatua, autodefinizioa euskal nazionalista gisa eta euskara gaitasunaren autopertzepzioa (%tan).

		Jariotasunez hitz egiten du.			Guztira
		Bai	Ez	Ez du erantzun	
Autodefinizioa euskal nazionalista gisa	Bai	%65,9	%31,9	%62,5	%46,1
	Ez	%25,1	%60,0	%31,3	%45,4
	Ez Daki.	%5,2	%4,2		%4,6
	Ez E.	%3,7	%3,9	%6,3	%3,8
Guztira		%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: CIS, 3154: 2016ko EAEko hauteskunde autonomikoetako inkesta post-elektoral.

Belgikar ereduaren hirugarren ezaugarria da flandriarrek eta valoniarrek bakoitzak bere hizkuntza nazionalen hitz egiten dutela. Euskal kasuan, aldiz, datuek erakusten dute euskal nazionalista sentitzen direnen artean, %65ak bakarrik dakiela euskaraz egokitasunez hitz egiten. Espainiar naziokideen inkestak galdetu ere ez du egiten ea elkarriketatuak gaztelaniaz egoki hitz egiten duen. Ikerketaren 4. atalean, sakonago

ikusten den moduan, Espainiar Konstituzioaren 3. artikulua behartzen baitu gaztelaniaz jakitea eta, ondorioz, ziurtzat jotzen da hautesleek gaztelaniaz dakitela. Beraz, bigarren ezaugarriarekin gertatzen den moduan, hirugarren ezaugarri hau ere ez du osotasunean betetzen euskal kasuak.

Hirugarren ezaugarri hori aurreko beste bi ezaugarriekin txirikordatuz gero, honakoa da Belgikar ereduaren oinarrian dagoen mezua: osotasun gisa ulertu behar da “hizkuntza, naziotasuna eta botoa” hirukotea. Beste modu batera esanda, clivaje nazionalak erakusten duena da sistema demokratiko lehiakorretan dagoen ekintza indibidual politiko garrantzitsuena –botoa ematea– hizkuntzak (kulturak) baldintzatzen duela.

Hori horrela bada, errotik aldatzen da lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzeo begirada. Izan ere, jada galdera ez da zergatik gertatzen den euskal lerrokatze linguistiko elektorala. Aitzitik, galdera da zentro politikoetan hitzun guztiek alderdi nazional hegemonikoei bozkatzeko dieten moduan zergatik ez den berdin gertatzen euskal lerrokatze linguistikoaren kasuan. Zergatik betetzen ditu euskal lerrokatze linguistiko elektoralak Belgikar ereduaren ezaugarriak soilik euskararen arnagune diren udalerririk batzuetan?

Lan honetan lantzen den hipotesia da Belgikar ereduak nazio normalizatuentzat balio duela. Horregatik balio du zentro politikoetako lerrokatze linguistiko elektorala azaltzeko. Euskal nazioa normalizazio egoeratik urrun dagoenez, zentro nazionaletik – euskal arnaguneetatik– urrunduta ahala, batasun kultural-politiko horren baitan pitzadurak agertzen dira. Horregatik lurraldearen zati handiengan ez ditu erabat betetzen eredu belgikarrari dagozkion ezaugarriak. Aitzitik, mendeko egoeraren ondorioz, lurralde horiek bi nazioen arteko elkarbizitzarako esparrua baino gehiago, gatazka eremu bihurtu dira aspaldion.

1.2.2.3 Nazio zapalduaren ereduak: errealitatea osotasunean barne biltzeko ahalegina

Lerrokatze linguistiko elektorala azaltzeko, akademiak eskaintzen dituen teoriak aztertu ostean, ikusi da zimurrik edota adabakirik gabe soinera egokitzen den jantzi teorikorik ez dagoela. Bi ereduak, periferikoak eta nazionalak, mugak dituzte fenomenoak azaltzeko.

Eredu periferikoaren kasuan, ondorioztatu da, espainiar alderdien partikularitasun kulturala Estatuaren gerizpean ezkutatu duten bitartean, euskal alderdien izaera politikoa Espainiar estatuaren ardatzera subordinatu dutela. Horregatik hurbilpen

honek zailtasunak ditu, bakoitzaren partikularitasun kulturala aintzat hartu gabe, espainiar alderdi erregionalak eta euskal alderdiak bereizteko.

Era berean, euskal errealitateak ez du bat egiten eredu nazionalak ezartzen dituen irizpideekin. Izan ere, euskal alderdi politikoak zentro politiko alternatibo gisa formulatzeko aukera ematen badu ere, euskal kultur komunitateak bizi duen minorizazio egoera dela eta, desfasea dago euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren eta lerrokatze linguistikoaren eredu idealaren artean.

Gauzak horrela, pentsatu da eskuartean dauden arazo horiei irtenbidea aurkitzeko hirugarren alternatiba proposatzea: Nazio zapalduaren eredu. Azken honen muinean eredu nazionala dago. Alabaina, posizio ez-hegemonikotik erreparatzen dio fenomenoari. Honela, hiru gauza lortu nahi dira: lehenik, Estatu-nazioaren matrize tenporal/espaziala gainditzea; bigarrenik, eredu nazionala hobetsiz, kontakizun modernistak euskal kasuari eransten dion argi-ilunez beteriko izaera “etno-territorial periferikoari” alternatiba eskaintzea; eta, hirugarrenik, irtenbidea proposatzea eredu nazionalaren arazoari, hots, Belgikar ereduaren eta euskal kasuaren arteko desfaseari.

Matrize tenporal/espazialari dagokionez, clivajeen teoriak dio estatu-nazioa dela zatiketa sozialak zedarritzeko dimentsio guztien iturburua.²⁶ Horrek, ordea, eragozpenak sortzen ditu estaturik gabeko nazioetan gertatzen diren fenomenoak aztertzeko. Izan ere, matrize horrek ezinezko egiten du euskal lerrokatze linguistiko elektoral osoz osotasunean aztertzea. Ikuspuntu modernoak epistemikoki bereizi egiten ditu Ipar eta Hego Euskal Herria. Horren ondorioz, estatu-nazioan oinarritzen den matrize tenporal/espaziala kartzela epistemikoa da nazio zapalduetako fenomenoak azaltzeko. Nazio zapalduaren ereduaren bidez proposatzen da nazio-estatuaren logikan artikulatzea matrize tenporal/espaziala, betiere, kartzela epistemikotik askatu eta errealitatea osotasunean barne biltzeko asmoarekin.

²⁶ Bartolinik (2005, 14. or.) berretsi egiten du estatu-nazioa dela clivajeen teoriaren matrize tenporal/espaziala. Alabaina, bestelako formulazio batzuei ez dio aterik ixten: “Une proposition corollaire serait que la structuration des clivages pourrait être un processus historique spécifique qui prend place uniquement au sein du type d’arène d’autorité qu’est l’État “national”, “démocratique” et de “Welfare”, territorialement et économiquement fermé. Il est important et intéressant de se demander si des clivages “transnationaux” ou “transfrontières” peuvent se former autour de centres de prise de décision extranationaux. Cette question ne sera cependant pas abordée dans cet article.” Lan honetan zirrikitu horiek arakatu nahi dira estatu gabeko nazioen fenomeno sozialak azalduko dituen marko teoriko aproposagoak eraikitzeko.

9. taula: Estatu-nazioaren mugak matrize tenporal/espazial gisa estatu gabeko nazioetako fenomenoak azaltzeko.

	ARAZOAREN MUIÑA
Mediterraneanar ereduak hobesten duen matrize tenporal/espaziala	Eredu honek bere egiten du estatu-nazioa matrize tenporal/espazial gisa. Horrela, Espainiar eta Frantziar Estuetan gertatzen diren erreakzio periferiko moduan kategorizatzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralala. Bi kasuetan fenomeno berberaren inguruan hitz egiten aritu arren, Parisen finkatzen da Ipar Euskal Herriko lerrokatze linguistiko elektoralaren jatorria. Eta, aldiz, Madrilen gorpuzten da Hegoaldeko lerrokatze linguistikoa.
Belgikar eredua hobesten duen matrize tenporal/espaziala	Izenak berak adierazten duen moduan estatu-nazioan artikulatzen da eredu honen matrize tenporal/espaziala – Belgika–. Egokiagoa izango zen ereduak valoniar edo Flandriar izena edukitzea. Horrela, argiago geldituko zen lerrokatzea azaltzeko matrize tenporal/espaziala nazio-estatu dela.
Nazio zapalduaren ereduak hobesten duen matrize tenporal/espaziala	Nazio-estatu da matrize tenporal/espazialaren oinarria. Azken honek aukera ematen du estatu-nazio desberdinetan zatituta dauden mendeko nazioen artean gertatzen diren fenomeno nazionalak osotasunean azaltzeko, kasu honetan, euskal lerrokatze linguistiko elektoralala.

Iturria: Egilea.

Estatu-nazioek joera izan dute beren barrutiaren baitan dauden nazioetan batasun kultural-politikoa hautsi eta bi elementu horien artean zatiketa eragiteko. Subordinazio politikoak eragin du nazio zapalduen ertzetan honako bi pitzadura agertzea: bata, kulturala (euskal naziokide sentitzen diren eta abertzale bozkatzeko duten zenbaitek euskara gaitasunik ez izatea); eta, bestea, politikoa (euskaraz jaio, euskara ezagutu, euskara erabili eta kulturalki euskaldun direnek espainiar alderdiei bozkatzeko joera edukitzea). Kasu horietan hautsi egiten da eredu belgikarrak aldarrikatzen duen osotasuna (hizkuntza, naziotasuna eta botoa). Teoriaren eta errealitatearen arteko desfase hori, ordea, arazo bat baino gehiago bide erakusgarri da mundu ikusgarriaren atzean –hegemonikoa– isildua dagoen mundu ez-hegemonikoa hautemateko.

Lehentasunak aldatu egiten dira nazio zapalduaren ereduak eskaintzen duen begirada hobestean. Izan ere, jada euskal lerrokatze linguistikoaren gaineko ikerketak duen osagai interesgarriena ez da fenomeno konkretua kuantifikatzea kasu konkretu baten gaineko ezagutza izateko. Are gehiago, begirada berri honetatik, intelektualki susmagarritzat jotzen da teoria osoa zalantzan ez jartzeagatik dikotomia interesatuak –erregional/nazionalista– adabaki gisa erabiltzeko dagoen joera. Euskal kasuan gertatzen den pitzadura –kultural/politikoa– aztertzea da begirada berri honetatik lan honetan interesatzen dena. Desfase hori berrinterpretatzea da ikerketa honek duen eginkizun garrantzitsuena. Alegia, eredu idealaren eta nazio zapalduaren arteko desfase hori

konpontzeko honako pausoak jarraitzea: bat, begirada modernoak proposatzen duen adabakia identifikatzea; bi, kartzela epistemikoa deseraikitzea; eta, hiru, ikuspegi ez-hegemonikotik errealitatera egokitzen den teoria alternatiboa berreraikitzea.

Ikusten den moduan, asmo hori proposamen teoriko batetik haratago doa, proposamen epistemiko-teorikoa da izatez. Soziologia modernoaren oinarritzko zenbait premisa ukatu eta saiatzen da ezagutza ulertzeko beste modu bat legitimatzen. Ondorengo atalean, saiakera egiten da hirugarren bidea justifikatu eta arrazoitzeko.

2. ERTZEKO KASUAK ARAZOA BAINO GEHIAGO BIDE ERAKUSLE: EUSKAL NAZIO ZAPALDUAREN EREDUA

Lehen atalean ikusi da akademiak proposatzen dituen ereduak –Mediterranean eredu eta Belgikar eredu– ez direla guztiz egokitzen euskal kasura. Horregatik proposatu da hirugarren bidea lantzea: nazio zapalduaren eredu.

Eredu honek erantzun integrala eman nahi dio, bai aurreko atalean identifikatu den hurbilpen modernoaren hutsuneari, baita azken horren mugak osatzeko proposatu den alternatibari ere. Izan ere, akademian hegemoniko den hurbilpen modernoak, eredu periferikoa izena hartzen duenak, ikerketa objektua zedarrizterakoan euskal kasua Espainiako koordinatuen logikan definitzera behartzen du ikertzailea errealitatea irizpide desegoki batzuetara bihur-murriztuz. Era berean, eredu periferikoari alternatiba den eredu nazionalak ez ditu premiak guztiz asetzen. Azken honek, egoera normalizatuan bizi diren nazioen kasuak azaltzeko balio badu ere, hanka motz gelditzen da euskal kasuak bizi duen mendeko egoerak eragindako zatiketa kultural/politikoaz azaltzeko. Zatiketa horri aterabidea aurkitzeko ezinbestekotzat ikusi da ikerketa posizio kokatu batetik egitea, begirada ez-hegemonikotik eta jarrera engaiatuarekin.

Gauzak horrela, hirugarren bide hori jorratzen hasteko lehen pausoa izan da aztertzea euskal ikerketetan antzeko beharrik sentitu duen beste ikerketarik baden. Alde horretatik, gaian sakondu ahala, ikusten da lan hau ez dela salbuespena. Aitzitik, aurrez hainbat ikertzaile aritu dira antzeko arazoei aterabidea eman nahian. Honatx antzeko ezaugarriak dituzten ikerketa desberdinen lagin bat, betiere, landu duen gaiaren arabera sailkatuta: Historia (Goienetxe, 1975; 1999);²⁷ Hizkuntzaren Historia Soziala (Torrealdai, 1977; 1998; Intxausti, 1985; 1990; 1993);²⁸ Hizkuntza Soziologia (Isasi,

²⁷ Euskal Herriaren historia idatzi zuen Manex Goienetxek aipatutako liburuetan. Interesgarria da liburu horietako bat honako galdera honekin hasi izana: “¿Existe el País Vasco?”. Ikusten den moduan, honako oztopo erantsia izaten du nazio zapalduak ikerketa zientifikoa abian jarri aurretik: bere burua ikerketa objektu gisa justifikatu beharra. Estatu duen nazioak natural zedarrizten du ikerketaren matrize espazial/temporal. Honatx Goienetxe beraren hitzak: “¿Era preciso escribir una historia del País Vasco? (...) tratar de localizar en el tiempo un único “País Vasco” en función del criterio lingüístico es ejercicio ciertamente difícil, por no decir imposible. En el País Vasco, como también ocurre en otras regiones de Europa occidental, las divisiones administrativas y territoriales no siempre coinciden con los espacios lingüísticos, que han evolucionado en el tiempo. (...) El objetivo de esta obra puede parecer ambicioso: construir una historia general del País Vasco, vista no desde el borde del Adour o del Ebro, sino de la cumbre de Urkulu, tratando de seguir la evolución histórica de una y otras vertientes de la montaña pirenaica o del río Bidasoa”. (Goienetxe, 1999, 7-13. or.).

²⁸ Euskararen historia soziala idazterakoan aipatutako autoreak ahalegintzen dira erakusten Estatu Modernoaren sorreratik bizi duela euskal nazioak zatiketa kultural/politiko. Are gehiago, euren lanetan erakusten dute euskal nazioaren asimilazio kulturala menderakuntza politikoaren ondorioa dela. Horrela,

2011);²⁹ Kultura (P. Iztueta, 1996; Larrinaga, 2007; I. Iztueta, 2015);³⁰ Hezkuntza eta Unibertsitatea (Agirrebaltzategi, 1977; Ezkurdia, 2008, 2019; P. Iztueta, 2016);³¹ Politika

kultur ikuspegitik estatu-nazioaren izaera menderatzailea salatu izan dute. Hori guztia azaltzerakoan aipatzen dute menderakuntza egoera horren larritasuna herri xeheak ondo asko ezagutzen duela, aldiz, bere burua kultuzat dutenek errealtate hori ez dutela ezagutzen. Honatx, Torrealdairen (1998, 11. or.) hitzak euskaldunak bizi duen biolentzia epistemikoaren inguruan: “Irakurle euskaldunak badaki herri honetan gertatzen den paradoxa ez dela txantxetakoa: hitz hauek irakurtzeko gai ez dena kultura da. Zuk eta nik hau eta gainerakoak ere irakur ditzakegu, baina gu ezjakinak gara. Nahiz eta jakin gauzak ez direla horrela, badakigu, baita ere, paradoxa ematen duen hori tragedia bihurtzen dela guretzat askotan”.

²⁹ Euskararen egoera deskribatzeko orduan fenomeno bera deskribatzeko terminologia desberdinak erabili dituzte ikertzaileek. Alabaina, zer dago horren atzean? Kasu askotan, auzia ideologikoa da. Isasik (2011, 182-184. or.) bere proposamenean bi elementu txertatzen ditu: batetik, euskara hizkuntza gutxitu bezala ikustea; eta, bestetik, errealtatearen inguruko azterketa egiterakoan euskaratik eta euskaraz pentsatzea kategoriak –adibidez, Zalbidereen ereduari jarraituta–, eta, horretarako, mundu mailako erreferentzia klasikoek baliatzea –adibidez, Fishman–. Hortik aurrera, beharrezkoa dela deritzo hiztegi bateratua egitea. Alde horretatik, kezka eta zalantza sortzen dio Euskal Soziolinguistikaren hiztegian Zalbidereen edota Fishmanen ikuspegia ez azaltzeak: “Joan den urtean (2010) Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikarako Sailburuordetzak (Kultura Saila) “Soziolinguistika Hiztegia. Euskal Soziolinguistikoaren eremuan erabiltzeko” liburuxka argitaratu zuen. Soziolinguistikari buruzko terminologia hiztegia, printzipioz, oso lanabes interesgarria da. Uste nuen, horregatik, aipatutako hiztegi horrek lagunduko lidakela Zalbiderek erabiltzen duen terminologia ulertzen. Usteak erdi ustel, hiztegi horretan ez baitira agertzen Mikel Zalbiderek erabiltzen dituen hainbat termino. Adibidez, hiztun elkarte, ahuldutako hizkuntza edota arnagune, Zalbiderek sarri erabiltzen dituen batzuk aipatzeagatik. Badirudi Mikel Zalbiderek berariazko terminologia erabiltzen duela, eta neurri batean hala da, baina Zalbiderek Fishmanen testuetatik jaso eta euskaratu egin du. Badirudi, beraz, euskal soziolinguistikako adituek ez dutela aintzat hartzen Fishmanen terminologia edo, izan daiteke ere, ezagutu bai baina beste modu batera euskaratu dutela. (...) Bat izan ala bestea izan, aipatu hiztegi horretan ez dute Fishmanen bibliografiarik aipatzen, ezta Mikel Zalbidere ere. Datu bat da. (...) Mikel Zalbidere, gure ustez, gaur eguneko euskal soziolinguistikan erreferentzia nagusia da. Bere ikuspegia eta ekarpenak eta, haiekin batera, Zalbiderek darabilen terminologia zabaltzen ari dira. Hori ondo dago. Falta da, ordea, oinarriko terminologia hori adostea eta terminologia hiztegi erabilienetara eramatea. (...) hizkuntzaren egoerari dagokionez, egoera diglosia ez bada ere, euskara hizkuntza gutxitua da. Euskara hizkuntza gutxitua eta gaztelania (hegoaldean) eta frantsesa (Iparraldean) hizkuntza menderatzaileak, komunak edo nagusiak dira. Hizkuntza komunitatea (Language Community) eta hiztun elkarte (Speech Community) konstruktua desberdinak dira. Arnaguneak, azkenik, euskararen (erabilerarako) zonaldeak edo eremu sozio funtzionalak besterik ez dira. Terminologia zehatza eta adostua erabiltzeak abantaila asko dauka, hobeto ulertuko genuke elkar, plangintza eraginkorragoak egin genitzake eta munduko adituei errazago azal geniezaieke gure egoera zertan den”.

³⁰ Hainbat ikertzailek ahalegina egin izan dute Kulturaren Soziologiari azaltzeko kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremana. Hala, menperakuntzaren ondorio gisa marratzen dute bien arteko bereizketa. Paulo Iztuetak horren aurrean, begirada funtzionalistaren muga azpimarratu eta aldarrikatzen du nazio zapalduko ikertzaileak ezinbestekoa duela ikerketari jarrera engaiatuarekin heltzea: “Literatura beti izan da, eta da, kultura espezifikoko batek zer-nolako osasuna duen ikusteko ispilu gardena, baina ez da inolaz ere erreferentzia bakarra, gutxiago garrantzitsuena, askotan uste izan den bezala. Jakintzaren alor idorrek harrotzen ez dituen hizkuntzak beltza du etorkizuna. Goiz edo berandu, literatura hutsetik harago, askoz harago, hizkuntzaren corpus normalkuntzatik literatura tekniko-zientifikoarekin egin behar du topo aurrez aurre eta hortik ekin behar zaio gogor kultura igoa lantzeari. Pentsamendurik gabeko lumak ez du zulatzen gizartearen eguneroko bizitzan. Egoera diglosikoa jasan izan duten hizkuntzen historian zehar, hizkuntza nagusiak beti jan izan dio menpekoari intelligentsiaren esparru pribilegiatua, beti zokoratu izan du etxeko zulora, gune administratiboetatik aparte utziz. Horixe izan da euskararen kasua, baita herritar gehienek hizkuntza mintzatua izan zen garairik onenean ere. (...) Hemendik aurrera, kontua ez da hizkuntzaren ederraz mintzatzea (...) Hizkuntza guztiak boterearen babesean hazi eta hezi dira, hizkuntza nazional guztien historiak frogatzen duen bezala, eta nazio egoera berreskuratu nahi duten hizkuntzari estatusaren alderdiari dagozkion gutxienezko neurri politikoak hartu beste biderik ez zaio geratzen, Hizkuntzen historia, azken batean, hizkuntzen, nazioen eta klaseen arteko gatazken historia da. (...) Guk zentzu dinamiko eta gatazkari honetan ulertzen dugu euskal kulturaren bilakabidea. Jarrera pasiboari uko egiten dion edonorentzat legoke hor lekua.” (P. Iztueta, 1996, 36-37. or.).

³¹ Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren inguruan diharduten autoreek azpimarratzen dute estatutik gabeko nazioa izateagatik hezkuntza sistema normalizatua edukitzeko euskal nazioak zailtasunak dituela. Horretan datza gaitz guztien iturburua, bereizketa kultural eta politikoan. Ikertzaile horiek aipatzen dute euskal nazioak hezkuntza arrotzaren mendean jasan duen hizkuntza asimilazioak jatorria desfase horretan duela. Horren aurrean azpimarratzen dute euskal curriculumaren beharra. Baita euskaldunen beharren arabera egindako goi mailako ikerketa ere, hori bai, euskaraz eta euskaratik egindakoa: “Pertsona euskaldunak, euskal lurraldea, kultura eta historia ezagutu behar ditu, (...) Aurrera begira jarriz gero, curriculumaren aldaketa sakona egin behar da. (...) ezagutza eta pentsamendua estatuen hizkuntzetan

(Davant, 1977; Txillardeggi, 1994);³² Komunikazio Zientziak (Amezaga, 2017);³³ Marxismoa (Azurmendi, 1971; Garate, 1972; P. Iztueta eta Apalategi, 1974);³⁴ Feminismoa (Agirre eta Eskisabel, 2019);³⁵ Filosofia eta Pentsamendu Politikoa (Azurmendi, 2009; Zabaleta Gorrotxategi, 2017; A. Aizpuru, 2019). Ikerketa horietan guztietan ikusten da, ikerlerro anitzak landu arren, ikertzaile guztiek sumatzen dutela euskaldun gisa fenomeno soziologikoak begirada propioz eta posizio ez-hegemonikotik aztertzeko beharra eta zailtasuna.

Behar hori asetzeko asmoz sortu dira azken hamarkada hauetan euskarazko hainbat aldizkari eta argitaletxe, adibidez: Jakin (1956-...), Branka (1966-1971), Zabal (1973-1976), Uztaro (1990-...), BAT aldizkaria (1991-...) edota Utriusque Vasconiae (2000-2018).³⁶ Ildo horretatik, ez da kasualitatea aurreko zerrendan aipatu diren zenbait

garatzen da, gazteleraz, frantsesez, edo ingeleraz. Gaur egun unibertsitateetan dagoen intelligentsia, ez da, gehienetan, euskaraz ari. Ahula da. Historian zehar gure pentsamendua hizkuntza arrotzetan idatzi bada ere, oraingoz erderetan argitaratzen dira ikerketa emaitza gehienak. Honetan ere aldaketa bideratu behar da, euskaraz hizkuntza hegemonikoa izan behar badu, ezagutza zientifikoaren eraikuntza euskaraz egin beharko da” (Ezkurdia, 2019, 38-40. or.).

³² Zerrenda honetan aipatzen diren ikertzaileek ez dute ezkututzen proposamen politiko guztiak nonbait gorpuzten direnik. Are gehiago, azken horiek azpimarratzen dute ideia horien oinarrian, gogoeta etiko eta politikoez gain, bizitzako esperientziak daudela. Txillardegiren kasuan argi eta garbi kokatzen da nazio zapaldu baten testuinguruan: “Nire belaunaldikoek bost urte, zazpi, hamar, hamabost zuten 1936an. Nolazpait esateko, beraz, gerra eta zapalketa giro betean jaio ginen gu mundura, are euskal mundura ere. (...) Eta zalantzarik gabe, markatu egin gaitu horrek; eta betirako baldintzatu. Baita gaurko jokabideetan eta hautuetan ere. Hitz batez, euskaltzaletasuna, abertzaletasuna, separatismo politikoa, Frantziatik eta Espainiatik bereizi nahia, nigan eta gudan nola hozitu eta azkartu ziren azaltzen saiatuko naiz liburu honetan barrena, ideiak eta proiektuak neure gertakari pertsonal nagusi batzuetan txertaturik eta argiturik.” (Txillardeggi, 1994, 9-10. or.). Davantek (1977, 8. or.) beste horrenbeste adierazten du: “Lan honetan idaztean ez dut beste xederik. Ezen, Maite Idirin-ek bere kantu batean abesten duen bezala, euskaraz idazteak ez nau aberastuko, ez eta herriko auzapez eginen. Baina, politikako ekintzailea naizen bezala, politikazko eginbide bat betetzen dut hemen ere, euskal herriaren alde. Bi zango behar ditugu beti: ekintza eta gogoeta. Bestela, maingu ibiliko gara. Eguneroko lanari loturik daukat asmakizun hau. Beraz, burrukaren alde gainetik dagoen epaile hotzik baldin bada, ni ez naiz haietarik”.

³³ Komunikazio politiken inguruko azterketaren inguruan Amezagak (2017, 40. or.) proposatzen duen hipotesia lan honekin, eta, oro har, bat dator zerrenda honetan aipatu diren ikertzaile taldearekin: “erakunde autonomiko zein foralake eratu zirenetik hona ez da egon Euskal Herria herri edo nazio bezala eratzena bideratutako benetako komunikazio politikarik, ez hizkuntzaren ikuspegitik, ez komunitate politikoa ikuspegitik begiratuta. Gauza solteak egin dira, batzuk besteak baino eraginkorragoak, eta neurri handi batean herri ekimenetik etorriak. Gaur egun dugun egoeran (linguistikoa zein politikoan) horrek eraginik izan ote duen, berriro ere, frogatzerik ez dago; baina izan duelako susmoa albora ezina da”.

³⁴Marxista izan zein ez, euskal pentsamendutik sozialismoaren inguruan hausnartzen saiatu ziren aipatu diren pentsalari horiek eta beste hainbat. Guztiak batzen zituen elementua zen ikerketa horiek abian jartzeko abiapuntuan zuten motibazioa: erdal kategorietatik euskal kasu konkretua esplikatzerakoan sortzen ziren praxi okerrak zuzentzea. Oinarrian zegoen arazoa zen auzi nazionalaren eta sozialaren arteko harremanaren nolakotasuna. Testu horietan jada aurkitzen dira egun marxismoari egiten zaizkion hainbat kritika. Ondorioz, ez da gehiegikeria esatea aitzindariak izan zirela. Alde horretatik, 70eko hamarkadan euskal pentsamenduaren baitan auzi honen inguruan izan zen eztabaidan sakontzeko ikusi (P. Iztueta, 2015, 43-90. or.).

³⁵ Agirrek eta Eskisabelek mahai ganean jartzen dute feminismoaren eta euskalgintzaren arteko elkar elikatzeak sortu ditzakeen onuren garrantzia. Euren arabera ezinbestekoa da ikertzaile gisa menderakuntzari aurre egiteko mendebaldeko pentsamendu modernoaren deseraiki eta bestelako zientziagintza abian jartzea: “Feminismoaren tradizioan dago, halaber, bizipenak mahai ganean jartzea, ezagutza sortzeko eta gatazken konponketarako bide gisa. Gorpuztetatik abiatutako narrazioak sortuz, partekatuz eta josiz joatea, botere sare konplexu horren egituratze justurik eratuko bada.” (Agirre eta Eskisabel, 2019, 109. or.).

³⁶ Edonola ere, ezin da esan aldizkari zerrenda hori baino lehen ezer egon ez zenik. Euzko-Gogoa aldizkaria da (1950-1959) aipatutako aldizkari horien guztien aurrekari nagusia. Guatemalan sortu zuen aldizkaria

ikertzaile izatea argitaletxe edota aldizkari horien sortzaileak edota zuzendariak. Azken batean, aldizkari/argitaletxe horiek izan dira euskal pentsamenduaren arnaguneak. Espazio horiek arigune naturalak dira akademian normalizatu gabe dauden marko teorikoak begirada propioarekin lantzeko.

Proposamen eta eztabaida horietatik sortu dira urte luzez euskal pentsamendu propioa sustatzen diharduten zenbait erakunde, hala nola: Udako Euskal Unibertsitatea (1973-...), Soziolinguistika Klusterra (2004-...) edota Gaindegia (2004 – ...). Era berean, hortik sortu zen UZEI (1977-...) erakundea euskara goi-mailako ezagutza arloetara egokitzeko. Orain arte aipatutako erakunde horiek guztiak sortu dira euskaldunek mundua euskaratik eta euskaraz pentsatzeko. Alde horretatik, proiektu horien parte direnen asmoak ez du misteriorik: munduko nazio normalizatuak dituzten tresna berberak nahi dituzte euskal nazioarentzat. Alabaina, nazio zapaldu izateak eragiten du bidea malkartsua eta oztopoz betea izatea.

Orain arte ikusi den ikertzaile, aldizkari eta erakundeen historia erreparatuz gero,³⁷ argi eta garbi ikusten da Alaitz Aizpuruk (2019) azpimarratzen duen ideia bide zuzenetik doala. Alegia, euskal ikerketen baitan beste batzuen artean 56ko belaunaldia³⁸ dela –eta gerora bere jarraitzaileak izango direnak– akademian hegemoniko den begirada

Jokin Zaitetik. Izan ere, 36ko Espainiako Gerra zela eta erbestera ihes egin beharra izan zuen. Aurrez aipatu diren aldizkari eta argitaletxe horien berezitasun nagusia da beraien bultzatzaileak gerraosteko belaunaldia izan zirela. Belaunaldi honek ia hutsetik sortu beharra izan du euskarazko ezagutza jasoa. Alde horretatik, interesgarria da Zaitetik gerra aurreko belaunaldiko kide erreferente gisa, Jakin aldizkariako bigarren alean, garai hartan belaunaldi gaztea zen hari egiten dion aitortza: “Yakin irakurria dizut pozaren pozez. Oiek, bai, gazte ederrak! Gai sakonenak eta zailenak euskara zoragarri eman dizkigute. Horrela iarraitzekotan, atzean utziko gaituzte gazteok alabearrez. Iaso bezate nire euskal-agurrik gartsuena ta nire zorionik laztanena. Zuen alegin ederrez eta zuen buru-biotz argiz euskera goieneko mailalara iasoko duzue guztion biotz-betegarri. (...) Aurrera, ba, baikor eta kementsu! Itsasoan barrena eguzkia sartzen ikusten degunok agur egiten dizuegu biotzez, eguzkia mendi-tontorretatik gora sortzen birloraturik so egiten duzen gazte aberkide bikañ oriei!” (Zaitegi, 1956, 173. or.). Adierazpen hori kasu honetan Jakin aldizkariari egiten dion arren, lan honetan ulertzen da izaera bereko beste guztientzat ere baliagarri dela.

³⁷ Komunitate zientifiko euskaldunaren bilakaera historikoa jasotzen du Karmele Artetxek (2010) bere doktorego tesian. Aldizkari eta erakunde horien testuingurua jasotzen du bertan. Gainerakoan, Jakin, Zabal edota Euzko-Gogoaren bilakaera ikusteko ikusi honako lanak (Intxausti, 2007; P. Iztueta, 2000a, 2015). 50ko hamarkadari dagokionez, Pako Sudupek argitasun handiz sailkatzen ditu garai hartako lanak (Sudupe, 2011a; 2011b; 2011c).

³⁸ Euskal letretan nahiko zabaldua dagoen adiera da 56ko belaunaldiarena. Belaunaldi honen saiakera nagusia izan da euskal auziak euskaraz eta partikulartasunetik pentsatzekoa. Data urte horretan ezarri izanaren gorabeherak Alaitz Aizpuruk primeran (2019, 27-28. or.) azaltzen ditu. Gartzia (2019) belaunaldi honen baitan bi familia bereizten ditu, bata Txillardegiri dagokiona –hiriguneko pentsalariena– eta bestea Azurmendirena –herri txikietako pentsalari euskaldunetz osatutako “Arantzazuko” belaunaldia–. Bien artean desberdintasunak egon arren, nazio auziari dagokionez Azurmendik (2017, 5. or.) berak aipatzen du Txillardegi izan duela maisua. Beraz, lan honetan osotasun gisa hartu da 56ko belaunaldia: “beti esan dudana legez, gure belaunaldiaren pentsamendua da gutxi gorabehera agertuko dizuedana. Puntuotan ni neu Joseba Intxausti eta Jon Laskibarri, Txillardegiri eta beste lagun batzuei zordun naiz erabat. Gauza hauek, hala ere, belaunaldi bakoitzak beretzat birpentsatu eta bere birformulazioa bilatu beharra izaten du”.

moderno deseraiki eta kultura ez-hegemonikoen begiradatik zedarritutako irizpideen bitartez ezagutza sortzen saiatu direnak.

Gerra osteko hazaldi honen pentsamendua [56ko belaunaldia] modu osoago zein doituagoan ulertuko bada, kultura ez-hegemonikoen klabean gerturatzea beharrezkoa dela dirudi. (...) Jakinekua da kultura ez-hegemoniko baten historia nekez etorriko dela bat beste kultura hegemoniko batzuen eskemekin. Jakinekua eta askotan aipatua da gure historia ez datorrela bat europar denbora marko historiko ofizialekin, eta gureak ez zaizkigun periodizazio eta eskema horietara egokitu nahiak gauza garrantzitsu gehiegi baztertzea edo aintzat ez hartzea dakarkigula. (A. Aizpuru, 2019, 22-23. or.).

Errepaso horretatik ateratzen den ondorio nagusia da euskal lerrokatze linguistiko elektoral nazio zapalduen begiradatik aztertu nahi izatean, eskuartean dugun ikerketa hau 56ko belaunaldiaren oinordeko den korrante horren baitan kokatzen dela. Alabaina, mundu mailako korronteei erreparatuz gero, zeinen baliokide da 56ko belaunaldia? Aizpuru honela kokatzen ditu euskal ikerketak marko orokorrean.

Pentsamendu postkolonialistek erakutsi dute modernitateaz ez, baizik eta modernitateaz, modernitate alternatiboez, ez-modernitateaz eta kontramodernitateaz ere hitz egitea komeni dela. Modernitateak askotakoak direla, eta “modernitatea” ez dela Europako zenbait nazio-estaturen afera eksklusiboa. Ez eta, kultura ez-hegemonikoen kasuan, gabezia eta desira hutsa ere. Modernitate askotariko horiek bertikalki, hots, kanpotik, metropoliko inposizio gisa, zein/aldiz aldameneko transferentzia, itzulpen, jabetze, imitazio kreatibo eta transformazio gisa ulertu behar ote direnaren inguruan eztabaidak aspaldi ireki ziren. Alegia, modernizatzek metropolizatzea esan nahi ote duen derrigor, hots, kopia huts bihurtzea. Edota espazio konfliktibo bezain produktibo batez ari ote garen. (...)

Postmodernotzat ulertzen ditugun zenbait ideia eta zantzu, metropoliak bereganatu aurretik, kolonietan agertu dira. Neurri batean “marjinek” postmodernizatu dute “zentroa”, alegia. Nahiz eta, gero, “postmodernitate” kontzeptu berria modan jarri eta ahoa bete-bete metropolitik berriro kolonietara, hausketaz, paradoxaz, ambiguetateaz, hibridotasunaz, deszentralizatzek, identitate hautsiez, historiaren gabeziak, kontingentziak, eszeptizismoaz... hitz egitera berri-berri bailiran itzuli. (...)

Kritika postkolonialak mundu modernoaren ordenaren barruan autoritate politiko eta sozialaren lehian inplikaturik dauden errepresentazio kulturalen indar ez-pareko eta ez-berdinen lekukotza ematen du. Diferentzia kulturalen diskurtso horiek berreraikitze, tenporalitate sozialaren errotrakako berriraketa bat eta “zeinuaren” berrartikulazio bat behar direla aldarrikatuz. (...)

Pentsamendu postmoderno, postkolonial edo deitu “beste” pentsamendu hori, euskal letretan sortu denean, indar askatzailez sortu da, eta indar askatzaile horrekin hasi du bere buruaren berrirakurketa eta formulazioa. Subjektu politiko berri bat abiatu dute modernitateko subjektu politikoaren oinarriak ez diren beste batzuetatik abiatuta (...)

Gerren osteko belaunaldiak (...) Arrazoimenaren eredu desberdin batetik abiatuta, legitimazioa arrazoizkotasun eta objektibotasunean bezainbat subjektu konprometitu kokatuaren esperientziaren egian oinarritu dute.

Bien bitartean, gerren osteko belaunaldiko kide zenbaiten –tartean, Txillardegí– lanen amaraun konplexuak termino eta eskema postmoderno engaiatu eta postkolonialetan zentzua hartzen duelakoan gaude. Beren idatzien osotasunak ikuspuntu horren pean argi hartzen eta beren zinezko emaria erakusten duelakoan. “Beste zerbait” horri deitu postmoderno engaiatu, postkolonial edo X. (A. Aizpuru, 2019, 23-27. or.).

Ikusten den moduan, korrante postkolonial edota postmoderno engaiatuaren parametroetan kokatzen du testuak 56ko belaunaldiak egindako ekarpena. Alabaina, kokapen hori egiterakoan ate bat zabalik uzten du belaunaldi horren pentsamendua beste moduren batera –X bezala– izendatzeko. Lan honetan ulertzen da autoreak ate hori zabalik uzteko arrazoiak hiru direla: batetik, ikerketa postmodernoen baitan dagoen barne aniztasuna; bestetik, zentroko ikertzaileek postmodernismoa kategoriaren

gainean azken urteotan egindako apropiazioa; eta, azkenik, horren guztiaren eraginez ertzetako ikertzaile engaiatuek –zentroko postmodernitatea gainditu nahi dutenek– euren burua postmoderno gisa izendatzeko izan duten ezintasuna.

Abaniko zabala ireki da azken hamarkadetan ikerketa postmodernoen baitan – postmoderno, postmoderno engaiatu, postkolonialista, dekolonial eta abar–. Izen dantza hori gorabehera, Aizpurren begiradak ezin hobeto kokatzen ditu euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz aztertuz sortu diren galdera eta korapiloak pentsamendu postmodernoarean parametroetan. Nazio zapalduaren eredia eraiki nahi bada, ezinbestekoa da, beraz, bi noranzkoko ariketa egitea: batetik, ikerketa postmodernoen beren osotasunean eskaintzen dituzten tresna teoriko-epistemikoen bidez lan hau aberastea; eta bestetik, euskal partikulartasunean oinarritzen den ikerketa honetatik ikerketa postmoderno engaiatuei ekarpen txoa egitea. Izan ere, euskal pentsamendua unibertsa da munduko pentsamendu oro den bezainbeste.

2.1 Ikerketa postmodernoa: ertzetatik ezagutza(k) sortzen

Azpikapitulu honetan, aterabidea aurkitu nahi zaio begirada modernoan oinarritzen diren ereduak –Mediterranean eredia– eta beren alternatibak –Belgikar eredia– euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasua azaltzeko erakutsi duten ezintasunari. Horretarako, laguntza funtsezkoa eskaini dezakete ikerketa postmodernoen baitan garatu diren kontzeptu teorikoek eta proposamen epistemikoek. Jarraian ahalegina egiten da ikerketa postmoderno horietatik zenbait ekarpen jasotzeko.

2.1.1 Alternatiba postmodernoen barne aniztasuna

Proiektu postmodernoa zentzu desberdinak hartzen ditu akademian testuinguruaren eta ikertzailearen arabera. Adiera horietako bakoitzak modu propioa du modernitatearen proiektua ulertzeko. Hori dela eta, postmodernitateak funtzio eta esanahi desberdinak hartzen ditu bakoitzaren ahotan. Lan honen baitan, Boaventura de Sousa Santosek proposatzen dituen kategoriak hartzen dira erreferentzia gisa nahas-mahas horretan iparra ez galtzeko. *El milenio huérfano* (2005) liburuaren hitzaurrean Monederok aipatzen du Santosaren arabera lau direla akademian modernitatearen bilakaeraren inguruan dauden diagnosi nagusiak.

10. taula: Modernitatearen inguruko diagnostikoak.

Eredu idealak	Oinarrizko ideia	
Kapitalismoaren garaipena Fukuyama	Multzo honetan kokatzen direnek egiten duten irakurketa da liberalismoak izan duen arrakastak modernitate baten erabateko gauzatzea irudikatzen duela.	
Proiektu amaigabearen ideia Jameson edota Habermas	Talde honetako pentsalariak uste dute modernitatea proiektu amaitu gabea dela. Hori dela eta, oraindik etorkizun ez-kapitalista edota nabardurekin kapitalista dena garatzeko ahalmena duela. Besteak beste, multzo honetan kokatzen da mendebaldeko marxismo klasikoa.	
Postmodernismo ospatzailea Lyotard, Vattimo eta abar.	Postmodernismo mota honek uste du modernitateak kapitalismoaren aurrean makurtu behar izan duela. Horren ondorioz, aro berri bati hasiera eman zaio – postmodernismoari– zeinetan apurka modernitateko promesa eta arazoak bere kasa pisua galtzen joango diren.	
Aurkakotasunezko postmodernismoa	Postmodernismo mota honen arabera modernitateak gainez egin du logika razionalista eta kapitalistaren inbasioaren ondorioz. Hori gertatzean modernitatea balio gabetu egin da proiektu epistemiko gisa. Arazoak, ordea, bere horretan dirau. Azken hauek uste dute distopiaren aurrean egungo arazoei alternatiba eskaintzea posible dela.	
	Pentsamendu kritiko alternatiboa Laclau eta Mouffe	Alternatibak pentsatzeko beste modu bat Boaventura de Sousa Santos eta Grosfoguel
	Marxismo klasikoa izan da modernitateko pentsamendu kritikoaren ordezkari nagusia. Alde horretatik, korrante honen aldekoek uste dute marxismo ortodoxoak zailtasunak dituela antagonismo ezberdinak azaldu eta horiei guztiei aterabidea eskaintzeko. Historia jada ezin da singularrean ulertu, hots, langile zuri eta gizonezkoaren ikuspegitik. Horregatik, marxismoaren tradizioetik kanpo kokatzen dute bere burua. Postmarxistak dira, besteak beste, honako bi arrazoigatik: 1) gizartea ez dutelako sistema itxi gisa ikusten; 2) determinismo ekonomikoa zalantzan jartzen dutelako. Alternatiba, ordea, mendebaldeko pentsamenduaren tradizioan ardatzen dute.	Posible da bestelako modernitate bat eraikitzea, besteak beste, ez-kapitalista eta ekosozialista izan daitekeena. Utopia intelektualak posible egiten du utopia politikoa. Pentsamendu modernoari kritika egiten diotenean –besteak beste, marxismo klasikoari– beste gauza batzuen artean uste dute funtsezkoa dela modernitateko instituzio politiko gorena birpentsatzea: Estatua. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da alternatibak pentsatzeko modu alternatiboak bilatzea. Hauen ustez, pentsamendu kritiko alternatiboa hankamotz gelditzen da, baldin eta mendebaldeko pentsamendu modernoaren kritika mendebaldeko begiradatik soilik egiten bada.

Iturria: Monedero (2005, 41-42. or.). Egileak moldatua.

Oharra: Saillkapen honen oinarrizko ideiak Monederoren lanetik hartu badira ere, aurkakotasunezko postmodernismoaren atala osatu nahi izan da saillkapenean Laclau eta Moufferen kasua txertatuz.

Ikusten den moduan, Santosen ustez, komenigarria da korrante postmodernoaren baitan bi multzo bereiztea autoreek modernitatearen inguruan egiten duten diagnostikoaren arabera: batetik, modernitatearen aurrean jarrera ospatzailea dutenak; eta bestetik, aurkakotasunezko jarrera dutenak.

De acuerdo con una posición, que podía ser denominada postmodernismo celebratorio, el hecho de que no existan soluciones modernas indica que probablemente no hay problemas modernos, o que en realidad no hay promesas modernas. Así, lo que existe debe ser aceptado y elogiado. Según la otra postura, que he denominado posmodernidad inquietante o de oposición, se asume que existe una disyunción entre los problemas de la modernidad y las posibles soluciones de la posmodernidad, la cual debe ser convertida en punto de partida para afrontar los desafíos derivados del intento de construir una teoría crítica posmoderna. (Santos, 2005, 104-105. or.).

Postmodernismo ospatzaileak, adibidez, azpimarratzen du XXI. mendean modernitatea iraganeko kontua dela. Begirada honetatik, korrante honen parte diren autoreek ulertzen dute modernitateko eztabaidak zaharkitu egin direla eta egungo arazoak –parametro ez-modernoetan artikulatzen direnak– ardatz berri batetik pentsatu behar direla, hots,

begirada postmodernotik. Alde horretatik, azken horiek proposamen postmodernoa ulertzen dute, modernitatearen kritika baino gehiago, proiektu modernoaren gaindipen gisa. Ondorengo azpikapitulan, Jean François Lyotard autore frantziarraren ideiak lantzen dira postmodernismo ospatzaileak eskaintzen dituen marko epistemiko eta teorikoak ikerketa honetarako baliagarri diren ikusteko.

Aurkakotasunezko postmodernismoak, aldiz, ez dio bizkar ematen modernitatearen auziari. Modernitatearen gaindipena baino gehiago, proposatzen dute modernitatea berriz birpentsatzea. Kontua da, egungo gizartean arazo zaharrak askatzeko begirada berriak behar direla. Testuinguru horretan hartzen du korrante postmodernoak gorputza. Lan honetan bereziki ezkerreko mugimenduetatik marxismo klasikoaren metaerrelatoari egiten zaizkion kritikak jasotzen dira. Alabaina, aipatutako multzoa anitza da bere baitan. Ildo horretatik, lan honetan bitan bereizten da aurkakotasunezko postmodernismoa: zentroko kritika postmoderno/postmarxista –Laclau eta Mouffe– eta kritika dekoloniala –Grosfoguel–. Bereizketa horrekin bereizi nahi dira modernitatearen gaineko kritika epistemologia mendebaldarrean ardatzen duten lanak –Laclau eta Mouffe– eta epistemologia alternatiboez baliatzen direnak –Grosfoguel–. Horrela, mahai gainean jarri nahi da pluralismo epistemikoaren auzia.

El colonialismo es la concepción que ve el otro como objeto, no como sujeto. De acuerdo con esta forma de conocimiento, es progresar en el sentido de elevar al otro del estatus de objeto al estatus de sujeto. Esta forma de conocimiento como reconocimiento es la que denomino solidaridad. Pero estamos tan acostumbrados a concebir el conocimiento como un principio de orden sobre cosas y las personas, que encontramos difícil imaginar una forma de conocimiento de solidaridad. No obstante, esta dificultad es un reto que debe ser encarado. Después de saber lo que ocurrió con las alternativas propuestas por la teoría crítica moderna. No debemos contentarnos con pensar meramente sobre alternativas. Lo que se requiere es una forma alternativa de pensar alternativas. (Santos, 2005, 106. or.).

Aipatutako hiru eredu horiek aztertuz –Lyotard, Laclau /Mouffe eta Grosfoguel–, tresna teorikoak bildu nahi dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren azterketa aberasteko. Hiru autore horiek ikusi ostean, ondorioztatu da euskal lerrokatze linguistikoa azaltzeko dagoen arazoari irtenbide egokiena eskaintzen dion alternatiba dela aurkakotasunezko postmodernismoa, hain zuzen ere, begirada modernoaren mugak ertzetik eta epistemologia alternatiboetatik gainditzeko ahalegina egiten duena –Grosfoguel–. Edonola ere, azken horrek pentsamendu mendebaldar modernoak eragiten duen subordinazio egoera ulertzeko balio badu ere, pentsamendua Latinoamerikan gorpuzten duen neurrian ez da guztiz egokitzen euskal kasura. Horrela, laugarren azpikapitulan hiru eredu horien balorazioa egiteaz gain, zein den azpimarratzen da aurrera begira euskal kasuaren korapiloa askatzeko gelditzen den eginkizuna.

2.1.1.1 Modernitatearen amaieraren irakurketa positiboa zentroko begiradatik: Lyotarden kasua

Lyotard pentsalari frantziarra da korronte postmodernoaren erreferente nagusia akademian. Azpikapitulu honetan, honako bi testu lantzen dira Lyotardek postmodernismoaren inguruan egiten duen proposamena aztertzeko: batetik, 1979an argitaratu zen *La condición postmoderna: informe sobre el saber* liburua; eta bestetik, *La posmodernidad (explicada a los niños)* liburua 1986an argitaratua. Bi liburu horietan, autoreak auzitan jartzen ditu metaerrelato modernoak, hau da, XIX. mendetik atzera zientziagintzaren joko arauak legitimatu dituzten kontakizunak. Jarraian aztertuko dena da zein diren aipatutako metaerrelato horiek eta zein den beraien gainbeheraren arrazoia.

Este estudio tiene por objeto la condición del saber en las sociedades más desarrolladas. Se ha decidido llamar a esta condición «postmoderna». (...) Designa el estado de la cultura después de las transformaciones que han afectado a las reglas de juego de la ciencia, de la literatura y de las artes a partir del siglo XIX. Aquí se situarán esas transformaciones con relación a la crisis de los relatos. (Lyotard, 1989 [1979], 9. or.).

Nuestra hipótesis es que el saber cambia de estatuto al mismo tiempo que las sociedades entran en la edad llamada postindustrial y las culturas en la edad llamada postmoderna. (Lyotard, 1989, 13. or.).

Autoreak liburuaren hasieran argi eta garbi esaten du bere gogoetek jatorria Estatu Batuetako autoreetan dutela. Alde horretatik, pentsalari frantziarrak ulertzen du “gizarte aurreratuenak” pasa direla, 1950eko hamarkadatik aurrera, gizarte industrialak izatetik gizarte postindustrial izatera. Salto hori aldagai desberdinek eragin dute, besteak beste, teknologiaren garapenak. Horrek guztiak aldaketa estrukturalak eragin ditu bizitzako arlo desberdinetan, baita zientziagintzaren eta ezagutzaren izaeran ere. Gizarte informatizatuen testuinguruan kokatzen du Lyotardek metaerrelatoen eta ezagutza modernoaren krisia. Gauzak horrela, bere lanetik hiru gauza komeni dira argitzea: bat, zeintzuk dira Lyotarden ustez ezagutza modernoaren ezaugarriak?; bi, nola eragin die gizarteko transformazioek zientziaren jarduna zedarrizten duten joko arauen legitimazioari?; eta, hiru, zein da gizarte postindustrialetan ezagutzak hartzen duen izaera berria?

Lyotarden arabera, modernitatearen ezaugarri nagusietakoa da mundua ideia baten inguruan ardaztea. Bere arabera, Descartesen lanean modu esanguratsuan agertzen da joera hori, gogoratu: “*cogito ergo sum*”. Beste horrenbeste esan daiteke Ilustrazioaren inguruan XVIII. mendean: arrazoia. Hari horri tiraka, Lyotardek azpimarratzen du XIX eta XX. mendeko pentsamendu eta gertakari nagusien atzean honako ideia dagoela: gizadiaren askapen unibertsalarena (Lyotard, 1987, 36. or.). Bere ustez, ideia hori

presente dago historiaren gaineko filosofia nagusien baitan, nahiz eta ideia hori bera modu desberdinetara mamitu duen filosofia horietako bakoitzak. Orotara, lau dira Lyotardek bereizten dituen modernitateko metaerrelato nagusiak: ilustrazioa, liberalismoa, marxismoa eta kristautasuna –ñabardura egiten du azken honen kasuan–.³⁹

Proiektu horiek unibertsalistak diren neurrian, osotasunean baldintzatzen dute mundua ulertzeko modua, eta ondorioz, horrek eragin zuzena du zientziagintzan eta hortik eratortzen den ezagutzan. Testuinguru honetan garatu da zientziagintza modernoa. Lyotardek ezagutza modernoaren ezaugarri desberdinak aipatzen dituen arren, lan honetan horietako bat interesatzen zaigu bereziki: proiektu liberal/ilustratuaren fruitu den estatu-nazioaren eta ezagutza zientifikoaren arteko harremana. Biek ala biek, bidean topo egin dute euren izatea legitimatzeko.

Esta disposición general de la modernidad a definir las condiciones de un discurso en un discurso sobre esas condiciones se combina con el restablecimiento de la dignidad de las culturas narrativas (populares), ya en el Humanismo renacentista, y de modo distinto en el siglo de las Luces, *El Sturm und Drang*, la filosofía idealista alemana, la escuela histórica francesa. La narración deja de ser un lapsus de la legitimación. (...) El saber de los relatos retorna a Occidente para aportar una solución a la legitimación de las nuevas autoridades [burguesía]. Es natural que, en una problemática narrativa, esta cuestión espere la respuesta de un héroe: ¿quién tienen derecho a decidir por la sociedad? ¿cuál es el sujeto cuyas prescripciones son normas para aquellos a quienes obligan?

Este modo de interrogar la legitimidad socio-política se combina con la nueva actitud científica: el héroe es el pueblo, el signo de legitimidad su consenso, su modo de normativación la deliberación. La idea de progreso resulta indefectiblemente de esto: no representa más que el movimiento por el cual el saber se supone que se acumula (...) el pueblo está en debate consigo mismo acerca de lo que es justo e injusto de la misma manera que la comunidad de ilustrados sobre lo que es verdadero y falso; acumula las leyes civiles como acumula las leyes científicas; perfecciona las reglas de su consenso por disposiciones constitucionales cuando las revisa a la luz de sus conocimientos produciendo nuevos «paradigmas».

Se ve que ese «pueblo» difiere totalmente del que está implicado en los saberes narrativos tradicionales, los cuales, se ha dicho, ni requieren ninguna deliberación instituyente, ninguna progresión acumulativa, ninguna pretensión de universalidad (...) No hay, pues, que asombrarse de que los representantes de la nueva legitimación por medio del «pueblo» sean también los destructores activos de saberes tradicionales de los pueblos, percibidos de ahora en adelante como minorías o separatismos potenciales (...) Se concibe igualmente que la existencia real de ese sujeto forzosamente abstracto (...) depende de las instituciones en las que se supone debe deliberar y decidir y que comprende todo o parte del Estado. De este modo la cuestión del Estado se encuentra estrechamente imbricada con la del saber científico. (Lyotard, 1989, 60-61. or.).

³⁹ Honatx, metaerrelato horietako bakoitzaren inguruan dioena: “Los "metarrelatos" a que se refiere La condición posmoderna son aquellos que han marcado la modernidad: emancipación progresiva de la razón y de la libertad, emancipación progresiva o catastrófica del trabajo (fuente de valor alienado en el capitalismo), enriquecimiento de toda la humanidad a través del progreso de la tecnociencia capitalista, e incluso, si se cuenta al cristianismo dentro de la modernidad (opuesto, por lo tanto, al clasicismo antiguo), salvación de las criaturas por medio de la conversión de las almas vía el relato crístico del amor mártir. La filosofía de Hegel totaliza todos estos relatos y, en este sentido, concentra en sí misma la modernidad especulativa (apostilla a los relatos).

Estos relatos no son mitos en el sentido de fábulas (incluso el relato cristiano). Es cierto que, igual que los mitos, su finalidad es legitimar las instituciones y las prácticas sociales y políticas, las legislaciones, las éticas, las maneras de pensar. Pero, a diferencia de los mitos, estos relatos no buscan la referida legitimidad en un acto originario fundacional, sino en un futuro que se ha de producir, es decir, en una Idea a realizar. Esta Idea (de libertad, de “luz”, de socialismo, etc.) posee un valor legitimante porque es universal. Como tal, orienta todas las realidades humanas, da a la modernidad su modo característico: el proyecto” (Lyotard, 1987, 30-31. or.).

Horrela, Estatua matrize espazial eta tenporala delarik, herriaren askatasunaren izenean elkar elikatzen dira pentsamendu filosofikoak –ezagutza narratiboak–, ezagutza zientifikoak eta instituzio politikoak. Herria da zer den justua eta zer ez erabakitzen duena, aldiz ilustratuek zehazten dute zer den egia eta zer gezurra. Lyotarden arabera, mendebaldeko kulturaren ezaugarri nagusietakoa da zientzia deitzen denaren eta etika/politika deitzen den beste horren arteko senidetzea (Lyotard, 1989, 23. or.). Perspektiba horretatik bi dira XIX. mendetik XX. mendera bitartean gizarte zientzietan nagusitu diren paradigmak: batetik, gizartea osotasun funtzional gisa ikusten duena –paradigma funtzionalista–; eta bestetik, gizartea osotasun gisa bi zatiren arteko dialektikaren sintesi moduan ulertzen duena –paradigma marxista–.⁴⁰ Aipatutako paradigma horien inguruan artikulatu da ezagutza modernoa XIX eta XX. mendeetan.

Hori horrela bada, zergatik ez dute parametro horiek balio gizarte postindustrialerako? Lyotardek luzatzen duen ideia da gizarte postindustrialerako gertatu diren transformazioen eraginez –teknikaren garapena, kapitalismoaren bilakaera eta indibidualismoa–, modernitatearen muinean zeuden metaerrelatoak gainbehera joan direla, eta ondorioz, deslegitimatzen joan dira kontakizun horien gainean oinarritzen ziren instituzioak, tartean, zientziagintza modernoa eta estatu-nazioa. Lyotarden arabera, azken honek, gizarte postindustrializatuetan galdu egin du aurrez mundua –espazioa eta denbora– arautzeko eta erreproduzitzeko zuen gaitasuna.

El «redesplice» económico en la fase actual del capitalismo, ayudado por la mutación de técnicas y tecnologías, marcha a la par, ya se ha dicho, con un cambio de función de los Estados (...) La novedad es que en ese contexto los antiguos polos de atracción constituidos por los Estados-naciones, los partidos, las profesionales, las instituciones y las tradiciones históricas pierden su atracción. Y no parece que deban ser remplazados, al menos a la escala que les es propia. (...) De esta descomposición de los grandes Relatos, que analizamos más tarde, se sigue eso que algunos analizan como la disolución del lazo social y el paso de las colectividades sociales al estado de una masa compuesta de átomos individuales lanzados a un absurdo movimiento browniano. (Lyotard, 1989, 35-36. or.).

Ikuspegi honetatik uste du autoreak gizarteak atomizatu egin direla eta garai bateko matrize egonkor eta homogeen hura pusketan hautsi dela. Determinismo lokala da etorkizuna.

Así, la sociedad que viene parte menos de una antropología newtoniana (como el estructuralismo o la teoría de sistemas) y más de una pragmática de las partículas lingüísticas. Hay muchos juegos de lenguaje diferentes, es la heterogeneidad de los elementos. Sólo dan lugar a una institución por capas, es el determinismo local. (Lyotard, 1989, 10. or.).

⁴⁰ Lyotardek azpimarratzen du sailkapen hori tentuz egin behar dela, beti ere, sailkapenak errealtatearen zati bat kanpo uzteko arriskua baitu: “Simplificando al extremo, se puede decir que durante los últimos cincuenta años por lo menos, esta representación se ha dividido en principio entre dos modelos: la sociedad forma un todo funcional, la sociedad está dividida en dos. Se puede ilustrar el primer modelo con el nombre de Talcott Parsons (al menos, el de la postguerra) y de su escuela; el otro con la corriente marxista (todas las escuelas que la componen, por diferentes que sean entre sí, admiten el principio de la lucha de clases, y de la dialéctica como dualidad que produce la unidad social)” (Lyotard, 1989, 13. or.).

Lyotarden arabera, Modernitatean zehar lau metaerrelato horien artean nagusitu den metaerrelatoa liberalismoa den arren –teknozientzia kapitalista–, azken honen nagusitasunak modernitatearen amaiera ekarri du bere etorkizuna ziurtatu beharrean. Azken batean, gizadiaren askatasun unibertsalaren partez begi-bistakoa da barbariea ekarri duela. Gizadiaren hutsune nagusiek hor jarraitzen dute eta muinean zuen funtzio askatzailea ez du bete. Alde horretatik, Auschwitzeko kasua aipatzen du Lyotardek proiektu modernoaren iraungitze dataren mugarri gisa.⁴¹ Bere hipotesia da Auschwitzten desagerrarazi nahi izan zena ez zela izan gobernua, boterearen subiranoa zen “herria” baizik. Honela, autosuntsitu zuen modernitatearen oinarritzko ideia modernitateak. Horregatik dio metaerrelatoen porrotaren bidetik historian paradigma berria zabaldu dela: postmodernismoarena. Ildo horretatik, Lyotarden arabera, heldulekurik gabe gelditzen dira ordura arteko justifikazio filosofikoak. Hala, ezagutza zientifikoari dagokionez aro berri bati hasiera ematen zaio. Alabaina, zein da etorkizuneko gizarte postmodernoetan ezagutzak izango duen izaera?

Lyotardek bi motatako ezagutzak bereizten ditu ezagutza postmodernoaren izaera azaltzeko: narratiboak eta zientifikoak. Ezagutza narratiboak, esaterako, metaerrelatoekin dute harremana. Azken horiek dira errealtatearen nolakotasuna zehaztu, premisa metafisiko batzuk ontzat eman –egiaren existentzia eta frogaren baliozkotasuna– eta ezagutza zientifikoaren jarduera modernoa posible egin dutenak. Orain arte, errelato narratibo horiei subordinatuta zegoen ezagutza zientifikoa. Gizarte postmodernoetan biak urtu egiten dira eta horrek eragin du zientziagintza “lengoaia jokoen” logikan ulertzera pasatzea. Zientziagintza postmodernoa barrura begira “kontsentsuan” oinarritzen den arren –sistemaren baitako eztabaidara mugatzen da arrazoiketaren jolasa–, kanpora begira naturaltasunez hartzen du desadostasuna –joko arau desberdinak dituen sistemak egotea–. Horrela, ezagutza ulertzeko modu honek aukera zabaltzen du diskurtso narratibo desberdinak legitimatzeko, eta beraz, ezagutza zientifiko anitzak elkar bizitzeko.

El principio de un metalenguaje universal es reemplazado por el de la pluralidad de sistemas formales y axiomáticos capaces de argumentar enunciados denotativos, esos sistemas que están descritos en un metalenguaje universal, pero no consistente. Lo que pasaba por paradoja, o

⁴¹ Lyotarden arabera, gertakari honekin modernitateak deslegitimatatu egiten du bere oinarritzko ideia: “Desde luego, la deslegitimación forma parte ya de la modernidad. ¿quién puede decir si Cristo es el hijo de Dios o un impostor? Su Padre lo abandonó. El martirio de Jesús recibió su equivalente político en la ejecución de Luis XVI, soberano legítimo. ¿Cuál será la fuente de la legitimidad en la historia moderna a partir de 1792? Decimos: el pueblo. Pero el pueblo es una Idea, y en tomo de esta Idea hay disputas, combates. Se trata de saber cuál es la buena Idea del pueblo y se trata de hacerla prevalecer. De ahí la extensión de las guerras civiles en los siglos XIX y XX, y el hecho cierto de que aún la guerra moderna entre naciones es siempre una guerra civil: yo, gobierno del pueblo, cuestiono la legitimidad de tu gobierno. En Auschwitz se destruyó físicamente a un soberano moderno: se destruyó a todo un pueblo. Hubo la intención, se ensayó destruirlo. Se trata del crimen que abre la posmodernidad, crimen de lesa soberanía, ya no regicidio sino populicidio (algo diferente de los etnocidios)” (Lyotard, 1987, 30-31. or.).

incluso por paralogismo, en el saber de la ciencia clásica y moderna, puede encontrar en uno de esos sistemas una fuerza de convicción nueva y obtener el asentimiento de la comunidad de expertos. (Lyotard, 1989, 82. or.).

Azken horrek honako bi elementuekin du lotura: ezagutzaren metaketarekin eta boterearekin. Ezagutzaren metaketari dagokionez, zientziagintza modernoak lortu nahi duena da ezagutza pilatzea metaerrelato eta modelo teoriko batzuen inguruan. Alderantziz funtzionatzen du zientziagintza postmodernoak. Azken honek ezagutza pilatzen du oinarri teorikoetan “paradoxak” edota kasu ulergaitzak bilatuz. Behin horiek identifikatuta saiatzzen da kasu horien berrinterpretazioa legitimatzeko arrazoiketak eraikitzen. Errelato desberdinak garatzeak ez du zertan aurreko ezagutza zientifikoa zalantzan jarri. Aitzitik, elkar osatzen dute (Lyotard, 1989, 99-100. or.). Boterearen eta ezagutzaren arteko harremanaren kasuan, Lyotardek azpimarratzen du gizarte postindustrialetan ezagutza merkantzia bihurtu dela.⁴² Beraz, erosteko ahalmena dutenek izango dute gaitasuna adituez eta ikerketa zentroetako ezagutzaz baliatzeko. Alabaina, egia unibertsalik ezean, zertarako behar ditu batek teknikak eta argumentuak? Errealitateaz jabetzeko. Ezagutzak izaera performatiboa izango du ardatz gizarte postindustrialetan gauza guztien gainetik. Lyotardek azpimarratzen du errealitateaz jabetzeak ezagutza legitimatzea ahalbidetzen duela –frogak eta iritziak–, eta alderantziz, zientziak ahalbidetzen du boterea legitimatzea. Ikuspegi honetatik, eraginkortasuna da balio gorena egiazkotasunaren partez, eta teknika da berau ahalbidetzen duena. Horrela, Lyotarden arabera, ezagutza postmodernoak ez du egia bilatuko adituen homologian; alderantziz, ezagutza neurtuko da paralogiaren arabera. Beste hitzetan esanda, arrazoiketaren barne estrukturak izango dira eztabaidagai, oinarritzko premisak izan beharrean. Gauzak horrela, Lyotarden iritziak, gizarte postindustrialen erronka nagusia da datu baseetan dagoen informazioa jendearentzat eskuragarri jartzea.⁴³ Horrela, konforme ez dagoenak handik paradoxak aurkitu eta bakoitzari ongien iruditzen zaion ezagutza ekoizteko aukera izango baitu.

Ikusten den moduan, Lyotarden pentsamendua kokatzen da postmodernismo ospatzailearen baitan. Alde horretatik, zein dira interesatzen zaizkigun ekarpenak? Hasteko eta behin, kontuan izan behar da euskal lerrokatze linguistiko elektoralala Estaturik gabeko nazio baten baitan gertatzen den fenomeno soziala dela, hau da,

⁴² Honela laburbiltzen du auzia: “El antiguo principio de que la adquisición del saber es indisociable de la formación (Bildung) del espíritu, e incluso de la persona, cae y caerá todavía más en desuso. (...) El saber es y será producido para ser vendido, y es y será consumido para ser valorado en una nueva producción: en los dos casos, para ser cambiado. Deja de ser en sí mismo su propio fin, pierde su «valor de uso»”. (Lyotard, 1989, 16. or.).

⁴³ Honatx auzi honen inguruan Lyotardek dioena: “Desde ese punto de vista, lo que se anuncia no es el fin de saber, al contrario. La Enciclopedia de mañana son los bancos de datos. Éstos exceden la capacidad de cada utilizador. Constituyen la «naturaleza» para el hombre postmoderno”(Lyotard, 1989, 95. or.). Kontua da nork sortzen ditu datuak? Zein begiradatik?

ikerketa hau “ertzeko” kasu bati dagokiola. Aldiz, Lyotardek lanketa zentrotik abiatzen du eta zentroaren ingurukoa da bere gogoeta. Horrek erakusten du jatorrian dituen kezka ez direla gorpuzten lan honetan ditugun kezka gorpuzten diren posizio beretik. Behin hau esanda, Lyotarden lanetik interesgarriena da aukera zabaltzen duela estaturik gabeko nazioetatik ekoiztako ezagutza legitimatzeko. Gogoratu modernitatean ertzetako fenomenoak Estatutik pentsatu izan direla. Lan honetan ahalegina egin da aipatutakoa praktikara eramateko eta Lyotarden hitzak erabiliz euskal kasua formulatu da begirada modernoaren paradoxa moduan. Alegia, erakutsi da euskal kasua azaltzeko zailtasunak daudela orain arteko marko modernoarekin. Horrela, zilegi da eredu alternatiboa proposatzea. Alabaina, Lyotarden proposamena lehen begiratuan askatzailea dirudien arren, aterabide kamutsa da nazio zapalduentzat oinarri epistemikoak eskaintzeko. Izan ere, modernitatearekin egiten duen etenak eta ezagutza erlatibizatzeak, zentzugabeko ariketa izatea bihurtzen du zentroaren eta ertzaren arteko elkarrizketa. Horrela, zentroa eta ertza bakoitza bere egiarekin gelditzen dira, baina azken honek –ertzeko alternatibak– ez du zentroa deslegitimatzeko aukerarik. Are gutxiago, indarrik. Zentroak errealitatea bereganatzeko gaitasun handiagoa izango du daukan botereagatik. Horrela, zentrotik ekoizten den ezagutzaren legitimitatea indartsuagoa izango da beti ertzeko ezagutzarena baino: ez egiazkoagoa delako berak defendatzen duen ezagutza, botere gehiago duelako baizik.

Laburbilduz, ikuspegi honetatik uste da bi funtzio betetzen dituela Lyotardek proposatzen duen postmodernismoak: batetik, pentsamendu mendebaldar modernoak ertzak barneratzeko zuen zailtasuna gainditzea; eta bestetik, zentroaren diskurtsoa legitimatzea menderakuntza ezbaian jarri gabe. Horregatik guztiagatik, ondorioztatzen da Lyotardek ordezkatzeko duen postmodernismo ospatzailea lan honen behar epistemikoak asetzeko hanka-motz gelditu dela.

2.1.1.2 Modernitateari kritika ezkerretik baina zentroko begiradatik:

Laclau eta Moufferen kasua

Bigarren azpikapitulu honetan interesatzen dena da aztertzea zein den Laclau eta Moufferen lanek marxismo ortodoxoari –lau metaerrelato moderno horietako bati– egin dioten kritika teoriko-epistemologikoa. Izan ere, azterketa horrek aukera ematen du ezkerreko pentsamenduak modernitateari egiten dion zuzenketa zertan datzan ulertzeko. Zehazki, honako bi galdera hauek erantzun nahi dira aipatutako asmoak betetzeko: bat, zein da ezker berria delakoak modernitatearen auziaren inguruan egiten duen irakurketa? Eta bi, zein da azken horrek nazio askapen prozesurako proposatzen duen estrategia?

Lan honetan autore horiek aztertzea aukeratu bada izan da bi arrazoigatik. Batetik, Laclaren eta Moufferen ekarpenak gertutik jarraitu dituztelako XX. mendearen azken hondarretik hona menderakuntza modu anitzak artikulatzen ahalegindu diren ezkerreko mugimenduek. Bestetik, ez direlako arrotzak euskal intelligentsiarentzat, eta elkarren artean harremana izan dutelako.⁴⁴ Alde horretatik, *Hegemonia y Estrategia Socialista* (2001 [1985]) liburua da bi pentsalari horien ekarpen teoriko nagusiak jasotzen dituen lana. Era berean, bada Laclaren beste lan bat ekarpen teoriko horiek eguneratzeko ahalegina egiten duena eta azpikapitulu honetan kontuan izango dena: *La razón populista* (2005). Bi lan horien bidez, autore horiek modernitatearen inguruan egiten duten irakurketa ulertu nahi bada, ezinbestekoa da aintzat hartzea nola eta zergatik hurbiltzen diren *hegemonia* kategoriara.

Muchos antagonismos sociales, muchos temas cruciales para la correcta comprensión de las sociedades contemporáneas, pertenecen a campos del discurso *externos* al marxismo y no pueden reconceptualizarse en términos de categorías marxistas, sobre todo teniendo en cuenta que es su presencia misma que pone en entredicho al marxismo entendido como sistema teórico cerrado y exige la postulación de nuevos puntos de partida para el análisis social. (...)

Cualquier cambio esencial en el contenido *óptico* de un ámbito de investigación conduce a un nuevo paradigma *ontológico*. Althusser solía decir, que lo que latía tras la filosofía de Platón eran las matemáticas griegas; tras el racionalismo del siglo XVII, la física de Galileo y tras la filosofía kantiana, la teoría de Newton. (...) Existe un proceso de retroalimentación mutua entre la incorporación de nuevos campos de objetos y las categorías ontológicas generales que determinan, en una época concreta, lo que cabe pensarse en el seno del campo general de la objetividad. (...)

No podemos reflexionar en torno a los problemas de una sociedad globalizada y regida por el poder de la información desde ninguno de los dos paradigmas imperantes en el ámbito del discurso marxista: el hegeliano y el naturalista.

En nuestro enfoque damos prioridad al momento de la *articulación política* y, desde nuestro punto de vista, la categoría central del análisis político es la *hegemonía*. (Laclau eta Mouffe, 2001, 14. or.).

Ikusten den moduan, Laclau eta Mouffek aipatzen dute diskurtso marxistak zailtasunak dituela informazioaren aroan gizarte globalizatuen inguruan hausnarketa sozialak egiteko. Kritika hori egitean, zeharka bere egiten dute Lyotardek erabilitako ideia, hau da, gizartean gertatu diren transformazioen eraginez metaerrelato marxista zaharkituta gelditu denaren ustea. Edonola ere, aurrerago ikusten den moduan, arras desberdina da batak nahiz besteak marxismoaren krisi horren aurrean hartzen duen jarrera epistemologikoa. Hala, 1985ean idatzi zuten hitzaurrean Laclau eta Mouffek aurreikusi zuten aurrez aipatutako arrazoiengatik ezkerreko pentsamendua bidegurutze batean aurkitzen zela.⁴⁵ 2000ko azaroan idatzitako bigarren hitzaurrean, orduan esandakoak berretsi bakarrik ez, gaineratzen dute proiektu neoliberalaren lehenaz gain hegemoniko

⁴⁴ Chantal Mouffe (2005) esaterako, duela urte batzuk artikulua argitaratu zuen euskara hutsez egiten den Uztaro aldizkarian.

⁴⁵ Honatx, lehen hitzaurrean jasotakoa: "El pensamiento de izquierda se encuentra hoy en una encrucijada. Las «verdades evidentes» del pasado (las formas clásicas de análisis y cálculo político, la determinación de la naturaleza de las fuerzas del conflicto, el sentido mismo de las propias luchas y objetivos) han sido puestas en entredicho por una avalancha de transformaciones históricas que han removido el suelo bajo sus pies." (Laclau eta Mouffe, 2001, 25. or.).

bihurtu dela (Laclau eta Mouffe, 2001, 19. or.). Ildo horretatik, marxismoaren krisiaren nondik norakoak aztertzeko proposatzen dute hegemonia kontzeptuaren genealogia egitea. Alde horretatik, liburuan argi uzten dute marxismoaren krisia gutxienez autore austromarxisten eta Rosa Luxemburgen garaitik ari zela egosten. Izatez, Laclau eta Moufferen (2001, 31. or.) oinarrizko hipotesia da hegemonia kategoria bera krisi horren erantzuna dela. Honako hiru puntutan sortzen da eztabaida Laclau eta Moufferen proposamenaren eta marxismo ortodoxoa deitzen duenaren artean:

Desde el punto de vista teórico, han predominado tres cuestiones en estos debates: la crítica al esencialismo filosófico, el nuevo papel asignado al lenguaje en la estructuración de las relaciones sociales y la deconstrucción de la categoría «sujeto» en lo que respecta a la constitución de las identidades colectivas. (Laclau eta Mouffe, 2001, 7. or.).

Esentzialismo filosofikoari dagokionez, eztabaidagai nagusia da “metafisika” tradizionalari dagokiona. Alegia, marxismo ortodoxoak azpimarratzen du borroka politiko guztiak azken puntuan ekonomiak determinatzen dituela. Horren aurrean, Laclau eta Mouffek azpimarratzen dute gizartea ez dela osotasun itxi bat munduko esperientzia sozial guztiaren zentzua fundamendu batera bihur-murriztu daitekeena. Eurek azpimarratzen dutena da, gizartean klase borrokaz gain, mugimendu eta eskari desberdinak agertu direla: feminismoa, ekologismoa eta abar. Alabaina, honakoa da estrategia sozialista ortodoxoak mugimendu horiei egiten dien eskaintza politikoa: aurrena langile iraultza eta gero gerokoak. Langile klasea da marxismoaren adiera desberdin guztietan subjektu iraultzailearen esentzia eta muina, baita marxismo ortodoxotik gehien urrundu diren autoreen kasuan ere –adibidez, Gramsciren kasuan– (Laclau eta Mouffe, 2001, 123-124. or.).

Edonola ere, azken honek hegemoniaren inguruan egiten duen proposamena iturburu egokia dela iruditzen zaie bestelako begirada batetik mugimendu desberdinak artikulatzeko. Laclau eta Moufferen arabera, politikaren gaineko determinismo ekonomikoak eragiten du subjektu desberdinen arteko praktika hegemonikoak artikulatzerakoan ekonomiak funtzio konstitutiboa izatea. Horregatik ulertu izan da hegemonia izaera trantsitorioa duen kategoria gisa. Autoreek uste dute horri buelta emateko garaia dela.

El carácter plural y multifacético de los conflictos sociales contemporáneos ha acabado disolviendo el fundamento último en el que se basaba este imaginario político poblado de sujetos «universales» y contruidos en torno a una Historia concebida en singular. Es decir, ya no creemos en la idea de «la sociedad» como una estructura inteligible, abarcable, dominada intelectualmente por ciertas posiciones de clase y reconstruida como orden racional y transparente a partir de un acto fundacional de carácter político. En otras palabras, la izquierda está asistiendo al acto final de la disolución del imaginario jacobino. Por siguiente, la misma riqueza y pluralidad de las luchas sociales contemporáneas ha generado una crisis teórica. Queremos ubicar nuestro discurso en el centro de este movimiento bidireccional entre lo teórico y lo político. (Laclau eta Mouffe, 2001, 26. or.).

Ikusten den moduan, Laclau eta Mouffek proposatzen dutena da arreta guztia azpiegituran jartzen zuen eredu ekonomikoa gainditu eta arreta politikan jartzea. Horrela, albo batera gelditzen da diskurtso klasikoa ekonomia eta klase borroka erdian jartzen dituen, eta bide batez, “borondate politikoa” bihurtzen da diskurtso berriaren ardatza (Laclau eta Mouffe, 2001, 123. or.). Horregatik guztiagatik, Laclau eta Mouffek aipatzen dute euren proposamena korrante postmarxistaren baitan kokatzen dela.⁴⁶ Behin puntu honetara iritsita, honako zalantza sortzen da: langile klasea jada ez bada oinarrizko esentzia eta komunismoak ez baditu antagonismo guztiak gainditzen, nola lortu ikuspegi horretatik subjektu eraldatzaileak artikulatzea? Hegemonian dago gakoa.

(...) la condición necesaria de la hegemonía es la ya mencionada dimensión de la indecibilidad estructural. Si la objetividad social determina, por medio de sus leyes internas, toda disposición estructural existente (como sucede en una concepción de la sociedad puramente sociologista), no habría cabida para rearticulaciones hegemónicas ni, de hecho, para la política entendida como una actividad independiente. La existencia de la hegemonía requiere que elementos, cuya propia naturaleza no les predetermine a pasar a formar parte de un orden en vez de otro, se fusionen a pesar de todo como resultado de una práctica externa articuladora. Toda formación hegemónica requiere que los actos de la institución original, con toda su contingencia específica, adquieran visibilidad. Pero decir articulación contingente supone enunciar una dimensión central en la «política». Esta priorización del momento político en la estructuración de la sociedad es uno de los aspectos esenciales de nuestro enfoque. (Laclau eta Mouffe, 2001, 16. or.).

Une politikoari dimentsio zentrala aitortzerakoan, populismoaren aldeko hautua egiten dute aipatutako autoreek subjektu historikoak artikulatzeko. Laclauk (2005, 91-162. or.) aipatzen du gizartean dauden eskari sozialak direla estrategia populistaren ernamuina egunerokotasunean: elektrizitatea, errepide baten eraikuntza, auzo bateko estolderia, diskriminazio etnikoa edo arraziala, soldata arrakala... hamaika adibide izan daitezke. Horiek guztiak, demanda “demokratiko” partikularrak dira instituzioetatik denboran zehar erantzun ezeari desberdintasun bihurtzen direnak. Hala, lan honetan interesatzen dena da diferentzia horiek gorputzetik eskari popularrak izatera igarotzen diren prozesua zedarritzea. Hain zuzen ere, Laclau eta Moufferen helburua da diskurtso populistaren bidez, eskari horiek artikulatzen asmatzea.

Begirada honetatik “herria” da subjektu berria. Diskurtsoak azken batean egiten duena da eskari popular horiek guztiak osotasun baten baitan artikulatu eta objektibatzea. Horretarako, ezinbestekoa da osotasun horretatik kanpo dagoen “aurkaria” identifikatzea. Horrek bi baldintza sortzen ditu: barrura begira artikulazio baliokidea –

⁴⁶ Honela definitzen dute Laclau eta Mouffek (2001, 28. or.) euren proiektu postmarxista: “Llegados a este punto debemos decirlo sin ambages: hoy nos encontramos en un terreno claramente postmarxista. No podemos seguir manteniendo la concepción de la subjetividad y las clases que elaborará el marxismo, ni su visión del curso histórico del desarrollo capitalista, ni, evidentemente, la concepción del comunismo como sociedad transparente libre de antagonismos. Pero si el proyecto intelectual recogido en este libro es *posmarxista*, también *posmarxista*. Hemos desarrollado ciertas intuiciones y formas discursivas del marxismo, inhibido y eliminado otras, para construir un concepto de hegemonía que, pensamos, puede llegar a ser un instrumento útil en la lucha por una democracia radicalizada, libertaria y plural. Aquí la referencia a Gramsci, aunque en parte sea crítica, es fundamental”.

eskari desberdinak batzen dituen adierazlea identifikatzea– eta kanpora begira diferentzia –aurkariarengandik desberdintzea–. Beraz, adierazle komuna da diferentzian eta ekibalentzian oinarritutako subjektu heterogeneoari zentzua ematen diona. Alabaina, subjektu horren barrurako nahiz kanpora begirako mugak ez dira zurrinak, aitzitik, egokitzen joan behar da diskurtsoa unearen arabera hegemonia politikoa ahalbidetzen duten kategoriak eta sinboloak erabiliz. Operazio hegemonikoaren testuinguruan, Laclau eta Mouffek (2001, 221-239. or.) azpimarratzen dute demokrazia erradikalean sakontzea izan behar duela ezker berriaren helburua:

El discurso de la democracia radical ya no es el discurso de lo universal; se ha erradicado el nicho epistemológico desde el que hablaban las clases y sujetos «universales», y ha sido sustituido por una polifonía de voces, cada una de las cuales construye su propia e irreducible identidad discursiva. Este punto es decisivo: no hay democracia radical y plural sin renuncia al discurso de lo universal y a lo que implica: la existencia de un punto privilegiado de acceso a «verdad» que solo estaría al alcance de un número limitado de sujetos. (...) Las instituciones jurídicas, el sistema educativo, las relaciones laborales y los discursos de la resistencia de las poblaciones marginales construyen formas originales e irreducibles de protesta social, aportando así toda la complejidad y riqueza discursivas en las que debe basarse el programa de una democracia radical. El discurso clásico del socialismo era de tipo muy distinto: era un discurso de lo universal, que transformaba a ciertas categorías sociales en depositarias de privilegios epistemológicos y políticos. (Laclau eta Mouffe, 2001, 238. or.).

Laclau eta Mouffek⁴⁷ hegemoniaren eta unibertsaltasunaren inguruan diotena epistemologiaren barrutira ekarrita, ulertzen da marxismo klasikoak defendatzen zuen metaerrelatoaren ideiatik bereizi egiten direla. Metaerrelatoak aldarrikatzen du langile klasea dela egia unibertsala eta bakarraren jabe, eta horrek legitimatzen du bai proiektu sozialista bera, baita langile klasea subjektu pribilegiatu izatea ere. Hori guztia zalantzan jartzen dute Laclau eta Mouffek hegemoniaren bidez; alabaina, horrekin ez dute esan nahi Lyotarden proposamen epistemikoa bere egiten dutenik –erlatibismo epistemikoa–. Euren arabera, partikular hegemonikoa da unibertsala. Horregatik eurentzat garrantzitsuena ez da egia bere esentzian ezagutzea. Alderantziz, egia partikular jakin batzuk operazio hegemonikoaren bidez unibertsal nola bihurtu diseinatzea baizik. Demokrazia erradikalaren proiektua ikusten dute egunero berritu eta irabazi beharreko borroka dela. Herriak egunero egin beharko du ahalegina justizian, instituzioetan eta hezkuntzan gizartean ertzetan daudenen esperientzien egiak txertatzeko. Hori guztia,

⁴⁷ Interesgarria da ikuspuntu epistemologikotik Habermas eta Lyotarden artean egiten duten alderaketa: “Los agentes sociales ocupan posiciones diferenciales en el seno de los discursos que componen la fábrica social. Desde este punto de vista todos son, en sentido estricto, particularidades. Por otro lado, ciertos antagonismos sociales están creando barreras internas dentro de la sociedad. (...) Denominamos una relación hegemónica a la relación que hace que una particularidad concreta asuma la representación de una universalidad totalmente inconmensurable con su ayuda, así que resulta que su universalidad está contaminada (...) Nuestra noción de universalidad contaminada se opone a concepciones como las de Habermas, para quien la universalidad tiene un contenido propio, al margen de cualquier articulación hegemónica. Pero tampoco queremos caer en el extremo opuesto, en ese particularismo en estado puro de Lyotard, cuya concepción de la sociedad se basa en la idea de una pluralidad de juegos de lenguaje inconmensurables entre sí, cuyas interacciones solo pueden concebirse como tort [agravios], lo que imposibilita cualquier rearticulación política.” (Laclau eta Mouffe, 2001, 17-18. or.).

gizartearen irakurketa estrukturatu eta itxi baten bidez baino eraginkorrago ikusten dute ezker berriaren eskutik egitea.

Behin puntu honetara iritsita, honakoa da galdera: zein da begirada honek nazio zapaldu baten askapen prozesurako proposatzen duen estrategia? Galdera hori erantzun baino lehen garrantzitsua da gogoan izatea Laclau eta Moufferen oinarritzko kezka ez dela mendeko nazio auziari aterabidea ematea. Aitzitik, euren kezka nagusia da ezkerrik ikuspegi marxista batetik gainerako eskari sozialak –feminismoa, minoria etnikoak, sexualak, nazionalak, ekologistak, mugimendu antinuklearrak– bere marko teorikoan txertatzeko dituen zailtasunei aterabidea eskaintzea. Alde horretatik, Laclau eta Mouffek proposatzen dutena da subordinazio egoera desberdinak iraultzeko “herria” izatea subjektu berria. Azken hori operazio hegemonikoa da diferentzia jakin batzuk gainditzeko artikulatzen dena. Kontuan izanik eskari popularra eskari demokratiko pluralek osatzen dutela, auzi nazionala eskari demokratiko bat gehiago besterik ez da, feminismoa, antiarrazismoa edota klase borroka izan daitezkeen bezala. Alde horretatik, aurkari komuna da horien guztien arteko artikulazio baliokidea ahalbidetzen duena. Beraz, *herria* da unibertsa izateko xedea duten elementu partikularren multzoa. Honako puntu honetan sortzen da zalantza “herria” kategoriaren inguruan: abstraktuak d(ir)a langile aldarrikapena(k) edota feminismoa(k) naziotasunari dagokionez? Izan ere, subjektu hegemonikoa horrela artikulatzean bere baitan badirudi eskari multzoak bitan banatzen direla: *nazionalistak* –mugimendu etniko eta nazionalak– eta *ez-nazionalistak* –feminismoa, ekologismoa edota sozialismoa–.

Nazio zapalduaren ereduaren arabera ikusi da, ordea, “ez-nazionalista” kategoria begirada modernoaren asmakuntza dela –are gehiago, menderakuntza epistemikoa eragiten duela–. Ildo horretatik, lan honetan uste da Laclau eta Moufferen proposamena mugarri garrantzitsua dela modernitateari egiten dion kritikagatik, baita tradizio marxistari proposatzen dion zuzenketengatik ere. Bestalde, aldiz, nazio auziari dagokionez, ikusten da Laclau eta Moufferen pentsamendua gorpuzten dela metropoliko ezkerren pentsamenduan, baina soilik diseinatua dago metropoliko ezkerren arazoei irtenbideak aurkitzeko.

Ondorioz, azken horien proposamenak epistemikoki ez ditu baldintzak betetzen euskal Nazio zapalduaren ereduaren oinarrituz euskal lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko. Grosfoguelek (2008, 212-213. or.) honela deskribatzen du aipatutako desfasea: ezkerreko pentsamendu mendebaldar etnozentrikoak ezintasuna du nazio zapalduen “alteritate epistemikoa” aitortzeko (“*pueblos no-europeos*” aipatzen du bere kasuan). Gauzak horrela, ondorengo atalean proposatzen da aztertzea zein den

Grosfoguelek ordezkutzen duen korronte dekolonialak aipatutako auziaren aurrean planteatzen duen irtenbidea, beti ere, ertzeko ikuspegitik abiatuta.

2.1.1.3 Modernitateri kritika dekoloniala Latinoamerikatik: Grosfoguelen kasua

Metropolitik pentsatutako ezker berriaren nahiz ezker tradizionalaren mugak azpimarratu dituen pentsalari nagusietakoa da Ramón Grosfoguel soziologoa. Bere pentsamendua kokatzen da korronte dekolonialaren baitan (Grosfoguel, 2006; 2008; 2009; 2016). Alde horretatik, korronte honen ekarpen nagusia da askapen mugimenduak pentsatzerakoan metropoliko ikuspegia duen ezkerak bigarren mailakotzat hartzen dituen menderakuntza formak mahai gainean jartzea. Lan honetan uste da Grosfoguelek tresna epistemologiko eta teoriko interesgarriak proposatzen dituela ikerketan zehar sortu den arazoari aterabidea eskaintzeko. Honakoa da azpikapitulu honetan askatu nahi den auzia: nola gainditu metropoliko begiradak ezartzen duen kartzela epistemikoa ertzeko ikerketak diseinatzerakoan?

Galdera horri erantzuteko baliagarria da Grosfoguelen gomendioak aintzat izatea, izan ere, Puerto Ricoko pentsalariak –gaur egun Berkleyko Unibertsitatean irakasle da– lan honek bizi duen antzeko egoera baten aurrean aurkitu zen duela urte batzuk (2006, 19-21. or.). Garai hura oroitzeko, hamarkada batzuk egin behar da atzera. 1998ko urria zen eta Latinoamerikako eta Hego Asiako Ikerketa Subalernoak taldekoek nazioarteko jardunaldia antolatu zuten Duke Unibertsitatean (Ipar Carolina, AEB). Grosfoguelek aipatzen du jardunaldi hauetatik aho zapo gazi-gozoarekin irten zela. Izan ere, jabetu zen bi taldeek Ikerketa Subalernoak aztertzerakoan mugak zituztela. Hegoamerikarren taldea osatzen zuten ikertzaileen kasuan, akademiko gehienak, Hego Amerikakoak izan arren, Ipar Amerikako unibertsitateetan ziren irakasle. Azken horien kasuan, nahiz eta ikerketa objektuak Hego Amerikako fenomeno sozialen ingurukoak izan, erreproduzitzen zituzten marko teoriko eta epistemikoak Estatu Batuetako unibertsitateetan normalizatuta zeuden planteamenduak ziren –begirada hegemonikoa–. Bestetik, Hego Asiako Ikerketa Subalernoen kasuan, aitortzen du Europa Mendebaldeko historiografia nazional-kolonialaren inguruan kritika interesgarriak proposatzen zituzten arren, kritika hori legitimatzeko Europa Mendebaldeko kanon epistemologikoa hartzen zutela oinarri gisa –adibidez, Gramsci edo Foucault–. Horren aurrean, Grosfoguelek honako aterabidea proposatu zuen fenomeno subalernoak aztertu behar diren kasuetan: pentsamendu modernoaren kritika metropoliko begirada modernotik egin beharrean, ertzeko epistemologia

alternatiboetatik egitea.⁴⁸ Alegia, bere arabera ikerketa subalternoak deskolonizatzea da Ikerketa Subalternoen etorkizuneko eginbeharra.

Gizarte zientzien deskolonizazio prozesu hori garatzeko lehen auzia da zientziagintza modernoaren oinarri filosofikoak arakatzea. Izan ere, filosofia modernoa da soziologia modernoaren oinarrian dagoen metaerrelatoa. Alde horretatik, Grosfoguelek (2013, 36-39. or.) filosofia modernoaren abiapuntutzat hartzen du René Descartesek 1637an hark idatzitako *Metodoaren diskurtsoa* lana. Bere ustez, bi irizpide funtsezko daude soziologia modernoan bere arrastoa utzi dutenak eta lan horretan agertzen direnak: bata, ontologikoa eta, bestea, epistemologikoa.

Auzi ontologikoari dagokionez, Descartes oinarritzko premisa da gorputza eta gogamena bereiztea. Horrela lortzen duena da gogamena aldagai lurtarren eraginpetik banatzea. Lurtarra ez dena zerutar edo jainkotiarrak da, eta beraz, ulertzera ematen du gogamenaren bidez sortzen den ezagutza kristautasunaren jainkoak sortzen duenaren parekoa dela. Bereizketa dualista hori gabe gogamena gorputzean kokatzen da eta, ondorioz, gorputzaren eraginpean egongo litzateke. Horrek, berebiziko eragina du zientziagintzaren izaeran. Izan ere, gogamena gorputzean kokatuz gero, ezagutzak jada kontestu historiko eta harreman sozial konkretu batzuetan hartuko luke zentzua. Beraz, “Ni” lurtarrak ezingo luke “begirada jainkotiarraren” pareko ezagutzarik lortu. Ezagutza moderno horren bigarren bereizgarria da bere izaera epistemikoa. Descartesek proposatzen du solipsismoa dela “Ni”ak ezagutza lortzeko duen modu bakarra. Alegia, barrura begirakoa bakarrik da erabili beharreko teknika. Aipatutakoa ez da huskeria. Izan ere, alderantzizkako kasuan, modu dialogikoan ezagutza lortzen dela ulertzeak suposatzen du ezagutza erlazio partikular eta testuinguru sozio-historiko batean kokatzen dela. Beste behin, bere izaera unibertsala galduko luke.

Laburbilduz, Descartesek egiten duena da Jainko Kristauaren lekuan begirada jainkotiarrak duen “Ni”a jarri. Horrek bi ondorio ditu: batetik, sekularizatu egiten da ezagutza; baina, bestetik, begirada jainkotiarraren hiru tasunak hartzen ditu ezagutza

⁴⁸ Honela gogoratzen du kongresu hartan bizitakoa: “Como la epistemología imperial de los Estudios de Área, la teoría seguía situada en el Norte mientras que los objetos de estudio están situados en el Sur. Esta epistemología colonial fue esencial para mi insatisfacción con el proyecto. Como latino en los Estados Unidos, me sentía insatisfecho con las consecuencias epistémicas del conocimiento producido por este grupo latinoamericanista. Subestimaban en su trabajo perspectivas étnicas o raciales provenientes de la región, a la vez que privilegiaban a los pensadores occidentales. Esto se relaciona con mi segundo punto: dieron privilegio epistémico a lo que llamaron los «cuatro caballos del apocalipsis» (Mallon, 1994; Rodríguez, 2001), es decir, Foucault, Derrida, Gramsci y Guha. (...) Al privilegiar pensadores occidentales como su aparato teórico central, traicionaban su meta de producir estudios subalternos. (...) Para aquellos de nosotros que tomaron partido por la crítica descolonial, el diálogo con el Grupo Latinoamericano de Estudios Subalternos hizo evidente la necesidad de trascender epistemológicamente, es decir, de descolonizar el canon y la epistemología occidentales.” (Grosfoguele, 2006, 19-20. or.).

modernoak: unibertetsala, neutroa eta egia. Honakoa da abiapuntu ontologiko eta epistemologiko horren ondorioa:

Descartes escribió “yo pienso, luego existo” desde Ámsterdam, en el sentido común de los tiempos, ese yo no podía ser africano, indígena, musulmán, judío ni mujer (occidental o no). Todos estos sujetos ya eran considerados “inferiores” por toda la estructura de poder racial/patriarcal global sistema-mundo, y sus conocimientos eran considerados inferiores como resultado de los cuatro genocidios/epistemicidios del siglo XVI. El único que quedaba como epistémico superior era el hombre occidental. (Grosfoguel, 2013, 51. or.).

Begirada kartesiarrak, teorikoki zuzenketak izan baditu ere, bere funtzio praktikoa bere horretan mantendu da denboran zehar soziologia modernoaren baitan izan diren bi paradigma nagusietan: funtzionalismoa eta marxismoa. Alde horretatik, Grosfoguelek bi kate-begi aipatzen ditu Descartesetik hasi eta Marxera doan pentsamendua ulertzeko: Kant eta Hegel. Lehenaren kasuan, Grosfoguelek azpimarratzen du Kanten ekarpen nagusia izan zela denboraren eta espazioaren inguruko kategoriak giza gogoaren baitan kokatzea. Kanten arrazoi transzendentalaren ideiak gizakiaren baitan gorpuzten zuen arrazoa. Edonola ere, zuzenketa honek ez zuen ekarri ezagutza subalternoen emantzipazioa. Aitzitik, Kanten ostean honako bereizketa honen bueltan artikulatzen da auzi epistemikoa: “gizakia” eta “barbaro edo primitiboa”.⁴⁹ Kanten arabera, “gizaki” zibilizatuek dute ezagutzaren monopolioa. Beraz, begirada propioa lantzeko gaitasunik ez dute izango beste talde sozialek, hala nola, emakumeek, beltzek edota mendeko nazioek. Bestalde, Hegelek ez dio alteritate epistemikoari tarterik uzten, nahiz eta Ezagutza Absolutuaren ideiarekin Kanten premisak irauli eta bestelako mundu ikuskera proposatzen duen.

Nada queda fuera como alteridad en el Saber Absoluto hegeliano. Por consiguiente, el racismo epistemológico cartesiano y kantiano del universalismo abstracto epistémico (Tipo II), donde desde un particular se define lo universal, queda intacto en Hegel. Filosofías otras como las orientales son despreciadas y en el caso de filosofías indígenas y africanas no son dignas de ser llamadas filosofía pues el Espíritu Universal nunca pasó por allá. (Grosfoguel, 2008, 205. or.).

Marx da Hegelen kategoriak ekonomia politikora ekartzen dituen. Ildo horretatik, Marxen pentsamendua ez da hutsetik sortzen, katebegi bat gehiago da –ez nolanhikoa– mendebaldeko pentsamendu modernoaren tradizioan. Azken honek, berebiziko iraultza ekarri zuen gizarte zientzietara. Izan ere, bere ekarpen teoriko eta epistemologikoekin metodologia propioa proposatzen du langilearen mundu ikuskera ikusezintasunetik ateratzeko. Alabaina, orbain beltz bat badu teoria honek Grosfoguelen arabera:

⁴⁹ Grosfoguelek (2008, 204. or.) honela laburtzen du Kanten Descartesi egiten dion zuzenketa: “En Kant se mantiene el dualismo mente-cuerpo y el solipsismo cartesiano, pero reformado y actualizado. Kant cuestiona el primer tipo de universalismo abstracto cartesiano (el de los enunciados), es decir, la posibilidad de un conocimiento eterno de la cosa en sí, más allá de toda categoría de espacio-temporalidad. Pero mantiene y profundiza el segundo tipo de universalismo abstracto cartesiano, el epistemológico, en el hace explícito lo que en Descartes era implícito: solamente el hombre europeo tiene acceso a producir conocimientos universales, es decir, un sujeto de enunciación particular define para todos en el planeta lo que es universal. De ahí que cuando Kant propone su cosmopolitismo, se trata de un provincialismo europeo camuflado y vendido al resto del mundo como diseño global / imperial / universal”.

unibertaltzat hartzen du bere azalpena. Beste modu batera esanda, zaku berean sartzen ditu munduko langile guztiak. Hori dela eta, begirada kartesiarraren gaitz bera izango du marxismoak: gizon mendebaldar zuriaren ikuspegi murrizta.

Al igual que los pensadores occidentales que le antecedieron, Marx participa del racismo epistémico en el que solamente existe una sola epistemología con capacidad de universalidad y ésta sólo puede ser la tradición occidental. En Marx, en el universalismo epistémico de segundo tipo, el sujeto de enunciación queda oculto, camuflado, escondido bajo un nuevo universal abstracto que ya no es «el hombre», «el sujeto trascendental», «el yo», sino «el proletariado» y su proyecto político universal es «el comunismo». De ahí que el proyecto comunista en el siglo XX fuera desde la izquierda otro diseño global imperial/colonial que bajo el imperio soviético intentó exportar al resto del mundo el universal abstracto del «comunismo» como «la solución» a los problemas planetarios. (Grosfoguel, 2008, 207. or.).

Ikusten den moduan, Grosfoguelek mahai gainean jartzen du XX. mendeko proiektu komunistaren izaera koloniala. Hala, ikuspegi dekolonialetik salatu egiten du sozialismo eurozentrista. Posizio horretatik, Marx eta bere ondorengoei gogorarazi nahi die auzi sozialak klase borrokara bihur-murriztean esperientzia sozial subalternoak eskema arrotzetara makurtzen dituztela.⁵⁰ Aurrez ikusi den moduan, antzeko kritikak agertzen dira 1985eko Laclau eta Moufferen *Hegemonia y Estrategia Socialista* lanean ere. Lehen begi bistan, Grosfoguelen korrante dekolonialak eta azken horien postmarxismoak antzekotasunak dituzte. Alabaina, sakonago aztertuz gero, bien arteko desberdintasuna da bloke kontra-hegemonikoa osatzerakoan lehenek ez dutela aintzat hartzen “alteritate epistemikoa”.

Para Laclau y Mouffe los procesos de formación de hegemonía se constituyen cuando un sujeto particular se convierte en significativo vacío a través del cual todos los particulares se identifican y lo imprimen de sentido, estableciendo cadenas de equivalencia entre sí y creando simultáneamente cadenas de diferencia contra un enemigo común. Este bloque de poder contra-hegemónico es siempre hegemonizado por un particular que se convierte en representante de todas las formas de opresión contra un enemigo común pero que no incorpora cada particularidad en sí misma, sino que las disuelve en el universal abstracto del significativo vacío representativo del sujeto particular que articule las cadenas de equivalencia entre los oprimidos. (...) El problema con Laclau y Mouffe es que no pueden concebir otras formas de universalismo que no sea la del universalismo abstracto eurocentrado donde un particular se erige en representativo de todos los particulares sin reconocerlos a plenitud y disolviéndolos en su particularidad y sin que el nuevo universal sea resultado de una negociación entre todos los particulares. Por supuesto, para Laclau

⁵⁰ Grosfoguelen arabera, XX. mendeko proiektu komunistaren arabera azpiegitura ekonomikoa da guztiaren determinatzen duena: “Todas las demás relaciones de dominación y explotación que acompañan la expansión colonial europea son vistas como epifenómenos derivados o superestructuras de la infraestructura económica. Por ejemplo, el racismo, sexismo, eurocentrismo, cristianocentrismo, occidentalismo, heterosexismo, cartesianismo, ecologicidio, etc. son todos problemas derivados del capitalismo y solucionables una vez desaparecido el capitalismo. (...) De acuerdo a este paradigma eurocéntrico, lo que hacía falta para solucionar los problemas de la humanidad era superar el problema económico de explotación capitalista a través de la lucha de clases y desde ahí construir una nueva sociedad más justa, más allá del presente sistema económico capitalista que algunos llamaban «socialismo» o «comunismo». Éste fue el paradigma del socialismo y de los movimientos de liberación nacional del siglo XX. (...) El problema central del paradigma del socialismo del siglo XX, fue que, al subestimar epistémicamente las demás relaciones de dominación sistémicas de esta civilización, haciéndolas todas epifenómenos de las relaciones económicas y la lucha de clases, pretendía superar el capitalismo sin prestarle atención y reproduciendo todas las lógicas de dominación que componen el sistema-mundo civilizatorio moderno/colonial.” (Grosfoguel, 2016, 161-162. or.).

y Mouffe la diferencia que se alcanza a reconocer tiene un límite: la alteridad epistemológica. La alteridad epistémica de los pueblos no-europeos no es reconocida. Se reconocen solamente las diferencias en el interior del horizonte de significaciones de la cosmología y epistemología occidental. Para Laclau y Mouffe no hay un afuera, ni siquiera un afuera relativo al pensamiento occidental. (Grosfoguel, 2008, 212-213. or.).

Gauzak horrela, mendebaldeko begirada modernoa kritikatzek ez du esan nahi proposamen postmoderno guztiak egokiak direnik, ezta ere proposamen moderno guztiak baliorik ez dutenik. Aitzitik, ikuspuntu dekolonialaren arabera, Laclau eta Moufferen postmarxismoa erdizka da proposamen postmoderno. Izan ere, marxismo ortodoxoa kritikatu arren, bloke kontra-hegemonikoa zedarritzerakoan ezkutuan gelditzen da naziotasun hegemonikoaren partikularitasuna. Bien bitartean, gainerako eskari nazionalak partikularizat jotzen dituzte. Bi kasuetan, marxismo klasikoaren eta postmarxismoaren hutsune nagusia da gutxiengoan aurkitzen diren nazioen mundu ikuspegia kategoria arrotzetara bihur-murrizten dutela.

Horregatik guztiagatik, euskal lerrokatze linguistiko elektorala azaltzeko orduan, ikertzaileak mendebaldeko pentsamendu modernoarekin ez haustek suposatzen du gutxienez Grosfoguelek (2013) aipatzen dituen aro modernoko lau epistemizidioetako baten konplize izatea, hau da, nazio zapalduen gaineko dominazio kognitiboa erreproduzitzea. Ildo horretatik, Grosfoguelek proposatzen du Modernitate/kolonialitate ardatzaren bueltan birpentsatzea soziologia modernoa. Honek guztiak ez du soilik metropoliko marxismoa jartzen auzitan, baita funtzionalismoa bera ere. Modernitate/kolonialitate ardatza abiapuntu gisa hartzean gainditu egiten da ikerketa objektuak zedarritzeko orduan matrize espazial/temporal gisa estatu-nazioak duen pribilegioa. Begirada berri honetatik, legitimoa dela ulertzen da nazio zapaldu bakoitzak bere soinera egokitzen den marko espazial/temporalaren arabera zedarritzea ikerketa.

El concepto de «sistema-mundo» es una alternativa al concepto de «sociedad». El mismo se usa para romper con la idea moderna que reduce «sociedad» a las fronteras geográficas, jurídico-políticas de un «Estado-nación». En el sentido común eurocéntrico moderno se usa «sociedad» como equivalente a «Estado-nación» y, por consiguiente, existen tantas sociedades como Estados-naciones existen en el mundo. (...)

Ya sabemos que la pretensión de un Estado de que su identidad corresponda a la identidad de la población dentro de sus fronteras es una ficción eurocéntrica del siglo XIX. No existe en ninguna parte del mundo tal cosa como un Estado cuya identidad se corresponde de uno a uno con la identidad de la población dentro de sus fronteras. (...)

La unidad de análisis de las ciencias sociales eurocéntricas al asumir la correspondencia entre «sociedad» y «Estado-nación», reduce la matriz temporal/espacial del análisis al tiempo histórico de las fronteras jurídico-políticas de los Estados-naciones creados hace apenas unos doscientos años, y en algunos casos hasta menos de cien años. De manera que en las ciencias sociales eurocéntricas se impone como unidad de análisis temporal/espacial las arbitrarias y movedizas fronteras espaciales y unidades temporales de los Estados-naciones, subordinando los análisis científico-sociales a las lógicas temporales y espaciales de la autoridad política que privilegia la modernidad. Con este mecanismo metodológico se privilegian unidades temporales y espaciales limitadas para el análisis científico social. Así se producen como invisibles, procesos, estructuras

y experiencias de dominación y explotación cuyas temporalidades y espacialidades trascienden el «Estado-nación» como unidad de análisis. (Grosfoguel, 2016, 153-155. or.).

Korronte dekolonialak, beraz, prozesu askatzaile gisa irudikatzen du epistemologia propiotik pentsatzeko ahalegina. Izan ere, biolentzia epistemikoaren iturri dela ulertzen du Estatu gabe nazioetako fenomeno sozialak aztertzea estatu arrotzaren parametroetan. Munduan 200 estatu-nazio inguru daude, aldiz, hamaika bider gehiago dira estatu gabeko nazioak. Horregatik, Grosfoguelek deritzo ezinbestekoa dela munduko txoko desberdinetan ahotsik ez duten komunitate horiek euren mundua euren mundu ikuskeratik azaltzea. Beste modu batera esanda, modernitatea kritikatzetik haratago, XXI. mendeko zeregin epistemiko nagusia da ertzetako nazio eta herri indigena zapalduak modernitate alternatiboak pentsatzen elkar laguntzea.

Los diálogos y alianzas sur-sur son importantes hoy más que nunca. No podemos concebir un cambio civilizatorio sin contar con actores políticos aliados del mundo africano, asiático, latinoamericano y del sur dentro del norte. (Grosfoguel, 2016, 173. or.).

Laburbilduz, Grosfoguelek Puerto Ricotik egiten dio kritika mendebaldeko modernitate eurozentrinari. Ikuspegi horretatik, korronte dekoloniala ulertzen du metropoliak eragindako kolonizazioaren atzaparretatik askatzeko proiektu epistemikoa dela. Grosfoguelen irakaspenetatik gogoeta teoriko interesgarriak jaso ditzakegu euskal kasua aztertzeko. Edonola ere, euskal intelligentsiari dagokio bere arazoak bere gorpuztasunetik pentsatzea.

2.1.1.4 Modernitateari kritika Euskal Herritik: aldagai ezezaguna askatu nahian.

Lehen kapituluak ikusi da hauteskunde soziologian hegemoniko den begirada modernoak mugak dituela euskal lerrokatze linguistiko elektoralak osotasunean aztertzeko. Horregatik erabaki da lan hau ikerketa postmodernoen testuinguruan kokatzea. Hala, azpikapitulu honen helburua da alternatiba postmodernoen eskaintzen dituzten tresna teoriko-epistemikoen bidez lan hau aberastea. Alde horretatik, hiru proposamen ezberdin aztertu dira atal honetan: 1) Lyotard, 2) Laclau eta Mouffe eta 3) Grosfoguel. Ondorio hauetara iritsi da ikerketa aipatutako autoreen lanak aztertu ostean:

- 1) Lyotardek modernitateko metaerrelato nagusien amaiera iragartzen du gizarte postindustrialen testuinguruan. Horrek guztiak bi ondorio utzi ditu, bere ustez: batetik, gizarte postindustrialen Estatuak galdu egin du erreferentziako matrize espazial/tenporala izateko aurrez zuen pribilegio epistemologikoa; eta bestetik, erlatibismo epistemologikoa da gizarte garatuetako ezagutzaren ezaugarria. Alde horretatik, Lyotarden proposamenak aukera zabaltzen du ertzak

zentro bihurtzeko, edo beste hitzetan esanda, euskal lerrokatze linguistiko elektorala euskal begiradatik aztertzeko. Alabaina, aldi berean erlatibismo epistemologikoa aldarrikatzen duenez, euskal pentsamendutik ezin da zalantzan jarri espainiar begirada modernoaren zilegitasuna. Lyotarden proposamenaren helburu bakarra da soziologia modernoa gainditu duten ertzetako proposamen postmodernoen potentziala mugatzea erlatibismo epistemologikoaren eskutik. Ikuspegi honetatik, egiaren jabe da botere gehien duena. Begirada honek, beraz, ez du balio nazio zapalduen ereduari zoru epistemikoa eskaintzeko.

2) Laclau eta Mouffek uste dute metaerrelato marxista zaharkituta gelditu dela gizartean gertatu diren transformazioen eraginez. Euren ustez, munduko esperientzia sozial guztia langilearen begiradatik soilik esplikatzen gero eta zailtasun gehiago daude. Horregatik, aurrera begira proposatzen dute ezker berriaren estrategia ardaztea hegemoniaren eta diskurtso populistaren inguruan. Ikuspegi honetatik, "herria" da subjektu eraldatzaile berria eta azken hori osatzen dute gizarteko sektore zaugarri ezberdinek: langileek, emakumeek, etorkinek, nazio zapalduetako kideek eta abar. Horiek guztiek osatzen dute herria. Begirada honetatik, multzo berean nahasten dira euskal aldarrikapen nazionala eta gainerako aldarrikapen sozialak. Behin puntu honetara iritsita honakoa da galdera: aipatu diren aldarrikapen sozial horiek ez dute partikularitasun nazionalik? Unibertsaltasuna ulertzeko modu konkretu horrek dakarren ondorioa da euskal alteritate epistemikoa subjektu eraldatzailearen baitan urtu egiten dela. Beste hitzetan esanda, herria bezala ezagutzen den subjektuak ez du ordezkatzeko euskal nazio zapaldua, Euskal Herriko zapalduak baizik. Hau da, nazio sentimendu ezberdina duten hiritar zapalduak. Ikusten den moduan, bi gauza ezberdin dira nazio zapalduaren eredia eta Euskal Herriko zapalduena. Ondorioz, Laclau eta Moufferen proposamenak ez ditu eskaintzen euskal nazio zapalduaren eredia abian jartzeko oinarritzko tresna epistemologikoak.

3) Grosfoguelen proposamena kokatzen da korrante dekolonialen baitan. Ildo horretatik, autore honek proposatzen du Latinoamerikako indigenek eta gainerako herriek bizi duten kolonizazio epistemikoa pentsamendu modernoaren parametroetan ulertzea. Egoera hori gainditzeko proposatzen du auzitan jartzea pentsamendu modernoaren honako ideia: gorputzaren eta gogoaren bereizketa. Bere arabera, urte luzez ikertzailea eta ikerketa objektuak (gorputza) Latinoamerikan kokatu arren, ikertzaileen pentsamendua kokatu izan da AEBn eta Europan (gogoa). Desfase horren atzean ezkututzen da biolentzia epistemikoa. Horri buelta emateko Grosfoguelek proposatzen du ertzetako kasuak aztertzea ertzetako begiradarekin. Ikusten den bezala, autore honen

proposamena nahiko ongi egokitzen da euskal nazio zapalduaren eredura. Alabaina, euskal kasua ikerketa dekolonialen parametroetan aztertzeak mugak dituelakoan gaude. Izan ere, azken hori ezin da berdinu adibidez, Latinoamerikako indigenek bizi duten egoerarekin. Ezberdintasun sustantzialak daude bi kasuen artean, hala nola: zapalduen eta zapaltzaileen arteko eten geografikoa, edota garapen ekonomikoa (gutxienez, Hego Euskal Herrian). Horrek eragiten du ezberdinak izatea bi ikerketa objektu horien dimentsio tenporal eta espazialak.

Horrek guztiak honako puntu honetara garamatza: ikerketa postmodernoaren baitan hiru eredu ideal ikusi dira eta hirugarrenak (Grosfoguelek) bakarrik eskaintzen ditu tresna epistemologiko egokiak ikerketa honetarako. Edonola ere, azken horrek ere ez ditu erabat asetzen lan honen premiak. Izan ere, funtsezkoa da euskal kasuaren berezitasuna euskal gorpuztasunetik pentsatzea. Hori da askatu gabe gelditu den X aldagaia: pentsamendu modernoari kritika euskal pentsamendutik egitea.

Lan honetan proposatzen da 56ko belaunaldiaren azterketan oinarrituta Aizpuruk (2019) X letraz izendatzen duen bidezidor hori lantzea. Alde horretatik, X gisa sailkatu diren ikerketak korrante postmodernoaren baitan kokatzeko egokiena ikusi da⁵¹ Ibai Atutxak proposaturiko kategoria: kritika edo pentsamendu deszibilizatzailearena. Lan honetan uste da honakoa dela X gisa izendatu den korrantearen ezaugarria: euskal gorpuztasunetik pentsamendu modernoari egiten zaion kritika zibilizazioa/barbaroa dikotomian ardatzea. Horrela, argiago gelditzen da mendebalde barruan gorpuzten dela menderakuntza eta, bide batez, saihestu egiten dira metropolia/kolonia ardatzean oinarritzen diren ikerketa dekolonialen eskemek euskal kasua aztertzerakoan sortu ditzaketen gaizki ulertuak. Lan honetan uste da euskal kritika deszibilizatzailea zehatzagoa dela Nazio zapalduaren eredutik ikerketa garatzeko.

Alabaina, euskal kritika deszibilizatzailea urrun dago proposamen epistemiko gisa sistematizatutako eredu izatetik. Azken hamarkadetan euskal pentsamendutik hainbat ikerketa egin diren arren, gutxi dira euskal epistemologiaren inguruan teorizatu duten ikerketak. 56ko belaunaldiak eta bere ondorengoek ezarri dituzte honen inguruan oinarri sendoenak, baina euren artean ere aniztasuna da nagusi. Esparru filosofikoan dagoen hutsuneak eragiten du Gizarte Zientzietan euskal ikerketen kanona definitu gabe egotea.

⁵¹ Ibai Atutxak proposatutako izena da *Euskal pentsamendu basa edota kritika deszibilizatzailearena*. Proposamen horren berri ikerketaren azken txanpan izan du ikerketa honek. Hain zuzen ere, 2020ko abuztuan Iratzar fundazioak antolatutako jardunaldiak jasotzen dituen bideoa ikusi ostean: https://www.youtube.com/watch?v=wyQtcpx_JhY&t=1166s (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/08/29). Bila aritu arren, ez da aurkitu gai honen inguruan ikertzaileak idatzitako testurik.

Horregatik guztiagatik, ikerketa soziologikoak egiterakoan zaila da pentsamendu deszibilizatzailearen bidez pentsamendu moderno deseraiki eta itzalean gelditzen den esperientzia soziala bilduko duen ikerketa garatzea. Alde horretatik, euskal soziologia postmoderno kritikoa praktikara eramateko dauden zailtasun epistemikoak gainditzeko, erabaki da ikerketa dekolonialen gertuko diren sistematizazio epistemologikoez baliatzea. Horretan saiaturako gara hurrengo atalean: soziologia postmoderno kritikoa ahalbidetzen dituzten sistematizazio epistemologikoak euskal pentsamendu deszibilizatutik berrirakurtzen.

2.1.2 Soziologia postmoderno kritikoa: pluralismo epistemologikoaren aldarria ertzetatik

Aurreko atalean ikusi da mendebaldeko pentsamendu modernoaren zuzenketa gisa proposatzen diren kritika postmodernoak anitzak direla. Pentsalari ezberdinen azterketa egin ostean ondorioztatu da lan honetara gehien hurbiltzen den korronea euskal kritika deszibilizatzailea dela. Hain zuzen ere, modernitateari kritika Euskal Herritik egiten diona. Alabaina, euskal ikerketetan oraindik ez dago erabat sistematizatuta aipaturako begirada. Horrek eragiten du euskal soziologia postmoderno garatzea ariketa konplexua izatea. Horren aurrean, lan honetan aterabide gisa proposatzen da soziologia postmoderno kritikoa garatzea ahalbidetzen duten proposamen epistemologikoak euskal pentsamendu deszibilizatutik berrirakurtzea.

Horretarako, erreferentzia moduan hartu da Boaventura de Sousa Santos ikertzaile portugaldarraren proposamena, zehazki Hegoaldeko Epistemologiak bezala ezagutzen dena (Santos, 2011; 2014; 2018a; 2018b). Mendebaldeko pentsalaria den arren, ikertzaile honek harreman handia du Hego Amerikarekin. Jabetzen gara ikerketa dekolonialen hurbilekoa dela eta bere pentsamendua hein handi batean ardazten dela kolonizazioaren parametroetan. Alabaina, euskal pentsamendutik soziologia egiteko eredu sistematizaturik ezagutzen ez denez, pentsatu da hutsuneak hutsune, eskuartean ditugun alternatiben artean egokiena dela Santosek aurkezten duen Hegoaldeko Epistemologiaren proposamena. Alde horretatik, honako hiru premisa hauetatik abiatzea proposatzen du ikerketa.

1. Que la comprensión del mundo es mucho más amplia que la comprensión occidental del mundo (...) por eso la transformación del mundo puede también ocurrir por vías, modos, métodos, impensables para Occidente o las formas eurocéntricas de transformación social.

2. Que la diversidad del mundo es infinita. Existen diferentes maneras de pensar, de sentir – de sentir pensando, de pensar sintiendo–, de actuar; diferentes relaciones entre seres humanos –diferentes formas de relación entre humanos y no humanos, con la naturaleza, o lo que llamamos naturaleza; diferentes concepciones del tiempo, diferentes formas de mirar el pasado, el presente y el futuro; diferentes formas de organizar la vida colectiva y la provisión de bienes, de recursos, desde un punto de vista económico. (...)
3. Que esta gran diversidad del mundo, que puede ser y debe ser activada, así como transformada teóricamente y prácticamente de muchas maneras plurales, no puede ser monopolizada por una teoría general. No existe una teoría general que pueda cubrir adecuadamente todas estas diversidades infinitas del mundo. Por eso hay que buscar formas plurales de conocimiento (...). (Santos, 2011, 16-17. or.).

Aipatutako premisa horiek talka egiten dute munduaren gaineko ulerkera kartesiarrarekin. Izan ere, hark ez bezala, Santosek proposatzen duena da behetik gora eraikitako proiektu teoriko-enpirikoa abian jartzea. Bestelako arrazoimen eredu batetik abiatzen dena eta sentimenduak eta gorputza ezagutzaren erdigunean jartzen dituen. Ikusten den moduan, Hegoaldeko epistemologiaren existentzia aldarrikatzeak agerian uzten du txanponaren beste aldea, hau da, Iparraldeko epistemologiaren existentziarena. Bigarren aldagai bat ere bistaratzen du horrek guztiak: Iparraldeko epistemologia bezala ezagutzen den proiektu modernoaren egozentrismoa. Izan ere, azken horrek ezagutza iturri forma bakartzat du bere burua. Mendebaldeko pentsamendu modernoa hegemonikoa izan den neurrian, Hegoaldeko epistemologiak itzalpean egon dira mende luzez.

Begirada berri honek pluralismo epistemologikoaren auzia dakar mahai gainera. Honen bitartez hobesten den premisa da mendebaldeko pentsamendu modernoa ez dela mundua ulertzeko modu bakarra, hegemonikoa baizik. Horrek esan nahi du Europa Mendebaldeak mundua ulertzeko duen modua beste askoren artean bat gehiago besterik ez dela. Ondorioz, begirada honetatik ulertzen da injustizia kognitiboa dela “periferiako” edo “kolonietako” fenomenoaren gaineko azalpen ereduak pentsamendu modernoan ardaztutako teoria unibertsalistetara bihurtzea. Santosek (2011, 16. or.) kolonizazioaren eta botere harreman asimetrikoen parametroetan kokatzen du aipatutako injustizia epistemikoa. Lan honetan uste da soziologia ulertzeko begirada postmoderno kritiko honek, Hegoaldeko Epistemologiak izenekoak, Nazio zapalduaren ereduak praktikara eramateko oinarriak eskaintzen dituela. Horretarako, ordea, komenigarria da kolonizazioaren inguruko bere teoria euskal partikulartasunera egokitzea. Testuinguru horretan kokatzen dira jarraian aurkezten diren ñabardura kontzeptualak.

Hegoalde epistemologikoa ez da monolitikoa eta ez dio erreferentzia egiten zona geografiko bati. Hegoalde geografikoan egon daitezke mendebaldeko kutsua duten unibertsitate edo pentsalari taldeak, eta alderantziz, Iparralde geografikoan ere badira “Hegoaldeak” bertako ikertzaile eta erakundeek ertzetatik pentsatzeko ahalegina egiten

dutenak. Behin hori esanda, ardatza Europan jarriz gero, argi dago Aljeria edota Bolivia Hegoaldea direla epistemikoki. Euskaldunen kasuan, aldiz, geografikoki Iparraldearen parte izan arren, zer gara epistemikoki eta sozialki?

Lan honetan uste da euskaldunak Hegoaldearen parte direla, hots, gizatalde azpiratu eta isildua. Alabaina, aurrez esan bezala, gizatalde isilduen artean ere anitzak dira errealitateak. Alde horretatik, horra lan honek askatu beharreko ekuazioa: Iparraldeko gizarte garatu batean kokatzen den fenomeno (euskal lerrokatze linguistiko elektoral), Hegoaldeko epistemologiatik azaltzea. Testuinguru horretan hartzen du gorputza X aldagaiak pentsamendu kritiko aske eta kokatu gisa.

Hegoaldeko epistemologiak bi baliabide eskaintzen ditu desfase hori askatzeko: batetik, oinarri teoriko eta epistemologikoa eskaintzen du pentsamendu modernoaren mugak erakusteko; eta bestetik, oinarri horien gainean zirrikitua uzten du munduko beste Hegoalde Epistemologikoekin elkarlanean euskaraz eta euskaratik sortzen den ezagutza legitimatzeko. Sartreren hitzak euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasura ekarriz,⁵² euskaldunak posizio pribilegiatuan daude nazio zapalduaren fenomenoaren inguruan hitz egiteko. Eurak dira euren gorputzetan menderakuntza hori bizi dutenak. Horregatik, estatuaren monopolioa duten espainiarrak/frantziarrak dira euskaldunen esperientziak entzunez euren ezagutza osatzeko premia handiena dutenak. Aldiz, esperientzia sozial hori berreskuratzea da euskaldunen zeregina. Zientziaren ikuspegitik ezagutza iturri aberatsa izateaz gain, ahaldundu egingo direlako bizi duten menderakuntza epistemikotik.

Teoria hori guztia, ordea, nola eramaten da praktikara? Honatx, Hegoaldeko Epistemologiaren beste ekarpena: ikerketaren diseinuari eta metodologiari dagokiona. Santosek (2005, 151. or.) proposatzen du ikerketa artikulatzea mendebaldeko razionalitateaz haratago doan eredu desberdin batean: razionalitate kosmopolita. Azken honen xedea da soziologia modernoak askatu ezin dituen korapiloak askatzea. Honatx, horretarako proposatzen duen bide-orria.

⁵² Pentsalari frantziarra, geografikoki Iparreko pentsalaria izan arren, 1960ko hamarkadan jada mahai gainean jarri zuen Ipar eta Hegoko epistemologiaren inguruko problematika. Hitzez hitz dio zentroko pentsalariak euren ezagutza ertzetako –Hegoko– pentsalariaren bizipenetatik abiatuta aberastu behar dutela: “Beltzak berak ezagutzen duelako, Hegoaldekoak ez beste hitz egin dezake bidez eta egokiro esklabotasunaz. Iparrekoak, berriz, puritano abstraktoak, ez dute Gizona baizik ezagutzen; alegia, filosofo izaki huts bat. (...) Guk, Metropolitarrak, ez omen dugu haren esperientzia; eta Afrikako lur kiskalgarria, beraz, haren begien bitartez ikusiko dugu, ala sua besterik ez dugu ikusiko.” (Sartre, 1974 [1966], 19. or.).

Propongo una racionalidad cosmopolita [subalterna] que, en esta fase de transición, seguirá la trayectoria inversa: expandir el presente y contraer el futuro. Sólo así será posible evitar el gigantesco desperdicio de la experiencia que sufrimos hoy día. Para expandir el presente, propongo una sociología de ausencias; para contraer el futuro, una sociología de las emergencias. (...) la inmensa diversidad de experiencias sociales reveladas por estos procesos no puede ser explicada adecuadamente por una teoría general. En vez de ello, propongo el trabajo de traducción, un procedimiento capaz de crear una inteligibilidad mutua entre experiencias posibles y disponibles sin destruir su identidad. (Santos, 2005, 153. or.).

Gauzak horrela, hiru fasetan banatzen da lan honetan soziologia postmoderno kritikoa bezala kategorizatu den proiektua: lehen fasea, ausentzien soziologia; bigarrena, soziologia emergentea; eta, hirugarrena, itzulpengintza interkulturala. Jarraian aztertzen da zein den fase bakoitzak euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz aztertzerakoan duen funtzioa eta garrantzia.

2.1.2.1 Ausentzien soziologia: nazio zapalduaren piztuera epistemikoa

Ausentzien soziologiak jarduera gisa duen helburua da egingarri bihurtzea zientziagintza modernoaren begietara ezinezko diren edo legítimoak ez diren ikerketa objektuak eta begiradak –kasu honetan, Nazio zapalduaren ereduak–. Horrela lortu nahi dena da esperientzia sozial subalternoak argitara ateratzea. Hori guztia ezin da egin aurrez mendebaldean hegemoniko den begirada modernoak arrazoimena ulertzeko dituen adiera desberdinak irauli gabe (Santos, 2005, 155-167. or.).

Razionalitate metonimikoarena da zientziagintza modernoaren oinarrian dagoen forma nagusietakoa. Azken honek, razionalitate forma bakartzat du bere burua, eta ondorioz, jarduera antzutzat jotzen du beste razionalitate forma batzuek aintzat hartzea. Posizio horretatik ulertzen du errealitatea osotasun bat dela, bere baitan antolatze ordena jakin bat duena. Osotasun hori osatzen duten parteek zentzua dute soilik osotasun horren baitan. Horrenbestez, ezinbestekoa da parametro horien barnean azaltzea sistemaren baitan gertatzen diren gertaera eta ekintza guztiak. Kasu honetan, eskema berbera jarraitzen dute bai liberalismoak baita marxismo klasikoak ere. Izan ere, bietan ikertzailea behartuta dago gertaera eta jokabide guztiak osotasunaren logikan ulertzera. Adibidez, marxismo klasikoak ikertzailea behartzen du nazionalismoaren fenomenoak klase borrokaren logikara bihurtzera. Ikuspegi horretatik, burgesiaren aldarrikapena da nazionalismoa. Errealitate partziala –klase borroka– osotasun gisa irudikatze joera horrek agerian jartzen du dikotomien aferra:

La forma más acabada de totalidad para la razón metonímica es la dicotomía, ya que combina, de modo más elegante, la simetría con la jerarquía. La simetría entre las partes es siempre una relación horizontal que oculta una relación vertical. Esto es así porque, al contrario de lo que es proclamado por la razón metonímica, el todo es menos y no más que el conjunto de las partes. En verdad, el todo es una de las partes transformada en término de referencia para las demás. Por ello, todas dicotomías sufragadas por la razón metonímica contienen una jerarquía: cultura científica/cultura literaria; conocimiento científico/conocimiento tradicional; hombre/mujer;

cultura/naturaleza; civilizado/primitivo; capital/trabajo; blanco/negro; Norte/sur; Occidente/Oriente; y así sucesivamente. (Santos, 2005, 155-156. or.).

Aipatutako dikotomia horiek guztiek errealitatea artikulatzen dute zientziagintza modernoak ezarritako irizpidearen logikan. Ildo horretatik, esperientzia sozialaren parte bat ikusezin bihurtzen da errealitatea dikotomia horietara bihur-murrizteko ahalegina egitean. Izan ere, dikotomia hori formulatu duen pentsamenduak bere kosmobisiora subordinatzen du beste batzuen mundu ulerkera. Gauzak horrela, ausentzien soziologiari interesatzen zaiona ez da dikotomiaren alde bietara gelditzen diren parteak aztertzea, alderantziz, ikerlerro oparoena aurkitzen da dikotomia ezartzeko pentsamendu hegemonikoak ezarri duen irizpidearen gaineko errelatoan eta horrek eragin duen esperientzia galeraren berreskurapenean.

El objetivo de la sociología de las ausencias es transformar objetos imposibles en posibles, y basándose en ellos transformar las ausencias en presencias, centrándose en los fragmentos de la experiencia social no socializados por la totalidad metonímica. ¿Qué existe en el Sur que escapa a la dicotomía Norte/Sur? ¿Qué existe en la medicina tradicional que escapa a la dicotomía medicina moderna/medicina tradicional? ¿Qué existe en la mujer que es independiente de su relación con el hombre? ¿Es posible ver que es el subalterno sin tener en cuenta la relación de subordinación? (Santos, 2005, 160. or.).

Ikerketa honen kasuan, honako bi ildo hauen inguruan sakondu nahi da: batetik, pentsamendu modernoak nazio auziaren gainean egiten duen irakurketa partziala – zentro/periferia dikotomia– justifikatzeko proposatzen duen errelatoan; eta bestetik, azken horrek eraginda nazioaren inguruan galtzen den esperientzia sozialaren berreskurapenean. Izatez, aipatutako asmoa ez dago lekuz kanpo. Izan ere, lehenago ikusi bezala Santosen aipuan esplizituki aipatzen da –zibilizazioa/primitiboa– dikotomiaren adibidea. Gauzak horrela, Santosek proposatzen duen begirada honek aukera ematen du pentsamendu modernoak ezarritako joko zelaitik –nazio zibikoa/nazio etnikoa dikotomiatik– irten eta bestelako nazio ideia baten inguruan artikulatzeko errealitatearen inguruko azterketa.

Kartzela epistemologiko horretatik irten eta ezagutza berria legitimatzeko, Santosek (2005, 160-162. or.) proposatzen du monokultura epistemologikotik ezagutzen ekologiara salto egitea. Horrela, gainditu egiten da arrazoi metonimikoak errealitatea ulertzeko planteatzen duen proposamen dikotomikoa. Honako perspektiba berria zabaltzen da pluralismo ekologikotik –Santosek esandakoak modu eskematikoan jasotzen ditu Grosfoguelek–:

11. taula: Ausentzien soziologiak bidean galtzen den esperientzia soziala berreskuratzeko proposatzen dituen bost premia epistemiko.

	Monokultura	Ekologia
Jakintza	“la idea de que el único saber riguroso es el saber científico y, por lo tanto, otros conocimientos no tienen la validez ni el rigor del conocimiento científico”	“la posibilidad de que la ciencia no entre como monocultura sino como parte de una ecología más amplia de saberes, donde el saber científico pueda dialogar con el saber laico, con el saber popular, con el saber de los indígenas, con el saber de las poblaciones urbanas marginales, con el saber campesino”
Denbora	“la idea de que la historia tiene un sentido, una dirección y de que los países desarrollados van adelante”	“saber que aunque el tiempo lineal es uno, también existen otros tiempos”
Aniztasuna eta diferentzia	“que ocultan las jerarquías, de las cuales la clasificación racial, étnica, sexual, y de castas en India son hoy las más persistentes”	“descolonizar nuestras mentes para poder producir algo que distinga, en una diferencia, lo que es producto de la jerarquía y lo que no lo es. Solamente debemos aceptar las diferencias que queden después de que las jerarquías sean desechadas”
Eskala	“la racionalidad metonímica tiene la idea de que hay una escala dominante en las cosas. En la tradición occidental, esta escala dominante ha tenido históricamente dos nombres: universalismo y, ahora, globalización”	“la posibilidad de articular en nuestros proyectos las escalas locales, nacionales y globales”
Ekoizpena	“la idea de que el crecimiento económico y la productividad medida en un ciclo de producción determinan la productividad del trabajo humano o de la naturaleza, y todo lo demás no cuenta”	“consiste en la recuperación y valorización de los sistemas alternativos de producción, de las organizaciones económicas populares, de las cooperativas obreras, de las empresas autogestionadas, de la economía solidaria, etc., que la ortodoxia productivista capitalista ocultó o desacreditó”

Iturria: Grosfoguel (2011, 104-105. or.). Egileak moldatua.

Ikusten den moduan, begirada ekologikotik begiratzen hastean, hautsi egiten dira mendebaldeko pentsamendu modernoak ezartzen duen kartzela epistemikoaren burdinak. Hala, zabaldu egiten da errealitatea ulertzeko eta azaltzeko aukeren abanikoa. Hemendik aurrera, ikertzailearen zeregina da epistemologia alternatiboaz baliatuz, arrazoi metonimikoaren ondorioz galdu den esperientzia berreskuratzea.

2.1.2.2 Soziologia emergentea: estatu-nazioaren baitako nazio zapalduen ezagutzari legitimazioa

Aurreko atalean ikusi da mendebaldeko pentsamendu modernoaren ertzetan arakatzea ezagutza iturri aberatsa izan daitekeela galdutako esperientzia soziala berreskuratzeko. Horretarako, bigarren azpikapitulu honetan ahalegina egiten da honako galdera erantzuteko: nola legitimatu ahotsik gabekoen ezagutza, baldin eta asmo horrek zalantzan jartzen badu Gizarte Zientzietan hegemoniko izan den mundu ulerkera?

Behar hori osatzeko, Santosek proposatzen du praktikan jartzea *soziologia emergentea* bezala izendatzen duen jarduera. Horretarako, pentsamendu abismal gisa kategorizatzen du mendebaldeko pentsamendu modernoak. Bere aburuz, pentsamendu abismalak errealitate soziala bitan banatzen du honako banaketa sisteman oinarrituta: mundua (ikusgarria dena) eta ez-mundua (ikusezina). Ikusezina izateak ez du esan nahi existitzen ez denik. Alderantziz, hautemangarria eta sentikorra da, batik bat, ez-mundu horren

parte direnzentzat. Alabaina, ikusezintasunera baztertua da mendebaldeko soziologia modernoaren begietatik. Horrela, bi forma hartzen ditu ez-munduko gertakari sozialak: ikusezinak dira –inork ez ditu aztertzen– edo, kasurik hoberenean, subjektu objektibizatuak bihurtzen dira –munduak ezartzen dituen kategorietara bihur murrizten da fenomenoa–. Pentsamendu abismalaren ezaugarri behinena da ez-munduaren existentzia ukatzen duela. Hain zuzen ere, bestearen ukapenean oinarritzen da pentsamendu abismalaren existentzia.

12. taula: Pentsamendu abismalaren adibidea. Mendebaldeko pentsamendu moderno.

Mundua*	Ez-mundua
ZENTRO/PERIFERIAKO GIZA TALDEA	ERTZETAKO GIZA TALDEA
Menderakuntzak hartzen duen forma: -Erregulazioa eta emantzipazioa-	Menderakuntzak hartzen duen forma: -Apropiazioa eta biolentzia-
Zuzenbide Modernoa (Eskubideen monopolioa: legala eta ilegal)	Zuzenbide Modernoaren ertzetan (legala ← <i>alegala</i> → ilegal)
Zientziagintza Modernoa (Ezagutzaren monopolioa: egia eta faltsua)	Zientzia Modernoaren ertzetan (egia ← <i>utopia</i> → faltsua)

Iturria: Santos (2014, 21-28. or.). Egileak moldatua.

*Oharra: Lan honetan pentsamendu abismalaren beste aldean dagoen unibertsoari ez-mundua deitu zaio. Edonola ere, beste izen batzuk ere hartu izan ditu. Grosfoguelek (2011) esaterako, pentsamendu abisalak bereizten dituen unibertsoaren bi zatiak izendatzen ditu *zona ser* eta *zona no-ser* bezala.

Santosen (2014) arabera zientziagintza eta zuzenbide modernoa dira pentsamendu abismala gorpuzten duten elementu nagusiak. Gauzak horrela, bi multzotan bereizten dira menderakuntza jasaten duten gizataldeak: munduaren baitakoak eta ez-mundukoak. Oinarritzko tentsioak bereizten ditu ez-munduko gizataldeak (apropiazioa eta biolentzia) eta munduaren parte diren azpiratuak (erregulazioa eta emantzipazioa). Honakoa da askatu beharreko korapiloa: zertan bereizten dira bi tentsio horiek, eta horren arabera, zein da euskaldunek bizi duten oinarritzko tentsioa?

Para De Sousa Santos la manera como se gestionan los conflictos en la zona del ser (encima de la línea abismal) es a través de lo que él llama mecanismos de regulación y emancipación. Existen códigos de derecho civiles/ humanos/laborales, relaciones de civilidad, espacios de negociaciones y acciones políticas que son reconocidas al “Otro” oprimido en su conflicto con el “Yo” dentro de la zona del ser. La emancipación se refiere a conceptos de libertad, autonomía e igualdad que forman parte de los fines discursivos, institucionales y legales de la gestión de los conflictos en la zona del ser. Como tendencia, los conflictos en la zona del ser son regulados a través de métodos no-violentos. Esto último no niega que existan en la zona del ser momentos de violencia. Pero existen más como excepción que como regla.

Por el contrario, como De Sousa Santos (2010) afirma, en la zona del no-ser, de la línea abismal, donde las poblaciones son deshumanizadas en el sentido de ser consideradas por debajo de la línea de lo humano, los métodos usados por el “Yo” imperial/capitalista/masculino/heterosexual y su sistema institucional para gestionar y administrar los conflictos es por medio de la violencia y apropiación abierta y descarada. Como tendencia, los conflictos en la zona del no-ser son gestionados por la violencia perpetua y solamente en momentos excepcionales se usan métodos de regulación y emancipación. Dado que la humanidad de la gente clasificada en la zona del no-ser no es

reconocida, dado que son tratados como no-humanos o subhumanos, es decir, sin normas de derechos y civilidad, entonces se permiten actos de violencia, violaciones y apropiaciones que en la zona del ser serían inaceptables. (Grosfoguel, 2011, 100. or.).

Euskaldunak espainiar edota frantziar hiritartasuna zalantzan jartzen ez duen bitartean, hau da, bere burua zentro arrotzaren periferia gisa onartzen duen bitartean, zentro menderatzailearen aldetik gatazkaren aterabidea proposatzen da erregulazioaren terminoetan. Hau da, zentroaren legeak eta egiak zedarritzen dituen mugen baitan. Alabaina, euskaldunak bere hiritartasun arrotza deslegitimatatu eta azken horrek eragiten duen menderakuntza iraultzeko jarrera erakutsi duen kasuetan, lan honetan uste da gatazkaren oinarritzeko tentsioa artikulatu izan dela apropiazioa eta biolentziaren parametroetan. Horrelakoetan, euskaldunari hainbat kasutan ez zaio gizatasunik aitortu, zehatzago esanda, gatazka kudeatzeko erabili diren mekanismoak ez dira izan normalean mundua bezala definitu den eremuan erabili izan direnak. Zentro menperatzaileak mekanismo biolentoak erabili ditu euskal proiektua geldiarazteko (GAL, tortura, preso politikoaren aurkako legedi berezia, salbuespenezko indarkeria poliziala eta abar). Are gehiago, ahal duen bakoitzean bereganatu egin ditu euskal nazioaren jabetzak, zenbait kasutan euskaldun asimilatuen laguntzarekin (ikastolak, alderdi politikoak, herri mugimendutik sortutako erakundeak, euskal egunkariak edota bestelako jabetza batzuk). Hori gutxi ez eta, zientziaz baliatu da zentroa bere errelatoa egia gisa homologatzeko eta euskaldunengan distopia zabaltzeko.

Jabetzen gara egin berri den irakurketa ez dela guztiz onartzen akademian. Era berean, jakitun gara Santosek pentsamendu abismalaren proposamena egiten duenean, bereziki kolonizazioa eta indigenen testuingurua duela buruan. Alabaina, autoreak berak azpimarratu izan du bere proposamena osatu gabea dela. Bereziki interesgarria da Bartzelonara etorri zen batean auzi horren inguruan egin zuen aipamena.

En mi caso, sin embargo, estoy muy preocupado por lo que no veo, ahora, en mis teorías: ¿cuáles son las ausencias que no estoy mirando? ¿Cuáles son las emergencias que no estoy valorando en mi trabajo? Por eso hay humildad en la crítica, porque es una crítica llena de gran admiración por lo que hicieron estos intelectuales [Frankfurteko eskola] en su tiempo. Y como grandes intelectuales judíos –porque todos eran judíos– la gran mayoría consideraba que era muy importante reforzar el universalismo europeo como única alternativa al nacionalismo, que era, naturalmente, agresivo. En este sentido, para las Epistemologías del Sur no todo el nacionalismo es reaccionario: existe el nacionalismo de los opresores, por un lado, y el nacionalismo de los oprimidos, por el otro. (Santos, 2011, 22. or.).

Horregatik guztiagatik, apaltasunez baina euskaldun gisa ikusi eta bizi izan ditugun esperientzietan oinarrituta, Santosek proposatzen duen Hegoaldeko Epistemologiaren proposamena osatu nahi da estatu-nazioaren baitako nazio zapaldu konkretu baten begiradatik. Begirada honetatik ulertzen da euskaldunei egiten zaien eskaintza bakarra dela zentro hegemonikoak ezartzen dituen lege eta kategorietara subordinatzea.

Euskaltasun folklorikoa da pentsamendu modernoak onartzen duen izaera bakarra, betiere, azken hori espainiartasun/frantziartasun politikora subordinatzen bada (kasu honetan, euskal kasua da espainiar zibilizazioaren baitako komunitate primitiboa).⁵³

Gauzak horrela, pentsamendu abismala gainditzeko Santosek (2005, 167-171. or.) proposatzen du mendebaldeko razionalitate modernoaren beste forma bat kritikatzeko: razionalitate proleptikoa. Kritika honen bidez baliogabetu egin nahi dira pentsamendu modernoak etorkizun homogeen eta konkretu baten inguruan egiten dituen aurreikuspen mono-linealak. Horrela, bi elementu azpimarratu nahi dira pentsamendu postabismalaren bidean: batetik, etorkizuna ez dagoela determinatuta; eta bestetik, etorkizuna egunero irabazten den neurrian orainaldiko aukerak infinituak direla. Santosek (2005, 169-170. or.) “oraindik ez” ideia aipatzen du *soziologia emergentearen* zentzua biltzeko. *Ez* hitzaren atzean dagoen ideia da beste modu bateko etorkizunari baiezkoa (aukera pluralak dituen etorkizuna, ez soilik mendebaldeko pentsamendu modernoaren gaineko ulerkera mono-lineala). *Oraindik* hitzak, berriz, bere baitan hartzen du utopia eta errealismoaren arteko harremana. Ikuspegi honetatik, *soziologia emergentearen* xedea da ikusgarri egin diren esperientzia sozialetik abiatuta injustizia kognitiboa gainditzeko helburua duten ikerketak garatzea.

La sociología de las emergencias consiste en la investigación de las alternativas que caben en el horizonte de las posibilidades concretas. En tanto que la sociología de las ausencias amplía el presente, uniendo a lo real existente lo que de él fue sustraído por la razón metonímica, la sociología de las emergencias amplía el presente, uniendo a lo real amplio las posibilidades y expectativas futuras que conlleva. En este último caso, la ampliación del presente implica la contracción del futuro, en la medida en que lo «todavía no», lejos de ser un futuro vacío e infinito, es un futuro concreto, siempre incierto y siempre en peligro. (...) La sociología de las emergencias consiste en proceder a una ampliación de los saberes, prácticas y agentes de modo que se identifique en ellos las tendencias de futuro (lo todavía no) sobre cuales es posible actuar para maximizar la probabilidad de la esperanza en relación a la probabilidad de la frustración, tal ampliación simbólica es, en el fondo, una forma de imaginación sociológica que se enfrenta a una doble objetivo: por un lado, conocer mejor las condiciones de posibilidad de la esperanza; por

⁵³ Bilboko Lore Jokoetan (1901eko abuztua) Unamunok egindako diskurtsoa da euskaldunen ez-mundutasuna eta horrek eragiten duen biolentziaren ondorioak agerian uzten dituen gertaera ezagunenetakoa. Bere diskurtsoaren oinarrian bi elementu gurutzatzen dira: euskaltasuna eta pentsamendu modernoak. Biak uztartu ezinda aurkitzen denez, pentsamendu modernoak auzitan jarri beharrean, bere hautua da bere euskalduntasuna pentsamendu modernotik interpretatzea. Horrela ondorioztatzen duena da “euskaldunek” –zehatzago esanda Bilbok– etorkizuna izan nahi badu euskaldun izateari utzi behar diola. Alegia, onartu egiten du espainiar pentsamenduak ezartzen dion dikotomia zibiko eta etnikoa: “El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que perezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma. La mejor lengua es la propia, como es la mejor piel la que con uno se ha hecho, pero hay para muchos pueblos, como para otros organismos, épocas de muda. En ella estamos. En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence es un contrasentido. Y acaso esto nos de ventaja sobre otros, pues nos encierra menos en nuestra privativa personalidad a riesgo de empobrecerla. Tenemos que olvidarlo e irrumpir en el castellano, contribuyendo a hacer de él como de núcleo germinal, el español o hispano-americano, sin admitir monopolios casticistas (...) el pensamiento que dormitaba cual crisálida en el vascuence de Axular (...) lo romperá y saldrá a bañarse en luz. (...) Hay además una ley de economía, y es, que nos cuesta menos esfuerzo aprender el castellano que transformar el vascuence, que es un instrumento sobrado, complicado y muy lejos de la sencillez y sobriedad de medios de los idiomas analíticos” (Unamuno, 1901, honako honek aipatua J. Agirreazkuenaga, 2002, 13. or.).

otro, definir principios de acción que promuevan la realización de esas condiciones. (Santos, 2005, 169. or.).

Ikusten den moduan, mendebaldeko razionalitate proleptikoa jartzen du auzitan Sousak soziologia emergentea aldarrikatzen duenean. Ildo horretatik, pentsamendu postabismala onartzea ezinbestekoa da mendebaldeko pentsamendu modernoak jasotzen ez duen esperientzia soziala ez-mundutik pentsatzeko. Hori egitean, ordea, errealitatearen gaineko ulerkera pasatzen da unibertso bakar eta itxi gisa ulertzetik, aukera desberdinak dituen pluri-bertso gisa ulertzera. Horrela, beste bat gehiago izatera igarotzen da mendebaldeko pentsamendu modernoa (Santos, 2014, 40-50. or.). Oraindik hegemonikoa izaten jarraitzen du eta besteengan duen eraginagatik ertzetan deseraiki beharrekoa. Alabaina, beste batzuen artean bat gehiago da, ez bakarra. Ikuspegi horretatik, euskal pentsamendua ulertzen da Hegoaldeko epistemologia gisa, eta ondorioz, funtsezkoa da berau garatzea munduko aniztasuna sakonago ulertzeko. Gauzak horrela, ikuspegi etiko eta zientifiko batetik euskal ikertzaileen zeregina da euskal pentsamendua lantzeko ahalegina egitea, ezagutza iturri delako proiektu askatzailea izateaz gain.

2.1.2.3 Elkarrizketa interkulturala: uni-bertsalimotoz pluri-bertsalimorako jauzia

Soziologia egiteko modu alternatibo honen hirugarren urratsa da errealitate pluri-bertsaletik abiatuta elkarrizketa interkulturala abian jartzea (Santos, 2005, 174-187. or.). Horretarako komenigarria da Hegoaldeko epistemologiaren nahiz Ipar-Hegokoen arteko elkarrizketak sustatzea. Horrela lortu nahi dena da mendebaldeko pentsamendu modernoak eragin duen injustizia kognitiboari aterabidea aurkitzea. Izan ere, Santosek (2005, 185. or.) dioen moduan, ezinezkoa da justizia soziala egotea justizia kognitiborik ez dagoen bitartean.

Ildo horretatik, Santosek (2005, 177. or.) argi eta garbi esaten du, zenbat eta agente eta esperientzia gehiago barne bildu ezagutzaren ekoizpenean, orduan eta osoagoa dela ezagutza. Alabaina, honek guztiak bi korapilo planteatzen ditu askatu beharrekoak: bata, ezagutzaren fragmentazioarena; eta, bestea, baldintza horietan ezagutza eraldatzailea garatzeko dagoen aukerari dagokiona –gogoratu, zenbait ikertzaile postmodernoren arabera erlatibismoa da fragmentazioaren ondorio logikoa–.

La multiplicación y la diversificación de las experiencias disponibles y posibles plantean dos problemas complejos: el problema de la extrema fragmentación o atomización de lo real y el problema, derivado del primero, de la imposibilidad de conferir sentido a la transformación social. Estos problemas fueron resueltos, como vimos, por la razón metonímica y por razón proleptica a través del concepto de totalidad y de la concepción de que la historia tiene un sentido

y dirección. (...) El descrédito de las soluciones no trae consigo descrédito de los problemas, por lo que hay que dar respuestas a los mismos. (Santos, 2005, 174. or.).

Santosen aburuz, fragmentazioa bere horretan ez da arazoa, pentsamendu postabismala garatzeko lehen urratsa baizik. Edonola ere, aurrera jarraitu aurretik, komenigarria da ñabardura egitea. Izan ere, Santosek azpimarratzen du mundua osotasun amaigabea izateak ez duela esan nahi mundu horren baitan osotasun partzialak ez daudenik.⁵⁴ Alde horretatik, helburua da osotasun partzial horiek identifikatzea, bertatik sortzen den ezagutza legitimatzea eta beste osotasun partzialekin elkarrizketan jartzea.

¿Cuál es la alternativa a la gran teoría? (...) En mi opinión la alternativa a la teoría general es el trabajo de traducción. La traducción es el procedimiento que permite crear inteligibilidad recíproca entre las experiencias del mundo, tanto las disponibles como las posibles, reveladas por la sociología de ausencias y la sociología de las emergencias (...) El trabajo de traducción procura captar estos dos momentos: la relación hegemónica entre las experiencias [desafío deconstructivo] y lo que en éstas hay más allá de dicha relación [desafío constructivo]. (Santos, 2005, 175. or.).

Testuinguru horretan hartzen du zentzua itzulpengintzak. Azken honen helburua da elkar ulertzearen bidetik osotasun partzial desberdinen arteko botere harreman asimetrikoak gainditzea. Alde horretatik, unibertsalismo negatiboa onartzea da logika menderatzaileak ez erreproduzitzeko abiapuntua. Beste hitzetan esanda, “dagoen teoria unibertsal bakarra da teoria unibertsalik ez dagoela”. Horrek ez du esanahi osotasun partzialen arteko ikuspegiak elkarrizketan jartzea alferrikakoa denik, alderantziz: “admitir la relatividad de las culturas no implica adoptar sin más el relativismo como actitud filosófica” (Santos, 2005, 175. or.). Elkarrizketa horiek emankorrek dira bereziki bi kulturak jarrera proaktiboarekin harremantzen diren kasuetan. Harreman horietan sakontzeko Santosek proposatzen duen tresna da hermeneutika diatopikoa. Azken horrek balio du bi kultura desberdinetan agertzen diren kezka isomorfitxoak identifikatzeko eta horren aurrean ematen dituzten erantzun desberdinak interpretatzeko.

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan, bere ezaugarria da ikerketa objektu gisa kontaktu eremuan aurkitzen dela. Alde horretatik, fenomeno sozial hori ulertzeko ikuspegi desberdinak dituzte osotasun partzialen unitateak diren unibertso kulturalak (ahaztu gabe, osotasun partzial horien baitan ere azalpenak anitzak direla). Itzulpenaren helburua da gertaera sozial berberaren inguruan unibertso bakoitzak –euskaldunek eta

⁵⁴ Osotasun partzialaren ideia oso garrantzitsua da ikerketa honetan. Izan ere, bi funtzio ditu ideia horrek: batetik, osotasun determinatuaren ideiatik ezartzen diren dikotomiak –adibidez, nazio etnikoa/zibikoa– berrinterpretatzea; eta bestetik, berrinterpretazio hori osotasunaren inguruko bestelako ideia batetik pentsatzea –nazioaren ideia alternatiboa–, ahaztu gabe, osotasun hori ere aldi berean partziala dela: “Si el mundo es una totalidad inagotable, caben en él muchas totalidades, todas necesariamente parciales, lo que significa que todas la totalidades pueden ser vistas como partes y todas las partes como totalidades. Esto significa que los términos de cualquier dicotomía tienen una vida (por lo menos) más allá de la vida dicotómica.” (Santos, 2005, 174. or.).

gainerako beste osotasun partzialek– duen mundu ikuspegia interpretatzea razionalitate kosmopolita subalternoaren bidez. Alde horretatik, Santosek aipatzen du prozesu hori aurrera eramateko errealitatean agertzen diren zailtasunak hiru direla: bat, zirkulu argumentatiboan parte hartzen duten diskurtso desberdinen artean eremu komunak bilatzea, “topoi” delakoa; bi, zirkulu argumentatiboan parte hartzen dutenek hizkuntza ez hegemonikoan argudiaketa egiteko aukera izatea; eta, hiru, isiltasunak interpretatzea. Hala, prozesua arrakastatsua den kasuetan, aukera ezin hobea zabaltzen da munduari beste begirada batetik begiratzeko, hain zuzen, mendebaldeko pentsamendu modernoak ezarritako kategorietatik kanpo.

La importancia de este último trabajo de traducción reside en que sólo a través de la inteligibilidad recíproca y consecuente posibilidad de agregación entre saberes no-hegemónicos es posible construir la contra-hegemonía. (Santos, 2005, 177-178. or.).

Tal como sucede con el trabajo de traducción de saberes, el trabajo de traducción de las prácticas es particularmente importante entre prácticas contra-hegemónicas. El potencial anti-sistémico o contra-hegemónico de cualquier movimiento social reside en su capacidad de articulación con otros movimientos, con sus formas de organización y sus objetivos. Para que esa articulación sea posible, es necesario que los movimientos sean recíprocamente inteligibles.

El trabajo de traducción tiende a esclarecer lo que une y lo que separa los diferentes movimientos y las diferentes prácticas, de modo que determine las posibilidades y los límites de articulación o agregación entre los mismos” (...)

Se trata de un trabajo muy complejo, no sólo por el número y diversidad de movimientos y organizaciones implicados, sino, sobre todo, por el hecho de que unos y otros estén anclados en culturas u saberes muy diversos. O sea, es éste un campo donde el trabajo de traducción incide simultáneamente sobre los saberes y las culturas, por un lado, y sobre las prácticas y los agentes, por otro. Más allá de esto, ese trabajo tiende a identificar lo que los une y lo que los separa. Los puntos en común representan la posibilidad de una agregación o combinación a partir de abajo, la única alternativa posible a una agregación desde arriba impuesta por una gran teoría o por un actor social privilegiado. (Santos, 2005, 178, 180. or.).

Ikusten den moduan, praktika kontra-hegemonikoak abian jartzeko ezinbestekoa da ezagutza ez-hegemonikoak hartu-emanen jartzea. Alde horretatik, euskal lerrokatze linguistiko elektorala Nazio zapalduaren eredutik azaldu nahi bada bereziki interesgarria da aztertzea zein izan den esperientzia ez-hegemoniko desberdinen gurutzaketa (bereziki, nazionalismoarena eta auzi sozialarena). Gurutzaketa horien inguruan dauden esperientzia sozial guztiak baliagarri izango dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko ezagutza aberasteko. Izan ere, Santosek esaten duen moduan, soziologia postmoderno kritikoa egin nahi bada, behetik gora egingo da eta menpeko esperientzien bizipenetatik abiatuta, ez goitik behera eta aktore jakin baten zuzendaritza hobetsiz.

2.2 Euskal pentsamendu deszibilizatzailea: ezagutza iturri eta proiektu askatzaile gisa

Aurreko azpikapituluan ikusi da injustizia epistemikoa gainditzeko ezinbestekoa dela mendebaldeko begirada modernoari zuzenketa proposatzea ertzetako epistemologia subalternoetatik –kasu honetan, euskal pentsamendutik–. Atal honen helburua da, begirada horretatik abiatuta, Nazio zapalduaren eredia praktikara eramateko oinarri teorikoak ezartzea. Gauzak horrela, oinarri teorikoak ezartzen hasi aurretik, komenigarria da pentsamenduari dagokionez aipatutako injustizia epistemikoa praktikan nola gorpuzten den ilustratzea.

Alde horretatik, interesgarria da adibide gisa unibertsitatearen kasua hartzea, azken batean, bera baita goi-mailako ezagutza eta pentsamendua legitimatzen duen instituzio gorena. Unibertsitatearen aferari dagokionez, ataka baten aurrean aurkitzen da euskal nazioa. Azken hamarkadetan nazio zapaldu izateagatik honako desfasea bizi du bere baitan: politikoa –(Udako) Euskal Unibertsitateari ez zaio aitortzen maila goreneko hezkuntza erakundearen izaera–; eta, kulturala –Euskal Herriko Unibertsitatearen baitan posizio ez-hegemonikoan aurkitzen dira euskara, euskal kultura eta, bereziki, euskal pentsamendua–.⁵⁵ Horrek guztiak galga jartzen dio euskal pentsamendu normalizatuari. Estatu-nazioaren logikan artikulatzen den pentsamendu modernoak munduaren gaineko ulerkera pluri-bertsalista ukatzeak eragiten du erdal pentsamendu modernoa izatea nazio zapalduetako esperientzia sozialaren gaineko irakurketa hegemonikoa –are gehiago, muturreko kasuetan ulerkera bakarra–. Injustizia kognitiboaren ondorio soziala da menderakuntza, hau da, “bestea” objektu gisa aztertzea, eta ez ezagutza sortzen duen subjektu gisa (Santos, 2006; Grosfoguel, 2012). Honen guztiaren harira, jarraian azaltzen den adibideak argi erakusten du nola gorpuzten den euskal pentsamenduak bizi duen subordinazio prozesua goi mailako euskal unibertsitate propio eta normalizaturik ez izateak eraginda.

2002ko otsailaren 15ean, Honoris Causa Doktore gisa izendatu zuen Juan Jose Linz jauna Euskal Herriko Unibertsitateak. Izendapen horren bidez aitortza egin nahi izan zitzaion espainiar jatorriko ikertzaile alemaniar honi bizitzan zehar egindako ibilbide akademiko oparoagatik.⁵⁶ Espainiako soziologia eta politika zientzien erreferente

⁵⁵ Auzi honen inguruan sakontzeko ikusi 1977ko Jakinen 1. alea. Ondorengo hamarkadetan agertuko ziren hainbat eztabaida aurreikusten dira bertan. 2002ko 130/131 alean ikusten da 25 urte geroago 1977an aurreikusi ziren muineko arazoak berdinak mantentzen direla: desfase kulturala eta politikoa.

⁵⁶ <https://www.ehu.es/eu/web/idazkaritza-nagusia/juan-jose-linz> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/04/16).

nagusia izateaz gain, bere lanek eragin handia izan dute nazioartean. Hauteskunde soziologiari dagokionez, ez da kasualitatea garaiko ikertzaile garrantzitsuenekin harremanak izatea. Tesi zuzendaria Seymour M. Lipset izan zuen. Hain zuzen, Stein Rokkanekin batera clivajeen teoriaren autore intelektuala.⁵⁷ Era berean, hauteskunde soziologiaren aitabitxitzat jo daitekeen Lazarsfeldekin ere aritu zen lanean. Luze gabe, nazioartean jasotako ezagutza hori Espainiar estatuan praktikan jartzeko ahaleginak egin zituen. Andrések (2014, 227. or.) oroitzen du 1960an inkesta bidez Espainian egin zen lehen ikerketa esanguratsuan –*Encuesta Nacional de la Juventud* delakoan– Linzek paper garrantzitsua jokatu zuela. Handik gutxira, 1964an *An Authoritarian Regime: The Case of Spain* ikerketa argitaratu zuen eta, ondorengo hamarkadetan ere, gertutik jarraitu zuen Espainiako egoera politikoa. Testuinguru horretan ulertu behar da 1970ko hamarkadatik aurrera euskal kasuaren inguruan erakutsi zuen interesa (Linz et al., 1981; Linz, 1986). Gerora, klasiko bihurtu dira aipatutako lan horiek euskal kasua aztertu behar duten ikertzaileentzat, baita beste nonbaiteko ikerketa elektoralak egin behar dituztenentzat ere. Ruizek (2007, 164. or.) dioen bezala, Linzek 70eko hamarkada amaieran euskal kasuaren inguruan egindako lanean du jatorria identitate nazional-territorialak neurtzeko CISen inkestetan erabiltzen den eskalak –Moreno Eskala bezala ezagutzen denak–. Beraz, begi-bistakoa da Linzen ekarpena eta eragina Espainiar soziologia eta zientzia politikoetan. Ibilbide luze eta aberats horretan oinarrituta Juan José Linz Honoris Causa Doktorea izateko proposamena egin zuen EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Sailak. Hala, Francisco José Llera Katedraduna izan zen izendapena babesteaz arduratu zena. Hain zuzen ere, urte luzez EHUko Euskobarometroa ikerketa taldeko zuzendari izan dena.

Llerak xehetasun handiz jasotzen ditu egun haren nondik norakoak Juan José Linzen heriotzaren harira *Revista de Estudios Políticos* aldizkariak argitaratutako 116. ale berezian, baita “laudatio”aren testuingurua eta bertan esandakoak ere (Llera, 2014). Alde horretatik, Llerak dio laudatio horretan mahai gainean jarri zituela Juan José Linzen maila intelektuala eta lanerako prestutasun apartekoa. Ikerketa honetan ez da inondik inora zalantzan jartzen Linzen lanerako gaitasuna, aitzitik, Linzek egindako

⁵⁷ Honela laburtzen du José Álvarez Juncok (2014, 82. or.) Linzen inguruan Lipsetekin bizitako pasartea: “[Linz] Marchó a Estados Unidos en la temprana fecha de 1950 con una beca de solo nueve meses que le consiguió Conde. Ese tiempo fue suficiente para ganarse en Columbia tal prestigio que la propia universidad le financió la terminación de su doctorado, con lo que pasó en aquel país la casi totalidad de la década de los cincuenta. Allí, en el Departamento de Sociología, se encontró con Robert K. Merton y Paul F. Lazarsfeld, pero sobre todo con Seymour M. Lipset, que le dirigió la tesis. Cuando, varias décadas más tarde, tuve ocasión de invitar al anciano Lipset al Iberian Study Group de la Universidad de Harvard, no solo aceptó venir, sino que me recordó con orgullo que él había sido el protector de Linz y el director de su tesis. Hay algunos que ponemos en nuestro currículum a los maestros con los que hemos estudiado. Hay otros que ven incorporado su nombre al currículum de sus maestros, que alardean de haber tenido tan brillantes discípulos”.

lanari itzelezko meritua aitortzen zaio. Besteak beste, aurrenetakoa izan zelako, espainiar ikerketa garaikideen artean euskal kasua aztertzerakoan zazpi lurraldeetako hiritarrei zabalduetako inkesta soziologikoa egiten (Linz, 1986, 12. or.).⁵⁸ Horrela, Linzen ekarpen desberdinetako bat da euskal kasua aztertzeko mundu mailako autore erreferenteen proposamenez baliatu izana, hala nola, Lipset eta Rokkanen lanez. Gerora, ikertzaile desberdinek jarraitu dute –tartean eskuartean duzun ikerketa honek– aurrez berak eta beste batzuek zedarritutako bidea. Alde horretatik, lan honetan uste da euskal hiritarren zati handi baten portaera elektorala azaltzeko teoria horiek baliagarriak izan direla.

Behin hau esanda, beste kontu bat da Linzen proposamenak ikerketa honen premia guztiak betetzen duen ala ez. Izan ere, euskal lerrokatze linguistiko elektorala azaltzerakoan, aurreko atalean ikusi da hurbilpen periferikoa ez dela egokia euskal kasua osotasunean aztertzeko. Nazio zapalduaren eredia hobesteak, *de facto*, zalantzan jartzen du Linzek berak eskaintzen duen azalpen eredia. Egia da, *Conflicto en Euskadi* (1986) liburua osatzeko erabilitako inkestetan baliatzen duen dikotomia español/vasco eta francés/vasco dela. Alde horretatik, Ikerketa objektuaren espazio geografikoa zedarritzeko gainditu egiten du estatu-nazioaren matrize espaziala. Are gehiago, zenbait ikerketatan navarro/vasco batera ulertzeko aukera eskaini zuen. Edonola ere, “vascotasun” hori beti ulertu izan du estatu-nazioaren aurkako erreazio periferiko moduan. Hala, Estatuan –espainiar nazio hegemonikoan– hartzen du gorpuztasuna bere pentsamenduak.⁵⁹ Alde horretatik, aurreko atalean ikusi bezala, begirada horrek zailtasunak sortzen ditu euskal alderdi politikoak espainiar alderdi erregionalengatik bereizteko, eta horrela, euskal lerrokatze linguistiko elektorala bere osotasunean azaltzeko.

Nazio zapalduaren eredutik, lan honetan uste da badagoela euskal gizartean zati bat Santosek proposatzen duen pentsamendu abismalaren arabera mugaren beste aldean (ez-munduan) kokatzen dena. Ondorioz, Juan José Linzen kasuan gertatzen den moduan, begirada modernotik abiatzen diren lanek ez dituzte osotasunean jasotzen ez-munduan daudenen bizipenak. Horregatik, lan honetan uste da aintzat hartu ez den

⁵⁸ Lleraren inguruan beste horrenbeste esan daiteke. 1985ean argitaratu zuen *Postfranquismo y fuerzas políticas en Euskadi: sociología electoral del País Vasco* lanak ekarpen metodologiko eta teoriko interesgarriak proposatzen ditu euskal kasuaren azteketarako.

⁵⁹ Honatx vascotasun horretatik abiatuta zen den bere ondorioa: “Creemos que aún es tiempo para que la acción decidida y responsable dentro del modelo consociacional dentro del marco de la monarquía constitucional parlamentaria española, y una política consociacional entre las dos comunidades de habla euskera y castellana dentro del País Vasco, de nativos e inmigrantes, puedan crear una comunidad vasca con libertad dentro de una España democrática y con libertad. Esperamos que esta obra escrita sin pasión partidista haya contribuido a esta apasionante tarea de crear un Euskadi libre en una España libre” (Linz, 1986, 683. or.).

jendarte horren portaera azaltzeko mugak dituela goian aipatu diren CISen inkestek eta horren bueltan eraikitako azalpen ereduak. Llera ez dator bat lan honetan hobetsi den hausnarketarekin:

Ni que decir tiene que muchos de sus [Linz] conceptos, tipologías, definiciones operativas e indicadores de encuesta han inspirado desde entonces nuestra investigación politológica en Euskadi. Solo la zafiedad de alguna mente enferma por la ideología o la frustración ofuscante de funcionarios por méritos de guerra y sin identidad científica pueden producir el atrevimiento ignorante de la descalificación de tal enfoque.

Este reconocimiento a la trayectoria científica, académica y personal del profesor Linz honra a nuestra Universidad y, con ella, a la comunidad científica vasca y española. (...)

Como nos dirá Seymour Martin Lipset en su introducción al libro de homenaje internacional con motivo de su jubilación, Linz es, sobre todo, una referencia científica universal e inexcusable en el estudio de la democracia y de la política comparada. (Llera, 2014, 159,160. or.).

Ikusten den bezala, Honoris Causa Doktore izendapenaren inguruan idazten duen artikuluan, Llerak maila zientifikoa ukatzen die Linzek proposatzen duen begirada periferikoa zalantzan jartzen duten kritikoei. Are gehiago, EHUko Katedradunak azpimarratzen du soilik ideologiak gaixotuta dauden horiek sortzen dituztela gisa horretako iritziak. Ikertzaile baten iritzietatik harago joanda, honakoa da pasarte horrek adierazten duen elementu nagusia: EHU/UPV erakundeak Juan José Linz Honoris Causa doktore izendatzean pentsamendu konkretu bat legitimatzen du aipatutako argudioak oinarri direla. Horrek guztiak berebiziko eragina du euskal pentsamenduaren desprestigiatze prozesuan. Izan ere, erritu horren bidez indartu egiten da zalantzan jarri ezin den autore konsagratuaren ideia. Ondorioa begi bistakoa da: Linzek zedarritutako markoen deribatuetatik erdiesten da ezagutza zientifikoa. Bestelako ahalegin denak sistemak ez ditu legitimotzat jotzen eta ez-munduan kokatzen diren ikertzaileak behartuta daude errealitatea soilik begirada ofizialetatik irakurtzera.

Adibide honekin erakutsi nahi izan da akademian euskal pentsamenduaren asimilazioa eta desprestigioa sistematikoki erreproduzitzen dela. Unibertsitate propiorik ezean, erdal unibertsitatean subordinatuta dago euskalduna. Begirada modernoaren defendatzaileek errotik mozten dute euskal pentsamendu deszibilizatzailea garatzeko ahalegin oro. Aldiz, desprestigiatze kanpaina egiten zaio urte luzeko lanaren ostean ahots propioa lortzen duenari bere zientifikotasuna zalantzan jarriz. Horregatik guztiagatik, azpikapitulu hau bi fasetan banatzen da akademian normalizatua dagoen biolentzia epistemikoari buelta emateko asmoarekin: aurrena, deseraiki egiten da mendebaldeko pentsamendu moderno hegemonikoa; eta, ondoren, ahalegina egiten da euskal pentsamendutik kategoria propioak eraikitzeko.

2.2.1 Nazio auzia eta dikotomia etniko/zibikoa: biolentzia epistemikoaren muina

Ikertzaileak nazio auziaren inguruan hobesten duen begirada da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren azalpena baldintzatzen duen aldagai nagusia. Lanean zehar ikusi da akademian erreferente diren ikertzaileek –Lipset eta Rokkan, Lijphart, Linz, Llera eta enparauek– nazioaren gaineko kontakizun modernista aintzatesten dutela. Alabaina, zer dago begirada honen atzean? Nazio zapalduaren begiradatik uste da begirada horren atzean dagoena dela zibilizazioaren –nazio politikoaren– ideia legitimatzen duen Modernitatearen mitoa.

Intelektualen komunitateak disziplina akademikoetan sortutako ezagutzek osatzen dute kultur kutxa unibertsala eta sorkuntza horixe hartzen da, hain zuzen ere, aurrerapen zientifikoaren indizetatzat. Aro Modernoan, Ilustrazioaz geroztik batez ere, kultura unibertsal hori izan da zibilizazioaren izenean Estatu moderno nazioaskodun eta kolonialistek beren menpeko lurralde historikoetan ezarri izan dutena. Erakunde ofizialetan eta, bereziki botere politikoari hurbilekoak zaizkionetan beti esan izan da produkzio zientifikoaren neutraltasuna eta objektibotasuna ezin direla zalantzan jarri, kultura unibertsalari dagozkionek guztientzat berdin balio dutela. Halere, arazo epistemologikoez dihardutenek ozenki esaten dute ezagutza zientifikoaren erakuntzan (...) ideologiek ere beren egiteko garrantzitsua betetzen dutela eta, ondorioz, zientziari buruzko uste oker hori desmitolijizatu egin behar dela.

Ezagutza zientifikoa berdin aurrerapena izan da kultura unibertsalaren ildotik markatu izan den norabidea. Eta modernitateak aurrerapen tekno-zientifiko horretan sartu ez ziren koloni lurraldeen eta Estaturik gabeko nazioen kulturak eta hizkuntza tradizioaren linboan sartu eta betiko desagertzera kondenatu zituen. Zergatik eta, historiaren ikuspegi linealak alde aurretik dogmatikoki halaxe erabaki zuelako. Horrelaxe eraiki zen, berriro literatura zientifikoaren izenean, tradizionalismoaren eta modernismoaren arteko antitesi mitikoa, gaur egun ere oso indarrean dagoena. (P. Iztueta, 1996, 22-23. or.).⁶⁰

Modernitatearen mito horrek bere bilakaera propioa izan du Euskal Herrian. Hain zuzen ere, Koldo Izagirrek (2015) azpimarratzen duen moduan, “euskarak beti dauka ezintasun berezkoren bat” eta, azkenerako, “iduri luke” euskaldunak eraiki duela “gaztelaniaren azken mitoa”, hots, gaztelania aurreratuago eta erakargarriago denaren ustea: aurrena literaturako, gero zientziarako eta egun bizitzarako edozein arlotarako. Ikusten den moduan, ez da zientziari soilik eragiten dion auzia. Hala ere, azken hori da ondorengo lerroetan aztergaia. Hala, jarraian ahalegina egiten da euskal pentsamendutik modu

⁶⁰ Ikerketa dekolonialen kasuan, Dusselek zedarritu zuena da mito modernoaren definizio klasikoa. Ikusten den moduan, bi definizioek ideia antzekoa dute oinarrian: “El mito podría describirse así: a) la civilización moderna se autocomprende como más desarrollada, superior (lo que significará sostener sin conciencia una posición ideológicamente eurocéntrica). B) La superioridad obliga a desarrollar a los más primitivos, rudos, bárbaros, como exigencia moral. c) El camino de dicho proceso educativo de desarrollo unilineal y a la europea, lo que determina, nuevamente sin conciencia alguna, la “falacia desarrollista”. d) Como el bárbaro se opone a proceso civilizador; la praxis moderna debe ejercer en último caso la violencia si fuera necesario, para destruir los obstáculos de la tal modernización (la guerra justa colonial). Esta dominación produce víctimas (de muy variadas maneras), sacrificio que es interpretado como un acto inevitable, y con el sentido cuasi-ritual de carácter de ser holocaustos de un sacrificio salvador (...). f) Para el moderno, el bárbaro tiene una “culpa” (el oponerse al proceso civilizador.) que permite a la “Modernidad” presentarse no sólo como inocente sino como “emancipadora” de esa “culpa” de sus propias víctimas. g) Por último, y por el carácter “civilizatorio” de la “Modernidad”, se interpretan como inevitables los sufrimientos o sacrificios (los costos) de la “modernización” de los otros pueblos “atrasados” (inmaduros)” (Dussel, 1994, 175-176. or.).

askean pentsatzea oztopatzen duen nazioaren gaineko dikotomia etnikoa/zibikoa deseraikitzeke. Bigarren azpikapituluan, nazioaren ideia klasikotik abiatuta begirada propioa osatu nahi da euskal nazio zapalduaren eredura egokitzen den marko teorikoa eraikitzeke.

2.2.1.1. Nazio zibikoaren ideia: menderakuntza legitimatzen duen kontakizun modernoa

Europa mendebaldean Modernitatearen oinarri filosofikoak ezarri zituen Descartes izan zen XVII. mendearen erdialdera proposatu zuen giza irudiaren bitartez. Azken honek, subjektu modernoaren izatea logika dualistan irudikatu zuen –arima/gorputza–. Arima da hilezkorra, gorputza, berriz, hilkorra eta inpurua –horretan, Platon eta San Agustinen ildo jarraitu zuen–.⁶¹ Descartesek bigarren ekarpena izan zen solipsismoa proposatzea ezagutza erdiesteko metodo gisa. Honek guztiak bi korapilo ekarri ditu gerora: subjektu-objektuaren bereizketa eta ezagutza ez-kokatuaren mitoa. Premisa horien gainean oinarritzen da mendebaldeko pentsamendu modernoa. XVIII. mende amaieratik aurrera pentsamendu modernoari autore desberdinek teoriarik egokitzapenak proposatu badizkiote ere –Hume, Kant, Hegel–, praktikan mantendu egin da Nitasunetik bestea aztertzea legitimatzen duen unibertsaltasun abstraktuaren ideia.

⁶¹ Filosofia modernoaren barne egitura ulertzeko komenigarria da Mendebaldeko kultura judu-kristauaren eta Grezia klasikoaren erreferenteetatik abiatzea: “Platonentzat arimaren leinua zerutarra da, eta arima bera betidanikoa; gorputza, mundutarra, arimaren kartzela da. Arimaren egiteko behinena, hortaz, gorputzetik aske bilakatzea da (hiltzen joatea edo hiltzen ikasten joatea, berdin filosofia: ikuspegi honetan, hil, gorputza bakarrik egiten baita). Aristotelesentzat, aldiz, arima gorputzaren forma da, eta biok bi substantzia berezi al diren xerkatzeak, ez dauka zentzurik, zentzurik ez daukan bezala argizagizko irudi bati buruz galdetzeak, ea bi substantzia berezi ote diren argizagia eta argizagiaren forma irudikoa.(...) Kategoria judu-kristauen sartzarekin gogoeta honetan, jainkozkoaren, hilezkorraren esanahia guztiz aldatu da. San Agustin konbertituak, filosofikoki Platonen ildotik, eta bere esperientzia pertsonala espresatzeko prozedura gisa ere, gorputza eta arima bakantzerako jo du: arimak bilatzen duena Jainkoa da, eta Jainkoarekin bat egiten duenean bakarrik da gizon-emakumea bat bere buruarekin, eta ondorioz bere gorputzarekin ere. Bestela, Jainkoan erdiesten duen batasuna gabe, arima ez da sakabanaketa besterik gorputzezko anizkunean eta kaosean (instintoak, grinak). San Tomasek, aitzitik, bitartean filosofia arabiarren influentzia zabaldua da Europa kristauan, eta Aristotelesengan oinarritu du; filosofo bezainbat teologoak, hala ere, ezin izan du konponbideren bat ez bilatu arima substantzial platoniko-kristauaren ideiarekin. Esan nahi baita, San Tomasen arima gorputzaren forma bai, baina bitxiki forma substantzial burujabea dela, gorputza gabe ere izanean irauteko gauza. San Tomasekin esan daiteke kristandadean arimaren teoria aristotelikoa nagusi jarri dela. Alabaina, Aristotelesen jarauntsian ez zegoen garbi erabakia arimako funtzioek euren artean nola jokatzeko duten; eta, batez ere, Filosofoak airean utzi duen puntu bat izan da, berak jainkozko eta hilezkortzat eman duen arima razional hori, indibiduala ala kolektiboa ulertu behar den (gizadiaren arima-edo), eta arima indibiduala ala kolektiboa ote den hilezkortzat hartu behar dena. Unibertsiteetan aristotelismoa gailenduz joan ahala, horren interpretazioak laster aniztu dira, hala eta ezen XIII. eta XIV. mendeetan arimari buruzko eztabaidak puri-purian egon baitira Parisen. (...) Ordea, etena tradizioan, historia modernorako ondoriotsuena, Descartesek, Ernazimentuaren aurka eta soka aristoteliko-tomistaren aurka, Moderniaren hastapenean atzera plazaratu duen dualismo erradikala izan da, berriro lerro platonikoan: San Agustingana itzuliz, izan ere, eta harengana gizakiaren barne historia existentziala zena (prozesu espiritual) esentzial, ontologiko bihurturik, arima eta gorputza bi substantzia zein bere eta are elkar ukiezin deklaratu ditu. Arima da substantzia bat pentsamendua dena, gorputza da substantzia bat hedadura dena; ezin dute izan bata bestearekin zerikusirik” (Azurmendi, 2009, 218-219. or.).

Estatu-nazioaren aroan, Gizarte Zientziak sortu ziren XIX. mendetik aurrera “fisika soziala” egiteko asmoarekin (Wallerstein, 2006, 9. or.). Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bitasun bera erreproduzitzen du mendebaldeko pentsamendu modernoak Soziologiatik, Antropologiatik, Ekonomiatik, Politikatik edo Historiatik nazio auzira hurbiltzerakoan. Zehazki, honakoa da hamarkada luzez nazioaren auziak hartu duen forma dikotomikoa: nazio politikoa –zibilizazioa– eta nazio etnikoa –barbaroa–. Alabaina, nola eta zerk bereizten ditu bata eta bestea? Modernizazioa da jainko berria. Mito hori deseraikitzea da azpikapitulu honen helburua.

¿Qué era exactamente lo que celebraba la burguesía francesa? No sólo su ascenso al poder y el fin de los privilegios de la aristocracia y el clero. Se trataba nada menos que del nacimiento de la nueva nación de Francia, en la forma de República Francesa. En los trabajos de la Asamblea Francesa y sus sucesores fue impulsado con inmerso vigor y celo el proceso de construcción de una nación nueva a través del cambio constitucional, de acuerdo con los proyectos racionalistas de los filósofos de la Ilustración.

Este tipo de «construcción nacional» planificada era esencialmente un proceso moderno, que no tiene un paralelo verdadero antes de 1789. (Smith, 2004, 63. or.).

Nazioaren inguruko aipamenak aspaldikoak dira izatez, baina garrantzi berezia hartzen dute estatu-nazioaren aroan. Horregatik ikertzaileen artean esan ohi da Ernest Renanek 1882ko martxoaren 11an *Qu'est ce que c'est une nation?* izenburupean aurkeztu zuen Sorbonako hitzaldia dela nazio auziaren gaineko eztabaida akademikoari hasiera ematen diona. Hitzaldi hori hartu ohi da mugarri gisa nazioaren gainean bi eredu ideal aurkezteko: frantziarra –Ilustratua– eta alemaniarra –Erromantikoa–.⁶² Zabaletak bikain laburtzen du akademian hegemoniko den begiradak nola ulertzen dituen bi eredu idealak:

Horrela, nazioari buruz klasiko bihurtu diren bi ideietan jarri dugu arreta. Bata ilustrazioarekin lotu dena dugu, iraultza frantsesaren ideologian gauzatu zena han zuzen; bestea, Herder-en “Volkgeist” nozio hartatik sortu dena, erromantikoen artean zabaldu zena alegia (tradizio frantsesa eta tradizio alemaniarra, esan ohi den bezala). Lehena harturik, nazioa era honetan ulertu beharko litzateke: borondate edota nahiak baturik elkarte libre bat sortzen da –kontratu sozialaren printzipioekiko atxikimenduan oinarritzen dena–. Hau da, nazioa eraikitzen den zerbait da, eta ez berez den zerbait, eta nazioaren parte izan ala ez izatearen jokoan, norberaren aukera libreak soilik hartzen du parte. Laburbilduz, tradizio frantsesaren arabera, Estatuak sortzen du nazioa. Nazio “erromantikoak”, aldiz, ez du “nazio-kontratu”arekin zerikusirik; tradizioarekin, historiarekin, hizkuntzarekin, arrazarekin, etab. lotzen da; hots, naturala den nazio-lokarria azpimarratzen da, eta ez atxikimendua. Bigarren ideia honek, nazioa eraikitzeke borondateaz baino, pertsonen eta herrien arteko desberdintasun naturalez hitz egingo du, eta hain zuzen, bereizgarriak diren ezaugarri horiek egingo dute nazioa. Estatuari dagokionez, nazioa

⁶² Honako hau dio Azurmendik *Historia, arraza, nazioa: Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* (2014) liburuaren atzeko orrialdeko azalpen testuan: “Egia unibertsal eta eztabaidagabetzat hartzen direnetako asko gezur interesatuak edo gaizki-ulertu zabalduak izaten dira maiz (biak batera, gehienetan). Halako zerbait gertatzen da nazioaren kontzeptu aleman eta frantses direlakoekin: lehena erromantikoa eta bigarrena liberala”. Lan honetan Azurmendiren esanei jarraituz ulertzen da bi eredu horien eraikuntza politikoki interesatua dela: “Renan batez ere mito bat baita (adiera txarrean orain), XIX. mendearen hondarretako borroka urte ilunen memoriatik ezker laizistak bezala eskuin errepublikarrak erabilgarria: laizismoaren borroken ikono mitikoa, Parisen Komuna odoletan zanpatu osteko Errepublikaren itsasargia, Maurrasen gisako nazionalisten profeta. Matxinadez eta abentura politikoez asperturiko burgesia frantsesaren neurri-neurriko heroi nazionala beti” (Azurmendi, 2014, 9. or.).

da lehen eta honek sortzen du Estatua, azken hau naturan oinarritu behar baita. (Zabaleta Imaz, 2000, 12. or.).

Rousseau eta Sieyés dira Frantziar Ereduarekin berdintzen diren autore adierazgarrietako bi. Aldiz, Alemaniar Ereduaren ordezkari dira Herder edota Humboldt. Zalantzarik ez dago autore horien artean desberdintasunak daudela. Lehenek, gizakien arteko kontratu sozialean eta Estatuan jartzen dute arreta, bigarrenek, hizkuntzan eta kulturean. Alabaina, jauzi handia dago hortik esatera bi eredu desberdin daudela. Autore horiek eta beste batzuk erreferentzia gisa harturik, mundu zabalean luzaz eztabaidatu da nazioaren eta nazionalismoaren gainean XIX. mendean hasi eta gaur arte. Bereziki, hiru auziren inguruan artikulatu da eztabaida; bata, soziologiko-historikoa; bestea, antropologiko-politikoa; eta, azkena, auzi etiko-morala.

13. taula: Nazio eta nazionalismoen inguruko oinarritzko galderak ikuspuntu modernotik.

AUZI ETIKO-MORALA	AUZI ANTROPOLOGIKO-POLITIKOA	AUZI SOZIO-HISTORIKOA
“¿Debemos considerar a la nación como un fin en sí misma, un valor absoluto e incommensurable respecto de todos los demás valores? O debemos entender que nación e identidad nacional no son sino medios para lograr otros fines y valores, valores relativos y por lo tanto vinculados a un tiempo, un lugar y un contexto y especialmente a las condiciones propias de la época moderna?”	¿Qué tipo de comunidad es la nación y qué relación existe entre el individuo y esta comunidad? ¿Tiene la nación un carácter fundamentalmente etno-cultural, se trata de una comunidad (real o ficticia) cuyos miembros se ven unidos desde su nacimiento por lazos familiares, una historia común y lengua compartida? ¿O se trata de una comunidad básicamente social y política cuyo fundamento es un territorio común, un mismo lugar de residencia, derechos de ciudadanía y leyes comunes, siendo así que los individuos son libres de elegir si quieren pertenecer a ella o no?”	“Debemos considerar a la nación como a una comunidad inmemorial y evolutiva que hunde sus raíces en una larga historia de vínculos y cultura compartida? ¿O debemos ver en las naciones construcciones sociales recientes o artefactos culturales, a la vez rígidos y maleables, los típicos productos de una época histórica y de las especiales condiciones que han dado en la Edad Moderna y, por tanto, destinados a desaparecer cuando se haya sobrepasado esta etapa de la historia y ya no se den condiciones que le son propias?”

Iturria: Smith (2000, 38-39. or.). Egileak moldatua.

Ikusten den moduan, bi eredu irudiak –Eredu Frantziarrak eta Alemaniarrak– goitik behera blaitzen ditu Smithek zedarrizten dituen nazioaren gaineko eztabaiden ildo nagusiak.⁶³ Horrek eragiten du ikertzailea nazio auzia aztertzeraz hurbiltzen denean honako kategoria hauen amaraunean harrapatuta gelditzea:

⁶³ Ildo honetatik, Azurmendik arreta jartzen du eztabaidan baino gehiago galderak artikulatzen diren pentsamenduan. Honatx, horren inguruan ateratzen duen ondorioa: “Dando un paso más descubrimos que, más que de conceptos, el verdadero problema es de contextos y esquemas. El esencialismo ha sido un mal concepto sólo en un contexto peor. Es sobre todo por esto, por lo que resulta interesante examinar la polémica anti-esencialista: nos conduce directamente a un increíble maniqueísmo en el transfondo y, más de inmediato, al extraño fenómeno de un coto cultural riquísimo que prácticamente nos hemos autovetado. (...) Ha sido muy común entre nosotros operar con un modelo de interpretación antiético en ajustada simetría con la dicotomía de esencia y existencia. Del mismo modo habría dos tipos de nacionalismo: el jacobino y organicista. Dos conceptos opuestos de nación en el fondo: un concepto francés contra alemán. (...) “De Rousseau a Herder, de la Ilustración al Romanticismo: ¿continuidad o ruptura? Esta es, en el fondo, la cuestión a revisar” (Azurmendi, 1992, 176. or.).

14. taula: Pentsamendu modernoak nazio auziaren inguruan eraikitako kartzela epistemikoa.

Eredu Frantziarra	Eredu Alemaniarra
Enpirikoa	Teorikoa
Errealista	Idealista
Objektiboa	Subjektiboa
Razionala	Irrazionala
Ilustratua	Erromantikoa
Liberala	Kontserbadorea
Unibertsalista	Partikularista

Iturria: Azurmendi (1992, 175. or.).

Eztabaida teoriko honek forma konkretua hartu izan du lekuaren eta garai historikoaren arabera. XX. mende hasieran, esaterako, interesgarria izan zen marxismoaren baitan nazio auziaren inguruan emandako eztabaida. *Manifestu Komunistan* Marx eta Engelsek (2003 [1848], 75. or.) egindako “langileak ez du aberririk” adierazpenak kate luzea ekarri zuen ondorengo urteetan –Rosa Luxemburg, Otto Bauer, Lenin eta abar–. Nazio auziaren inguruan, beste une beroa gertatu zen 1968-1988 artean.⁶⁴ Smithek (2000, 62. or.) bi multzo desberdinetan banatzen ditu nazionalismoaren inguruan idatzitako lan horiek: modernistak eta perennialistak. Alde horretatik, Gellner (modernismo soziokulturala); Breuilly (modernismo politikoa); Kedourie (modernismo ideologikoa) eta Hobsbawm (konstruksionismoa) dira korrante modernoak birpentsatu duten autore erreferenteetako lau (Smith, 2004, 63-67. or.). Autore horiek esandakoen gainean eraikitzen dira gaur egun idazten diren marko teoriko askoren bizkarrezurrak.

Eztabaida antropologiko-politikoari dagokionez, honakoa da muinean dagoen galdera: zerk osatzen du nazioa, borondateak edota elementu etnikoek? Egun aho batez onartzen den erantzuna da bi elementuak elkarren osagarri direla. Alabaina, nola uztartzen dira bi elementuak? Hor dago koxka. Alde horretatik, autore modernistek modu batera edo bestera azpimarratzen dute nazioa eta etnia bi gauza desberdin direla. Eta, bereizketa horren erdian dago modernizazio prozesua, zeinean azken honek estatu-nazioaren eraketarekin harreman zuzena duen. Kedouriek (1985 [1966], 1. or.) dioen moduan, nazionalismoa da XIX. mende hasieran Europan asmatutako doktrina politikoa. Ildo horretatik, nazionalismoak nazioa sortzen duela kontuan izanda, ez du zentzurik esateak nazioa estatu-nazioaren aurretikoa dela.⁶⁵

⁶⁴ Hobsbawm (1991, 11-12. or.) arabera, 1968tik 1988ra doan aroa izan da nazioen eta nazionalismoen teorientzat garai emankorra: “la opinión de este autor es que el número de obras que realmente arrojan luz sobre lo que son las naciones y los movimientos nacionales, así como el papel que interpreta el devenir histórico, es mayor en el período 1968-1988 que en cualquier período anterior con el doble de duración”.

⁶⁵ Hobsbawm-en hitzetan agertzen da aipatutakoa argien: “Al igual que la mayoría de los estudiosos serios, no considero la «nación» como una entidad social primaria ni invariable. Pertenece exclusivamente a un periodo concreto y reciente desde el punto de vista histórico. Es una entidad social sólo en la medida en que se refiere a cierta clase de estado territorial moderno, el «estado-nación», y de nada sirve hablar de nación y de nacionalidad excepto en la medida en que ambas se refieren a él. (...) En pocas palabras, a efectos de análisis, el nacionalismo antecede a las naciones. Las naciones no construyen estados y nacionalismos, sino que ocurre al revés.” (Hobsbawm, 1991, 17-18. or.).

Zenbait ikertzaile modernok ez du ukatzen nazionalismoaren aldetik eraikuntza nazionalerako etniak erabiliak izan ez direnik. Alabaina, zehazten dute horrek ez duela esan nahi etnia bat dagoenik nazio guztien oinarrian. Aitzitik, ukatu egiten dute etnia guztiak nazio izan daitezkeenik⁶⁶. Planteamendu horren atzean, bi helburu daude: batetik, zenbait etniak egin ditzaketan aldarrikapen nazionalak aurrez deslegitimatzea; eta bestetik, nazio kontzientzia duten “etnien” kasuan bi elementuen arteko zilbor-hestea moztea. Zabar esanda, begirada modernoak ulertzen du eliteak gidatutako proiektu razional bat dagoela bere nazioa eratzea lortu duena, hots, estatu-nazioa. Aldiz, beste proiektu “irrazional” batzuk garaiz kanpo dabilta. Begirada modernoarentzat estatu-nazioa sortu duen mugimendua lehen fasean “askatzailea” izan bazen ere, behin estatu-nazioak gorpuztu direlarik nazionalismoak oztopoa dira gizartearen progresuarentzat.⁶⁷ Are gehiago, bi kategoria bereizten ditu begirada hegemonikoak: patriotismoa eta nazionalismoa. Perspektiba horretatik, patriotismo liberalak aldarrikatzen du nazio zibikoaren ideia. Konstituzioa da eskubide indibidualen iturburua eta bertan islatzen da borondate orokorra. Horrek batzen ditu hiritar guztiak, lokarria ez da arraza berekoak izatea edo ama hizkuntza bera edukitzea. Logika honen arabera, hizkuntza nazionalak ahalbidetzen duena da espazio publikoan naziokide guztiak elkar ulertzea (helburu praktiko-razionala). Horrela justifikatzen dute hizkuntza komunaren beharrezkotasuna. Hortik aurrera, espazio pribatuan bakoitzak bere sentitzen duen hizkuntzan egin dezake (hizkuntza etnikoa). Horregatik guztiagatik da sakratua Konstituzioa. Bertatik eratortzen baitira hiritar aske eta berdinen eskubideak. Eskubide horien aurka egotea da Konstituzioaren aurka egotea.

Gauzak horrela, mugimendu folklorikoak ez bezala, nazionalismoa ideologia atzerakoia bat bihurtzen da kutsu politikoa hartzen duenean. Izan ere, Estatu propioa eskatzen duen unetik, auzitan jartzen baitu indarrean den nazio politiko arrotzaren batasuna. Horregatik, patriotak direnek azpimarratzen dute etengabe nazionalismoa atzerakoia

⁶⁶ Honatx, etnia eta nazioaren inguruan Gelnerrek (1988, 69. or.) adierazitakoa: “Pero el nacionalismo, aunque se presente como el despertar de una fuerza antigua, oculta y aletargada, en realidad no lo es. Es consecuencia de una nueva forma de organización social basada en culturas desarrolladas profundamente interiorizadas y dependientes de la educación, cada una protegida por su respectivo estado. Aprovecha algunas de las culturas existentes previamente [etnia], generalmente transformándola durante el proceso, pero no puede hacerlo con todas, ya que hay demasiadas”.

⁶⁷ Begirada modernoak etniko gisa kategorizatzen ditu garaiz kanpoko nazionalismoak: “Los movimientos nacionalistas característicos de finales del siglo XX son esencialmente negativos, o, mejor dicho, divisivos. De ahí la insistencia en la etnicidad y las diferencias lingüísticas, cada una de ellas o ambas combinadas a veces con la religión. (...) Los nacionalismos separatistas de la Europa occidental, tales como el escocés, el galés, el vasco o el catalán, se muestran hoy favorables a dejar a un lado a sus respectivos gobiernos nacionales (...) el argumento actual contra el *Kleistaaterei*, al menos en su forma étnico-lingüística, no es sólo que no aporta solución a los problemas reales de nuestro tiempo, sino que, en la medida en que tenga poder para poner en práctica su política, hace que dichos problemas resulten más difíciles. Es casi seguro que la libertad cultural y el pluralismo gozan de mejor protección en los grandes estados que se saben plurinacionales y pluriculturales que en los estados pequeños que van tras el ideal de la homogeneidad étnico-lingüística y cultural” (Hobsbawm, 1991, 174, 190. or.).

dela, Konstituzioaren printzipioak hautsi nahi izatean eskubide indibidualen aurkakoa baita. Beste horrenbeste gertatzen da subjektu askatzailea naziotasunik gabeko langile klaseak osatzen duela diotenekin ere. Bi proiektuak desberdinak izan arren, bietan antzekoa da erabiltzen den arrazoiketaren egitura eta ondorioa: nazionalismoak langile klasea zatitzen du eta ondorioz traba da emantzipaziorako; beraz, mugimendu atzerakoia da.

Honek guztiak berebiziko lotura du bigarren eztabaidarekin, hots, nazioaren inguruko eztabaida soziologiko-historikoarekin. Izan ere, begirada modernoak aipatzen du ezin dela nazio politikoaren inguruan hitz egin aro horren baitan ez bada. Beraz, nazioaren antzinatasuna aldarrikatzea ez da pisuzko arrazoia estatu-nazioaren aroan proiektu politikoa legitimatzeko. Alabaina, justu kontrakoa adierazten du begirada perennialistak (zehatzago esanda, bortxaz kategoria horretan sailkatzen dituzten zenbait autorek). Azken horien arabera, nazioak aspaldikoak dira kultura bera partekatzen duten komunitateak baitira. Alde horretatik, beste gauza batzuen artean, autore horiek uste dute historian oinarritzen dela nazio baten proiektu politikoaren legitimazioa. Izan ere, zer da historia orainalditik abiatuta etorkizunari begira ditugun desirekin eta utopiekin blaitutako borondatezko kontakizuna ez bada? Horrela, begirada horrek honako zuzenketak egiten dizkio begirada modernistari: bat, aberri gisa izendatzen duten nazio politikoaren atzean etnia hegemonikoa dago estatu-nazioaren monopolioa duena; bi, “etnia” konkretu baten hegemonia justifikatzeko erabiltzen da modernizazioaren mitoia; hiru, ikuspuntu etiko batetik “etnia” subordinatuak etnia hegemonikoaren eskubide berbera du politikoki bere buruaren jabe izateko; eta lau, izatez etikoki nazionalismoa askatzailea da mito modernoak ezarritako kartzela epistemikoa gainditzeko ahalegina egiten duen kasuetan. Horrek guztiak zalantzan jartzen du nazioaren fenomenoaren estatu-nazioaren arora bihur-murrizten duen ideia modernoaren. Horrela, beste galdera bat sortzen da etorkizunera begira: nazioek badute etorkizuna II. Mundu Gerraren eta, bereziki, Berlingo Harresia erori osteko aroan? Begirada modernoaren arabera, nazionalismoak indarra galtzen joango dira,⁶⁸ aldiz, nazioak “premodernoak” ere izan zirela ulertzen duenak ez du eragozpenik izango “postmodernoak” ere badirela onartzeko.

⁶⁸ Hobsbawmek (1991, 196-197. or.) honako iritzia du auzi horren inguruan: “Las naciones y el nacionalismo estarán presentes en la historia, pero interpretando papeles subordinados y a menudo bastante insignificantes. (...) Dijo Hegel que la lechuza de Minerva que lleva la sabiduría levanta el vuelo en el crepúsculo. Es una buena señal que en estos momentos esté volando en círculos alrededor de las naciones y el nacionalismo”.

Smithek (2000, 62. or.) aipatzen du azken hamarkadetan hainbat autore saiatu direla eredu bateko eta besteko elementuak josten. Alabaina, begirada modernoak beti ditu zailtasunak nazioaren gaineko bitasun etniko/politikoarekin eta estatu-nazioak zedarrizten duen matrize tenporal eta espazialarekin hausteko. Zalantzarik balego, Soziologia modernoa arduratzen da oraindik bi komunitate mota irudikatzeaz autore klasikoek eskaintzen dituzten oinarri teorikoen bidez. Horren adibide dira Ferdinand Tönniesek (1979 [1887]) proposatutako eredu idealak –komunitatea eta gizartea–, edota Émile Durkheimen (1967) proposatzen dituen solidaritate mota desberdinak –organikoa eta mekanikoa–. Azken horiek elikatzen dute ikertzailearen begirada soziologikoa.

Behin puntu honetara iritsita, baieztatzea besterik ez da gelditzen euskal kasuaren inguruan azterketa elektoralak egiten dituzten ikertzaileen artean aipatutako begirada modernoa hegemonikoa dela. Linzen kasua hartzen da beste behin adibide gisa:

Tradicionalmente los nacionalismos, y los nacionalismos periféricos españoles no son excepción, se han basado en lo que se ha llamado características «primordiales» –sería tentador decir primarias– como la lengua, la descendencia familiar, la naturaleza, cualidades todas que tienden a ser adscriptivas más que adquiridas, que no son resultado de una opción consciente, aunque en último término algunas impliquen un elemento voluntario, como, por ejemplo, el uso de una u otra lengua. (Linz, 1986, 28. or.).

Lerroartean irakurriz gero, adierazgarria da Linzen esaldia. Begirada modernoaren hainbat premisa onartzen dira bertan. Hasteko eta behin, euskal nazionalismoa kategorizatzen du espainiar nazionalismo periferiko gisa, zeharka adieraziz hortik eratortzen diren euskal alderdi nazionalisten jatorria espainiarra dela. Adierazpen horretan argi ikusten da estatu-nazioan kokatzen dela matrize tenporal/espaziala eta euskal nazionalismoa subjektu izan beharrean, objektu moduan formulatzen duela. Hori gutxi ez eta autoreak dio euskal nazioaren oinarria elementu primordialetan oinarritzen dela. Horrela, euskal nazioaren inguruan hobesten duen irudia da nazio etnikoarena. Eta amaitzeko, unibertsalismoak bultzatuta ahaztu egiten da hizkuntzaren erabilera ez dela hautua, ez behintzat euskal kasuan. Izan ere, zenbait euskalduni euskara erauzi egin zaio. Are gehiago, Frantziaren eta Espainiaren aldetik oztopoak jartzen dira euskara zabaltzeko. Hala, nazioak bizi duen minorizazio egoera dela eta, euskaraz aritzea ez da aukera bat euskaldun guztientzat. Bestalde, Extremadurako edo Valladolideko elebakarrak aukeratu egiten du gaztelaniaz hitz egitea? Ez, ezta? Behar duelako hitz egiten du gaztelaniaz. Euskal Herrian jaio edota lanera etorri den erdaldunari euskal elebidun izateko aukera ukatu izan zaion moduan, euskaldunak XX. mendean galdu egin du elebakar izateko pribilegioa. Estatuak euskaldunari gaztelania ezagutza inposatu egin dio –arrazoiaren izenean–. Elementu horiek guztiek erakusten dute nola interpretatzen dituzten Linzek eta bere ondorengoek –CIS edota Euskobarometroak– fenomeno

soziologikoak. Koldo Izagirrek (2015) aipatzen zuen moduan, honakoa da kezka: euskaldunak ere apurka-apurka barneratzen ote doaz mito modernoaren markoa?

Ikuspuntu etiko eta moraletik begiratuta, bistakoa da begirada modernotik soziologia egiteak nora daraman ikerketa eta horrek zein ondorio dituen. Testuinguru horretan, ataka baten aurrean aurkitzen da euskal nazio zapalduko pentsalaria. Nola gainditu kartzela epistemologiko hori? 56ko belaunaldiaren ildo beretik doan lan honek egiten duen hautua da planteamendu epistemologiko alternatiboa garatzea euskaraz eta euskaratik, hau da, euskal pentsamendutik.

2.2.1.2. Nazioaren ideia klasikoa: pitzadura ez da naturala, menpeko egoeraren isla baizik

Nazio zapalduaren eredua garatzeko oinarri teorikoak eskaintzea da atal honen helburua. Horretarako, lan honetan proposatzen da nazio politiko/etniko dikotomia gainditzen duen nazio klasikoaren ideiatik abiatzea. Nazioaren inguruan aspalditik hitz egiten da, gutxienez, Herodotoren garaitik. Hori ez du inork zalantzan jartzen. Modernitatea baino lehenagoko nazioaren izaera da zalantzan jartzen dena. Alegia, Herodotok aipatzen dituen komunitate kulturalak zer diren, etniak ala nazioak. Hor dago kokxa. Hobsbawnek honela laburbiltzen du bere iritzia:

No obstante, la etnicidad en el sentido que le da Heródoto era, es y puede ser algo que une a poblaciones que viven en grandes territorios o incluso dispersas, y que carecen de una organización política común, y forma con ellas algo que puede denominarse «protonaciones». Es muy posible que sea el caso de los kurdos, los somalíes, los judíos, los vascos y otros. Esta etnicidad, empero, no tiene ninguna relación histórica con lo que constituye lo esencial de la nación moderna, a saber: la formación de un estado-nación, o, para el caso, cualquier estado, como demuestra el ejemplo de los griegos antiguos. (Hobsbawm, 1991, 71. or.).

Begirada modernoak nazio irudi biak, politikoa eta kulturala, aurrez aurre jartzen dituen arren, Azurmendik (2017, 9. or.), joko zelai propioa zedarritzen du perspektiba modernotik ezarri diren dikotomiak ekar ditzaketan interpretazio interesatutik ihes egiteko. Alde horretatik, Azurmendiren arabera, kontua ez da nazioa beltza edo txuria den, hots, eraikia edota naturala eta abar. Askoz konplexuagoa da nazioaren nolakotasunaren eta noizkotasunaren gaineko auzia. Hori dela eta, bere iritzia anakronikotzat jo duten autore batzuen aurka, honako hau dio: “nik uste dut nazioaren kontzeptu klasiko bat badagoela, fenomeno nazionala aski ongi hauteman eta jaso duena”. Ikuspegi horretan oinarrituz onartzen du nazioak eta nazionalismoak XIX. mendeko fenomeno sozialak direla. Aldi berean, ordea, “elite erromantiko” baten produktu edota “trenbide sare nazionalaren hedatzearen emaitza” dela esatea arriskutsua dela deritzo. Izan ere, “XIX. eta XX. mendeetan, nazioak eta nazionalismoak

izugarritzko inportantzia izan dutela” aitortu arren, bere ustez, “ezerk ez du justifikatzen horien erredukzionismoa aipatutako arrazoietara eta periodora”.

Europa Mendebaldeko gaur egungo nazio kontzeptua behar den bezala ulertzeko Azurmendik proposatzen du gutxienez greziarren garaitik iraun duen nazioaren gaineko ideia klasikotik abiatzea. Izan ere, bere hipotesiaren arabera estatu-nazioaren aroan erabat desitxuratu da nazioaren esanahia interesatuki.

Nazioaren kontzeptua gaur egun modu askotan da ekiboko eta nahasia. Hein handi batean, historiak edozein kontzepturen esangura aldarazi ohi duelako; eta, hein are handiagoan, Estatu moderno batzuen aldetik interes handiak daudelako ekibokoa izan dadin. Estatuon interesei amore emanez azken batean (“errealitateari” jaramon egitea dela esango dizute”), teoriko eta ikertzaile zenbaitek, nazio-estatuaren mesedetan, nazioa eta etnia bereizten dituzte, edo nazio politikoa eta kulturala kontra jartzen dituzte, etc. Nazio kulturalaren eta politikaren oposizioa neuri total engainagarria eta arriskutsua iruditzen zait, kulturaren eta politikaren oposizioa iradokitzen baitu. (Azurmendi, 2017, 16. or.).

Azurmendiren kasuan, nazioaren definizio klasikoa proposatzen duenean bi helburu ditu: bata, nazioaren izaera aurremodernoak erakustea; eta, bestea, hizkuntzak identitate nazionalean duen zentraltasuna azpimarratzea –kultura eta politikaren harremana birformulatzea–.

Alabaina, zertan datza Azurmendiren nazioaren gaineko ideia klasikoa? Galdera hori erantzuteko atzera begiratzea proposatzen du autoreak, hain zuzen ere, Grezia Klasikora. Azurmendik (2017, 14-36. or.) Herodotoren idatziak hartzen ditu abiapuntu gisa. Zehazki, persiar eta heleniarren artean gertatu zen gerra hartzen du hizpide. Nonbait “Bigarren Mediar Gerrakoan (480/479an K.a), armada persiar erraldoiari aurre egiteko, hiri grekoak Liga batean elkartu ziren”. Gogoratu garai hartan hiri grekoak polis izeneko hiribilduetan biltzen zirela. Euren artean etengabe gudukatzen ziren baina kanpoko mehatxuaren aurrean elkartzeko joera zuten. Are gehiago, Azurmendik honakoa azpimarratzen du “heleniarrek elkar hartu behar zuten, eta justifikaezina irizten zioten jatorri heleniarreko inork anai-arreben aurka “barbaroarekin” bat egiteari (nahiz eta hori ere behin baino gehiagotan ikusi den)”. Alde horretatik, bi jarrera desberdin agertu ziren heleniarren artean: bata, Atenastarrena; eta, bestea, Argosekoena.

Azurmendik aipatzen du “Atenastarrek mandatari espartarrei emandako erantzunean” esan zutela prest zeudela beren herrikide heleniarrekin batera “persiarren aurka gerrara” joateko. Eta arrazoi nagusia zen heleniar guztiek batasun bat osatzen zutela arrazaz, hizkuntzaz, erlijioz eta usadio eta ohituretan. Argostarrak, aldiz, persiar eta heleniarren arteko gerran “ez zuen Itunean parte hartu gura izan”. Zergatik? Ez zutelako Atenastarrek aipatutako batasun heleniar hori argi ikusten.

Argosek, Heladeko hiri zaharrenetakoa izateaz gain, “Iliadako hainbat heroiren sorterrria” izan behar zuen. Alabaina, Pelaskoa izana zen kulturalki “immigratzaile heleniarrek azpian hartu eta heleniartua” izan aurretik. Militarki ere gogor zapaldua izan zen Espartaren aldetik ondorengo urteetan. Menderakuntza zantzuak ageri dira borondatezko atxikimendua baino gehiago. Hori gutxi ez eta, persiarren mitologiaren arabera, “Argos/Mizenako errege mitiko bat Perseo” zen. Hori horrela izanik, atenastarrek gerra irabazi zutenean, argostarrek azpimarratu zuten persiarrek neutral izatea proposatu zietela argostarrei, persiarrekin Jainkozko arbaso amankomunak baitzituzten. Azurmendik dio, ordea, Herodotok bildutako informazioaren arabera, zurrumurruak zeudela argostarrak izan ote ziren “Persiarrengana laguntza eske jo zutenak Heladeri eraso ziezaion”. Azurmendik gertakari horretatik bi ondorio nagusi ateratzen ditu: bata, nazio klasikoaren definizioaren ingurukoa (Atenas); eta, bestea, nazio zapalduen desfase kultural eta politikoari dagokiona (Argos).

- Nazio klasikoa (Atenas): “Horretan datza heleniar guztiek elkar hartzeko eta barbaroekin ez bat egiteko arrazoi nagusia. Hau da: 1. “arraza” eta hizkuntza komuna (arraza eta hizkuntza jeneralean berdindu edo batu egiten dira: hizkuntza berdinak arrazaren berdintasuna erakusten du); 2. Kultura berdina (erlijioa); 3. Usadioak (tradizio eskubide edo lege bihurtutako jokamoldeak), eta 4. Ekandu edo ohitura berak. Nahi baduzu, nazioaren kontzeptu hori “kulturala” da, esan ohi den legez esateko. Baina kontzeptu “politikoa” da orobat, are politiko-militarra (abertzalea, testuinguruan garbi dagoenez: Atenasko hiriaren interes partikularren gainetik solidaritate nazionala dago, atenastarrak gertu egoteraino atzerritarren aurka haurride grekoen defentsan ondasunak galtzeko eta bizia bera emateko.” (Azurmendi, 2017, 18-19. or.)
- Nazio zapaldua (Argos): “Dena den, interesatzen zaiguna ez zen nazioaren definizioa: nazio klasiko normala zer den ikusi ere, nazioaren egoera edo izaera ez normala zer den hobeto ikusteko ikusi dugu, hau baita gure kasua (Ez diezaigun esijitu nazio apurtuari nazio osoaren kontzeptua hitzez hitz konplizea)”. (Azurmendi, 2017, 35. or.).

Bereizketa honekin lortu nahi dena da euskaldun nazioaren inguruan egiten den irakurketa beste begi batzuetatik aztertzea. Horrela, lan honetan ulertzen da Azurmendik nazio etniko/politikoaren irudia gainditu eta begirada alternatiboa proposatu nahi duela nazio auzia ulertzeko, betiere, botere desberdintasuna ardatz hartuta: nazio normalizatua (Atenas: batasun kultural-politikoa) eta nazio zapaldua (Argos: pitzadura kultural/politikoa). Hala, nazioak elkarren artean sailkatzeko jarraitzen den irizpidea jada ez da nazio bakoitzaren oinarrizko osagaia zein den (hizkuntza/borondatea), historian zehar nazio kultural bakoitzak bere burua erreproduzitzeko eduki duen ahalmen politikoa baizik (adibidez, estatudun nazioak eta estatu gabeko nazioak).

Perspektiba horretatik, goitik behera eraldatzen da euskal nazioaren gaineko irakurketa. Izan ere, fenomeno nazionala jada ez da zertan modernitate mugatu, aitzitik, garrantzitsuagoa bihurtzen da aztertzea zer pasa zen modernitatean nazioaren ideia klasikoarekin. Ildo horretatik, 1992an argitaratu zuen *Espainolak eta Euskaldunak*

liburuan Joxe Azurmendik proposatzen du euskal nazioaren bilakaera historikoa zibilizazioa/barbaroa ardatzean aztertzea.

Begirada honek bere muga enpirikoak ditu, izan ere, “pobrea” da euskal historia. Testu idatzi gutxi daude eta dauden horiek ia beti erdaraz eta erdaldunen begietatik daude idatzita. Edonola ere, erdal testu horiek aztertzeak aukera ematen du euskaldunen barbarizazio prozesua menderakuntza sistematiko gisa ulertzeko, bai Aro Modernoaren aurretik eta zer esanik ez ondoren. Alde horretatik, Azurmendik “Mito zaharretik ipuin berrira” atalean xehe-xehe azaltzen du Erromatarren lehen dokumentuetatik hasi eta Erdi Aroa bitartean nola erreproduzitu den euskaldun barbaroaren mitoa. Honatx, hipotesi nagusia esaldi batean laburbilduta:

Grekoak barbarotzat zeukan erromatarra: baina erromatarrak grekoa ezpataz garaitu zuen eta zibilizatu egin zen. Erromatarrak barbarotzat zeukan germanoa: baina germanoak erromatarra ezpataz garaitu zuen eta zibilizatu egin zen (bisigodo, franko). “Barbaroak”, orduan, euskalduna jo zuen barbarotzat. Eta horra komeria: euskaldunak ez du oraindik “barbaroa” ezpataz garaitu zibilizatuena bera izateko. (Azurmendi, 2000, 44-45. or.).

Zibilizatu gabe iritsi da euskalduna modernitatera. Hala, begirada alternatibo honek tresna teorikoak eskaintzen ditu Moderniarik gabeko nazio bati sufritzea egokitu zaion biolentzia epistemologikoa ulertzeko. Alde horretatik, Azurmendiren (2000, 417-443. or.) arabera, bi dira Erdi Aro osteko mundu berri baten eraikuntzan elementu zentralak: bat, nazioen errenazimendu kulturala; eta, bi, Estatu Modernoaren sorrera. Mundu berri hori sortu da Erdi Aroko munduaren errautsen gainean, alegia, haustura humanistaren, XV. mendean elizaren baitan gertatu zen zatiketaren –protestanteak/katolikoak– eta latinaren gainbeheraren ondorioz. Urte horietan gertatzen dena da latinak aurrez betetzen zuen lekua –elizan, administrazioan edota zientzian– beste herri hizkuntza batzuek beteko dutela. Zein dira hizkuntza horiek? Hain zuzen ere, horiek izango dira Estatu beregaina lortu duten nazioek hitz egiten dituztenak. Aldiz, erdi bidean gelditzen dira Estaturik lortu ez duten naziotako hizkuntzak, ez aurrera eta ez atzera. Euskaldunen kasua azken kasu honi dagokio.

Alde horretatik, zer gertatzen da Modernitate hegemonikoaren trena galdu zuten nazioekin? Historia propioa du nazio horietako bakoitzak. Euskal nazioari dagokionez, izan zuen bere errenazimentutxo propioa, baina berantiarra eta ez oso oparoa (Azurmendi, 2000, 328-329. or.). Horretan eragina zuen Estatu beregainik ez edukitzeak eta elitea erdaldundua izateak. Beste behin ere, desfase kultural eta politikoa bistaratzen da euskaldunen historian. Kontraesan eta hutsunez bete da euskal errenazimendua: goi kargudun gutxi –Oihenart–, elizgizon apur batzuk –Sarako Etxeberri, Axular–, eta hori gutxi balitz horietako zenbaitek erdal hizkuntzan idatziko dute euskararen inguruko

goratzarrea –Larramendi–. Azurmendik azaltzen duen moduan, Nafarroako Erresumaren konkistarekin egin zuen ihes euskaldunen aukerak Modernitate hegemonikoaren trenera igotzeko. XVII. eta XVIII. mendeetan euskaldunak kulturalki faltan botako du babes politikoa. Politikoki, berriz, bi zentrotan zatitzen da euskal nazioa –Espainia eta Frantzia–.

Estatu-nazioaren aroa arduratzen da Erdi Arotik zetozen Nafar Erresumaren aztarna politiko guztiak asimilatzeaz. Hamaika gorabehera eta gero, 1789an guztiz urtzen dira Nafarroako Erresumaren azken egitura juridikoak Frantziako estatu-nazioaren baitan. Mende bat geroago, beste horrenbeste gertatzen da Hego Euskal Herrian Foruekin. Estatu-nazioaren aroan egokitu egiten da boterearen legitimitatearen gaineko justifikazioa. Nazio politikoa da boterearen errelato berria, aurrez legitimitate jainkotiarrek justifikatzen zuena. Fase honetan zibilizatuen begietan barbaroak kultura primitibo izatera pasatzen dira eta nazio politikoarekin berdintzen da zibilizazioa. Kontakizuna eta kategoriak fintzen doaz garai historikoaren arabera; alabaina, konstante mantentzen da aurrez aipatutako zibilizazio/barbaro ardatza. Ikuspegi horretatik zentro arrotzetik aurrerapenaren antitesizat joko da primitiboen aldarrikapen nazionalista oro. Beste noranzkoan, berriz, zibilizazioaren izenean homogeneizazio kulturala jartzen da martxan Estatuaren aparatuetatik primitiboen hizkuntza espazio pribatura bultzatuz eta eremu publikoa zentroko kulturari esleituz.

Estatu modernoaren gerizpe faltak ekarri du euskal nazioa modernitate “gabeko” nazioa izatea. Izan ere, oztupoak izan ditu errenazimendu propioa sustatzeko eta erreproduzitzeko. Ondorioz, biolentzia kultural, politiko eta epistemikoa jasan behar izan du mende luzez. Horrek guztiak ekarri du euskal nazio naturalaren galera. Euskal nazioak euskara galdu badu ez da berez gertatu delako: menderakuntza egoera bizi duelako baizik. Nazio normalizatua ez izatearen ondorioa da pitzadura kulturala eta politikoa. Ildo horretatik, honakoa litzateke euskal nazio klasikoa egoeran normalizatuan dagoena:

(...) euskalduna euskarak egiten du. Euskara (euskaldunen) komunitatea da. Euskararen erkidegoak dago euskalduna, eta euskaldunek dago euskal erkidegoa. Hori da edozein naziotan normala, ez dago beste misteriorik. (Azurmendi, 2017, 73. or.).

Euskal ikerketak egiterakoan, euskal auziaren inguruan ez litzateke misteriorik egongo euskal nazioak egoera normalizatua izango balu. Errealitatean, ordea, ez da nazio normalizatua. Puskatan zatituta dago (bi estatu arrotzei subordinatua) eta apala da euskararen erabilera naziokideen artean (asimilazio prozesuak bere bidea egina du). Horra lehenago aipatutako pitzadura kultural/politikoa–. Menderakuntza egoera

horretatik sortzen dira zailtasunak euskara gabeko Kaskanteko herritarra euskaldun den edo ez erantzuterakoan (Azurmendi, 2017, 79-85. or.). Horren aurrean bi aukera zabaltzen dira: lehena, euskal kasua akademian hegemoniko den begiradatik aztertzea, eta horrek dakarren ondorioa da euskaldunaren gaineko biolentzia epistemikoa erreproduzitzea; eta, bigarrena, nazio zapalduaren perspektiba hobetsi eta Espainiar eta Frantziarren sukurtsalak izateari uzteko ahalegina egitea.⁶⁹

Euskal Herria gaur kontzientziaren ospitale bat da. Gehienok erdi puskak gara: erdi euskaldun, hiru laurden euskaldun. Kaos horretatik zer irtengo duen, euskal nazio ala espainol azkenean erromanizatu, lanak eta borrokak esango du. [...] Euskal nazioa atomizaturik dago. Bildu egin behar da. [...] Itzuli beharra daukagu atzera, izandu gabe geratu ginen Ernazimendu hartara: Euskararen Ernazimendura baino gehiago, Ernazimendu euskarazko batera. Gure buruaren aurkikuntza eta libertatera. (Azurmendi, 2000, 580-581. or.).

Euskarazko Errenazimenduaren proposamena bat dator soziologia postmoderno kritikoaren perspektibatik proposatzen den pluralismo epistemologikoarekin hainbat puntutan: bat, gonbita egiten du objektu izateari utzi eta subjektu gisa ezagutza sortzeko, betiere, mendeko egoera iraultzeko disposizioarekin; bi, atomizaturik dagoen nazioa – dibisio etniko/politiko – biltzeko xedea du; hiru, hori gutxi ez eta zoru legitimoa eskaintzen du ikerlari gisa menderakuntzaren aurrean engaiatzeko. Hori horrela izanik, nazio klasikoaren ideiak eskaintzen dituen tresna teorikoez baliatzen da lan hau nazio zapalduaren ereduaren bidez euskal lerrokatze linguistiko elektorala interpretatzeko.

2.2.2 Euskal nazioaren dibisio –etniko/zibikoa– josten

Aurreko azpikapituluan ikusi da euskal epistemizidioda saihesteko ezinbestekoa dela nazioaren gaineko dikotomia etniko/zibikoa gainditzea. Horren aurrean proposatzen da euskal lerrokatze linguistikoa nazio zapalduaren ereduaren arabera lantzea. Horretarako, lan honek nazio klasikoaren ideia hartzen du erreferentzia moduan, zeinak korrante modernistak ezartzen dituen eztabaida markoak gainditu eta alderdi

⁶⁹ Honatx, Azurmendiren (2017, 105-106. or.) hitzak: “Orduan, Madril eta Parisen sukurtsal politikoak izan gura ez badugu, ezin gara sukurtsal mentalak izan. Gure arazoak geuk gure buruan sinesteko. Jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat [...]. Eta gero, askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako. Kontzientziaren askapena, berriz, ikasiz eta ikasiz burutzen da. Mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta dotrinekin. Ikasten duguna, gure herriarentzat ikasi beharko dugu (ez akademiarentzat soilik); pentsatzen duguna, geure jendearentzat pentsatu, ez itzulpenarentzat. Ez pentsatu esportaziorako pentsatzen edo idazten dugula.”

sistemaren irakurketa egiteko aukera berriak ematen dituen (Azurmendi, 2000; 2017). Ibai Iztuetak ematen ditu honen inguruan lehen argibideak.

Hizkuntzak ez dira herrietakoak, baizik eta herrienak. Horregatik, ulertu behar da, partikulariki herri gutxituen kasuan, herriaren erantzukizuna ez dela bere hizkuntza gutxituak erabiltzeko aukera babestu eta bermatzea, baizik eta hizkuntza gutxituen erabilera bultzatzea. Horregatik, egoera ideal batean, herriari dagokion diskurtsoa erabileraren diskurtsoa da, zeinaren arabera, taldeko partaide izateko herriaren hizkuntza erabiltzea beharrezkoa eta nahikoa dela ezartzen baita, beste hizkuntza batzuen ezagutzari buruzko gaietan sartu gabe. Beraz, herritarraren kasuan, identitatea hizkuntza baten ala bestearen erabilerak definitzen du.

Hiritar guztiak herritarrak dira, eta alderantziz. Alabaina, gaur egun, gizarteetan herri bat baino gehiago izatea nahiz herri bat gizarte bat baino gehiagotan zatitua egotea ohikoa da. Hau da Euskal Herriaren kasua. Euskal Herrian alderdi politikoak dira bi kontzeptu hauen arteko bitartekaririk behinenak, teoriarik behintzat, alde herrien eta alde gizarte erakundearen eskubide eta betebeharrak ordezkatzen dituztelako.

Euskal Herrian, tamalez, hizkuntza gutxituari dagokionez, ez dira egokienak ez gizarteek ez herriek jokatzen dituzten paperak. (I. Iztueta, 2015, 173. or.).

Perspektiba horrek ahalbidetzen du clivajeen teoriari bihurritu bat ematea. Alegia, irakurketa estatutik abiatu beharrean, irakurketaren erdian nazioa jartzea –osotasun partzial gisa–. Aldaketa honekin bereiztea proposatzen da saretze bertikalaren ideia eta clivajearena. Hala, saretze bertikalaren kategoria erabiltzen da naziogintza prozesuaren nondik norakoak zehazteko. Izan ere, nazio klasikoaren arabera kultura ulertzen da osotasun bat bezala. Clivajea, berriz, Estatuaren baitako gatazkak identifikatzeko erabili beharrean –adibidez, nazionalismo periferikoa–, proposatzen da nazio bakoitzaren baitako gatazka eta zatiketak izendatzeko erabiltzea –soziala, erlijiosoa edota territoriala–. Bereizketa honek aukera ematen du Hego Euskal Herriko alderdi sistema euskal pentsamendu deszibilizatuaren perspektibatik berrinterpretatzeko.⁷⁰ Lan guztian zehar ikusten den moduan, bide luze baten emaitza izan da ikuspegi horretara iristea.

Horren inguruko xehetasunak aurkezten dira ondorengo atalean. Horretarako, bi azpikapitulu bereizten dira: lehenik eta behin, frankismo ostean ospatu diren hauteskunde autonomikoetan (1980-2016) parte-hartu duten alderdiak sailkatzen dira lortutako ordezkaritzaren arabera; bigarren puntuan, irizpide berriak proposatzen dira ordezkaritza lortu duten alderdiak sailkatzeko.

2.2.2.1. Alderdi politikoak Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan, batzaz beste, hamar alderdi baino gehiago aurkeztu dira 1980tik hasi eta 2016ra arte. Alabaina, horietatik zenbatek lortu dute ordezkaritza EAEko edota NFEko parlamentuan? Berebiziko garrantzia du galdera hori argitzeak. Izan ere, alderdi horiek izango dira Hego Euskal Herriko alderdi

⁷⁰ Auzi honen inguruan autoreak garatu zituen lehen gogoetak honako artikulua hauetan daude argitaratuta (H. Garmendia eta Urteaga, 2019; H. Garmendia, 2019).

sistemaren bizkarrezurra zein elementu sozialek osatzen duten identifikatzeko erabiliko diren adierazleak.

Gauzak horrela, hasteko eta behin, egiten dena da 1980tik 2016ra bitartean EAeko eta NFEko hauteskunde autonomikoetara aurkeztu diren alderdi politiko guztiak zerrendatzea. Bi multzotan banatu dira azken horiek: batetik, parlamentuan eserlekua lortu duten alderdiak; eta bestetik, eserlekurik lortu ez dutenak. Lan honetan bereziki lehen horiek dira interesgarrienak, alderdi sistemaren hezurdura zedarritzen baitute.

NFEko hauteskunde autonomikoei⁷¹ dagokionez, bederatzia hauteskunde antolatu dira 1983-2015 bitartean. Horietan guztietan, bost eta zortzi artean izan dira ordezkariak lortu duten alderdiak. Alde horretatik, 1987ko hauteskunde osteko legegintzaldian egon da inoiz ordezkariak lortu duen alderdi kopuru handiena (8), gutxien, aldiz, 1983an eta 1991n (5). Gainerako urteetan 6 edo 7 izan dira parlamentuan ordezkariak lortu duten alderdiak.

15. taula: NFEko hauteskunde autonomikoetara aurkeztu diren alderdi politikoak (1983-2015).

Hauteskundeak eta aurkeztutako alderdiak	ALDERDIAK	URTEAK	1983	1987	1991	1995
		Denera	10	12	11	10
Eserlekua BAI	-	PSOE UPN AP-PDP-UL HB PNV	PSN-PSOE UPN HB CDS EA UDF FAP EE	UPN PSN-PSOE HB EA IU	UPN PSN-PSOE CDN IUN/NEB HB EA	
Eserlekua EZ	-	AUZOLAN P.CARL. EE PCE LC	BATZARRE IU EAJ-PNV PTE-UCE	BATZARRE EE CDS PAG EAJ-PNV P.CARL.	BATZARRE NA PIE P.CARL.	
		1999	2003	2007	2011	2015
Denera		8	10	8	13	14
Eserlekua BAI		UPN PSN-PSOE EH IUN-NEB CDN EA/EAJ-PNV	UPN PSOE IUN/NEB ARALAR CDN EA/EAJ-PNV AUB*	UPN NaBai PSN-PSOE CDN IUN-NEB ANV*	UPN PSN-PSOE NA-BAI 2011 BILDU PP IZQ-EZK	UPN Geroa Bai EH BILDU Podemos PSN I-E PP
Eserlekua EZ		IN EKA (P.CARL.)	BATZARRE PH EKA	RCN-NOK EKA	CDN ECOLO RCN-NOK UPyD IXN SAIn DNE	Ciudadanos PACMA Equo UPyD RCN-NOK LN SAIn

Iturria: Nafarroako Estatistika Zentroa.

Oharra: 2003ko eta 2007ko NFEko hauteskunde autonomikoetan legez kanpokotzat jo zituen Auzitegi Gorenak AuB eta ANV alderdiak. Azken horiek, ilegalizazioaren aurrean boto baliogabea eskatu zuten. Alderdiok ordezkariak lortuko lukete baldin eta boto horiek baliodunak izan balira. Bigarren egoera horren arabera osatu da taula.

EAeko hauteskunde autonomikoei dagokienez, hamaika hauteskunde antolatu dira 1980-2016 bitartean. Horiek guztiak kontuan harturik, EAeko Legebiltzarrean

⁷¹ Zuzenago esanda Nafarroako Foru Hauteskundeak dute izena. Alabaina, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Hauteskundeekin ez nahasteko erabaki da Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei autonomikoak deitzea.

hauteskunde bakoitzeko 5-7 alderdik lortu dute ordezkariak. Alde horretatik, 2009ko hauteskundeak izaera berezia dute. Ilegalizazioa medio, D3M zerrendari zegozkion eserlekuak beste alderdien artean banatu baitziren, horietako bat, EB-B alderdiari egokitu zitzaion. Alabaina, D3Mren botoak baliodunak izan balira, EB-B alderdiak ez luke ordezkariarik eskuratuko. Bost alderdik eskuratu dute eserlekuren bat ordezkariak lortu duten alderdien kopurua apalena izandako hauteskundeetan. 2005eko hauteskunde autonomikoetan, berriz, sei izan ziren parlamentuan ordezkariak lortu zuten alderdiak.

16. taula: EAEko hauteskundetara aurkeztu diren alderdi politikoak (1980-2016).


URTEAK			1980	1984	1986	1990	1994		
	Denera		16	12	16	19	8		
Hauteskunde ak eta aurkeztutako alderdiak	ALDERDIAK	Eserlekua BAI	-	EAJ-PNV HB PSE-PSOE EE UCD AP PCE-EPK	EAJ-PNV PSE-PSOE HB AP-PDP-UL EE	EAJ-PNV PSE-PSOE HB EA EE AP-PL CDS	EAJ-PNV PSE-PSOE HB EA PP EE U.AL.	EAJ-PNV PSE-EE/PSOE HB PP EA EB-B U.AL.	
		Eserlekua EZ	-	EMK-MCE ESEI LKI-LCR ORT-PTE PSOE(H) EKA PST UC FE-JONS	PCE-EPK AUZOLAN CSI PST PCE(M-L) EMK-MCE POI	EB-B PCE-EPK PST PH POSI UPR CSI EMK-MCE LKI-LCR	EB-B CDS DS LVE ARM-ADE EHB PST PH LKI-EMK AR EK-PCPE PCE(M-L)	CNPS	
			1998	2001	2005	2009	2012	2016	
		Denera	10	10	12	15	19	16	
		Eserlekua BAI	EAJ-PNV PP EH PSE- EE/PSOE EA EB-B U.AL	EAJ-PNV/EA PP PSE- EE/PSOE EH EB-B	EAJ/EA PSE- EE/PSOE PP PCTV-EHAK EB-B ARALAR	EAJ PSE-EE/PSOE PP ARALAR EA UPYD D3M*	EAJ-PNV EH BILDU PSE- EE/PSOE PP UPYD	EAJ-PNV EH BILDU PODEMOS PP PSE-EE/PSOE	
		Eserlekua EZ	PLN-LNA PH EHB	PH PKD TD ASKATASUN A EKA	U-AL BERDEAK- PAGMA POSI PH PUM+J EKA	EB-B BERDEAK-LV PUM+J ATTKA/PACM A POSI PFYV PH EKA	IU-UPEC EB-B EQUO EB-AZ ATTKA/PACM A HARTOS.OR G PUM+J PH PFYV POSI UCE EK-PCPE O.E. PYC	C'S ATTKA/PACM A GANEMOS RECORTES CERO-GV PFYV EB-AZ VOX EK-PCPE O.E. PH LN	

Iturria: Eusko Jaurlaritzak.

*Oharra: 2009ko EAEko hauteskunde autonomikoetan Auzitegi Gorenak legez kanpokotzat jo zuen D3M zerrenda. Azken honek, ilegalizazioaren aurrean boto baliodunak eskatu zuten. Boto horiek baliodunak izan balira, alderdi horiek ordezkariak lortuko lukete. Bigarren egoera horren arabera osatu da taula.

Orain arte aztertu da hauteskunde hauteskunde zein alderdik lortu duten ordezkariak EAEko eta NFEko hauteskundeetan. Hurrengo pausoa da ikustea ordezkariak lortzen duten alderdiek, guztira, hauteskundetara aurkeztu diren alderdiek jasotako botoen zenbatekoa lortzen duten. Interesgarria da datu hau kontuan hartzea, bereziki alderdi sistemaren bidez gizarteko zatiketa nagusiak identifikatu nahi diren kasuetan.

10. irudia: Alderdi sisteman ordezkari-tza lortzen duten alderdiek jasotako botoak %tan.



Iturria: Nafarroako Estatistika Zentroa eta Eustat.


Oharra: 2009ko EAEko hauteskunde autonomikoetako datua kalkulatzeko alderdiek jasotako botoak bezala zenbatu dira D3Mren botoak –boto baliogabeak–. Beste horrenbeste egin da 2003ko eta 2007ko NFEko hauteskundeetan AuBk eta EAE-ANVk jasotako botoekin.

Datuek erakusten dute alderdi guztiek jasotako botoen %90a baino gehiago lortzen dutela parlamentuan ordezkari-tza lortzen duten alderdiek 1980tik 2016ra Hego Euskal Herrian ospatu diren hauteskunde autonomiko guztietan. Zenbait kasutan, gainera, alderdiek jasotako botoen ia %100a lortzen dute. Beraz, gizartearen baitan dauden interes nagusiak ezagutzeko lagin bikaina da hauteskundeetan ordezkari-tza lortu duten alderdiek osatzen duten alderdi sistema. Lipset eta Rokkanen esanak gogora ekarriz, alderdi horiek multzokatzerakoan hobesten diren irizpideek baldintzatzen dute gizarteko zatiketen gaineko interpretazioa. Gauzak horrela, hurrengo eginbeharra da alderdi sisteman ordezkari-tza lortzen duten alderdiak multzokatzuz irizpideak berrantolatzea. Izan ere, Mediterranearen ereduaren oinarrian dagoen begirada modernistak badu alderdiak multzokatzeko bere filosofia propioa. Horregatik, azken horrek hobesten duen proposamena aztertzen da aurrena. Horren ostean, nazio zapalduaren eredu lantzen da azken horren hutsuneak osatzeko asmoarekin.

2.2.2.2. Irizpide berria alderdi sistema sailkatzeko

Atal teorikoaren lehen zatian ikusi da begirada modernistak (bereziki, Mediterranearen ereduak) arazoak dituela euskal lerrotatze elektoralaz azaltzeko. Zehatzago esanda, alderdi sistema aztertzerakoan zalantza sortzen da “alderdi periferiko” gisa kategorizatzen diren alderdien jatorri nazionala zehazterakoan. Honakoa da askatu gabe gelditzen den korapiloa: zein oinarri teorikok justifikatzen du alderdi periferikoen arteko –erregionalista eta nazionalista– bereizketa?

11. irudia: CISEk hobesten dituen irizpideak alderdi sistema bereizteko.



Iturria: Egilea.

Labur azaltzeko, alderdiaren jardura eremua da eskema modernistaren arabera alderdiak multzokatzerakoan kontuan hartu beharreko aurreneko aldagaia. Horren arabera, bi multzo bereizten dira: estatalak eta periferikoak. Azken multzo honen baitan, beste bi multzo daude: erregionalistak eta nazionalistak. Nazionalista izan edo ez izateak banatzen ditu bi azpimultzoak. Alabaina zer da ez-nazionalista izatea?

Berdin da kategoria zein den –ez-nazionalista, estatalista, autonomista, patriota...–. Aipatutako dikotomia horien atzean mito moderno agertzen da behin eta berriz. Honakoa da azken honek betetzen duen funtzioa: euskal alderdi nazionalistak fenomeno partikular gisa aurkezten diren bitartean, unibertsal abstraktuaren babesean ikusezin egitea Espainiar estatua beregain duten espainiar alderdiak. Begirada honetatik, euskal alderdi abertzaleak dira aldarrikapen “etniko eta separatistak” egiten dituzten antolakundeak. Azken horiek, mito modernoaren arabera, giza eskubide indibidualen, unibertsaltasunaren eta aurrerapenaren aurka doaz. Aurrez ikusi den moduan, logika horretatik esleitzen dira bestelako konnotazio negatiboak: batasuna arriskuan jartzea; esentzialista, atzerakoia edota azken muturrean izaera biolentzia izatea.

Alabaina, argudio horiek indargabetuta gelditzen dira nazio zapalduaren eredutik abiatuz gero. Izan ere, eredu honek gaituztu egiten du ikuspegi modernistak hobesten duen dikotomia etniko/politiko. Hau da, euskal nazioa Espainiar estatuko erregio bateko komunitate etnikoa dela dioen kontakizuna. Ildo horretatik, nazio zapalduarenereduak azpimarratzen du Euskal Herriko alderdi sistema aztertzerakoan koordinadak ezarri behar direla euskal matrize tenporal/espazialaren arabera. Ikuspegi horretatik, euskal alderdiek Espainiar eta Frantziar estatuaren periferia izateari uzten diote. Euskal nazioa da zentro berria (kultura eta politikaren sinbiosia). Aldaketa honek, berebiziko eragina du alderdi sistemaren interpretazioan.

17. taula: Euskal Herriko alderdi sistemaren gaineko interpretazioa.

	IRIZPIDEA	ALDERDI SISTEMAK AZTERTZERAKOAN JARRAITZEN DIREN IRIZPIDEAK
1	IKUSPUNTU PLURIBERTSALETIK OSOTASUN PARTZIALA DA NAZIOA Saretze bertikala	LEHEN IRIZPIDEA: Ze naziotako alderdiak/koalizioak daude Euskal Herriko alderdi sisteman? <ul style="list-style-type: none"> • Frantziako naziotik erditutakoak • Espainiar naziotik erditutakoak • Euskal naziotik erditutakoak
		BIGARREN IRIZPIDEA: Zein da nazio bakoitzak estatu-nazioarekin duen harremana? <ul style="list-style-type: none"> ❖ Estatua beregain duten nazioak: <ul style="list-style-type: none"> • Nazio frantsesa • Nazio espainiarra ❖ Estaturik beregain ez duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Nazio euskalduna
2	ZATIKETAK (KOMUNITATE NAZIONALAREN BAITAN) Clivajea	HIRUGARREN IRIZPIDEA: Nazio bakoitzaren baitan, zenbat clivajek lortu dute alderdiak/koalizioak egituratzea? <ul style="list-style-type: none"> ❖ Estatua beregain duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Frantziako nazioaren kasuan: (ikerкета honen mugak gainditzen ditu) • Espainiar nazioaren kasuan: 2 zatiketa <ul style="list-style-type: none"> ➢ Zentro eta periferia ➢ Burgesia vs langilea ❖ Estaturik beregain ez duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Euskal nazioaren kasuan: 2 zatiketa <ul style="list-style-type: none"> ➢ Nazionala eta erregionalak ➢ Burgesia vs langilea ardatza

Iturria: Egilea.

Gauzak horrela, honakoa da alderdiak bereizteko proposatzen den aurreneko galdera: *Zein naziotako alderdiak/koalizioak daude Euskal Herriko alderdi sisteman?* Alderdien jatorri nazionalari dagokionez, alderdi espainiarrek eta euskaldunek lortzen dute ordezkartza Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan. Aldiz, Ipar Euskal Herriko hauteskunde erregionaletan ordezkartza lortzen duten alderdiak frantziarrak eta euskaldunak dira (Urteaga, 2020). Ondorioz, euskal lurraldean ikusten da hiru nazio desberdinetako alderdiek lortzen dutela ordezkartza: euskaldunak, espainiarrak eta frantziarrak. Ildo horretatik, Hego Euskal Herriko kasua aztertzen da lan honetan; alabaina, aurrera begira aipatu nahi da ikerketa marko honek aukera eskaintzen duela euskal lerrokatze linguistiko elektoralara bere osotasunean aztertzeko. Alegia, posible da begiradaren ardatza Madrilen eta Parisen ezarri gabe, Euskal Herrian gertatzen den fenomeno euskal begiradatik interpretatzea. Horretarako, lan honetan hobesten da euskal alderdi gisa kategorizatzea euskal saretze bertikalaren parte diren alderdi guztiak. Azken horiek, berriz, izaera desberdina izango dute euskal nazioaren baitan egiturazkoak diren clivajeen arabera –soziala, erlijioso edota territoriala–. Beste horrenbeste gertatzen da erdal alderdien kasuan ere –espainiarrekin eta frantsesekin–.

Behin abiapuntu hori onartuta, bigarren pausoa da azpimarratzea zatiketa guztien unitatea nazioa dela, ez Estatua. Horregatik, honakoa izatea proposatzen da alderdiak bereizteko egin behar den bigarren galdera: *Zein da nazio bakoitzak Estatuarekin duen harremana?* Galdera honen bitartez, naziotasunaren zatiketa etniko/politiko gainditu nahi da arreta botere harremanetan ezarriz. Euskal nazioaren kasuan, azken honek ez du

Estatu beregainik, bai aldiz espainiar nazioak. Ñabardura hori egitea ezinbestekoa da, besteak beste, nazio batek Estatu bat beregain izan edo ez izateak, bere baitan sortu daitezkeen zatiketa posibleak baldintzatzten baititu.

Hirugarren galdera, berriz, honakoa da: *Nazio bakoitzaren baitan, zenbat clivajek lortu dute alderdiak/koalizioak egituratzea?* Alde horretatik, bi dira euskal eta espainiar alderdiak ezaugarritzen dituzten clivajeak: territoriala eta soziala.

Clivaje territorialaren kasuan, bereizi egin behar dira estatudun naziotan edo estatu gabeko nazioetan hartzen duen forma. Izan ere, desberdina da lurraldetasunaren ikuspegitik nazio horien artean sortzen diren zatiketen izaera. Estatua beregain duten nazioaren gainean artikulatzen diren alderdiak zentro/periferia ardatzaren gainean eratzen diren bitartean, estatua beregain ez duten alderdiak artikulatzen dira nazionalak/erregionalak ardatzaren inguruan. Izan ere, ezinezkoa da alderdiak zentro/periferia ardatzean artikulatzea baldin eta alderdi baten jatorrizko nazioak zentro politikorik –Estatu– beregainik ez badu. Alde horretatik, lan honetan ulertzen da euskal nazioaren baitan zatiketa hau gertatzen denean, nazio puskatua izatearen ondorioz gertatzen dela. Horrek eragiten du lurraldetasunaren ikuspegitik barruti desberdinetako euskal alderdi edo koalizio erregionalak sortzea. Azken batean, bi estatu desberdinetan egoteak zaildu egiten du alderdi politiko berberak estrategia bateratu bat martxan izatea Ipar eta Hego Euskal Herrirako elektoralki eraginkorra dena. Gauzak horrela, zatiketa kultural/politikoak eragiten du bai eskuinean⁷² eta bai ezkerrean⁷³ nazioaren erregio

⁷² Interesgarria da EAJk XX. mendearen hasieratik 80ko hamarkada bitarte ikuspegi honetatik izandako bilakaera. Ahedok (2004, 32-34. or.) xehetasunez laburtzen du EAJk Iparraldean izandako bilakaera. Hala, ikerlari honek zehazten du 1990 arte ez zuela erakutsi jarrerarik alderdi politiko gisa Ipar Euskal Herrian eragiteko. Alde horretatik, azken honek aipatzen du EA alderdia izan zela 1986an euskal alderdi nazional bat sortzeko jarrera erakutsi zuena, eta ondorioz, EAJk bere egiturak antolatu behar izan zituen. Hala sortu zen, Ipar Buru Batzarra 1990ean. Ximun Haran izan zen lehen lehendakaria. Horregatik guztiagatik, Hego Euskal Herriko hauteskundeak aztertzerakoan, EAJ aztertzen da Hego Euskal Herriko alderdi politiko erregional baten moduan 1980-1990 bitartean. Aldiz, 1990tik aurrera kategorizatzen da alderdi nazionalista eta nazional gisa.

⁷³ Aipatutakoa konstante bat izan da azken 40 urtean, bereziki euskal alderdi ezkertiarren artean. Honatx, Iparraldetik Davantek (1977, 246. or.) esandakoak 1974an ezkerreko euskal alderdi nazionala eratzeko zailtasunaren inguruan: “H.A.S.-en estrategia, euskalduna gelditzen da. Horren abertzaletasuna bi bider agertzen da, eta bereziki sortu orduko asmatu (ala amestu?) zuen xedean: Euskadi guziko Alderdi Sozialista bakar bat eraiki nahi zuen. Sail ederra, guztiz mundu zabalari begira! (...) Baina pentsatzekoa zen H.A.S. bezalako erakunde ttipi batentzat, ezin obratuzko lana zela hori, eta hego aldekoek ez zutela ipar aldekoen gidaritzarik onartuko, indarra Bidasoaren hego aldetik baitago, eta ez ipar aldetik. Bistan da Zazpiak-Bat egiteko, epe luzea beharko dela, eta hori kunplitu arte beren autonomia begiratu beharko dutela, bai ipar aldeak bai hego aldeak, ezen baldintza eta egoerak desberdinak dira han eta hemen. E.T.A.ko batzuek ipar aldean huts egin dutena, are gehiago nolaz guk hego aldean erdiets genezake?”. Handik urtebetera sortu zen E.H.A.S alderdia (1975), hain zuzen, Iparraldeko H.A.S eta Hegoaldeko E.A.S. alderdien elkartzetik. Azken hori izan zen lehen alderdia Bidasoako bi aldeak jarduera eremu zituena. Edonola ere, 1978an azken hori H.A.S.I. izatera igarotzen da Hego Euskal Herrian, aldiz, Euskal Batasuna sortzen da Iparraldean beranduago (Ahedo, 2004, 25-32. or.). Gauzak horrela, HB izango da Ezker abertzaleak Hego Euskal Herrian erreferentzia moduan izango duen koalizioa 80ko hamarkadatik aurrera. Beste alderdia, EE da euskal abertzaletasunaren baitan ezkerreko espazioa bere egingo duena. Azken hori, ordea, PSEren baitan urtuko da 90eko hamarkadan. HBri dagokionez, ilegalizazioaren aurrean, badaezpada, EH izeneko hautes


batean soilik jarduten diren alderdiak egotea. Hala, batasun sinbolikoa galdu gabe, ahalegina egiten dute euskal alderdiek lekuan lekura egokitzeko. Alderdi periferikoei dagokienez, teoriak dio zentroarekiko erreakzioz sortzen direla. Honakoa da azken horien aldarrikapen nagusia: periferiarentzat baliabide ekonomiko, kultural eta politikoen banaketa justuagoa eskatzea. Beren partikularitasun erregionala aldarrikatzen dute, baina zalantzan jarri gabe Estatuaren atzean ezkutatzen den batasun nazionala.

Adibide konkretuak aipatzen hasiz gero, alderdi periferikoak dira, besteak beste, UPN eta Unidad Alavesa alderdiak. Aldiz, zentroko alderdiak bezala kategorizatzen dira Estatu mailan ordezkariak lortzen duten alderdiak (adibidez, PP edo PSOE). Euskal alderdien kasuan, alderdi nazionalak dira Euskal Herriko barruti osoan eragite asmoa dutenak (Sortu, EA edota EAJ), aldiz, erregionalak dira Euskal Herriko erregio baterako soilik osatutako alderdi edota koalizioak (EH Bildu, Geroa Bai edota EH Bai). Lehenago esan bezala, azken horiek aurkezten dira euskal lurraldearen baitan eremu jakin batean, eta euren funtzioa da euskal “zentroaren” aurka baino gehiago nazioaren baitako pitzadurek –bi estatu eta administrazio desberdinetan banatuta egoteak– elektoralki sortzen dituzten mugei irtenbidea eskaintzea.

Auzi sozialari dagokiona da Hego Euskal Herriko alderdi sisteman agertzen den bigarren clivajea. Lehenago esan bezala, bi naziotan agertzen da clivaje hori; bai euskalduneari baita espainiarrean ere. Nazio zapalduaren ereduaren arabera, zatiketa honetatik sortzen diren alderdiak ulertu behar da partikularitasun nazionalen batean zurkaizten direla. Hortik aurrera, batzuk ezkertiaragoak dira eta besteak eskuindarragoak.

elkartearen baitan aurkeztu ziren. Azken honek ez du luze iraungo. Lizarra Garazi eta gero, Ezker Abertzalea bi alderditan bereizi zen: Aralar eta Batasuna. Alde horretatik, Aralarren jarduera eremua Hego Euskal Herria izango den moduan, Batasuna alderdi gisa igaroko da jarduera eremu nazionala edukitzera. Ilegalizazio prozesua eta gero, azken hori Sortu izenean birsortu eta jarduera eremu nazionala izango du, nahiz eta koalizio erregional desberdinetan parte hartuko duen.

12. irudia: Alderdi sistemaren banatzeko proposatzen dugun irizpidea.



Iturria: Egilea.

Nazio zapalduaren ereduak errotik aldatzen ditu Euskal Herriko alderdi sistema azaltzeko irizpideak. Horrek, alderdien sailkapenean berebiziko aldaketa dakar. Izan ere, Euskal Herriko alderdi sistema jada ez da mahai politiko bat lau hanka edo espazio dituen (EAE). Aitzitik, mahai bat da eta hiru hanka ditu. Hanka horietako bakoitza nazio bat da, eta alderdiak eratzen dira nazio horren baitan sortzen diren zatiketa territorialen/sozialen eskariak ordezkatzeko asmoz.

2.2.3 Hego Euskal Herriko alderdi sistema Nazio zapalduaren ereduaren arabera

Aurreko azpikapituluan ondorioztatu da Euskal Herriko alderdi sistemak hiru hanka dituela: euskal naziotik erditutako alderdiak, espainiar naziotik erditutako alderdiak eta frantziar naziotik erditutako alderdiak. Nazio zapalduaren ereduaren proposatzeko landu den marko teorikoak ez du bat egiten EAEko eta NFEko alderdi sistemaren inguruan begirada modernistatik egiten den irakurketarekin (Leonisio, 2015; Pérez-Nievas eta Fernández-Esquer, 2019). Bi begiraden arteko desfasea aztertzeko elkar alderatzen dira lan honek hobetsi duen begirada –nazio zapalduaren eredu– eta “*Del triángulo al cuadrado. Aplicación de la teoría de los cleavages a la historia política vasca*”

artikuluhan Leonisiok proposatzen duena.⁷⁴ Honako puntu hauetan sortzen da bateragarritasun-eza bi ikuspuntuen artean.

18. taula: Begirada modernoaren eta Nazio zapalduaren ereduaren arteko bateragarritasun-eza.

	Desfasea gertatzen den puntuak
1	Euskal nazioaren jatorria
2	Euskal triangelu politikoaren ideia (1893-1936)
3	Euskal karratu politikoaren ideia (1959-gaur arte)

Iturria: Egilea.

Bi begiraden artean funtsean dagoena da nazio auziaren gaineko korapiloaren interpretazioa. Ikuspegi modernistak azpimarratzen du nazionalismoa estatu-nazioaren eta industrializazioaren eraginez sortzen den erreakzio etno-territoriala dela, eta ondorioz, XIX-XXI mendetara bihur-murriztu behar dela.⁷⁵ Nazioaren gaineko irudi klasikoan oinarrituz gero, ordea, gatazka nazionalaren auziaren jatorria ulertzeko atzera egin behar da, gutxienez XV-XVI. mendera. Garai honi dagokionez, Leonisioren kasuan arreta jartzen da landagunea/hirigunea dikotomian:

En el País Vasco dicha oposición venía de muy atrás y ya en la edad moderna (incluso en la edad media, con la contraposición entre villas y “tierra llana”) existieron conflictos entre los habitantes del mundo rural campesino y la burguesía comercial de las ciudades, con intereses económicos contrapuestos. La construcción del Estado liberal español durante el siglo XIX no hizo sino reforzar esta situación, añadiéndole además la cuestión religiosa, solapándose ambas divisiones. (Leonisio, 2015, 179. or.).

Ikusten den moduan, Leonisioren testuan euskal auzi nazionalaren aipurik ez da agertzen XIX. mendea baino lehen. Era berean, ez dago aipamenik Espainiar estatu modernoaren oinarrian dagoen kultur partikularitasun gaztelar hegemonikoaren inguruan. Alabaina, nazio klasikoaren ikuspuntutik hor dago gatazka nazionala, ezkutuan geratzen bada ere. Izan ere, zein hizkuntzatan hitz egiten zuten euskal aitoren

⁷⁴ Bi begiraden arteko desberdintasunak zehaztu aurretik aipatu nahi da bi begiradak alderatzeko Leonisioren (2015) lana hautatu bada, ez dela izan inkoherentziak ikusten zaizkiolako. Aitzitik, Leonisioren ikerketa erreferentzia moduan hartu da zintotasun zientifiko handiz eta arrazoiketa koherente bezain argi batez idazten duelako. Horregatik hartu da eredu ideal moduan. Gai honen inguruan, begirada modernotik idatzi den lanik hoberenetakoa dela uste dugulako. Alabaina, bere premisak eta lan honetakoak ez datoz bat. Gauzak horrela, bi teoriak alderatzen dira kontakizunaren atzean dagoen egiturak aztertzeko. Horrez gain, Leonisioren kasua bikain datorkigu. Izan ere, Llera izan zen bere tesi zuzendaria. Beraz, ikerketa honetan ertzetatik zuzenketa proposatu nahi zaion tradizio baten azken kate-begia izanik (Lipset-Rokkan / Linz / Llera eta Leonisio), interesgarria iritzi diogu berarekin borobiltzea atal teorikoa.

⁷⁵ Alde horretatik, Leonisioren (2015, 179-181. or.) abiapuntuak ez du zalantzan jartzen 1.1.1.2 atalean ikusi den Lipset eta Rokkanen irakurketa modernista: “En resumen, Lipset y Rokkan definieron cuatro cleavages básicos para Europa Occidental tras la revolución industrial y la construcción de los Estados modernos. Mientras que del primer fenómeno surgiría la oposición entre obreros y patronos y entre el campo y la ciudad, de lo segundo nacería la división centro-periferia, y la oposición Iglesia-Estado. En el País Vasco nos encontramos con que han existido las cuatro fracturas sociales, aunque bien es cierto que una de ellas, la división campo-ciudad, no ha producido nunca partidos específicos a esa dimensión. (...) la llegada de la industrialización cambió por completo el sistema político vasco. No sólo por el surgimiento de partidos obreros y burgueses, sino porque también trajo consigo la aparición del nacionalismo vasco. (...) La inmensa mayoría de obreros que comenzaron a trabajar en la minería, primero, y en la siderurgia, después, llegaron de otras regiones españolas, con lo que a la diferencia de clase y valores se sumó el contraste étnico.”

semeeek edo alabek? Garai hartako dokumentuetan agerian geratzen da elite euskaldunak izandako erdalduntzea. Urte horietan, nazioen errenazimentuak ari dira gertatzen Europa Mendebaldean: Italian, Espainian, Frantzian eta abar. Zergatik ez zen euskal elite bat sortu euskaraz egingo zuena bizitzako arlo guztietan? Espainian, adibidez, 1492an Nebrijak argi du hizkuntzak duen garrantzia naziotasuna zedarritzerakoan, baita inperioa zabaltzerakoan ere. Italian, 1513an idazten du Maquiavelok *Printzea* testua, eta bertan, agerian uzten du hizkuntzaren garrantzia inperioa eratzerakoan. Frantziarrak ere ez dira atzean gelditzen. 1549an *Defense de la Language Française* liburuan Joachim du Bellayk esaten du frantsesa ez dela gehiago hizkuntza barbaroa izango: “*que la Langue Francoyse ne doit estre nommée barbare*”. Garai berekoa da Etxepareren (1545) idatzia. Alabaina, euskal nazioa eta bere hizkuntza propioa erdibidean gelditu ziren. Zergatik ote dio hamarkada batzuk geroago Claveria *aphezak* Ipar Euskal Herritik “burlatzen naiz Garibayez. Bai, halaber Etxabez”? Aipatutako desfasea salatu nahi zuen bertan: “Zeinak mintzatu baitire erdaraz eskaldunez”. XVI. mendean zehar “Norte” bihurtu da Hego Euskal Herria,⁷⁶ eta berarekin batera galdu da Hego Euskal Herrian euskal eliteak errenazimentua gauzatzeko zeuden baldintzak. Euskal elitea egitura politiko eta botere ekonomiko beregainik gabe gelditu da Estatu Modernoaren atarian. Orain helburua da Espainiar estatuaren baitan partikularitasun kultural-politikoari eustea: foruak mantentzea. Hautsi da euskal matrize tenporal/espaziala. Ez da borondatezko atxikimendua izan, aitzitik, konkista gertatu da kulturala, politikoa eta ekonomikoa.

Euskaldunen kaiola epistemikoak honako pitzaduran du iturria: hiritartasun arrotzaren barnerakuntza (pitzadura politikoa) eta hizkuntza nazionalaren galera (pitzadura kulturala). Leonisioren proposamenak ez du aintzat hartzen nazioen arteko botere harreman asimetrikoa. Hori egin gabe, begirada hegemonikotik euskal nazioa pasatzen da Espainiar estatuaren ertzean dagoen “anomalia” periferiko izatera. Beraz, zatiketa bat gehiago besterik ez da Estatuaren baitan, auzi soziala edo erlijiosoa izan daitekeen bezala. Ikusten den bezala, begirada modernoak jasotzen duena baino askoz aberatsagoa da, ordea, esperientzia soziala. Izan ere, elitearen gehiengoak arrotzak ez du esan nahi euskal errenazimentuaren aldeko apustua egin duen gutxiengo bat egon ez denik. Aitzolek (1986, 242-262. or.) zioen 1876tik 1936ra doan Euskal Pizkundearen aurretik bi

⁷⁶ Deigarria da nola barneratzen dituen Garibayk Espainiar estatuaren matrize tenporal/espazialak *Los XL libros del compendio historial* liburuko IX. kapituluari, hain zuzen ere, Gipuzkoaren inguruko deskripzio historiko-geografikoa egiten duen atalean. Ondorengo hitzak jaso dira Iñaki Bazanek (2001, 181. or.) egindako transkripzioetik: “Aviendo de dar noticia de la descripción y asiento de la Prouincia de Guipúzcoa, que de en algunas memorias antiguas, no sin misterio es llamada muralla y defensa de los reynos de Castilla y León, es de advertir ante todas cosas, que su asiento es en los celebrados montes Pyreneos, y gajos, que dellos corren y manan hazia las partes del señorío de Vizcaya y Principado de Asturias, comenzando los montes en su mar Océano Cantábrico, que diuidiendo, y atajando a España de Francia, corren a Cathaluña, hasta fenecerse en el mar Mediterráneo, en cabo de Creus”.

errenazimentu izan zirela: iparraldekoa –XVI eta XVII. mendean– eta hegoaldekoa – XVIII. mendean–. Azken horren kasuan, adibidez, hor daude XVIII. mendean Andoaingo Aita Larramendiren testuak. Bere adierazpen hauek ez al dira nazionalistak?

[Si] las lenguas vivas tienen hoy la misma independencia y exención, como la francesa, española y demás. Pues ¿por qué el vascuence, lengua tan viva y de más vida que otra ninguna, no ha de ver a todos sus vascongados juntos y unidos en una sola nación libre y exenta de otra lengua y nación? ¿Por qué tres Provincias de España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla: Guipúzcoa, Alaba y Bizcaya; y otras tres dependientes de Francia: Labort, Zuberoa y Baja Navarra? (Larramendi, 1756-1758, honako honek aipatua Achón, 2018, 164. or.).

Honek guztiak argi eta garbi erakusten du nazionalismoa XIX. mendekotzat izendatzen den arren, aurretiko fenomeno gisa ere ulertu daitekela, eta hortaz, honako ondoriora iristen da ikerlaria: Arana ez da euskal nazionalismoaren asmatzailea.⁷⁷ Orain dator ñabardura, lan honetan Aranari aitortzen zaiona da, bere garaira egokitzen zen nazionalismo moderno jakin bat proposatu izana, zeinaren inguruan saretze bertikal osoa diseinatzen duen.⁷⁸ Bere ekarpen adierazgarriena izan da euskal ardatzean artikulatutako alderdi politikoa sortzea, hots, EAJ alderdia. Horrela, praktikan hegoaldean nagusi zen dikotomia liberal/karlista gainditzea lortu zen. Ikuspegi honetatik, EAJ da XX. mende hasieran euskal mugimendu nazionalaren antolakunde gorena.⁷⁹ Ondorengo urteetan Aranak eta bere jarraitzaileek lortzen dutena da mugimendu nazionalaren saretze bertikala zabaltzea eta trinkotzea. Hori guztia bi modutara egiten dute: batetik, euskal kultura sustatuz; eta bestetik, politikoki antolatuz. Hala, Euskal Herrian zehar lurralde desberdinetan saretzen da euskal mugimendu nazionalista 30eko hamarkadarako (Pablo et al., 1998, 93-106. or.). Era berean, urte

⁷⁷ Iparraldeko begiradatik Davantek (1977, 15-16. or.) ulertzen du Chaho berak, Lehen Guerra Karlista, borroka nazional modura ulertu zituela. Horregatik, erlatibizatu egiten du euskal nazionalismoaren sortzailea Arana izan zela dioen ideia: “Euskaldunentzat, Aberri guduka bat izan zen, argi eta garbi, lehen karlistada. Hori zinez usnatu zuen Agostin Chaho idazleak. Bera Ziberotarra izaki, beraz iparraldekoa, eta oso “liberala”, erran nahi baita denbora hartako ezkertiarra, arras ezkertiarra gainera, bere biziak eta lanek erakusten daukutenaz, hegoaldeko anaien alde jartzen da laister, Espainiako “liberalen” aurka. Aldezka Bizkaitarrak, Nafartarrak eta Kantabreak deitzen dituenekin bat dela goraki ohiukatzen du denetan. Euskal nazione bat badela, eta bera nazione hortakoa dela, argi eta garbi ohartzen da: duda hizpirik ez da. Chahorentzat “Zapiak Bat” ez da bakarrik sendimendu bat, ez amets bat, baina bere ahal guztiez lagundu eta zerbitzatu behar duen errealitate bat, baitezpadakoa eta sakratua. (...) Gu, iparraldeko Euskaldunen ohorearen fagoretan, Chahok euskal nazione bat ba dela, zergatik eta nola, jakitate frango segurarekin finkatu du mende erdi bat Sabin Arana Goiri-k baino lehen eta, ene iritziz, honek baino hobeki egin du, ez baitzuen klerikalismoak iluntzen honena bezala, Chaho-ren gogoia: lurra, etorkia, hizkuntza, erakundeak edo eraikidurak, nahia, historia eta demokrazia dira, Chahoren arabera, gure nazionearen erroak”.

⁷⁸ Ikuspegi modernotik begiraturaz gero, begirada modernoa hobesten duten lanek azpimarratzen dute Aranaren nazio ideia, bereziki arrazan oinarritzen dela (Corcuera, 2001). Ondorioz, nazionalismo esentzialista, aurkakotasunezkoa, itxiztat eta baztertzaitzat dute autore horiek. Horren aurrean, lan honetan hobesten da Azurmendik (1979) egiten duen irakurketa zeinaren arabera Aranaren formulazioa ulertu behar den kontestu historiko jakin batean kokatua eta nazio zapalduaren begiradatik.

⁷⁹ Luzea da EAJren sorrera eta bilakaera jasotzen duten lanen zerrenda. Gaztelera idatziak dira akademian gehien aipatzen diren lanak (Granja, 1986; 1995; Pablo eta Mees, 2005; Núñez Seixas, 1999). Lan honetan uste da aipatu diren lan horien begiradak puntu askotan ez datozela bat ikerketa honetan hobetsi den Nazio zapalduaren ereduarekin. Edonola ere, fenomenoaren inguruan data historiko nagusiak argitasunez daude jasota.

horietan guztietan euskal alderdi sistema pasatzen da alderdi bakarra izatetik –EAJ–, gero eta pluralagoa izatera. Horrela, alderdien artean ñabardurak agertzen dira bai arlo erlijiosoan baita sozialean ere (EAE-ANV, Jagi-Jagi eta abar). Ikusten den moduan, Aranaren nazionalismo jelkidea XIX. mendean sortua izan arren, lan honetan hobesten da euskal nazionalismoa –eta nazioa– Espainiar eta Frantziar estatu-nazioen sorrera baino lehenagokoak direla. Hori bai, euskal nazionalismoa ondorengo urteetan formaz egokitzen eta izaeraz aldatzen joango da industrializazioak, migrazioak eta gainerako baldintza historikoak eraginda.

Fenomeno nazionalaren modernotasuna erlatibizatzeak dakarrena da EAJren sorrera estatu-nazioaren aurkako erreakzioa baino gehiago, euskal nazioaren auto eraketa edo erakundetze gisa ulertzea. Are gehiago, EAJren eskutik ikusezin izateari uzten dio espainiar alderdien partikularitasun kulturalak, zeinak arrazoiaren izenean Estatuaren atzean betidanik ezkutatu izan den. Begirada honetatik ulertzen da Hego Euskal Herrian zentro alternatibo bi legitimatzen dituzten proposamen politiko erakundetu daudela: espainiar nazionalismoa eta euskal nazionalismoa. Mugimendu horien erreferentzia politikoak diren alderdi espainiar eta euskaldunen artean dagoen desberdintasuna da batzuek estatu beregaina dutela eta besteek ez. Horregatik proposamen honek tupust egiten du Leonisiok proposatzen duen *Euskal Triangelu Politikoaren* ideiarekin:

(...) el triángulo político vasco en la Restauración quedaba definido por tres vértices que a su vez eran plurales, ya que existían diferentes tendencias políticas en las tres subculturas (izquierda democrático-socialista, derechas españolistas y nacionalismo vasco). En primer lugar, estaba la izquierda, laica o incluso anticlerical, republicana, españolista, fuerte en las ciudades y partidaria de las conquistas sociales, tanto en su versión obrerista, el PSOE y después de 1921 el PCE, como burguesa, los partidos republicanos en sus múltiples facciones (federales, radicales, centristas...). Por otro lado, estaría la derecha españolista, monárquica, leal a la nación española, clerical (conservadores, carlistas y sobre todo integristas) o laica (liberales) que representaba o bien los intereses de los grandes industriales capitalistas que surgieron con el desarrollo económico (los partidos dinásticos) o bien los de la población rural (carlistas e integristas). Finalmente, en el tercer vértice estaría el nacionalismo vasco, representado por el PNV. Aunque integrista católico en sus inicios, derivaría hacia la democracia cristiana en los años 30. En lo que respecta a la cuestión social se situaba en el centro, partidario de un reformismo socialcristiano, lo que le llevó a la creación de un sindicato católico y antisocialista, Solidaridad de Obreros Vascos (SOV). Finalmente, en la cuestión nacional quedaba completamente separado de los otros dos bloques defendiendo la construcción de la nación vasca. Eso sí, ya desde el principio va a combinar dos almas: una radical independentista partidaria del enfrentamiento con España y una más pragmática y autonomista proclive al entendimiento. Predominará una u otra dependiendo de la época protagonizando la primera dos escisiones a lo largo de la primera mitad del siglo XX. (Leonisio, 2015, 181-182. or.).

Hasteko eta behin, garrantzitsua da aletzea zer dagoen “triángulo político vasco” kontzeptuaren atzean. Izan ere, Espainiar estatuaren baitan dagoen erregioari egiten dio erreferentzia “vasco” hitzaren errepresentazioak. Horrela, Espainiar estatuko “subcultura” deitzen dio euskal nazionalismoari. Ondorioz, espainiar alderdien baitako zatiketa periferiko bezala ikusten da, zentro alternatibo gisa antolatutako erakundetze nazional gisa ikusi beharrean. Esan gabe doa begirada honek zatiketa “vasco/navarroan”

sakontzen duela. Ipar Euskal Herria, berriz, ez da existitzen. Beste horrenbeste gertatzen da frankismo osteko alderdi sistemaren inguruan proposatzen duen *Euskal Karratu Politikoaren* (1959-gaur arte) ideiarengatik.

La llegada del Franquismo aborta cualquier pluralismo político pero las divisiones sociales permanecen. Mientras una parte de los vascos apoyó la dictadura franquista existió una oposición variada que actuaba tanto en el exilio como en el interior e incluso en los márgenes del sistema como algunos sectores del carlismo (aunque éste en general apoyó al régimen) y grupos obreros de inspiración cristiana. Es decir, un ángulo del triángulo, la derecha, apoyó, con matices tanto diacrónicos como sincrónicos, al franquismo, mientras que los otros dos, izquierdas y nacionalismo, se situaron en la oposición, aunque también con matices ya que fue más intensa la oposición de comunistas que de socialistas y en general el PNV se mostró bastante pasivo, por lo menos mucho más que la incipiente ETA. Y es que fue durante la dictadura cuando el triángulo político vasco se convierte en cuadrado con el surgimiento de ETA y la izquierda abertzale, con lo que con la llegada de la transición encontramos, una vez desaparecida la cuestión religiosa del debate político, cuatro espacios pivotados en torno a los cleavages izquierda-derecha y centro-periferia: el nacionalismo vasco de centroderecha (PNV), la izquierda no nacionalista (PSOE y PCE), la derecha española (AP y UCD) y la sopa de siglas que entonces constituía la izquierda abertzale, heredera de ETA. A lo largo del actual periodo democrático unos partidos han desaparecido, han aparecido otros y se han mutado siglas, pero los cuatro espacios, pivotados en torno a esos dos cleavages, han permanecido inmutables. (Leonisio, 2015, 183. or.).

Irakurketa honek azaltzen du 1936tik 1975eko tartean triangelua karratu izatera igaro zela. Alde horretatik, bi nobedade proposatzen ditu: bata, erlijioaren clivajeak galdu egin zuela alderdi sistema egituratzeko gaitasuna; eta, bestea, ezker abertzalearen sorrerak laugarren espazioa eratu zuela. Leonisiok irudikatzen duen mapa kognitiboaren atzean, bi clivaje daude frankismo osteko sistema politiko baskoaren oinarrian: soziala (langileak-ugazaba) eta territoriala (zentro-periferia). Bi horiek maila berean ezartzen ditu, gainera. Nazio zapalduen eredutik, ordea, ezker abertzalearen sorrera ulertzen da euskal nazioaren baitan gorpuztu den clivaje sozialaren logikan. Eta ez Espainiar estatuko erregio bateko ezkerreko erreakzio periferiko gisa. Horren atzean mito modernoa ezkutatzen da, nazioaren inguruko dikotomia etniko/politiko legitimatzen duena. Ondorioz, nazio zapalduaren begiradatik ezin da esan Hego Euskal Herriko alderdi sistemak karratu forma duenik, ez behintzat Leonisiok aipatutako eran. Begirada berria hobesteak erabat baldintzatzen du alderdi sistemaren multzokatzea.


Behin zuzenketa horiek proposatu ostean, ahalegina egiten da teoriarik landutako kontzeptuak praktikara eramateko. Jarraian, Hego Euskal Herriko alderdi sistemak izan duen bilakaera irudikatzen da 1980ko hamarkadatik 2016ra bitartean. Hasteko eta behin, EAEko hauteskunde autonomikoetako argazkia da aztertzen aurrena.

Ikusten den moduan, bi naziotako alderdiek lortzen dute ordezkariak EAEko eta NFEko hauteskunde autonomiko horietan. Euskal alderdien kasuan, bi irizpideren arabera banatzen dira: territoriala eta soziala. EAEko kasuan, HB eta EAJ ez dira nazionalak (EAJek 1990an sortu zuen Iparraldeko egitura). 1986an EA da euskal lurralde eremua


jarduera eremu gisa zuen alderdi bakarra. EE alderdia ere erregionala da, bere eragite eremua Hego Euskal Herrira murrizten delako. Azken horrek, 1987ko hauteskundeak arte ez du NFEan ordezkariarik lortuko. Zatiketa sozialari dagokionez, zentro-ezkerreko espazioan kokatzen dira HB, EA eta EE, aldiz, zentro-eskuinean EAJ. Alderdi espainiarren kasuan, EAEn ordezkariak lortu zuten zentro-ezkerreko eta zentro-eskuineko alderdiek, baina guztiak estatu mailakoak izan ziren. NFEan, berriz, UPN alderdi espainiarra da zentro-periferia logikan artikulatzen den alderdia.

13. irudia: Hego Euskal Herriko alderdi sistemak (1980-1983).

EAEko alderdi sistema: 1980ko hauteskundeak



NFEko alderdi sistema: 1983ko hauteskundeak



Iturria: Egilea.


Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren kasuan, egiturazko zatiketek bere horretan jarraitzen dute 2015-2016ko hauteskunde autonomikoak arte. Alegia, bi jatorri nazional desberdineko alderdiek lortzen dute ordezkariak hauteskundeetan. Azken horiek bi clivaje dituzte beren baitan: territoriala eta soziala. Alabaina, clivajeak mantendu diren arren, alderdi/koalizio berriak eratu dira eta beste batzuk desagertu. Hasteko eta behin, euskal alderdien bilakaera aztertzen da eta bigarrenik espainiarrena.

Euskal alderdien kasuan, honakoak dira gertakari nagusiak: bat, EAJren baitako zatiketa eta EA zentro-ezkerreko alderdiaren sorrera; bi, EEren desagertzea eta PSOEren urteza; hiru, XXI. mendean ezker abertzaleak bizi duen ilegalizazio prozesua; eta, lau, azken

hauteskundeetan euskal alderdi abertzaleek koalizio erregionalak eratzeko izan duten joera (EH Bildu edota Geroa Bai).

Espainiar alderdiei dagokienez, joera desberdinak agertzen dira EAEn eta NFEan. Aurrenekoaren kasuan, estatalak dira alderdi espainiar ia guztiak –UA izan ezik–. Aldiz, NFEan alderdiek joera handiagoa dute koalizio edo alderdi periferikoak egituratzeko. 1987tik aurrera, adibidez, UPNren inguruan artikulatzen dira zentro-eskuineko alderdi espainiarrak, nahiz eta garai jakin batzuetan espazio honetan aukera gehiago egon diren –adibidez, CDN–. Bestalde, estatalistak dira NFEan ordezkariak lortzen duten ezkerreko alderdi espainiarrak, nahiz eta kasu honetan ere tarteka alderdi edo koalizio periferikoek hauteskundeetan ordezkariak lortu –adibidez, I-E–. Gauzak horrela, Espainiar alderdi sistemaren baitan bi dira bere hezurdura egituratzen duten clivajeak: territoriala eta soziala.


14. irudia: Euskal alderdien bilakaera hauteskunde autonomikoetan (EAEko hauteskundeak).




Iturria: Egilea.

Horregatik guztiatik, lan honetan gainditu egin nahi da ikuspegi modernistak defendatzen duen euskal alderdi sistemaren gaineko irudi “karratua”. Izan ere, Estatuan ardatzen da irudi horren matrize tenporal/espaziala. Are gehiago, nazioaren gaineko dikotomia etniko/zibikoa egiten du bere. Horrela, estatuaren deribatu direla ulertzen da EAEko eta NFEko alderdi sistemak. Aldiz, Ipar Euskal Herriaren kasuan, Espainiar estatua ardatz duen begiradatik existitzeari uzten dio Frantziako Estatuaren logikara subordinatzean.

15. irudia: Espainiar alderdien bilakaera hauteskunde autonomikoetan (EAEko hauteskundeak).



NFEko hauteskundeak



Iturria: Egilea.

Laburbilduz, euskal nazioa ez zen ate handitik sartu Modernitatera: ez zuen lortu estatu beregainik eta ez zuen izan beste nazio batzuek izandako errenazimendurik. Horren ondorio nagusia da euskaldunek hiritartasun inposatua dutela. Hala, zentro arrotzaren eskutik asimilazioa gertatu da eta hizkuntza nazionala erauzi zaio euskaldunen ehuneko handi bati. Alde horretatik, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren baitan gertatzen diren desfaseak ulertzeko –hau da, hizkuntzaren eta botoaren arteko harreman eza– ezinbestekoa da alderdi sistema nazio zapalduaren eredutik aztertzea. Azken horrek proposatzen du aipatutako desfasea ulertzea euskal nazioak bizi duen menderakuntzaren eta horrek eragin duen pitzadura kultural/politikoaren parametroetan. Nazio zapalduaren eredia legitimatzeko, ordea, ezinbestekoa da mendebaldeko pentsamendu moderno hegemonikoa auzitan jarri eta beste abiapuntu epistemologiko batetik abiatzea. Lan honetan uste da euskal pentsamendu deszibilizatzailea dela Nazio zapalduaren eredia legitimatzeko zoru epistemologikoa eskaintzen duen begirada egokiena. Pluralismo epistemologikoaren ideia da ahalbidetzen duena ertzetatik soziologia postmoderno kritikoa gauzatzea.

Aurrera begira, aurreneko atal honen funtzioa da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz aztertzekeo tresna teoriko eta epistemologikoak eskaintzea. Azalpen eredu honen arabera lantzen dira bigarren eta hirugarren atalak, baita laugarren atalean aurkezten diren ondorioak ere.

BIGARREN ATALA: LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALAK HEGO EUSKAL HERRIAN

Bigarren atal honetan aztertzen da Hego Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko eta elektorala. Horretarako, hiru kapitulutan banatu da atala. Aurreneko kapituluan aztertzen da Hego Euskal Herriko euskararen egoera soziolinguistiko eta juridikoa. Ondorengoan, berriz, Hego Euskal Herriko sistema politikoaren ezaugarriak deskribatzen dira. Horretarako, arreta berezia jartzen da hauteskunde autonomikoetako emaitza elektoralean. Azken kapituluan, berriz, Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan lerrokatze linguistiko elektoralik gertatzen ote den aztertzen da. Hiru kapitulu horiek landu aurretik, jarraian, Hego Euskal Herriko biztanleriaren inguruko datu batzuk aurkezten dira testuingurua irudikatzeko. Alde horretatik, hiru dira XX. mendean zehar Hego Euskal Herriko demografiaren bilakaeran eragina izan duten fenomeno sozial garrantzitsuenak: bat, 1936ko gerra; bi, industrializazioa; eta, hiru, immigrazioa (Irigoien, 1985).

Gertaera horiek errotik aldatu zuten Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko eta politikoa. XX. mendearen hasieran, Industriaren garapena bereziki Bilbo inguruan gertatu zen. XX. mendearen erditik aurrera, Bizkaiko beste udalerrietara eta Gipuzkoara zabaldu zen, baita Arabako eta Nafarroako zenbait eremutara ere. Industriak esku langile merkeak behar zituen eta Espainiar estatuko lurraldeetatik immigrazio fluxu handiak iritsi ziren.⁸⁰

Gizarte industrial batera igarotzeko prozesu horretan, beste fenomeno aipagarri bat ere gertatu zen: bizi itzaropena igo, heriotza tasak jaitsi eta 1970eko hamarkada arte jaiotza tasak altu mantentzea (Aztiker, 2002). Faktore horien guztien baturak eztanda demografikoa eragin zuen biztanle autoktonoen artean. Hala, barne migrazioa gertatu zen landagunetik hirigunera. Aldaketa demografiko horien gainean osatu zen 1960ko hamarkadako gizartea.

⁸⁰ Urte horietan gertatutako migrazio fluxuen gorabeheretan sakontzeko ikusi honako lanak: Irigoien (1985), Aztiker (2002), Luxan (2004).

19. taula: Euskal Herriko populazioaren bilakaera 1877tik XXI. mendera arte.


Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Euskal Herria
1877	97.954	190.523	167.207	304.184	91.121	49.285	25.096	925.370
1887	97.269	236.302	181.845	304.051	96.852	47.974	24.411	988.704
1897	98.940	291.361	191.839	302.978	99.598	45.787	24.266	1.054.769
1900	100.686	312.087	195.850	307.669	104.308	45.381	24.728	1.090.609
1910	101.429	350.661	226.684	312.235	113.167	44.685	26.061	1.174.922
1920	103.054	410.291	258.557	329.875	112.790	40.382	23.597	1.278.546
1930	108.757	485.969	302.329	345.883	135.676	39.890	22.203	1.440.707
1940	111.200	511.892	331.753	369.618	134.536	37.553	21.654	1.524.206
1950	122.172	569.944	374.040	382.932	138.405	35.056	20.723	1.643.272
1960	142.435	755.139	478.337	402.042	150.593	33.927	20.522	1.982.995
1970	206.995	1.043.875	631.003	464.867	166.920	32.360	19.357	2.565.377
1975	240.267	1.152.141	682.507	483.867	178.764	30.919	18.629	2.787.094
1981	262.407	1.181.865	692.082	507.367	189.594	29.730	17.639	2.881.384
1991	277.653	1.156.671	676.307	523.563	204.604	29.031	16.529	2.884.358
2001	287.928	1.123.002	673.563	555.829	219.029	28.076	15.535	2.902.262
2011	321.254	1.153.351	705.210	635.174	-	-	-	-
2016	322.335	1.138.852	710.699	640.647	-	-	-	-
Hazkundera %100=1877	%329,07	%597,75	%425,04	%210,61	%240,37*	%56,97*	%61,90*	%313,63*

Iturria: Aztiker (2002, 48. or.), Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua.

*Oharra: Hazkunde demografikoaren ehunekoak 2001eko datuen arabera kalkulatu dira Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoako eta Euskal Herriko kasuetan.

Goiko taulan ikusten den moduan, 1877 eta 2016 artean ia %600 hazi da Bizkaiko populazioa. Gipuzkoako kasuan, laukoiztu egin da populazioa denbora tarte berean (%425,04) eta Araban hirukoiztu (%329,07). Nafarroako kasuan, hazkunde demografikoa ez zen horren handia izan. Hego Euskal Herriari dagokionez, bereziki interesgarria da 1950etik 1975era doan aroa. 25 urteren buruan, Gipuzkoa eta Bizkaian ia bikoiztu egin zen populazioa. Gaindegiaren (2016) txostenean ageri den moduan, Hego Euskal Herriko populazioa “zahartu” egin da ordutik. Bestek beste, bi faktore azpimarratzen ditu dokumentuak: bizi itxaropen tasa altua eta jaiotza tasa baxua. Europa Mendebaldeko herrialde garatu bat da egun Hego Euskal Herria, eta gizarte zaharkitua du. XXI. mendearen hasieran, migrazio fluxu berriak iritsi dira. Etorkinen proportzioak, ordea, apalagoak dira aurreko mendekoekin alderatuz.

16. irudia: EHko biztanleriaren hazkundera (1950=100).



Iturria: Gaindegia (2016, 10. or.).


Gauzak horrela, honakoa izan behar da gogoan orain arte ikusitakotik: Hego Euskal Herriko XXI. mendeko egoera soziolinguistiko eta politikoa ulertu nahi bada, ezinbestekoa da egungo irakurketa XX. mendean zehar gertatu zen aldaketa soziodemografiko horien gainean funtsatzea. Alabaina, bada aurrera jarraitu aurretik ahaztu ezin den puntu bat. Euskararen atzerakada ez zen XX. mendean hasi. Aitzitik, iraultza industrialak baino lehenagotik dator.

3. EUSKARAREN BILAKAERA JURIDIKO ETA SOZIOLINGUISTIKOA

Luze eta zabal idatzi da azken urteotan euskararen bilakaera soziolinguistiko eta juridikoaren inguruan. Atal honen helburua da adituek gai honen inguruan esandakoa jaso eta euskal hiztun elkartearen argazki garaikidea margotzea. Lan guztiak koherentzia izateko ezinbestekoa da nazio zapalduaren ikuspegitik ulertzea euskararen egoera. Aurkezten den argazkiaren bidez, oinarritzko datuak eskaini nahi dira 5. atalean aztergai den euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ezaugarriak eta barne aniztasuna ulertzeko.

Ikertzaileek diote euskara K.a. 6000. urtetik existitzen dela gutxienez Pirinioen mendebaleko ertz honetan, Espainia eta Frantziaren arteko mugaz bi aldeetara (Ugalde, 1977 [1974]; Igartua eta Zabaltza, 2012). Urte horietan guztietan, gorabeheratsua izan da euskal komunitatearen hedapena. Alabaina, ikertzaileen artean uste da euskarak azken mendean atzerakada handia izan duela. Atzerakada hori modu argi batean irudikatzen da Udalbiltzaren eskaerari jarraituz Aztikerrek egindako *Euskal Herria datuen talaiatik* (2002) dokumentuan. Toponimiari erreparatuz gero, garai bateko euskarak zuen hedadura gaur egun Euskal Herria gisa ezagutzen den lurralde geografikoa baino zabalagoa zen.

17. irudia: Euskararen bilakaera azken mendeetan.



Iturria: Aztiker (2002, 178. or.).

Hizkuntzaren atzerakada prozesu hori etengabea izan da mende luzez. Edonola ere, hizkuntza galera ez da ausaz gertatu. Faktore politiko eta sozialak daude horren atzean: “Bilakaera hori, noski, historian euskarak jasan dituen eraso eta egoeren ondorio da: inbasioak; erromantzea; noblezia eta burgesiak mendeetan erdara lehenestea; erdaldunen immigrazio jendetsua; hainbat botere gunetatik ezarritako debeku, zigor eta trabak; hezkuntza erdaldunaren eragina, eta abar. Prozesu horien ondorioz, euskara gaur egun hizkuntza gutxitua da”(Aztiker, 2002, 179. or.). Ikuspegi hori berresten dute urteetan zehar euskararen historia sozialaren inguruan argitaratu diren Euskal Herriko ikertzaile eta ikerketa talde garrantzitsuenek (Askoren artean, 1978; Siadeko, 1979; Intxausti, 1990). Lan honetan aipatutako ikerketa horien begirada hartzen da bide orri moduan.

20. taula: Euskal hiztun kopuruaren bilakaera 1877tik 2016 arte.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa		Iparralde		Euskal Herria	
	Euskal.	%	Euskal.	%	Euskal.	%	Euskal.	%	Euskal.	%	Euskal.	%
1866	12.000	9,59	149.098	81,43	170.000	96,42	60.000	19,97	80.000	%65,04	471.000	52,14
1975	18.981	7,90	173.973	15,10	307.128	45	53.225	11	78.768	34,50	632.670	22,70
1991	22.995	8,59	215.219	18,94	305.403	45,92	49.484	9,90	-	-	-	-
2011	46.000	16,8	254.000	25,4	300.000	49,9	63.000	11,7	51.000	21,4	714.136	27,0
2016	52.513	19,2	272.423	27,6	306.448	50,6	68.946	12,9	51.197	20,5	751.527	28,4

Iturria: Eusko Jaurlaritz (2013; 2019) Aztiker (2002, 48-182. or.), Eustat eta Pablo Iztueta (1996, 253. or.). Oharra: Honako lanetatik hartu dira urte bakoitzeko datuak: 1866ko datuak jaso dira Pablo Iztueta lanetik; 1975eko datuak Aztikerren lanetik; 2011 eta 2016 V. eta VI. Inkesta Soziolinguistikotatik; eta 2001ekoa, EAE eta NFEko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* datu basetik.

XX. mendeko aldaketa sozial horiek euskararen atzerakada eragin bazuten ere, inflexio puntu bat nabari da 1970ko hamarkadatik aurrera. Ordutik, hiztun kopuruaren atzerakada hori moteldu eta hazkunde prozesu batean murgildu da euskal hiztun elkarte. Alabaina, ondorengo atalean ikusten den bezala, argi-ilunak ditu hazkunde horrek.

Jarraian, bi azpikapitulu bereizi dira 1960ko hamarkadatik gaur arte gertatu den euskararen bizi-berritze prozesua ulertzeko: lehen azpikapitulan lantzen da euskararen inguruko legedia; aldiz, bigarren azpikapitulan ikuspuntu soziolinguistikotik aztertzen da zeintzuk diren euskararen bizi-berritze prozesu horren gaineko irakurketan sarri bigarren mailan gelditzen diren ñabardurak.

3.1 Euskararen inguruko legedia: hizkuntza bat, hainbat errealitate

Euskararen inguruko legediaren ezaugarri nagusia da bi Estaturen baitan administrazio barruti desberdinetan banatuta egotea. Prozesu historiko luze baten emaitza da egun euskarak bizi duen egoera juridikoa. Hainbat lanek azpimarratzen duten moduan, bazterreko egoeran aurkitu dira estaturik beregain izan ez duten hizkuntzak XV. mendetik aurrera gertatu diren Europako Mendebaldeko Estatu Modernoen eraikuntza prozesuetan (Petschen, 1990). Alde horretatik, euskararen bilakaera juridikoa ulertu behar da Estatu gabeko hizkuntza gutxitu horien parametroetan.

Lan honetan arreta berezia jartzen da 1978tik aurrera Hego Euskal Herrian indarrean dagoen araubide juridikoan. Berau nazioarteko parametroetan kokatzeko gutxienez Bigarren Mundu Gerra ondorengo testuingurura egin da atzera.⁸¹

1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak⁸² azpimarratzen du, 1. artikuluan, munduko edozein txokotan jaiota ere, “gizon-emakume guztiak aske jaiotzen” direla eta “duintasan eta eskubide berberak dituztela”. Alde horretatik, honakoa zehazten da dokumentu bereko 2. artikuluan:

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabeya edo nola-halako burujabetasun mugak dituen.

Ikusten den moduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera, hizkuntzak ezin du izan inoren eskubideak eta askatasuna mugatzeko arrazoia. Errealitatean, ordea, desberdintasunak ageri dira hizkuntza komunitate desberdinetakoak diren norbanakoen artean. Horri irtenbidea aurkitu nahirik, bi dokumentu garrantzitsu argitaratu ditu Europako Kontseiluak: *1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa* eta *1992ko Erregioen edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna*.

Bi itun horietan aldarrikatzen dira hizkuntza eta herri gutxituen eskubideak. Espainiar estatuak bi dokumentu horiek 1995ean eta 2001ean sinatu zituen. Era berean, 1978ko

⁸¹ Hona hemen euskararen araubide juridikoa nazioartean kokatzeko erreferentzia gisa hartu diren bi lanak (I. Agirreazkuenaga, 2003; Kuartango, 2017).

⁸² Lan honetan euskarazko bertsioa erabili da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala testua lantzeko, zehazki, IVAPek egindako itzulpena: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_eskubideak/eu_def/adjuntos/Giza_Eskubideen_Aldarrikapen_Unibertsala.pdf (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/02).

Konstituzioaren bidez, bere egin zuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (I. Agirreazkuenaga, 2003, 12. or.; Kuartango, 2017, 50-53. or.). Gauzak horrela, Espainiako legediak, hizkuntza eta herri gutxituen eskubideak babestu eta kultur aniztasuna garatzera bideratuta egon behar luke. Alabaina, euskararen egoera juridikoa aztertu ostean, adituek azpimarratzen dute bide luzea dagoela oraindik egiteko.

Euskarak, bere lur eta giza esparru historikoa den Euskal Herrian bost eraentza juridiko desberdin ditu: ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru estatus desberdin Nafarroan eta inolako aintzatespen ofizialik ez Ipar Euskal Herrian.

Egoera hori ulertezina zaigu, areago ere bere herritarren berdintasuna aldarrikatzen duen mugarik gabeko egungo Europa honetan. Ez dago mugarik, denok txanpon bera dugu, eta luza gabe Konstituzio bera ere bai, baina euskal jendeak ez du Euskal Herrian berean hizkuntz eskubideen parekotasunik. Egoera horrek euskal hizkuntz komunitatea bere biziraupenerako behar dituen gutxienezkoen oso azpian jartzen du. (Kasares, 2004, 114. or.).

Alde horretatik, hiru mailakatze nagusi ditu gaur egungo euskararen inguruko legediak Hego Euskal Herrian: lehenik, 1978ko Espainiako Konstituzioa; bigarrenik, 1979ko Lege Organikoa Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena eta 1982ko Nafarroako Foru Erregimena Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa; eta, hirugarrenik, erkidego bakoitzean euskararen ofizialtasuna arautzeko onartutako gainerako lege eta dekretuak.⁸³ Abiapuntu gisa, honakoa diote Espainiako Konstituzioaren 1. eta 2. artikuluek:⁸⁴

1.1. artikulua: Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.

1.2. artikulua: Nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza, eta hortik sortzen dira estatuaren botereak.

2. artikulua: Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere.

Autonomia Estatutuak onartu zirenetik, beraz, Espainiar estatuaren baitako erkidegoak dira EAE eta NFE. Alde horretatik, 1978ko Espainiako Konstituzioan 3. artikuluan daude ezarrita erkidego horietan euskara arautzeko printzipio nagusiak.

3.1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.

3.2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia erkidegoetan beraietako estatutuekin bat etorritik.

3.3. Espainiako hizkuntza moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

⁸³ Honako bi lanak hartu dira erreferentzia moduan aipatutako mailaketa proposatzeko. Urrutiaren (2006) lanean oinarrituta zedarritu dira EAEko araudiaren ildo nagusiak. Aldiz, Arzozen (2006) ikerketa erabili da NFEko ezaugarri nagusiak zedarritzeko.

⁸⁴ 2004an Deustuko Unibertsitateak argitaratu zuen itzulpena erabili da lan honetan 1978ko Espainiako Konstituzioaren inguruko azterketa egiteko. Euskarazko bertsio hori Euskaltzaindiaren Lege Batzordeak prestatu zuen, Espainiako Senatuak eskatuta: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/minordcho/minordcho01.pdf> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/02).

Hiru puntu horietan garbi ikusten da hizkuntza estatalaren (gaztelania) eta gainerakoen artean mailaketa egiten dela. Horren erakusgarri da 3.1 artikulua, bertan esaten baitu gaztelania dela “Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala”. Are gehiago, “erabiltzeko eskubidea” bermatzeaz gain, Espainiako hiritar guztiak jakitera behartzen ditu artikulua. Gisa horretako eskakizunik ez da aipatzen gainerako hizkuntzen inguruan. Azken horien ofizialtasuna zehaztea Autonomietako Estatutuei dagokie 3.2 artikulua arabera. Lege horien oinarria zehazten du 3.3 artikulua. Horren arabera, lege horiek kontuan izan behar dute, Espainiako hizkuntza guztiak kultur ondarea izateaz gain, begirunez zaindu beharrekoak direla.

Laburbilduz, 1978ko Espainiako Konstituzioan daude EAEko eta NFEko hizkuntza legeriaren printzipio nagusiak. Espainiar Konstituzioaren deribatuak dira gainerako lege guztiak. Ildo horretatik bi mailatan bereizten ditu Espainiar Konstituzioak Estatuan dauden hizkuntza guztiak: gaztelania (Estatuko hizkuntza ofiziala) eta gainerako hizkuntzak (erkidegoetakoak).

3.1.1 EAEko kasua: euskara hizkuntza ofiziala bai baina ezagutzeko derrigortasunik ez

Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikuluan zehazten da Estatutuei dagokiela gaztelania ez den Estatuko gainerako hizkuntzen izaera juridikoa arautzea. Espainiako Konstituzioa (1978) indarrean jarri eta handik urte betera onartu zen 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomi Estatuarena.⁸⁵ Estatutu honen baitan, 6. artikulua eta 35. artikulua dira euskararen auziari espresuki aipamena egiten diotenak (Urrutia, 2006, 423-428. or.). Bietan garrantzitsuena 6. artikulua da eta bost azpikipuntutan banatzen da. Honatx, lehen hiru puntuak.

6.1. artikulua: Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

6.2. artikulua: Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

6.3. artikulua: Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

⁸⁵ IVAPek egindako itzulpenetik jaso dira EAEko Autonomia Estatuaren inguruan agertzen diren aipuak: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_e_konstituzio/eu_def/adjuntos/Konstituzio-zuzenbidea/Euskal_Herriko_Autonomia_Estatutua.pdf (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/02).

Ikusten den moduan, 1979ko Autonomia Estatutuan agertzen da euskara dela “Euskal Herriaren hizkuntza propioa”. Era berean, hizkuntza propioa izateaz gain, zehazten da gaztelaniarekin batera Euskadiko “hizkuntza ofiziala” dela. Alabaina, bada beste desberdintasun bat gaztelania eta euskararen artean. Espainiako Konstituzioak Espainiako hiritar guztiak gaztelaniaz jakitera behartzen dituen bitartean, euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea Autonomia Estatutuak herritarrei soilik bermatzen die. Alegia, EAEko hiritar erdal hiztunak ez daude euskaraz ikastera behartuta. Hala ere, 6. artikuluan bigarren puntuan zehazten da “euskararen ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko” direla erakundeetatik.

Abiapuntu juridiko horien gainean onartu zen 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa (Urrutia, 2006, 428-430. or.). Alde horretatik, lege honen 5. artikulua herritarren eskubideak zerrendatzen ditu eta zehazten du herri agintek eskubide horiek ziurtatzeko betebeharra dutela:

5.1. artikulua: Euskal Herriko herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

5.2. artikulua: Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz. b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea. c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea. d) Lanbide jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu jarduera euskaraz egiteko eskubidea. e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

5.3. artikulua: Herri agintek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Ikusten den moduan, 1982ko euskararen erabilera normalizatzeko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortzen ditu hainbat arlotan (adibidez; administrazioan, hezkuntzan edota hedabideetan). 1982ko euskararen legea, bestelako lege eta dekretuen bidez osatzen joan da urtez urte.

3.1.1.1 Herri administrazioa

Herri administrazioaren eta eskubide eta betebeharrak linguistikoen arteko gaia bideratzeko, Urrutiak (2006, 433-438. or.) dio “hizkuntza eskakizunen” sistema planteatzen dela. Sistema hori oinarritzen da elebitasun instituzionalean eta eremuen araberako plangintzan. Jarraian azaltzen da aipatutako sistema hori zertan datzan, eta bide batez, aztertzen da legeak aipatzen duena praktikan zenbateraino betetzen den.

Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 6. artikuluan zehazten da “herri agintek” neurriak hartuko dituztela herritarren eskubide linguistikoak errespetatzeko. Hala, 14. artikuluan honako hiru puntu hauek lantzea proposatzen du legeak: bat,

langileak euskalduntzea; bi, lanpostu elebidunak finkatzea; eta, hiru, euskara eskakizuna kontuan izatea etorkizuneko hautaprobetan. Oinarri horien gainean idatzi zen 6/1989 Legea, uztailearen 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Iñaki Agirreazkuenagak (2009, 24. or.) dioten moduan, hizkuntz eskakizunei dagokienez, “gai honen erregulazio zehatza, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoetan, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak burutzen du”. Testu horretan, zehazki, lau hizkuntz eskakizunetan bereizten dira administrazio lanpostuak. Dekretu horren arabera, “administrazio bakoitzari dagokio hizkuntz betebeharrak finkatzea –Eusko Legebiltzarrak onartutako irizpideak betez–”.

21. taula: EAEko herri administrazioeko hizkuntza eskakizunak.

	ULERMENA	MINTZAMENA	IRAKURMENA	IDAZMENA
1. HE	B	A	B	A
2. HE	B	B	B	A
3. HE	B	B	B	B
4. HE	C	C	C	C

Iturria: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteke herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

Oharra: (A = oinarritzakoa, B = komunikazio maila ertaina eta C = gaitasun osoa).

Alde horretatik, garrantzitsua da kontuan izatea hizkuntz eskakizunak berdinak direla antzeko lanpostuetan. Alabaina, desberdinak dira eskakizun hori erdiesteko nahitaezko datak gune soziolinguistikoaren arabera.

(...) antzeko lanpostuetan hizkuntz eskakizuna berdina izango da Administrazio Publikoetan, baina derrigorrezko data errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz galdatuko da, eta hori Administrazio bakoitzaren lurralde eremuari dagokion derrigortasun indizetik aterako da; aipatutako indizea kalkulatzeko euskal hiztunen kopurua eta elebidun hartzaileen erdia gehitzen dira.

Horrela, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006 urteari dagozkion Erroldako datu ofizialen arabera, %37,38 badira euskal hiztunak (774.894) eta %22,14 berriz, elebidun pasiboak (458.939), Erkidegoko erakundeetan derrigortasun indizea $37,38 + (22,14/2) = 48,45$ izango litzateke; hots, gaur egun indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, 2006ko Erroldako datuak aplikatuz gero, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen %48,45ak derrigortasun data izan beharko luke esleituta. (I. Agirreazkuenaga, 2009, 25. or.).

Gauzak horrela, erakundea zenbat eta ingurune euskaldunagoan kokatu, orduan eta altuagoa da hizkuntz eskakizuna bete behar duten lanpostuen ehunekoa. Sistema honen helburua da, denbora tarte batean, administrazioa elebiduna izatera igarotzea eta euskal hiztunen eskubideak bermatzea. Asmo horiek egikaritzeko, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plangintzak jarri dira martxan herri administrazioetatik. Alde horretatik, honakoak dira *Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plangintzaldiko (2013-2017) Tarteko Ebaluazio Txostenak* jasotzen dituen datuak.

22. taula: EAEko herri administrazioiko langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna.

Eremu administratiboa	Lanpostuak guztira	Hutsik edo inf. gabe	Egiaztatutako Hizkuntza Eskakizuna (HE)							
			Lanpostuaren HE egiaztatuta		Baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatuta gabe		Salbuetsita	
				%		%		%		%
Araba	5.220	225	1.908	38,2	421	8,4	2.574	51,5	92	1,8
Gipuzkoa	8.033	619	5.415	73	505	6,8	947	12,7	547	7,3
Bizkaia	13.245	1.231	6.727	55,9	1.171	9,7	3.537	29,4	579	4,8
EAE	11.046	639	6.590	63,3	936	8,9	2.381	22,8	500	4,8
Guztira	37.544	2.714	20.640	59,2	3.033	8,7	9.439	27,1	1.718	4,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2016, 57. or.).

Taulan ikusten den moduan, Gipuzkoa da herri administrazioan hizkuntza eredia egiaztatuta duten langile gehien dituen lurraldea (%73). Aldiz, Araba da hizkuntza eskakizun gutxien egiaztatuta dituen lurraldea (%38). Aurreko plangintzekin alderatuz, datuak urte urte hobetzen doaz. Edonola ere, herri administrazioak oso urrun daude elebitasun osoa lortzetik. Hori dela eta, euskalgintzatik etengabe aipatu da euskararen erabileraren normalizazioa egikaritzeko oraindik bide luzea falta dela.

Hiru hamarkada ondoren, euskarak ezagutu dituen aurrerapauso eskasak administrazioei esker baino herritarren lan eta hautuari esker izan dira. Hori argi dago. Administrazioek emandako pausoak oso mugatuak izan dira eta ez dute euskararen normalizazioa bermatzen. Salbuespenak salbuespen, kasu gehienetan euskara sustatzeko zerbait egiten ari direla erakustera mugatu dira. Administrazioen beraien hainbat txosten eta datu aztertu ditugu, batzuk publikoak baina beste asko sekula plazaratu gabeak, eta ondorioak benetan argigarriak dira: Euskal Herriko herritar guztiontzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izateko helburua ez da lortuko hizkuntza politika horiekin, hau da, euskara ez da normalizatuko politika horiekin. (Astibia, 2010, 113. or.).

Laburbilduz, azken urte hauetan guztietan herri administrazioan hizkuntza normalizazioan aurrerapausoak eman diren arren, gaur-gaurkoz, hiritarren eskubide linguistiko guztiak ez dira bermatzen. Horren erakusle da arlo desberdinetatik baliabide gehiago eskatuz egin diren iradokizunak eta eskariak. Aurrera begira, bi bide daude jorratzeko: bata, Espainiar araubide juridiko orokorrak ezartzen dituen mugak gainditzen ahalegintzea; eta, bestea, indarrean dagoen araubide juridikoaren mugen baitan euskarari ahalik eta Lege babes handiena eskaintzea. Haritz Etxeberrriak (2015, 89. or.) dioten moduan, lehen eginkizun horretan bakarrik ez, bigarren horretan ere hanka-motz dabil Euskararen Legea: “Erabilerari dagokionez, Espainiako araudia bera baino estuagoa” baita “Euskararen Legea”.

3.1.1.2 Hezkuntza sistema

Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1979) onartu geroztik, honako legeek osatzen dute hezkuntza sistemari dagokionez euskararen inguruko araubide juridikoaren hezurdura: batetik, aurrez aipatu den 1982ko euskararen erabilera normalizatzeko Legea dago;

bestetik, uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua; eta hirugarrenik, 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (Urrutia, 2006, 438-441. or.).

La característica básica del sistema lingüístico educativo es la aplicación del principio de libertad de opción de la lengua vehicular en la enseñanza, que lo diferencia de otros sistemas lingüísticos como el catalán o el gallego. (Urrutia, 2006, 438. or.).

Alde horretatik, 138/1983 Dekretuan zehazten da irizpide linguistikoaren arabera hiru eredutan banatzen dela Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioa.⁸⁶ Honako hauek dira legeak aipatzen dituen hiru ereduok:

23. taula: Eredu linguistikoak irakaskuntza ez unibertsitarioan.

A EREDUA	“Irakasgai guztiak –euskara bera izan ezik– oinarritzat gaztelaniaz landuko dira. Euskara irakasgai erant beste edozein gai bezala emango da. (...) OHOKo goi mailatan beste irakasgaietako zenbait gai ere euskaraz landu ahal izango dituzte, baldin eta ikasleak beren euskara mailaz nahiko trebaturik baleude.”
B EREDUA	“Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. Gaztelania, berez, irakurketa-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: esperientziak, plastika eta dinamika bereziki.”
D EREDUA	“Irakasgai guztiak –gaztelania ezik– oinarritzat euskaraz landuko dira. Euskara bera ere irakasgai moduan landuko da. (...) Gaztelania, eskolako beste edozein irakasgai bezala emango da eskolaketaren hasieratik.”

Iturria: EHAA, 138/1983 Dekretua.

Dekretu honek egindako banaketa berretsi zuen 1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak. Testu horretan, 3.2. atalean azpimarratzen da eskola publikoaren helburua dela “ikasle guztiek, baldintza beretan, nahitaezko irakaskuntza aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz”. Era berean, 12.1. atalean testuak dio euskal eskola publikoak “ikasle guztiek hezkuntzaren maila guztietan euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasteko duten eskubidea bermatuko” duela. Alde horretatik, hezkuntza sistemaren baitan galdera bat sortu zen ikastolen inguruan. Eskola batzuk pribatuak baziren eta besteak publikoak, zer ziren ikastolak? Publikoak ala pribatuak? Bazen bigarren aukera bat: auzia beste kategoria batzuetatik pentsatu behar zela uste zutenena.

1990eko hamarkadan, D ereduaren irakasten zen hamar ikastoletatik zortzitan (%82,83; 57.230 ikasle). Sare publikoan, aldiz, ikastetxeen %12,9an (28.434 ikasle) soilik irakasten zen D ereduaren. Kopuruei erreparatuz gero, ikastoletan hiru aldiz ikasle

⁸⁶ Hiru eredu horiez gain, laugarren multzo bat ere bereizi ohi da. Bergarak (1996, 258. or.) dioten moduan “1983ko Elebitasun Dekretu eta Aginduak, Euskararen Legeak 21. artikuluan xedatua betez, OHOKo ikasketak Euskal Herriko Autonomia Erkidegotik kanpo hasita eduki edo bere ohiko egoitza Autonomia Erkidegoan ez dutela egiazta dezaten ikasleei, euskara ikastea barba dakiekela esaten dute. Euskararik ikasten ez duen ikaslekoa, X izeneko ereduaren sartu ohi da estatistikoki”.

gutxiago egon arren, bi aldiz ikasle gehiago ari ziren D ereduan ikasten. Beste hitz batzuetan esanda, ikastola zen belaunaldi gaztearen alfabetatze-euskalduntze prozesuaren motorra. Beraz, gazteen euskalduntze-alfabetatze prozesuaren zuzendaritza euskal proiektu nazionalaren eskuetan zegoen.

24. taula: Hizkuntza ereduak ikastetxeen izaeraren arabera (1982-1990).

Ikasmailak	Ikasturtea	Hizkuntza ereduak				Guztira
		A	B	D	X	
Publikoa	1982-83	62,74	7,71	3,86	25,6	266.732
	1989-90	68,33	18,71	12,90	0,03	220.417
Pribatua	1982-83	73,42	6,65	4,92	-	194.878
	1989-90	81,13	11,24	5,34	-	179.340
Ikastolak	1982-83	2,30	24,54	68,73	14,99	62.012
	1989-90	0,36	16,80	82,83	2,29	69.093

Iturria: P. Iztueta (2000b, 129. or.).

Alde horretatik, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak honako hautua egitera behartu zituen Frankismoaren itzalpean herri mugimendutik sortu ziren ikastolak: eskola publikoaren sarean murgiltzea edota eskola pribatuen multzora igarotzea.⁸⁷

Lege honen ondorioz, ikastola erdiek erabaki zuten sare publikora pasatzea (P. Iztueta, 2016, 504. or.). Harrezkeroztik, Eusko Jaurlaritzak Ikastolak eskola pribatu bailiran moduan kategorizatzen ditu ikastetxe publiko/pribatu dikotomiaren logikan. Era berean, ereduaren ikuspegitik multzo berean sartzen ditu D ereduan ikasten duten ikasleak: izan ikastolakoak edo besteetakoak (Eusko Jaurlaritza, 2018). Alabaina, bi kasuetan D ereduan irakatsi arren, berdina da euskal nazio ikuspegitik Espainiar estatuaren deribatu den Eskola publikoa edo Euskal hezkuntza nazionala xede duen ikastola? Gauza bera da edukiak euskaraz irakastea edo euskal pentsamendutik sortutako edukiak euskaraz irakasteko xede izatea? Zergatik izan behar du kontraesana hezkuntza publikoa eta euskalduna izateak? Ezin dira biak batera izan? Galdera hauen eta beste askoren inguruan eztabaida luzea sortu zen 1990eko hamarkadan, eta oraindik, orduko zauriak ez dira erabat itxi.


Egun, 1993ko maiatzaren 25ak utzitako mindurak erabat sendatu gabe badaude ere, argiago ikusten dugu alternatiba ez zela eskola publikoa ala pribatua, eskola publikoa ala Ikastolak, orduan planteatzen zen bezala, baizik eta eskola euskalduna ala espainola zein frantsesa edo,

⁸⁷ Honatx, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak hitzez hitz dioena: “Ikastolak, Konstituzio-aurreko aldirian euskaraz irakasteko xedez sortu zirenak, 1978. urtetik zabalduz joan dira, maiz botere publikoak konpondutako diru eta gauzazko zailtasunekin, ikastetxe multzo bat osatu arte. Horietatik asko ekainaren 29ko 10/1988 Legeak jasotzen dituen itun berezietz baliatu dira. Legearen erabaki gehigarrietako zazpigarrenaren arabera, ikastolek askatasunez aukera dezakete sare publikora bildu ala ikastetxe pribatu izan eta Ikastolak eta Herri Eskola Biltzeko Legeak ezarritakoa bermatzen da, hezkuntza sistema behin betiko eta zalantza gabe bi saretan, publiko eta pribatuan, egitura dadin”.

oraindik zehatzago esanda, euskal hezkuntza sistema nazionala ala hezkuntza sistema espainola zein frantsesa. Kontraesan nagusia hor zetzan, hor datza. Espainian eta Frantzia bezala, Euskal Herrian ere berdin-berdin kabitzen dira bai eskola pribatua bai publikoa, biak euskaldunak izanez gero. (P. Iztueta, 2016, 507. or.).

Ereduei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak (2018, 14. or.) urtero argitaratzen duen *2017-2018ko Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren datuak Euskadin* txostenean ikusten da ikasturte horretan ikasleen %67a D ereduan dagoela matrikulatuta, %14a A ereduan, ia %19 B ereduan eta gainerakoa %1a X ereduan.

18. irudia: Hizkuntza eredu bakoitzean ikasleen ehunekoak izandako bilakaera.



Iturria: Erize (2016, 17. or.).

Datuak erreparatuz gero, hazkunde handia izan du D ereduan matrikulatutako haurren kopuruak azken lau hamarkadetan. Azken urteotan joera irauli egin da eta ikasle gehienak D ereduan daude matrikulatuta. Hori horrela izan arren, 2014an oraindik ikasleen ia %40a B edo A ereduan matrikulatuta zegoen. Alde horretatik, hainbat ikertzailek azpimarratu dute gaur egungo ereduaren sistema (bereziki, A eta B ereduak) ez dela egokiena bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa ahalbidetzeko.

(...) gure iritziz A ereduak ez du balio ikasleek euskara ikas dezaten. B ereduak ere ez du helburu hori lortzen, D ereduari hurbiltzen zaionean izan ezik. (...)

Gure proposamena eredu trinko baten aldekoa da, egungo ereduak baino hein handiagoan bermatuko duena ikasleek euskara nahiz gaztelania mendera ditzatela, baita egoera gaitzenetan ere (familia gaztelaniadun elebakarrak, ikasle etorkinak). (F. Etxeberria, 2006, 112. or.).

Hori horrela izanik, erdibidean gelditu dira euskal hezkuntza legediaren oinarritzko helburuak euskal begiradatik: batetik, nahitaezko irakaskuntza aldia bukatzean herritarrek bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa bermatzeko gaitasun eza erakutsi duelako; eta bestetik, Euskal hezkuntza sistema nazionala garatzekoan atzerapausoak eman direlako.

3.1.1.3 Komunikabideak

Komunikabideei dagokienez, euskararen inguruko araubide juridikoaren oinarriak ezartzen dituztenak dira Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1979) eta 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea. Alde horretatik, euskararen legean

azpimarratzen da 22. eta 23. artikuluetan herritar orori aitortzen zaiola “gizarte hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea”. Era berean, legeak dio Eusko Jaurlaritzak “hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko” dituela. Alde horretatik, 25. artikulua banan bana zehazten ditu euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko diren eremuak (irratia, egunkari eta aldizkariak, zinema, antzerkia eta ikuskizunak, irudiaren eta soinuaren grabazioak). Gainera, artikulua horretan aipatzen da esparru horietako bakoitza garatzeko etorkizunera begira lege bat garatzea aurreikusten dela. Lege horiek beren bidea egin dute, nahiz eta tarteka eztabaidak sortu diren (Urrutia, 2006, 441-445. or.).

Esan bezala, 1982ko euskararen legeak aurreikusten zuen Eusko Jaurlaritzak hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren ekarpen nagusia izan zen Euskal Telebista Publikoaren sorrera. Telebista berri hark bi helburu zituen: batetik, herritarren informazioa eta parte hartze politikoa ahalbidetzea; eta bestetik, euskal kulturaren berreskurapena (Amezaga, 2013, 23. or.). 1982ko abenduaren 31n egin zen lehen emankizuna euskara hutsez. Ondorengo urteetan, hizkuntzaren kontua aldatzen joan zen.

Lehen urteetako audientzien panoramak amets hura elikatzeko aukera ematen zuten: CIESeK 1984an egin zuen lehen audientzia inkesta, eta haren arabera EAEko telebista kontsumoaren heren bat hartzen zuen ETBk, ia dena euskaraz zen garaian. Ez zen hasiera makala urte eta erdiko jaioberri batentzat.

Geroko gertaerek, ordea, ametsa ahulduz joan zen: ETB2 sortu eta euskara ETB1era mugatuta, asko murriztu zen euskarazko emanaldiak euskal etxeetan okupatzen zuten denbora, hasierako heren hartatik %8ra jaitsi zen. Kolpe horien ostean beste batzuk etorri ziren. (Amezaga, 2020, 40. or.).

Amezagak (2013) xehetasun handiz azaltzen du 30 urtean zehar erakunde honek izandako bilakaera. Alde horretatik, fase desberdinak bereizten ditu bere ikerketan: 1) telebistan euskara nagusi den aroa (1982-1986); 2) gaztelaniazko kanalaren sorrera (1986-1992); 3) eredu dualaren aldeko apustua (1992-...). Honakoa da euskal telebistak eduki duen bilakaera horren ondorioa: ETBk gaitasuna galdu du euskararen normalizazioan eragiteko.

ETBren eredu dualak zenbait ondorio izan ditu. Batetik, euskararen susperkuntzaren eginkizuna euskarazko kanalaren esku geratu da soilik, gaztelerazkoak zeregin hori guztiz abandonatu duelarik. Horrekin batera, euskaldunek, elebidunak izanik, gaztelerazko unibertsoa oso ondo ezagutzen badute ere, ez da berdin gertatzen alderantziz: erdaldun elebarrak oso gutxi ezagutzen dute euskararen unibertsoa (euskaraz egiten diren gauzen eta aritzen den jendearen unibertsoa, alegia), eta gaztelerazko kanala ez da ezagupen hori handitzeko erabili.

Bestetik, telebista pribatuen etorrerarekin handitu eta digitalizazioarekin biderkatu zen audientziagatiko lehian, gaztelerazko kanala euskarazkoaren audientzia potentzialaren eremuan aritu da hazkunde bila. Izan ere, biak baitira erakunde bereko kanalak, ezaugarri bertsuekin, beraz, eta biak orotariko telebista gisa aritzen direlarik, audientzia «natural» berbera dutela esan dezakegu. Eta norgehiagoka horretan, euskarazko kanala kaltetuta geratzen da; batetik, gaztelerazko telebistak euskaldun guztiak erakar ditzakeen bitartean (elebidunak direlako),

euskarazkoak gazteleradun elebakarrak erakartzea zailagoa delako; bestetik, nahikoa da etxean telebista ikusten ari direnetako bakarria euskalduna ez izatea, euskarazko kanala alboratu eta hizkuntza partekatua aukeratzeko. Horrela, gaztelerazko kanalak lortu ditu proiektio sozial eta audientzia handienak, euskarazkoaren kaltetan. (Amezaga, 2013, 31-32. or.).

Erdal komunikabideak kontsumitzen ditu EAEko herritarren gehiengoak, baita euskal hiztunen artean ere. *2017ko euskal hedabideen* urtekarian argi ikusten da zein diren EAEko herritarren kontsumoaren inguruko errealitatea. Euskal hiztunei dagokienez, ETB-ko saio bakarria ageri da hamar saio ikusien artean: *El conquistador del fin del mundo*. Gaztelaniaz da aipatutako saioa.

25. taula: Programa ikusiena euskal hiztunen eta euskal herritarren artean, 2016an.

Euskaraz hitz egiten dutenak			Euskal herritarrek		
PROGRAMA	KANALA	KUOTA	PROGRAMA	KANALA	KUOTA
Allí abajo	A3	24,4	Supervivientes	T5	24,9
Gran Hermano VIP	T5	23,2	Gran Hermano VIP	T5	24,0
Supervivientes	T5	21,9	Allí abajo	A3	23,5
El conquistador del fin del mundo	ETB2	21,6	Master chef celebrity	La1	21,5
Tu cara me suena	A3	21,4	Sálvame Deluxe	T5	21,2
Salvados	LA SEXTA	21,2	Tu cara me suena	A3	20,3
Gran Hermano	T5	20,9	Salvados	LA SEXTA	20,3
Lo que escondían sus ojos	T5	19,2	En la tuya o en la mía	La1	20,0
Master chef celebrity	La1	18,6	Gran Hermano	T5	19,8
Gran Hermano Vip: Debate	T5	18,5	Gran Hermano Vip: Debate	T5	19,7

Iturria: Behategia (2017, 130. or.).

Ikusten den moduan, oso baxua da euskal programek duten ikusle kopurua. Honatx, ETB-1eko euskarazko 5 programa esanguratsuenen audientzia orokorrak EAEn.

26. taula: Bost programa esanguratsuenen audientzia orokorra, euskal hiztunen artekoa eta adinaren arabera %tan (2016).

Kuota (2016-2017) batez bestekoa	4 urtetik gorako populazioa	euskal hiztunak	4-12 urtekoak	13-24 urtekoak	25-44 urtekoak	45-64 urtekoak	65 urtetik gorakoak
GO!AZEN	4,1	10	33,3	8,2	6,8	0,6	0,7
HERRI TXIKI INFERNU HANDI	3,9	8,8	6,8	4,0	4,7	2,5	4,9
BAGOAZ	3,5	8,1	25,2	3,1	6,3	0,4	0,6
UR HANDITAN	2,9	7,0	5,1	4,3	6,0	2,3	1,2
ASKO MAITE ZAITUT	2,2	5,7	3,6	1,6	3,6	0,9	2,9

Iturria: Behategia (2017, 132. or.).

Euskarazko saioen artean, 2016-2017an *Go!azen* da ikusle kuota altuena lortu duen programa. Euskal hiztunen artean %10ak ikusten du saioa. Ondorioz, euskal telebista publikoak ez ditu beste hedabideek dituzten audientzia mailak EAEn.

Edonola ere, euskarak komunikabideetan duen presentzia ez da telebistara mugatzen. Ezin dira aipatu gabe utzi irratiak, aldizkariak, egunkariak eta abar. Horietan ere antzekoa da auzia: batetik, euskaldunak elebidunak dira eta joera dute erdal komunikabideak kontsumitzeko; bestetik, erdalduna da gizartearen sektore handi bat, eta ondorioz, ez ditu euskal komunikabideak kontsumitzen. Era berean, ezin da aipatu gabe utzi Frankismo garaiko zentsurari jarraipena emanez zenbait komunikabide itxi zirela Espainiar estatuaren aginduz (Egin, Egin Irratia eta Egunkaria). Herrigintzak euskal komunikabideak sustatzen egin duen lana berebizikoa izan arren, horrelako

gertakariak erabat baldintzatu dute etorkizuna. Horri guztiari gehitu behar zaio azken hamarkadetan gertatu den digitalizazioak eragin duen eraldaketa eta mundializazioa. Alde horretatik, oso apala da euskarak azken horietan duen presentzia.

Komunikazio modu berriak (Internet eta datu mugikorak) gero eta garrantzitsuagoak dira gure bizitzan: eta horietan euskarak duen presentzia oso urria da. Modu horiek familiari eta eskolari espazioa kentzen ari zaizkie sozializazio prozesuan. Hortaz hizkuntza politika batetik begiratuta, modu berri horietan euskararen presentzia areagotu beharra dago, familiaren eta eskolaren lana zapuztea nahi ez bada. (Amezaga, 2020, 43. or.).

Laburbilduz, orain arte ikusi da erakundeek gizarteak euskaraz nahiz gaztelaniaz informazioa jasotzeko duen eskubidea ahalbidetu egiten dutela; alabaina, ikusten da hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriek emaitza kaxkarrak lortu dituztela. Borondate politikoa falta da euskal komunikabideen aldeko apustua egiteko. Adibidez, ETB1en aldeko apustua egiterakoan edota digitalizazioaren aroan euskarazko edukiak sortzeko. Hori guztia, euskal administrazioei dagokienez. Espainiar estatuaren kasuan, euskal komunikabideen aurka garai jakin batzuetan muturreko jarrerak agertu dira egunkariak eta irratiak ixteraino (Zalakain, 2003).

3.1.2 NFEko kasua: euskara hizkuntza ofiziala soilik eremu euskaldunean

Aurreko azpikapituluan, EAEko egoera juridikoa aztertu den moduan, azpikapitulu honetan zehazten da zeintzuk diren NFEn euskararen araubide juridikoaren nondik norakoak (Arzo, 2006). Alde horretatik, abiapuntu gisa kontuan izan behar da Nafarroako Foru Hobekuntza 1982an onartu zela. Lege horrek zehazten du Nafarroak Espainiako gainerako lurraldeekin alderatuz jatorrizko eskubide historikoak dituela. Hala ere, jarraian dio “Espainiako Nazioaren barnean sartua” eta “haren herri guztiekin” solidarioa dela. Alde horretatik, 9. artikuluan agertzen da hizkuntzen inguruko aipamena.

9.1. artikulua: “Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.”

9.2. artikulua: “Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan”.

Ikusten den moduan, gaztelania da legediaren arabera Nafarroa osoko hizkuntza ofiziala. Euskara ere ofiziala dela dio, baina eremu batzuetan soilik. Bi aipamen horiek zehazten dute hizkuntza politiken oinarria. Ildo horretatik, Nafarroako Foru Hobekuntza legean aipatzen da lege bat aurreikusten dela euskararen inguruko araubide juridikoa zedarritzeko. Aipu hori 9. artikuluaaren amaieran dator: “Foru lege batek eskualde horiek

zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du”.

Nafarroako Foru Hobekuntza legean agertzen den moduan, hizkuntza legediaren inguruan zegoen hutsunea osatzeko onartu zen 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Lege horren atarikoan aipatzen da euskara Nafarroako altxor kulturala dela eta Nafarroako Foru Erkidegoa beharturik dagoela haren hondatzea eta galera eragoztera. Era berean, altxor izaera horri lotuta adierazgarria da 1.3 artikuluan euskalkiei ematen dien garrantzia. Edonola ere, Arzozen (2006, 393. or.) arabera bi dira lege honen ezaugarri eta arazo nagusiak: bata, hizkuntza eskubideak eremu linguistikoen arabera banatzea (eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu erdalduna); eta bestea, herritarren eskubide linguistikoen inguruan argitasun eta zehaztasun falta. Kontseiluak 2018an argitaratutako txostenean honakoa dio zonakatzearen inguruan:

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak hiru hizkuntza eremu ezarri zituen, bakarrean aitortuz euskararen ofizialtasuna. Ondorioz, Euskararen Legeak bermatu baino mugatu egiten dizkie eskubideak herritarrei, euskaraz bizitzeko eskubidea tokiaren arabera baizik ez baitie aitortzen. Hizkuntzagatik inor ez diskriminatzea eskatzen duen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipioaren aurkakoa da muga hori. Horrela, bazterkeria legez jasota duen komunitatea da Nafarroa. (Kontseilua, 2018, 5. or.).

Ikusten den bezala, zonakatzek zuzenean eragiten die Nafarroako euskal hiztunen eskubideei. Azken urteotan, lege honek hainbat zuzenketa partzial izan ditu. Alabaina, bere horretan mantendu dira oinarritzko atalak (Arzo, 2006, 395-397. or.).

3.1.2.1 Herri administrazioa

Herri administrazioetan desberdina da eremu bakoitzean euskarak duen araubidea, besteak beste, hala zehazten duelako 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak (Arzo, 2006, 400-405. or.). Gauzak horrela, zein dira 18/1986 Foru Legeak euskal hiztunei administrazioaren aurrean aitortzen dizkien hizkuntza eskubideak eremu bakoitzean? Honatx, galdera horren inguruan lege horretan jasotzen diren artikuluko garrantzitsuenak.

10.1. artikulua (*Eremu euskalduna*): “Herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko, progresiboki eskubide honen erabilera bermatzeko”.

17. artikulua (*Eremu mistoa*): “Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoekiko zuzentzeko. Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatutako administrazioek honako hau egin dezakete: a) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztea zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea. b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskara jakitea merezimendu moduan baloratzea”.

18. artikulua (*Eremu ez euskalduna*): “Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Administrazio horiek interesdunei gaztelaniara itzultzeko eska diezaiekete edo 9. artikuluan aurrez ikusitako itzulpen zerbitzuak erabili”.

Goiko artikuluetan ikusten da euskal hiztunek administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela hiru eremuetan. Alabaina, administrazioaren betebeharrak desberdinak dira eremuen arabera. Ereku ez-euskaldunean, adibidez, herritarrek administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea izan arren, administrazioak ez du betebeharririk euren eremuetan. Are gehiago, hiztunei gaztelaniara itzultzeko eska diezaiekete. Horretarako, gainera, itzulpen zerbitzua aurreikusten du administrazioak. Ereku mistoan apur bat desberdina da egoera. Izan ere, euskal hiztunek euskaraz zuzentzeko eskubidea izateaz gain, administrazio publikoek saiatu behar dute eskubide horren erabilera bermatzen. Horretarako, legeak zehazten du administrazioak lanpostu jakinetan hizkuntza eskakizunak jarri ditzakeela. Edonola ere, ereku mistoan ez zaio aitortzen euskal hiztunari administrazioan harrera euskaraz izateko eskubidea. Azken hori onartzen da soilik ereku euskaldunetan. Ereku euskaldunean, legeak zehazten du bitartekoak jarriko direla progresiboki euskal hiztunen eskubideak bermatzeko. Gauzak horrela, honakoa da argazkia legea onartu eta ia 25 urtera.

Nafarroako administrazioan 20.632 lanpostu daude [2008], baina euskara jakitea ezinbestekoa duten lanpostuak 1.486 besterik ez dira, hau da, %7,2 baino ez. Are okerrago, unibertsitate aurreko hezkuntza alde batera uzten badugu, ehuneko murriztu hori ia ezerezean gelditzen da, %1,2. Horrek zera esan nahi du, osasunbidean, administrazio orokorrean, Foruzaingoan, Justizian... 158 lanpostutan soilik eskatzen dela euskaraz jakitea. Halaber, Nafarroan diharduten epaile, fiskal zein idazkari judizialek, bati ere ez zaio euskararen derrigorrezko ezagutza eskatu. (Astibia, 2010, 107. or.).

18/1986 Foru Legea osatzen joan da urteetan zehar, baina ez gorabeherarik gabe. Besteak beste, honako Foru Dekretuak onartu dira: 70/1994, 135/1994, 372/2000, 29/2003, 55/2009 eta 103/2017. Kontseiluaren (2018, 6-7. or.) hitzetan, 103/2017 Foru dekretuak, 2003an onartu zen "dekretu murriztailearekin" alderatuz aukera berriak zabaltzen ditu euskararen normalizaziorako. Dekretu horretan, beste hainbatetan artean, zehazten da ereku euskaldun, misto eta ez-euskaldunetako administrazio publikoko lanpostuetan sartu edota lanpostuak betetzerakoan, euskara gutxienez meritu gisa zenbatzea. UGT eta SPA sindikatuak errekurtsioa jarri zioten lege honi. Ikusten den bezala, euskararen legea administrazioari dagokionez, auzi korapilatsua izan da urte hauetan guztietan.⁸⁸

[Administrazioan] Euskara ahozko harremanetan erabili ahal izatea salbuespena da, eta langile euskaldunen borondatearen mendean geratzen da euskaldunen eskubidea. Idatzizko harremanetan erdara da hizkuntza bakarra informazioa edo argitalpenak Nafarroa osoan banatu behar ez badira. Nafarroa osorako direnean, legearen araberrako 'zona euskaldun' ere banatu behar direnez, ele bietan argitaratzen dira baina euskarri bananduetan. Ohikoa izaten da, kasu

⁸⁸ Gaian sakontzeko ikusi honako link-a: <https://www.berria.eus/paperekoa/2040/002/001/2019-10-02/euskararen-dekretua-edukiz-hustu-du-nafarroako-auzitegi-nagusiak.htm> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/03).

horietan, euskarazko aleak kutxetatik atera gabe "ahaztuta" geratzea inork ez baditu erreklamatzeko. (Ramos, 2006, 92. or.).

Ikusten den moduan, euskara bazterreko hizkuntza da Nafarroako herri administrazioan (Nafarroako Arartekoa, 2010): batetik, legearen aurrean ez direlako maila berekoak euskal hiztunen eskubideak eta gaztelar hiztunenak; eta bestetik, teoriarik euskal hiztunek eskubideak dituzten kasuetan ere, administrazioak ez duelako borondaterik erakutsi elebitasunaren aldeko praktikak egikaritzeko.

3.1.2.2 Hezkuntza sistema

Hezkuntza sistemari dagokionez, Nafarroan bi dira euskararen araubide juridikoa zehazten duten lege nagusiak: batetik, 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa; eta bestetik, 159/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa. Azken hori da Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta erabiltzea arautzen duena (Arzo, 2006, 405-410. or.). Gai horren inguruan, hiru eremu bereizten ditu 18/1986 Foru Legeak: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

159/1988 Foru Dekretuak, lege horretan oinarrituz, hiru printzipio bereizten ditu euskararen inguruan eremuen arabera: eredu euskaldunean, nahitaezotasuna; eremu mistoan, borondatea; eta eremu ez-euskaldunean, sustapena (Arzo, 2006, 405-406. or.). Printzipio horien gainean zehazten da esparru ez-unibertsitarioan eremu bakoitzean baimentzen den hezkuntza ereduak. Orotara, honakoak dira Nafarroan aukeragai dauden ereduak.

27. taula: Hizkuntza ereduak Nafarroako hezkuntza sisteman.

A ereduak	"Gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan."
B ereduak	"Zati batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera."
D ereduak	"Irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik."
G ereduak	"Eredu honetan ez da euskara ematen, ez irakasgai bezala ezta irakas-hizkuntza bezala ere. Hizkuntza eremuaren arabera ezartzen da."

Iturria: Nafarroako Hezkuntza Saila.⁸⁹

Eredu euskaldunari dagokionez, 159/1988 Foru Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan zehazten da A ereduaren bidez euskararen irakaskuntza derrigorrezkoa dela esparru ez-unibertsitarioan. Era berean, ikasleek aukera dute B edo D ereduaren ikasteko. Alde

⁸⁹ Informazioa jaso da Nafarroako Hezkuntza Sailaren web orritik: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/04).

horretatik, honako hiru eredu hauek baimentzen dira eremu euskalduneko irakaskuntzarako: A eredua, B eredua eta D eredua. Eremu mistoan, aldiz, ez da derrigorrezkoa euskararen irakaskuntza A ereduaren bidez. Izan ere, 159/1988 Foru Dekretuaren 6. artikulua soilik arautzen du eremu honetan, ez 5. artikulua. Hori dela eta, nahitaezkoa den bakarra da irakaskuntza gaztelaniaz jasotzea (G, A, B edota D ereduan ikasiz). Alde horretatik, eremu mistoan irakaskuntza euskaraz jaso nahi duenak aukera du A, B edota D ereduan apuntatzeko. Horretarako, ordea, legeak zehazten du gutxiengo baldintzak bete beharko direla bai eskari kopuruari dagokionez, baita baliabideen ikuspegitik ere. Eremu ez-euskaldunaren kasuan, 159/1988 Foru Dekretuak dio 18/1986 Foru Legearen 26. artikuluari jarraitzen diola, eta ondorioz, euskararen erabilera irakaskuntzan ez da derrigorrezkoa. Lege hori 4/2015 Foru Legeak berritu zuen eta aldaketa horren ondorioz aukera zabaldu da sare publikoan D ereduan ikasteko (Kontseilua, 2018, 7. or.). Ordura arte, D ereduan ikasi nahi zuenak ezinbestekoa zuen ikastoletara joatea. Alde horretatik, azpimarragarria da ikastolek urteetan NFEan jasandako bazterketa, bereziki eremu ez-euskaldunean.

Historiak erakutsi digu ez direla sekula eskutik helduta joan ikastolen mugimendua eta boterea, ez behintzat norabide berean. Etengabeko desadostasun horren emaitza hauxe da: oraindik ere, XXI. mende honetan, bost ikastola ez daude lege barrenean, ezta guztien artean dituzten 600 ikasle inguru horiek ere. Hitz batez, 'alegalak' dira.

Horietako lau daude legeak eremu ez-euskalduna esaten dion lurraldean. Guk, aldiz, premiaz berreuskaldundu beharreko eskualdea deitzen diogu. (Lopez-Goñi eta Mariñelarena, 2006, 110. or.).

Ikastolei oztopoak jartzeaz gain, euskararen normalizazioari mugak jartzeko azken saiakera izan da UPNren gobernuak eredu desberdineko irakaskuntzaren barruan atzerriko hizkuntzei lotuta abian jarri zuen PAI proiektua. Eremu honen xedea atzerriko hizkuntzen ezagutza sustatzea da eta horretarako atzerriko hizkuntza pasatzen da irakats hizkuntza izatera. Hainbat ahotsek salatu dute atzerriko hizkuntzak eredu desberdinen barnean garatzeko aurkeztu diren proiektu horiek zeharka euskararen normalizazioa oztopatu nahi dutela.⁹⁰

Laburbilduz, euskararen araubide juridikoa aztertu ostean, NFEko hezkuntza sisteman ikusten da ez direla berdintasunean aurkitzen euskal hiztunen eskubideak eta gaztelar hiztunenak. Honek guztiak erakusten du Nafarroako eremu euskaldunean euskal hiztunen eskubideak bigarren mailakoak direla; are gehiago, eremu misto eta ez-euskaldunean ez dira bigarren mailako izatera ere ia iristen. Horri guztiari gehitu behar zaio NFEan ikasleen gehiengoak G ereduan ikasten duela (ia %58ak). Beste hitz

⁹⁰ Bikain laburbiltzen du albiste honen izenburuak bertan gertatzen dena: <https://www.berria.eus/paperekoa/1953/008/001/2020-02-18/pai-nahitaez-d-eredua-nahita-ere-ez.htm> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/04).

batzuetan esanda, 2016-2017 ikasturtean, NFEko ikasleen gehiengoak ez du euskararen edo euskarazko irakaskuntzarik jasotzen eskolan.

28. taula: Nafarroako hezkuntza sistema (2016/2017 ikasturtea).

Eskolaren titulartasuna	Maila	Guztira	A Eredua	B Eredua	D Eredua	G Eredua	Atzerrian ikasten
Pribatua* (Ikastolak barne) ⁹¹	HH	15.112	2.237	100	2.675	10.027	73
		%100	%14,80	%0,66	%17,70	%66,35	%0,48
	DBH	10.744	1.016		1.704	8.012	12
		%100	%9,46	%0,00	%15,86	%74,57	%0,11
Publikoa	HH	26.257	6.005	6	8.354	11.892	0
		%100	%22,87	%0,02	%31,82	%45,29	%0,00
	DBH	15.817	1.370	35	5.018	9.394	0
		%100	%8,66	%0,22	%31,73	59,39	%0,00
Guztira		67.930	10.628	141	17.751	39.325	85
		% 100	%15,65	%0,21	%26,13	%57,89	%0,13

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea.

Oharra: Ikastolak titularitate pribatuko erakunde gisa zenbatzen dituzte. Alabaina, lan honetan ulertzen da menpeko egoeraren ondorioa dela egoera hori 3.1.1.2. puntuari ikusi den moduan.

Txanponaren beste aldea da 2016-2017 ikasturtean, HH eta DBHko mailak batuz, ia 18.000 ikasle ari zirela D ereduari ikasten. Gutxi gorabehera, lau ikasle bat. Eredu honek ahalbidetzen du jatorrizko euskal hiztunek irakaskuntza bere hizkuntzan jasotzea eta, etxetik euskara jaso ez dutenek, euskara ezagutza maila duina izatea. Edonola ere, G ereduak desagertu eta D ereduak erabat zabaltzen ez den bitartean, zaila izango da euskararen normalizazioa eta ezagutza erabatekoa izatea.

3.1.2.3 Komunikabideak

Nafarroako Foru Erkidegoaren baitan, 18/1986 Foru Legea da komunikabideetan euskararen araubide juridikoa zehazten duena. Lege honetan azpimarratzen da administrazio publikoetatik ahalegina egingo dela komunikabideetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan.

27. artikulua: “1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute. Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten. 2. Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du”.

28. artikulua: “Nafarroako Administrazio Publikoek babestu egingen dituzte euskaraz egiten diren agerkari kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikus-entzunezko ekoizpena eta bestelako edozein jarduerak”.

18/1986 Foru Legearen 27. eta 28. artikuluetan, Nafarroako Administrazio Publikoek euskaraz egiten diren agerkari kulturalak nahiz euskarazko komunikabideak babestu

⁹¹ Nafarroan orotara 15 ikastola daude. Horiek guztiak, 70eko eta 80ko hamarkadan sortuak (Lopez-Goñi eta Mariñelarena, 2006, 109. or.).

gingo dituela badiote ere, bestelakoa izan da joera praktikan. Arzozen (2006, 413. or.) arabera, legedia ez da behar beste argia hizkuntza aniztasuna bermatzeko orduan. Zirrikituak uzten ditu eta hori aitzakia ona da borondate falta duenarentzat.

Bidadorrek (2001, 656-657. or.) dio 1986ko euskararen legean oinarrituz administrazioetik bi bide jorratu zirela hizkuntzen erabilera egokia sustatzeko: bata, kazetarien euskalduntzea; eta bestea, diru-laguntzen bidea. Alde horretatik uste du lehen bideak ez zuela eman aurreikusitako emaitzarik. Bigarren bidearen kasuan, berriz, ahalegina emankorragoa izan zela uste badu ere, denborarekin euskal komunikabideentzat ziren laguntzak behar baino gutxiago izaten amaitu zuten. Hori dela eta, Bidadorrek dio, gobernuan egon direnek legearen gainean egin izan duten irakurketa murrizak eragin duela euskarazko komunikabideen egoera hobea ez izatea.

La situación del euskara en los medios de comunicación en Navarra debiera ser mejor teniendo en cuenta el actual porcentaje de euskaldunes en la comunidad. La ley del vascuence debiera haber servido para normalizar esta situación. No hay duda de que una más decidida intervención de los responsables de Política Lingüística del Gobierno de Navarra hubiera facilitado cuestiones concretas como la posible continuidad del “Nafarroa gaur” dentro del Diario de Noticias, la presencia obligada del euskara en las radios legalizadas, la legalización de Euskalerría Irratia, etc. (Bidador, 2001, 658. or.).

Euskalerría Irratiaren kasua da XX. mendearen azken bi hamarkadetan Nafarroako Gobernuak euskal komunikabideen aurka erakutsi duen jarrera ulertzeko balio dezaken adibidea (Bidador, 2001, 654. or.). XXI. mendearen bigarren hamarkadan, beste horrenbeste gertatu da Euskal Telebistarekin. Pentsa, 2016ko maiatzaren 5ean EITBk seinalea eten behar izan zuen Nafarroan UPNk jarritako helegite baten ondorioz.⁹² Arazoa, ordea, lehenagotik zetorren. 2013an esaterako, Arartekoak eskatu zion Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuari Telebista digitalaren programazioa euskaraz ikusteko dauden zailtasunak gaitzetzeko beharrezkotzat jotzen dituen kudeaketak egin zitzala, Nafarroan ahalik eta zabaltasun handienarekin Euskal Telebistaren saioak ikus zitezten, gutxienez, euskarako saioak.⁹³ Amezagak dio Nafarroan nagusi izan den estrategiak honako helburua izan duela: Nafarroa eta gainerako euskal lurraldeak bereiztekoa. Aipatutako joera hori nabarmena izan da komunikabideetan.

⁹² <https://www.argia.eus/albiste/eta-itzaltzen-ez-badugu-nafarroan-eitb-eteteko-aginduaren-ondorengo-erreakzioak> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/04).

⁹³ Honatx 13/535 espedientearen Arartekoak jasotzen duena: “Recomendar al Departamento que realice las gestiones que considere necesarias para que, en Navarra, puedan verse con la mayor amplitud posible las emisiones de Euskal Telebista, al menos las que emita en euskera.” Ikusi. <http://www.defensornavarra.com/index.php?eu/Gomendioak-iradokizunak-eta-legezko-betebeharren-gogorazpenak/2013/Euskara> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/04).

Nafarroa Garaia kasuan, oro har komunikazio politikaren helburuetako bat balizko euskal komunikazio espazial batetik aldentzea izan da azken urteetara arte. Hor kokatu behar dira irratien emakidak, eta bereziki euskarazko irratiek pairatu duten bazterkeria. Hor kokatzen da baita telebistagintzaren arloan eginiko lanaren zati bat (telebista sistema propioa eraiki, lehenago aipatu dugun CoANen sorrera, edota EiTren zabalpenari jarritako oztopo guztiak, adibidez). Prentsan ere, Nafarroako Gobernu desberdinek ez dute lortu pluraltasuna itotzen duen sistema ezabatzea, irakurle gehienak egunkari bakar batek bereganatzen baititu; baina bai lortu du egunkari hori, hain zuzen, Nafarroa eta gainerako euskal lurraldeak aldentzeko asmoarekin egiten duena izatea. (Amezaga, 2017, 49. or.).

Laburbilduz, Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen araubide juridikoak ez du euskararen normalizazioa ahalbidetu komunikabideetan. Aitzitik, hainbat kasutan, euskararen zabalkuntzarako baino oztopo gisa interpretatu da legedia. Alde horretatik, lan honetan garrantzitsua ikusi da bi aldagai horiek aipatzea: batetik, legeak ez ditu hizkuntza gutxituaren normalizazio prozesurako oinarriak eskaintzen; eta bestetik, onartzen diren eskubideen kasuan, esparru politikotik interpretatzen dira modurik atzerakoienean. Hori dela eta, herri ekimena izan da euskararen normalizazioaren motor nagusia.


3.2 Euskara, mendeko hizkuntza bere lurraldean

Aurreko atalean ikusi da, 1970eko hamarkadatik aurrera, Hego Euskal Herrian euskararen inguruko araubide juridikoaren irizpide nagusiak Espainiako Konstituzioak ezartzen dituela. Ondorengo hamarkadetan irizpide nagusi horiek osatzeaz arduratu dira EAEko eta NFEko Erakunde Autonomikoak. Alde horretatik, bi tentsio gune izan dira euskalgintzaren eta erakundearen artean: batetik, “euskal barrutiko tirabirak”, alegia, EAEko eta NFEko erakundearen borondate politiko faltagatik erabat garatu ez diren eskumenen inguruan sortutako gorabeherak (adibidez, D ereduaren lurralde guztian ezarri ez izana); eta bestetik, “erdal lurraldeko agenteen esku-hartzeari dagokiona”, hots, EAEn eta NFEn gehiengoaren babesik gabe eta espainiar legediaren izenean edota estatuko indar armatuen monopolioaz baliatuta estatuak oztopatu dituen ekimenak (adibidez, Egin edota Egunkariaren itxiera). Tentsio gune horien logikan egin du bidea euskarak eta euskalgintzak azken lau hamarkadetan Hego Euskal Herrian.

Bigarren azpikapitulu honen helburua da euskararen errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko betaurrekoak eskaintzea. Horrela, Nazio zapalduaren ereduarekin bat egiten duen begiradatik aztertu nahi dira euskararen mendeko egoera “naturalizatzen”

duten analisiak eta kategoriak.⁹⁴ Ikuspegi zahar-berri honek aurrera begira aukerak zabaltzen ditu euskal lerrokatze linguistikoa akademian hegemonikoa ez den beste begirada batetik ulertzeko.

19. irudia: Euskara eta gaztelania gaitasuna %tan Hego Euskal Herriko udalerrietan (2016).



Iturria: Eustat eta Euskarabidea. Egileak moldatua.
Oharra: 2011koak dira Nafarroako datuak.

Euskararen datuak aztertzen hasi aurretik, honakoa da kontuan izan beharreko ideia: Hego Euskal Herriko udalerrri guztietan gaztelaniaren ezagutza ia %100 den bitartean, euskarari dagokionez baldintza horiek oso udalerrri gutxitan daude.

Jarraian, abiapuntu hori kontuan izanik, nolakoa izan den aztertzen da ikuspegi kuantitatibo batetik euskararen ezagutzak, transmisioak eta erabilerak Hego Euskal Herrian azken hamarkadetan izandako bilakaera soziolinguistikoa.

3.2.1 Hizkuntza gaitasuna

Azken urteotan euskararen inguruan egin diren ikerketa soziolinguistiko nagusiek azpimarratu dute euskara gaitasuna duten hiritarrak gero eta gehiago direla Euskal Herrian (Eusko Jaurlaritza, 2019, 19. or.). Ikerketa horren arabera, 751.427 euskal hiztun zeuden 2016an. Alde horretatik, 1991ko inkesta soziolinguistikoarekin alderatuz, kalkulatzen da 25 urtean zehar 220.000 hiztun baino gehiago irabazi direla. Zehatz-mehatz esateko, %6,1ko hazkundea izan du euskararen ezagutzaren ehunekoak 1991-2016 epealdian. Antzeko joera nabari da Hego Euskal Herriko lurraldeetan, nahiz eta batetik bestera desberdintasunak egon.

⁹⁴ José María Sánchez Carrión Txepetxek esaldi hau jasotzen du Kasaresek (2004, 9. or.) bere hitzaurrean: “la historia humana también nos enseña que cada «fin de ciclo» se supera cuando hay una minoría que es capaz de instalarse mentalmente en las necesidades y exigencias del ciclo siguiente, y comienza a actuar desde ellas en el fin de ciclo anterior”. Lan honetan ahalegina egiten da euskararen errealitate soziolinguistikoaren beharrak eta aterabideak Txepetxek aipatzen duen gutxiengoaren begirada horretatik pentsatzeko.

29. taula: 2016an, hizkuntza gaitasuna lurraldearen arabera (%tan).


	Hego Euskal Herria		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa	
		%		%		%		%		%
Guztira	2.397.982	100	273.086	100	986.155	100	605.139	100	533.602	100
Euskalduna	700.330	29,20	52.513	19,23	272.423	27,62	306.448	50,64	68.946	12,92
Euskaldun hartzailea	411.070	17,14	50.197	18,38	201.074	20,39	104.665	17,30	55.134	10,33
Erdalduna	1.286.582	53,65	170.376	62,39	512.658	51,99	194.026	32,06	409.522	76,75

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 18. or.). Egileak moldatua.

Hegoaldeko lau lurraldeetan 700.330 euskal hiztun daude. Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, Gipuzkoa da euskal hiztun ehuneko handiena duen Hego Euskal Herriko lurraldea (%50,64). Datu apalagoak lortzen dira Bizkaian (%27,6), Araban (%19,2) eta Nafarroan (%12,9). Alde horretatik, Bizkaia da euskal hiztun kopuru handiena duen bigarren lurraldea. Elebidun hartzaileei dagokienez, Nafarroan salbu, gainerako hiru lurraldeetan antzekoak dira ehunekoak.

Datuek erakusten dute 1991n 65 urtetik gora zituzten biztanleen adin taldean zeudela euskaldun gehien (Eusko Jaurlaritza, 2019, 21. or.). Aldiz, 2016an, belaunaldi gazteak du euskara ezagutza ehuneko handiena, alde handiz gainera. 2016ko datuek herrialdeka aztertuz gero, ikusten da Gipuzkoan 16-24 urte bitartean euskara gaitasuna dutenak %83,2 direla. Hala ere, Arabako kasua da hazkunde handiena izan duena. Lurralde horretan, 65 urte baino gehiago dituztenen artean euskara gaitasuna ez da iristen %5era, aldiz, %60,1 dira 16-24 urte bitartekoaren artean euskara gaitasuna duten herritarrak.

20. irudia: 2016an, euskal hiztunak lurraldearen eta adinaren arabera (%tan).



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 88, 152. or.). Egileak moldatua.

Orain arte ikusi da belaunaldi gazteetan gero eta ohikoagoa dela euskara gaitasuna edukitzea. Alabaina, euskara gaitasuna ezin da ulertu modu isolatuan. Ezin da ahaztu euskal hiztun horiek gaztelania gaitasuna dutela eta, gutxienez, elebidunak direla. Ondorioz, euskararen gaitasunaren inguruko datuak ukipen egoeran dagoen hizkuntza gutxitu baten testuinguruan ulertzea ezinbestekoa da gerora hizkuntza transmisioan eta erabileran gertatzen dena hobeto ulertzeko. Alde horretatik, datuek erakusten dute

euskal hiztunen artean profil nagusia erdal elebidunena dela. 2011n, esaterako, Arabako lurraldean euskal hiztunen artean ia hiru laurdena (%71,4) hobeto moldatzen da gaztelaniaz euskaraz baino. Nafarroan eta Bizkaian ere erdal elebidunak dira euskal hiztunen erdiak. Gipuzkoa da salbuespen nagusia. Azken horren kasuan, 2011n, euskal hiztunen %30,5 da erdal elebiduna.

30. taula: Elebitasuna Hego Euskal Herrian euskara erraztasunaren eta adinaren arabera (2011).


	Elebidunak	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Araba	46.000	2.500	4.500	12.000	15.000	12.000
Euskal elebiduna	6,7	22,5	8,2	6,2	6,4	3,7
Elebidun orekatua	21,9	18,5	26,0	20,6	21,3	23,2
Erdal elebiduna	71,4	59,0	65,8	72,3	72,3	73,0
Bizkaia	254.000	38.000	38.000	63.000	63.000	49.000
Euskal elebiduna	19,6	49,0	23,5	13,9	13,9	11,6
Elebidun orekatua	28,0	26,9	37,0	23,2	23,2	22,2
Erdal elebiduna	52,4	24,1	39,4	63,0	63,0	66,1
Gipuzkoa	300.000	57.000	57.000	64.000	64.000	43.000
Euskal elebiduna	36,6	45,0	36,1	30,5	30,5	42,2
Elebidun orekatua	32,9	29,8	30,7	39,9	39,9	31,0
Erdal elebiduna	30,5	25,2	33,2	29,5	29,5	26,8
Nafarroa	≈63.000	10.602	11.040	15.756	13.775	11.856
Euskal elebiduna	25,0	43,3	23,2	21,3	21,5	19,3
Elebidun orekatua	27,1	28,2	28,3	30,6	24,6	23,3
Erdal elebiduna	47,9	28,5	48,5	48,0	53,9	57,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2013, 82, 143,144. or.). Egileak moldatua.

Taula honetatik ateratzen den ondorio nagusia da euskara gaitasuna dutenak gero eta gehiago direla belaunaldi gazteenaren artean. Alabaina, kontua da horietako asko gaztelera hobeto moldatzen direla. Era berean, ordea, belaunaldi helduena da elebidunen artean euskal elebidun ehuneko handiena duena. Bizkaiko kasua da bilakaera horren adibide argiena. Izan ere, belaunaldi helduenean euskal hiztunen %75 inguru euskaraz gaztelera bezain ondo edo hobeto moldatzen diren bitartean, 16-24 adin tartean, euskaldunen %66 gaztelera hobeto moldatzen da euskaraz baino. Ikusten den moduan, oso desberdina da bi belaunaldien errealitatea. Emaitza horietatik ateratzen den ondorio positiboa da euskal hiztunak gero eta gehiago direla. Alabaina, hiztunek euskaraz bizitzeko duten gaitasuna eta erraztasuna da txanponaren ifrentzua.

Horregatik igaro dira azken aldian lehen lerroa udalerrri euskaldunei buruzko ikerketak. Izan ere, datuei erreparatuz gero, ikusten da euskaraz modu naturalean bizitzeko gero eta gune linguistiko gutxiago dagoela. Azken ikerketek erakusten dute udalerrri ez hain euskaldunetan, gero eta euskal hiztun gehiago egon arren, udalerrri euskaldunagoetan euskara ezagutzaren ehunekoak behera egin duela. Alegia, euskal hiztunen dentsitatea – udalerrriei dagokienez– gero eta ahulagoa dela.

21. irudia: Hizkuntza gaitasunaren bilakaera, udalerrriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011.



Iturria: Iurrebaso (2015, 84. or.).

Iurrebasok (2015) honela laburbiltzen du EAEn azken 35 urteko bilakaera soziolinguistikoa: “Udalerrri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan”. NFEko udalerrietako bilakaera soziolinguistikoa aztertzeke dauden datuak horren zehatzak ez izan arren, 2011ko *Mapa Soziolinguistikoa*n ikusten da antzeko joerak daudela (Nafarroako Gobernua, 2015, 28. or.). Gauzak horrela, honako hauek dira azpikapitulu honetatik atera diren gogoeta garrantzitsuenak: bat, Hego Euskal Herrian guztiek dakite gaztelaniaz; bi, gero eta gehiago dira euskara gaitasuna duten herritarrak; hiru, euskal hiztunen hazkunde hori gertatu da belaunaldi gaztearen artean; lau, euskal hiztuna den belaunaldi gazte horren ezaugarria da gehienak erdal elebidunak direla, alegia, gaztelaniaz gaitasun gehiago dutela; eta, bost, euskara modu naturalean jasotzeko espazioak gutxitzen doazela.

3.2.2 Hizkuntza transmisioa

Hizkuntza transmisioa da aztertzen den bigarren aldagaia. Lan honetan, zehazki, lehen hizkuntzaren inguruko datuak aztertzen dira, hau da, “umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei” dagokion informazioa (Eusko Jaurlaritza, 2019, 29. or.). Alde horretatik, 2016ko datuek erakusten dute, azken 25 urtean, euskararen transmisioak aurrerapauso nabarmenik ez duela izan eta atzera egin duela.


31. taula: EAEko hizkuntza transmisioa erkidegoaren arabera.

		1991	2016	Bilakaera	1991 (%tan)	2016 (%tan)	Bilakaera (%tan)
EAE	GUZTIRA (bizt.)	1.741.470	1.864.379	-	100	100	-
	Euskara	360.232	326.995	-33.237	20,7	17,5	-3,2
	Euskara eta gaztelera	45.488	112.235	66.747	2,6	6	3,4
	Gaztelera	1.335.750	1.425.149	89.399	76,7	76,1	-0,6
NFE	GUZTIRA (bizt.)	420.712	533.602	-	100	100	-
	Euskara	34.051	32.876	-1.175	8,1	6,2	-1,9
	Euskara eta gaztelera	9.026	16.456	7.430	2,1	3,1	1
	Gaztelera	377.625	484.270	106.645	89,8	90,8	1

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 96,160. or.). Egileak moldatua.

Euskararen inguruko transmisioaren datuak herrialdeka aztertuz gero, Gipuzkoa da herritarren artean proportzioan euskara gehien transmititzen den lurraldea (%32,9 euskara soilik + %7,9 euskara eta gaztelera). Nafarroa eta Arabako kasuan euskara lehen hizkuntza duten herritarrak ez dira %10era iristen. Bizkaian, berriz, euskararen transmisioa sendoagoa izan arren, herritarren %16,6ak bakarrik jaso du euskara etxetik. Horietako %5,7ak berriz, euskararekin batera erdera du lehen hizkuntza moduan.

22. irudia: Hizkuntza transmisioa lurraldearen arabera, 2016an (%tan).




Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 97,159. or.). Egileak moldatua.

Orain arteko datuak Hego Euskal Herriko biztanleria osoa hartzen dute kontuan. Alabaina, soilik euskalduna den jende multzoan arreta jarriz gero, hizkuntza transmisioa ikusten da anitza dela talde hori adinaren eta eremu soziolinguistikoaren arabera.

Adinari dagokionez, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa erabat irauli da belaunaldi desberdinetako euskaldunen artean. Adibidez, 65 urtetik gora dituztenen kasuan, euskara da elebidun gehienek lehen hizkuntza NFEan eta EAEn (%75etik gora). Aldiz, belaunaldi gazteen artean justu kontrakoa da egoera. 34 urte baino gutxiago dituen belaunaldiaren kasuan, gaztelera da elebidunen %65aren lehen hizkuntza. Alegia, etxean gaztelera edo gaztelera eta euskara biak batera jaso dituzte.

23. irudia: Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera Hego Euskal Herrian (2016).



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 104, 168. or.).

Datu historikoei erreparatuz gero, Nafarroako euskaldunen artean gehiengoa dira gaztelera lehen hizkuntza dutenak. 2016an euskaldunen %45,9a euskaldun berria da eta %13,4a jatorrizko euskalduna. Gauzak horrela, datu horien arabera, Nafarroako euskaldunen %40,7a da soilik euskaldun zaharra, hau da, “euskara soilik jaso dutenak gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte” (Eusko Jaurlaritza, 2019, 166. or.).

Fenomeno hori, ordea, oso heterogeneoa da eremu soziolinguistikoaren arabera. Azpiko taulan ikusten den moduan, 2016ko datuen arabera, euskaldun zaharra da elebidunen %71,3a eremu euskaldunean. Aldiz, bestelakoa da egoera eremu mistoan eta erdaldunean. Eremu horietan, ez da %20a iristen lehen hizkuntza soilik euskara duten elebidunen ehunekoa. Horrek erakusten du eremu euskaldunetan euskara etxean transmititzen den bitartean, eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean hizkuntza gaitasuna beste bide batzuetatik lortzen dela. Datu orokorrek, beraz, ezkutatu egiten dute udalerrri euskaldunetako aniztasuna. Gertatzen dena da eremu euskalduneko udalerrriak oso txikiak direla, eta ondorioz, azken emaitzak erabat baldintzatzen ditu Iruñeko edota populazio esanguratsua duten beste zenbait udalerritako errealitateak. Adibidez, Iruñean bakarrik eremu euskaldunean dauden euskaldunen erdiak daude.

32. taula: Elebidunak lehen hizkuntzaren eta eremuaren arabera Nafarroan (2016).


	Eremu euskalduna	Eremu mixtoa	Eremu ez euskalduna	Iruñea
Euskaldunak (kop.)	29.909	34.136	4.901	17.491
Euskaldun zaharra (%)	71,3	18,1	11,7	17,9
Jatorrizko elebidunak (%)	11	16,1	8,3	19,5
Euskaldun berriak (%)	17,6	65,8	80	62,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 168. or.).

Antzekoa gertatzen da EAEko udalerrri euskaldunetan. Udalerrri horietan, euskara da oro har euskaldunen lehen hizkuntza. Azken hamarkadetan, ordea, ikusten da udalerrri horietan euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoak beherakada izan duela (Iurrebaso,

2015, 84-85. or.). Azken 25 urteko bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da euskara transmisioa oso apala den udalerrietan bakarrik izan duela hazkundea euskara (ere) lehen hizkuntza dutenen herritarren ehunekoak.

24. irudia: Euskara (ere) lehen hizkuntza duten herritarrek EAeko udalerrietan (%tan).



Iturria: Eustat. Egileak moldatua.


Oharra: Ezkio-Itsasoko datuak bat bailiran bezala aurkezten dira *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan*. Alabaina, Gai degiak eskaintzen duen mapan berezita datoz. Hori dela eta, bi udalerrietan balio bera hartu da kontuan. Bestalde, 1991an Markiña-Xemeinen parte zen oraindik Ziortza-Bolibar. Hori dela eta, 2006ko datuak hartu dira erreferentzia moduan.

Laburbilduz, azpikapitulu hau amaitu aurretik, honako puntu hauek kontuan izatea komeni da euskararen transmisioak izandako bilakaeraren inguruan: bat, gaztelera da gaur egungo Hego Euskal Herriko herritar gehienek lehen hizkuntza; bi, aurreko atalean aipatu den euskara gaitasunaren hazkundeak ez du ekarri euskararen transmisioaren gorakada; hiru, gero eta gehiago dira euskara lehen hizkuntza ez duten euskaldunak; eta, lau, udalerririk ez-euskaldunetako hazkundea oso apala den bitartean euskarak atzerakada handia izan du euskararen transmisioa ia %100koa zen udalerrietan.

3.2.3 Hizkuntza erabilera

1960ko hamarkadan, euskararen biziberritze prozesua martxan jarri zenean, arazo nagusietakoa zen Hego Euskal Herrian euskara ezagutza oso apala zela. Urteak aurrera joan ahala, ordea, euskararen erabilerak bereganatu du arreta. 2016ko datuen arabera, gaztelera da EAEko eta NFEko herritarrek egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntza, alde handiz gainera.

25. irudia: Hizkuntza erabilera Hego Euskal Herrian (2016).



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 49. or.).

Azken 25 urteotan, euskararen erabilerak izan duen bilakaera lurraldeka aztertuz gero, oro har, euskaraz gaztelera baino gehiago edo gaztelera beste hitz egiten dutenen herritarren ehunekoak ikusten da hazkundera izan duela. Alabaina, hazkundera hori oso apala da euskararen ezagutzaren bilakaera kontuan izanda.

33. taula: Hizkuntza erabileraren bilakaera lurraldearen arabera (1991-2016).

		1991	1996	2001	2006	2011	2016	Bilakaera 25 urtean
%	Araba	0,5	1,9	1,9	3,4	4,3	5,6	+5,1
	Bizkaia	8,8	11,1	11,2	12,6	12,9	13	+4,2
	Gipuzkoa	33,1	36,5	34,7	36,2	39	39,5	+6,4
	Nafarroa	5,9	5,8	5,8	5,6	5,5	6,6	+0,7
Kopurua	Araba	1.080	4.559	4.588	8.899	11.676	15.385	+14.305
	Bizkaia	84.321	108.200	201.285	125.326	128.471	128.151	+43.830
	Gipuzkoa	185.720	209.218	315.826	215.200	234.992	238.884	+53.164
	Nafarroa	25.214	25.697	27.528	29.551	29.714	34.993	+9.779

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2019, 52, 115. or.).

Euskararen erabileraren ehunekoa aipatzen denean, kontuan izan behar da hiru-lau erabilera eremuren artean osatutako tipologia dela: 1) familia, 2) lagunartea eta 3) lanbidea edo administrazioa. Era berean, bada beste aldagai interesgarri bat ET edo euskararen erabilera trinkoa bezala ezagutzen dena. Azken honen parte dira “euskara gaztelera beste edo gehiago erabiltzen dutenak” (Eusko Jaurlaritza, 2019, 48-49. or.). Alde horretatik, erabilera eremu horiek elkar bereizita aztertuz gero, euskararen

erabilera trinkoari (ET) dagokionez, EAEko eta NFEko bilakaerak ikusten da desberdinak direla. Horren inguruan gogoeta zehatzak egin ditu Zalbidek (2016). Jarraian lerroburu nagusia jasotzen da honako aipuaren bidez.

Aurrerabide nabarmena egin da eskola esparruan: EAEn oso igoera argia izan du gela barruko euskal jardunak; Nafarroan eta, apalago, Iparraldean ere euskararen ikasgelako erabilerak gora egin du azken 50 urtean. Egia da administrazio- eta zerbitzu alorrean ere aurrera egin duela euskarazko jardunak, oro har, azken hamarkada hauetan. Egia da euskal irrati-telebistak ditugula orain eskueran, lehen ez bezala, bertako edukia euskaraz jaso ahal izateko; euskal egunkari-aldizkariak ere hor dauzkagu egungo egunean, irakurle potentzialen hautakizun; euskal kultura kontsumoaren elikagai izan litezkeen argitalpenak eta zabalkunde bideak ere ugaritu egin dira azken hamarkadotan. Lan esparruan ere ez dirudi, oro har, atzera doanik kontua: EAEn behintzat ez. Hizkuntza bera lehen baino landuago, doituago, zorrotzago eta aberastuago daukagu corpus plangintzaren aldetik: hizkera molde formal-espositiboaren beharra duten jardungune eta harreman sare zabal-berrietan lehen baino errazago egin liteke orain euskaraz. Landuago dago hizkuntza barne-moldaeraz, terminologiaz eta ortografiaz, eta hainbat jardungunetan lehen baino airosoago erabiltzen da maiz. Horretan guztian aurrera egin da, dudarik gabe.

Ez da aldiz aurrerabide nabarmenik ageri (EAEn ere ez) etxeko erabilera aitortuan eta kaleko mintzajardun neurtuan. EAetik kanpora bederen ez dago halako igoerarik, era bateko edo besteko datuen argitan, belaunez belauneko jarraipenaren babes oinarri nagusi diren gainerako jardunguneetan ere. XX. mende trumiltsuan euskararen babes, hauspo eta gotorleku izan diren arnasguneak, bestalde, ahulduz doaz nonahi. Ahultze bide hori nabarmen azeleratu da EAEn, azken urteotan. Orain dela gutxira arte euskararen aski erabilera bizia ageri zuen hainbat eskualde atzerabide larrian ageri da. (Zalbide, 2016, 121-122. or.).

Zalbideren hitzetan ikusten da euskararen erabileraren auziak ertz ugari dituela. Alde horretatik, posible da datu orokorrak positiboak izan arren, zenbait erabilera eremutan euskararen erabilerak behera egin izana. Horregatik, lan honetan ahalegina egiten da datu orokorren atzean ezkutuan geratzen diren fenomenoak bistara ateratzeko. Horretarako, beste datu iturri batzuekin osatu da Inkesta Soziolinguistikoak eskaintzen duen argazki orokorra. Zalbidek aipatutako ildotik, bi dira aztertzen diren erabilera eremuak: kale erabilera eta etxeko hizkuntza erabilera.

Lagunarteko hizkuntza erabilerari dagokionez, VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, lagun artean euskara erabiltzeko joerak gora egin du 1991-2016 bitartean EAEn (+%5,3), aldiz, mantendu egin da NFEan (+%0,6) (Eusko Jaurlaritza, 2019, 120, 185. or.). Hori horrela izan arren, Soziolinguistika Klusterrak (2017) argitaratutako *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016* prentsa txostenean azpimarratzen da euskararen erabileraren bilakaeran adinaren eta eremu soziolinguistikoaren arabera argi-ilunak daudela.⁹⁵


Adinaren kasuan, bi fase bereizi dira azterketa egiterakoan: bata, 2017ko datuei dagokiona; eta bestea, 1989-2017 bitartean izandako bilakaera. Alde horretatik, datuek erakusten dute 2017an euskara gehien erabiltzen duen belaunaldia lau herrialdeetan haurrena dela. Gipuzkoako kasuan, adibidez, bi aldiz handiagoa da haurren euskararen

⁹⁵ Dokumentua honako link honetan dago eskuragarri: https://soziolinguistika.eus/files/hekn2016-eu_1.pdf (Azkeneko aldiz begiratuta: 2021/07/22).

erabileraren ehunekoa (%45,7), adinekoena baino (%19,5). Beste herrialdeetan belaunaldien arteko distantziak ez dira horren nabarmenak. Alabaina, guztietan ia berdina da egoera: “zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara” (Soziolinguistika Klusterra, 2017, 10. or.).

Bilakaerari dagokionez, euskararen erabileraren bilakaera anitza da lurraldearen arabera. Alde horretatik, bi joera desberdin nabarmentzen dira. Batetik, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuetan, datuek erakusten dute 2005-2009 artean euskararen erabileraren ehunekoak sabaia jo zuela eta, orduetik, ia belaunaldi guztietan ehunekoak behera egin duela. Era berean, aipagarria da bi kasuetan adinekoen belaunaldiak izan duen gainbehera. Bestetik, Nafarroako eta Arabako kasuak daude. Nafarroako azken urteetako joera erakusten du 1990eko hamarkadan euskararen erabilerak izan zuen beheranzko joera gelditu egin dela. Hori gutxi ez eta belaunaldi guztiek hazkunde positiboa izan dute 2013-2017 laurtekoan. Arabako gizartean adinekoena da erabileraren ikuspuntutik ehuneko batzuk galdu dituen belaunaldi bakarra. Gainerako belaunaldi guztietan gora egin du euskararen erabileraren ehunekoak. Ikusten den bezala, bi joera desberdin daude. Euskara gehien erabili izan den lurraldeetan euskararen erabilera egonkortze/gainbehera prozesuan dago murgilduta, aldiz, euskararen erabileraren datuak apalena diren lurraldeetan gorazko joera hartu duela dirudi. Edonola ere, batez beste, Nafarroan eta Araban euskararen kale erabileraren ehunekoak oso apala izaten jarraitzen du gizarteko belaunaldi guztietan.

26. irudia: Euskara erabileraren bilakaera lurraldearen arabera %tan (1989-2017).




Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2017, 11. or.).


Aurrez esan bezala, ordea, euskararen erabileraren tipologiak kaleko euskararen erabileraz gain beste eremu batzuetako euskara erabilera hartzen du aintzat. Alde horretatik, etxeko euskararen erabilera aztertuz gero, ikusten da udalerrri ez-euskaldunetan euskarak gero eta presentzia gehiago duela. Aldiz, bilakaera negatiboa izan du udalerrri euskaldunetan etxeko euskararen erabileraren ehunekoak. Euskararen gainbehera hori nabarmena da Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait udalerrri euskaldunetan. 25 urteren buruan, 84 izatetik 25 izatera igaro dira etxean euskara erabiltzen duten herritarrak %80 baino gehiago diren udalerrriak.

27. irudia: Euskara (ere) lehen hizkuntza duten herritarrak EAEko udalerrrietan (%tan).


1991ko egoera soziolinguistikoa



2016ko egoera soziolinguistikoa



1991-2016 urteetan izandako bilakaera



Iturria: Eustat. Egileak moldatua.

Oharra: Irudi hauek osatzerakoan jarraitu dira 21. irudian jarraitzen diren irizpide berberak.

Laburbilduz, honako puntu hauek azpimarratu nahi dira Hego Euskal Herrian euskararen erabileraren inguruan: bat, oro har, gaztelania da Hego Euskal Herrian gehien erabiltzen den hizkuntza; bi, azken urteotan gora egin du herritarren artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen kopuruak eta ehunekoak; hiru, hazkunde hori gertatu da bereziki udalerrri ez hain euskaldunetan eta eremu jakin batzuetan, adibidez, administrazioan; lau, proportzioan haurrak dira beste adin taldeekin alderatuz joera gehiena dutenak kalean euskara erabiltzeko; bost, kale erabilerari dagokionez 2006tik aurrera atzerakada nabarmentzen da Bizkaian eta

Gipuzkoan; eta sei, etxeko euskara erabileraren kasuan atzerakada handia gertatu da euskararen arnaguneetan.

3.3 Hausnarketa euskararen mendeko egoeraren inguruan

Historiaurretik gaurdaino euskara izan da Mendebal Pirinioetako bi aldeetan bizi den herriaren hizkuntza (Intxausti, 1990, 42. or.). Azken mendeetan, ordea, murriztuz joan da hiztun komunitate horren hedadura. Izan ere, Estatu gabeko herrien desagerpena eta gizartearen homogenizazioa ekarri du Estatu Modernoen sorrerarekin abian jarri ziren hizkuntza politika nazionalak. Patu gaiztoa egokitu zaio euskarari. Espainiar eta Frantziar estatu-nazioek zorrotz bete dute “Estatu bat, hizkuntza bat” printzipioa. Edonola ere, euskal komunitateak atzerakada progresibo horretan, tarteka izan du pizkunderik edo susperraldirik. Adibidez, euskal hiztun elkarteak 1960ko hamarkadatik aurrera urte luzez bizitako atzerakadari galga jarri zion, are gehiago, inflexio puntu bat izan zuen. Herri mugimenduen bitartez eta 1980tik aurrera instituzioen zeharkako babesarekin, euskararen modernizaziorako eta biziberritze prozesurako zimenduak jarri ziren Euskal Herria osatzen duten zazpi lurraldeetan, bereziki Hego Euskal Herrian (Intxausti, 1990, 194-201. or.).

Hori horrela izan arren, datuak eskuragarri daudenetik lehen aldia da adin nagusiko euskal eledun guztiak erdal hiztunak direla. Hego Euskal Herrian bizi diren euskal hiztunek gaztelania dakite eta Ipar Euskal Herrian bizi direnek frantsesa. Alabaina, horrelakorik ez da gertatzen Euskal Herriko gaztelar eta frantziar komunitateetan. Azken horietako asko ez dira euskal hiztunak. Hori dela eta, euskal hiztunak bestearen hizkuntzetara egokitu behar du erdaldunekin harremanak izaterako orduan. Hori gutxi ez eta legeak babestu egiten du espainiarren eta frantziarren elebakartasuna. Ildo horretatik, prozesu historiko gatazkatsu batek eragin du euskara sozialki bigarren mailako hizkuntza izatea Euskal Herriko gizartean.

Araubide juridikoari dagokionez, antzekoa da argazkia. Bitan banatzen da euskararen inguruko legedia: batetik, Espainiako legedia dago Hego Euskal Herrian bizi diren euskal hiztunei eragiten diena; eta bestetik, Frantziako legedia dago Ipar Euskal Herriko euskal hiztunen eskubideak zehazten dituena. Lan honetan Hego Euskal Herriko euskal hiztunak dira aztergai, eta ondorioz, 1978ko Espainiako Konstituzioa da euskararen inguruan onartu diren lege guztien abiapuntua. Bertan, argi eta garbi zehazten da gaztelania dela Espainiako hizkuntza nazionala, eta beraz, erregio mailakoa da Estatuko

beste hizkuntzen ofizialtasuna. Banaketa horrek dakarren ondorio nagusia da gainerako hizkuntzetako hitzunei euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea soilik aitortzen zaien bitartean, legeak gaztelania ezagutzera behartzen ditu Espainiar hiritar guztiak.

Espainiar estatuaren baitan bi erkidegotan banatzen da euskal hiztun elkarteak: NFEan eta EAEn. Alde horretatik, desberdina da bi erkidegoetan hizkuntzak duen babes juridikoa. EAEn kasuan, euskara hizkuntza propioa eta ofiziala da lurralde guztian. NFEan, aldiz, hiztun komunitatearen eskubideak desberdinak dira eremuen arabera. Euskara erabiltzeko eskubidea du euskal hiztunak EAEn eta NFEko eremu euskaldunetan. Hala, administrazioaren betebeharra da eskubide hori egikaritzea. Eremu mistoan eta ez-euskaldunetan euskara sustatzeko jarrera babesten du administrazioak. Euskararen normalizazioa gauzatzerako orduan, ordea, erdal komunitateak ez du euskara ikasteko derrigortasunik. Ezta administrazioak ezinbestez euskaraz erantzutekorik ere. Talka sortzen da horren inguruan: euskal hiztunen eskubideak vs erdal komunitatearen pribilegioa. Dikotomia horretan du jatorria euskararen inposizioaren diskurtsoak (Martinez de Luna, 2013).

Bilakaera soziolinguistikoari erreparatuz gero, argi-ilunak ageri dira azken 40 urteotan. Euskararen ezagutzari dagokionez, azken hamarkadetan euskal hiztunen kopuruak eta ehunekoak hazkunde positiboa izan du Hego Euskal Herrian. Joera hori posible izan da euskarak aurrerapausoak eman dituelako herri administrazioan, komunikabideetan edota hezkuntzan. Frankismoaren lehen urteetan euskara ikasteko modu nagusia zen familiako hizkuntza transmisioa. Etxeko hizkuntza gaztelania dutenek, aldiz, azken bost hamarkada hauetan aukera izan dute eskolan edo euskaltegietan euskara ikasteko. Horren ondorioa da euskara gaitasuna bereziki altua izatea belaunaldi gazteen artean. Era berean, datuek erakusten dute urte luzez euskara ezagutza ia hutsala izan den udalerrietan euskararen presentzia gero eta handiagoa dela. Txanponaren kontrako aldea erakusten dute euskararen transmisioaren eta erabileraren datuek. Euskararen arnasguneak gero eta gutxiago dira Hego Euskal Herrian. Udalerririk behera egin du euskara ezagutzaren ehunekoak. Alde horretatik, ondorio larriak ditu udalerririk euskaldunak desagertzeak: belaunaldi belauneko transmisioaren eta euskararen erabilera naturalaren galera gertatzen baita. Azken urteotan ikusten da bereziki zaugarriak diren espazio horiek gaztelaniak neurri batean bere egin dituela.

Laburbiltzeko, azken hamarkada hauetan kuantitatiboki euskal hiztunak irabazi dira baina kualitatiboki galera esanguratsu bat gertatu da: atzerakada izan du euskara hegemonikoa zen lurraldeak.

4. HEGO EUSKAL HERRIKO SISTEMA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK

Hego Euskal Herrian ospatu diren hauteskunde autonomikoak aztertzen dira laugarren kapitulu honetan, zehazki, 1980tik hasi eta 2016 artekoak. Horretarako, bi azpikapitulu banatu dira. Lehen azpikapituluan zeintzuk diren aztertzen da Hego Euskal Herriko hauteskunde sistemaren elementu nagusiak. Bigarren azpikapituluan zein diren zehazten da NFEko eta EAEko alderdi sistemaren ezaugarri garrantzitsuenak. Aurrera jarraitu aurretik, ordea, beharrezkoa ikusi da aztergai ditugun hauteskunde autonomikoen hastapenen inguruko ñabardura batzuk aipatzea.

Frankismo osteko Espainiako sistema politikoaren baitan antolatzen diren hauteskundeak hiru mailatan bereizten dira hierarkiaren eta eragite eremuaren arabera: bat, hauteskunde orokorrak; bi, hauteskunde autonomikoak; eta, hiru, udalerrietako hauteskundeak.⁹⁶ Ikerketa honetan, hauteskunde autonomikoetan jartzen da arreta. Alde horretatik, akademian aho batez onartzen da Espainiako hauteskunde autonomikoetan eratzen diren alderdi sistemak ez direla homogeneoak. Aitzitik, zenbait autorek azpimarratzen dute Hego Euskal Herriko bi autonomietako alderdi sistemek Espainiako beste autonomietako alderdi sistemekin alderatuz ezaugarri partikularrak dituztela (Lago, 2002; Pallares, 1991).

Gauzak horrela, hauteskunde autonomikoetako emaitzak azaltzen hasi aurretik, komenigarria da Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren partikularitasunaren nondik norakoak argitzea. Alde horretatik, frankismo osteko Espainiako sistema politikoaren legitimitatearen inguruko auzia da oinarria dagoen korapiloa. Izan ere, 1978ko Espainiako Konstituzioa onartzeko egin zen erreferendumean Hego Euskal Herriko hiritarrek dokumentuari eman zioten babesaren Estaturko batezbestekoa baino baxuagoa izan zen.


⁹⁶ EAEko kasuan Lurralde Historikoetan egiten dira Batzar Nagusietako hauteskundeak. Nafarroan, aldiz, bat egiten dute bi dimentsioek: autonomia erkidegoari dagokionak eta lurralde historikoarenak.

34. taula: 1978ko abenduaren 6ko Espainiako Konstituzioa onartzeko erreferendumeko datuak.

		Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Hego Euskal Herria		Espainia guztia	
Hautesle errola		173.412	504.389	361.243	874.936	1.913.980	%100	26.632.180	%100
Boto emaileak		%59,29	%43,43	%66,63	%42,46	934.005	%48,80	17.873.301	%67,11
Baiezkoa erroldarekiko		%42,33	%27,71	%50,44	%30,40	661.412	%34,56	15.706.078	%58,97
Boto emaileak %100	Boto baliiodunak	%98,55	%98,84	%99,06	%98,10	920.638	%98,57	17.739.485	%99,25
	BAI	%71,39	%63,82	%75,70	%71,62	661.412	%70,81	15.706.078	%87,87
	EZ	%19,18	%29,87	%16,95	%21,01	203.995	%21,84	1.400.505	%7,84
	TXURI	%7,97	%5,16	%6,40	%5,47	55.231	%5,91	632.902	%3,54
	Boto baliogabeak	%1,45	%1,16	%0,94	%1,90	13.367	%1,43	133.786	%0,75

Iturria: Espainiar Gobernu. ⁹⁷ Egileak moldatua.

Ikertzaileak eta politikariak ez dira ados jartzen erreferendumean irten ziren datuak interpretatzeko orduan. Bere garaian sortu ziren eztabaidek gaurkotasan handia dute oraindik. Urte horietan guztietan euskal alderdi abertzaleen aldetik azpimarratu izan da euskal hiritarren gehiengoak ez zuela babestu Espainiar Konstituzioa. Euren argudio nagusia da hautesle erroldaren %35ak soilik bozkatu zuela baiezkoa.⁹⁸ Aldiz, zenbait



espainiar posiziotatik ukatu egin da euskal alderdi abertzaleen irakurketa. Azken horiek defendatzen dute erreferendumean parte-hartzea ia %50ekoa izan zela eta boto baliiodunaren %70,81ak baiezkoa bozkatu zuela.

Konstituzioari buruz jarrera izan da politika alorrean Euskadik azken aldian agertu duen jokabiderik nabarmenena. Erantzuna garbia izan da. Nahiz eta baiezkoaren aldekoek beste zerbait esan, baiezkoa baino ezezkoa eta abstentzioa gehiago izan dela egunaren argia baino argiago agertu da. (Zeruko Argia, 1978, 3. or.).

Emaitzen zilegitasuna gorabehera, Espainiako Konstituzioa indarrean sartu zen. Oinarri horren gainean eraiki zen gerora “*construcción del Estado de las autonomías*” bezala ezagutu izan dena. Alde horretatik, 1978ko Espainiako Konstituzioak bi aukera ematen zituen Autonomia Erkidegoak osatzeko: bide arrunta (143. artikulua) eta bide berezia (151. artikulua). Bigarren bide horretaz baliatu ziren hiru Lurralde Historikoak EAeko Autonomia Estatutua eratzeko. Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, egoera oraindik eta

⁹⁷ <https://www.boe.es/boe/dias/1978/12/22/pdfs/A28934-28934.pdf> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/06).

⁹⁸ Erreferendum honetan alderdi politikoek hartu zuten posizioa honakoa izan zen: baiezkoa (UCD, PSOE, AP, PCE...); ezezkoa (ANV-ESB, HASI, LAIA...); eta, abstentzioa (EAJ, EE etab.). 1978ko Espainiako Konstituzioaren inguruko erreferendumaren inguruko xehetasunetan gehiago sakontzeko ikusi (Del Castillo, 1978).

bereziagoa izan zen. Izan ere, hirugarren bide bat garatu zen. Azken honek, 1841eko erregimena hartzen zuen legitimazio iturri gisa (Araujo, 2011, 35-36. or.).

Gorabeheratsua izan zen 1980ko hamarkadatik aurrera gertatu zen Hego Euskal Herriko erakunde autonomikoen egituratze prozesua. Alabaina, ez zen egun batetik bestera sortutako arazoa izan. Aitzitik, erro historikoak ditu euskal instituzionalizazioaren arazoak (Lasagabaster, 2006). Interpretazio desberdinak egin izan dira auzi honen inguruan. Lan batzuen hipotesia da euskal instituzioek Frantziar eta Espainiako instituzioekin borondatezko paktuak egin izan dituztela. Bigarren hipotesiak, berriz, paktua baino gehiago azpimarratzen du euskal instituzioen subordinazioa konkista militarren emaitza dela.

Bilakaera historiko hori dela eta, Hego Euskal Herriko lurraldeen kasuak besteengandik berezi ziren hasieratik bertatik. Frankismo ostean estatu mailan onartu ziren lehen Autonomia Estatutuak EAEkoa eta Kataluniakoa izan ziren, 1979ko abenduaren 18an. Aurrez, ordea, 1979ko urriaren 25ean, erreferenduma antolatu zen Autonomia Estatutua onartzen zen edo ez galdetuz. Alderdi politikoek jarrera aktiboa hartu zuten eta boto jakin baten alde posizionatu ziren. Baiezkoa eskatu zuten alderdiak honako hauek izan ziren: EAJ, UCD, PSOE, Alderdi Karlista, ORT, PCE eta EE. Ezezkoa eskatu zutenak AP eta UNK. Abstentzioa eskatu zuten HB, EMK eta LKI alderdiek.⁹⁹

35. taula: 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferenduma.

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Hautesleak		174.930	100	883.609	100	507.002	100	1.565.541	100
Boto emaleak		110.609	63,23	507.980	57,49	302.847	59,73	921.436	58,86
baiezkoa eroldarekiko		92.535	52,89	460.905	52,16	278.399	54,91	831.859	53,14
Boto emaleak %100	Boto baliiodunak	108.921	98,47	502.159	98,85	299.707	98,96	910.787	98,84
	BAI	92.535	83,66	460.905	90,73	278.399	91,93	831.859	90,28
	EZ	10.023	9,06	25.216	4,96	12.290	4,06	47.529	5,16
	TXURI	6.363	5,75	16.038	3,16	9.018	2,98	31.419	3,41
	Boto baliogabeak	1.688	1,53	5.821	1,15	3.140	1,04	10.649	1,16

Iturria: Eusko Jaurlaritza.¹⁰⁰Egileak moldatua.

Erreferendumezko emaitzei dagokienez, hautesle erroldan izena emanda zeuden hautesleen %53,14ak baiezkoa bozkatu zuten. Urtebete lehenago ospatu zen Espainiako Konstituzioaren inguruko erreferendumarekin alderatuz, %10a baino gehiago igo zen EAEko hiritarren parte-hartzea. Hala ere, abstentzioa %41,14koa izan zen. Boto emaleen kasuan, baietzaren alde egin zuten %90,28ak, aldiz, ezezko botoa eman zuten %5,16ak.

⁹⁹EAEko Autonomia Estatutuaren erreferendumaren inguruko xehetasunetan gehiago sakontzeko ikusi (Del Castillo, 1979)

¹⁰⁰ <https://www.euskadi.eus/ab12aAREWar/resultado/maint> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/06).

Ondorioz, erreferendumeke emaitzetatik ondorioztatu zen gizartean Autonomia Estatutuak indarrean jartzeko nahikoa babes lortu zuela. Urte amaieran, 3/1979 Lege Organikoa onartu zen eta indarrean sartu zen Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Harrezkerotik 11 legegintzaldi izan dira Eusko Jaurlaritzan 1980-2020 bitartean.

Nafarroako Foru Erkidegoko Estatutua, berriz, 1982an jarri zen indarrean 13/1982 lege Organikoaren bidez. EAEko Autonomia Estatutuarekin ez bezala, kasu honetan ez zen erreferendumik antolatu. Nafarroako Parlamentuan onartu zen dokumentua.

Navarra, por su parte, aprobó la actualización de su Régimen Foral, esto es, su Estatuto de Autonomía siguiendo un procedimiento –inspirado en la idea tradicional del pacto– que se consideró amparado en la disposición adicional de la Constitución. De este modo, tras un proceso poco ejemplar que se prolongó desde 1979 a 1983, se dibujó de forma prácticamente definitiva el mapa autonómico español: el anterior Estado unitario, en su totalidad, se descentralizó políticamente en diecisiete Comunidades Autónomas (cuatro de régimen especial y trece de régimen ordinario) (Araujo, 2011, 36. or.).

Gogoan izan behar da 1981ko otsailaren 23an, Antonio Tejero teniente koronelaren gidaritzapean, Estatu kolpea gertatu zela. Lehenaz gain, gertakari horrek erabat baldintzatu zuen Autonomia Erkidegoen bilakaera LOAParen bidez. Guztira, 9 legegintzaldi izan dira 1983-2019 bitartean.¹⁰¹

Laburbilduz, 1975etik 1983ra doan fase historikoan gorpuztu zen Espainiako lurraldearen egituraketa autonomikoa (Aoiz, 2005). Zortzi urte horietan aldaketa handiak gertatu ziren Hego Euskal Herriko instituzioetan: 1975ean Francisco Francoren diktadurapean egotetik, monarkia parlamentario bat izatera igaro zen espainiar sistema politikoa. Bere baitan, 1983an EAJko Carlos Garaikoetxea zen EAEko lehendakari berria eta PSNko Urralburu NFEkoa. *Trantsizio demokratikoa* deitzen diote akademian aldaketa hori ahalbidetu zuen prozesuari. Alabaina, zer dago kontakizun horren atzean? Lan honetan uste da prozesu hori guztia mito modernoak goitik behera zeharkatzen duela.

Prozesu horren inguruko xehetasunak aztertzen hasi aurretik, ordea, komeni da ñabardura bat egitea. *Trantsizio demokratikoa* kontakizunak aldaera desberdinak ditu kontatzailearen arabera: batzuentzat –bereziki, espainiar ezkerrentzat– “haustura hitzartua” izan zena, besteentzat –espainiar eskuinarentzat– da “erreforma hitzartua” (Linz, 2009, 391-425. or.). Alabaina, isomorfikoa da batzuen eta besteen kontakizunak oinarrian duen egitura. Horregatik, lan honetan ulertzen da Juan José Linzek proposatzen duen azalpena kontakizun desberdinen artean moldaera bat gehiago

¹⁰¹ 1979an Nafarroan ospatu ziren lehenago beste batzuk baina ez dira fase autonomikoan sartzen, Nafarroako Foru Hobekuntza onartu baino lehenago ospatu baitziren hauteskunde horiek.

besterik izan ez arren, baliagarri dela trantsizio demokratikoaren kontakizunak mito modernoa nola barneratzen duen ikusteko.

Linzen (2008, 161. or.) arabera, Espainiar estatuak bi eginkizun nagusi izan zituen: bata, erregimen autoritario batetik mendebaldeko demokraziara igarotzea; eta bestea, ordura arte Estatu zentralista izan zen hura birmoldatzea eskari erregionalista eta nazionalistei erantzuna eman ahal izateko. Hain zuzen, 1978ko Espainiar Konstituzioa izango da bi erronka horiei aterabidea eskainiko diona. Linzek azpimarratzen du kontsentsuaren bidez lehen erronka modu arrakastatsuan gainditu zela, aldiz, bigarren eginkizunak lan gehiago eman zituela. Edonola ere, haren arabera trantsizio demokratikoa 1979an osatu zen. Honako bi gertakari hauek aipatzen ditu mugarri moduan: 1) 1979ko Espainiako hauteskunde orokorrak ospatu zirenekoa (Estatuaren demokratizazioa finkatzen duelako); eta bestetik, Kataluniako eta EAeko autonomia estatuak onartu zirenekoa (problema nazionalen aterabidea deszentralizazioaren eta elkarrizketaren bidez adosten delako). Horrela, begirada honetatik ulertzen da “arrakastaz” betetzen direla aurretik aipatutako bi eginkizun horiek. Linzen (2009, 406. or.) arabera, hori guztia egitean, Espainiar estatuan demokrazia berria jaio zen nazioarteko parametro guztiak betetzen zituena. Are gehiago, “berrikuntza historikotzat” du gertatutakoa. Begirada hori hobesteak erabat baldintzatzen du ikertzailearen mundu ulerkera euskal kasua aztertzerakoan: izan ere, euskal nazioaren auzia ulertzen da Espainiar sistema demokratikoaren baitan askatu beharreko problema periferiko gisa. Ez alderantziz, espainiar demosa egituratu aurretik askatu beharreko korapilotzat. Ikuspegi horretatik, Estatuaren eta demokraziaren aurkako erreakzio gisa izendatzen dira aurrerantzean Espainiar Konstituzioaren araubide juridikoak aurreikusten ez dituen eskakizun nazionalak legitimatzen dituzten erakunde eta mugimenduak (are gehiago, muturreko kasuan honako kategoriak hartzen dituzte: biolento, erradikal edo “terrorista”). Honatx, behin eta berriz errepikatua izan den adibidea.

Nada puede servir mejor de ejemplo para mostrar la complejidad que adquiere en España el problema de la regionalización que la profunda división de la población de Euskadi acerca de su identidad nacional y de su futuro político. (...) La presencia de una organización terrorista revolucionaria como ETA sirve obviamente como un catalizador y un factor decisivo para crear el clima de opinión y miedo que hacen difíciles, si no imposibles, las soluciones de compromiso. (Linz, 2008, 170. or.).

Alde horretatik, lan honetan uste da *trantsizio demokratikoaren* kontakizunak nazio auziaren inguruko mito modernoaren erreproduzitzen duela. Hala, kontakizun horren konplize dira Espainiako ezkerrearen zati handi bat eta espainiar eskuina.¹⁰² Era berean,

¹⁰² Espainiar eskuinaren baitan bada zati bat mendebaldeko demokraziaren aurka dagoena. Horiek izan ziren 1981 estatu kolpea babestu zutenak, eta, hein batean, trantsizio demokratikoa delakoaren aurka

kontakizun honen inguruan egiten diren irakurketak euskaldunen artean anitzak izan arren, denborarekin hainbat euskaldun pasa dira erdal kontakizuna bere egitera (Azurmendi, 1997, 18. or.). Horren aurrean, lan honetan azpimarratu nahi da nazioaren auziaren inguruan dikotomia etniko/zibikoa erreproduzitzen duela *trantsizio demokratikoa* bezala ezagutzen den kontakizunak. Horregatik, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz azaltzeko orduan, desfasea dagoela uste da kontakizun modernoaren eta Nazio zapalduaren ereduaren artean. Sinplea da arrazoiketa: *trantsizio demokratikoaren* jarraitzaileek azpimarratzen dute demokrazia zalantzan jartzen duela euskal aldarrikapen nazionalak, hau da, espainiar hiritarren artean lortutako “kontsentsua”. Alabaina, euskaldunen kasuan, zenbateraino izan da espainiar nazio politikoaren eraketa norbanako askeen borondatezko atxikimenduaren emaitza, eta zenbateraino inposaketa? Erantzuna inposaketa dela uste den kasuan ezinbestekoa da fenomenoaren posizio ez-hegemonikotik pentsatzea.

[Deseraiki beharreko galdera]: “Zer zarete zuek lehenago: abertzaleak ala demokrotak?” (Azurmendi, 1997, 15. or.).

[Nazio zapalduaren ereduak egin beharreko galdera erelato berria eraikitzeko]: “Hasierako gure galderak, beraz, beste forma hori har dezake orain: faxista [biolentzia, terrorista edo antzeko zerbait] izatea ote da, demokrotak baino lehen abertzale izatea?” (Azurmendi, 1997, 18. or.).

[Azurmendik eskaintzen duen azalpen teorikoa]: “Kasu! Biolentzia demokrotan inmorala eta zuzengabekoa dela esaten duen tesiari, guk Miranderekin aurrez aurre ipini nahi genion antitesia, ez da “biolentzia bidezkoa da demokrotan”, baizik eta, beharbada, biolentziaren eta demokrotaren arteko arazoa ez dela batere moralezko arazoa, bestelako asuntoren bat baino (ikusirik egin behar nolako): alegia, gizonaren historian, demokrotia sistema erlatiboki egoki bat besterik ez dela, beste sistema batzuen artean posibleetako bat, besteak baino ez moralagoa eta ez inmoragoa berez. Abiapuntuko, beraz, demokrotiak ez digu berak beste gabe ezer legitimatzen, ez deslegitimatzen. Beste edozein sistema bezalaxe, bera izango dugu, kasuan-kasuan, aldiari baldintzetan eta testuinguruan, legitimatu beharrekoa. (...) Horregatik setatzen zen Rousseau, demokrotia tirania kamuflatu bat izatea nahi ez bada, demokrotiaren formak baino lehen, demokrotia nahi dutenen, ez gehiengoak, baina ahobateko adostasun totalak, egon behar duela. Sistema bat zinez demokratikoa izateko, aurren-aurrenik berak bere jatorrian behar du demokratikoa izan. Hau da, elkarte horretan beren gogoz sartuak bakarrik egon behar litezke” (Azurmendi, 1997, 38. or., 69).

Horregatik guztiatik, honako galdera da interesatzen zaiguna lan honetan: Hego Euskal Herriko euskal nazio-kideek beren borondatez onartu zuten Espainiar demokrotiaren parte izatea? Datuek erakusten duten moduan, Hego Euskal Herriko kasuan, Espainiar sistema politiko berria ez zen aho batez onartu. Guztiak ez ziren borondatez egin erdal *demos*-aren parte. Horregatik, batzuek trantsizio demokratikoa ikusten zuten tokian, beste batzuek, ardi larruz estalitako proiektu inperialista ikusten dute sasi-demokratizazio prozesu horren atzean. Beste behin ere, muineko arazoa da nazio kulturalaren eta politikoaren arteko zatiketa.

daudenak, ez nazio zapalduen eskubideak babesten dituztelako, sistema berri honek nazio zapalduen ematen dien arnas apurra gehiegi dela uste dutelako baizik.

Jarraian, begirada horretatik abiatuta ahalegina egiten da 1980-2016 bitarteko hauteskunde autonomikoen inguruko errepassoa egiteko. Horretarako, bi azpikapitulutan banatu da kapitulua: lehen azpikapituluan, Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen inguruan aztertzen da zein diren hauteskunde sistemaren elementu garrantzitsuenak; bigarren azpikapituluan, berriz, 1980tik hasita ospatu diren hauteskunde autonomikoetako emaitza elektorak aztertzen dira hurbilpen instituzionalaren eta geografikoaren laguntzaz.

4.1 Hauteskunde autonomikoetako legediaren oinarriko elementuak¹⁰³

Hauteskunde sistema da botoa nork eman dezakeen zehazteaz gain, boto emaileen borondate politikoa legebiltzarrean zein proportziotan ordezkatzeko den arautzen duena.¹⁰⁴ Hauteskunde sistemak dituen ezaugarrien arabera posible da, bi alderdik boto kopuru berbera lortu arren, desberdina izatea jarleku banaketa. Are gehiago, posible da alderdi batek erkidego mailan boto gutxiago jaso eta legebiltzarrean jarleku gehiago lortzea. Horregatik da garrantzitsua Hego Euskal Herriko hauteskundeetako emaitzak aztertu aurretik hauteskunde sistema ezaugarritzen duten elementuek zein ezaugarri dituzten ezagutzea.

Hauteskundeak ospatzen dira sistema politiko desberdinetan, ez soilik demokrazietan. Izatez, ordezkariak hautatzeko teknika bat besterik ezta. Hori dela eta, aurrera jarraitu aurretik, garrantzitsua da ikergaiaren testuingurua gehiago zehaztea. Espainiaren kasuan, “Estatu demokratikotzat” izendatzen du 1978ko Espainiako Konstituzioak Espainiar estatua. Nohlenen (1994, 11. or.) arabera, sistema demokratikoetako hauteskundeek ezaugarria da izaera lehiakorra dutela.¹⁰⁵ Beste modu batera esanda, “la

¹⁰³ Lan honetan aztertzen dira 2015eko NFEko eta 2016ko EAEko hauteskunde autonomikoak ospatu ziren garaian indarrean zeuden legeak. Harrezkerotik egin diren aldaketak ez dira aipatzen. Izan ere, azken horiek dira lan honetan aztergai diren hauteskundeak. Era berean, euskaraz eta gazteleraz jaso dira lege desberdinetako aipuak. Alde horretatik, komenigarria da zehaztapen bat egitea: ahal den guztietan euskaraz jaso da legedia. Euskarazko aipua eskuragarri izan ez dudak kasuetan erabili da gaztelerazko edizioa.

¹⁰⁴ Bi adiera ditu hauteskunde sistemak (Araujo, 2011, 27-28. or.) arabera: estua eta zabala. Adiera estuari dagokiona da testuan agertzen den definizioa. Lan honetan berau hartzen da erreferentzia gisa. Hauteskunde sistemaren gaineko adierak zabalak, berriz, bere baitan barnebiltzen du adiera estua, eta, horrez gain, azpimarratzen du hauteskunde kanpainak edota alderdien finantzaketa arautzen dituzten legeak hauteskunde sistemaren parte direla.

¹⁰⁵ Honela bereizten ditu sistema demokratikoetako hauteskunde lehiakorrak besteengandik: “las elecciones pueden ser utilizadas en lugar de otras técnicas (designación de representantes mediante sucesión, por oficio o por nombramiento), sin tener contenido democrático alguno. En consecuencia, las elecciones no son exclusivas de las democracias (...) La primera distinción conceptual entre las elecciones en sistemas políticos diferentes está implícita en el término mismo, pues mientras en un sistema el elector puede elegir entre varios partidos y tomar su decisión libremente, en otro sistema tiene que votar por un partido único, ya que no se permite la participación de otros. (...) La oportunidad y libertad de elegir deben estar amparadas por

democracia presupone la celebración de unas elecciones mediante el sufragio universal, libre, igual, directo y secreto” (Torrens, 2005, 347. or.). Alde horretatik, ezaugarri horien inguruko irizpide nagusiak Espainiako Konstituzioaren 23.1 artikuluan eta 5/1985 Lege Organikoaren 5. artikuluan datoz jasota.

Espainiar Konstituzioaren 23.1. artikulua: Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.
5/1985 Lege Organikoa 5. artikulua: Nadie puede ser obligado o coaccionado bajo ningún pretexto en el ejercicio de su derecho de sufragio, ni a revelar su voto.

Ikusten den moduan, Espainiako Estatuak legez jasotzen ditu aurrez aipatutako baldintzak. Alabaina, artikuluko horiek ez dute zehazten arau horiek Espainiako zein hauteskunderi egiten dien erreferentzia. Horretaz arduratzen da Espainiako Konstituzioaren 152.1 artikulua. Bertan zehazten da autonomia erkidegoetako biltzar legegileak ere “sufragio unibertsalaren bidez aukeratuko” direla.

Behin puntu honetara iritsita, zera argitzea komeni da: zein irizpideren arabera eta zein proportziotan islatzen da boto emaileen borondate politikoa erakundeetan? Aipatutako prozesu hori gauzatzeko, honako hauek dira sistema demokratikoetako hauteskunde lehiakorrek dituzten osagai nagusiak: bat, hautesle errolda; bi, hauteskunde barrutia; hiru, ordezkari kopurua; lau, formula elektoralak; bost, hauteskunde muga; eta, sei, hautagai zerrenda (Araujo, 2011; Nohlen, 1981, 106-140. or; Torrens, 2005, 355-370. or.). Jarraian, puntu-puntu aztertzen da Hego Euskal Herriko hauteskunde sistemaren osagai nagusien inguruan legeak zehazten duena.

4.1.1 Hautesle errolda

Hauteskundeetan parte hartzeko bi modu daude, hots, hautagai gisa aurkeztea (sufragio pasiboa) edo hauteslea izatea (sufragio aktiboa). Lan honetan interesatzen dena da sufragio aktiboaren auzia. Alde horretatik, hautesle erroldaren parte dira “hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten eta aldi baterako edo behin betiko sufragio eskubidea kendu ez zaien pertsonak” (UZEI, 2012, 30. or.).

Gauzak horrela, honakoa jakin nahi da azpikapitulu honetan: zein da pertsona batek botoa emateko eskubidea izateko bete behar dituen baldintzak? Araujok (2011, 111-143. or.) zehazten duen moduan, baldintza nagusiak 5/1985 Lege Organikoak zehazten ditu

la ley. Cuando estas condiciones están dadas, hablamos de elecciones competitivas. Cuando se niegan la oportunidad y libertad de elegir hablamos de elecciones no competitivas. Cuando se limitan, de alguna manera, la oportunidad y libertad, hablamos de elecciones semicompetitivas ” (Nohlen, 1994, 10. or.).

eta honako hauek dira: bat, espainiar nazionalitatea izatea (2.1. artikulua); bi, adin nagusikoa¹⁰⁶ izatea (2.1. artikulua); eta hiru, epai judizialengatik boto eskubidea ez-gaitua ez izatea (3. artikulua). Horrez gain, legeak zehazten du ezinbestekoa dela pertsona hori hautesle erroldan izena emanda egotea (2.2. artikulua).

Hauteskunde autonomikoen kasuan, EAeko eta NFEko biltzar legegileek lege bana onartu zuten hauteskunde sistema xeheago arautzeko. Lege horien helburua zen, bestek beste, 5/1985 Lege Organikoaren 2.2. artikulua garatzea. NFEko hauteskunde autonomikoei dagokienez, 16/1986 Foru Legearen 3.1. artikuluan aipatzen da NFEko hauteskunde autonomikoetan boto eskubidea izateko ezinbestekoa dela Nafarroako udalerrri batean erroldatuta egotea.

3.1 artikulua: Tendrán la condición de electores quienes, a tenor de lo dispuesto en la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, gocen del derecho de sufragio activo y figuren inscritos en el Censo Electoral único vigente correspondiente a cualquiera de los municipios de Navarra.

EAeko kasuan, berriz, 5/1990 Legearen¹⁰⁷ 2. artikuluan zehazten da, hautesle erroldan izena emanda egoteaz gain, legez euskalduna izan behar dela boto eskubidea izateko:

2.1 artikulua: Serán electores todas las personas que ostentando la condición política de vascos, gocen del derecho de sufragio activo.

2.2 artikulua: Para el ejercicio del sufragio será indispensable estar inscrito en el Censo Electoral.

Ikusten den moduan, bi legeek adiera desberdina erabiltzen badute ere, Araujoren (2011, 141. or.) arabera, argi dago bi lege horiek hauteskunde autonomikoetako hautesle errolda aipatzen dutenean autonomia erkidegoaren lurralde eremuari, hots, EAeri eta NFEri erreferentzia egiten diotela.

(...) a pesar de esta pluralidad de redacciones (...) es evidente que en todos los casos (...) el censo electoral es el referido al ámbito territorial de la Comunidad Autónoma que convoca las elecciones, o lo que es lo mismo, al territorio de sus circunscripciones o de sus municipios (Araujo, 2011, 141. or.).

Laburbilduz, hautesle erroldaren inguruan ondorioztatzen da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan sufragio unibertsala hobesten dela, eta, hautesle izaera izateko, pertsona batek lau ezaugarri bete behar dituela. Alde batetik, Estatuko legediak zehazten dituen hiru ezaugarri daude: espainiar hiritarra, adin nagusikoa (18 urte) eta epaile agindu baten ondorioz boto eskubidea ez-gaitua ez izatea. Horrez gain, laugarren

¹⁰⁶ Espainiako Konstituzioaren 12. artikulua arabera “Espainiarrak adin nagusiko dira hemezortzi urte betetzean”.


¹⁰⁷ Lege honen aurretik 28/1983 Legea egon zen indarrean. Lege horren 2. artikuluan esaten zen pertsona batek hautesle izateko honako baldintza bete behar zuela: “*tendrán la condición de electores todos los mayores de edad que figuren inscritos en el Censo de cualquiera de los Municipios de la Comunidad Autónoma y estén en pleno disfrute de sus derechos civiles y políticos*”.

baldintza dago NFEko eta EAEko hautesle erroldan izena emanda egotearena. Alde horretatik, Hautesle Erroldaren Bulegoa (gaztelaniaz, Oficina del Censo Electoral) erakundearen ardura da hautesle errolda osatzea (Araujo, 2011, 134-138. or.).

A la Oficina del Censo Electoral, que cuenta con los Ayuntamientos y los Consulados como colaboradores en las tareas censales y tiene Delegaciones Provinciales, se le encomiendan, entre otros, los siguientes cometidos: coordinar y supervisar el proceso de elaboración del censo electoral; controlar y revisar de oficio las altas y las bajas tramitadas por los órganos competentes y elaborar un fichero nacional de electores (comunicando a la Junta Electoral Central los resultados de los informes, inspecciones y, en su caso, expedientes que pudiera haber incoado referidos a modificaciones en el censo de las circunscripciones que hayan experimentado una alteración del número de residentes significativa y no justificada); eliminar las inscripciones múltiples de un mismo lector (que no hayan sido detectados por los Ayuntamientos y Consulados); elaborar las listas electorales (provisionales y definitivas); resolver –agotando la vía administrativa– las reclamaciones contra las actuaciones de los órganos que participaban en las operaciones censales (en particular, las que se planteen por la inclusión o exclusión indebida de una persona en las listas de electores. (Araujo, 2011, 135. or.).

Eginkizun horiek egin ostean, honakoa da Hautesle Erroldaren Bulegoaren arabera 1980-2016 bitartean Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan hautesle erroldaren bilakaera kopurutan.

28. irudia: EAEko eta NFEko hauteskunde autonomikoetako hautesle errolda.



Iturria: Eusko Jaurlaritz eta Nafarroako Gobernua.

Ikusten den moduan, EAEko hautesle errolda ia lau aldiz handiagoa da NFEko hautesle errolda baino. Lurralde historikoen kasuan, Bizkaiak du hautesle errolda handiena, txikiena, berriz, Arabak. EAEko kasuan, hautesle kopuru minimo eta maximoak 1.554.527 (1980) eta 1.821.608 (1998) izan dira 1980-2016 bitartean. NFEaren kasuan, 2015eko hauteskundeetan izan zuen hautesle errolda jendetsuena. Hauteskunde horietan, 501.267 hauteslek izan zuten botoa emateko eskubidea.

4.1.2 Hauteskunde barrutia

Hauteskunde barrutia da “hauteskundeetan hautetsi beharreko jarleku guztietatik kopuru jakin bat esleitzen zaion lurralde zatia” (UZEI, 2012, 19. or.). Hego Euskal


Herriko hauteskunde autonomikoen kasuan, hiru hauteskunde barrutitan banatzen da EAEko lurraldea, aldiz, NFEen, hauteskunde barruti bakarria osatzen du lurralde guztiak.

EAEko hauteskunde autonomikoetan, Autonomia Estatutua da lurraldea hauteskunde barrutiak nola banatzen diren arautzen duen legea (Araujo, 2011, 188. or.). Alde horretatik, Autonomia Estatutuaren 26.2 artikulua dio hauteskunde barrutia lurralde historikoa dela. Autonomia Estatutuaren 2. artikulua aurrez zehazten du “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen” osatzen dutela “Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea”. Are gehiago, “baita Nafarroakoak ere, baldin eta Konstituzioaren Aldi baterako Laugarren Xedapenean finkatutako jardunbideari jarraituz partaide izatea erabakitzen badu”. Ondorioz, Nafarroak EAEko partaide izatea erabaki bitartean, beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak osatzen dituzte EAEko hauteskunde barrutiak.

NFEko hauteskunde autonomikoei dagokienez, 16/1986 Foru Legeko 9. artikulua zehazten du hauteskunde barrutiaren izaera: “los parlamentarios forales serán elegidos en una única circunscripción electoral, que comprenderá todo el territorio de Navarra”.

Laburbilduz, hauteskunde barrutiari dagokionez, ikusi da Hego Euskal Herriko bi hauteskunde autonomikoetako hauteskunde sistemak ezaugarri desberdinak dituztela. NFEaren lurraldea ez da zatikatzen eta jarlekuak banatzen dira hauteskunde barruti bakarraren arabera. EAEn, berriz, lurraldea hiru hauteskunde barrutitan banatzen da eta jarleku kopuru jakin bat esleitzen zaio hauteskunde barruti bakoitzari.

29. irudia: Hego Euskal Herriko barruti elektoralak hauteskunde autonomikoetan.



Iturria: Egilea.

4.1.3 Ordezkarri kopurua legebiltzarrean

Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan desberdina da legebiltzar bakoitzean esleitzen den jarleku kopurua guztira. Era berean, EAEko eta NFEko hauteskunde autonomikoetan irizpide desberdinak dituzte hauteskunde barruti bakoitzean esleitzen den jarleku kopurua zehazterakoan (Araujo, 2011, 221-226. or.).

Nafarroko kasuan, hauteskunde barruti bakarra dago eta, lurraldea hauteskunde barrutitan zatikatzen ez denez, erkidegoari dagokion lurraldean esleitzen dira parlamentuko jarleku guztiak (Araujo, 2011, 250-251. or.). Alde horretatik, 13/1982 Lege Organikoa da parlamentuak izango duen jarleku kopurua arautzen duen legea, hots, Nafarroako Foru Hobekuntza laburduraz ezagutzen dena. Lege horren 15.2 artikuluan zehazten da “El número de miembros del Parlamento no será inferior a cuarenta ni superior a sesenta”. Gauzak horrela, etorkizunean idatziko den lege foral baten esku uzten du kopurua zehaztea: “Una ley foral fijará el número concreto de parlamentarios”. Alabaina, Lehen Xedapen Iragakorrean adierazten den moduan, aurrez aipatu dugun 15.2 artikulua garatzen duten lege berria indarrean jarri artean esaten du parlamentuan 50 ordezkarri izango direla. Handik lau urtera, 16/1986 Lege Forala onartu zen eta Nafarroako hauteskunde autonomikoen inguruan hainbat puntu arautzea aurreikusten zuen, tartean legebiltzarkide kopurua. Bertan zehazten da Nafarroako Parlamentuan 50 kide izango direla (1. artikulua).

36. taula: Nafarroako Parlamentuaren tamaina 1980-2016 bitartean.

Hauteskundeak	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
Hautetsi kopurua	50	50	50	50	50	50	50	50	50

Iturria: Egilea.

EAEri dagokionez, Autonomia Estatutuak Lehenengo Aldi Baterako Xedapenean aipatzen du hautesbarruti bakoitzeko “hogei legebiltzarkide izango” direla. Irizpide hori, 28/1983 Legeak, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak arautzen zituenak indargabetu zuen. Lege honen 9. artikulua zehazten da hauteskunde barruti bakoitzean hogeita bost legebiltzarkide hautatuko direla. Era berean, 8. artikulua adierazten du Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hauteskunde barrutia Lurralde Historikoa izango dela. Ikusten den moduan, hortik ondorioztatzen da Eusko Legebiltzarra 75 legebiltzarkidek osatzen dutela.

Hauteskunde autonomikoak arautzen zituen 5/1990 Legea indarrean sartzearekin batera indargabetu zen 28/1983 Legea. Lege honen 10. atalean zehazten da “hauteskunde barruti bakoitzeko hogeita bost legebiltzarkide hautatuko” direla.

Ondorioz, kontuan izanik hiru direla hauteskunde barrutiak, 5/1990 Legeak bere horretan mantentzen du Eusko Legebiltzarra 75 jarlekuz osatzearen irizpidea.

37. taula: Eusko Legebiltzarraren tamaina 1980-2016 bitartean.

Legegintzaldiak	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	XIX	X	XI
Hauteskundeak	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Hautetsi kopurua	60	75	75	75	75	75	75	75	75	75	75
Araba	20	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25
Bizkaia	20	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25
Gipuzkoa	20	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25

Iturria: Egilea.

Eserleku banaketa horren inguruan, Araujok (2011, 233-234. or.) dio iritzi desberdinak daudela. Batzuen ustez, jokaldi soil bat besterik ez da honako asmoarekin egina: alderdi nazionalistek euskal lurraldeen berezitasuna azpimarratzea. Bere arabera, ordea, erabaki horrek lotura handiagoa du euskal lurraldeek duten tradizio foralarekin. Alde horretatik, hautetsi barruti bakoitzari jarleku kopuru bera izendatzeak “muestra la coherencia de los partidos nacionalistas vascos en este punto, al optar por la ética de los principios sobre el pragmatismo de las ventajas”. Izan ere, Araujok uste du alderdi nazionalistak jakinaren gainean zeudela “que el criterio paritario de distribución de escaños favorecía electoralmente a la provincia menos nacionalista (Álava), en perjuicio claro de las más nacionalistas (Vizcaya y Guipúzcoa)”.

Datuek erakusten dute iritzi horrek baduela heldulekua. Horren inguruko adibide adierazgarriena da 1986ko hauteskundeetan gertatu zena. Urte horretan EAJk 271.208 botorekin 17 jarleku lortu zituen, PSEk, aldiz, 19 jarleku lortu zituen 252.233 boto eskuratuta. Beste hitz batzuetan esanda, ia 19.000 boto gutxiago lortu arren, bi eserleku gehiago lortu zituen espainiar alderdiak. Nola da posible hori? Araba eta Bizkaiko lurraldeetan dago gakoa. Araban, lehen indarra PSE izan zen, 34.805 botorekin (%25,02) eta 7 eserleku lortuta. Bizkaian, EAJk 183.766 boto (%28,94) lortu arren, 8 eserleku besterik ez zituen eskuratu. Horrelako fenomenoak gertatzen dira hautesle errolda desberdina duten hautesbarruti guztiei jarleku kopuru berdina esleitzean. Ildo horretatik, Unidad Alavesa eta UPyD izan dira irizpide honi etekinik handiena ateratu diotenak. Unidad Alavesaren kasuan, 1990ko hauteskundetan, EAE guztian 14.351 boto eskuratu zituen (%1,41) eta hiru eserleku lortu, guztiak Araban. Hauteskunde horietan, EBak 14.440 boto lortu zituen (%1,42) eta ez zuen eserlekurik lortu.

4.1.4 Hauteskunde formula

Hauteskunde formula da “hautagaiek edo erakunde politikoek hauteskunde barruti batean lortutako botoak jarleku bihurtzeko ezartzen den eragiketa matematikoa” (UZEL, 2012, 19. or.). Alde horretatik, Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoak arautzen dituzten lege autonomikoek zehazten dute hauteskunde autonomikoetan erabiliko den formula D´Hondt sistema dela (Araujo, 2011, 276-279. or.).

Alabaina, zein ezaugarri ditu formula honek? Ruiz Olabuenaga eta gainerakoek aipatzen dute D´Hont formula sistema proportzionaletan erabiltzen dela, zehazki, jarlekuak eragiketa bakar baten bidez esleitzen diren kasuetan. Horrela laburbiltzen du jarlekuak esleitzeko jarraitzen duen prozedura.

El método d´Hont: todos los votos obtenidos por cada candidatura son divididos por tantos números enteros como escaños hay que repartir en la circunscripción. Los escaños van siguiendo asignados a los cocientes más altos (Ruiz Olabuenaga et al., 1998, 63. or.).

Espainiako Konstituzioak gai honen inguruan arautzen duen puntu bakarra da sistemak proportzionala izan behar duela. Ondorioz, araubide juridikoaren barnean sartzen da D´Hondt metodoa. Alabaina, testuan dagoena nola eramaten da praktikara? Honatx bi adibide: Araba eta Bizkaia. Bata, Hego Euskal Herriko populazio handiena duen lurraldea da, bestea, aldiz, hautesle errolda txikiena duena.

38. taula: Alderdiek jasotako botoak eta lortutako eserlekuak: Araba, 2016ko hauteskunde autonomikoak.

		/1	/2	/3	/4	/5	/6	/7	/8	/9	/10
EAJ	42327	42327 [1]	21163,5 [5]	14109 [7]	10581,75 [11]	8465,4 [15]	7054,5 [17]	6046,714 [22]	5290,875 [25]	4703	4232,7
PP	27877	27877 [2]	13938,5 [8]	9292,333 [13]	6969,25 [18]	5575,4 [23]	4646,167	3982,429	3484,625	3097,444	2787,7
EH BILDU	26899	26899 [3]	13449,5 [9]	8966,333 [14]	6724,75 [19]	5379,8 [24]	4483,167	3842,714	3362,375	2988,778	2689,9
PODEMOS- IU-EQUO BERD	24339	24339 [4]	12169,5 [10]	8113 [16]	6084,75 [21]	4867,8	4056,5	3477	3042,375	2704,333	2433,9
PSE- EE/PSOE	19489	19489 [6]	9744,5 [12]	6496,333 [20]	4872,25	3897,8	3248,167	2784,143	2436,125	2165,444	1948,9
Cs	4784	4784	2392	1594,667	1196	956,8	797,3333	683,4286	598	531,5556	478,4
ATKA/PAC MA	1498	1498	749	499,3333	374,5	299,6	249,6667	214	187,25	166,4444	149,8
GANEMOS	856	856	428	285,3333	214	171,2	142,6667	122,2857	107	95,1111	85,6
VOX	771	771	385,5	257	192,75	154,2	128,5	110,1429	96,375	85,6667	77,1
RECORTES CERO-GV	664	664	332	221,3333	166	132,8	110,6667	94,85714	83	73,77778	66,4
EB-AZ	385	385	192,5	128,3333	96,25	77	64,16667	55	48,125	42,77778	38,5
O.E.	124	124	62	41,33333	31	24,8	20,66667	17,71429	15,5	13,77778	12,4

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Egileak moldatua.

EAEko 2016ko hauteskunde autonomikoetan, Arabako lurraldean EAJ alderdia izan zen, ia 15.000 botoren aldearekin, boto kopuru handiena lortu zuena. Ikusten den moduan,

D´Hont formula erabiliz, 8 eserleku lortu zituen, aldiz, C´ s alderdiak, 4.784 boto lortu arren, eserlekurik ez zuen lortu. C´ s alderdiak jasotako botoei, 600 boto gehituz gero, eserleku bat lortuko zuen. Izan ere, EAJren azken eserlekuak baino boto gehiago izango zituen. Datuak erakusten duten bezala, Arabako lurraldeari 25 jarleku esleitzeak eragiten du boto kopuru txiki batekin, 6.000 ingururekin, jarlekua lortzeko aukera izatea. Bizkaiko kasuan, askoz handiagoa da eserleku bat lortzeko lortu behar den boto kopurua.

39. taula: Alderdiak jasotako botoak eta lortutako eserlekuak: Bizkaia, 2016ko hauteskunde autonomikoak.

		/1	/2	/3	/4	/5	/6	/7	/8	/9	/10	/11
EAJ	238581	238581 [1]	119290,5 [2]	79527,0 [5]	59645,3 [7]	47716,2 [10]	39763,5 [12]	34083,0 [13]	29822,6 [16]	26509,0 [19]	23858,1 [21]	21689,2 [23]
EH BILDU	99610	99610 [3]	49805,0 [9]	33203,3 [15]	24902,5 [20]	19922,0 [25]	16601,7	14230,0	12451,3	11067,8	9961,0	9055,5
POD-IU-EQUO Ber.	84195	84195 [4]	42097,5 [11]	28065,0 [17]	21048,8 [24]	16839,0	14032,5	12027,9	10524,4	9355,0	8419,5	7654,1
PSE-EE/PSOE	66506	66506 [6]	33253,0 [14]	22168,7 [22]	16626,5	13301,2	11084,3	9500,9	8313,3	7389,6	6650,6	6046,0
PP	55128	55128 [8]	27584,0 [18]	18376,0	13782,0	11025,6	9188,0	7875,4	6891,0	6125,3	5512,8	5011,6
Cs	10963	10963	5481,5	3654,3	2740,8	2192,6	1827,2	1566,1	1370,4	1218,1	1096,3	996,6
ATTKA/P ACMA	4556	4556	2278,0	1518,7	1139,0	911,2	759,3	650,9	569,5	506,2	455,6	414,2
GANEMOS	3337	3337	1668,5	1112,3	834,3	667,4	556,2	476,7	417,1	370,8	333,7	303,4
RECORTE CERO-GV	1277	1277	638,5	425,7	319,3	255,4	212,8	182,4	159,6	141,9	127,7	116,1
PFYV	1031	1031	515,5	343,7	257,8	206,2	171,8	147,3	128,9	114,6	103,1	93,7
EB-AZ	903	903	451,5	301,0	225,8	180,6	150,5	129,0	112,9	100,3	90,3	82,1
EK-PCPE	466	466	233,0	155,3	116,5	93,2	77,7	66,6	58,3	51,8	46,6	42,4
PH	351	351	175,5	117,0	87,8	70,2	58,5	50,1	43,9	39,0	35,1	31,9
O.E.	250	250	125,0	83,3	62,5	50,0	41,7	35,7	31,3	27,8	25,0	22,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Bizkaiko kasuan, azkeneko eserlekua lortzeko ikusten da EH Bilduk 19.922 boto behar zituela. Alde horretatik, EAJ gelditu zen 25. jarlekua lortzeko atarian ($238.581/12=19.881,75$). Ikusten den moduan, D´Hont legea dela eta, hiru aldiz boto gehiago behar dira Bizkaian eserlekua lortzeko Araban baino. Alabaina, bada beste aldagai bat D´Hont legearen bidez esleitutako eserlekuak baldintzatzen dituena, bereziki azken eserlekuen kasuan. Hauteskunde muga da aldagai hori, eta ezinbestean kontuan izan beharreko aldagaia da hauteskunde formularekin batera jarleku kopurua esleitzeko.

4.1.5 Hauteskunde muga

Hauteskunde muga da “sistema proportzionalean, erakunde politiko edo hautagaiek eserlekuak lortzeko estatu- edo barruti mailan lortu behar duten gutxieneko boto proportzioa” (UZEI, 2012, 20. or.). Alde horretatik, muga hori %3 eta %5 artean finkatu izan da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan (Araujo, 2011, 361-367. or.).

EAEko kasuan, lehen hauteskunde autonomikoetan 20/1977 Errege Dekretuan 20.4.b artikuluan ezartzen den irizpidea hartu zen erreferentzia moduan, 1979ko Autonomia Estatutuan Aldi Baterako Xedapenetan zehazten denez: “No serán tenidas en cuenta aquellas listas que no hubiesen obtenido, por lo menos, el tres por ciento de los votos válidos emitidos en el distrito”.¹⁰⁸ Edonola ere, azaroaren 25eko 28/1983 Legeak Eusko Jaurlaritzako hauteskundeak arautzen zituenak indargabetu zuen aurreko irizpidea eta hauteskunde muga %5an ezarri zuen. Era berean, lege berri horrek zehaztu zuen hauteskunde muga aplikatzerakoan boto baliogabea eta boto zuria ez direla aintzat hartzen.

10.1. artikulua: Legebiltzarkide tokien banakuntzan sartu ahal izateko, dagokion hauteskunde barrutian izandako baliozko boto guztien ehunetik bostekoa gutxienez atera beharko da.

10.2. artikulua: Ehuneko hori ateratzeko, indarrrik gabeko botoak eta boto zuriak ez dira baliozko bototzat kontatuko.

Urte batzuk geroago, 28/1983 Legea indargabetu zuen 5/1990 Legeak, bere horretan mantendu zuen hauteskunde muga. Aldiz, boto baliodunaren inguruko definizioa aldatu zuen.¹⁰⁹

11.2. artikulua: “Hautagai zerrendek ateratakoak eta boto zuriak kontatuko dira baliozko bototzat”.

Edonola ere, hauteskunde mugak harrezkero izan du aldaketarik. Hala, handik urte batzuetara onartutako 6/2000 Legeak, 5/1990 Legearen 11.1 artikulua indargabetzen zuen, hain zuzen ere, hauteskunde muga %5ean ezartzen zuena. Lege berriak boto baliodunaren %3an ezarri zuen muga berria: “Para poder acceder al reparto de escaños será requisito que la candidatura haya obtenido, al menos, el 3 por ciento del total de

¹⁰⁸ Lege honek adibidea aurkezten du botoak nola ordezkatu jarlekutan. Alde horretatik, zehazten du boto baliodunari aplikatzen zaiola %3ko hauteskunde muga. Hortik kalkulatzen da hautagaiek eserlekua lortzeko behar duten gutxiengo boto kopurua. Alabaina, gertatzen dena da lege honek berdindu egiten dituela boto balioduna eta hautagaiek jasotako boto kopuruak. Boto zuririk ez balego bezala egiten du kalkulua.

¹⁰⁹ Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak 1986ko hauteskundearen inguruan eskuragarri dituen datuetan ikusten da hautagaiek jasotako botoen eta boto zurien baturak praktikan boto baliodunaren multzoa osatzen dutela: <https://www.euskadi.eus/ab12aAREWar/resultado/maint> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/10). Alde horretatik, lan honetan aipatutako irizpideak jarraituz bestelako emaitza batzuk lortu dira.

votos válidos emitidos en la respectiva circunscripción”. Gauzak horrela, honakoa da boto baliodunaren bilakaera EAeko Lurralde Historikoetan.

40. taula: Baliozko botoen bilakaera EAeko hauteskunde autonomikoetan (1980-2016).

Hauteskundeak	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2009*	2012	2016
ARABA												
Boto baliodunak	104.655	124.622	139.106	127.042	137.500	170.575	193.230	170.803	152.458	161.518	157.271	151.091
Hautagaien botoa	104.655	124.622	139.106	126.032	135.286	168.260	191.536	169.519	150.661	159.721	155.001	150.013
Zuria	609	1.001	799	1.010	2.214	2.315	1.694	1.284	1.797	1.721	2.270	1.078
Baliogabea	975	1.011	892	873	898	1.005	1.070	689	9.060	0	2.348	1.113
BIZKAIA												
Boto baliodunak	513.378	596.051	634.971	561.239	574.825	688.854	773.628	657.202	588.099	632.070	606.762	570.638
Hautagaien botoa	513.378	596.051	634.971	557.560	565.960	679.298	767.483	652.336	582.127	626.098	599.113	567.154
Zuria	2.164	2.641	2.798	3.679	8.865	9.556	6.145	4.866	5.972	5.972	7.649	3.484
Baliogabea	5.652	3.235	3.169	2.923	3.496	3.927	3.180	2.164	43.971	0	4.721	2.495
GIPUZKOA												
Boto baliodunak	298.242	353.355	369.998	336.018	325.576	408.777	458.919	391.594	307.201	355.109	362.367	343.956
Hautagaien botoa	298.242	353.355	369.998	333.127	318.575	403.007	455.250	388.743	303.408	351.316	357.646	341.837
Zuria	797	1.387	1.406	2.891	7.001	5.770	3.669	2.851	3.793	3.793	4.721	2.119
Baliogabea	2.579	2.001	2.676	1.367	1.790	1.870	1.969	1.182	47.908	0	2.099	1.064

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Oharra: Bi kalkulu desberdin egin dira 2009ko hauteskundeak kalkulatzeko. Lehena, datu ofizialei dagokiona. Bigarrenean (*), berriz, ezker abertzaleak jasotako boto baliogabeak kontatzen dira hautagaiak jasotako boto moduan. Honek eragina du jarlekua lortzeko gutxieneko boto kopuru hipotetikoan.

Goiko taulan ikusten den moduan, boto baliodunaren esanahia aldatuz joan da hauteskunde batetik bestera. Ondorioz, 1980-1984 bitartean, boto kopuru bera dute boto baliodunak eta hautagaien botoak. 1986ko hauteskundetatik aurrera, ordea, boto balioduna da hautagaien botoaren eta boto zuriaren batura. Hori dela eta, aurrerantzean zerrenda batek eserleku bat lortzeko hauteskunde barruti bakoitzean lortu behar duen gutxiengo boto kopurua kalkulatzeko ez da zuzena izango hautagaien botoak soilik kontuan hartzea.

41. taula: Ordezkaritza lortzeko gutxieneko boto kopurua EAeko hauteskunde autonomikoetan (1980-2016).

Hauteskundeak	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2009*	2012	2016
ARABA												
Boto baliodunaren	%3	%5	%5	%5	%5	%5	%3	%3	%3	%3	%3	%3
	3.140	6.231	6.955	6.341	6.875	8.529	5.797	5.124	4.574	4.846	4.718	4.533
BIZKAIA												
Boto baliodunaren	%3	%5	%5	%5	%5	%5	%3	%3	%3	%3	%3	%3
	15.401	29.803	31.749	28.062	28.741	34.443	23.209	19.716	17.643	18.962	18.203	17.119
GIPUZKOA												
Boto baliodunaren	%3	%5	%5	%5	%5	%5	%3	%3	%3	%3	%3	%3
	8.947	17.668	18.500	16.801	16.279	20.439	13.768	11.748	9.216	10.653	10.871	10.319

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Datuek erakusten duten moduan, Lurralde Historikoetan desberdina da hautagai zerrendek jarleku bat lortzeko gutxienez behar duten boto kopurua. Alde horretatik, botorik gehien Bizkaian lortu behar da, gutxienez, aldiz, Araban. Azken honen kasuan, 2016ko hauteskundeetan nahikoa zuen hautagai zerrenda batek 5.000 boto lortzea.

NFEko hauteskundeei dagokienez, 13/1982ko Lege Organikoaren Lehenengo Xedapen Iragankorraren 1.c puntuan zehazten da hautagai zerrenda bakoitzak jarlekua eskuratzeko boto baliodunaren ehuneko bost lortu behar duela: “Eserlekuak banatzeari dagokionean, gutxienez, emandako baliozko botoen ehuneko bost lortzen ez duten zerrendak ez dira kontuan hartuko”. Alde horretatik, hauteskunde muga ehuneko hirura jaistea arautzen da lege hori osatzeko asmoz onartu zen 16/1986 Foru Legearen 10.1 artikuluan. Harrezkerotik, bere horretan mantendu da hauteskunde muga 2015eko hauteskundeak arte.

42. taula: Baliozko botoen bilakaera NFEko hauteskunde autonomikoetan (1983-2015).

Huteskundeak	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2003*	2007	2007*	2011	2015
Boto balioduna	265.907	283.395	274.682	297.179	303.249	307.317	328.609	329.755	347.851	323.255	337895
Hautagaien botoa	264.081	279.445	271.045	291.418	296.128	300.013	321.305	325.175	343.271	315.094	331285
Boto zuria	1.826	3.950	3.637	5.761	7.121	7.304	7.304	4.580	4.580	8.161	6610
Boto baliogabea	3.135	3.327	2.091	2.366	2.536	21.292	0	18.096	0	4.027	4280

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

Oharra: Bi kalkulu desberdin egin dira 2003ko eta 2007ko hauteskundeak kalkulatzekoan. (*) Ikurra duten zutabeetan, boto baliogabea zenbatu da ezker abertzaleak jasotako botoak bailiran moduan.

NFEko hauteskunde autonomikoen inguruko legediaren baitan boto balioduna ulertzen da boto zuriaren eta hautagai zerrendek jasotako botoen batura gisa. Ondorioz, hauteskunderik hauteskunde honakoa izan da hauteskunde zerrenda bakoitzak Nafarroako Parlamentuan jarleku bat erdiesteko gutxienez lortu behar zuen boto kopurua.

43. taula: Ordezkaritza lortzeko gutxienerako boto kopurua NFEko hauteskunde autonomikoetan (1983-2015).

Huteskundeak	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2003*	2007	2007*	2011	2015
Boto baliodunaren	%5	%3	%3	%3	%3	%3	%3	%3	%3	%3	%3
	13.295	8.502	8.240	8.915	9.097	9.220	9.858	9.893	10.436	9.698	10.137

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

Ikusten den moduan, gutxienez 8.000 boto baino gehiago lortu beharra du hautets zerrenda batek parlamentuan jarleku bat lortzeko. 1983an adibidez, kopuru hori 13.000tik gorakoa izan zen, besteak beste, hauteskunde muga baliozko botoen %5ean kokatzen baitzen.

4.1.6 Hautagai zerrenda

Hautagai zerrenda da “erakunde politiko batek hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko barruti bakoitzerako aurkeztu behar duen zerrenda, hautesleek hautetsi ahal izango

dituzten pertsonen izenak biltzen dituen” (UZEI, 2012, 34. or.). Alde horretatik, “zerrenda itxi eta blokeatuen” sistema da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan hobesten dena (Araujo, 2011, 285-289. or.).

EAEko kasuan, adibidez, Autonomia Estatutuaren Aldi Baterako Xedapenetan Aurrenekoak zehazten du “alderdi politiko, alderdi koalizio eta hauteskunde elkarteek hautets barruti bakoitzean aurkeztu ahal izango” dituztela hautagaiak, “zerrenda itxi eta aldaezinetan”. Alde horretatik, Autonomia Estatutuak jasotakoa berretsi dute gerora puntu hau arautu duten 28/1983 Legearen 11.2 artikulua eta 5/1990 Legearen 12.1 artikulua.

NFERi dagokionez, 13/1982 Lege Organikoak ez du zehazten hautagai zerrendaren ezaugarriak nolakoak izan behar duten. Alabaina, Lehenengo Xedapen Iraunkorren zehazten da “hasta que no entre en vigor la Ley Foral a la que se refiere el artículo quince, dos”, “en todo aquello que no esté previsto en la presente Disposición transitoria, se estará a lo dispuesto en (...) Real Decreto-ley 20/1977, de 18 de marzo”. Hala, lege honen atarikoan zehazten da “El sistema electoral para el Congreso se inspira en criterios de representación proporcional con candidaturas completas, bloqueadas y cerradas”. 16/1986 Foru Legeak ez zuen ezer berririk gehitu hautagai zerrendaren gaiaren inguruan. Ondorioz, hauteskunde barrutietan alderdiek proposatu dituzten zerrendak itxiak eta blokeatuak izan dira urte horietan guztietan.

Behin hau esanda, kontuan izan beharreko bigarren aldagaia da parekidetasunarena (Araujo, 2011, 312-352. or.). Alde horretatik, Hego Euskal Herrian bi dira parekidetasuna arautzen duten legeak. EAEko kasuan, otsailaren 18ko 4/2005 legea izan zen gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna arautzeko ahaleginaren emaitza. Lege horretan honakoa dio Azken Xedapenetan laugarrengoak, zehazki, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzen duenak:

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean, paragrafo bat gehitzen da. Paragrafo hori 4.a izango da eta hala esango du:

4. Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteek aurkezten dituzten hautagai zerrendetan, %50, gutxienez, emakumeak izango dira. Proportzio hori hautagai zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Lurralde historikoko hauteskunde batzorde eskudunek, inola ere, artikulua honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai zerrendak baino ez dituzte onartuko.

Orduan, oraindik Espainiar estatuan ez zegoen parekidetasuna arautzen zuen legerik. Horrek eragin zuen lege hori arazo juridiko zenbaiten iturri izatea. Edonola ere, indarrean sartu zen legea tramite juridiko luze bat eta gero (Araujo, 2011, 331-340. or.).

NFEko kasuan, hautagai zerrenden oreka arautzen duen legea da martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako onartu zena. Lege horren baitan Xedapen Gehigarrien bigarren puntuan zehazten da lege honek Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorraren Lege Organikoari eragiten diola. Alde horretatik, honako aldaketak aurreikusten ditu:

Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldarazi da.

Bat. 44bis artikulua gehitu da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du: 44bis artikulua.

1. Kongresurako diputatuen hauteskundeetarako, udal hauteskundeetarako eta Kanarietako uharte kontseiluetako nahiz kabildoetako kideen hauteskundeetarako lege honetan ezarritakoaren arabera aurkezten diren hautagai zerrendak, eta Europako Parlamenturako diputatuen eta autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetarako aurkezten diren hautagai zerrendak modu orekatuan osatu beharko dira gizon- eta emakume kopuruari dagokionez; horrenbestez, zerrenda osoan sexu bereko pertsonak gutxienez 100eko 40 izan beharko dira. Bost postu baino gutxiago bete behar direnean, emakumeen eta gizonen arteko proportzioa ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez. Autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetan, kasuan kasuko hauteskunde araubideei buruzko legeek neurriak ezarri ahal izango dituzte, aipatu legebiltzarretako hauteskundeetara aurkezten diren hautagai zerrendetan emakume gehiago izan daitezen ahalbidetzeko.

2. Halaber, 100eko 40ari eutsiko zaio gutxieneko proportzio gisa, bost postutik bost posturako tarte bakoitzean. Zerrendaren azken tartean bost postu baino gutxiago daudenean, tarte horretan, emakumeen eta gizonen artean izan beharreko proportzio hori ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez; edozein kasutan, zerrenda osoa kontuan hartzen denean, ezarritako proportzioari eutsi beharko zaio.

3. Ordezkoen zerrendei aurreko paragrafoetan jasotako erregelak aplikatuko zaizkie.

Ikusten den moduan, EAEko eta NFEko legediaren desberdintasuna da lehenak emakumeak gutxienez %50a izan behar dutela zehazten duela, aldiz, bigarrenak azpimarratzen du nahiz eta aukera eman emakumeak hautesleen %60a izateko gutxienez %40 izan behar duela.

4.2 Hauteskunde autonomikoetako emaitza elektoralen azterketa

Aurreko azpikapituluan ikusi den moduan, bi azpisistema desberdinetan banatzen da Hego Euskal Herriko sistema politikoa: NFEko azpisistema eta EAEkoa. Azken hamarkadatan egin diren ikerketek azpimarratzen dute bi azpisistema horiek ezaugarri bereziak dituztela Espainiar estatuko gainerako hauteskunde autonomikoetan eratzen diren alderdi sistemekin konparatuta (Lago, 2002). Hori horrela izanik, ikerketa honetan interesatzen dena da zein diren aztertzea Hego Euskal Herriko alderdi sistemak

dituzten berezitasunak. Alde horretatik, bi dira alderdi sistemen ezaugarriak aztertzeko akademian bereizten diren hurbilpenak:¹¹⁰ instituzionala eta soziologikoa.

44. taula: Alderdi sistemaren izaera aztertzen duten hurbilpen desberdinak eta ikertzaile nagusiak.

		Soziologikoa	Instituzionala	
			Historikoa	Lehiakorra
Alderdiak eta alderdien sistemak, horiek sortu zituzten faktoreen aldaketetara egokitzeko duten gaitasuna	Oso txikia	Lipset y Rokkan*	Panebianco Michels von Beyme Mair	Sartori* Duverger (alderdiak) Epstein Budge
	Oso handia	Almond	Duverger (alderdi sistema)	Downs

Iturria: Warek (2004, 36. or.). Egileak moldatua.

Oharra: Ikerketa honetan erreferentzia gisa hartu diren lanak dira taulan (*) ikurra dutenak.

Bi hurbilpenak bereizterakoan oinarrian dagoen irizpidea da alderdiek eta alderdi sistemek duten gaitasuna, hain zuzen ere, eurak sortu zituzten faktoreen aldaketetara egokitzeko. Hurbilpen soziologikoaren¹¹¹ arabera, gizarte egiturek baldintzatzen dute alderdi sistemen izaera. Aldiz, hurbilpen instituzionalaren¹¹² arabera, marko instituzionala da alderdi sistemaren esentzia determinatzen duena.

Hurbilpen horiek tresna desberdinak eskaintzen dituzte alderdi sistema ulertzeko. Atal teorikoan azaldu da ikerketa honetan bereziki erreferentzia moduan hurbilpen soziologikoa hartzen dela– Lipset eta Rokkanen lana alegia–. Horrek ez du esan nahi

¹¹⁰ Autore batzuek bi eredu edo korrante sailkatzen dituzte (Nohlen, 1994, 38-45. or; Lago, 2002, 132. or; Guinjoan, 2009, 88. or.). Beste batzuek, berriz, hiru: aurrez aipatutako biak, gehi hurbilpen lehiakorra (Ware, 2004, 287. or.). Azken hori, berez, hurbilpen instituzionalaren aldaera bat besterik ez da, edonola ere, hirugarren azpimultzo gisa aurkezten du Warek “erregimen liberal-demokratikoetako” alderdi sistema aztertzeko oso erabilia delako. Bi –edo hiru– ikuspuntu horiek, hasiera batean, bi ikerlerro kontrajarri izanagatik, bereziki goeko hamarkadatik aurrera ulertu izan dira elkarren osagarri bailiran bezala (Nohlen, 1994, 43. or; Guinjoan, 2009, 88. or; Ware, 2004, 288. or.).

¹¹¹ Honela laburbiltzen du Warek (2004, 36. or.) hurbilpen honen ezaugarriak: “Este resulta ser un enfoque a través del cual se intentan explicar los fenómenos políticos a partir de los fenómenos sociales subyacentes. Así, cabría explicar la presencia de un tipo concreto de partido (por ejemplo, un partido social-demócrata) en un país afirmando que (a) en ese país existen grupos que tienen el tipo de intereses que normalmente son defendidos por los social-demócratas y (b) que existe una posible amenaza para esos intereses, lo que convierte a su defensa en algo importante para estos individuos. Según este enfoque, las instituciones políticas son meros intermediarios”.

¹¹² Honatx, hurbilpen instituzionalaren inguruan proposatzen duen definizioa: “Al contrario de lo que ocurre con el enfoque sociológico, según el enfoque institucional las instituciones sí tienen importancia. Las “luchas” políticas se verían siempre mediatizadas por el escenario institucional en el que tienen lugar. Si se cambian ciertos aspectos de las reglas que rigen la política es de suponer que se vean afectadas, tanto la naturaleza de las instituciones como la forma en que se lleva a cabo la acción política” (Ware, 2004, 36-37. or.).

hurbilpen instituzionala garrantzitsua ez denik. Aitzitik, Sartoriren sailkapena (hurbilpen instituzional lehiakorra gisa kategorizatzen dena) oso erabilia izan da euskal ikerketa elektoraletan Hego Euskal Herriko alderdi sistemak zedarritzeko. Horregatik, ondorengo atalean ahalegina egiten da nazio zapalduaren begiradatik sailkapen hori berrinterpretatzeko.

Hurbilpen lehiakorrak, iskin egiten dio alderdi sistemaren izaera faktore soziologikoek determinatzen duela dioen ideiari, eta azpimarratzen du joko zelai politikoa instituzioek markatzen dutela. Horregatik kokatzen da hurbilpen lehiakorra hurbilpen instituzionalaren baitan. Edonola ere, azken horrek begirada jartzen du joko politikoaren azterketan, eta ez horrenbeste, instituzioen markoetan. Horregatik, Sartoriren ustea da erregimen liberal-demokratikoetan alderdi sistemen izaera determinatzen duena alderdiek botoak erdiesteko erabiltzen dituzten estrategiak direla.

Mientras según el institucionalismo (en ocasiones denominado institucionalismo histórico) es una amplia gama de instituciones la que reviste importancia para el estudio de los partidos, y los sistemas de partidos, el presente enfoque se trata sólo en la competición. (...) Los partidos concretos, en tanto que instituciones, responden a la demanda de competir con otros partidos, y el sistema de partidos refleja la lógica de la interacción competitiva (y de cooperación). Los partidos concebidos como actores con intereses propios que responden a la lógica de la situación en la que se encuentran; una lógica presidida por la necesidad de competir por votos. (Ware, 2004, 37. or.).

Gauzak horrela, bi hurbilpen bereizten dira alderdi sistemaren ezaugarriak aztertzeko: 1) instituzionala eta 2) soziologikoa. Ildo horretatik, 4.2.1 azpikapituluuan Hego Euskal Herriko alderdi sistema aztertzen da hurbilpen lehiakorraren begiradatik. Aldiz, 4.2.2 azpikapituluuan EAeko eta NFEko hauteskundeetako emaitza elektoralak aurkezten dira bloke elektoral nagusien indargune geografikoak aztertuz. Argazki geografiko horren helburua da 5. atalean lerrokatze linguistiko elektoralen azterketa soziologikoa egiteko oinarriak ezartzea.

4.2.1 Hurbilpen instituzionala: alderdi sistemaren ezaugarriak

Aipatu berri da hurbilpen lehiakorra, hurbilpen instituzionalaren aldaera besterik ez dela. Alde horretatik, Sartoriren (2012, 165-170. or.) sailkapena da hurbilpen lehiakorraren baitan alderdi sistemak kategorizatzeo eskala erabilienetakoa, baita euskal kasua aztertzerakoan ere. Sartoriren sailkapenari dagokionez, azken honek alderdi sistemak banatzen ditu zazpi kategoriatan. Horretarako oinarritzen da honako bi aldagaietan: batetik, alderdi sistema osatzen duten alderdi kopurua; eta bestetik, azken horien arteko lehiakortasunak hartzen duen forma:

45. taula: Sartoriren eskala alderdi sistemak sailkatzeko.

	ALDERDI SISTEMAK	EZAUGARRIA
BAT	Alderdi bakarrekoak	Alderdi sisteman beste alderdirik ez da existitzen.
BI	Alderdi hegemonikoa	Beste alderdi batzuk egon arren, bere mendeko alderdiak dira, hots, bere sateliteak.
HIRU	Alderdi bat nagusitzen dena	Bakarrik gobernatzen du hauteskundeetan gehiengo lortzen duen kasuetan. Hala ere, alderdia ez da hegemonikoa eta beste alderdiak ez dabilta bere inguruan bueltaka.
LAU	Bipartidismoa	Bi alderdi politikok lehiatzen dute gehiengo lortzeko.
BOST	Pluralismo moderatua	Sistema zatikatua, ez polarizatua –muturreko distantzia ideologikorik ez– eta 3-5 alderdi politiko inguruk lortzen dute ordezkartza.
SEI	Pluralismo polarizatua	Sistema zatikatua, polarizatua –muturreko distantzia ideologikoa– eta 5 alderditik gora.
ZAZPI	Sistema atomizatua	Alderdi sistema bost alderdik baino gehiagok osatzen dute eta alderdi batek beste alderdiengan ez duten inongo eragin hautemangaririk.

Iturria: Sartori (2012, 165-170. or.). Egileak moldatua.

Alde horretatik, lan honek berresten du aurrez beste batzuek esandakoa, bereziki Francisco Llerak ikerketa desberdinetan esan duena (Llera, 1981; 1985a; 1985b; 1989; 2016d). Alegia, NFEko eta EAEko alderdi sistemak “pluralismo polarizatuaren” kategorian kokatzen direla.¹¹³ Gauzak horrela, azpikapitulu honetan jaso da Llerak ikerketa horietan esandakoa eta hori guztia osatu da beste batzuek gehitu dutenarekin (Linz, 1986; Leonisio eta Scantamburlo, 2019; Pérez-Nievas eta Fernández-Esquer, 2019). Ondorioz, Sartoriren sailkapenari dagokionez azpikapitulu honek ez dakar berrikuntzarik. Beste gauza bat da sailkapen horren baitan funtsezkoak diren hainbat kategoria interpretatzerakoan bat egotea akademian hegemoniko den begiradarekin. Izan ere, Sartoriren sailkapena nazio zapalduaren begiradatik aztertzeak eskatzen du akademian “natural” ikusten diren zenbait irakurketa auzitan jartzea, adibidez, alderdi antisistemari dagokiona. Horregatik guztiagatik, azpikapitulu honen xedea ez da horrenbeste indize desberdinak kuantifikatzea. Horien inguruan bestelako irakurketa bat egitea baizik. Ildo horretatik, sistema plural eta polarizatu gisa honako hauek dira EAEko eta NFEko alderdi sistemen ezaugarri nagusiak: bat, sistema zatikatua izatea; bi, polarizatua –muturreko distantzia ideologikoa–; eta hiru, 5 alderditik gora izatea. Alabaina, nola gorpuzten dira errealitatean ezaugarri horiek guztiak? Galdera hori erantzuten da ondorengo lerroetan zehar.

Sistema zatikatua edukitzea da pluralismo polarizatuaren oinarrian dagoen elementu nagusietakoa (Sartori, 2012, p. 164). Alde horretatik, Llerak (2016c, 250-254. or.) indize desberdinak proposatzen ditu EAEko alderdi sistemaren zatikatzea kuantifikatzeko,

¹¹³ Ikertzaile gehienak bat datoz sistema plural eta polarizatu gisa sailkatzerakoan Hego Euskal Herriko alderdi sistemak. Salbuespen bakarrenetakoa da 1977ko Nafarroako hauteskunde orokorren inguruan Ruiz Olabuenagak eta Urrutiak (1978) egiten duten irakurketa. Azken horiek azpimarratzen dute sistema atomizatuaren forma hartu zuela.

adibidez: Rae, Taagepera eta Shugart edota Linz indizea. Lan honetan erabiliko den indizea da Taagepera eta Shugartena. Hala, Alderdi Eraginkorren Kopurua (AEK) indizea hartu da erreferentzia moduan EAEko eta NFEko hauteskundeetan ordezkariak lortzen duten alderdien zatikatzea kuantifikatzeko.¹¹⁴ Kontuan izan indize horrek alderdi sistema bateko alderdi kopuru eraginkorra zein den zehazten duela. Beraz, bere bidez ikusi da NFEko alderdi sisteman alderdi eraginkorrak batez beste ia 4 izan direla. Alde horretatik, EAEn zerbait altuagoa da indizearen batez bestekoa. Dena dela, 2011tik aurrera ikusten da NFEan balore hori 4tik 5era igo den bitartean, EAEn etengabe jaitsi dela 1994tik 2012ra bitartean. Indize hori baliagarria da EAEko eta NFEko alderdi sistemaren historia ikuspuntu lehiakor batetik modu sistematikoan aztertzeko.

46. taula: Zatikatzeta eta AEK indizea EAEko eta NFEko alderdi sistemetan.

Zatikatzeta		1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007		2011	2015	Batez beste
AEK	-	3,68	4,84	3,08	4,43	3,59	3,98	3,37		4,31	5,25	4,06
Zatikatzeta	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016	Batez beste
AEK	3,98	3,54	5,22	5,25	5,65	4,96	3,35	3,80	3,75	3,68	4,04	4,29

Iturria: Llera (2016c, 253. or.); Leonisio eta Scantamburlo (2019, 260. or.) eta Pérez-Nievas eta Fernández-Esquer (2019, 393. or.). Egileak moldatua.

Oharra: Zatikatzeta indizea kalkulatzeko aintzat hartu dira ilegalizazioaren ondorioz ordezkariak gabe gelditu ziren ezker abertzalearen alderdi desberdinek berez lortu behar zituzten ordezkariak. Datu horien arabera kalkulatu dira 2003ko, 2007ko eta 2009ko hauteskundeetako zatikatze indizeak.

Gainerakoan, Sartoriren arabera, sistema plural eta polarizatuak eduki behar ditu 5 alderdi edo gehiago batez beste. Alde horretatik, hauteskunde autonomiko guztietan betetzen dituzte irizpide horiek EAEko eta NFEko alderdi sistemek 1980-2016 bitartean. Alabaina, zer izaera dute alderdi sisteman parte diren eta ordezkariak lortzen duten alderdi horiek? Sartorik dio sistema plural eta polarizatuak gutxienez honako bi ezaugarri¹¹⁵ hauek bete behar dituztela:

- 1) La primera característica distintiva del pluralismo polarizado reside en la presencia de partidos antisistema importantes. (Sartori, 2012, 173. or.).
- 2) La segunda característica distintiva del pluralismo polarizado reside en la existencia de oposiciones bilaterales. (Sartori, 2012, 175. or.).

¹¹⁴ AEK indizearen bidez helburua da sistemaren zatikatzea kuantifikatzea (Gaztelera, Número Efectivo de Partidos). Horretarako, honako ekuazioa aplikatu behar da: $AEK = 1/\sum_{i=1}^n S^2$. Aldagaiari dagokionez, S balorean sartu behar da parlamentuan ordezkariak lortu duten alderdiek jasotako eserlekuen ehunekoaren balioa.

¹¹⁵ Sartorik (2012, 176. or.) orotara ezaugarri gehiago proposatzen baditu ere, garrantzi gehien aurreneko bi ezaugarriak ematen die: "las dos características que preceden son las más visibles y bastan ya para identificar la categoría".

Aurreneko ezaugarriari dagokionez, begirada hegemonikoak aho batez onartzen du EAEko eta NFEko alderdi sistemaren baitan alderdi antisistema gisa identifikatzen diren alderdiak ezker abertzalearen ingurukoak izan direla (HB, EHAK, ANV, EH, Batasuna eta abar). Zalantza gehiago dago EH Bildu koalizioaren inguruan (Llera, 2016c, 261. or.). Izan ere, EH Bildu koalizioaren parte da ezker abertzalea, baina, aldi berean, EH Bildu ez da ezker abertzalea soilik. Horrelako zalantzen aurrean ezinbestekoa da aurrez honako irizpidea argitzea: zer da antisistema izatea? Sartoriren (2012, 174. or.) arabera, “se puede decir de un partido que es antisistema siempre que socava la legitimidad del régimen al que se opone”.

Behin definizio hori aurkeztu eta gero, hiru ñabardura egiten dira testuan zehar kategoria honen inguruan: batetik, Sartorik (2012, 174-175. or.) adierazten du alderdi antisistema izateak ez duela zertan iraultzaile esan nahi, alegia, alderdi faxistak ere antisistemak izan daitezkeela; era berean, antisistema eta extrasistema kategoriak bereizten ditu azpimarratuz alderdi antisistema batek “puede funcionar tanto desde dentro como desde fuera, mediante una sutil infiltración que mediante una obstrucción” (Sartori, 2012, 175. or.); hirugarrenik, begiradaren inguruan dio alderdi antisistemen mundu ikuskera beste alderdientzat “ideologia arrotza” dela, hein handi batean, erregimenaren legitimitatea zalantzan jartzen dutelako (Sartori, 2012, 176. or.). Abiapuntu hori oinarritzat hartuta, ikerketa batzuek ulertzen dute ezker abertzalea alderdi antisistema dela honako arrazoi hauengatik: urtea joan eta etorri, ETA erakundearen jarduera ez gaitzesteaz gain, politikan parte hartu eta eragiteko ahalmena izan dutelako, beti ere, sistemaren legitimitatea ukatuz. Ikuspegi honetatik, bai ikertzaile modernistek eta baita euren kategoriak barneratu dituztenek ere, bitan banatzen dituzte EAEko eta NFEko alderdiak: demokratikak eta biolentokak.

No habría duda en calificar como tal [antisistema] a HB, ya que esta fuerza política se caracterizaría por «el apoyo a la violencia de ETA, el rechazo a la legitimidad constitucional y al sistema institucional y movilización social continua», además de las políticas de chantaje (Llera, 1998a: 372). Por otro lado, su importancia está fuera de toda duda, en la medida en que es un partido que ha contado con un amplio apoyo electoral, obteniendo alrededor de 15 % de los votos válidos (...) la duda en estos momentos es en calificar así a la nueva coalición de la izquierda abertzale (EH Bildu), que incluye partidos democráticos que nunca han apoyado la violencia. De nuevo el tiempo dirá si EH Bildu se convierte en espacio político asimilable al resto de partidos políticos y pierde su carácter antisistema. (Llera, 2016c, 261-262. or.).

Ikusten den moduan, beste behin ezinbestekoa da mahai gainean jartzea mito modernoaren auzia. Kasu honetan, azken hori agertzen da demokrata/biolentoa dikotomiaren itzalean (Azurmendi, 1997). Nazio zapalduen begiradatik, beraz, funtsezkoa da ñabardura egitea orain arte ikusitakoari. Izan ere, nazio normalizatuek euren sistema propioa duten bitartean –euren nazio-estatua–, nazio zapalduak ez dute garatzerik izan euren sistema politiko propioa, Estatu arrotzaren mende egoteak

suposatzen duen desfase kultural/politikoaren eraginez. Alabaina, zer gertatzen da ikertzaileak, alderdiak kategorizatzerakoan, begirada modernoa gainditu eta zatiketa kultural/politikoa josteko jarrera engaiatua erakusten badu? Kasu horretan, nazio zapalduaren begiradak zoru epistemikoa eskaintzen du honako diskurtsoa legitimatzeko: euskal alderdiak dira euskal sistema alternatiboaren eraikuntzaren aldeko mugimenduak. Horrela, ezker abertzalearen kasua igarotzen da alderdi antisistema izatetik, euskal sistema propioa eraiki nahi duen alderdia izatera. Ondorioz, euskal abertzaletasunaren proiektua bere horretan ez da inoren aurkako erreakzioa, hots, periferia. Zentro propio bat eraiki nahi duen mugimendua baizik. Ikuspegi horretatik, espainiar proiektu modernoan kokatzen da biolentziaren abiapuntua. Izan ere, azken hori da, bere nazioa gobernatzeaz gain, beste nazioak ere bere mendeko bihurtu nahi dituen modernitatearen, arrazoiaren eta aurrerapenaren izenean. Beraz, nazio zapalduaren ikuspegitik espainiar proiektu modernoak euskal mugimenduari eragiten dion menderakuntzaren –biolentzia sinboliko eta objektiboaren– ondorioa da euskal mugimenduaren erantzuna.

Nazio zapalduaren begiradak dakarren zeinu aldaketa honek oinarri teorikoak eskaintzen ditu euskal sistema propioaren garapena oztopatzen duten alderdiak antisistema gisa interpretatzeko. Azken horiek, biolentziaren monopolioa duen Estatuaz baliatzen dira euren helburu politikoak erdiesteko. EAEn eta NFEan ordezkariak lortzen duten espainiar alderdien artean PP eta UPN alderdiak dira “antisistema” moduan kategorizatu daitekeen alderdi nabarmenenak, bi arrazoiengatik: batetik, euskal nazio kulturalari politikoki bere sistema propioa eratzeko legitimitatea ukatzen diotelako; eta bestetik, euskal sistemaren eraikuntzaren proiektua sustatzen dutenei galga jartzeko, Estatu biolentziaz baliatzea legitimotzat ikusten dutelako (zuzenbidea kasu onenean eta muturreko kasuetan, berriz, armada). Ikusten den moduan, irizpide horiei galbahe estua jarritz gero, beste alderdiren bat ere antisistema gisa sailkatu daiteke. Hemendik ondorioztatzen da alderdi antisistemaren izaera aldebikoa dela. Alegia, nondik eta nola begiratzen duzunaren arabera –alteritate epistemikoa–. Azken batean, errealtatean aipatutako bi begirada horiek gurutzatzen dira elkarren artean (espainiar begirada modernoa eta euskal begirada ez-hegemonikoa). Alabaina, botere harreman asimetrikoa dituzte bi begirada horiek. Espainiar begirada modernoa da akademia normalizatua dagoena. Sartorik (2012), adibidez, sistema hegemonikoaren barrutik eraikitzen ditu kategoriak. Gauzak horrela, euskal lerrokatze linguistikoa nazio zapalduaren ikuspegitik ulertu nahi bada, komenigarria da Sartoriren planteamendua begirada ez-hegemonikotik irakurtzea, alderdi antisistemarekin egin den moduan.

Esan bezala, sistema plural eta polarizatuen bigarren ezaugarria da aldebiko oposizioaren auziari dagokiona. Sartoriren (2012, 175. or.) arabera, oposizio unilateralak gertatzen diren alderdi sistemetan “cualquiera que sea el número de partidos de oposición, puede sumar sus fuerzas y proponerse como alternativa de gobierno”. Alabaina, bestelakoa da egoera aldebiko sistema politikoetan: “nos encontramos, en cambio, con dos oposiciones que son mutuamente excluyentes: no pueden sumar sus fuerzas”. Aitzitik, bi alderdi horiek urrunago daude politikoki elkarren artean gobernuan dagoen/dauden alderdiekiko baino. Horrek egiten du ezinezkoa izatea gobernuan aurkitzen diren alderdiekiko alternatiba eraikitzea. EAeko kasuan, ikertzaileek azpimarratu izan dute alderdi sistemaren bi muturrak ezker abertzaleak eta espainiar alderdiek osatzen dutela. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa ikusi da Sartoriren teoria honako parametrotan ulertzea: euskal kasuan aldebiko oposizioaren oinarrian dagoena da bi proiektu nazional desberdin daudela. Eta horietako batek, ezker abertzaleak, ez du erabat barneratu nazioaren gaineko zatiketa kultural/politikoa. Oposizio nazional hori trinkotu egiten da auzi soziala gainezartzen zaionean.

47. taula: Aldebiko oposizioa EAeko alderdi sistemetan.

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Oposizio bilaterala EAE	HB EE	HB EE	HB EA	HB EA	HB	EH	EH	EHAK	D3M*	EHB	EHB
	AP UCD	PSE AP	AP CDS	PP AP	PP UA	PSE PP /UA	PSE PP	PSE PP	PP PSE UPyD	PSE PP UPyD	PP

Iturria: Llera (2016c, 253. or.). Egileak moldatua.

Orain arte aipatutako bi ezaugarrietan ikusten da EAeko eta NFEko alderdi sistemek, ñabardura batzuk gorabehera, bat egiten dutela pluralismo polarizatua kategoria ezaugarritzen duten irizpideekin. Alde horretatik, hirugarren ezaugarriaren inguruan dago bi alderdi sistemen artean desberdintasun handiena.

- 3) Si se pregunta uno cómo pasamos de la oposición unilateral a las bilaterales, inmediatamente nos quedamos alerta a la tercera característica: los sistemas de pluralismo polarizado se caracterizan por la ubicación central de un partido o un grupo de partidos. (2012, 176. or.).

Ikusten den moduan, hirugarren ezaugarria da alderdi sistemak plural eta polarizatueta alderdi bat(zu)ek erdigunea okupatzen du(t)ela. Alde horretatik, Sartorik azpimarratzen du zentroa ez dela soilik posizio ideologikoa, aitzitik, erdigunearen okupazio fisikoa da garrantzitsua. Horrek, polarizatutako bi ertzak moderatzera darama: “una posición de centro parece condenar a una política de mediación, en el sentido de que otra función hace que la toma de posición del partido le salga el tiro por la culata sin compensar en cuanto al rendimiento ni logros” (Sartori, 2012, 177. or.). Zentralitate politikoaren

espazioa EAJk bete du EAEn urte luzez (Pablo eta Mees, 2005). NFEan, aldiz, zentro-
eskuineko euskal alderdiek ez dute izan EAEn historikoki izan duten presentzia.

48. taula: Zentralitate elektorala EAEn eta NFEen.

Zentralitate politikoa EAE	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
		EAJ/EE	EAJ/EE/EA	EAJ/EE	EAJ	EAJ-IU	EAJ/EA/IU	EAJ- EA /IU	EAJ/IU	EAJ	EAJ

Iturria: Llera (2016c, 253. or.). Egileak moldatua.

Horrela, EAeko eta NFEko alderdi sistemak pluralismo polarizatuaren kategorian kokatu arren, izaera desberdinak dituzte bi erkidegoetan eratu diren gobernu autonomikoek. EAeko kasuan, 2009an izan ezik, beti egon da EAJ gobernuan. Batzuetan, bera bakarrik, beste batzuetan, beste alderdi batzuekin koalizioan. NFEari dagokionez, euskal alderdiek 1995-1996 eta 2015-2019 legegintzaldian soilik lortu dute gobernuan egotea.

49. taula: Estatuko presidentea eta Hego Euskal Herriko lehendakari autonomikoak (1980-2016).

Urtea	EAE			NFE			ESPAINIAR ESTATUA					
	Gobernua	Eserlekuak (75etik)	Lehendakaria	Gobernua	Eserlekuak (50)	Lehendakaria	Gobernua	Eserlekuak (350tik)	Presidentea			
1978												
1979	Autonomia Estatutua (1979)						Espainiar Konstituzioa (1978)					
1980				0	Foru hobekuntza aurreko hauteskundeak (1979)		1	UCD	168	SUÁREZ		
1981	1	EAJ	25 (60tik)	GARAIKO-ETXEA						CALVO-SOTELO		
1982					1982ko Nafarroako Foru Hobekuntza							
1983												
1984	2	EAJ	32	GARAIKO-ETXEA	1	PSN	20	URRALBURU	2	PSOE	202	GONZÁLEZ
1985		EAJ		ARDANTZA								
1986												
1987												
1988	3	EAJ / PSE	36	ARDANTZA					3	PSOE	184	GONZÁLEZ
1989					2	PSN	15	URRALBURU				
1990		EAJ / EA / EE	37	ARDANTZA					4	PSOE	175	GONZÁLEZ
1991	4	EAJ / PSE-EE	44	ARDANTZA	3	UPN	20	ALLI				
1992												
1993												
1994												
1995	5	EAJ / PSE-EE / EA	42	ARDANTZA		PSN / CDN / EA	23	OTANO	5	PSOE	159	GONZÁLEZ
1996					4	UPN	17	SANZ	6	PP	156	AZNAR
1997		EAJ / EA	30	ARDANTZA								
1998	6	EAJ / EA	27	IBARRETXE								
1999					5	UPN	22	SANZ	7	PP	183	AZNAR
2000												
2001												
2002	7	EAJ / EA / EB-B	(33+3)	IBARRETXE								
2003												
2004					6	UPN/CDN	(23+4)	SANZ	8	PSOE	164	ZAPATERO
2005	8	EAJ / EA / EB-B	(29 + 3)	IBARRETXE								
2006						UPN/CDN	(22+2)	SANZ				
2007					7	UPN	22	BARCINA	9	PSOE	169	ZAPATERO
2008												
2009	9	PSE	25	LOPEZ								
2010												
2011												
2012						UPN/PSN	(19+9)	BARCINA	10	PP	186	RAJOY
2013	10	EAJ	27	URKULLU								
2014						UPN	19					
2015												
2016	11					GEROA BAI / EH BILDU / PODEMOS / I-E	26	BARKOS	11	PP	123	
2017	1	EAJ / PSE	37	URKULLU	9				12	PP	137	RAJOY
2018												
2019												

Iturria: Pérez-Nievas eta Fernández-Esquer (2019, 398. or.) eta Leonisio eta Scantamburlo (2019, 259. or.). Egileak moldatua.

Laburbilduz, Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren gaineko azterketa instituzional-lehiakorrak erakusten du alderdien arteko lehia politikoa errotik baldintzatzen duela alderdi sistema aldebetasunezko oposizioaren gainean artikulatzeak eta mutur horietako bat alderdi antisistema izateak. Horrez gain, zentralitate politikoaren inguruan bi alderdi sistemetan dagoen desberdintasuna kontuan izatea ezinbestekoa da EAeko eta NFEko bilakaera politikoa eta elektorala ulertzeko. Jarraian, banan bana aztertzen dira aipatutako bi kasuak.

4.2.1.1 EAeko kasua: pluralismo polarizatua EAJ alderdiaren inguruan ardaztua.

EAeko hauteskundeetan, alderdi sistemaren zatikatzea aztertzerakoan, ikusi da batez beste alderdi efektiboen indizearen balioa 4,29koa dela. Honek esan nahi du legegintzaldi bakoitzean alderdi sisteman lehiakorrak diren alderdiak 4-5 inguru izan direla. Alabaina, zein dira alderdi horiek eta zein izan da beraien bilakaera? Honakoak dira EAeko alderdi sisteman jarraikortasunez babes elektorala lortu duten eta sistema politikoan lehiakorrak izan diren alderdiak: euskal alderdien kasuan, EAJ eta HB (bere sigla desberdinekin); eta espainiar alderdien kasuan, PSOE eta PP (aurrez AP). Hortik ondorioztatzen du Llerak EAeko sistema politikoan lau espazio nagusi daudela: bat, euskal abertzaletasun tradizionala eta kontserbadorea; bi, ezker abertzalea; hiru, espainiar ezkerria; eta lau, espainiar eskuina (Llera, 2016c, 247. or.). Edonola ere, badira beste alderdi batzuk garai konkretu batzuetan alderdi sisteman eraginkor izatea lortu dutenak.

Y es que, junto con las cuatro grandes fuerzas principales de dichos espacios (PNV, HB y sus diferentes marcas, PSE-EE y AP/CP/PP, también con su evolución orgánica), han competido, con mayor o menor éxito otras que han disfrutado de oportunidades representativas y, en algunos casos, han resultado relevantes, no solo por su apoyo electoral, sino también en la conformación de mayorías de gobierno (autonómicos, forales y municipales). Son partidos como EA en el espacio del nacionalismo tradicional, EE y Aralar en el de la izquierda abertzale, PCE/IU/EB en el de la izquierda española y UCD/CDS, UA y UPyD en el del centro-derecha español. Casi todos fruto del fraccionamiento propio de la política vasca y de las oportunidades de éxito ofrecidas por el sistema electoral en Euskadi, gracias, precisamente, al efecto corrector de la fragmentación sobre la propensión mayoritaria del mismo. (Llera, 2016c, 247. or.).

Ikusten den moduan, aipatutako lau espazio horietan banatzen da EAeko sistema plural eta polarizatua. Hala, hurbilpen lehiakorraren arabera, hauteskundeetako emaitzak dira espazio bakoitzaren ertzetan alderdi politikoaren artean gertatzen den lehia politikoaren ondorioa. Azpiko taulan garbi ikusten da Llerak euskal nazionalismo tradizionala bezala kategorizatzen duena dela lau espazio horietatik indartsuena. Edonola ere, aldatuz joan da hautesleek emandako babes elektorala hauteskunde batzuetatik bestera.

50. taula: EAeko hauteskunde autonomikoetan alderdi politiko nagusiek lortutako ordezkarri kopurua.

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2009 [^]	2012	2016	Batez beste.
EAJ*	25	32	17	22	22	21	33	29	30	28	27	28	26 (+7;-9)
EA			13	9	8	6			1	1			7 (+6;-6)
HB**	11	11	13	13	11	14	7	9	0	7	21	18	13 (+8;-6)
ARALAR								1	4	4			3 (+1;-2)
EE	6	6	9	6									7 (+2;-1)
PSE-EE***	9	19	19	16	12	14	13	18	25	23	16	9	15 (+10;-6)
PCE/EB- B/PODEMOS	1				6	2	3	3	1	0		11	4 (+7;-3)
AP/PP****	2	7	2	6	11	16	19	15	13	11	10	9	10 (+9;-8)
UCD/CDS	6		2										4 (+2;-2)
UA				3	5	2							3 (+2;-1)
UPyD									1	1	1		1 (=)
GUZTIRA	50	75	75	75	75	75	75	75	75	75	75	75	
EUSKAL ORDEZKARIAK	42	49	52	50	41	41	40	39	35	40	48	46	
ESPAINIAR ORDEZKARIAK	8	26	23	25	34	34	35	36	40	35	27	29	

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

* EAJ-EA koalizioarenak dira 2001 eta 2005eko hauteskundeetako datuak.

**EHren datuak 1998 eta 2001ekoak dira. 2005eko datuak dira EHAK alderdiak lortutakoak. Aldiz, 2009ko hauteskundeetako datuak D3M zerrendari dagozkio. Azken honen kasuan, legez kanpotzat izendatu zuten. Eta, beraz, bi kalkulu egin dira 2009ko hauteskundeetan. Aurreneko zutabean datu ofizialetatik ateratako datuak agertzen dira, aldiz, 2009^(^) bezala agertzen dena zutabean, datuak kalkulatu dira boto baliogabea hautagaiek jasotako botoak bailiran bezala zenbatuta. Azkenik, 2012ko eta 2016ko hauteskundeetako datuak EH Bildu koalizioari dagozkionak dira. Koalizio hori osatzen dute Alternatiba, EA eta Sortu alderdiek.

***1990ko hauteskundeak arte, PSE bezala aurkeztu zen. 1993an EErekin elkartu zen eta harrezkero aurkezten da PSE-EE bezala.

****1980ko datuak AP alderdiarenak dira. 1984koak, berriz, AP-PDP-UL koalizioarenak. 1986koak dira AP-PL koalizioak lortu zituenak. 1990etik aurrera berriz PPK lortutako eserlekuak agertzen dira taulan. 2001eko kasua da berezia da. UAko hautagaia PPren zerrendetan joan baitzen.

Irakurketa desberdinak egin daitezke bilakaera horren inguruan. CIS erakundeak argitaratutako ikerketak irakurketa propioa egin zuen *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012* liburuan. Lan honetan zera egin nahi da: nazio zapalduaren begiradatik Llerak (2016b) liburu horretan egiten duen irakurketari ertzak leuntzea. Horretarako, honako fase hauek bereizi dira: bat, erakundetze prozesu arrotza etxekotzeak eragindako tirabirak (1977-1986); bi, kontakizun basko-erregionalaren indartzea (1986-1994); hiru, euskal batasun nazionalaren utopia (1994-2001); lau, aukera historiko galdu baten biharamuna (2001-2009); eta bost, hegemonia elektoralaren inguruko borroka batasun nazionalerako oztipoa (2009-2016).

❖ **a) Erakundetze prozesu arrotza etxekotzeak eragindako tirabirak (1977-1986)**

Lehen fasearen ezaugarri nagusia da erregimen politiko berriaren legitimazioa barneratzen dela. Fase horretan, euskal alderdi abertzaleak igarotzen dira 1977an Txibertan Frente Nazionalea osatzeko ahalegina egitetik, 1986an euskal proiektuaren zatikatzea gorpuztera estrategikoki eta organizatiboki –EAJ, EA, EE eta HB–. Izan ere, EAeko lehen hauteskunde autonomikoak 1980ko martxoaren 9an ospatu ziren.¹¹⁶

¹¹⁶ Aldez aurretik, ordea, beste galdeketa batzuk ospatu ziren. 1977 eta 1979an esaterako, Espainiako Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak egin ziren. Era berean, 1979an frankismo ostean

Hauteskunde horietan lehen indarra izan zen EAJ alderdia 25 eserleku lortuta. Euskal bloke abertzaleak 60 eserlekuetatik 42 eskuratu zituen Eusko Jaurlaritzan. Lleraren (2016b, 33. or.) arabera, legegintzaldi horren ezaugarri nagusia da HBren eta EAJren arteko “itzalpeko koalizioa”. Alabaina, zertan datza koalizio hori? Berau ulertzeko gogoan izan behar da HBk hartutako erabakia, alegia, erakundeetara aurkeztu bai baina bertan parte ez hartzekoa. HBren arabera, erakundeetan parte hartzeak erakundeen izaera antidemokratikoaren pedagogia egiteko balio beharrean, erakundeei sinesgarritasuna ematen zien. Horrela, bere indar guztia herri mobilizazioetara bideratu zuten. HBren erabakiak, EAJri aukera ematen zion bakarrik gobernatzeko. Horretan datza Llerak aipatzen duen itzalpeko koalizioa.

Alabaina, luze gabe arazoak sortu ziren EAJren baitan. Alde horretatik, bi ziren EAJren barne krisiaren elementu nagusiak: bata, Nafarroa auzia bezala ezagutzen dena; eta bestea, Lurralde Historikoen Legea (E. Garmendia, 2018, 101-118. or.). Etxe barruan urak irakiten egon arren, EAJk 1984an bigarrenenez irabazi zituen hauteskundeak lehendakartzarako hautagaia Carlos Garaikoetxea zela. Hauteskunde horietan, 1980ko emaitzak hobetu zituen. Alabaina, luze gabe dimititu eta 1985eko martxoaren 24an Jose Antonio Ardantzak ordezkatu zuen lehendakartzan. Urte horretan zehar EAJk barne gatazka handia bizi izan zuen. Horren eraginez, 1986an Garaikoetxeak alderdia utzi eta Eusko Alkartasuna sortu zuen EAJko beste kide ohi batzuekin batera. Hori ikusita, Ardantzak erabaki zuen hauteskundeak deitzea (Ardantza, 2011, 183-186. or.). Hala, 1986ko azaroaren 30ean hauteskunde autonomikoak ospatu ziren. Kasu horretan, honako paradoxa gertatu zen: alderdi bozkatuena EAJ izan zen, hala ere, PSEk lortu zuen legebiltzarrean ordezkariak kopuru handiena. Hasiara batean, PSE saiatu bazen ere EE eta EARekin gobernua osatzen, azkenean, EAJrekin egin zuen koalizioa. Ardantza izango zen lehendakari ondorengo legealdian eta PSEko Ramon Jauregi lehendakariordea.¹¹⁷ Honela laburtzen da lehen fasearen bilakaera nazio zapalduaren ikuspegitik: euskal mintzaidetza nazionala eratzeko ezintasunetik, euskal blokearen zati bat pasatzen da erdal erakundetze prozesuaren bide urratzaile eta konplize izatera. Ondorengo

aurreneko aldiz ospatu ziren Udaletako eta Biltzar Nagusietako hauteskundeak. Horien inguruko datuak biltzen dira (Linz, 1981; 1986; Llera, 1985). Horiek guztiek modu batera edo bestera berebiziko eragina izan zuten hauteskunde autonomikoen bilakaeran. 1977an esaterako zenbait indar politikok sinatu zuten “Konpromiso Autonomikoa” dokumentua. Honen bidez adostu zen Hego Euskal Herriko autonomia estatutua aurre proposamena idazteaz arduratuko zen taldea osatuko zela 1977ko hauteskunde konstituziogileetan lortzen ziren emaitzen arabera. Horrela, PSOEko Ramon Rubial izan zen lehendakaria Lehen Eusko Kontseilu Nagusian. 1979ko hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera taldea eraberritu egin zen eta kasu honetan Carlos Garaikoetxea igaro zen lehendakari izatea. Bera lehendakari zela ospatu ziren lehen hauteskunde autonomikoak (Llera, 2016b, 29-31. or.).

¹¹⁷ 1982an Felipe Gonzalezek lehen aldiz gehiengoa izango du Espainiako Gobernuan eta hango olatuak eragina izan zuen EAeko hauteskunde autonomikoetan. 1984an, adibidez, bigarren indarra izan zen PSE. Are gehiago, 1986an, nahiz eta boto gutxiago lortu, alderdi guztien artean eserleku gehien lortu zituen, EAJren aurretik.

legegintzaldietan ikusten den moduan, pakto honek bere eragina izango du euskal proiektu nazionalaren baitan.

❖ **b) Kontakizun basko-erregionalaren indartzea (1986-1994)**

Espaniar demokraziaren errelatoa sendotzera etorri zen 1986an hasi zen legegintzaldia. Edonola ere, KAS alternatiba ardatz zuen HBren oinarri elektoralak oraindik sendoa zen.¹¹⁸ 1987an, esaterako, EAJk baino emaitza hobekak lortu zituen Europako hauteskundetan, aitzitik, 112.000 boto baino gehiago lortu zituen Hego Euskal Herrietik kanpo. Horren aurrean, Otegi aipatzen du Estatuak hartu zuen estrategia izan zela “ezker abertzalea geldiaraztea, bere jardura blokeatzea” eta horretarako estrategia eraginkorra iruditu zitzaion “adostasunetara iristeko benetako borondaterik gabeko prozesu luze batean korapilatzea” (Iriondo eta Sola, 2005, 28. or.). Bi dira garai horretan gatazka nazionalari dagokionez gertaera garrantzitsuak: bata, 1988ko Ajuria Eneko hitzarmena; eta bestea, Arjeleko elkarrizketa. Aurrenekoaren kasuan, sinatzaileak honako alderdiak izan ziren: EAJ, PSE, EA, EE, PP eta CDS. Egañak (1996, 580. or.) dioten moduan, ez da kasualitatea dokumentu hori urte horretan sinatu izana. Bere arabera, hitzarmen horren helburua zen: “desplazar el marco de la negociación de Argel, al interior de sí mismo. O lo que era lo mismo, trasladar el protagonismo de ETA y del Gobierno español, al del PNV y PSOE”. Beste hitz batzuekin esanda, dimentsio nazionala zuen gatazka politikoa parametro erregionalerara bihurtzea. Arjeleko elkarrizketa, ordea, hautsi egin zen. Hala, Ajuria Eneko Hitzarmenak eta Arjeleko elkarrizketen amaierak eragin zuen HB politikoki bakartua geratzea (Iriondo eta Sola, 2005, 32. or.). Testuinguru horretan ospatu ziren 1990ko hauteskundeak. Hauteskunde horietan EAJ nagusitu zen eta HB hirugarren indarra izaten jarraitu zuen PSOErengandik oso gertu. Hauteskunde horietan, aurrekoetan bezala, lau izan ziren ordezkariak lortu zuten euskal alderdiak: EAJ, HB, EA eta EE.

¹¹⁸ Honako hauek dira 1978ko urtarrilaren 30en KAS alternatibaren bigarren berridazketak jasotzen dituen bost puntuak: 1) Amnistia osoa; 2) Alderdi politiko guztiak legezkatzea, independentistak barne, beren estatutuak apaldu behar izan gabe. 3) Guardia Zibila, Polizia Armaturak eta Polizia Gorpuz Nagusia Euskaditik kanporatzea; 4) Masa herritarren eta batez ere langile klasearen bizi eta lan baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. Beren asmoak ordezkatzeko dituzten erakundeek adierazitako berehalako nahi sozial eta ekonomikoak asetzeko; 5) Gutxienez ondoko baldintzak jasoko dituen autonomia Estatutua: 5.1. Euskadiren burujabetza nazionala onartzea. Autodeterminazio eskubidea, bere Estatua sortzeko eskubidea barne, 5.2. Euskara hizkuntza ofiziala izatea, eta Euskadin lehentasunezkoa, 5.3. Egungo indar errepresiboak ordezkatzeko dituzten herritarren defentsarako indarrak Eusko Jaurlaritzak sortu eta bere agindupean bakarrik egotea, 5.4. Euskadin koartelaratutako indar armaturak Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean egotea, 5.5. Euskal Herriak bere aurrerabide eta ongizaterako egoki jotzen dituen egitura ekonomiko, sozial eta politikoez hornitzeko aski ahalmen izatea, baita berorien edozein eraldatze bere gain egiteko ere. (Iriondo eta Sola, 2005, 25. or.).

Legegintzaldi berrirako EAJ saiatu zen EE eta EAekin gobernua osatzen. Izan ere, beste biek 1986an baino babes elektoral apalagoa zuten. Hitzarmen horrek denbora gutxi iraun zuen ordea,¹¹⁹ eta, 1991ko maiatzaren 26ko udal eta biltzar nagusietako hauteskundeak eta gero, EAJk PSOEekin egin zuen hitzarmena. EE ere itun horretara hurbildu zen eta PSOEekin bat egin zuen handik gutxira. EEko militante batzuk erabaki horrekin ados ez eta, beste alderdi batzuetan sakabanatu ziren, besteak beste, EAJ eta EAra (Llera, 2016b, 38. or.). Urte horietan guztietan, PSERen funtzioa izan zen euskal proiektu nazional guztiak galbahe erregionaletik pasatzea. Hori gertatzen da, adibidez, 1993an ikastolen publikazioa bideratuko duen legearekin.¹²⁰ Azken hori da euskal proiektu nazionalaren eta espainiar proiektu modernoari subordinatutako aterabide autonomikoaren talka ongien erakusten duen gertaera nagusietakoa. Esan daiteke, ikastolen publikazio arrotzak irudikatzen duela ongien bigarren fase hau ezaugarritzen duen erdal kontakizunaren hegemonia.

❖ **c) Euskal batasun nazionalaren utopia (1994-2001)**

Bigarren fasean zehar bada gertakari garrantzitsu bat 1994tik 2001era doan hirugarren faseari eragingo diona: Bidarteko atxiloketak. Horrek eragin zuen ezker abertzaleak abian jartzea ildo estrategikoaren eraberritzea (Iriondo eta Sola, 2005, 32-36. or.). Estrategia aldaketa horrek bere emaitzak izango zituen, besteak beste, hortik erneko baita 1995ean Alternatiba Demokratikoa dokumentua. Azken honek aukera

¹¹⁹ Honela oroitzen du Garaikoetxeak (2002, 295. or.) gertatutakoa: “en enero de 1991, tras las recientes elecciones autonómicas, los tres partidos llegamos a un acuerdo para la formación de un gobierno tripartito que, por primera vez, unía a tres partidos nacionales vascos, rompiendo la racha de pactos bipartitos PNV-PSE. Sorprendentemente, cuando el acuerdo ya estaba prácticamente hecho, al presidente del PNV se le llegó a escapar un suspiro de sinceridad declarando que a él le habría gustado más un gobierno de PSOE. (...) El Gobierno Vasco tripartito PNV-EA-EE había sido el producto coyuntural de un enfado electoral entre PNV y PSE y, una vez restablecida la entente entre estos dos partidos en municipios y diputaciones, el Gobierno resultaba una criatura extraña”.

¹²⁰ Honatx gai horren inguruan Iztuetak (2016, 484. or.) egiten duen irakurketa: “Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntzako Kontseilari Fernando Buesa zela, aldarrikatu zuen otsailaren 19ko 1/1993ko Lege hau PNV, PSOE eta EEk lortutako hitzarmen politikoaren fruitu izan zen. Lege honek dituen ezaugarrien artean, bada bat oinarrizkoa: euskal irakaskuntzaren sare bikoitza finkatzen duela, alegia. Aurrerantzean, bada, ofizialki eta egiazki sare publikoa eta pribatua besterik ez dira izango. Lege erabaki honen ondorioz, jakina, Ikastolen irudi historikoa desagertu egiten da. Harrezkero, Ikastolek ez dute lege izaera berezirik izanen, edo pribatuak izatera edo publikatuzera behartuak aurkitzen dira. Euskal gizarte zibilaren barruan ekimen kolektibo bati esker sortuak eta antolatutak izan ziren eta Euskal Herrian zerbitzu publikoa betetzen zuten Ikastolak, Estatu zentralak, horien gestio autonomoa kontrolatu nahirik, pribatizatzen edo publikatzen behartzen ditu. Horregatik, EEPren lege filosofia ulertu ahal izateko, Ikastolen aurreko historia zerbait baino gehiago ezagutu beharra dago, zeren, irakaskuntzaren berrikuntzan demokrazia aireak zabalduz zetorren Gobernu sozialistari ihes egiten baitzion Eusko Jaurlaritzaren babesean gestio autonomoa zheraman Ikastolen funtzionamenduak. Gainera, izanik frankismoko garairik beltzenean herri ekimenaren bihotzetik jalgitako mugimendua, zentralismo espainolak arrisku bat ikusten zuen euskal hezkuntza sistemaren hasikin izan zitekeenaren esperientzia zindo horretan. Beraz, berandu baino lehen, euskarazko irakaskuntzaren eredu, nola edo hala, puskatu beharra zegoen. Horretarako, zer hobe barrutik zatitzea baino? Horretara dator sare bikoitzaren ezarpena, zeinek, azken finean, euskal eskola lege espainolera ekartzera suposatzen baitu. PSOEek ere, PNV eta EERen laguntzarekin, unerik ezin egokiagoa hautatzen du kolpe historiko hori emateko, Kontseilaritza F. Buesaren esku baitago. Testuinguru hau ezagutu gabe, Lege honek apenas duen esplikazio soziologikorik”.

zabaldu zuen 1998an Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatzeko. Llerak dio hasiera batean 1994ko hauteskundeak aurreko legegintzaldiaren jarraipena izan zirela. Alabaina, hainbat gertaerak eragin zuten 1998an PSEk gobernu uztea. Honatx, bere aburuz erabaki horren atzean dauden arrazoi nagusiak:

Las quintas elecciones autonómicas de 1994 (Llera, 1999a), últimas de este ciclo, son de continuidad, con un PNV reforzado y un PSE-EE debilitado por el desgaste gubernamental en Madrid, ya en la fase terminal del liderazgo de Felipe González. En ellas el PP se va a ver reforzado, recuperando su nuevo papel de alternativa en España, e IU/EB entra en el Parlamento Vasco sustituyendo a la antigua EE. Sin embargo, la fórmula de gobierno se mantiene hasta el verano de 1998, tras pasar por la reválida de las elecciones locales y forales de 1995, pero no puede superar, por un lado, la crisis del Pacto de Ajuria Enea, pero, sobre todo, los primeros pasos de lo que habría de ser la nueva estrategia política soberanista del PNV (al grito de: «El Estatuto ha muerto») y su alianza secreta con la izquierda abertzale en los preparativos del Pacto de Lizarra. En estas condiciones el PSE-EE abandona el gobierno, súbitamente, en el verano de 1998 a solo unos meses de agotarse la legislatura. (Llera, 2016b, 39-40. or.).

Lizarra-Garaziko hitzarmena ez zen egun batetik bestera mamitu. Agente desberdinen artean izandako hartu eman luze baten ondorioz lortutako adostasuna izan zen. 1998ko irailaren 12an egin zen hitzarmenaren inguruko aurkezpena. Handik egun batzuetara ETAk su-etena iragarri zuen, hain zuzen ere, euskal alderdi nazionalista guztiak Ezker Batuarekin batera autodeterminazioaren alde agertu ostean. Testuinguru horretan ospatu ziren 1998ko hauteskundeak. Hauteskunde horietara EAJkoek Ibarretxe izendatu zuten lehendakari gaitz. Emaitzei dagokienez, EAJ izan zen lehen indarra. Euskal Herritarrok alderdiak –aurrez HB izan zenak– ordura arteko emaitzarik onenak izan zituen. Euskal alderdien elkarlana Eusko Jaurlaritzara iritsi zen. Izan ere, EHk babestu egin zuen EAJren hautagaitza, are gehiago, 1999an gobernagarritasun hitzarmena lortu zuten. Testuinguru horretan, 1999ko udal hauteskundeetan HBk berebiziko emaitzak lortu zituen. Han hasi zen prozesuaren gainbehera. ETA erakundeak handik gutxira iragarri zuen su-etena amaitu zela.¹²¹ Euskal abertzaleen arteko giroa gaiztotzeak erabat baldintzatu zuen ikuspegi nazionaletik garatu ziren hainbat proiektu, hala nola: Udalbiltza. Hirugarren fasea ixten da euskal nazionalismoaren batasunaren distopiarekin. XXI. mendea zabaltzen da erreakzio espainiarraren eskutik.

❖ **d) Aukera galdu baten biharamuna (2001-2009)**

Laugarren fasea 2001eko hauteskundeetatik 2009ra doa. Azken honen ezaugarri nagusia da proiektu espainiarraren mendeku gosea euskal alderdiekiko, bereziki Lizarra-

¹²¹ Ardantza ez da iritzi berekoa: “EAJ eta ETaren arteko harremana gaiztotzen joan zen, gure alderdiak hartutako konpromisoak ez betetzat eman baitzituen. Kontua da, 1999an zehar eztabaida gogorra izan zela ETA HBren zuzendaritzan, eta kale borrokaren bizkorraldi bat. Urtebete lehenago gutxiengoan geratutako ETaren buruzagitzako eta HBren Mahai Nazionalako sektoreak organizazio osoaren kontrola hartzen joan ziren, beren tesiak ezarri zituzten berriro ere, eta azaroaren amaiera aldera, su-etena bertan behera geratzen zela iragarri zuen ETAk, bere erabakiaren errudun EAJ eginez” (Ardantza, 2011, 355. or.).

Garaziko hitzarmenaren ostean. Gogoan izan behar da bake prozesua hautsi eta gero, EHk Eusko Legebiltzarrean parte hartzeari utzi ziola. Hori dela eta, EHren botorik gabe PP eta PSEk gehiengoa zuten. Horren aurrean, Ibarretxek 2001eko maiatzean hauteskundeak iragarri zituen (Iriondo, 2008, 29-31. or.).

Hauteskunde horietan, EAJ/EA koalizioak 604.222 boto eskuratu zituen eta lehen indarra izan zen. PP alderdia izan zen bigarren indarra inoizko emaitzarik onenak lortuta (326.933 boto). EHk, aldiz, 1999ko hauteskundeetan eskuratutako eserlekuen erdiak galdu zituen. 2001-2005 legegintzaldiari begira, hiruko gobernua osatu zen EAJ/EA koalizioaren eta EBren artean. PP eta PSOE jabetu ziren EAeko gobernua bereganatzea ezinezko izango zitzaiela. Izan ere, EAJ/EA koalizioa gainditzeko urrats batera gelditu arren, 1980tik hona beti zeuden EH alderdiaren botoak, euskal bloke abertzalea gehiengo izatea ahalbidetzen zutenak. Hori dela eta, Lizarra-Garazi osteko testuinguruaz baliatuz Ajuria Eneako itunaren orde, Madrildik, abian jarri zuten Alderdien Legea bezala ezagutzen dena: hamarkada bat iraungo duen ilegalizazio prozesua jarri zen martxan ezker abertzalearen aurka, *dena ETA da* kontakizunaz baliatuz. Era berean, legegintzaldi horretan jarri zen martxan Ibarretxe Planaren inguruko eztabaida ere (Iriondo, 2008). Hain zuzen ere, 2003ko urriaren 25ean aurkeztu zen euskal gizarteari hitza eta erabakia aitortzeko *Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa Eraberritzeko Proposamena*. 2004ko abenduaren 30eko bilkuran aurreikusten zen gobernua osatzen zuten hirukoaren botoak soilik jaso zitzakeela proposamenak. Alegia, honako hiru alderdiena: EAJ, EA eta EB. Alabaina, hiru alderdi horien babesarekin soilik ez zen aurrera irtengo proposamena, aitzitik, PPK eta PSEk aurka bozkatu behar baitzuten. Hasiera batean uste zen ezker abertzaleak ere ezezkoa bozkatuko zuela. Ustekabean, ordea, proposamena aurrera atera zen baiezko hiru botorekin.¹²² Hala, 2005eko otsailaren 1ean, Ibarretxek bere proposamena aurkeztu zuen Madrilgo Kongresuan. Azken honek, gehiengo osoz atzera bota zuen Ibarretxe Plana bezala ezagutzen dena. Gauzak horrela, aurrera begira bidegurutze batean aurkitu zen lehendakaria: batetik, urrats bat atzera ematea eta galdeketarik ez egitea; eta bestetik, legearen babesik gabe antolatzea galdeketa. Gertatu zena ulertzeko, urtebete egin behar da atzera. Hain zuzen ere, EAJn EBBko lehendakari kargurako egin ziren barne hauteskundeetara. Alde horretatik, 2004ko urtarrilean, Egibar hautagaiarekin lehia estua izan ostean, Josu Jon Imaz izendatu zuten EBBko lehendakari. Azken honek, garaia iritsi zenean ez zuen

¹²² Otegik azpimarratzen du erabakia hilabeteetan isilik mantendu zutela arazoi batengatik. Hain zuzen ere, EAJk jakingo bazuen baiezkoa bozkatuko zutela, ez zutelako proposamenik egingo: “2004ko maiatzean ezker abertzaleak hartua zuen erabaki hori eta diskrezio maila zorrotzarekin gorde genuen, sinetsita baikeunden, EAJko sektore batek gure azken botoaren norabidea zein izango zen jakinez gero, segur aski erabakia hauteskundeak aurreratzea eta botaziora ez iristea izango zela” (Iriondo eta Sola, 2005, 135. or.).

babestu galdeketa inguruan hasitako bidea, eta 2005eko apirilaren 17ko hauteskundeetako emaitzak argudio bezala hartuz, alderdia albo batera uzten joan zen Ibarretxe Plana (Pablo eta Mees, 2005, 457-462. or.).

Bien bitartean, XXI. mendeko lehen hamarkada horretan, *dena ETA da* lelopean ezker abertzalearen eta euskal kulturaren aurkako operazioak muturreraino eraman ziren: ezker abertzaleko alderdien ilegalizazioak, egunkarien itxierak eta abar. Gogoan izan behar da 2000tik Espainiar estatuan José María Aznarrek gehiengo osoa zuela gobernuan. Horrela, babes sozialik izan ez arren, hainbat erabaki hartu zituen. Guztietan adierazgarriena izan zen Irakeko Gerra babestu zueneko, Tony Blair eta George Bushekin batera. Azoreetako argazkiak bere ondorena izan zuen. 2004ko martxoaren 11n, hauteskunde orokorren atarian, Al-Qaeda lehergailuak eztandarazi zituen Madrilen eta 200 pertsonatik gora hil ziren. Horrek, eta atentatuaren inguruan egindako kudeaketak, 2004ko martxoaren 14ko hauteskunde orokorretako inkestak irauli eta José Luis Rodríguez Zapatero atera zen garaile. Kasualitatez, ezker abertzaleko Arnaldo Otegiaren eta PSEko Jesus Egigurenen artean elkarrizketa batzuk modu informalean hasiak zeuden euskal gatazka politikoari konponbidea aurkitzeko. Errealitate politikoaren aldaketak, aukera berriak zabaldu zituen ETAREN eta PSOE buru zen Espainiar Gobernuaren arteko negoziazio berri baterako. Testuinguru horretan, 2005eko apirilaren 17ko hauteskundeetara aurkezteko ezker abertzaleak sortutako plataforma ilegalizatu zuten. Alabaina, azken orduan, EHAK alderdiak bere egin zituen ezker abertzalearen botoak. Horrela, ezker abertzaleak iskin egin zion ilegalizazioari. Beste behin, EHAKren botoak giltza bihurtu ziren eta EAJ gobernuaren jabe, baina gehiengorik gabe gelditu zen legebiltzarrean.

EAJk, legegintzaldi horretan, ez zuen martxan jarri agindutako galdeketa. Horrek etxe barruan arazoak sortu zizkion. Batetik, 2009ko hauteskundeetara begira ez zuten berriro EARekin zuen hitzarmena. Era berean, EAJren barruan Ibarretxek babes politikoa galtzen du eta EAJn nagusitzen den sektorea da autonomista. Horrela, protagonismo politikoa ezker abertzalearen eskuetara pasatzen da apurka. Izan ere, Lizarra-Garazi ostean, legez kanporatze prozesu baten zurrumbiloan egon eta gero, 2006an, eskaintza berri batekin aurkeztu zen: Anoetako Proposamenarekin (Iriondo eta Sola, 2005, 119-120. or.). Azken honek, bi bide zabalitzen zituen: bata, ETAREN eta Espainiar Gobernuaren arteko negoziazioarena; eta bestea, Euskal Herrian ordezkari zuten alderdiak biltzeko mahaiarena. Bigarren bidea Loiolako elkarrizketetan sakondu zen, aldiz, Estatuaren eta ETAREN elkarrizketak Ginebran egin ziren. Gorabehera batzuk izan eta gero, prozesua bertan behera gelditu zen.

Euskal bloke abertzalea, beste behin, Lizarra-Garazin batasun nazionala lortzeko atarian egotetik erabateko barne zatikatzen da. EAJren kasuan, bi arimen arteko talka egon eta gero, Imazen sektorea atera zen irabazle. Horrek ekarri zuen EArekiko koalizioaren amaiera. Ezker abertzalean, berriz, Lizarra-Garazi eta gero, alderdi berri bat sortzen da EHren oinordeko den Batasunaren bidetik bereiziko dena, Aralar. Testuinguru horretan gauzatu zen espainiar blokearen mendekua. 2009ko hauteskundeetan, euskal abertzaletasuna zatikatuta aurkezteaz gain, aurreneko aldiz, ezker abertzaleak ezin izan zuen aurkeztu ilegalizazioaren eraginez. Horren ondorioz, D3M plataformarentzat boto baliogabea eskatu zuten. Aralarrek, aldiz, inoizko emaitzarik hoberenak lortu zituen (4 eserleku). EAK ordezkari batzakarra lortu zuen. EAJren emaitzak ez ziren txarrak izan. Alabaina, jarleku horiek guztiak batuta ez ziren nahikoak izan PSOE eta PPren gehiengoa ekiditeko. 1980tik hasita, lehen aldiz, EAEko gobernutik kanpo geratu zen EAJ. 2009ko martxoaren 26an Patxi Lopez izendatu zuten lehendakari.

❖ e) Hegemonia elektoralaren inguruko borroka, batasun nazionalerako oztopo (2009-2016)

Patxi Lopezen legegintzaldia uste baino lehenago amaitu zen: 2012an. Urte horietan, ezker abertzalearen baitan aldaketa handiak gertatu ziren. Izan ere, azken bake prozesuak huts egin ostean, ezker abertzaleak barne hausnarketa jarri zuen abian, gerora, Euskal Herria Zutik izango dena (Munarriz, 2012). Bide horretan, ezker abertzaleak harremanak izan zituen EArekin. Hala, elkarlanerako dokumentua sinatu zuten 2010ean *Lortu Arte* izenekoa. Hilabete batzuetara Alternatiba alderdia gehitu zen proiektu honetara. Ezker abertzaleak hartutako bide berriari, ETAk babes eman zion 2011n bere jarduera armatuaren amaiera iragarrita. Testuinguru horretan, 2012ko hauteskunde autonomikoetara Bildu koalizioan aurkeztu ziren EA, Ezker abertzalea eta Alternatiba. Hauteskunde horietan PSE-EE eta PPren emaitzak kaxkarrak izango dira. Ondorioz, EAJ eta Bilduk jaso zuten babesik handiena. Alde horretatik, gobernuaren eta oposizioaren ordezkariak euskal alderdi abertzaleak izatea eragin du ondorengo urteetan hegemonia elektoralaren inguruko borroka oztopo bihurtzea batasun nazionalerako.

Era berean, urte horietan Madrilen aldaketa garrantzitsuak izan ziren. 2011tik aurrera Espainiar estatuaren oinarri zen 78ko erregimena krisi sakon batean sartu zen. Kataluniako afera, ETAREN amaiera, Erregearen abdikazioa eta abar. Urak nahasirik zebiltzan Madrilen eta 2013ko Europar Hauteskundeetan Podemos agertu zen lehen larroan. Azken hori izango da Eusko Legebiltzarreko 2016ko hauteskundeetan

berrikuntza nagusia. Bere lehen parte-hartzean emaitza hobekak lortuko ditu PSOE eta PPk baino.

Edonola ere, 2016ko hauteskunde autonomikoetan, EH Bilduk eta EAJk jarraituko dute lehen eta bigarren indarra izaten. Bien artean gobernua osatu beharrean, ordea, PSE hobetsiko du bidelagun gisa EAJk, eta proiektu erregionalistan sakontzeko apustua egingo du. Honakoa da 2020ko hauteskundeetan atariko egoera: EH Bilduren eta EAJren artean gehiengoa izan arren, ez da aurreikusten adostasunik bide orri nazionala zehazteko.

4.2.1.2 NFEko kasua: pluralismo polarizatua UPN alderdiaren inguruan ardaztua.

Nafarroako lehen Foru hauteskundeak 1979an antolatu ziren. Azken horiek, ordea, Nafarroako Foru Hobekuntza onartu baino lehenagokoak direnez, 1983koak hartu dira abiapuntu moduan. Alde horretatik, NFEko hauteskunde autonomikoetan ikusi da 4,06koa dela Alderdi Eraginkorren Kopurua (AEK) indizea. Horrek esan nahi du, batez beste, NFEko sistema politikoan eraginkorrak izan diren alderdiak lau direla.

Euskal alderdien kasuan, ezker abertzalea da bere sigla desberdinekin presentzia konstantea izan duen alderdi nagusia. Edonola ere, zentro-ezkerreko beste euskal alderdi batzuek izan dute ordezkari-tza parlamentuan, hala nola: EE (1987), Aralar (2003), EA (1987tik 1999ra bitartean), NaBai (2007) eta NaBai-2011 koalizioa. Desberdina da EAJren kasua. 1983ko hauteskundeetan ordezkari-tza lortu arren, EArekin bereizi ostean, ez du ordezkari-tzarik lortuko ondorengo urteetan. Hala ere, berriro ordezkari-tza lortzera iritsiko da 1999tik aurrera. Aurrena, EAren abarloan, eta ondoren, NaBai eta Geroa Bai koalizioaren babesean. Edonola ere, EAJk bigarren mailako protagonismoa izan du koalizio horiek osatzerakoan. 2015ean, protagonismo handiago izango du Geroa Bai koalizioaren baitan. Alde horretatik, azken joerek erakusten dute NFEan azken 35 urteetan gertatu den aldaketa nagusia dela alderdi sisteman zentro-eskuineko euskal blokea egonkortu izana. Alde horretatik, euskal eskuinaren hazkundera ez da etorri euskal ezkerrearen bizkarretik. Besterik gabe, euskal blokea izan da orokorrean hazkundera izan duena.

Espainiar alderdien kasuan, zentro ezkerreko botoa elkartu izan da PSNren inguruan, nahiz eta 1983-2015 bitartean babes elektoralak galtzen joan den urtez urte. 1983ko hauteskundeetan lehen indarra izan zen, 2015eko hauteskundeetan, aldiz, bosgarrena. Era berean, 1991tik aurrera, IUren inguruan batu izan dira espainiar boto ezkeriak.

2015ean, adibidez, I-E koalizioaren inguruan. Alabaina, espazio berberean 2015eko hauteskundeetarako Podemos agertu zen. Zentro-eskuineko alderdiei dagokienez, bi alderdi bereizten dira jarduera eremuaren arabera: PP (estatu mailakoa) eta UPN (erregionala). Alabaina, alderdi horietako bakoitzak bere lehiakide elektoralak izan ditu espazio politiko horretan UDF, CDS, CDN edota C´ s.

51. taula: NFEko hauteskunde autonomikoetan alderdi politiko nagusiek lortutako ordezkari kopurua.

	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2003 [^]	2007	2007 [^]	2011	2015	Batez beste.
PNV****	3										9	6 (+3;-3)
EA*		4	3	2	3	4	3					3 (+1;-1)
NABAI								12	12	8		10 (+2;-2)
ARALAR						4	4					4 (=)
HB**	6	7	6	5	8	0	3	0	2	7	8	7 (-2;+1)
EE		1										1
PSN-PSOE	20	15	19	11	11	11	11	12	10	9	7	13 (+7;-6)
IUN***			2	5	3	4	4	2	2	3	2	3 (+2;-1)
AHAL DUGU- PODEMOS											7	7 (=)
UPN	13	14	20	17	22	23	21	22	22	19	15	18 (+5;-5)
UDF		3										3 (=)
CDS		4										4 (=)
CDN				10	3	4	4	2	2			5 (+5;-3)
PP*****	8	2								4	2	4 (+4;-2)
GUZTIRA	50	50	50	50	50	50	50	50	50	50	50	
EUSKAL ORDEZKARIAK	9	12	9	7	11	8	10	12	14	15	17	
ESPAINIAR ORDEZKARIAK	41	38	41	43	39	42	40	38	36	35	33	

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Egileak moldatua.

*Oharra: EA/EAJ koalizioarenak dira 1999ko eta 2003ko datuak.

**Oharra: 1999ko hauteskundeetan Batzarre aurkeztu zen HBrekin batera. 2003ko hauteskundeetan bi kalkulatu egin dira: aurreneko zutabeak datu ofizialak jasotzen ditu; bigarrengoan, berriz, ^(^) sinboloa duen zutabea, boto balioak zuzentzen dira alderdiak jasotako botoak biltzen bezala. Urte horretan, AuB izenarekin aurkeztu zen ezker abertzalea, ilegalizazioaren ondorioz. 2007an ere legez kanporatu egin zituzten ANV eta Nafarroako Alderdi Sozialistak zerrendak. Azkenik, 2011ko eta 2015eko datuak dira Bildu eta EH Bildu koalizioarenak.

*** Oharra: 2011ko datuak dira Ezker Batuaren eta Batzarrearen arteko koalizioak osatzen duen I-Erenak.

**** Oharra: 2015eko datuak Geroa Bai koalizioarenak dira.

***** 1983an AP-PDP-UL koalizioak lortutako datuak dira PP alderdiaren izenean agertzen direnak. Era berean, 1987ko emaitzak FAP alderdiarenak dira.

Taulari erreparatuz gero, NFEko hauteskunde bilakaeran ikusten da alderdi hegemonikoak bi izan direla. 1983tik 1991ra doan epealdian PSOE da alderdirik bozkatuena. Aldiz, UPN izango da 1991-2015 bitartean. Edonola ere, komeni da azpimarratzea gainbeheran hasten dela UPNren babes elektoralak 2007tik aurrera. Bereziki bi arrazoigatik: batetik, zentro-eskuineko espainiar espazio politiko ordezkatzeko lehian PP eta beste alderdi batzuek ere hautagaiak aurkeztu zituztelako; eta bestetik, lehen aldiz hautagaiak jasotako botoen %15a baino gehiagorekin zentro-eskuineko euskal alderdi abertzalea alderdi sisteman egonkortzen delako (Geroa Bai, 2015). Hori dela eta, Pérez-Nievas eta Fernández-Esquerren (2019) egiturari jarraituz, hiru fasetan banatzen da Nafarroako Foru Erkidegoko hauteskunde autonomikoen

irakurketa historikoa. Alabaina, lan honek egokitu egiten ditu hiru fase horien periodizazioa eta kontakizuna nazio zapalduaren begiradaren arabera.

❖ **a) Pitxer hautsiaren aurrean euskal blokean jarrera desberdinak (1983-1999)**

Nafarroa izan zen Espainiar trantsizio demokratikoaren korapilo nagusia. Trantsizioa deiturikoak ahalbidetu zuen Hego Euskal Herriaren lurraldetasuna bitan banatzea: NFE eta EAE. Pitxer hautsiaren metaforarekin alderatu zuen Telesforo Montzonek zatiketa administratiboak naziogintzan eragin zezakeen ondorioa.

El PNV ya tenía su Estatuto, y le bastaba. Las direcciones de EE y ETApM exigían la integración mientras negociaban la rendición con el Estado. El PSOE tenía los ojos fijos en La Moncloa y tras el autogolpe, con los poderes reales decididos a derribar a UCD y llevarlos al poder, no tardarían en olvidar incluso los lazos culturales con Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. El jarrón estaba roto. La izquierda abertzale había reaccionado a la partición lanzando como alternativa el Euskal Herriko Biltzarre Nazionala (EHBN), un proyecto de contrapoder popular que no llegó a materializarse. (Aoiz, 2005, 335. or.).

Testuinguru horretan egin ziren 1983ko hauteskundeak. Aurreneko aldia zen 1982ko Foru Berrezarpena onartu ostean NFE-n hauteskunde autonomikoak ospatzen zirela. Orotara, bost alderdik lortu zuten ordezkariak. Horietako bi euskaldunak ziren (HB eta EAJ) eta besteak espainiarrak (UPN, AP-PDP-UL eta PSOE). Lehen hiru indarrak espainiarrak izan ziren. PSNk 20 eserleku lortu zituen eta espainiar zentro-eskuinaren baturak 21 ordezkari. Testuinguru horretan, EAJren baitan eztabaida sutua sortu zen. Izan ere, Euskadi Buru Batzarra prest zegoen Nafarroan UPNko lehendakaria jartzeko, Arabako Diputazioan eta Bilboko Udalean EAJ mantentzearen truke. Nafar Buru Batzarrek aurre egin zion erabaki horri, Garaikoetxearen babesarekin. Azken horiek proposatzen zuten EErekin adostasunera iristea EAeko erakundeetan, UPNren gobernu saihesteko. Hori ikusita, EBBren aginduz kargugabetu egin zituzten NBBko kide gehienak (Pablo eta Mees, 2005, 413-415. or.). Zabalik zen UPNko hautagaia lehendakari izateko bidea. Alabaina, Foru legeak zioen gehiengorik ezean lehendakari izango zela alderdi bozkatuenaren ordezkaria. Ondorioz, tirabira luze bat eta gero, Urralburu izendatu zuten lehendakari.¹²³ Azken honek bi legealdi egin zituen boterean, hau da, 1983-1987 eta 1987-1991 artean. Urte horietan onartu zen Euskararen Legea, besteak beste.

¹²³ El País egunkariak xehetasunez jasotzen du PSNren perspektibatik gertatutakoa 1983ko abuztuaren 30an argitaratutako editorialean: https://elpais.com/diario/1983/08/30/opinion/431042401_850215.html (Azkeneko aldiz begiratua: 2021/06/15).

1991ko hauteskundeetan UPNk aurrea hartu zion PSOeri, eserleku bategatik, eta aurrenekoz lehendakari kargura iristen da UPNko ordezkari bat, Juan Cruz Alli. Luze gabe, ordea, tirabirak sortzen dira UPN alderdi erregionalaren baitan. Hala, bitan zatitzen da 1991-1995 legegintzaldian: batetik, UPN bera; eta bestetik, Alliren gidaritzapean sortzen den CDN. Biak ala biak, espainiar alderdi erregionalak izan arren, CDN irekiagoa zen, adibidez, euskararekiko gaiaren inguruan.

Horrek ahalbidetu zuen 1995eko hauteskundeetan lehen gobernu konposatua osatzea PSN, CDN eta EAren artean. Hala, hauteskundeak UPNk irabazi bazituen ere, Javier Otano PSNkoa izendatu zuten lehendakari beste bi alderdien babesarekin. Alabaina, PSNren baitan agertutako ustelkeria kasuek hankaz gora jarri zuten hitzarmena.¹²⁴ Hori horrela izanik, 1996an gobernu hitzarmena hautsi eta UPNk hartzen du gobernu, Miguel Sanzen gidaritzapean. Gauzak horrela, euskal blokeari dagokionez, EAren parte hartzea da urte horietan guztietan gobernu koalizioen artean kasu bakarra. Horrek erakusten du Nafarroako gobernuan euskal alderdiek izandako presentzia oso apala izan dela.

Lehen fase honi dagokionez (1983-1999), EAeko alderdi sistemarekin duen antzekotasuna da HB dela alderdi sistemaren baitan “antisistema”. Aldiz, desberdintasuna da NFEan zentralitate politikoa ez dagokiola EAJri. Horretan datza EAeko eta NFEko sistema politikoaren desberdintasun nagusia. Biak sistema plural eta polarizatuak izan arren, Nafarroan euskal abertzaletasunak ez du zentralitate politikoa.

Euskal blokearen baitan, 1983ko hauteskundeetan bi familia bereizten ziren: HB eta EAJ. Izan ere, hauteskunde horietan Euskadiko Ezkerrak ez zuen lortu ordezkartzarik. EAeko alderdi sistemarekin alderatuz bada beste desberdintasun bat ere: 1983-1999 artean NFEan, HB da indar nagusia euskal alderdien artean. EAJren kasuan, ondorengo hauteskundeetan ez du ordezkarririk lortuko, EAekin izandako zatiketaren ondorioz. Horrek eragiten du hurrengo hauteskundeetan ordezkartzita lortzen duten euskal ordezkari guztiak, hasi HBtik eta EA bitarte, beren burua zentro-ekzerrean kokatzea.

¹²⁴ Garaikoetxeak (2002, 310-311. or.) horrela oroitzen du EAren parte hartzea eta hitzarmenaren amaiera: “El 3 de marzo de 1996, el PP ganaba las elecciones generales y Aznar se disponía a negociar los apoyos parlamentarios indispensables para poder formar Gobierno, ya que su victoria había sido bastante más estrecha de lo que anunciaban las encuestas y que muchos presumían tras la pésima etapa que había atravesado el PSOE, trufada de escándalo de todo tipo. Uno de ellos motivaría aquel mismo año la caída del Gobierno de Navarra, del que formaba parte Eusko Alkartasuna. El socialista Otano, que presidía un ejecutivo “de progreso” en coalición con CDN y EA, resultó alcanzado por el escándalo que llevó desde entonces su nombre. Una cuenta en Suiza abierta a su nombre y destinada, según su propia confesión, a financiar a su partido, echó por tierra la consolidación de un Gobierno alternativo al de la derecha tradicional de Navarra. (...) El escándalo Otano, que siguió al de Urralburu y Roldán a su paso por las instituciones navarras, se saldó con su dimisión fulminante y la caída del Gobierno Navarro”.

Esan bezala, bi horien artean HB da indar bozkatuena 1983-1999 artean. EEren kasuan, 1987ko hauteskundeetan soilik lortzen du ordezkari-tza, izan ere, 1991koetan galdu egingo du aurrez lortutako jarlekua. Edonola ere, HBren emaitzarik onenak 1999an iritsi ziren, hain zuzen ere, Lizarra-Garaziko testuinguruan eta Batzarre alderdiaren babesarekin aurkezten denean. Alabaina, ezker abertzalearentzat emaitza horiek gozotik adina gazitik izan zuten. Honela gogoratzen du Arnaldo Otegia:

Ezker abertzalearen historiako hauteskunde emaitza onena lortu genuen. (...) Nafarroa osoan ia bigarren indarra izatera iritsi ginen eta bigarren indarra izan ginen Iruñea inguruko herri industrial guztietan. Pozez gogoratzen dut, orduan oso presente baitzegoen lurraldetasunaren eztabaida eta batzuek Nafarroaz arazo bezala hitz egiten baitzuten kontzientzia abertzale gabezia omen zela eta. Eta kezkatzeko arrazoi nagusia EAJren emaitza txarra izatea izan zen. (Iriando eta Sola, 2005, 76-77. or.).

EAJri dagokionez, 1999ko hauteskundeetan, lehen aldia zen zatiketaz gero, EA eta EAJ koalizioan aurkezten zirela. Gogoratu, EAK 1987ko hauteskundeetan hiru jarleku lortu zituela, aldiz, EAJk bat bera ere ez. EAren kasuan, 1983-1999 artean euskal blokearen baitan bigarren indarra izango da HBren atzetik. Ildo horretatik, %20 ingurukoa da 1999an Lizarra-Garaziko testuinguruan egindako hauteskunde autonomikoetan euskal blokeak lortzen duen babes elektoral. Gauzak horrela, 1980-2000 bitartean doan fase horretan ezinezko zaio euskal blokeari hegemonia politikoa lehiatzea erdal alderdiei.

❖ **b) Ilegalizazioa eta alternatiba berriak (1999-2011)**

Lizarra-Garazin adostutako ibilbideak ez zituen bere helburuak bete. Horrela, euskal indar abertzaleak ahuldurik atera ziren. EAJren baitan 2003an zehar ildo autonomistak hartu zuen buruzagitza, hau da, Imazen taldeak. Horrek, epe ertainera, EA eta EAJren arteko urruntzea ekarri zuen. Ezker abertzalearen kasuan, berriz, 2001ean bi alderditan banatu zen mugimendua: Aralar eta Batasuna. Bien arteko desberdintasun nagusia zen ETaren jardun armatuaren inguruko jarrera. Aralarren kasuan, 2003ko NFEko hauteskunde autonomikoetan lehen indarra izan zen euskal blokearen baitan. Alabaina, komenigarria da estatistika ofizialak lerroartean irakurtzea, boto baliogabearen atzean ezkututzen dena bistaratzeko. Izan ere, hauteskunde autonomikoen historian ez zen inoiz hainbeste boto baliogabe zenbatu. Batasunaren legez kanporatzea zegoen fenomeno horren atzean.

2003ko hauteskunde horiek ulertzeko ezinbestekoa da 2002ko ekainaren 27an gertatutakoa gogoan izatea. Egun horretan, Alderdien Legea bezala ezagutzen den 6/2002 Lege Organikoa onartu da Espainiako Kongresuan, nagusiki, PP eta PSOEn adostasunarekin. Lege horrek babes juridikoa eskaintzen zuen ezker abertzalearen sektore bat legez kanporatzeko. Hala, Hego Euskal Herriko hauteskunde

autonomikoetan, lehen aldiz, legez kanpokotzat jo zen Batasuna, baita bere ordeztu zen hautagaitza ere. Ilegalizazio prozesua dela eta, NFEko hauteskunde autonomikoetan bi aldiz gelditu zen parte hartu ezinda Batasuna (2003an eta 2007an). Aldiz, 2007tik aurrera, gainerako alderdi abertzaleek NaBai koalizioaren bidea jorratu zuten. Koalizio honen inguruan elkartu ziren Aralar, EA, EAJ, Batzarre eta beste zenbait independente. NaBai koalizioak 2007ko hauteskundeetan botoen %20 baino gehiago lortu zuen. Euskal alderdi bat lehen aldiz bigarren indarra izan zen Nafarroan. Hori gutxi ez eta, 1995etik aurreneko aldiz, aukera sortu zen UPN gobernutik kentzeko. Horretarako, PSN eta IUekin adostasunera iritsi behar zuten NaBai alderdikoek. IUk baiezkota eman zion hiruko gobernu horri. PSNk, ordea, UPN gobernuan mantentzea ahalbidetu zuen Madriletik iritsi zen aginduari jarraituz (Orzaiz eta Senar, 2016, 55-58. or.).

2011ko hauteskundeak testuinguru erabat desberdinean egin ziren. Izan ere, 2011ko urtarrilaren 10ean ETak su eten iraunkorra iragarri zuen, eta hilabete batzuk geroago, jarduera armatuaren amaiera. Bitarte horretan ospatu ziren NFEko hauteskundeak, maiatzaren 22an. Auzitegiek azken orduan erabaki zuten Bildu koalizioa legeztatzea. Horrela, euskal alderdi sisteman bi koalizio aurkeztu ziren: Bildu eta NaBai-2011. Eta paradoxa bat gertatu zen: EA Batasunaren oinordekoa zen mugimendurekin aurkeztu zen bitartean, Aralar EAJrekin eta beste independente batzuekin batera aurkeztu zen.

Irail hartan, beste eragile batzuekin batera, Gernikako akordioa izendatu zuten ezker abertzaleak, EAK eta Aralarrek. Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa izeneko dokumentu hark mugarrira ezarri zuen, ETari alde bakarreko su eten iraunkorra eskatu ziolako eta indarkeriarik gabeko aro baterako norabidea markatu zuelako. Agertoki berri horretan, ezinbestekoa zen ilegalizazioaren garaia gaintzea, eta hori gauzatzeko moduak bai izan zuten eragina hurrengo urteko foru hauteskundeetan.

Hain zuzen ere, ezker abertzalea izan zen fitxa mugitzen lehena: EAri eta Aralarri hauteskundeetan elkarrekin joateko eskua luzatu zien. Alderdi politiko berri bat sortzeko prest zegoen, baina begi onez ikusten zuen, berebat, Nafarroa Bairekin egitea. 2004an posible izan ez zena, egiteko modukoa izan zitekeen. Aralarrek argi utzi zuen aldaketarako tresna Nafarroa Bai zela. Beste eragile batzuk, berriz, kritikoago azaldu ziren, eta koalizioa “dinamitatu nahi izatea” egotzi zioten ezker abertzaleari. Itzulinguru ugari asteak izan ziren. Hainbat bilera egin ostean, Aralarrek negoziazioak amaitutzat eman zituen, eta ezker abertzalea Nafarroa Bain sartzeari uko egin zion. Era berean, NaBaiko gainerako kideekin batera EAri galdegin zitzaion ezker abertzalearekin zituen konpromisoak bertan behera uzteko. Haatik, EAren nazio biltzarrak erabaki zuen Nafarroa Bain jarraitzea, baina “akordio estrategikoei uko egin gabe”. Erantzun hura ikusita, NaBaitik kanpo zegoela ondorioztatu zuten Aralarrek, EAJk eta Uxue Barkos buru zuten independenteek. (Orzaiz eta Senar, 2016, 61. or.).

2011ko hauteskunde horietan, Patxi Zabaleta buru zuen koalizioak zortzi jarleku lortu zituen, Bilduk, berriz, zazpi. Ondorioz, bloke abertzaleak bere osotasunean 15 jarleku eta botoen ia %30 lortu zuen. Kasu horretan, euskal blokearentzat interesgarriena honakoa izan zen: espainiar eskuinak ez zuten lortu gehiengo osoa. Horrela, aukera zegoen PSNko hautagaia lehendakari izendatzeko. Horretarako, oposizio guztiak batu egin behar zuten hasi PSNtik eta Bilduraino. Beste behin, ordea, PSN alderdiak atzera egin zuen.

❖ **c) Clivaje sozialaren gorpuztea euskal blokearen baitan (2011-2015)**

2015eko hauteskundeak mugarri garrantzitsuak izan dira NFEko hauteskundeen bilakaera historikoan. Izan ere, lehen aldiz, lehendakari izatera iritsi zen euskal alderdi bateko hautagaia. EH Bildu, Podemos eta I-Eren babesarekin ahalbidetu zen Uxue Barkos lehendakari izendatzea. Edonola ere, hori bezain interesgarria da azpimarratzea euskal alderdiek hauteskunde horietan aurreneko aldiz botoen %30 baino gehiago lortu zutela. Bigarren eta hirugarren indar izan ziren. Horrela, euskal saretze bertikalaren baitan ezker/eskuin ardatza egonkortu zen.

Prozesu luze baten ondorioa izan da gertatutakoa. 1983ko hauteskundeak eta gero, EAren baitan bildu zen EAJren inguruan biltzen zen Nafarroako abertzaletasunaren zati handiena. Nahiz eta euskal abertzaletasun historikoaren oinordeko izan, EAK bere burua sozialdemokrata modura ikusten zuen. Beraz, EAEn ez bezala, NFEn euskal saretze bertikalaren baitan zentro-eskuineko espazioa betetzen zuten alderdiek ordezkariarik ez zuten lortu urte luzez, ez behizat bakarrik aurkeztu izan zirenean. EH Bildu koalizioaren sorrerak, ordea, HBTik hasi eta EA bitarteko espazio guztia biltzeko ahalegina egin zuen, baita Aralar bera ere. 2011n zortzi ordezkari lortu zituen NaBai-2011 koalizioak eta horietatik bi ordezkari soilik egin zioten uko EH Bilduren parte izatera igarotzeari. Alabaina, 2015eko hauteskundeetan, Geroa Baik bigarren indarra izatea lortu zuen. Hauteskunde horietan, euskal alderdien baitan zentro-eskuinekoa den bigarren espazio bat egonkortu zen. Are gehiago, espazio horrek lehen aldiz zentro-ezkerreko espazioak baino ordezkari gehiago lortu zituen.

Edonola ere, euskal koalizioek bigarren –Geroa Bai– eta hirugarren –EH Bildu– indarrak izatea lortu bazuten, hori da espainiar eskuinaren eta espainiar ezkerren barne zatikatzearen ondorioz. Espainiar eskuinaren kasuan, zatiketa gertatu zen UPN eta PP alderdiaren baitan, are gehiago, C's eta UPyD ere euren kasa aurkeztu ziren. Horrek eragin zuen espainiar eskuinaren batura soilik 17 eserlekutara iristea.

Espainiako ezkerren kasuan, beste horrenbestekoa zen zatiketa. Kasu honetan, hiru alderdi/koalizio aurkeztu ziren: PSN, Podemos eta I-E. Espainiar estatuan 2011n gertatutako 15-M lurrikara zegoen espainiar ezkerren zatikatzearen oinarrian. Hala, hasieran Podemos eta gerora C's alderdia izan ziren aldaketa horren ondorio nagusiak. Podemosen kasuan, indartsu sartu zen NFEko alderdi sisteman. 2015eko hauteskundeetan PSNren ginetik gelditu zen. 1983-2015 bitartean PSN igaro zen lehen indarra izatetik bosgarren indarra izatera. Are gehiago, 2007an eta 2011n ez bezala, gobernua hautatzeko giltza izateari utzi zion. Egoera horren aurrean, espainiar ezkerreko

bi alderdiek eta euskal blokeak bere osotasunean adostu zuten Uxue Barkos aukeratzea lehendakari gisa. Lau alderdien babesarekin gehiengo osoa lortu zuen. 24 eserlekutara iristen zen UPN, PP eta PSNren batura. PSN, berriz, abstenitu egin zen Uxue Barkos lehendakari izendatzerakoan.

2019ko hauteskundeak arte, lau alderdien arteko hitzarmenak lortu zuen legegintzaldi osoan irautea. Hala, 2019ri begira euskal alderdien erronka izan zen euskal blokea indartzeaz gain, UPN gobernutik kanpo uzteko alternatiba garatzea.

4.2.2 Hurbilpen geografikoa: hauteskundeetako argazki elektoralak.

Aurreko azpikapituluan, ikuspuntu lehiakorretik aztertu da Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren izaera. Horretarako arreta jarri da instituzioetan, zehazki, lehia politikoak izan duen bilakaera historikoaren gainean. Ildo horretatik, honako gai desberdinak izan dira hizpide nazio zapalduaren ikuspegitik, hala nola: gobernuaren osaketa, oposizioaren jarrera edota zentralitate politikoa. Bestelakoa da bigarren azpikapitulu honen xedea. Oraingoan, instituzioetan arreta jarri beharrean, portaera elektoralaren banaketa geografikoa hartu da aztergai. Ikerketa Elektoralen baitan, egundoko indarra hartu du analisi ekologikoak azken hamarkadetan teknologiaren garapenaren olatuarekin. Azpikapitulu honen xedea da 1981ean Linzek eta beste ikertzaile batzuekin lankidetzan argitaratu zuten *Atlas electoral del País Vasco y Navarra* lana eguneratzea, eta horrela, euskal lerrokatze linguistiko elektoral berrinterpretatzeko oinarriak ezartzea.

Ikerketa horren lehen atalean, Linzek eta besteek (1981, 11-12. or.) argi eta garbi azpimarratzen dute beren lana tradizio intelektual jakin baten baitan kokatzen dela, hain zuzen ere, André Siegfriedekin hasi eta Stein Rokkanera bitarte doan tradizioan.¹²⁵ Bigarren ikertzaile hori ezaguna da lan honetan dagoeneko. Izan ere, bera da Lipsetekin batera ikerketa honen bizkarrezurra den *clivaje*en teoriaren aitabitxia. Hala, Linz eta besteek (1981, 13-14. or.) ondorio hauek atera zituzten aipatutako ikerketa horretatik: bat, portaera elektoralari dagokionez orokorrean jarraikortasuna dago 1936ko gerraurreko eta gerraosteko hauteskundeen artean; bi, dena dela, espazio jakin batzuetan jarraikortasuna eten egin da –bi arrazoi aipatzen ditu: EAJren hazkundera eta

¹²⁵ Are gehiago, Linzek eta besteek (1981, 5. or.) hitzaurrean aipatzen dute hil berri den Stein Rokkani eskaintzen diotela liburua CIS erakundearen izenean: “El Centro de Investigaciones Sociológicas aprovecha la publicación de esta serie para rendir un homenaje póstumo a Stein Rokkan, maestro e impulsor de la Sociología Electoral, especialmente en su dimensión comparativa. El profesor Rokkan falleció en Bergen (Noruega) en julio de 1979, a los 58, tras haber realizado una fecunda labor docente, investigadora y de fomento de la investigación sociopolítica comparada en el mundo libre”.

ezker abertzalearen agerpena–; hiru, portaera elektoralaren baitan bloke desberdinen artean muga iragazgaitzak daude arrazoi linguistiko edota historiko-administratiboengatik; eta lau, errealitate soziologiko eta ekonomiko desberdinak nabari dira kilometro gutxiren bueltan. Beste lurraldeekin alderatuz, Linzek eta besteek ondorioztatzen dute Espainiako beste erregio batean ere ez dagoela “*una mayor heterogeneidad en la conducta política de sus habitantes de una zona a otra*”. Horregatik guztiagatik, hautesleen portaera elektoral ulertzeko ezinbestekoa deritzote teknika desberdinak gurutzatzea.

Sólo la comparación del análisis ecológico con el de encuestas, e incluso, diríamos, el análisis con métodos antropológicos a nivel de comunidad, puede darnos una explicación de los importantes, a veces dramáticos, cambios en los resultados electorales. (Linz et al., 1981, 15. or.).

Lan honetan, ikerketaren lehen zatian azaldu den moduan, Linzek eta besteek aipatzen duten ildotik, teknika desberdinak erabiltzea hobetsi da errealitatea osotasunean ulertzeko, hala nola: analisi ekologikoa (5. kapitulua) edota antropologiarekin gehiago identifikatzen den metodo kualitatiboa (6. Eta 7. kapitulua). Edonola ere, bi metodo horiek erabili aurretik, ikusi da komenigarria dela hauteskundeetako emaitza elektoralen inguruko analisi deskriptiboa egitea. Horretarako, honako datu iturriak erabili dira hauteskundeetako emaitzak lortzeko: Nafarroako Estatistika Zentroak¹²⁶ eskaintzen dituen datuak eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak¹²⁷ eskaintzen dituenak. Analisia egiterakoan, berriz, atal teorikoan egin den proposamena hartu da erreferentzia moduan.

Alde horretatik, datuek erakusten dutena da ikuspuntu geografikotik eremu batetik bestera hautesleen portaera elektoral oso desberdina dela, bai Hego Euskal Herriko bi erkidegoen artean, baita erkidegoen baitan ere. Euskal alderdien kasuan, EAEn lehen indarra diren bitartean, NFEan espainiar alderdiek lortzen dute babes elektoral sendoena. Edonola ere, udalerrri mailan ikusten da euskal alderdiek erkidego bakoitzaren baitan lortzen duten babes elektoralaren eremuen araberakoa dela. Alegia, posible da EAeko zenbait udalerritan euskal alderdiak bloke gisa bigarren indarra diren bitartean, NFEko zenbait udalerritan erabateko hegemonia izatea, eta alderantziz. Bilakaera elektoralari dagokionez (1980-2016), aldaketak ikusten dira euskal alderdiek jasotzen duten babes elektoralaren kasuan. Zenbait udalerritan euskal alderdien babes elektoralak gorakada nabarmena izan duen bitartean, beherakada izan du beste zenbait

¹²⁶ Honatx, NFEko datuak eskuratzeko erabili den iturria: <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/06/23).

¹²⁷ Honatx, EAeko datuak eskuratzeko erabili den iturria: <https://www.euskadi.eus/hauteskundeak/> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/06/23).

udalerritan. Era berean, ezker/eskuin aldagaia gehituz gero, oraindik eta konplexuagoa bihurtzen da errealitatearen gaineko azterketa. Kontu horiek eta gehiago, xehe-xehe aztertzen dira ondorengo bi azpikapituluetan.¹²⁸


4.2.2.1 EAeko hauteskunde autonomikoak

2016ko hauteskunde autonomikoetan, alderdi abertzaleek hautagai zerrendek jasotako botoen ia %60 eskuratu zuten. Hori dela eta, normala da udalerrri gehienetan alderdi abertzaleak izatea lehen indarra.


EAeko 251 udalerrrietatik lautan soilik nagusitzen dira espainiar alderdiak (Armiñon, Mañueta, Guardia eta Lasarte-Oria). Gainerako udalerrietan, alderdi bozkatuenak euskal alderdi abertzaleak izan ziren. Orotara, lau alderdik lortu zuten udalerriren batean irabaztea: EAJ, EH BILDU, PSE-EE eta PPk. EAeko 166 udalerritan EAJ izan zen lehen indarra. EH BILDUren kasuan, 81 udalerritan lortu zuen irabaztea. PSE-EE alderdiak Lasarte-Oria soilik geratu zen aurrengo postuan. PPk, berriz, Arabako hegoaldeko hiru udalerritan irabazi zuen.

30. irudia: Babes elektoral handiena lortu duten lehen eta bigarren alderdia, udalerrri mailan.

Alderdi bozkatuena (2016)



Bigarren alderdi bozkatuena (2016)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Egileak moldatua.

Oharra: Udalerrri batzuetan bi alderdiek emaitza bera lortu dute. Kasu horietan bi udalerrrien izenak agertzen dira = ikurrarekin.


Alderdi bozkatuenen irudiak erakusten du 2016ko hauteskunde autonomikoetan euskal alderdi abertzaleak ia lurralde guztian garaile izan zirela. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskal abertzaleek hiru lurralde historikoetan babes elektoral bera jasotzen dutenik. Udalerrri bakoitzeko bigarren alderdi bozkatuenaren mapak erakusten du hegemonia abertzale horren atzean errealitate desberdinak daudela. Ikusten den moduan, Araba

¹²⁸ Atal honetan, hauteskunde desberdinetako datu desberdinak gurutzatu dira hautesleen portaera elektoralaren bilakaera interpretatzeko (1980-2016). Urte horietan guztietan hainbat aldaketa administratibo gertatu dira, hau da, udalerrri batzuk sortu dira eta besteak bereizi. Alde horretatik, honako dokumentuan daude jasota hauteslearen portaera elektoralaz aztertzerakoan jarraitu diren irizpideak (II. Eranskina).

hegoaldean eta Bilbo Handian espainiar alderdiek emaitza onak lortzen dituzte. Izan ere, aipatutako eremu horietan alderdi espainiarrak dira bigarren alderdi bozkatuenak. Aldiz, EAJ eta EH Bildu dira alderdi hegemonikoak Bizkaia ekialdean eta Gipuzkoan.

Euskal alderdi abertzaleei dagokienez, EAEko 109 udalerritan hautagai zerrendek jasotako botoen %80 baino gehiago lortu zituzten (EAEko udalerrien %43). Gipuzkoakoak dira udalerririk horietatik ia erdia (50), gehienak, Urola Kosta, Goierri eta Tolosaldekoak. Arabako kasuan, Aramaion bakarrik lortzen dute euskal alderdi abertzaleek gisa horretako babes elektoralak. Bizkaikoak dira gainerako 58 udalerririk. Lurralde honetan udalerririk bereziki bi eremu bereizten dira: kostaldekoa (Busturia eta Lea-Artibai) eta mendialdekoa (Durangaldea eta Arratia).

31. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak hautagai zerrendek jasotako boto kopuruaren arabera (2016).



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Ikusten den moduan, euskal alderdi abertzaleak botoen erdia baino gehiago lortzen dute Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerririk gehienetan. Alabaina, emaitzarik onenak lortzen dituzten udalerrietan txikia da hautesle errolda. Adibidez, euskal alderdiek hautagaiek jasotako botoen %80a baino gehiago lortzen duten hamar udalerririk handien kasuan, guztien hautesle erroldaren batura ez da 80.000a iristen.

52. taula: Euskal bloke abertzalea hegemoniko den udalerririk nagusiak (2016).

	Udalerririk	Lurralde	Alderdi bozkatuena	Bigarren alderdi bozkatuena	Euskal alderdiek jasotako babes elektoralak %tan	Hautesle errolda
1	BERMEO	Bizkaia	EAJ	EH BILDU	84	13.259
2	GERNIKA-LUMO	Bizkaia	EAJ	EH BILDU	80	12.617
3	AZPEITIA	Gipuzkoa	EH BILDU	EAJ	88	11.062
4	ONATI	Gipuzkoa	EH BILDU	EAJ	83	8.871
5	OIARTZUN	Gipuzkoa	EH BILDU	EAJ	81	8.023
6	ONDARROA	Bizkaia	EH BILDU	EAJ	86	6.884
7	LEKEITIO	Bizkaia	EH BILDU	EAJ	91	5.700
8	ORIO	Gipuzkoa	EAJ	EH BILDU	81	4.282
9	MUTRIKU	Bizkaia	EAJ	EH BILDU	84	4.086
10	MARKINA-XEMEIN	Bizkaia	EAJ	EH BILDU	89	3.632
					GUZTIRA	78.416

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Bestelakoa da euskal alderdi abertzaleek hautagai zerrendek jasotako botoen %60 baino gutxiago lortzen duten udalerrien izaera. Multzo horretan aurkitzen dira hautesle errolda handiena duten EAEko hamar udalerririk. Azken horietan, lehen indarra euskal alderdi abertzalaren bat izan arren, espainiar blokeak lortzen duenaren parekoa da euskal bloke abertzaleak lortzen duen babes elektoralak. Ikusten den moduan, alderdi espainiarrak dira bigarren alderdi bozkatuenak hamarretik zortzitan gisa horretako udalerritan.

53. taula: Hautesle errolda handiena duten udalerrietako emaitza elektoralak (2016).


	Udalerrria	Lurraldea	Alderdi bozkatuena	Bigarren alderdi bozkatuena	Euskal boto abertzalea %tan	Hautesle errolda
1	BILBAO	Bizkaia	EAJ	AHAL DUGU	55	273.513
2	GASTEIZ	Araba	EAJ	PP	41	186.647
3	DONOSTIA	Gipuzkoa	EAJ	EH BILDU	53	147.060
4	BARAKALDO	Bizkaia	EAJ	AHAL DUGU	45	79.614
5	GETXO	Bizkaia	EAJ	PP	56	62.703
6	IRUN	Gipuzkoa	EAJ	PSOE	43	46.709
7	PORTUGALETE	Bizkaia	EAJ	PSOE	46	38.475
8	SANTURTZI	Bizkaia	EAJ	AHAL DUGU	54	37.491
9	BASAURI	Bizkaia	EAJ	PSOE	54	33.528
10	ERRENTERIA	Gipuzkoa	EH BILDU	EAJ	51	30.840
GUZTIRA						873.878

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.


Udalerrri horietan, hein handi batean, alderdi sistemaren egituragatik da euskal alderdi abertzaleak lehen indarra. Gasteizen, adibidez, hautagai zerrendek jasotako botoen %41 da euskal alderdiek lortzen duten babes elektoralak. Atal teorikoan ikusi den moduan, bi dira 2016ko hauteskundeetan euskal espazioan ordezkariak lortzen duten alderdiak (EH BILDU eta EAJ), aldiz, espainiar espazioan hiru (PP, PSOE-EE eta AHAL DUGU). Blokeen arteko proportzioak mantendu arren, 2012tik 2016ra Ahal Dugu alderdi sistemara gehitzeak ekarri duena da indar espainiarren botoa hiru zatitan banatzea. Ondorioz, blokeen artean zenbait udalerritan antzeko emaitzak lortu arren, apalagoa da alderdi espainiar bakoitzak lortutako babes elektoralak.

32. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Alderdi politikoak sortu eta desagertu egiten dira, batzuk lehenago, besteak, geroago. Alde horretatik, astiroago aldatzen dira gizarteko joerak. Hauteskudez hauteskunde

boto ehunekoak gorabehera batzuk izan arren, bloke nagusiak bere horretan mantentzen dira denbora luzez.

33. irudia: EAEko bloke elektoral nagusiek lortutako babes elektorala 1980-2016 bitartean (%tan).



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

*Oharra: Besteak izeneko bloke gisa sailkatu dira jarlekurik lortu ez duten alderdi guztiak. Horrek ez du esan nahi alderdi horiek jatorri nazional edo sozialaren inguruan bereizten ez direnik. Lan honetan xede nagusia da legebiltzarrean ordezkariak lortzen duten alderdiek islatzen dituen gizarteko zatiketak aztertzea. Horregatik, hobetsi da multzo hori besteengandik bereiztea.

Ondorengo puntuetan, banan bana aztertzen da udalerrien perspektibatik EAEko alderdi sistemako bloke nagusi horiek izan duten bilakaera.

❖ a) Euskal zentro-ezkerreko blokearen bilakaera


EH Bildu koalizioa da 2016ko hauteskunde autonomikoetan euskal zentro-ezkerreko blokea, edota, aurrerantzean *euskal ezker* deituko dioguna legebiltzarrean ordezkatzeko duena. Alde horretatik, heterogeneoa da euskal ezkerrek EAEko lurraldean jasotzen duen babes elektorala. Izan ere, EAEko 251 udalerrietatik 37tan gehiago osoa lortzen duen bitartean, hautagai zerrendek jasotako botoen %20 edo gutxiago lortzen du Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 55 udalerrian.

Bere feudo nagusiak dira Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait eskualdetako landa eremuko udalerriak, hala nola: Oresa (%96), Baliarrain (%76), Lizartza (%73), Zaldibia (%68), Errezil (%67), Mutiloa (%63), Altzo (%63) edota Aulesti (%63). Horiek guztiak, ordea, hautesle errolda apala dute gainerako EAEko udalerriekin alderatuz. Honakoak dira euskal ezkerrek gehiago lortzen duen udalerrien artean adierazgarrienak: Oiartzun (%55), Usurbil (%53), Larrabetzu (%51), Ataun (%60), Aramaio (%52), Zaldibia (%68), Dima (%54), Asteasu (%51) eta Segura (%51). Soilik udalerririk horiek dute 1.000 pertsonatik gorako hautesle errolda. Gainerakoan, badira beste udalerririk batzuk maila

ertaineko udalerriak izan arren, euskal ezkerreko blokeak boto ehuneko esanguratsuak lortzen dituenak: Ondarroa (%48), Lekeitio (%46), Azpeitia (%45), Bergara (%39), Hernani (%43) edota Lezo (%42).

Udalerrri horiez gain, bloke honentzat garrantzi handia dute Errenteria (%27), Zarautz (%30), Arrasate (%33), Tolosa (%35), Pasaia (%28), Durango (%25) Bermeo (%30) edota Gernika (%32) moduko herriek. Euskal ezkerreko bloke bozkatuena izan ez arren, 2016ko hauteskundeetan boto sorta garrantzitsua lortu zen udalerrri horietan.

34. irudia: Euskal ezkerreko jasotako babes elektoralaren %tan (2016).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Egileak moldatua.

Gainerakoan, euskal ezkerreko ahulgune nagusiak dira hiriguneak eta udalerrri handiak, bereziki Bizkaikoak eta Arabakoak. EAEko hautesle errola handiena duten 9 udalerrrietan euskal ezkerreko blokeak ez du gaituzten hautagai zerrendek jasotako botoen %20a. Hiriburuei dagokienez, emaitza apalenak Bilbon (%13) lortu zituen, bigarren apalenak Gasteizen (%16) eta hoberenak Donostian (%20). Era berean, ez ziren hobeak izan honako sei udalerritan lortutako emaitzak: Getxo (%14), Irun (%13), Portugalete (%12), Santurtzi (%15) eta Basauri (%13).


2016ko datu horiek 1980ko hauteskundeekin alderatuz, ikusten da euskal ezkerreko blokeak ehunekoan behera egin duela, bereziki bi lekutan: Gipuzkoa ekialdean eta Bilbo inguruan ezkerreko udalerrietan. Aldiz, hazkunde nabarmena izan du Gipuzkoan Urola Kostan, Bizkaian kostaldean ekialdeko udalerrietan eta Araba iparraldean.

35. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Datuak udalerrri mailan aztertuz gero, EAEko 251 udalerritatik 31 udalerritan ikusten da boto ehuneko galera %10 baino handiagoa izan dela. Galerak esanguratsuak izan dira hautesle errolda adierazgarria duten honako udalerrri hauen kasuan: Barakaldo (-%12), Irun (-%13), Portugaleta (-%11), Santurtzi (-%13) edota Leioan (-%15). Hiriburuei dagokienez, adibidez, Bilbon %9 jaitsi da euskal ezkerrek jasotako botoen ehunekoa 1980-2016 bitartean. Gasteizen kasuan, beste horrenbestekoa da jaitziera. Donostia da euskal ezkerrek beherakada handiena izan dien hiriburua (-%11).

Txanponaren beste aldean, EAEko 156 udalerrri daude. Azken horietan, euskal ezkerrek jasotako babes elektoralak hazkundera izan du 1980-2016 bitartean. Udalerrri horietatik, 66tan euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren hazkundera izan da %10 baino handiagoa. Honakoak izan dira hazkunde handiena izan duten udalerrriak: Errezil (+%45), Aduna (+%34), Bidania-Goiatz (+%31), Ea (+%31) eta Beizama (+%30). Edonola ere, udalerrri horiek hautesle errolda txikia dute aurrez ikusi den moduan. Era berean, hazkunde hori zuzenki proportzionala da euskal eskuinak izandako beherakadarekiko. Alde horretatik, 10.000tik gorako hautesle errolda duten udalerrien kasuan, hazkundera izan duen udalerrri bakarrak dira Azpeitia (+%24), Arrasate (+%8), Hernani (+%7) eta Amorebieta (+%5), Gernika-Lumo (+%3), Tolosa (+%3), Zarautz (+%2), Bergara (+%2), Durango (+%1), Ermua (+%1) eta Laudio (+%1).

Laburbilduz, euskal ezkerreko blokeak hautagai zerrendek jasotako botoen %21,26a jaso zuen 2016ko hauteskunde autonomikoetan. Hala ere, ikuspegi geografiko batetik oso heterogeneoa da jasotako babes elektoralak. Izan ere, hautagai zerrendek jasotako botoen %35 baino gehiago jasotzen dute EAEko 251 udalerritatik 111 udalerritan. Alabaina, proportzioan datu apalak lortzen ditu bai populazio handienak biltzen diren udalerritan, baita Bizkaia mendebaldean eta Araba hegoaldean ere. Bilakaera historikoari dagokionez, bada datu adierazgarri bat: 2016ko hauteskunde

autonomikoetan hautesle errolda handiena zuten 13 udalerrietan euskal ezkerren emaitzak apalagoak izan dira 1980ko hauteskudeekin alderatuz.


❖ **b) Euskal zentro-eskuineko blokearen bilakaera**

2016ko hauteskundeetan, EAJ da *euskal eskuina* –euskal zentro-eskuineko blokea– ordezkatzeko duen alderdi bakarra. Alderdi horrek, EAEko ia udalerririk guztietan lortzen du gutxienez hautagai zerrendek jasotako botoen %20. Zehazki, soilik lau udalerritan lortu zituen hautagaiak jasotako botoen %20 edo gutxiago. Horietatik hiru udalerririk dira Gipuzkoako udalerririk (Orexa, Baliarrain eta Larraul), bestea, berriz, Arabako (Armiñon). Edonola ere, salbuespen gisa hartu daitezke lau udalerririk horiek. Gainera, udalerririk horiek azken emaitzetan ez dira determinanteak. Lau kasuetan, hautesle errolda ez da 200era iristen.

EAEko udalerririk guztiak kontuan hartuz gero, EAJk 51tan lortzen du hautagai zerrendek jasotako botoen %50 edo gehiago bereganatzea. Bizkaian daude udalerririk horietatik 47, bereziki Mungialdea, Lea-Artibai eta Enkarterriak eskualdean. Arabako kasuan, Kripan eta Harana udalerrietan lortzen du euskal eskuinaren blokeak gehiengoa, eta Gipuzkoan, Albiztur eta Aia dira ezaugarri hori betetzen duten udalerririk bakarra. Hautesle erroldaren ikuspegitik ezaugarri hori betetzen duten udalerririk garrantzitsuenak dira Mungia eta Bermeo.

EAEko hiriburuen artean, Bilbon lortzen ditu euskal eskuinak emaitzarik onenak. Hiriburu horretan, hautagai zerrendek jasotako botoen %42a lortu zuen 2016ko hauteskunde autonomikoetan. Era berean, antzeko datuak lortu zituen Getxo (%42), Santurtzin (%39) eta Basaurin (%41).

36. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralak %tan(2016).



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.


Gainerakoan, euskal eskuinak emaitza apalagoak lortzen ditu Donostian (%34) eta Gasteizen (%25). Hiriburu horietan, 2016ko hauteskunde autonomikoetan hautagai

zerrendek jasotako botoen %35eko muga gainditu gabe gelditu zen. Beste horrenbeste gertatu zitzaion honako udalerrietan: Barakaldo (%34), Irun (%30), Portugalete (%35), Errearteria (%24) edota Eibarren (%33).


Euskal eskuinaren ahulgune nagusiak dira Gipuzkoan Donostialdea –adibidez, Errearteria– eta Araban Gasteiz. Edonola ere, ezin esan ahulguneak direnik. Izan ere, euskal eskuinaren kasuan, ahulgunea aipatzen denean, esan nahi da, ez duela hautagai zerrendek jasotako botoen %35a lortzen. Bizkaian, aldiz, ia ez dauka ahulgunerik. Lurralde horretan, euskal eskuina hiru udalerritan (Gizaburuaga, %29; Ermua, %27; eta Ubide, %26) soilik gelditzen da hautagai zerrendek jasotako botoen %30aren azpitik.

37. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.


2016ko datuak 1980ko hauteskundeekin alderatuz gero, ikusten da 89 udalerritan euskal eskuinaren blokeak hautagai zerrendek jasotako botoen %10a baino gehiago galdu duela. Udalerririk horiek bereziki Bizkaian kokatzen dira (52 udalerririk). Alabaina, Gipuzkoan (30 udalerririk) eta Araban (7 udalerririk) ere badira ezaugarri horiek betetzen dituztenak. Euskal eskuinaren galera bereziki handia izan da Errezilen (-%44), Mutiloan (-%39), Adunan (-%37), Ean (-%35), Bidania-Goiatzen (-%34), Beizama (-%33), Aramaion (-%33) eta Ibarrangelun (-%30). Udalerririk guztiak antzeko bi ezaugarri dituzte: lurgune euskaldunean kokatuta daude eta hautesle errolda txikia dute.

Bestalde, 1980ko hauteskundeetako datuak 2016ko hauteskundeetakoekin konparatuz, ikusten da euskal eskuinak 19 udalerritan hautagai zerrendek jasotako botoen %10 baino gehiago irabazi duela. Udalerririk horietako zazpi Bizkaikoak dira, sei Arabakoak eta beste sei Gipuzkoakoak. Honako hauek dira boto bilakaera positiboa izan duten udalerririk artean adierazgarrienak: Abanto (%22), Sestao (%16), Santurtzi (%12), Portugalete (%8), eta Basauri (%7). Ikusten den moduan, boto bilakaera positiboa izan duten udalerririk horiek bestelako ezaugarriak dituzte. Oro har, boto espainiarraren indarguneak izan dira eta hautesle errolda garrantzitsua dute.

❖ **c) Espainiar zentro-ezkerreko blokearen bilakaera**

PSOE-EE eta Ahal Duguk ordezkatzan dute alderdi sisteman *espainiar ezkerreko* 2016ko hauteskunde autonomikoetan. Alde horretatik, hauteskunde horietan hautagaiek jasotako botoen %26,80a lortu zuen espainiar ezkerrekoaren blokeak. Lurraldetasunaren ikuspegitik, udalerrien arabera desberdina da espainiar ezkerrekoak jasotako babes elektoralak.

38. irudia: Espainiar ezkerrekoak jasotako babes elektoralak %tan (2016).




Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Egileak moldatua.

Bilboko ezkerreko alde eta meatzaldea da espainiar ezkerrekoaren indargune nagusia. Udalerri aipagarrienak dira Ortuella (%42), Barakaldo (%40), Portugalete (%39), Trapagaran (%37), Sestao (%37) edota Abanto-Zierbena (%36). Gipuzkoako kasuan, ingurune zehatz batean baino gehiago, udalerri jakin batzuetan du babes elektoral indartsua, hala nola: Lasarte-Oria (%41), Zumarragan (%39) Errenterian (%39), Irunen (%38) edota Eibarren (%35). Udalerri horien ezaugarri nagusia da XX. mende erdian etorkin uholde handia izan zutela. Bizkaiko udalerria den arren, multzo honetan sartu daitezke Ermua (%41). Arabako kasuan, Iruña-Oka da espainiar ezkerrekoak jasotako babes elektoral handiena lortzen duen udalerria (%36). Hiriburu eta udalerri nagusiei dagokienez, espainiar ezkerrekoak hautagai zerrendak jasotako botoen %20 edo gehiago lortzen du hautesle errolda handiena duten EAeko 20 udalerrietan. Getxo (%19) da salbuespen bakarra.


Alabaina, babes elektoral hori ez da Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerri guztietara zabaltzen. Horren erakusle da hautagai zerrendak jasotako botoen %10 baino gutxiago lortu izana EAeko 73 udalerrietan. Azken horien kasuan, ordea, oso txikia da hautesle errolda. Udalerri horietatik Azpeitiak eta Lekeitiok dute soilik hautesle errolda 5.000 baino handiagoa.

39. irudia: Espainiar ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

2016ko datuak 1980ko datuekin alderatuz ikusten da espainiar ezkerrek boto ehunekoetan irabaziak izan dituela EAEko 238 udalerritan. Edonola ere, udalerrri horietatik soilik 81 udalerritan izan du %10 baino hazkunde handiagoa. Udalerrri horiek hiru eremutan banatzen dira: Bizkaiko mendebaldean, Araban ia osotasunean eta, Gipuzkoan, Donostia inguruan. Eremu horiez gain, kasu partikularrak daude zeinetan udalerrriak berak dituen baldintza konkretuengatik espainiar ezkerrek hazkunde handia izan duen.

Gipuzkoako 21 udalerritan lortu du espainiar ezkerreko blokeak 1980-2016 bitartean %10ko hazkundera baino handiagoa izatea. Joera hori izan dute, besteak beste, honako udalerrriek: Astigarraga (+%16), Pasaia (+%15), Legazpi (+%15), Andoain (+%14), Donostia (+%14), Errenteria (+%12), Bergara (+%11), Oiartzun (+%11) edota Irunek (+%10). Ikusten den bezala, hazkunde hori gertatu da hiriburuan eta hautesle errolda adierazgarria duten udalerrietan. Alabaina, udalerrri horiez gain, antzeko fenomenoak agertu da 36 urte lehenago ia babes elektoralik lortzen ez zuen zenbait udalerritan. Azken multzo horretan kokatzen dira Belauntza (+%13), Albiztur (+%13), Larraul (+%13), Gaztelu (+%12), Asteasu (+%11) edota Mutiloa (+%11). Udalerrri horietan, 1980ko hauteskundeetan espainiar ezkerrek ez zuen ia botorik jaso. Aldiz, 2016ko hauteskundeetan, nabarmen igo da jaso duen babes elektoralak. Gainerakoan, Gipuzkoan bi udalerritan soilik jaitsi da babes elektoralak: Urnietan (-%8) eta Zaldibian (-%1).


Bizkaiko kasuan, 82 udalerririk izan dute espainiar ezkerren boto ehunekoaren hazkundera %5 baino handiagoa. Honako udalerrriak dira ezaugarri hori betetzen dutenen artean hautesle errolda handiena dutenak: Bilbo (+%10), Barakaldo (+%9), Getxo (+%10), Basauri (+%7), Leioa (+%11), Galdakao (+%13) eta Durango (+%8). Aldiz, Abanto-Zierbena (-%6) da espainiar ezkerren boto ehunekoaren galera %5 baino handiagoa izan den Bizkaiko udalerririk bakarra.

Arabako udalerriei dagokienez, 1980-2016 bitartean, 51 udalerritatik 47tan hazi egin da espainiar ezkerrek jasotako babes elektoralala. Udalerrri horietatik guztietatik, 31 udalerritan izan du espainiar ezkerrek hazkunde elektoralala %10 baino handiagoa. Honako hauek dira espainiar ezkerrek hazkunde handiena izan duten udalerrriak: Armiñon (%25), Moreda (%24), Erriberagoitia (%21) eta Lagran (%21). Bestalde, hazkundera apur bat apalagoa izan da hautesle errolda handiagoa duten udalerrietan, hala nola: Gasteiz (%13), Laudio (%8) eta Amurrio (%7).

❖ **d) Espainiar zentro-eskuineko blokearen bilakaera**

PPk ordezkatzeko du 2016ko hauteskunde autonomikoetan *espainiar eskuinaren* bezala izendatzen den espazio elektoralala alderdi sisteman. Hauteskunde horietan, hautagaiek jasotako botoen %10,18a lortu zuen espainiar eskuinak. Lurraldetasunaren ikuspegitik, heterogeneoa da jasotako babes elektoralala.

40. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoralala %tan (2016).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Egileak moldatua.

Hautagai zerrendek jasotako botoen %10a edo gutxiago lortzen du espainiar eskuinak EAeko 208 udalerritan. Gipuzkoako udalerrien kasuan, Donostian (%13) eta Irunen (%12) gainditzen du soilik %10eko muga. Bizkaian, berriz, sei udalerritan bakarrik lortzen du hautagai zerrendek jasotako botoen %10a baino gehiago jasotzea (Getxo, %20; Ermua, %14; Bilbo, %14; Laukiz, %12; Barakaldo, %10; Leioa, %10).


Arabako kasua desberdina da beste probintziekin alderatuta. Alde horretatik, espainiar eskuinaren indargune nagusiak Gasteiz (%21) eta Araba hegoaldeko udalerrriak dira. Horren erakusle da Arabako 51 udalerrietatik 36tan lortu izana espainiar eskuinak hautagai zerrendek jasotako botoen %10 baino gehiago. Datu hobereenak hauetan lortzen ditu: Baños de Ebro (%39), Navaridas (%38), Iekora (%33) eta Guardia (%31). Beste muturrean, Aramaioko kasua dago: espainiar eskuinak jasotzen duen babes elektoralala hautagai zerrendek jasotako botoen ia %1a da.

41. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

1980ko hauteskundeekin alderatuz gero, hainbat udalerritan ikusten da espainiar eskuinak boto galera adierazgarria izan duela. EAeko lau udalerritan, adibidez, %30eko gainbehera baino handiagoa izan du espainiar eskuinak: Kanpezu (-%31), Harana (-%32), Artziniega (-%33), Iekora (-%40). Araba hegoaldean kokatzen dira boto galera hori izan duten udalerrri gehienak. Aldiz, 42 dira boto hazkundera izan duten udalerrriak. Edonola ere, hazkundera hori ez da hain adierazgarria: Baños de Ebro (%7), Laukiz (%7) eta Berangon (%5) soilik hazi da espainiar eskuina %5 inguru edo gehiago.

❖ e) Legebiltzarrean ordezkariarik lortu ez duten alderdien bilakaera

EAeko udalerrri guztiak kontuan izanik, 2016ko hauteskundeetan ordezkariarik lortu ez duten alderdien kasuan, Armiñonen soilik lortzen dute alderdi horiek botoen %10a baino gehiago. Are gehiago, EAeko 232 udalerritan hautagai zerrendek jasotzen dituzten botoen %5 baino gutxiago eskuratzen dute jarlekurik lortzen ez duten alderdiek.

42. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoralaren %tan (2016).




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Egileak moldatua.

Hautesle errolda handiena duten udalerrien kasuan, %5 ingurukoa da ordezkariarik lortzen ez duten alderdiek jasotako babes elektoralak: Bilbo (%5), Gasteiz (%7), Donostia (%5), Barakaldo (%5), Getxo (%5) eta Irun (%6).


2016ko datuak 1980ko datuekin alderatuz gero, ez da aldaketa handirik ikusten. Jarlekurik lortu ez duten alderdiek soilik Armiñonen izan dute %10eko hazkundera baino handiagoa. Udalerri horren kasuan, errolda 174 hautesletakoa da 2016ko hauteskunde autonomikoan. Hori dela eta, boto gutxi batzuek aldaketa handiak eragiten dituzte. Kasu honetan, aldaketa hori eragin dute C's, Vox, Pagma, Recortes eta Ganemos alderdiek lortutako 13 botok.

43. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1980-2016).

1980ko hauteskundeak



2016ko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Egileak moldatua.

Era berean, interesgarria da ordezkariarik lortu ez duten alderdiek botoak non galdu dituzten ikustea. Izan ere, 2016ko hauteskundeetan alderdi abertzaleak nagusi diren udalerrietan gertatu da boto galerarik handiena: Leaburun (-%9), Legorretan (-%9) eta Antzuolan (-%9), Zestoan (-%7), Ondarroan (-%7) eta Azpeitian (-%7). Udalerri horien kasuan, EKA, ORT-PTE, ESEI edota LKI bezalako alderdiak desagertu edota alderdi sistemaren erdigunetik urrundu izanak eragin du 2016ko hauteskunde autonomikoetan ordezkariarik ez duten alderdien babes elektoralak ia hutsala izatea.


4.2.2.2 NFEko hauteskunde autonomikoak

Parlamentuan ordezkariak lortu zuten euskal alderdi abertzaleek hautagai zerrendek jasotako botoen %30,69a soilik jaso zuten 2015eko Nafarroako Foru Hauteskundeetan. Kasu honetan, EAeko hauteskundeetan ez bezala, bloke espainiarra da lehen indarra.

NFEko udalerriei dagokienez, sei dira udalerriren batean alderdi bozkatuena izatea lortu duten alderdiak: EH Bildu, Geroa Bai, PP, PSN, Ahal Dugu eta UPN. Alderdi horien artean, UPN da udalerrri gehienetan lehen indarra izan den alderdia. Alderdi honen

kasuan, botoen %27,98a lortzen du eta lehen indarra da NFEko 146 udalerritan, horietatik 4 udalerritan, beste alderdiren batekin botoetan berdindurik. EH Bildu da udalerrri gehienetan irabazi duen bigarren alderdia. Azken honen kasuan, 86 udalerritan izan da lehen indarra, horietatik bitan Geroa Bairekin berdindurik eta beste batean UPNrekin. Hala, UPN eta EH Bildu alderdiak, NFEko hamar udalerrietatik zortzitan izan ziren lehen indarra 2015eko Nafarroako Foru Hauteskundeetan.

44. irudia: Babes gehien lortu duen alderdia eta bigarren babes handiena lortu duena udalerrri mailan



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

Oharra: Udalerrri batzuetan bi alderdik emaitza bera lortu dute. Kasu horietan bi alderdien izenak agertzen dira = ikurrarekin.


Alde horretatik, bi alderdi bozkatuenak kontuan izanik, irudi honetan ikusten da Nafarroako errealtate elektoral 2015eko hauteskunde autonomikoetan hiru eremutan banatzen dela. Alde batetik, ipar-mendebaldeko udalerrriak daude. Eremu horretan, salbuespenak salbuespen, EH Bildu eta Geroa Bai dira babes elektoral handiena lortzen duten alderdiak. EAEko hainbat udalerritan gertatzen denaren antzekoa da fenomeno hori.

Bigarren eremua osatzen duten eremuak dira Pirinioaldea, Iruñea, Lizarra eta Tafalla inguruak. Eremu horretan, euskal alderdi abertzale nahiz espainiarrek lortzen dute lehen eta bigarren indarra izatea. Udalerrri gehienetan, oso altua da UPNk lortutako babes elektoral. Alabaina, UPN lehen indarra den kasuetan, euskal alderdiak dira alternatiba. Era berean, euskal alderdiak lehen indarra direnen gehienetan, UPN edo beste alderdi espainiar bat da bigarren indarra. Alde horretatik, kolore aniztasun handiena duen eremua da aipatu berri dugun hori.

Hirugarren eremua osatzen dute Erribera eta Tuter inguruek. Udalerrri horietan, alderdi espainiarrak hegemonia osoa dute eta eurek dira lehen eta bigarren alderdi bozkatuenak.

Udalerri gehienetan, UPNk lortzen du alderdi bozkatuena izatea, eta kasu horretan, PSN da bigarren indarra. Alderantzizko kasuak ere ikusten dira, alegia, PSN lehen indarra izatea eta UPN bigarrena.

45. irudia: Alderdi abertzaleek jasotako babes elektorala hautagai zerrendek jasotako babes elektoralaren arabera (2015).



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

Ikusten den moduan, euskal alderdiek emaitzarik onenak NFEko ipar-mendebaldean lortzen dituzte. Alabaina, oso txikia da hautesle errolda udalerri horietan. 2015eko hauteskunde autonomikoetan, adibidez, Leitza izan zen euskal alderdiek hautagai zerrendek jasotako botoen %80a baino gehiago lortzen duten udalerrien handiena. Azken honen kasuan, 2.346 pertsonak zuten botoa emateko aukera.

54. taula: Euskal alderdi abertzaleak hautagai zerrendek jasotako botoen %80a lortzen duten udalerririk (2015).

		Alderdi bozkatuena	Bigarren bozkatuena	Euskal alderdien babes elektorala	Hautesle errolda
1	GOIZUETA	EH BILDU	GEROA BAI	94	633
2	ARANTZA	EH BILDU	GEROA BAI	87	530
3	ITUREN	EH BILDU	GEROA BAI	86	395
4	ARAITZ	EH BILDU	GEROA BAI	82	446
5	ARBIZU	EH BILDU	GEROA BAI	82	832
6	ARRUAZU	GEROA BAI	EH BILDU	81	89
7	ERGOIENA	EH BILDU	GEROA BAI	81	353
8	LEITZA	EH BILDU	GEROA BAI	80	2.346
9	SUNBILLA	EH BILDU	GEROA BAI	80	582
	GUZTIRA				6.206

Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

Euskal alderdien indargune horiek azken emaitzan duten eragina ez da esanguratsua. Izan ere, hautesle erroldaren %1 besterik ez da. Alde horretatik, NFEko hautesle errolda handiena duten udalerrietako datuak aztertuz gero, ikusten da espainiar alderdiek dutela gehiengoa. Udalerri horietan guztietan, euskal alderdiek lortzen duten babes elektorala ez da %50era iristen, eta %30 eta %40 arteko babesa jasotzen du hamarretik zortzi udalerritan. Tuterako kasuan, berriz, hautagai zerrendek jasotako botoen %10 bakarrik lortzen dute euskal alderdiek. Azken hori da NFEko bigarren hautesle errolda handiena duen udalerrria.

55. taula: Hautes errolda handiena duten udalerrriak hautagai zerrendek jasotako botoen %aren arabera (2015).


		Alderdi bozkatuena	Bigarren bozkatuena	Euskal alderdien babes elektoralaren %tan	Hautesle errolda
1	IRUÑA	UPN	GEROA BAI	32	147.452
2	TUTERA	UPN	PSN	10	25.149
3	BARAÑAIN	UPN	GEROA BAI	31	15.558
4	BURLATA	UPN	GEROA BAI	35	13.675
5	VALLE DE EGÜÉS	UPN	GEROA BAI	33	12.956
6	ZIZUR NAGUSIA	UPN	GEROA BAI	36	10.564
7	LIZARRA	UPN	EH BILDU	33	10.448
8	TAFALLA	EH BILDU	UPN	39	8.261
9	ATARRABIA	EH BILDU	GEROA BAI	48	7.815
10	ANTSOAIN	AHAL DUGU	EH BILDU	39	7.591
	GUZTIRA				259.469

Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


Alderdi politikoek lortzen dituzten emaitzei dagokienez, euskal alderdiak lehen indarra izatea lortzen dute honako udalerritan: Tafallan (EH Bildu) eta Atarrabian (EH Bildu). Azken honen kasuan, euskal alderdia da bigarren alderdi bozkatuena (Geroa Bai). Alde horretatik, zerrenda horretan Tutera da udalerririk bakarra lehen eta bigarren indarrak espainiarrak dituen.

46. irudia: Euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak




2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

1983ko hauteskundeekin alderatuz gero, deigarria da 2015eko hauteskundeetan euskal alderdiek lortu duten gorakada. Erriberako mugako udalerrietan eta Tuterako eskualdean izan ezik, hautagai zerrendek jasotako botoen %10a edo gehiago irabazi dute. Bereziki adierazgarria da Pirinioaldean izandako gorakada. Eremu horretako hainbat udalerritan %30 baino gehiago igo da azken 35 urteotan euskal alderdiek jasotako boto ehunekoa. Azken hamarkadetan, euskal eskuinaren blokeak izan du gorakada handiena. Hogei urteren buruan igaro da ordezkariarik ez izatetik, hautagai zerrendek jasotako botoen %16 lortzera. Horrek guztiak ekarri duena da euskal alderdiek lehendabiziko aldiz hautesle zerrendek jasotako botoen %30 baino gehiago lortzea.

47. irudia: NFEko bloke elektoral nagusiek lortutako babes elektorala 1983-2015 bitartean (%tan).



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


Ondorengo puntuetan aztertzen da denboran zehar ze bilakaera izan duen NFEko alderdi sistemako azpitalde nagusiek jasotako babes elektoralak.

❖ a) Euskal zentro-ezkerreko blokearen bilakaera

EH Bildu da 2015eko Foru Hauteskundeetan parlamentuan ordezkariak lortzen duen ezkerreko euskal indar bakarra, hauteskunde horietan lortutako babes elektorala %15ekoa izanik.

Lurraldetasunaren ikuspegitik, oso heterogeneoa da parlamentuan ordezkariak lortu zuen euskal ezkerrek NFEan zehar jaso zuen babes elektorala. Tafallatik hegoaldera kokatzen diren udalerrietan, euskal ezkerrek emaitza apalak lortu zituen (Azuelo, %0; Barillas, %0; Cintruénigo, %2; Tuter, %4). Aldiz, hautagai zerrendek jasotako botoen %50a edo gehiago lortu zuen ipar-mendebaldeko zenbait udalerritan (Goizueta, %80; Araitz, %65; Ituren, %61; Leitza, %58; Etxarri Aranatz, %55; Arano, %55; Arantza, %54) eta Pirinioaldeko udalerririk batean (Hiriberri, %56). Alabaina, oso txikia da udalerririk horietako hautesle errolda. Alde horretatik, hautesle errolda handienak dituzten NFEko 10 udalerritan hautagai zerrendek jasotako botoen %10 eta %30 bitartean lortzen du euskal ezkerrek. Tuter da salbuespena (%4).

48. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektorala %tan (2015).




Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

2015eko datuak 1983ko Foru Hauteskondeekin alderatuz gero, datuek erakusten dute euskal ezkerren botoak mantendu edota hazkundera izan duela NFEko 234 udalerritan. Alde horretatik, NFEko 38 udalerritan soilik galdu du babes elektorala, eta udalerririk horietatik Genevillan bakarrik da boto galera hori %10 edo handiagoa.


Hautesle errolda handiena duten udalerriei dagokienez, oro har, denetarik dago. Adibidez, 1983ko hauteskondeekin alderatuz, 2015eko hauteskundeetan euskal ezkerrek jasotako babes elektorala %11 hazi da Atarrabia eta Tafallan. Emaitza elektoralak bere horretan mantendu dira Iruñea (%1) eta Tuteran (%0).

49. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak



2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


❖ b) Euskal zentro-eskuineko blokearen bilakaera

Geroa Baik ordezkatzeko du alderdi sisteman euskal eskuina 2015eko foru hauteskundeetan. Alde horretatik, oso heterogeneoa da lurraldetasunaren ikuspegitik euskal eskuinak lortzen duen babes elektorala. NFEko 70 udalerritan, esaterako, euskal eskuinak lortzen duen boto ehunekoa ez da %10era iristen. Erribera eta Tuterako

eskualdean kokatzen dira udalerrri gehienak: Tuterak (%6) Cascante (%5), San Adrian (%3) eta abar.

Orotara, 105 udalerritan lortzen du euskal eskuinak botoen %10 eta %20 inguruko babes elektoralak, gehienak Faltzes eta Iruñea arteko eremuan kokatuak izanik. Edonola ere, euskal eskuinak emaitzarik onenak Ipar-mendebaldean eta Pirinioetan lortzen ditu, hau da, Iruñetik gora kokatzen diren udalerrietan. Lesaka (%43) eta Lekunberri (%38) dira indargune aipagarrienak euskal eskuinarentzat. Izan ere, bi udalerrri horietan hautesle errolda 1.000 pertsona baino handiagoa izateaz gain, hautagai zerrendek jasotako botoen %35 baino handiagoa da euskal eskuinak jasotzen duen babes elektoralak.

50. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralak %tan (2015).



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


1983ko hauteskundeekin alderatuz, NFEko 272 udalerrietatik 239tan irabazi edo mantendu egin dituzte botoak euskal eskuinak. Orotara, 33 udalerritan soilik galdu du babes elektoralak eta horietatik 10etan izan da galera %10 edo handiagoa. Honatx, zenbait adibide: Arano (-%46), Ituren (-%33), Saldias (-%19), Doneztebe (-%13), Zarrakastelu (-%12), Etxarri-Aranatz (-%10) eta abar. Ikusten den moduan, NFEko ipar-mendebaldeko udalerrietan kokatzen dira gehienak. Hain zuzen ere, euskal eskuinak emaitzarik hoberenak bertan lortu izan dituzte historian zehar.

Irabazirik handienak, berriz, honako udalerrietan izan du: Azuelo (%50), Goñi (%39) eta Abaurreapean (%32). Azuelon, adibidez, botoen %50a jasotzera igaro da euskal eskuina 1983an boto bakar bat ez jasotzetik. Edonola ere, kasu horiek eragin sinbolikoa besterik ez dute azken emaitzan. Izan ere, udalerrri gutxi batzuetan pilatzen da Nafarroako hautesle zerrendaren zati handiena. Alde horretatik, euskal eskuinaren gorakadaren atzean dagoena da hirigune nagusietan izan duen hazkundea. Horren erakusle da hautesle errolda handiena duten NFEko 50 udalerrietatik soilik 6tan galdu izana babes elektoralak 1983-2015 bitartean. Are gehiago, berebiziko hazkundea izan du euskal eskuinak jasotako babes elektoralak hautesle errolda handiena duten NFEko 28


udalerritan: Iruñea (+%11), Tuter a (+%6), Burlata (+%13), Egues (+%17), Zizur Nagusia (+%17), Baztan (+%19) edota Noainen (+%14) besteak beste.

51. irudia: Euskal eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak



2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


❖ **c) Espainiar zentro-ezkerreko blokearen bilakaera**

2015eko Foru Hauteskundeetan honakoak dira espainiar ezkerreko parlamentuan ordezkatzeko alderdiak: PSN, Ahal Dugu eta I-E. Hiruren artean botoen %31 jaso zuten. Alde horretatik, espainiar ezkerreko blokeak babes elektoral handiena Nafarroa hegoaldean lortzen du, hain zuzen ere, Tuter a eta Erriberako eskualdean.

Nafarroako 272 udalerrietatik 253tan lortzen du %10etik gorako babes elektoral. Alde horretatik, Leitza da udalerririk bakarra hautesle errolda 1.000 baino handiagoa izan eta espainiar ezkerreko blokeak hautagai zerrendek jasotako botoen %10 baino baxuagoa duena. Ondorioz, esan daiteke espainiar ezkerreko blokeak gutxiengo babes lurralde osoan jasotzen duela.

Hautesle errolda handiena duten NFEko 35 udalerrien artean, Baztan da bakarra espainiar ezkerreko blokeak hautagaien botoen %20a lortzen ez duena. Tuter a (%42), Antsoain (%43), Berriozar (%40), Corella (%42) eta Cintruénigo (%49) dira udalerririk handienenen artean espainiar ezkerreko blokeak emaitza onenak lortzen dituen udalerririk.

52. irudia: Espainiar ezkerrek jasotako babes elektoralak %tan (2015).




Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

2015eko datuak 1983ko hauteskondeekin alderatuz gero, ikusten da espainiar ezkerrek jasotzen duen babes elektoralak ez duela aldaketa handirik izan. Izan ere, boto irabazien/galeren balantza +%10 eta -%10 bitartean mugitu da NFEko 272 udalerrietatik 185etan.


Espainiar ezkerrek 30 udalerritan izan ditu irabaziak %10 baino handiagoak. Aldiz, 57 dira babes elektoralaren galera %10 baino handiagoa izan duten udalerrriak. Multzo honetan, besteak beste, hautesle errolda handiena duten udalerrriak dira Burlata (-%11), Antsoain (-%14), Altsasu (-%18) eta Zizur (-%27). Era berean, aipagarria da Pirinio aldea eskualdean eta bere inguruetan hainbat udalerritan espainiar ezkerrek izan duen boto ehuneko galera: Itzaltzu (-%64), Ezkaroze (-%52), Urzainki (-%36), Jaurrieta (-%31), Bidankoze (-%26) edota Orontze (-%22).

53. irudia: Euskal ezkerrek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak



2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

❖ d) Espainiar zentro-eskuineko blokearen bilakaera


UPN eta PPk ordezkatzan dute espainiar eskuinaren blokea 2015eko Foru Hauteskundeetan. Alde horretatik, hautagai zerrendek jasotako botoen %32 eskuratu

zituzten bi alderdi horiek. Espainiar eskuinak NFEko udalerrri guztietan lortzen du babes elektoral esanguratsua, eta ia ez du ahulgunerik. Ipar-mendebaldeko udalerrriak dira salbuespen bakarrak.

Datuei erreparatuz gero, NFEko 272 udalerrititik ikusten da 218tan espainiar eskuinak hautagai zerrendek jasotako botoen %20 baino gehiago lortzen duela. Are gehiago, babes elektoral %35 baino handiagoa da 110 udalerritan. Hori guztia gutxi ez eta gehiengo osoa lortzen du horietatik 28 udalerritan. Aitzitik, hautagai zerrendak jasotako botoen bi herenak gainditzen ditu zortzi udalerritan (adibidez: Xabier, %75; Ezporogi; %74; Barbarin, %72; Barillas, %72; Funes, %68).

Udalerrri horiek, eremu mistoan edota erdaldunean kokatzen dira, batik bat. Hauteskunde errolda handiena duten 5 udalerrrien kasuan honakoak dira emaitzak: Iruñea (%34), Tuter (%38), Barañain (%27), Burlata (%22) eta Eguesibarra (%30).

54. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoral %tan (2015).




Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


Alabaina, 2015eko datuak 1983koekin alderatuz gero, ikusten da espainiar eskuinak boto galera handia izan duela Nafarroako hainbat eskualdetan, hala nola: Ipar-mendebaldean, Pirinioaldean, Iruñean, Lizarra inguruan eta Nafarroa erdiko ekialdean. Alde horretatik, boto galera txikiena eduki du Erribera eta Tuter inguruan. Orotara, NFEko 272 udalerrititik 47tan soilik irabazi du babes elektoral. Gainera, hazkunde oso apala du babes elektoral irabazi duen udalerritan. NFEko udalerrri guztiak kontuan izanda, zortzi udalerritan igo da %10 baino gehiago espainiar eskuinak lortutako babes elektoral: Zizur (+%24), Gazteluberri (+%23), Castejon (+%19), Elizagorria (+%18), Barbarin (+%14), San Adrian (+%12), Berriobeiti (%12) eta Leatxe (+%11). Irabaziak izan dituen udalerrri horietan, euskal alderdien babes elektoral mantendu edo igo egin da eta normalean espainiar ezkerria izan da jaitsi dena.

55. irudia: Espainiar eskuinak jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak



2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


Hautesle errolda handiena duten udalerrien kasuan, berriz, errealitate desberdinak ageri dira. Tuteran, esaterako, hautagai zerrendak jasotako botoen %4 irabazi du espainiar eskuinak 1983ko hauteskudeekin alderatuz. NFEko hautesle errolda handiena duten 10 udalerrietatik gainerako 9etan espainiar eskuinak galdu egin du babes elektoralara. Alde horretatik, hautesle errolda 5.000tik gorakoa den kasuetan honako hauek dira galera handiena izan duten udalerriak: Cintruénigo (-%19), Baztan (-%20) eta Eguesibarra (-%22).

❖ **e) Parlamentuan ordezkartzarrik lortu ez duten alderdien bilakaera**

2015eko Nafarroako hauteskunde autonomikoetan, C's, Equo, LN, PAGMA, RCN-NOK, SAIn eta UPyD izan ziren jarlekurik gabe gelditu ziren alderdiak. Alde horretatik, alderdi horiek guztiek hautagaiek jasotako botoen %6 lortu zuten.

Alderdi horiek jasotako babes elektoralara batuz gero, NFEko 22 udalerritan lortzen dute hautagai zerrendek jasotako botoen %10 baino gehiago eskuratzea. Udalerrri horietatik guztietatik Marañonen soilik lortzen dute %20ko muga gainditzea. Alabaina, berezia da udalerrri honetan gertatzen den fenomeno, izan ere, NFEko hautesle errolda txikienetakoa duen udalerrria izanik (47 hautesle) boto gutxi batzuek (C's, 1; UPyD, 4; PACMA, 1) errotik aldatzen dituzte ehunekoak. Hautesle errolda handienak dituzten NFEko hamabost udalerrien kasuan, Arangurenen (%10) soilik lortzen dute jarlekurik lortu ez duten alderdiek %10eko mugara iristea.

56. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektorala %tan (2015).




Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.


Desberdintasun handiak ikusten dira 2015ko datuak 1983koekin alderatuz. Izan ere, 1983ko hauteskunderetan 88 udalerritan jarlekurik lortu ez zuten alderdiek botoen %10 baino gehiago eskuratu zuten. Ehuneko hori bereziki handia izan zen Etxarri (%46), Zirauki (%35), Bargota (%33), Aras (%29) edota Biurrunen (%21). Udalerrri horietan, Alderdi Karlista izan zen jarlekurik lortu ez zuten alderdien artean babes elektoral garrantzitsuena lortu zuen alderdia. 2015eko hauteskunderetan, alderdi horrek jada ez du garai hartan eskuratu zuen babes elektorala lortzen. Hori dela eta, udalerrri horietan, gainbehera handia izan du jarlekurik lortzen ez duen blokeak: Etxarri (-%33), Bidaurreta (-%32), Zirauki (-%31) eta Bargota (-%29). Gainerakoan, hautesle errola handiena duten udalerrietan ez da aldaketa handiegirik gertatu, salbuespenak, Tafalla (-%11) eta Atarrabia (-%11).

57. irudia: Jarlekurik lortu ez duten alderdiek jasotako babes elektoralaren bilakaera (1983-2015).

1983ko hauteskundeak



2015eko hauteskundeak: bilakaera



Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Egileak moldatua.

4.3 Hausnarketa Hego Euskal Herriko sistema politikoaren inguruan

Azpikapitulu honetan Hego Euskal Herriko errealitate elektorala aztertu da nazio zapalduaren begiradatik. Horretarako, bi elementu aztertu dira: batetik, sistema elektorala, alegia, hauteskunde prozesua arautzen duen legedia; eta bestetik, hauteskundeetako emaitzak. Azken hori aztertu da bi ikuspuntutatik: hurbilketa instituzional lehiakorraren eta hurbilketa geografikoaren bidez.

Azterketa hori egin ostean atera den ondorioa da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen ezaugarri nagusia dela gizartearen sektore zabal baten onespenerik gabe inposatutako sistema politikoa izatea. Lasagabasterrek (2006) erakusten duen moduan, aspalditik datoz tirabirak. Alde horretatik, lan honetan uste da hiru gertaera daudela 1978tik aurrera Hego Euskal Herrian egituratzen den sistema politikoaren oinarrian: 1) EAEko herritarrek Konstituzioari emandako babes apala; 2) 1981eko otsailaren 23ko Estatu kolpea; 3) NFEko Foru Hobekuntza indarrean jartzeko galdeketa egin ez izana. Araujok “prozedura ez eredugarri” gisa definitzen duenak eragin du sistema politikoari errezeloa izatea gizartearen zati batek, bereziki euskal nazionalismoaren inguruan kokatzen den mugimenduak. Espainiar nazio politikoaren mitoa eta bere inposizioa da sistema politiko honen ezaugarri nagusia. Sistemak izan duen atxikimendu sozial faltak, eta Estatuaren aldetik lurralde batasuna legitimatu eta erreproduzitzeko erabilitako biolentzia fisiko eta sinbolikoak egiten du berezia izatea Hego Euskal Herriko sistema politikoa. Baita asimilazio prozesu horren aurrean euskal nazioak erakutsitako erresistentziak ere. Edonola ere, ikertzaile guztiak ez datoz bat lan honen irakurketarekin. Llerak, esaterako, erdigunean nazio zapalkuntzaren auzia jarri beharrean, arreta jartzen du ETaren berezitasunean. Horrela, ETaren fenomenoaren izendatzen du Hego Euskal Herriko sistema politikoaren “anomaliaren” iturburu gisa:

El final de la violencia abre, sin duda, una etapa totalmente diferente, en la que, poco a poco, el miedo y la coerción irán dejando paso a una sociedad cada vez más normalizada y libre, equiparable al resto de democracias occidentales y donde las opciones políticas tengan las mismas oportunidades políticas y compitan en plano de igualdad. (Llera, 2016a, 20. or.).

ETA erakundeak 2018an iragarri zuen bere ekinbide politikoa bukatutzat jotzen zuela. Alabaina, oraindik bere horretan jarraitzen du sistema politiko arrotzak euskaldunengan eragiten duen zapalkuntzak.¹²⁹ Menderakuntza hori egunero erreproduzitzen da esfera desberdinetan, hala nola: akademian. Horregatik guztiagatik, lan honetan uste da

¹²⁹ Honen inguruan luze eta sakon idatzi du Azurmendik (1997) *Demokratak eta biolentzakoak* liburuan. Lan honetan Azurmendiren ildoak hartzen da erreferentzia moduan.

Espainiar nazio politikoaren mitoa eta bere inposizioa direla Hego Euskal Herriko sistema politikoaren “anomaliaren” iturburuan dauden elementuak.

Araubide juridikoari begiratzuz gero, sistema demokratiko gisa kategorizatzen du Espainiar Konstituzioak bere burua. Hauteskundeak oinarrizko prozesuak dira sistema demokratikoen funtzionamendurako. Alde horretatik, Espainiako Konstituzioak zehazten du espainiar instituzioetako hautagaiak libreki eta sufragio unibertsalaren bidez eta sekretupeko botoarekin hautatzen direla. Beraz, lehen begiratuan, badirudi Europa Mendebaldeko sistema demokratikoen parametroak betetzen dituela. Alabaina, aurrez aipatu den moduan aurretikoa da arazoa, hots, sistemaren legitimazioari buruzkoa. Euskal gizarteak historikoki erakutsi du sistema politiko alternatiboa eratzeko borondatea. Gatazka nazional horrek beste gatazka batzuekin batera eragin du gizartearen zatikatzea eta polarizazioa oso altua izatea.

Sartoriren (2012) sailkapena erreferentzia moduan hartuz gero, ikusten da 1980-2016 bitartean EAeko eta NFEko alderdi sistemak hartzen duten forma sistema plural eta polarizatuari dagokiona dela. Forma horren ezaugarri nagusiak hiru dira: bat, bost alderdik baino gehiagok izatea politika baldintzatzeko gaitasuna; bi, alderdi horien artean bat “antisistema” izatea; eta hiru, azken honekin bateragarria ez den beste alderdi bat egotea alderdi sisteman.

Horregatik da lan honetan interesgarria alderdi antisistemaren inguruan gogoeta egitea. Izan ere, nazioaren gaineko irakurketa pentsamendu modernoak ezartzen duen linea abismalaren beste aldetik egin nahi bada, funtsezkoa da antisistema “nor” den baino lehenago kategoriak “nork” jartzen dituen galdetzea. Alegia, proposatzen da honako dikotomian arakatzea: sistema/antisistema. Alde horretatik, ezker abertzalea alderdi antisistema dela diotenen kasuan, gogoan izan behar da euren pentsamendua gorpuzten dela espainiar sistema modernoaren parametroetan. Zer gertatzen da, ordea, sistema beste begirada batekin –ez-mundutik– aztertu nahi bada? Beste modu batera esanda, zer gertatzen da sistema Espainiar Konstituzioaren legitimitatetik ikusi beharrean, KAS alternatibatik edota Telesforo Monzonek berak aldarrikatzen zuen Fronte Nazionalaren perspektibatik erreparatuz gero? Orduan pentsamendu modernoan oinarritzen diren alderdi espainiarrak bihurtzen dira euskal alderdi sistemaren aurkako, hots, antisistema. Izan ere, euskal alteritatearen ukazioan oinarritzen dute espainiar sistemaren izatea. Horregatik, atal teorikoan hobetsi den aniztasun epistemologikoa praktikara eraman nahi bada, ezinbestekoa da bi begirada horiek kontuan hartzea. Are gehiago, bi begiraden arteko botere harreman asimetrikoetatik abiatzea bien arteko elkarriketa.

Bilakaera politikoari dagokionez, 4.2.1 azpikapituluan ikusi da EAJren esku egon dela EAeko alderdi sistemaren zentro politikoa, eta berau izan dela alderdirik bozkatuena hauteskunde autonomiko guztietan. Bi koalizio mota egin izan ditu: batzuetan, bloke euskaldunarekin; eta, besteetan, espainiarrarekin. Alde horretatik, PSE alderdiarekin egin izan dituen paktuak dira espainiar sistema politiko autonomikoari egonkortasuna eman diotenak. Kasu horietan, EAJk alderdia jarri izan du aberriaren aurretik, hau da, zentralitate politikoa, euskal subordinazio politikoaren trukean.

Euskal batasun nazionala ordezkatzeko duten alderdiak elkartu diren uneetan, ardatz nazionalan konfiguratu izan da gatazka politikoa (Euskaldunak eta Espainolak). Hori egitean, euskal proiektuari subordinatu izan zaio zentralitate politikoa. Hala, espainiar botere judizial eta politikoen garesti ordainarazi zieten euskal alderdiei Lizarra-Garaziko saiakera: ezker abertzalearen kasuan, hamarkada bat baino gehiago iraun zuen legez kanporatze prozesua abian jarri zuten. EAJri dagokionez, erdigune politikoa kendu zion PSEk, PPrekin hitzarmena eginda, aukera txikiena izan zuenean. Hala, 2009an aurreneko aldiz, EAeko gobernua alderdi espainiarren eskuetan gelditu zen. Edonola ere, jabetu ziren gobernu espainiarraren aldeko hautua egiteak eragiten duela oposizioan euskal batasuna erreproduzitzea. Horregatik, batasun nazional hori pitzatzeko xedez, 2012tik aurrera berriro joera aldaketa agertu da sistema politikoan eta elkar hurbiltze bat egon da EAJ eta PSEren artean. Logika da aurrez aipatu dena: erdigune politikoa subordinazio nazionalaren truke.

NFEn egoera bestelakoa da guztiz, bereziki euskal abertzaleen babes elektoralak kasu hoberenean ere %30 ingurukoa izan delako. Ildo horretatik, 2015eko hauteskundeetan zentro-eskuinekoa den UPN izan zen lehen indarra. Bi dira azken honen proposamen nagusiak nazio ikuspegitik: politikoki, NFE eta EAeren arteko batasuna ekiditea; eta, kulturalki, euskal kulturaren hedapena oztopatzea. Hori guztia egiten du argudioak nafartasun erregional batez mozorroturik. Alabaina, gorabeherak sortu izan ditu muturreko jarrera horrek bere baitan. Besteak beste, CDNren sorrera ekarri baitzuen bere garaian. Gaur egun, badirudi espazio erregional basko/navarrista hori gero eta gehiago Geroa Bai ari dela bere egiten. Horrek ekarri du euskal alderdi abertzaleen blokeak inoizko emaitzarik onena lortzea.¹³⁰ Era berean, euskal blokean zentro-ezkerreko (EH Bildu) eta zentro-eskuineko (Geroa Bai) espazioan alderdi bana egonkortu da botoen %15eko babesarekin. Gauzak horrela, EAeko eta NFEren desberdintasun nagusia da euskal blokearen babes elektoralaren artean dagoen desberdintasuna. EAEn %50-%65aren artean ibili den bitartean, NFEn kasu hoberenean iristen da %30era.

¹³⁰ Adierazpen honek ikerketa propioa beharko luke baina hipotesi gisa baliagarri litzake.

Desberdintasun hori gertatzen da, bereziki Iruñean eta handik behera, euskal alderdiek lortzen duten emaitza kaxkarren ondorioz. Horregatik, datu absolutuetatik haratago, interesgarria da emaitzen banaketa geografikoa ere kontuan hartzea.

Banaketa geografikoari dagokionez, EAEko lurraldean euskal alderdiak nagusi dira ia udalerrri guztietan eta udalerrri guztietan lortzen dute babes elektoral sendoa. Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri euskaldunetan, adibidez, erabatekoa da euskal blokearen hegemonia. Horrela, espainiar alderdiek ia botorik ez dute lortzen. Alde horretatik, Arabako hegoaldea da espainiar alderdien indargune nagusia. Edonola ere, azken urteotan euskal alderdiek udalerrri horietan gero eta emaitza elektoral hobeak lortzen dituzte. NFEan, aldiz, hiru eremu elektoral bereizten dira. Azken hauteskundeetan, Nafarroa iparraldeko udalerrietan Gipuzkoako joera ari da agertzen eta gero eta apalagoak dira UPN nahiz beste alderdi espainiarrek lortzen dituzten emaitzak. Iruñeko kasuan, alderdi abertzaleak gero eta emaitza hobeak lortzen dituzte. Deigarria da Geroa Bai alderdiak izan duen gorakada eremu horretan. Aldiz, Iruñetik behera indar nagusiak alderdi espainiarrak dira, bereziki PSN eta UPN.

Laburbilduz, lan honetan uste da aurrera begira analisi elektorala egiterakoan kontuan hartu beharreko puntuak honako hauek direla: bat, ez dago euskal sistema politiko burujaberik; bi, euskal proiektu nazionala politikoki erdal sistemaren baitan dago subordinatuta; hiru, alternatiba ezak eragiten du sistema arrotzean parte hartzera kondenatuta egotea, eta horrela, erdal sistema plural eta polarizatu baten sorrera ahalbidetzea; lau, espainiar sistema politikoaren legitimitatea auzitan jartzeak ekarri du ezker abertzalea alderdi antisistema gisa kategorizatzea; eta bost, zentralitate politikoa ahalbidetzen dio EAJri euskal proiektu propio baten aldeko ekimena intentsitatez jaisteak.

5. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKO ETA ELEKTORALEN ARTEKO HARREMANA

Orain arte, ikerketa honen asmoa izan da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara nazio zapalduaren begiradatik aztertzeke oinarri teoriko eta enpirikoak ezartzea. Behin oinarriok ezarrita, atal honetan ikerketa objektua aztertzeari ekingo zaio. Alde horretatik, atal teorikoan ikusi da, beste batzuen artean, lerrokatze linguistiko elektoralara aztertzerakoan, gutxienez, bi begirada bereizten direla: periferikoa (Mediterraneanar eredu) eta zentro alternatiboa (Nazio zapalduaren eredu).¹³¹

Garrantzitsua da bi eredu ideal horien bereizketa egitea, izan ere, begirada bat edo bestea hobesteak erabat baldintzatzen du euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko ulerkerak. Bi eztabaida sor daitezke auzi honen inguruan: bata, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren existentziaren ingurukoa; eta bestea, lerrokatze elektoral horren jatorriaren eta izaeraren gaineko interpretazioarena. Lehen puntuaren inguruan ez dago horrenbesteko eztabaidarik. Datuek argi erakusten dute bi aldagaien artean erlazio lineala dagoela. Juan Jose Linzek, esaterako, honako gomendioa egin zuen *Atlas Electoral del País Vasco y Navarra* (1981) liburuaren ondorioen atalean, aurrera begira jorratu beharreko bidearen inguruan:

Indudablemente este Atlas se potenciaría con la publicación a la misma escala de un atlas lingüístico (...). Ciertamente ayudaría mucho a la comprensión de las conductas políticas tener el mapa de la venta a nivel municipal, de Deia, Egin, la Gaceta del Norte, El Correo Español, El Pueblo Vasco, El diario de Navarra, etc. También es interesante señalar las coincidencias del mapa político con el mapa de origen geográfico de los escritos contemporáneos en euskera por comarcas, basados en datos de Torrealday. (Linz et al., 1981, 35-36. or.).

Ikusten den moduan, Linzek 1981en argitaratutako liburuan, ezinbestekoa ikusten zuen Hego Euskal Herriko hauteslearen portaera elektoralara ulertu nahi duenak hizkuntzaren auzia kontuan hartzea. Edonola ere, aurrez ikusi den moduan, eztabaida ez da mugatzen euskal lerrokatze linguistikorik badagoen edo ez dikotomiara. Aitzitik, honakoa da eztabaidaren muina: nola interpretatu behar da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara?

¹³¹ Irakurketa periferikoa egiten duenak ulertzen du Espainiar eta Frantziar Estatuaren baitako erregio jakin batean badela berezitasun kulturalak dituen komunitate bat –euskal nazio etnikoa– esentzia eta ezaugarri objektibo batzuen inguruan artikulatzen dena. Komunitate hori aurre-modernoa da eta ez du zerikusirik modernitatean sortu den nazio zibikoarekin. Irakurketa honen arabera, historiaren trenak ihes egin dio euskal nazio etnikoari. Horregatik, kondenatua dago bere burua Frantziar eta Espainiar nazio politikoaren baitan urtzera modernizazioaren izenean. Ikusten den moduan, irakurketa horren oinarrian nazioaren gaineko dikotomia etniko eta zibikoa dago. Aldiz, nazio zapalduaren ereduak ulertzen du euskal nazioa mendeko egoeran dagoela. Alde horretatik, kultur minorizazioa ez da kasualitatea. Aitzitik, burujabetza politikorik ez izatearen ondorio da. Hau da, asimilazio prozesuaren emaitza litzateke. Hori gutxi ez eta, kultur minorizazioa oztopo bihurtzen da kontzientzia nazionalaren hedapenerako. Horregatik guztiagatik, bigarren irakurketaren arabera euskal kasua aztertu behar da botere harreman asimetricoen logikatik, non euskal nazioaren minorizazio egoera ulertzea proposatzen den prozesu ez-natural eta biolento baten emaitza gisa.

Hurbilpen periferikotik egin diren ikerketa gehienek arreta jarri dute bereziki euskal lerrokatze linguistiko elektoralean. Alabaina, Hego Euskal Herrian gertatzen den lerrokatze linguistiko bakarra al da euskal kasua?

Nazio zapalduaren begiradatik errealtate soziolinguistiko eta elektorala aztertu ostean, Hego Euskal Herrian ikusi da bi komunitate kultural daudela politikoki artikulatuta. Begirada periferikoak bereziki arreta jartzen du izaera erregionala edukiko lukeen euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan. Alabaina, nazio zapalduaren ereduaren hipotesia da politikoki antolatuta dauden bi kultura dauden neurrian, Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: euskalduna eta espainiarra. Horretarako, honako irizpidea hartzen da abiapuntutzat: nazio normalizatu guztietan gertatzen dira lerrokatze linguistiko elektoralak, eta beraz, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan pitzadura kultural/politikoa agertzen bada, ikertzaileak ulertzen du azken horren arrazoia euskal nazioak bizi duen mendekotasun egoera dela.

Lan honetan uste da euskal lerrokatze linguistiko elektorala bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoa dela nazio zapalduaren begirada txertatzea. Horregatik, atal honen helburua da euskal lerrokatze linguistiko osotasunean ulertzeko akademian hegemoniko den irakurketarekiko alternatiba eskaintzea. Begirada honek bi ekarpen nagusi egiten ditu: batetik, mahai gainean jartzen da Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko gertatzen direla; eta bestetik, datuen berrinterpretazioak zantzuak eskaintzen ditu, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak pitzadurak izateaz gain, barne aniztasun handia duela pentsatzeko.

Hori guztia aurrera eramateko, hiru azpikapitulutan banatu da kapitulu hau: lehenean aztertzen da zein den euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko analisia egiteko erabili den metodologia kuantitatiboa; bigarren atalean, berriz, analisiaren emaitzak aurkezten dira; hirugarren azpikapituluan, azkenik, guztiaren laburpena egiten da eta aurrera begirakoak jasotzen dira.

5.1 Metodologia

Hauteskunde soziologian bi hurbilketa bereizten dira metodologia kuantitatiboaren baitan hautesleen portaera elektoralak aztertzeko hobetsi diren analisi unitatearen arabera: lehen aukera da datu indibidualetan oinarritutako azterketa probabilistikoa egitea; bigarren aukera da datu agregatuak erabiltzea.¹³²

Kapitulu honetan, datu agregatuak erabiltzen dituen analisi ekologikoaren aukera hobetsi da lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzeko. Izan ere, atal kuantitatiboaren baitan argitu nahi dena ez da norbanakoen portaera elektoralaren ñabarduretan arakatzea. Aitzitik, helburua da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak gizarte gertakari gisa aztertzea. Ondorengo hiru azpikapitulutan zehazten da nondik lortu diren datu agregatu horiek, zein diren laginaren ezaugarriak eta zein den analisia burutzeko erabilitako teknika.

5.1.1 Datu iturriak

Bigarren mailako datuez baliatu da ikerketa Hego Euskal Herriko lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko analisi agregatua egiteko. Zehatzago esanda, iturri ofizialetatik eratorritako datuak erabili dira, bai datu soziolinguistikoen kasuan, baita datu elektoralen kasuan ere.

Datu soziolinguistikoei dagokienez, bi dira euskararen inguruko datu iturri nagusiak. Alde batetik, *Inkesta Soziolinguistikoa* dago, 1991n argitaratzen hasi zena eta Eusko Jaurlaritzak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernuak (Euskarabideak) eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak finantzatzen dutena. VI. Inkesta Soziolinguistikoa egin zen 2016. urtean, eta 5 urtetik behin egin izan da aurrez. Inkesta honek euskararen eremu guztian biztanleriaren euskara ezagutza, transmisioa, erabilera eta jarreraren inguruko datuak kalkulatzeko ia 8.000 pertsonako lagina aztertuz (V. Inkesta soziolinguistikokoaren kasuan zehazki 7.800 inkesta egin ziren). Alde horretatik, lan bakarra da zazpi lurraldeetako biztanleriaren errealitate linguistikoaren inguruko datuak biltzen dituenak. Alabaina, aurkezten dituen datuak,

¹³² Honela laburbiltzen du Sonnleitnerrek (2013, 101. or.): “Existen dos grandes aproximaciones del voto en las ciencias sociales. La primera estudia el comportamiento electoral a partir de unidades territoriales agregadas en distintos niveles y escalas de la organización territorial. En la medida en la que se interesa en el contexto y en el entorno en el que se desarrolla el acto de votar, se la denomina y conoce como el análisis ecológico, metodología constitutiva y predilecta, aunque no exclusiva ni única de la geografía electoral. Este enfoque territorial y colectivo contrasta metodológicamente con la segunda manera de analizar el voto, desde una perspectiva que pueda calificarse de ‘individualista’, en la medida en la que privilegia las actitudes y convicciones, los atributos y las conductas, los cálculos y las preferencias individuales de los electores”.

gehienaz ere, eskualde edo probintzia mailakoak dira. Hori dela eta, datu iturri gisa ez da baliagarria unitate analisi bezala udalerrira erabiliz euskal lerrokatze linguistikoa kuantifikatzeko.

Bigarren datu iturria, berriz, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak* izeneko batu basea da Hego Euskal Herrian Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatu eta ekoizten dutena. Zentsu izaera duenez, EAEko eta NFEko administrazioek urtero biltzen dituzte hiritarren inguruan oinarritzko hainbat datu (jaiotzak, heriotzak, sexua, adina). Datu soziolinguistikoen kasuan, denbora tarte batetik behin administrazio horretako hiritarrei euren ezaugarri linguistikoen inguruan galdetzen zaie. EAEko kasuan, 1981etik¹³³ hasita bost urtean behin kuantifikatzen da udalerrira bakoitzeko biztanleen hizkuntza gaitasuna, transmisioa eta etxeko hizkuntzaren erabilera. NFEan, 1991tik hasita 10 urtetik behin egiten da neurketa hori.

Gauzak horrela, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak* datu baseaz baliatu da ikerketa hau euskal lerrokatze linguistikoa kuantifikatzeko. Datu iturri hori hobesteko arrazoi nagusia da datu basearen tamaina (bilketa exhaustiboa) eta horrek eskaintzen duen moldagarritasuna. Izan ere, zentsuak unibertso osoaren datuak biltzen dituzenez, aukera ematen du udalerrira mailako ehunekoak eskuratzeko, *Inkesta Soziolinguistikoa* ez bezala. Dena dela, bada eragozpen bat. Hego Euskal Herria bi administrazio desberdinetan banatuta egoteak eragiten du EAEko eta NFEko datuak elkar gurutzatzea zailagoa izatea. Izan ere, EAEn datu soziolinguistikoa bost urtetik behin berritzen diren bitartean (1991, 1996, 2001, 2006, 2011, 2016), NFEan 10 urtetik behin berritzen dira (1991, 2001). Hori gutxi ez eta, 2011n, NFEko *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak* ez zuen jaso datu linguistikorik. Horren ordez, inkesta partzial baten bidez kalkulatu zituzten udalerrira guztietako euskara ezagutzaren datuak.¹³⁴

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, datu guztiak eskuragarri daude EUSTAT erakundearen web orrian. Erakunde publiko hori da informazio estatistiko ofiziala garatu, ekoitzi eta zabaltzeaz arduratzen dena. Hala, bere web orriak aukera ematen du

¹³³ 1981an jaso ziren euskara ezagutzaren datuak, 1986an euskara transmisioarenak. Etxeko euskara erabileraren datuak, aldiz, 1991tik atzera daude eskuragarri. Datu iturri soziolinguistikoa desberdinen inguruko oinarritzko argibideak bikain laburbiltzen ditu Iurrebasok (2016, 89. or.).

¹³⁴ Euskarabidea Nafarroako Euskararen Institutua erakunde autonomoak utzi zizkigun 2011ko datu horiek. Beraz, ez dago 2011ko NFEko udalerrietako euskara transmisioaren eta etxeko euskara erabileraren daturik.

serie historikoak atalean, hiritarren datu soziolinguistikoak eskuratzeko.¹³⁵ Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, Nafarroako Estatistika Institutuaren bidez lortu dira datuak.

Datu elektoralak eskuratzeko, berriz, bi bide desberdin erabili dira. EAeko kasuan, ikerketa baliatu da Hauteskundeetako Emaizten Artxiboan jasota dauden datuez. Azken horiek, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak prestatu ditu jendeak ikusi eta erabili ditzan.¹³⁶ Bertan, 1977az geroztik EAEn antolatu diren hauteskunde guztietako datuak daude jasota, tartean, 1980tik 2016ra bitartean egin diren hauteskunde autonomikoetakoak. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, hauteskundeetako datuak lortu dira Nafarroako Estatistika Erakundetik. Erakunde honek jendearen eskura dauzka 1983az geroztik antolatu diren hauteskunde desberdinetako emaitzak.¹³⁷

5.1.2 Laginaren ezaugarriak

Aurreko azpikapituluan aipatu da *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak* bilketa exhaustiboa egiten duela, alegia, unibertso guztiaren datuak biltzen dituela. Edonola ere, administrazioak datuak aurkezten dituenean, analisi unitatea ez da norbanakoa, udalerrria baizik.¹³⁸ Hori dela eta, komenigarria da zehaztea urte bakoitzean zenbat udalerrri hartzen dituen kontuan datu baseak. Izan ere, udalerrriak banatu eta elkartu egiten dira. Ondorioz, egokitu egin behar dira datuak elkarren artean gurutzatu aurretik.

Datu soziolinguistikoen kasuan, azpiko taulan ikusten da, datuetan jasotzen den udalerrri kopurua Hego Euskal Herrian aldatu egiten dela 1991-2016 bitartean. 2016ko datuekin alderatuz, Bizkaian, adibidez, Ziortza-Bolibarko datuak falta dira 1991, 1996 eta 2001ean (2005 arte Markina-Xemeinen parte izan baitzen). Zierbenaren kasuan, Abandotik 1995ean banandu zen arren, 1991ko datuetan banatuta egon balira bezala zenbatzen du datu baseak. Gipuzkoan eta Arabako kasuetan, konstante mantendu dira udalerrriak (1991ko datuetan Gaztelu udalerriko datu soziolinguistikoak jasotzen ditu datu baseak, nahiz eta 1995ean sortu zen udalerrria). Nafarroan, berriz, 2001ean baino zazpi udalerrri

¹³⁵ Datuak eskuratzeko erabilitako link-a: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010152_cepv3_ne02.px (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/24).

¹³⁶ Datuak eskuratzeko erabilitako link-a: <https://www.euskadi.eus/web01-aphautes/eu/ab12aAREWar/?locale=eu> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/24).

¹³⁷ Datuak eskuratzeko erabilitako linka azpian ezartzen den honako hau da: <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3> (azkeneko aldiz begiratuta: 2021/05/24).

¹³⁸ Corbettak (2009, 254. or.) dioten moduan “una diferencia fundamental entre las estadísticas oficiales y la encuesta por muestreo es que para las primeras la unidad de análisis no es el individuo, sino una agrupación de individuos en un territorio, que puede ser un distrito electoral o censal, un municipio, una provincia, una región, una comarca, un país, etc.”.

gutxiago daude 1991ko datuetan. Honako hauek falta dira: Berribeiti, Berriozar, Irurtzun, Beriain, Orkoién, Zizur Nagusia eta Lekunberri.

56. taula: Udalerrri kopurua datu soziolinguistikoetan agertzen direnak.

URTEA	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Araba	51	51	51	51	51	51
Bizkaia	111	111	111	112	112	112
Gipuzkoa	88	88	88	88	88	88
Nafarroa	265	-	272	-	272	-

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea eta Euskarabidea. Egileak moldatua.

Datu elektoralei dagokienez, 2016an baino zortzi udalerrri gutxiago zenbatzen dira 1990eko hamarkadan. Bizkaian, adibidez, 2016ko datuekin alderatuz gero, 1994 eta 2005 bitartean, Ziortza-Bolibarreko datuak falta dira. Era Berean, 1994an ez dago Zierbenaren inguruko daturik. Gipuzkoan, 1995ean, Gazteluk Leabururekin banandu eta udalerrria osatu zuen. Horregatik daude 87 udalerrri zenbatuta 1994ko hauteskundeetan. Nafarroan, 1999an Javier udalerrriko hauteskunde mahaia baliogabetu zuten, horregatik ez da zenbatzen. Era berean, 1991ko hauteskundeetara beste udalerrri bat(zu)en baitan aurkeztu ziren honako udalerrriak: Irurtzun, Beriain, Orkoién, Zizur Nagusia eta Lekunberri. Horregatik guztiagatik, 1991ko Nafarroako Foru Hauteskundeetan soilik 267 udalerritako datuak daude jasota. Hori guztia kontuan hartu behar da datuak gurutzatzerakoan (IV. Eranskina).

57. taula: Udalerrri kopurua datu elektoraletan agertzen direnak.

URTEA	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Araba	51	51	51	51	51	51	51
Bizkaia	110	111	111	111	112	112	112
Gipuzkoa	87	88	88	88	88	88	88
URTEA	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
Nafarroa	267	272	271	272	272	272	272
	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA
Hego EH	515	522	521	522	523	523	523

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

Oharra: Datuetan udalerrri bat balitz bezala agertzen da atzerrian bizi diren egoiliarren hautesle errolda (AEHE). Taula honetan, ez da zenbatu AEHE udalerrria. Arrazoia da horien inguruko datu soziolinguistikorik ez dagoela.

5.1.3 Datuen analisia

Aurreko atalean aipatu diren datuak aztertzeko bi programa informatiko erabili dira: Excel eta SPSS programa. Ikerketa hau Excel programaz baliatu da analisia egin ahal izateko datuak jaitsi, egokitu eta prestatzeko. Behin datuak egokituta, SPSS 21 programarekin ireki da artxiboa, eta bere bidez egin dira datuen gaineko analisi estatistikoak.

5.1.3.1 Analisisirako tresna estatistikoa

Hiru dira geografia elektoralaren ikuspegitik fenomeno elektoral bat aztertzeko analisi mailak: 1) azterketa deskriptiboa, 2) korrelatiboa eta 3) esplikatiboa (Sonnleitner, 2013). Ikerketaren diseinua kontuan izanda, korrelazio koefizientea da ikerketa honetan datuen analisia egiteko erabili dugun teknika estatistikoa.


58. taula: Analisi elektoralak egiteko geografia elektoralak eskaintzen dituen hiru dimentsioak.

Analisia	
Deskriptiboa	“Para empezar, la cartografía puede utilizarse simplemente con fines analíticos y/o pedagógicos, para representar y describir la distribución espacial de los comportamientos electorales. Esta es, sin duda, la forma en que se conoce y utiliza con mayor frecuencia, tanto en los medios de comunicación como en los estudios académicos, que recurren a ella sobre todo para ilustrar visualmente sus principales argumentos y conclusiones. Por elemental que parezca esta primera posibilidad, no resulta menos estimulante, útil y eficiente, en la medida en que permite situar con precisión dónde ocurre concretamente tal o cual fenómeno sociopolítico”.
Korrelatiboa	“Pero la cartografía también puede utilizarse de manera más metódica, para comparar las dinámicas territoriales del voto y para relacionarlas con otros procesos demográficos, económicos y socioculturales. Detrás de esta aproximación “ecológica” se encuentra la siguiente idea: si la distribución geográfica de dos (o más) procesos sociopolíticos está fuertemente relacionada entre sí, también es probable que exista un vínculo concreto y más profundo entre ellos. Esa es la premisa básica de la geografía electoral clásica, que busca relacionar el voto con una serie de variables demográficas y ecológicas, económicas y socioculturales, en vistas de formular hipótesis explicativas sobre los condicionantes “pesados” y estructurales del comportamiento político”.
Esplikatiboa	“Finalmente, cabe destacar una tercera manera de utilizar la cartografía, ya no solamente para verificar la pertinencia de hipótesis formuladas de manera externa e independiente, sino para explorar las dimensiones propiamente espaciales de los procesos socioculturales, así como sus relaciones y efectos sobre el voto. Se trata, entonces, de descubrir los territorios y las fronteras de los comportamientos sociopolíticos, que varían en función de los distintos niveles y escalas de observación y sólo pueden apprehenderse mediante herramientas específicas de análisis espacial”.

Iturria: Sonnleitner (2013, 111-112. or.). Egileak moldatua.

Korrelazio koefizientearen helburua da aldagaien arteko erlazio lineala kuantifikatzea. Beste modu batera esanda, teknika hau erabiltzen da, aldagai bat handitu ahala, besteak ere handitzeko joera duen aurreikusteko. Ikerketa honetan, analisi unitatea udalerrri delarik, bi aldagai gurutzatzen dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralak aztertzerakoan: udalerrri bateko datu soziolinguistikoaren ehunekoa eta udalerrri bereko emaitza elektoralen ehunekoa. Ikusten den moduan, udalerrri bateko datuak aurkezterakoan, balio osoak erabiltzen dira testuan zehar, adibidez: Aramaio (82_x: euskara; 87_y: botoa). Edonola ere, irudian hamartarrak mantendu dira udalerrri bakoitzaren datuak aurkezterakoan.

58. irudia: Irudi bidezko analisi korrelatiboaren adibidea.



Iturria: Egilea.

Oharra: Adibide honetan, grafikoak osatzerakoan honako datuak daude (x ardatza: udalerri bateko euskara gaitasuna; y ardatza: euskal alderdiek jasotako botoak %tan; eta, z ardatza: udalerrietako hautesle errolda (borobilen tamaina).

Bi dira analisi korrelatiboak emaitzak interpretatzeko eskaintzen dituen aukerak: irudi bidezkoa eta zenbaki bidezkoa. Goiko irudian ikusten da, udalerri bateko euskara ezagutza igo ahala, euskal alderdi abertzaleek lortzen duten babes elektorala orduan eta handiagoa dela. Alde horretatik, irudiak bi aldagaien erlazio linealaren irudi orokorra eskaintzen badu ere, begi hutsez ezin da kuantifikatu bi aldagaien arteko korrelazioa. Hori ahalbidetzen duena da zenbaki bidezko analisia. Kasu honetan, zenbaki bidezko analisia egiteko erabili da Pearsonen korrelazio koefizientea.

59. taula: Zenbaki bidezko analisi korrelatiboa egiteko kontuan izan beharreko aldagaiak.

ALDAGAIAK	INTERPRETAZIOA
Sendotasuna:	Bi aldagaien arteko harremana aztertu behar da balio absolututan. Alegia, korrelazio koefizienteak hartu ditzakeen balioak dira otik 1era doazenak. Hala, koefizientearen balioa 1etik zenbat eta gertuago orduan eta sendoagoa da bi aldagaien arteko erlazio lineala. Aldiz, otik zenbat eta gertuago bi aldagaiek, harremanik ez dute izango batak bestearekin.
Zeinua	Sendotasunaz gain kontuan izan beharreko beste aldagaia da zeinuarena. Alde horretatik, korrelazio koefizientea izan daiteke positiboa edo negatiboa. Bi aldagaien arteko harremana positiboa da aldagai askea igo ahala mendeko aldagaiek ere goranzko joera duenean, aldiz, negatiboa da alderantziz gertatzen den kasuetan.
Adierazgarritasun maila (p):	Bi aldagaien arteko lotura o izateko dagoen probabilitatea. Gauzak horrela, probabilitatearen balioa 0,05 baino txikiagoa den kasuetan baztertu egiten da hipotesi nulua. Beste modu batera esanda, aurreikusten da aldagaien artean erlazioa dagoela.
Laginaren tamaina	Lagina osatzen duten analisi unitate kopurua

Iturria: J. Etxeberria (1989; 2011) eta Juaristi (2013). Egileak moldatua.

Azken honen kasuan, hiru aldagai hartu behar dira kontuan: sendotasuna, zeinua eta esangura edo adierazgarritasuna. Datu horiek banan bana agertzen dira azpiko taulan.

60. taula: Zenbaki bidezko analisi korrelatiboaren adibidea.

		Y aldagaia Emaiza elektoral 1994/1991	Y aldagaia Emaiza elektoral 1998/1995	Y aldagaia Emaiza elektoral 2001/1999	Y aldagaia Emaiza elektoral 2005/2003	Y aldagaia Emaiza elektoral 2009/2007	Y aldagaia Emaiza elektoral 2012/2011	Y aldagaia Emaiza elektoral 2016/2015
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 1991	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,817** ,000 513	,800** ,000 515	,834** ,000 514	,835** ,000 515	,822** ,000 515	,803** ,000 515	,803** ,000 515
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 1996	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,837** ,000 513	,821** ,000 515	,852** ,000 514	,853** ,000 515	,837** ,000 515	,821** ,000 515	,819** ,000 515
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 2001	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,838** ,000 515	,824** ,000 522	,858** ,000 521	,860** ,000 522	,847** ,000 523	,832** ,000 523	,834** ,000 523
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 2006	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,858** ,000 515	,841** ,000 522	,873** ,000 521	,860** ,000 522	,873** ,000 523	,850** ,000 523	,853** ,000 523
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 2011	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,855** ,000 515	,840** ,000 522	,876** ,000 521	,880** ,000 522	,873** ,000 523	,861** ,000 523	,861** ,000 523
X aldagaia Adibidez: Euskara gaitasuna 2016	Pearson korrelazio koefizientea Adierazgarritasuna. (bilateral) Laginaren tamaina.	,873** ,000 515	,860** ,000 522	,892** ,000 521	,895** ,000 522	,884** ,000 523	,876** ,000 523	,874** ,000 523

p** < 0,01
Iturria: Egilea.

Taulak erakusten du bi aldagaien arteko erlazio lineala sendoa dela. Izan ere, 0 eta 1 artean, 0,8 eta 0,9 arteko balioa du korrelazio koefizienteak. Zeinuak erakusten du harremana positiboa dela, alegia, x aldagai askea igo ahala, y aldagai askea hazi egiten dela. Era berean, adierazgarria da erlazio lineala. Alegia, bi aldagaien arteko harremana 0 izateko probabilitatea 0,01 baino txikiagoa denez, onartzen da bi aldagaien artean harremana dagoela. Honek guztiak, indartu egiten du euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko hipotesia eta bere inguruko ezaugarriak erakusten ditu. Laginaren tamaina da taulak eskaintzen duen laugarren datua. 2016an esaterako, taulan ikusten da korrelazio koefizientearen kalkulua egin dela 523 udalerriren datuak gurutzatuz.

5.1.3.2 Analisiaren prozedura

Lerrokatze linguistiko elektoralak izeneko bosgarren atal honen sarreran aipatu da ataleko helburu nagusia dela euskal lerrokatze linguistiko elektoralak nazio zapalduen perspektibatik interpretatzeko oinarriak ezartzea.

Alde horretatik, eredu horren logikan artikulatzen dira analisirako eraiki diren kategoriak. Akademian hegemoniko den begiradak Hego Euskal Herrian bereziki arreta euskal lerrokatze linguistiko elektoralen jartzen badu ere, lan honetan azpimarratu nahi da bi komunitate kultural nagusiek dutela ahalmena lerrokatzeak eragiteko. Gauzak horrela, datu linguistikoaren kasuan sei dira proposatzen diren aldagai askeak: hiru

euskarari dagozkionak (euskara gaitasuna, euskara lehen hizkuntza eta euskararen erabilera etxean) eta beste hiru gaztelaniari dagozkionak (gaztelania gaitasuna, gaztelania lehen hizkuntza eta gaztelaniaren erabilera etxean).

61. taula: Korrelazio koefizienteak kalkulatzeko gurutzatzen diren aldagaiak.

	X ALDAGAIA	Y ALDAGAIA
EUSKARA	Gaitasuna Lehen hizkuntza Etxeko erabilera	Euskal alderdiek jasotako botoa Euskal ezkerak jasotako boto ehunekoa Euskal eskuinak jasotako boto ehunekoa Espainiar alderdiek jasotako botoa Espainiar ezkerak jasotako boto ehunekoa Espainiar eskuinak jasotako boto ehunekoa Besteak: ordezkariarik lortu ez duten beste alderdiak
GAZTELANIA	Gaitasuna Lehen hizkuntza Etxeko erabilera	Euskal alderdiek jasotako botoa Euskal ezkerak jasotako boto ehunekoa Euskal eskuinak jasotako boto ehunekoa Espainiar alderdiek jasotako botoa Espainiar ezkerak jasotako boto ehunekoa Espainiar eskuinak jasotako boto ehunekoa Besteak: ordezkariarik lortu ez duten beste alderdiak

Iturria: Egilea.

Ikusten den moduan, emaitza elektoralen kasuan *euskal boto abertzaleaz* eta *espainiar boto abertzaleaz* gain, hirugarren multzo bat gehitu da *besteak* bezala izendatu dena. Azken multzo hori osatzen dute alderdi sisteman ordezkariarik lortzen ez duten alderdiek. Horrekin ez da esan nahi alderdi horiek naziotasun partikular bat ez dutenik. Baina ordezkariarik lortzen ez dutenez, ez daude behartuta sistema politikoaren bizkarrezurra osatzen duten saretze bertikal edota zatiketa sozialen inguruan jarrera bat hartzera. Horregatik, bereizi egin dira ordezkariak lortzen duten alderdietatik. Era berean, *clivaje* sozialaren aldagaia gehitu da ordezkariak lortu duten alderdien artean. Kategoria horiek ezartzerakoan, erreferentzia moduan hartu da atal teorikoan proposatu den *clivajearen* teoriaren gaineko interpretazioa.

Bestalde, datu iturriek determinatzen dute analisiak barne biltzen duen denbora tartea. Izan ere, 1990eko hamarkada aurretik ez dago euskararen ezagutza, transmisioa eta etxeko erabilera hirurak batera jasotzen dituen daturik. Alde horretatik, 1991-2016 epealdian 7 hauteskunde autonomiko antolatu dira NFEan eta EAEn. Azpiko taulan zehazten da zein diren gurutzatu diren datu soziolinguistiko eta elektoralak urteen arabera.

62. taula: Korrelazio koefizientea lortzeko gurutzatzen diren datuak (EAE).

EAE	HAUTESKUNDEAK (URTEA)						
URTEA: botoa → Euskara	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
1991							
1996							
2001							
2006							
2011							
2016							

Iturria: Egilea.

Nafarroari dagokionez, EAeko kasuan ez bezala, euskararen inguruko datuak ez dira 5 urtetik behin jaso. Gainera, 2011n, zentsutik lortutako datuak eduki beharrean, inkesta bidez lortutako datuak daude jasota. Gauzak horrela, 2011ko hauteskundeetako datuen eta euskararen datuen arteko lotura aztertzerakoan, euskara ezagutzaren datuak soilik hartuko ditugu kontuan. Beste bien kasuan, korrelazio koefizientea kalkulatzeko emaitza elektoralak gurutzatu dira 2001eko zentsutik lortutako euskara transmisioa eta etxeko erabilerarekin. Ondorioz, lan honek bere gain hartzen ditu denbora fase horretan gertatzen diren desfaseak.

63. taula: Korrelazio koefizientea lortzeko gurutzatzen diren datuak (NFE).

NAFARROA	HAUTESKUNDEAK						
URTEA: botoa → Euskara	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
1991							
2001							
2011							

Iturria: Egilea.

5.2 Emaitzak

Aurreko azpikapituluan zehaztu da korrelazio koefizienteaz baliatzen dela lan hau Hego Euskal Herrian gertatzen diren lerrokatze linguistiko elektoralen inguruko ezaugarri nagusiak zedarritzeko. Alde horretatik, bi azpikapitulutan banatu da emaitzen atala: aurreneko zatian sakontzen da Hego Euskal Herrian gertatzen diren lerrokatze linguistiko elektoralen inguruan; bigarren zatian, berriz, arreta jarri da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ñabarduretan.

5.2.1 Lerrokatze linguistiko elektoralak Hego Euskal Herrian


Honako bi hizkuntzari aitortzen diote ofizialtasuna NFEko eta EAeko erakundeek, maila desberdinetan bada ere: euskarari eta gaztelaniari. Era berean, nazio jatorriari dagokionez, bi naziotasun desberdinetako alderdiak dira NFEko eta EAeko alderdi sistemetan ordezkaritza lortzen dutenak: espainiarrak eta euskaldunak. Ildo horretatik, lan honetan defendatzen den posizioa da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan bi lerrokatze gertatzen direla: euskal lerrokatze linguistiko elektoralak, eta espainiarra.

5.2.1.1 Bi kasuak: euskal eta espainiar lerrokatzea


Hego Euskal Herriko errealitatea aztertu aurretik, ordea, Nazio zapalduaren ereduaren arabera, aurrena begirada jarri behar da Espainiar estatuan. Izan ere, pentsamendu gutxituak ezinbestekoa du beregain duen kartzela epistemikoa deseraikitzea bere pentsamendu propioa eraiki aurretik. Alde horretatik, interesgarria da aztertzea zer nolakoa den Espainiar estatuko hiriburu desberdinetan hiritarren gaztelania ezagutzaren eta alderdi espainiarrek jasotako babes elektoralaren arteko harreman linguistiko eta elektoral.

59. irudia: Lerrokatze linguistiko elektoral hauteskunde autonomikoetan: Madril, Bartzelona, Coruña eta Bilboko kasuak, 2015.

Espainiako alderdiak soilik lortzen duten babes elektoral



Nazio ezberdinetako alderdiek lortzen duten babes elektoral




Iturria: Egilea.

Goiko grafikoak erakusten du Madrileko hiriburuan lerrokatze linguistiko elektoral perfektua gertatzen dela. Bertan, hautesle guztiak gaztelar hiztunak izateaz gain, espainiarrak dira ordezkariak lortzen duten alderdi guztiak. Ikusten den moduan, Madrileko kasuak duen berezitasunaren atzean dagoena da lurralde horretan alderdi sistema egituratzeko gaitasuna duen nazio bakarra espainiar nazioa dela. Ondorioz, espainiarrak dira alderdi sisteman babes elektoral lortzen duten alderdi guztiak. Antzeko kasua gertatzen da Santanderren, baina ñabardura batekin. Kantabriako hauteskunde autonomikoek duten bereizgarria da espainiar alderdi sistemaren baitan *clivaje* erregionala artikulatzen dela. Alde horretatik, ordezkariak lortzen duten alderdiak dira izaera estatala (Podemos, PSOE, PP edota C's) eta erregionala (PCR) dutenak. Edonola ere, guztira %100 izaten jarraitzen du boto espainiarrak. Eta, beraz, perfektua da espainiar lerrokatze linguistiko elektoral, gaztelania ezagutza %100 izateaz gain, hautagai zerrenda guztien jatorrian espainiar nazioa baitago.


84. irudia: Alderdi sistemak; “zentrokoak (Madril) eta periferiakoak (Kantabria).

*Madriko alderdi sistema
(2015)*



X ardatza: –
Y ardatza: ezker/eskuin

*Kantabriako alderdi sistema
(2015)*



X ardatza: zentro/periferia
Y ardatza: ezker/eskuin


Iturria: Egilea.

Gainerako hiriburuetan, adibidez, Bartzelonan, Galizian eta Gasteizen, arras desberdinak dira espainiar lerrokatze linguistiko elektoralaren ezaugarriak. Hizkuntzari dagokionez, hiriburu horietan guztietan %100ekoa da gaztelania ezagutza. Alabaina, espainiar nazioarekin batera, bestelako nazio batzuek lortu dute Autonomia Erkidegoko alderdi sistemen egituratzaile bihurtu eta parlamentuan ordezkariak lortzea: katalanak, euskaldunak edota galziarrak. Horregatik, Espainiar estatuko hauteskunde autonomikoei erreparatu gero, honako hiru adibide hauek bereizten dira euren artean: 1) zentroko sistema; 2) sistema periferikoa; eta 3) zentro anitzak dituen sistema politikoa. Alde horretatik, zentro anitzak dituen alderdi sistemak dira NFEko eta EAeko sistema politikoak.

Zentroko sistemetan ikusten da baldintza normaletan dauden nazioetan hautesleen kulturak –hizkuntzak– erabat baldintzatzen duela botoa. Izan ere, sinbiosia gertatzen da hizkuntzaren eta botoaren artean. Alegia, boto emaile guztiak espainiar hiztunak dira eta soilik espainiar nazioak dauka gaitasuna ordezkariak politikoa lortzeko. Ondorioz, lerrokatze linguistiko elektoralaren eredu ideala da bertan gertatzen dena. Periferiako sistemen berezitasuna da estatu mailakoak ez diren alderdiek parte hartzen dutela. Alabaina, alderdi guztiek jarraitzen dute jatorri nazional berekoak izaten. Horregatik, sistema horietan ere perfektua da lerrokatzen linguistiko elektoralak. Alde horretatik, zer nolako lerrokatze linguistiko elektoralak gertatzen da zentro anitzak dituzten sistema politikoetan, hau da, NFEn eta EAEn? Hori da jarraian argitu nahi dena.

Datuek erakusten dute Madriko adibideak soilik balio duela Nafarroa hegoaldeko udalerrri gutxi batzuen kasua azaltzeko. Izan ere, EAEn eta NFEn udalerrri guztietan, gaztelaniaren ezagutza %100ekoa izan arren, udalerrri gehienetan apalagoa baita espainiar alderdiek jasotzen duten babes elektoralak.

60. irudia: Hizkuntza gaitasunaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko harremana Hego Euskal Herriko udalerrietan.



Iturria: Egilea.

NFEko eta EAEko datuek erakusten dute Madrilen antzeko ezaugarriak dituzten udalerrri bakarrak euskarak presentziarik ez duen udalerrriak direla. Hortik ondorioztatzen da gaztelaniaren ezagutzak, lehen begiratuan, ez duela eraginik hautesleen portaera elektoralean. Bestalde, harreman sendoa dagoela ikusten da udalerrri bateko euskara gaitasunaren eta boto espainiarraren artean.

Datuak positiboan gurutzatuz gero, 1990eko hamarkadatik atzera egin diren hauteskunde guztietan ikusten da harreman lineala dagoela udalerrri bateko euskara gaitasunaren eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren artean.

64. taula: Euskara gaitasunaren eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa Hego Euskal Herrian.

		Y aldagaia Emaita elektoral 1994/1991	Y aldagaia Emaita elektoral 1998/1995	Y aldagaia Emaita elektoral 2001/1999	Y aldagaia Emaita elektoral 2005/2003	Y aldagaia Emaita elektoral 2009/2007	Y aldagaia Emaita elektoral 2012/2011	Y aldagaia Emaita elektoral 2016/2015
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,817**	,800**	,834**	,835**	,822**	,803**	,803**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 1991	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,837**	,821**	,852**	,853**	,837**	,821**	,819**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 1996	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,838**	,824**	,858**	,860**	,847**	,832**	,834**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 2001	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	522	522	522
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,858**	,841**	,873**	,877**	,861**	,850**	,853**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 2006	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,855**	,840**	,876**	,880**	,873**	,861**	,861**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 2011	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia	Pearson korrelazio koefizientea	,873**	,860**	,892**	,895**	,884**	,876**	,874**
Adibidez:	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Euskara gaitasuna 2016	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523


p** < 0,01

Iturria: Egilea.

Behin puntu honetara iritsita, bidegurutze baten aurrean aurkitzen da ikertzailea. Bi irakurketa posible egin ditzake: lehen irakurketaren arabera, ez dago loturarik espainiar hizkuntza gaitasunaren eta botoaren artean. Begirada honek azpimarratzen du lerrokatze linguistiko elektoralak soilik euskal kasuan gertatzen dela (euskara gaitasunak baldintzatzen baitu botoa, ez gaztelania gaitasunak). Bigarren irakurketaren arabera, berriz, harremana dago euskara gaitasunaren eta euskal alderdiek jasotako botoen artean. Alabaina, bada ñabardura bat: erdal elebakarra izatea da hauteslearen botoa baldintzatzen duena, eta ez horrenbeste euskal hiztun izatea. Aurreneko begiradak, hau da, atal teorikoan Mediterranearen ereduak edo eredu periferikoa bezala izendatu denak, nazioaren gaineko zatiketa etniko/zibikoa erreproduzitzen du. Zeharka onartzen baitu lerrokatze linguistiko elektoralak eragiten duena bereziki euskal nazio etnikoa dela, espainiar nazio politikoaren partikulartasun kulturala oharkabean pasatzen den bitartean. Aldiz, bigarren begiradaren asmoa da unibertsaltasunaren gerizpean ezkututzen den espainiar lerrokatze linguistiko elektoralaren partikulartasuna erakustea. Are gehiago, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak normalizatu gabeko kasua den neurrian, proposatzen da euskal kasua interpretatzea nazio zapaldu baten logikan (Nazio zapalduaren ereduak).

Bigarren begirada horren arabera, gaztelania ezagutzaren eta espainiar botoaren arteko harreman ezak frogatzen duena da hizkuntza gaitasunak bere horretan ez duela eragiten portaera elektoralan. Izan ere, Hego Euskal Herriko zenbait udalerritan, gaztelaniaren ezagutza %100ekoa da, eta zenbait kasutan alderdi espainiarrek jasotako botoen ehunekoa ez da %5era iristen. Alde horretatik, EAeko eta NFEko kasuak erakusten duena da ingurune elebidunetan elebakartasuna dela aldagai pertinetea. Azken batean, hizkuntza gaitasunak baino gehiago, hizkuntza gaitasunik ez izatea baita hautesleen portaera elektoralak baldintzatzen duena. Zehatzago esanda, euskararen ezagutzak euskal alderdiei eragiten dien onura elektoralak baino handiagoa da espainiar alderdiei euskararen ezagutzak eragiten diena. Izan ere, datuek erakusten dute hizkuntza ezagutzak baino gehiago, hizkuntzaren transmisioa eta erabilera direla portaera elektoralak baldintzatzen dutenak. Hala, hizkuntza gaitasuna aldagai pertinetea bada, arrazoia da ezagutzak hizkuntzaren erabilera eta transmisioa murrizten duela. Hori da aurrera begira aztertzea proposatzen den hipotesia.

61. irudia: Euskararen transmisioak eta etxeko euskararen erabilerak euskal boto abertzalearekin duen harremana: Azpeitiako eta Tuterako kasuak.



Iturria: Egilea.

Hizkuntza gaitasunaren partez lerrokatze linguistiko elektoralaren oinarrian hizkuntza transmisioa eta hizkuntza erabilera dagoela azpimarratzeak zalantzan jartzen du beste behin nazioaren gaineko zatiketa objektibo-etniko/subjektibo-zibikoa. Izan ere, Nazio zapalduaren ereduak eskaintzen duen begiradaren arabera, lerrokatze linguistiko elektoralera eragiten duena ez da hizkuntza bat edukitzea, etxean erabiltzeko edota seme-alabei transmititzeko borondatea baizik. Horrela, orain arte ikusitakotik ondorioztatzen da hizkuntza bat zenbat eta gehiago erabili edota etxekoei transmititzeko joera zenbat eta sendoagoa izan, orduan eta handiagoa dela nazio bereko alderdiei bozkatzeko joera. Bai euskal kasuan, baina, baita espainiar kasuan ere.

65. taula: Gaztelaniaren transmisioaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa Hego Euskal Herrian.

		Y aldagaia Emaita elektoral 1994/1991	Y aldagaia Emaita elektoral 1998/1995	Y aldagaia Emaita elektoral 2001/1999	Y aldagaia Emaita elektoral 2005/2003	Y aldagaia Emaita elektoral 2009/2007	Y aldagaia Emaita elektoral 2012/2011	Y aldagaia Emaita elektoral 2016/2015
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 1991	Pearson korrelazio koefizientea	,817**	,788**	,817**	,815**	,793**	,759**	,772**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 1996	Pearson korrelazio koefizientea	,814**	,785**	,814**	,814**	,791**	,757**	,770**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 2001	Pearson korrelazio koefizientea	,808**	,779**	,807**	,806**	,781**	,746**	,764**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	522	522	522
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 2006	Pearson korrelazio koefizientea	,802**	,771**	,800**	,802**	,777**	,744**	,763**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 2011	Pearson korrelazio koefizientea	,797**	,766**	,796**	,799**	,774**	,742**	,761**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia: Gaztelera transmisioa 2016	Pearson korrelazio koefizientea	,791**	,759**	,790**	,794**	,768**	,737**	,757**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523

p** < 0,01

Iturria: Egilea.

Korrelazio koefizientearen balioei erreparatuz gero, gaztelania transmisioaren eta espainiar alderdiek lortzen duten babes elektoralaren arteko harremana ikusten da positiboa eta adierazgarria izateaz gain, oso sendoa dela. Beste horrenbeste gertatzen da etxeko gaztelania erabileraren kasuan.

66. taula: Etxeko gaztelania erabileraren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazioa.

		Y aldagaia Emaita elektoral 1994/1991	Y aldagaia Emaita elektoral 1998/1995	Y aldagaia Emaita elektoral 2001/1999	Y aldagaia Emaita elektoral 2005/2003	Y aldagaia Emaita elektoral 2009/2007	Y aldagaia Emaita elektoral 2012/2011	Y aldagaia Emaita elektoral 2016/2015
X aldagaia: Gaztelera erabilera 1991	Pearson korrelazio koefizientea	,792**	,767**	,791**	,788**	,765**	,728**	,741**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia: Gaztelera erabilera 1996	Pearson korrelazio koefizientea	,785**	,760**	,784**	,782**	,759**	,722**	,736**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	513	515	514	515	515	515	515
X aldagaia: Gaztelera erabilera 2001	Pearson korrelazio koefizientea	,768**	,739**	,768**	,767**	,744**	,707**	,725**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	522	522	522
X aldagaia: Gaztelera erabilera 2006	Pearson korrelazio koefizientea	,753**	,716**	,749**	,753**	,729**	,698**	,719**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia: Gaztelera erabilera 2011	Pearson korrelazio koefizientea	,763**	,731**	,762**	,765**	,741**	,709**	,727**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523
X aldagaia: Gaztelera erabilera 2016	Pearson korrelazio koefizientea	,762**	,730**	,760**	,764**	,740**	,707**	,726**
	Adierazgarritasuna. (bilateral)	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	Laginaren tamaina.	515	522	521	522	523	523	523

p** < 0,01

Iturria: Egilea.

Behin puntu honetara iritsita, datuek erakutsi dute Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko gertatzen direla. Alde horretatik, Espainiar lerrokatze linguistikoaren zentroa Madrilen dagoen bitartean, Azpeitian (edo beste udalerrri euskaldun batean) legoke euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ardatza. Begi bistakoa da bien botere harremanaren desoreka –Madril ≠ Azpeitia–. Alde horretatik, Tuterako kasua da zentzoko ereduarekiko antzekotasun handiena duena. Hain zuzen ere, euskararen presentzia anekdotikoa den lekuetan gertatzen dira horrelako egoerak. Gainerakoan, gizartea zenbat eta euskaldunagoa, orduan eta handiagoa da euskal alderdiei bozkatzeko joera. Are gehiago, hautesleen botoan eragiten duten aldagai adierazgarriak ikusi da lehen hizkuntza eta erabilera direla. Horrek, berriz, gogoeta hau jartzen du mahai gainean: espainiar guztiek gaztelania dakitenez, elebidunei dagokie bi hizkuntzen artean hautua egitea. Alabaina, zer gertatzen da euskaraz egin nahi baina euskaraz ez dakiten euskaldunekin? Edota euskaraz egin nahi eta erdaldunez inguratuta daudenekin? Azken horiek, gaztelaniaz bizitzera kondenatuta daude. Eta, datuek erakusten dute gaztelaniaz bizitzeak espainiar alderdiei bozkatzeko joera indartzen duela. Laburbilduz, mendeko egoeran bizitzeak ekarri du euskaldunek nahi eta ezinaren artean iraun beharra. Mendeko egoera horren ondorioz, nazio naturala higituz joan da. Hori dela eta, egun

pitzadura kulturalak/politikoak nabarmentzen dira euskal lerrokatze linguistikoaren baitan.


5.2.1.2 Euskal kasua: nazio zapaldua eta pitzadura kultural/politikoa

Espainiar nazioa natural erreproduzitzen den udalerrietan, hautesle guztiak gaztelaniaz jakiteaz gain, alderdi espainiarrei bozkatzeko diete. Hortik aurrera, batzuek ezkerreko langileen interesak babesteko xedea duten bitartean –Podemos edo PSOE–, beste batzuek, ugazaben interesak babesten dituzten alderdiei bozkatzeko diete –PP edota C´ s–. Alde horretatik, CISen inkestetan ez da aurreikusten Madrilen hautesleen portaera elektorala gaztelania ezagutzak, transmisioak edo erabilerak baldintzatzen duenik.¹³⁹ Aitzitik, ikuspegi horretatik zentzurik ez du galdetzeak zenbatekoa den hizkuntzak portaeran duen eragina. Izan ere, hautesle (ia) guztiak –izan ezkerrekoak nahiz eskuinekoak– egunerokotasunean gaztelar hiztunak baitira. Kasu horretan, alderdiak elkarren artean bereizten dituen Estatua ulertzeko modua (beste erregio eta nazioekin eduki beharreko harremana) eta auzi soziala. Nafarroa hegoaldean aurkitzen dira baldintza horiek betetzen dituen Hego Euskal Herriko udalerririk bakarrenetakoak. Gainerako udalerrietan, espainiar alderdiek euskal alderdiak dituzte bizilagun. Testuinguru horretan, honakoa izan behar da garbi: gaztelar hiztunak dira Hego Euskal Herriko espainiar naziokide guztiak. Ondorioz, ez dago espainiarrik gaztelaniaz ez dakienik edota gaztelania ikasteko oztopo politikorik izan duenik.

Bestelakoa da euskal nazioaren egoera. Azken honek, naturaltasunez erreproduzitzeko zailtasunak ditu EAEn eta NFEn. Horren ondorioa da politikoki euskaldun sentitzen diren askok euskara ikasteko zailtasunak eduki izana, edota alderantziz, kulturalki euskaldunak izan arren kontzientzia politikorik garatu ez duten zenbait euskaldun egotea. Lan honetan ulertzen da menderakuntza egoeraren ondorio dela euskal nazioak bizi dituen pitzadura kultural/politikoak; are gehiago, horren emaitza dira euskal lerrokatze linguistiko elektorak hartzen dituen zenbait forma ere. Bi adibide nabarmen aurkezten dira jarraian.

¹³⁹ Interesgarria da konparatzea CISek argitaratutako bi ikerketa hauek: 3065 galdetegia –Madrileko hauteskunde autonomikoei dagokiona– eta 3152 galdetegia –EAEko hauteskunde autonomikoei dagokiona–. EAEko kasuan, galdera zehatzak daude hizkuntzaren aldagaiaren eta nazionalismoaren inguruan. Madrileko autonomia Erkidegoko hauteskundeetan, adibidez, ez da galdetzen hautesleak gaztelera ezagutzarik duen, ezta espainiar nazionalismoaren ardatzean hautesleak bere burua non kokatzen duen ere. Bakarrik galdetzen da Estatuaren izaeraren edota auzi sozialaren inguruan.

62. irudia: Etxeko euskara erabileraren eta euskal alderdiek jasotzen duten babes elektoralaren arteko lotura Bizkaiko udalerrietan.




Iturria: Egilea.

Pitzadura kulturalaren eredu gisa aurkezten da Bizkaiko udalerrietako adibidea. Kasu honetan, datuek erakusten dute euskararen erabileraren eta zentro-eskuineko alderdiek (EAJk) jasotzen duten babes elektoralaren artean harreman linealik ez dagoen bitartean, zentro ezkerreko alderdiek (EH Bildu koalizioak) jasotzen duten babes elektoralak harremana duela etxeko euskara erabilerarekin. Adibidez, EAJk Lekeitio eta Bilbon ia emaitza berdinak lortzen dituen bitartean, EH Bilduri ezinezkoa zaio udalerri erdaldunetan babes elektoral jakin batetik gora lortzea. Puntu honetara iritsita, galdera bat sortzen da: zer dago desfase horren atzean? Zergatik da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak sendoagoa EH Bilduren kasuan? Zergatik ez da erdal hiztuna izatea muga bat EAJren boto emaitza izateko? Euskal abertzaleak al dira EAJren boto emaitza udalerri erdaldunetan? Gisa honetako hamaika galdera sortzen dira goiko bi grafiko horietan arreta jarritz gero (5.2.2.2. atalean aztertzen da auzia sakonago). Begi bistakoa da korrelazio koefizienteak ez dituela zalantza horiek argitzen. Edonola ere, hemen uste da galdera horien erantzuna abiapuntu honetatik hausnartzen hasi behar dela: Madrilen espainiar alderdiekin ez bezala, zergatik du euskara gaitasunak eragina euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren baitan ezker/eskuin ardatzean?

Orain arte arreta jarri da pitzadura kulturalen. Fenomeno hori argien ikusi da euskara ezagutza baxuko udalerrietan. Alabaina, pitzadura politikoa ere gertatzen da euskal lerrokatze linguistikoaren baitan. Azken hori argien islatzen da euskararen arnaguneak diren udalerrietan. Izan ere, boto emaitza gehienak euskaraz bizi dira eta, etxean euskara erabiltzeaz gain, joera dute ondorengoei euskara transmititzeko. Hori horrela izan arren, udalerri horietan joera handia dago espainiar alderdiei botoa emateko. Nafarroako udalerrietan agertu dira gisa honetako kasuak. Aldagai nagusia da UPNren proiektu

erregionalak gaitasuna duela euskal hiztun horiek bereganatzeko, nahiz eta azken urteotan joera horrek behera egin duen.

63. irudia: 2001ean Etxeko euskara erabilera %90 baino handiagoa duten udalerrietan euskal alderdiek lortu izan duten babes elektoral.



Iturria: Egilea.

Kasu honetan, mahai gainean jartzen den hipotesia da udalerrri horietan hauteslearen zati handi batek nazioaren gaineko bereizketa dikotomikoa barne hartzen duela. Hala, egunerokotasunean etnikoki euskalduna izan arren, nafar-espainiarra da politikoki babesten duen proiektua. Besterik gertatzen da Gipuzkoa eta Bizkaiko udalerrri euskaldunetan. Azken horiek, politikoki nahiz kulturalki euskal proiektu nazionalari ematen diote atxikimendua. Arnasgune kultural izateaz gain, arnasgune politikoak dira. Beraz, lan honetan uste da udalerrri horiek osatzen dutela euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ernamuina.

Laburbilduz, azpikapitulu honetan ikusi da Hego Euskal Herriko udalerrietako datu soziolinguistiko eta elektoralak aztertu ostean, bi lerrokatze elektoral gertatzen direla: euskal lerrokatze linguistiko elektoral eta espainiar lerrokatze linguistiko elektoral. Bien artean, ordea, bada funtsezko desberdintasun bat. Espainiar lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan hiritar guztiak gaztelar hiztunak izanik, ikusezin bihurtzen da gaztelania ezagutzak azken emaitza elektoralean duen eragina. Edonola ere, datuek erakutsi dute udalerrri bateko gaztelania transmisioaren eta erabileraren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren artean erlazio lineala dagoela. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan ikusi da udalerrri bateko euskara ezagutzaren, transmisioaren eta etxeko erabileraren ehunekoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta joera handiagoa izango dutela euskal alderdiek babes elektoral sendoa lortzeko. Alabaina, aldi berean, pitzadura kultural/politikoak agertu dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren baitan. Pitzadura kulturalari dagokionez, Bizkaiko kasuan, ikusi da euskal ezkerrek eta euskal eskuinak jasotzen duen babes elektoralean eragin

desberdina duela udalerrri bateko errealitate soziolinguistikoak. Euskal ezkerren kasuan, harreman lineala dago bi aldagaien artean. Euskal eskuinaren kasuan, berriz, 2016ko hauteskundeetan behintzat ez. Pitzadura politikoaren kasuan, datuak erakusten dute aldakorra dela Nafarroako edota Bizkaia eta Gipuzkoako arnaguneetan euskal alderdiek lortzen dituzten emaitza elektoralak. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa ikusten da ñabardura horiek xeheago aletzeko ondorengo azpikapituluan lurralde bakoitzean euskal lerrokatze linguistiko elektoralak hartzen duen forma aztertzea.


5.2.2 Euskal lerrokatze linguistikoaren ñabardurak

Azpikapitulu honetan gertutik aztertu nahi dira euskal lerrokatze linguistikoaren ñabardurak. Aurreko atalean ikusi da Hego Euskal Herrian euskararen eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko korrelazio koefizientea altua izan arren, ez dela perfektua. Horrek esan nahi du udalerrri gehienetan euskararen eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko harremanak joera jakin bati jarraitzen badio ere, salbuespenak daudela. Salbuespen horiek aztertzeko probintzia mailako azterketa egiten da jarraian.

5.2.2.1 Arabako kasua

Araba da Hego Euskal Herriko lau lurraldeen artean udalerrri kopuru txikiena duena. 1991-2016 bitartean, esaterako, 51 udalerrri daude. Alde horretatik, 2016ko hauteskundeetan ikusten da udalerrri bateko euskara ezagutzaren ehunekoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela euskal alderdiek udalerrri horretan lortzen duten babes elektoralak. Horrela, euskara gaitasun ehuneko handiena duen udalerrria izanik, Aramaio (82_x: euskara; 87_y: botoa) da babes elektoral sendoena jasotzen duen udalerrria Arabako lurraldean.

64. irudia: Arabako udalerrietako euskara gaitasuna eta alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak %etan (2016).



Iturria: Egilea.

Edonola ere, bi aldagaien arteko erlazio lineala osotasunean aztertuz gero, ikusten da Arabako udalerrriak gutxienez bi multzotan banatzen direla: batetik, Aramaioko udalerrria dago, euskara gaitasunaren ehunekoa %80 baino handiagoa duena; eta bestetik, gainerako udalerrriak daude, herritarren gehiengoa erdalduna dutenak. Bigarren multzo honetan, %12 eta %44 artekoa da udalerriko biztanleen euskara gaitasunaren ehunekoa. Ikusten den moduan, Arabako lurraldean ez dago udalerririk euskara ezagutza %60 ingurukoa duenik. Horrek analisia mugatu egiten du, espazio hori hutsik gelditzen delako. Hala ere, goiko irudian nahiko ondo ikusten da erroldarik handiena duten udalerrri gehienak Gasteiztik (27_x; 41_y) Legutiora (44_x; 73_y) doan ardatz imaginarioaren inguruan biltzen direla. Horrek ez du esan nahi udalerrri guztiek patroï berari jarraitzen diotenik. Harana (15_x; 78_y) udalerriko kasuak argi erakusten du posible dela udalerrriaren euskara ezagutza apala izan eta euskal alderdi abertzaleek babes elektoral garrantzitsua lortzea. Gauzak horrela, joera orokorrak eta gainerako ñabardurak ulertzen joateko komenigarria da orain arteko datuak osatzea beste aldagaiekin, hau da, euskara transmisioarekin eta erabilerarekin.

67. taula: Korrelazio koefizientea. Arabako udalerrietako euskara transmisioaren eta botoaren arteko harremana.

	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Euskal botoa	0.471**	0.439**	0.517**	0.469**	0.471	0.456**	0.463**
Euskal ezkerria	0.654**	0.605**	0.545**	0.551**	0.665**	0.641**	0.665**
Euskal eskuina	-0.193	-0.084	0.444**	0.282*	0.060	-0.085	-0.097
Espainiar botoa	-0.468**	-0.434**	-0.514**	-0.462**	-0.480**	-0.472**	-0.476**
Espainiar ezkerria	-0.174	-0.152	-0.178	-0.137	-0.291*	-0.302*	-0.204
Espainiar eskuina	-0.433**	-0.438**	-0.498**	-0.485**	-0.456**	-0.447**	-0.476**
Bestea	-0.080	-0.216	-0.149	-0.327*	-0.031	-0.040	-0.272

p** < 0,01 eta p* < 0,05

Iturria: Egilea.

Ñabardura interesgarriak ditu udalerrri bateko euskara transmisioaren eta emaitza elektoralaren arteko harremanak. Joera orokorra da, udalerrri bateko euskara transmisioa igo ahala, euskal alderdiek jasotzen duten babes elektoralaren orduan eta sendoagoa izatea. Behin hori esanda, garrantzitsua da azpimarratzea Araban bi aldagaien arteko lotura ez dela Hego Euskal Herri osoan bezain sendoa, izan ere osotasunean korrelazio koefizientea 0,8 ingurukoa den bitartean, 0,45 ingurukoa da Arabako kasuan. Lotura ahulagoa izanagatik, adierazgarria izaten jarraitzen du euskal lerrotzeko linguistiko elektoralak.

Bestetik, Arabako kasuan, bada lan honetan aztertu beharreko beste gertakari bat. Datuek erakusten dute euskara eta euskal botoaren arteko erlazio lineala kalkulatzeko koefizientearen balioa desberdina dela ezkerreko eta eskuineko alderdien artean. Zehatzago esanda, euskal lerrotzeko linguistiko elektoralaren sendoagoa da ezkerreko

alderdien kasuan eskuinekoetan baino. Azken honen kasuan, 2001eko eta 2005eko hauteskundeetan lortzen du bi aldagaien arteko harremana sendoa eta adierazgarria izatea, hain zuzen ere, Lizarra-Garaziren osteko hauteskundeetan. Espainiar alderdiei dagokienez, espainiar eskuinak joera du euskararen transmisioa igo ahala, babes elektoral apalagoa lortzeko. Espainiar ezkerren kasuan, soilik 2005ean eta 2009an da adierazgarria eta negatiboa udalerrri bateko hizkuntza transmisioaren eta emaitza elektoralen arteko harremana.

Erabilerari dagokionez, etxeko euskara erabileraren ehunekoak igo ahala, jaitsi egiten da espainiar alderdiek jasotako babes elektoralak. Ikusten den moduan, bi bloke nazionalak ondo bereizten ditu udalerrri bateko euskararen erabileraren ehunekoak. Beste behin ere, ordea, deigarria da euskal eskuinaren eta espainiar ezkerren kasua. Bietan, korrelazio koefizientea oso ahula da eta bi aldagaien arteko harremana ez da adierazgarria. Euskal eskuinarentzat salbuespen bakarrak dira 2001eko eta 2005eko hauteskundeak. Espainiar ezkerrentzat, berriz, 2009ko eta 2012koak. Egoera guztiz bestelakoa da euskal ezkerren eta espainiar eskuinaren kasuetan. Bi horietan, adierazgarria da hizkuntzak emaitza elektoralean duen eragina, baina kontrako zentzuan. Euskal ezkerreko alderdiei dagokienez, udalerrri baten etxeko euskara erabilera zenbat eta apalagoa izan, emaitza elektoral onak lortzeko probabilitatea jaisten den bitartean, espainiar eskuinak zailtasunak ditu Aramaio bezalako udalerrietan, hau da, euskararen etxeko erabilera altua den kasuetan, emaitza onak izateko. Azkenik, aipagarria da parlamentuan ordezkartzarik lortzen ez duten alderdiekin gertatzen dena. Horien kasuan, korrelazio koefizientearen balorea apala izan arren, zeinua ia beti negatiboa da eta bi kasutan soilik da erlazio lineala adierazgarria.

68. taula: Korrelazio koefizientea. Arabako udalerrietako etxeko euskara erabileraren eta botoaren arteko harremana.

	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Euskal botoa	0.459**	0.459**	0.526**	0.478**	0.466**	0.500**	0.493**
Euskal ezkerria	0.632**	0.623**	0.544**	0.557**	0.645**	0.697**	0.697**
Euskal eskuina	-0.183	-0.074	0.456**	0.291*	0.071	-0.086	-0.090
Espainiar botoa	-0.457**	-0.454**	-0.523**	-0.470**	-0.475**	-0.526**	-0.506**
Espainiar ezkerria	-0.176	-0.167	-0.188	-0.143	-0.294*	-0.328*	-0.174
Espainiar eskuina	-0.418**	-0.453**	-0.503**	-0.491**	-0.447**	-0.502**	-0.537**
Bestea	-0.070	-0.242	-0.164	-0.342*	-0.026	0.003	-0.290*

p** < 0,01 eta p* < 0,05


Iturria: Egilea.

Argazki estatikoa eskaintzen dute azpikapitulu honetan aurkeztu diren azkeneko bi taulek. Alegia, irudi horietan agertzen da une historiko jakin batean bi aldagaien artean dagoen harreman lineala. Alabaina, atal teorikoan aipatu den bezala, nazio klasikoaren

ereduaren arabera, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak denboran iraunkorra bakarrik ez, dinamikoa ere izan behar du. Alde horretatik, euskararen erabilerari dagokionez, azpiko grafikoan ikusten da 1994-2016 bitartean euskal botoak hazkunderik handiena euskara erabilera igo den lekuetan izan duela. Horrek erakusten du bi aldagaien arteko harremana dinamikoa dela. Alegia, jada kontua ez da soilik udalerrri bateko euskara erabilera handia bada euskal alderdi abertzaleek babes elektoral sendoa jasotzeko probabilitatea igotzen dela. Aitzitik, grafiko horrek erakusten du denboran zehar udalerrri bateko etxeko euskara erabilera igotzen bada, joera dagoela euskal alderdi abertzaleek jasotako botoek hazkundera izateko. Muturreko bi adibide dira Aramaio (-13,; -7,;) eta Zalduondo (+23,; +11,).

Kasu konkretu horietatik haratago, datuek erakusten dute, 1991-2016 bitartean, euskararen erabilera %5 baino gehiago hazi den Arabako 37 udalerritatik 29tan euskal alderdiek jasotako babes elektoralak gora egin duela. Aldiz, euskara erabileraren hazkundera %5 edo gutxiagoa izan den 14 udalerritatik 7tan, behera egin du euskal alderdiek jasotako babes elektoralak.

65. irudia: Arabako udalerrietako etxeko euskara erabileraren eta euskal botoaren bilakaera (1994-2016).




Iturria: Egilea.

Laburbilduz, Arabako lurraldean ikusi da euskal lerrokatze linguistikoa positiboa eta adierazgarria dela. Alabaina, ñabardurak agertzen dira dimentsio nazionalari soziala gehitzen bazaio. Alde horretatik, euskal ezkerreko blokearen kasuan, sendoagoa da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak. Korrelazio koefizienteari dagokionez, euskal lerrokatze linguistiko sendoa eta adierazgarria izan arren, orotara ahulagoa da koefizientearen balioa Hego Euskal Herri osoko kasuan lortu dena baino.

5.2.2.2 Bizkaiko kasua

Bizkaiko udalerrietako errealitate soziolinguistiko eta elektoralak gurutzatuz gero, euskararen ezagutza zenbat eta handiagoa izan ikusten da orduan eta handiagoa dela euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko joera. Oro har, Bizkaiko udalerrietan sendoagoa da euskararen datu soziolinguistikoaren eta hautesleen portaera elektoralaren arteko erlazio lineala Arabako udalerrietan baino. Azpiko irudian ikusten den moduan, 2016ko hauteskunde autonomikoetan, Bizkaiko udalerriek elkarren artean ia lerro zuzena osatzen dute hasi Barakaldotik eta Arratzuraino.

66. irudia: Bizkaiko udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak %tan (2016).



Iturria: Egilea.

2016ko hauteskundeetan euskal alderdi abertzaleek lortzen duten babes elektoralak %85 baino handiagoa da euskara ezagutza %80 baino handiagoa den udalerri guztietan. Beste modu batera esanda, Bizkaiko udalerri euskaldunetan oso apala da alderdi espainiarrek lortzen duten babes elektoralak. Horren ondorioz, udalerri horretan, euskal alderdi sistema da hegemonikoa, alegia, nazio euskaldunetik erditutako alderdiek ez besteez jasotzen dituzte botoak. Udalerri ez hain euskaldunetan lerrokatzeak bere horretan jarraitzen badu ere, kasu horietan esanguratsua da hizkuntza ehunekoaren eta euskal botoak jasotzen duen babes elektoralaren arteko desoreka. Muturreko bi kasu dira Turtzioz (21x; 78y) eta Artzentalesekoa (26x; 82y). Hala ere, udalerri handiagoetan ere gertatzen da aipatutako fenomeno, adibidez: Sestao (24x; 51y), Bilbo (29x; 55y) edo Basaurin (28x; 54y). Kasu horiek guztiek erakusten dute udalerri horietan guztietan euskal alderdiei bozkatzeko joera gehiengoa eralduna dela.

Bilakaera historikoari dagokionez, konstante mantentzen da, 1994-2016 bitartean, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren korrelazio koefizientearen balioa. Bestalde, legebiltzarrean ordezkartzarrik lortzen ez duten alderdiek emaitzarik hoberenak lortzen

dituzte udalerrri ez hain euskaldunetan. Beste horrenbeste gertatzen da bai ezkerreko eta bai eskuineko espainiar alderdien kasuan. Bietan korrelazio koefizienteak antzeko balioa du (0,65 eta 0,85 tartean) eta negatiboa da zeinua. Hala ere, bloke guztietan beti ez da konstante mantendu korrelazio koefizientea. Euskal lerrokatze linguistiko elektoral oso sendoa den arren, salbuespen gisa hartu behar dira hauteskunde batzuk. 2012tik aurrera, adibidez, erlazio linealik ez dago eskuineko euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren eta euskara ezagutzaren artean. Zer esan nahi du honek? Zer dago aldaketa horren atzean?

69. taula: Korrelazio koefizientea. Bizkaiko udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoral.


	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Euskal botoa	0.836**	0.810**	0.819**	0.822**	0.830**	0.818**	0.858**
Euskal ezkerria	0.702**	0.769**	0.733**	0.764**	0.785**	0.839**	0.843**
Euskal eskuina	0.481**	0.446**	0.597**	0.506**	0.491**	0.121	0.100
Espainiar botoa	-0.836**	-0.811**	-0.819**	-0.821**	-0.823**	-0.808**	-0.854**
Espainiar ezkerria	-0.801**	-0.770**	-0.776**	-0.794**	-0.815**	-0.784**	-0.833**
Espainiar eskuina	-0.659**	-0.743**	-0.778**	-0.743**	-0.723**	-0.710**	-0.666**
Bestea	-0.425**	-0.504**	-0.646**	-0.572**	-0.719**	-0.791**	-0.773**

p** < 0,01

Iturria: Egilea.

Galdera hori ezin da erantzun korrelazio koefizientearen bidez soilik. Edonola ere, garbi dagoena da, 2009-2016 bitartean, udalerrri euskaldunetan euskal eskuinak babes elektoral galdu duen bitartean (Gizaburuaga (-%46), Munitibar (-%35) edo Nabarniz (-%23)), udalerrri ez hain euskaldunetan hazkundera izan duela: Sestao (+%8), Bilbo (+%7), Getxo (+%7), Barakaldo (+%6), Basauri (+%6), Leioa (+%5) eta abar. Horrela, lurralde guztian asko homogeneizatu da euskal eskuinaren botoa. Horren adibide da honako datua: 2009ko hauteskundeetan, 68 udalerritan eskuratzen zituen euskal eskuinak hautagaiek jasotako botoen %40 eta %60 artean. 2016an, aldiz, 84 dira. Kasualitatea al da ezaugarri linguistiko desberdinak dituzten udalerriek horren portaera berdina izatea hauteskunde berberetan? Nondik jaso ditu euskal eskuinak botoak eta nora joan dira aurrez bereak zirenak? Boto berrien jatorriak zer neurritan baldintzatzen du euskal eskuinaren politikagintza? Hamaika galdera sortzen dira datu hauen harira.

67. irudia: Bizkaiko udalerriak. Euskal eskuinak jasotako babes elektorala eta euskara gaitasuna.




Iturria: Egilea.

Lan honetan uste da euskal kasua, nazio zapaldua izanik, Belgikar eredu idealera hurbiltzen diren udalerriak besteetatik bereizi behar direla. Izan ere, udalerrri oso euskaldunetan, esaterako, EAJk botoak galdu dituenean, EH Bildura joan dira boto (ia) guztiak. Beste hitzetan esanda, bloke nazionalaren baitan gertatu da botoen transferentzia. Udalerrri ez hain euskaldunetan askoz zailagoa da joera orokorrak ulertzea hizkuntzaren parametroetan. Ezinbestekoa da eredu idealera eta ez-idealera bereiztea. Izan ere, zenbat eta urrunago egon euskal eta espainiar zentroetatik, orduan eta zailagoa da hizkuntza aldagai nagusia dela datu agregatuen bidez irakurketak egitea ezker eta eskuin ardatzaren inguruan.

Edonola ere, horrek ez du esan nahi euskara transmisioak edota erabilerak udalerrri ez hain euskaldunetan eraginik ez duenik. Lehen begiratuan badirudi etxeko euskara transmisioaren bidez bakarrik ezin dela azaldu zergatik lortzen duen babes elektoral bera euskal eskuinak Bilbon (10_x; 43_y) edota Arantzazun (63_x; 43_y). Alabaina, bi aldagaiek 2009ko hauteskundeetatik 2016ra izan duten bilakaera ikusi ostean, irudiak erakusten du erlazio lineala dagoela etxeko euskara transmisioaren hazkunderaren eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralak izandako bilakaeraren artean.

68. irudia: Bizkaiko udalerriak. Euskal eskuinak jasotako babes elektorala eta etxeke euskara transmisioa.




Iturria: Egilea.

Laburbilduz, Bizkaiko udalerrietan egin den azterketak berretsi egiten du euskal lerrokatze elektorala gertatzen denaren hipotesia. Edonola ere, hainbat zalantza sortzen dira azterketa honen inguruan: zenbaterainokoa da udalerri ez euskaldunetan hizkuntzaren aldagaiak euskal alderdien aldeko botoa azaltzeko duen gaitasuna? Euskara gaitasunak izandako irabazien ondorio da 2009tik 2016ra euskal eskuinak udalerri ez hain euskaldunetan izan duen hazkunde elektorala? Edota egoera politikoaren aurrean EAJk hartu duen zentralitate politikoaren ondorio da? Biak batera agian?

5.2.2.3 Gipuzkoako kasua

Gipuzkoa da udalerri jakin bateko euskara ezagutzaren eta euskal botoaren artean korrelazio koefiziente altuena lortzen duen lurraldea. 2016ko hauteskunde autonomikoen kasuan, datuek erakusten duten moduan, positiboa izateaz gain, oso sendoa da bi aldagaien arteko harremana.

69. irudia: Gipuzkoako udalerrietako euskara gaitasuna eta euskal alderdiek jasotako babes elektorala %tan (2016).



Iturria: Egilea.

Beste horrenbeste gertatzen da udalerrri bateko euskara transmisioaren eta alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren inguruan. Datuek erakusten dute bi aldagaien arteko harremana ia perfektua dela. Alabaina, harreman hori ez da horren sendoa ezker eta eskuin aldagaiak kontuan izanez gero. Bereziki deigarria da euskal eskuinaren kasua. Izan ere, 2001 eta 2009 artean bi aldagaien arteko erlazio lineala adierazgarria izan arren, azken bi hauteskundeetan ahultzen joan da lotura ez adierazgarria izateraino.

70. taula: Korrelazio koefizientea. Gipuzkoako udalerrietako euskara transmisioa eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak.


	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Euskal botoa	0.959**	0.968**	0.972**	0.969**	0.966**	0.958**	0.945**
Euskal ezkerria	0.757**	0.764**	0.631**	0.655**	0.719**	0.792**	0.765**
Euskal eskuina	0.222*	0.274**	0.587**	0.513**	0.571**	0.228*	0.110
Espainiar botoa	-0.959	-0.967**	-0.972**	-0.969**	-0.966	-0.950**	-0.943**
Espainiar ezkerria	-0.958**	-0.957**	-0.955**	0.957**	-0.962	-0.939**	-0.934**
Espainiar eskuina	-0.781**	-0.917**	-0.947**	-0.932	-0.897**	-0.884**	-0.869**
Bestea	-0.052	-0.611**	-0.518**	-0.312**	-0.589**	-0.847**	-0.730**

p** < 0,01 eta p* < 0,05

Iturria: Egilea.

Datu soziolinguistikoetan arreta jarriz gero, 3. kapituluaren ikusi da azken urteotan udalerrri euskaldunetan euskararen transmisioa jaitsi den bitartean, udalerrri ez hain euskaldunetan igo egin dela. Honakoa da hortik sortzen den galdera: horrek eraginik izan ote du portaera elektorallean? Azpiko irudiak iradokitzen du aldaketa soziolinguistikoek beren eragina izan dutela. Izan ere, euskara transmisioaren ehuneko gehien jaitsi den udalerrietan izan du gorakadarik handiena alderdi espainiarren babes elektoralak, eta alderantziz. Alde horretatik, datuek erakusten dute euskararen arnaguneak direla aldaketa handiena izan dutenak. Honako kasuak dira adierazgarrienak: Ikaztegieta (-24_x; 9_y), Aizarnazabal (-22_x; 7_y), Larrraul (-17_x; 13_y), Mendaro (-16_x; 10_y) edota Aia (-16_x; 8_y). Aldiz, etxeko euskararen erabilerak hazkundera izan duen udalerrri guztietan behera egin du espainiar botoak: Donostia (1_x; -5_y), Lazkao (2_x; -7_y), Urretxu (2_x; -5_y) eta abar.

70. irudia: Udalerri bateko euskara transmisioaren eta boto espainiarraren bilakaera (1991-2016).



Iturria: Egilea.

Udalerri bateko euskara erabileraren eta portaera elektoralari dagokionez, korrelazio koefizientea oso sendoa dela ikusten da euskal alderdiek jasotako botaren kasuan. Alde horretatik, korrelazio koefizientearen balioa 0,9tik gorakoa da hauteskunde guztietan.

71. taula: Korrelazio koefizientea. Gipuzkoako udalerrietako etxeko euskara erabilera eta euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoral.


	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Euskal botoa	0.961**	0.967**	0.970**	0.966**	0.960**	0.956**	0.945**
Euskal ezkerria	0.757**	0.766**	0.618**	0.645**	0.714**	0.800**	0.764**
Euskal eskuina	0.227*	0.270*	0.600**	0.520**	0.569**	0.211*	0.112
Espainiar botoa	-0.961	-0.966**	-0.970**	-0.966**	-0.960	-0.948**	-0.942**
Espainiar ezkerria	-0.954**	-0.952**	-0.952**	0.951**	-0.953	-0.936**	-0.933**
Espainiar eskuina	-0.800**	-0.923**	-0.945**	-0.936	-0.900**	-0.885**	-0.870**
Bestea	-0.050	-0.599**	-0.537**	-0.321**	-0.587**	-0.849**	-0.735**

p** < 0,01 eta p* < 0,05

Iturria: Egilea.

Gipuzkoako kasuak ederki erakusten du hizkuntza erabilerak nola banatzen duen, ez bakarrik ardatz nazionala, baita ezker eta eskuin ardatza ere. Salbuespen bakarra da euskal eskuinarena. Azpiko grafikoan ikusten den moduan, bi kasu erabat desberdinak dira euskal eta espainiar ezkerrenak. Aurrenekoaren indarguneak udalerri euskaldunetan daude: Orea (90_x; 96_y), Baliarrain (89_x; 76_y), Azpeitia (77_x; 45_y). Espainiar ezkerak, aldiz, emaitza hoberenak lortzen ditu udalerri erdaldunetan: Lasarte-Oria (28_x; 40_y), Irun (22_x; 38_y) edota Donostian (27_x; 29_y).


71. irudia: Etxeko euskara erabilera eta ezkerreko alderdiak, euskaldunak eta espainiarrak.



Iturria: Egilea.

Euskal eta espainiar eskuinaren loturari dagokionez, ezkerreko blokean bezainbesteko desberdintasunik ez badago ere, ñabardurak daude bien artean. Espainiar botoaren joeran garbi ikusten da, udalerrri bateko euskara erabilera igo ahala, babes elektoralajaitasi egiten dela. Etxeko euskara erabilera %80 edo handiagoa den udalerrietan gehienera ere lortzen duen babes elektoralia da %2koa: Orexa (90_x; 0_y), Errezil (91_x; 0_y) edota Amezketa (88_x; 2_y). Aldiz, honako udalerrriak ditu bere indargune nagusiak: Irun (22_x; 12_y), Donostia (27_x; 13_y) edota Lasarte-Oria (28_x; 8_y). Euskal eskuinaren kasuan, berriz, 2016ko hauteskundetan lausoa da bi aldagaien arteko lotura. Datuek erakusten dute etxeko euskara erabilera oso desberdina den udalerrietan euskal eskuinak oso antzeko emaitzak lortzen dituela: adibidez, Donostia (27_x; 34_y) eta Errezilen (91_x; 31_y). Horrelakorik ez da gertatzen euskal ezkerrearen kasuan.

72. irudia: Etxeko euskara erabilera eta eskuineko alderdiak, euskaldunak eta espainiarrak.



Iturria: Egilea.

Laburbilduz, Gipuzkoa da euskal lerrokatze linguistikoa modu argiengan nabarmentzen den Hego Euskal Herriko lurraldea. Bi aldagaien arteko lotura oso sendoa izateaz gain, lotura hori iraunkorra da denboran hauteskunderaz hauteskunde. Ondorioz, Gipuzkoako kasuak indartu egiten du aztergai dugun hipotesia zeinetan erakusten duen udalerrri

bateko euskara ezagutza, transmisioa eta etxeko euskara erabilera igo ahala euskal alderdiei bozkatzeko joera igo egiten dela. Hala ere, euskal eskuinarekin gertatzen den moduan, ikusten da hipotesi horrek ñabardurak behar dituela.

5.2.2.4 Nafarroako kasua


Nafarroa da udalerrri kopuru handiena duena Hego Euskal Herriko lau lurraldeen artean. Alde horretatik, azpiko grafikoan garbi ikusten da udalerrri horietan erlazio lineal oso sendoa dagoela euskara ezagutzaren ehunekoaren eta euskal alderdi abertzaleek lortzen duten babes elektoralaren artean.

Hori horrela izan arren, bi multzo nabarmentzen dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren izaera aztertzerakoan. Batetik, udalerrri oso euskaldunak. Azken horien kasuan, hautesleek jasotako botoen gehiengoa lortzen dute euskal alderdiek. Alabaina, multzo honetan bereizten dira bi eredu ideal: Goizueta (96_x; 94_y) eta Zugarramurdi (93_x; 51_y). Aurrenekoak antzekotasun handiak ditu Gipuzkoako udalerrri euskaldunekin eta ia hutsala da espainiar alderdiek jasotzen duten babes elektoralak. Aldiz, Zugarramurdiren kasuan, euskara ezagutza ia erabatekoa izan arren, babes elektoral garrantzitsua lortzen dute espainiar alderdiek. Bi eredu ideal horien artean kokatzen dira gainerako udalerrri euskaldunak.

Errealitatea guztiz bestelakoa da udalerrri ez hain euskaldunetan. Kasu horietan, euskal alderdiek lortzen duten babes elektoralak gutxitan lortzen du gehiengoa izatea. Alabaina, honen baitan ere bi errealitate bereizi behar dira: Iruñea (11_x; 32_y) eta Tuterako (3_x; 10_y). Aurrenekoaren kasuan, euskararen ezagutza apala izan arren, %30tik gorakoa da euskal alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralak. Gauzak horrela, komunitate trinko eta garrantzitsu bat dago euskara ezagutza izatetik haratago, euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko prest dagoena. Aldiz, Tuterako kasuan, euskara ezagutza oso apala izateaz gain, %10ekoa besterik ez da euskal alderdiek lortzen duten babes elektoralak, eta ondorioz, politikoki oso apala da euskal alderdiek duten pisua.

Orain arte ikusi dira soziolinguistikoki bi muturretan dauden adibideak. Tartean daude Ultzama (47_x; 50_y) bezalako udalerrriak. Kasu horietan, euskararen ezagutza %40-%60 artean dute eta %40-%80 ingurukoa da euskal alderdiek jasotako babes elektoralak.


73. irudia: Euskara gaitasuna eta euskal botoa (2015).



Iturria: Egilea.

Alde horretatik, udalerrri horietan guztietan euskarak izan duen hazkundera euskal alderdiei bozkaterakoan izan duen eragina aztertzen bada, datuek erakusten dute joera orokorra izan dela euskara gaitasuna irabazi den udalerrietan euskal alderdiek jasotako babes elektoralala igotzea.

74. irudia: Euskara gaitasunaren eta euskal botoaren bilakaera (1994-2015).



Iturria: Egilea.

Edonola ere, Hego Euskal Herriko datuak aztertzerakoan ikusi da irakurketa partziala egiten dela euskara gaitasuna soilik kontuan hartuz gero. Horregatik, euskara transmisioaren eta euskara erabileraren aldagaiekin alderatzen da jarraian euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren hazkundera. Alde horretatik, datuek erakusten dute bi aldagaien arteko erlazio lineala sendoa eta positiboa dela. Korrelazio koefizienteari dagokionez, Gipuzkoan bezain sendoa izan ez arren, oso altuak dira Nafarroan lortzen diren balioak.

72. taula: Korrelazio koefizientea: Nafarroako udalerrietako euskara transmisioaren eta etxeko euskara erabileraren eta botoaren arteko harremana.

		1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
Euskararen transmisioa	Euskal botoa	0.854**	0.834**	0.829**	0.828**	0.741**	0.735**	0.721**
	Euskal ezkerria	0.854**	0.834**	0.829**	0.828**	0.741**	0.735**	0.673**
	Euskal eskuina	b	b	b	b	b	b	0,566**
	Espainiar botoa	-0,798**	-0,800**	-0,823**	-0,822**	-0,726**	-0,692**	-0,702**
	Espainiar ezkerria	-0,523**	-0,521**	-0,559**	-0,572**	-0,523**	-0,525**	-0,507**
	Espainiar eskuina	-0,542**	-0,471**	-0,566**	-0,636**	-0,603**	-0,600**	-0,568**
	Bestea	-0,084	0,012	-0,161**	-0,042	-0,255**	-0,276**	-0,317**
Euskararen etxeko erabilera	Euskal botoa	0,837**	0,829**	0,814**	0,818**	0,732**	0,727**	0,714**
	Euskal ezkerria	0,837**	0,829**	0,814**	0,818**	0,732	0,727**	0,666**
	Euskal eskuina	b	b	b	b	b	b	0,560**
	Espainiar botoa	-0,782**	-0,798**	-0,808**	-0,814**	-0,718**	-0,688**	-0,698**
	Espainiar ezkerria	-0,514**	-0,499**	-0,530**	-0,563**	-0,512**	-0,518**	-0,498**
	Espainiar eskuina	-0,528**	-0,487**	-0,573**	-0,632**	-0,599**	-0,601**	-0,569**
	Bestea	-0,084	0,019	-0,155*	-0,028	-0,243**	-0,253**	-0,298**

Iturria: Egilea.

p** < 0,01 eta p* < 0,05

^bBloke honetako alderdiek ez dute ordezkari politikorik lortu. Ondorioz, menpeko aldagaiak baliorik ez duenez, ezin da kalkulatu indizea.

Taula honek erakusten du harreman sendoa dagoela hizkuntza transmisioaren edota erabileraren eta euskal alderdiek lortutako babes elektoralaren artean. Alabaina, zenbait ñabardura interesgarri agertzen dira aipatzea komeni direnak. Batetik, deigarria da, 2003-2015 bitartean, korrelazio koefizienteak duen gainbehera (ia 0,15ekoa). Alegia, euskal alderdi abertzaleek hauteskunderaz hauteskunde zenbat eta emaitza hobekiago lortu, orduan eta ahulagoa da bi aldagaien arteko lotura. Bestetik, dimentsio sozialari dagokion aldagai dago. Euskal ezkerriaren kasuan, EAEko beste lurraldeetako antzeko bilakaera erakusten badu ere, euskal eskuinaren kasuan bereizi egin behar dira NFEko eta EAEko errealitateak. NFEko kasuan, 2015eko hauteskunde autonomikoetan sendoa eta positiboa da euskal eskuinak lortzen dituen emaitza elektoralen eta datu soziolinguistikoen arteko erlazio lineala.

Laburbilduz, Nafarroako kasuan ikusten da, beste lurraldeetan bezala, euskal lerrokatze elektoral gertatzen dela. Alde horretatik, azpialde honetan ikusi da udalerririk gehienetan euskara ezagutzak izan duen gorakadak harreman zuzena duela babes elektoral gertatu den gorakadarekin. Edonola ere, korrelazio koefizientearen balioari dagokionez, lurralde horretan euskal lerrokatze linguistikoak duen berezitasuna da eskuineko eta ezkerreko euskal alderdiek antzeko balioa lortzen dutela. Era berean, gogoan izan behar da, NFEko alderdi sisteman, UPN edota CDN gisako alderdi erregionalak egon direla. EAEn, berriz, Unidad Alavesak ez du izan aurrez aipatutako horien sendotasunik.

Aurrera begira, honako galdera zabaltzen da: Zergatik da sendoagoa euskararen eta euskal eskuineko alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko harremana NFEn 2015eko hauteskundeetan, EAEn 2016ko hauteskundeetan baino?

5.3 Irekidura

Bosgarren kapituluaren xedea da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz aztertzen hasi aurretik kuantitatiboki erakustea Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: euskalduna eta espainiarra. Alde horretatik, nazio zapalduen begiradatik egin den azterketak erakutsi du bi lerrokatze horien izaera desberdina dela. Espainiar lerrokatzearen kasuan, nazio normalizatua izanik, ikusi da espainiar bozkatzen duten hautesle guztiak espainiar hiztunak direla. Are gehiago, datuek erakusten dute espainiar alderdiei bozkatzen ez dien hautesle guztiek gaztelania ezagutza dutela. Horrek erakusten duena da hizkuntza gaitasuna, berez, ez dela aldagai pertinentea alderdi bati botoa ematerakoan. Hori horrela izanik, zergatik da horren sendoa euskara gaitasuna eta euskal alderdien arteko erlazio lineala?

Lan honetan uste da euskararen inguruko ezezagutza dela, eta ez euskara gaitasuna, euskal alderdiei bozkatzea baldintzatzen duena. Horrek ez du esan nahi euskara ez dakitenek euskal alderdiei bozkatzen ez dietenik. Aitzitik, herritarren artean euskal hiztun ehuneko txikiena duten hautesle errolda handiko udalerrietan lortzen da euskal alderdien aldeko boto kopuru handiena. Datuei erreparatuz gero, udalerri horietan euskal alderdiei bozkatzen diotenen artean gehiago dira hautesle erdaldunak euskara gaitasuna dutenak baino. Beraz, ez da zuzena bi aldagaien arteko harremana modu esentzialistan ulertzea. Edonola ere, tentuz ibili behar da gisa horretako adierazpenak egiterakoan. Izan ere, kolektiboen joerak marrazten ditu analisi ekologikoak, ez norbanakoen portaerak. Ondorioz, datu agregatuetatik portaera indibidualak azaltzen saiatzea falazia ekologikoan erortzea litzateke (Robinson, 1950). Behin hau esanda, euskararen ezezagutzak hautesleen portaera elektoralaz baldintzatzen duela esaten denean, adierazi nahi dena zera da: hautesle batek euskara gaitasunik ez izateak, euskaraz bizi eta euskara transmititzeko aukera murrizten duela. Ikuspegi horretatik, lan honetan begirada hau hobesten da: lerrokatze linguistiko elektoralak eragiten dituen oinarrizko aldagaiak dira hizkuntza baten etxeko erabilera eta hizkuntza transmisioa. Bai euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan, baina baita espainiar kasuan ere. Hizkuntza gaitasunaren aldagaia garrantzitsua da transmisioari eta erabilerari eragiten dien neurrian.

Hori horrela izanik, euskal nazioa, nazio zapaldu dela kontuan izanda, euskal naziokide asko daude euskara transmititzea edo erabiltzea nahiko luketenak, baina ezin dutenak (bi arrazoigatik, inguruneak laguntzen ez dietelako, edota ez direlako gai euskaraz mintzatzeko). Espainiar naziokideen artean, askoz gutxiago dira horrelako kasuak. Horregatik, honako bereizketa egitea komeni da: 1) nazioak normalizatuak dauden kasuan, hizkuntza gaitasunak hautesleen portaera elektoralean ez du eragiten; 2) nazioaren pitzadurak adierazgarriak direnean, ordea, hizkuntza gaitasunak berebiziko garrantzia hartzen du portaera elektoralean. Euskal kasuan, nazio naturalaren eredu idealera gehien hurbiltzen den kasua da Oresakoa. Bertan, %100 da gaztelania ezagutza eta boto espainiarra ia beti %0-%5 artean dabil.

Bestalde, lerrokatze linguistikoaren eredu idealak erakusten du hizkuntza nazionalaren ezagutzak ez duela eragiten ezker/eskuin botoan. Espainiar nazioaren zentroan – Madrilen– guztiak gaztelar hiztunak dira eta guztiek bozkutzen die espainiar alderdiei. Beste horrenbeste gertatzen da euskal nazioaren zentroan –Azpeitian–. Tipo idealetik urrundu ahala, ordea, korrelazio koefizienteak arazoak ditu fenomeno sozialak azaltzeko.

Pitzadura politikoari dagokionez, azken hori gertatzen da euskal arnagune linguistikoetan, zehazki, Nafarroako udalerrietan. Emaitzen atalean ikusi da, udalerrri horietan kulturalki euskaraz bizi arren, espainiar alderdi periferikoen (berezi, UPNk) euskaldunen botoa bereganatzeko gaitasun handia erakusten dutela. Aldiz, pitzadura kulturala gertatzen da bi hiztun elkarrekin ukipenean dauden lekuetan. Kasu horretan, hizkuntzaren eta botoen datuak gurutzatu ostean, udalerrri ia guztietan ikusten da hizkuntza transmisioaren eta erabileraren ehunekoak euskal alderdi abertzaleek lortzen duten babes elektoralearen ehunekoaren azpitik dagoela. Hortik ondorioztatzen da asko direla euskal alderdiei bozkutzen dieten euskal nazionalistak, baina oinarri kultural erdalduna dutenak. Are gehiago, CIS erakundeak egiten dituen inkestetan argi ikusten da euskal nazionalista sentitzen ez diren zenbaitek ere, euskaraz jakin ala ez, euskal alderdiei bozkutzen dietela. Adibide horiek guztiek balio dute aurrez aipatutako botoaren eta hizkuntzaren arteko desfasean sakontzeko.

Laburbilduz, bigarren atal honetan Hego Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko eta elektorala aztertzean ondorioztatzen da, aipatutako pitzadurak gorabehera, Hego Euskal Herrian erlazio lineala dagoela udalerrri bateko hizkuntza ezagutzaren, transmisioaren eta erabileraren eta botoaren artean. Durkheimen esango lukeen moduan, gizarte gertakari baten aurrean gaude, zeinetan, gizabanakoen ekite moduetatik harago, komunitate linguistiko bereko kideek jokatzeko modu jakin bat jarraitzen duten.

Behin puntu honetara iritsita, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko azterketa soziologikoarekin jarraitzeko proposatzen da honako bi galdera erantzuten saiatzea:

- Non gorpuzten da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara?
- Zein da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren parte direnek euren portaera elektoralari ematen dioten zentzua?

Galdera horiei erantzuteko, hirugarren atalean, sei eta zazpigarren kapituluetan orain aipatu berri diren elementu eta auzi horiek aztertzeko ahalegina egiten da metodo kualitatiboaren laguntzaz.

HIRUGARREN ATALA: EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA HEGO EUSKAL HERRIAN

Hirugarren atal hau osotasunean ulertzeko ezinbestekoa da orain arte landu diren beste bi atalen jarraipen gisa ulertzea. Lehen atalean, adibidez, marko teoriko alternatiboa proposatu da euskal lerrokatze linguistikoa berrinterpretatzeko, hots, Nazio zapalduaren eredua. Horrela, bigarren atalean, begirada horrek eskaintzen duen oinarri teoriko-epistemologikoa baliatu da ikerketa Hego Euskal Herrian gertatzen diren bi lerrokatze linguistiko elektoralak, hau da, euskalduna eta espainiarra, kuantifikatzeko. Era berean, ordea, bigarren atalean zehar ikusi da analisi kuantitatiboak gizarte gertakariaren argazki orokorra irudikatzeko balio duen arren, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren baitan agertzen diren ñabarduretan sakontzeko bere mugak dituela.

Atal honen helburua da ñabardura horietan sakontzeko lan honetan aztergai den gizarte gertakariaren barne mekanismoak ezagutzea. Horretarako proposatzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren protagonista direnei entzutea. Alegia, metodologia kualitatiboaz baliatuz lehen pertsonan ezagutzea zein den euskal alderdiei bozkatzeko dioten euskal hiztunek beren portaerari ematen dioten zentzua.

Gauzak horrela, hirugarren atal hau banatzen da bi kapitulutan. Seigarren kapituluan zehazten da zein den aipatutako analisisia aurrera eramateko erabili den metodologia. Zazpigarren atalean, berriz, emaitzak aurkezten dira.

6. METODOLOGIA

6.1 Datuak ekoizteko teknikak eta laginketa

Hasieratik bertatik honako arazoarekin aurkitu zen ikerketa hau euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko datuak ekoizterakoan: nola sakondu elkarrizketatuek portaera elektoralaren inguruan dituzten iritzi eta bizipenetan, kontuan izanda ekintza hori isilpean gordetzen dela? Informazio hori lortzeko funtsezkoa zen elkarrizketa egiteko baldintza egokiak sortzea, alegia, konplizitate eta intimitate egoera bat lortzea. Alde horretatik, metodologian adituak diren ikertzaileek azpimarratzen dute baldintza horiek sortzeko teknika egokiena sakoneko elkarrizketa dela.¹⁴⁰ Horregatik hobetsi da ikerketa honetan sakoneko elkarrizketaren teknika erabiltzea hautesleen portaera elektoralaren inguruan datuak ekoizteko.¹⁴¹

6.1.1 Laginketa

Begi-bistakoa da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren parte diren hautesle guztiak elkarrizketatzeak bere zailtasunak dituela. Hori horrela bada, zer-nolako diseinua izan behar du ikerketa honek, ikertzaileak dituen baliabideen arabera bideragarria izan dadin, baina, aldi berean, bertatik lortutako datuak adierazgarriak izan daitezten? Gizarte Zientzietan behin eta berriz errepikatzen den auzia da baliabideak/adierazgarritasuna dikotomia. Korapilo hori askatzeko laginketa mota desberdinak proposatu izan dituzte ikertzaileek. Laginketa mota bakoitzak bere indarguneak eta ahulguneak ditu. Edonola ere, berdina da guztien helburua: “unibertsoaren zati adierazgarria” zedarritzea. Izan ere, azken horrek ahalbidetzen du lortzen diren datuetatik abiatuta “populazioari dagozkion emaitzak eta ondorioak lortzea” (Juaristi, 2003, 65-66. or.). Azpikapitulu honetan zehar, beraz, ikerketan zedarritu den laginaren gaineko xehetasunetan sakontzen da, zeinak ahalbidetu duen euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren gaineko azterketa bideragarria eta aldi berean adierazgarria izatea.

¹⁴⁰ Juaristiren (2003, 139-141. or.) arabera honako indarguneak ditu sakoneko elkarrizketak: batetik, teknika honek ahalbidetzen du elkarrizketatuak ikergaiaren inguruan dituen “sentimendu eta iritzi pertsonalen” inguruan informazio zehatza lortzea, eta bi, informazio hori ahalik eta leialena izateko, eta etxekotasun eta konplizitate egoera sortzeko oso teknika egokia da, bereziki “intimitatea eskatzen” duten gaiak jorrazteko.

¹⁴¹ Honako lan hauei jarraituz aplikatu da sakoneko elkarrizketaren teknika (Ruiz Olabuenaga, 2007; Juaristi, 2003; Touraine, 1978; Corbetta, 2009).

73. taula: Laginketaren ezaugarriak.

IKERKETA OBJEKTUA	Euskal lerrokatze linguistiko elektoralak.
ANALISI UNITATEA	2016ko eta 2015eko Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan euskal alderdiei bozkatu zieten euskal hiztunak.
DENBORA TARTEA	Elkarrizketak egin dira 2017ko urria eta 2020ko ekaina bitartean. NFEko elkarrizketak 2015-2019ra doan ziklo politikoaren baitan, eta EAEkoak, 2016-2020 bitartean.
UNIBERTSOA	Ezinezkoa da datu zehatza jakitea. Alabaina, arrazoizkoa da pentsatzea 2015/2016ko hauteskunde autonomikoetan euskal lerrokatze linguistiko elektoralak gutxienez 150.000 hauteslek osatzen zutela.
LAGINA	Denera, 34 elkarrizketatu. Kopuru hori arrazoizkotzat jo da unibertsoaren zati handi baten gaineko informazioa lortzea ahalbidetzeaz gain, ikerketa bideragarria delako.

Iturria: Egilea.

Ikerketa honen unibertsoa osatzen dute 2015/2016ko hauteskunde autonomikoetan euskal alderdiei babes elektoralak eman zioten euskal hiztun guztiek. Alde horretatik, atal kuantitatiboan indartu den hipotesia da hainbat ikuspegitik euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren barne konposizioa anitza dela (adibidez, eremu soziolinguistikoaren edota euskal ezkerre/ euskal eskuina ardatzaren arabera).

Laginarengatik inguruko irizpide nagusiak zedarrizteko CISen galdetegi hartu da erreferentzia moduan. Galdetegi honetatik lortutako datuek¹⁴² berretsi egiten dute euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren unibertsoa multzo heterogeneoa denaren hipotesia, alegia, ikerketa honen unibertsoa ezaugarri soziolinguistiko eta politiko desberdinak dituzten hautesleek osatzen dutela.

74. taula: CISen galdetegi, 3154 zenbakia.

LAGINAREN TAMAINA: 2.470 (horietatik 688 elkarrizketatutak honako ezaugarria dute): Euskal eleduenak dira eta euskal alderdiei bozkatu zieten.			
ALDAGAIAK	Euskal lerrokatze linguistikoaren ezaugarriak (kopurutan eta ehunekotan)		
BOTOA	EAJ	EH BILDU	Erantzunik ez
	364 (%52,91)	324 (%47,09)	0 (%0)
LEHEN HIZKUNTZA	Euskara (ere bai)	Erdara	Erantzunik ez
	347 (%50,43)	340 (%49,42)	1 (%0,15)
SORTERRIA	EAE	EAEtik kanpo	Erantzunik ez
	645 (%93,75)	43 (%6,25)	0 (%0)
GURASOEN JATORRIA*	EHan jaioa(k)	Biak EHTik kanpo jaiok	Erantzunik ez
	672 ^{716tik} (%93,85)**	38 ^{716tik} (%5,17)	6 (%0,83)
IDEOLOGIA NAZIONALA***	Euskal abertzalea	Espainiar abertzalea edo beste bat	Erantzunik ez
	563 (%81,82)	101 (%14,68)	24 (%3,48)
EREMU SOZIOLOGIA	Daturik ez.		
GENEROA	Gizona	Emakumea	Erantzunik ez
	336 (%48,84)	352 (%51,16)	0 (%0)
ADINA	40 urte baino gehiago	40 urte edo gutxiago	Erantzunik ez
	450 (%65,41)	238 (%34,59)	0 (%0)

Iturria: Egilea.

Oharra: *Gurasoaren jatorriaren inguruko datuak dira 2012ko hauteskunde autonomikoen inguruan egindako hauteskunde aurreko 2954 galdetegitik lortutakoak. 2012ko boto asmoa hartu da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ezaugarriak aztertze erreferentzia modura (716 elkarrizketatu).

**Aita edo ama EAEtik kanpo jaiok dute 672 elkarrizketatu horietatik 66 kasuetan.

***Honakoa da CIS inkestak egiten duen galdera ideologia nazionalaren inguruan: "¿Se considera Ud. nacionalista vasco/a?" Ikusten den moduan, espainiar nazionalismoa ez du aipatzen. Honako galdera gehitzen du horren ordean: "Y en relación con el sentimiento nacionalista vasco, ¿podría decirme, por favor, dónde se colocaría Ud. en una escala de 1 a 10, en la que el 1 significa el "mínimo nacionalismo" y el 10 el "máximo nacionalismo"?"

¹⁴² NFEko kasuan, inkestan ez da kontuan hartzen hizkuntzaren aldagaia. Horregatik, lan honetan erreferentzia gisa hartu den ikerketa da CIS erakundeak egin zuen 3.154 ikerketa, hots, 2016ko hauteskunde autonomikoen inguruko hauteskunde osteko inkesta. Honakoak dira inkesta horretako datuak: 2.470 elkarrizketatik 1.451 dira euskara ulertzen dutenak. Aldiz, azken horien artean 688 dira euskal alderdiei bozkatzeko dietenak.

Gauzak horrela, kuota bitartez egindako laginketa ez-proporzionalaren sistema erabiltzea hobetsi da unibertsoaren baitan dagoen aniztasuna laginean ahalik eta ongien ordezkatzeko (Juaristi, 2003, 69-76. or.). Kuota bidezko laginketa ez-proporzionalaren helburua da ahotsa ematea unibertsoaren baitan interesgarriak diren kasu desberdinei. Beste modu batera esanda, laginketa honek bilatzen duena da adierazgarritasun substantiboa, estatistikoa baino gehiago. Behin laginketa mota zehaztuta, honakoak dira ikerketara egokitu behar diren hiru parametroak: bat, laginaren tamaina; bi, unibertsoa multzo desberdinetan banatzen duten irizpideak zeintzuk diren zehaztea; eta hiru, multzo horietako bakoitzaren kuota.

Hasiera batean pentsatu zen laginaren tamaina 24 elkarrizketatu izatea. Azken honek, ikerketa bideragarria izateaz gain lurralde bakoitzean –Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa– gutxieneko ordezkari izatea ahalbidetzen baitzuen (sei elkarrizketatu). Alabaina, kopuru hori motz gelditzen zela aurreikusi zen. Izan ere, 24 elkarrizketatu ez ziren nahikoa euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren baitan ertzetan gelditzen diren zenbait kasu aztertzerantz iristeko. Gerora alternatiba ezberdinak pentsatu ziren. Azkenean, 34 elkarrizketa egin dira. Kopuru hori, esperientzia sozial guztia biltzeko adina izan ez arren, ikerketak beste sendotasun bat hartu duelakoan gaude. Bestalde, honako hauek dira lagina barrutik multzo desberdinetan bereizteko kontuan hartu diren aldagaiak eta kuota:

75. taula: Laginaren ezaugarriak.

LAGINAREN TAMAINA: 34 elkarrizketa (euskal alderdiei botoa eman zioten euskal eleduak)		
ALDAGAIK	KUOTAK (kopurutan)	
BOTOA	EAJ / GEORA BAI	EH BILDU
	17 (%50)	17 (%50)
LEHEN HIZKUNTZA	Euskara (ere bai)	Erdara
	18 (≈%55)	16 (≈%45)
SORTERRIA	Euskal Herria (7 lurralde)	Euskal Herritik kanpo
	27 (%80)	7 (%20)
GURASOEN JATORRIA	Euskal Herrian jaioa(k)	Biak Euskal Herritik kanpo jaioak
	25 (≈%75)	9 (≈%25)
IDEOLOGIA NAZIONALA	Euskal abertzalea	Espainiar abertzalea edo besteren bat
	27 (%80)	7 (%20)
EREMU LINGUISTIKOA	Lurgune euskalduna	Lurgune ez hain euskalduna
	11 (%33)	23 (%66)
GENEROA	Gizonak	Emakumeak
	19 (≈%55)	15 (≈%45)
ADINA	1978an edo lehenago jaioa	1978 ondoren jaioa
	17 (%50)	17 (%50)

Iturria: Egilea.

Honatz, banan bakoitzaren inguruko informazioa:

1) Botoa: 2015/2016 hauteskunde autonomikoetan hiru dira ordezkari politikoak lortzen duten alderdi/koalizio euskaldunak. Horietako bi kategorizatu dira zentro-eskuineko gisa –Geroa Bai eta EAJ–; aldiz, zentro-ezkerrean kokatu da EH Bildu. Alde horretatik, CISen 3154 galdetegian ikusten da euskal alderdiei bozkatzen dieten euskal hiztunen erdiak EAJri bozkatzen dietela, eta beste erdiek, EH Bilduri. Horregatik guztiagatik, laginketari begira erabaki da zentzuzkoa dela elkarrizketatuak erdi eta erdi banatzea, alegia, bloke bakoitzeko 17 elkarrizketa egitea.

2) Lehen hizkuntza: Hego Euskal Herrian gaztelania da biztanleen gehiengoaren lehen hizkuntza –EAEn %76,4 eta NFEn %90,8– (Eusko Jaurlaritza, 2019). Alabaina, hautesleen artean euskal lerrokatze linguistikoa soilik kontuan izanez gero, desberdintasuna ez da horren handia. Gogoratu, atal kuantitatiboan ikusi da udalerrri batean euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa igo ahala, hazi egiten dela euskal alderdiei bozkatzeko joera. Ildo horretatik, lehenago aipatu den CISek egindako hauteskunde osteko ikerketan ikusten da euskara (ere) lehen hizkuntza dutenen eta gaztelania lehen hizkuntza duten hautesleen proportzioen artean oreka mantentzen dela. Gauzak horrela, lan honetan erabaki da lehen hizkuntzari dagokion kuotak berdintsuak izatea. Aurrera jarraitu aurretik, garrantzitsua iruditu da aipatzea elkarrizketatu bat edo besteri zaila egin zaiela beren burua kategoria horietan kokatzea. Eredu idealetik zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta lausoagoa baita errealitatea.

3) Sorterria: CISen galdetegitik lortutako datuek erakusten dute euskal lerrokatze linguistikoaren baitan EAetik kanpo jaiotakoak soilik %6,25 direla. Lan honetan uste da komenigarria dela laginak adierazgarritasuna irabazteko kuota hori handiagoa izatea. Izan ere, elkarrizketa bidez soslai desberdinei ahotsa ematea da laginketa ez-proportzionalaren helburua, nahiz eta horrek batzuetan eskatzen duen unibertsoan gertatzen diren proportzioak apur bat moldatzea. Horregatik guztiagatik, lan honetan hobetsi da Euskal Herritik kanpo jaiotako elkarrizketatuen proportzioa %20 izatea.

4) Gurasoen jatorria: 2016ko hauteskunde osteko galdetegiak ez du galdetzen hauteslearen gurasoen jatorriaren inguruan. Hori horrela izan arren, beharrezkoa ikusi da aldagai hori aintzat hartzea. Horregatik, 2012ko hauteskunde aurreko galdetegitik lortutako datuak erabili dira euskal lerrokatze linguistikoa osatzen duten ustezko boto emaileen artean ikusteko zenbatak dituzten bi gurasoak EAetik kanpo jaiotakoak. Datuek erakusten dute %5,17ak soilik dituela bi gurasoak EAetik kanpo jaiotakoak. Ildo horretatik, sorterriarekin egin den moduan, kasu honetan ere ikerketa honetarako gain ordezkatu egin da gurasoen jatorriaren aldagaia. Gauzak horrela, bi gurasoak Euskal Herritik

kanpo jaiok izango ditu lagina osatzen duten elkarrizketatuen %20ak. Horrez gain, elkarrizketatuen ia %40ak du bi gurasoetako bat EHTik kanpo jaiotakoa gutxienez.

5) Ideologia nazionala: CISen galdetegiko datuek erakusten dute euskal lerrokatze linguistiko elektorala osatzen duten boto emaileen %81 euskal nazionalistatzat definitzen den bitartean, %15ak ez-nazionalistatzat duela bere burua. Lan honen atal teorikoan aipatu da errealitatean ez-nazionalistarik ez dagoela. Are gehiago, ez-nazionalista kategoria azaldu da nazioaren gaineko dikotomia etniko/zibikoa elikatzeko erabiltzen dela. Ondorioz, nazionalista bai/ez dikotomiaren orde zuzenago ikusi da *euskal abertzalea/espainiar abertzalea edo besteren bat* (adibidez, senegaldarra, frantziarra, japoniarra edota beste nonahikoa) aukera eskaintzea elkarrizketatuei. Edonola ere, lehen hizkuntzarekin gertatu den moduan, zenbait elkarrizketatuk azpimarratu dute kategoria estuak direla aipatutakoak. Kuotei dagokienez, CISeko galdetegiko ehunekoak mantendu dira.

6) Eremu soziolinguistikoa: Euskal lerrokatze linguistiko elektorala aztertzerakoan ikusi da eremu soziolinguistiko batetik bestera aldakorra dela bi aldagaien arteko erlazio linealaren sendotasuna. Alde horretatik, bi aldagaien artean harreman sendoena ikusi da udalerrri euskaldunetan gertatzen dela. Beraz, arreta berezia jarri nahi da eremu horretan. Lanean zehar ikusi den moduan, berau baita euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren ernamuina. Hori dela eta, komeni da aurrera begira zenbait kategoria zehaztea. Alde horretatik, udalerrri euskalduna bezala izendatzen da euskararen indizeak 70 baino balio handiagoa lortzen duen udalerrria. Honela kalkulatu da euskararen indizea: “udalerrri horretan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoaren eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoaren erdiaren batura”. UEMAK, esaterako, irizpide hori hartzen du erreferentzia gisa (Iurrebaso, 2015, 73. or.). Alde horretatik, lagina osatzerakoan udalerrri euskaldunetako elkarrizketatuak %33 izatea aurreikusi da eta %66a udalerrri ez euskaldunetakoa. Azken horien kasuan, multzo hori banatu da beste hiru azpimultzotan, besteak beste, Tuteran, Basauri edota Legazpi bezalako errealitate soziolinguistikoak elkarrengandik bereizteko.

76. taula: Elkarrizketak egin diren udalerriak euskara indizearen eta lurraldearen arabera.

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Hego EH
Testuinguru soziolinguistikoa	100-70	1 ⁸	2 ^{21,23}	5 ^{34, 2, 17, 18, 24}	3 ^{25, 7, 13}	11
	70-50		3 ^{26, 6, 19}	5 ^{29, 3, 14, 15, 20}		8
	50-30	6 ^{27, 28, 31, 9, 10, 22}	4 ^{30, 32, 4, 16}		1 ⁵	11
	30-0				4 ^{33, 1, 11, 12}	4

Iturria: Egilea.

7) Generoa: Generoaren ikuspegitik, ahalegina egin da elkarrizketatuen artean oreka mantentzeko, nahiz eta lan guztian zehar zailtasunak izan emakumeak aurkitzeko. Ondorioz, desfase txiki batekin amaitu da laginketa amaieran: 15 emakumezkoak eta 19 gizonezkoak. Bestalde, nahiz eta elkarrizketatuei galdetu, inork ez du bere burua dikotomia horretatik kanpo identifikatu.

8) Adina: 1978. urtea ezarri da bi belaunaldi bereizteko. Alde horretatik, elkarrizketatuen erdiak 1978ko Espainiar Konstituzioa onartu baino lehen jaiotakoak dira, eta beste erdiak, ondoren jaiotakoak.

Beraz, honela gelditzen da laginketa horren arabera elkarrizketatu bakoitzaren ezaugarri sozial eta ideologikoak biltzen dituen taula:

77. taula: Elkarrizketatuak soslai desberdinen arabera multzokatuta.

BEHAKETA UNITATEA EUSKAL ALDERDIEI BOZKATZEN DIETEN EUSKAL HIZTUNAK LAGINA 34 ELKARRIZKETATU				LEHEN HIZKUNTZA									
				EUSKARA (ERE BAI)				ERDARA					
				BOTOA	EAJ/GEROA BAI		EH BILDU		BOTOA	EAJ/GEROA BAI		EH BILDU	
					Eremu soziolinguistikoa		Eremu soziolinguistikoa			Eremu soziolinguistikoa		Eremu soziolinguistikoa	
		Lurgune euskalduna	EZ	Lurgune euskalduna	EZ			Lurgune euskalduna	EZ				
TOT				1	2	3	4	5	6	7	8		
ADINA	1978an edo lehenago jaioa	GURASOEN JATORRIA	EH	E	A	7, 8, 13*	1, 6, 10, 19	18					
			Beste	SORTERIA	K	B	21						
		E			C			17			22		
		K	D							14*	2*	29	
	1979 ondoren jaioa	GURASOEN JATORRIA	EH	E	E	23		25, 24	26, 27, 33, 11		32, 4, 5		31*, 12
			Beste	SORTERIA	K	F						34*	
		E			G				20				16*
		K	H									28, 15*	

Iturria: Egilea.

Oharra: Taulan agertzen diren zenbakiak elkarrizketatuak dira bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta politikoen arabera kokatua. Analsiaren atalean, izendapen horren arabera identifikatzen dira. Bestalde, zenbakien gainean dagoen izartxoak adierazten du elkarrizketatuek beren burua *euskal abertzale* gisa identifikatu ordez, *espainiar abertzale* edo *besteren bat* hobetsi dutela.

Orain arte aipatutako aldagaiez gain, laginketa egiterakoan ahalegina egin da lurraldetasunaren ikuspegitik zentzuzko banaketa egiteko. Alde horretatik, 34 elkarrizketa horietatik 10 egin dira Gipuzkoan, 9 Bizkaian, 8 Nafarroan eta 7 Araban.

78. taula: Elkarrizketatuen soslaia eta udalerrria.

N	SOSLAIA	UDALERRIA	N	SOSLAIA	UDALERRIA	N	SOSLAIA	UDALERRIA	N	SOSLAIA	UDALERRIA
1	A2	IRUÑA	10	A2	AMURRIO	19	A2	BERANGO	28	H8	GASTEIZ
2	D7	AZPEITIA	11	E4	BERRIOBETTI	20	G4	DONOSTIA	29	D8	DONOSTIA
3	A6	LEGAZPI	12	E8	IRUÑA	21	B1	MENDATA	30	A6	MUSKIZ
4	E6	BASAURI	13	A1	DOÑAMARIA	22	C6	LAUDIO	31	E8	GASTEIZ
5	E6	ALTSASU	14	D6	DONOSTIA	23	E1	ONDARROA	32	E6	BASAURI
6	A2	UGAO	15	H8	DONOSTIA	24	E3	ALEGI	33	E4	TUTERA
7	A1	LESAKA	16	G8	BILBO	25	E3	BERA	34	F7	AZKOITIA
8	A1	ARAMAIO	17	C3	ZUMAIA	26	E4	MUNGIA			
9	A6	GUARDIA	18	A3	AZPEITIA	27	E4	GASTEIZ			

Iturria: Egilea.

6.1.2 Elkarrizketen inguruko xehetasunak

Konpromisoa izaten da pertsona bati ikerketan parte hartzeko eskatzea. Are delikatuagoa da kontua pertsona horri bere portaera elektoraren inguruan galdetu behar bazaio.¹⁴³ Horregatik, ezinbestekoa da ongi lantzea pertsona bat elkarrizketatzera iritsi arteko prozesua. Azken batean, egindako bideak baldintza baitezake elkarrizketatik lortutako informazioaren kalitatea eta balioa.

Ikerketa honetan bide desberdinak erabili dira elkarrizketatu posibleak identifikatu eta eurekin harremanetan jartzeko. Elkarrizketatuen zati bat osatzen dute ikertzaileak aurretiaz ezagutzen zituen pertsonak. Horien kasuan ikertzaileak aurretik bazituen aurreiritzi batzuk euren portaera elektoraren inguruan. Soslaia betetzen zutela uste zen kasuetan, beraiekin zuzenean harremanetan jarri eta ikerketaren nondik norakoak azaldu zaizkie. Ondoren, eurek erabaki dute ikerketan parte hartu edo ez.

Elkarrizketatuak lortzeko bigarren bidea izan da bitartekari lanak egingo dituen bigarren pertsona bilatzea. Kasu honetan, ikertzaileak aurrez ezagutzen zuen bitartekaria eta eskatu zaion mesedea da elkarrizketatzeko hirugarren pertsona bat bilatzea ikerketaren beharretara egokitzen dena. Lan egiteko modu hau erabili da beste modu batera ikertzaileak iritsi ezin zuen eremuetan elkarrizketatuak lortzeko. Horrelakoetan, bitartekariari aurrez azaldu zaio zen den ikerketaren helburua. Era berean, aurretiaz pasa zaio ikerketarako bilatu nahi diren soslai posibleen zerrenda. Behin datu horiek eskuan dituela, bere aldetik bitartekaria saiatu da bere ingurune sozialean ezaugarri horiek betetzen dituen elkarrizketatuak aurkitzen. Hirugarren pertsona hori ikerketan

¹⁴³ Ikerketa hau ez zen posible izango bidelagun izan ditudan pertsonen laguntzarik gabe. Nire eskerrik beroenak anonimatuan geldituko diren baina lan hau posible izateko laguntzeko prest egon diren guztiei.

parte hartzera animatu den kasuetan, bitartekariak ikertzaileari jakinarazi dio soslai bat betetzen duen pertsona bat aurkitu duela. Horrekin batera adierazi du elkarrizketatuaren oniritzia duela ikertzaileari jakinarazteko ikerketan parte hartzeko prest dagoela. Egoera horretan, ikertzailea izan da hirugarren pertsonarekin harremanetan jarri dena, aurrez bitartekariak pasatako kontaktuari esker.

Elkarrizketatuak lortzeko erabili den hirugarren bidea izan da euskal alderdi politikoren batekin harreman estua duen jendearekin harremanetan jartzea. Edonola ere, aurrera egin aurretik komenigarria da honako ñabardura egitea: elkarrizketatu guztiak norbanako gisa eman dute euren iritzia, ez alderdi edo erakunde bateko ordezkari gisa. Alde horretatik, elkarrizketatuak aurkitzerakoan ahalegin berezia egin da elkarrizketatuen ehuneko handi batek alderdi politikoekin harreman oso estua ez izateko. Izan ere, errealitatean botoa ematen duten gehienek zeharkako harremana dute alderdi politikoekin. Azkenik, elur bolarena da elkarrizketatuak inguratzeko erabili den beste teknika. Kasu honetan, bide batetik edo bestetik lortutako elkarrizketatuek erraztu dute norbanako gehiagorengana iristea eta eurak arduratu dira elkarrizketatu gehiago bilatzeaz.

Elkarrizketa guztiak grabatu egin dira audioan bi grabagailutan. Batez beste, 60-90 minutuko iraupena izan dute. Lekuari dagokionez, elkarrizketatuari aukera eman zaio elkarrizketa egiteko tokia aukeratzeko, edozein kasutan, beti proposatu da elkarrizketak UPV/EHUREN Donostiako Karlos Santamaria liburutegian egiteko aukera. Parte-hartzea altruista izan da eta ez da ordainsaririk agindu. Borondatezko parte hartzea den neurrian, elkarrizketatuei aukera eman zaie edozein unetan eta azalpenik eman gabe bertan behera uzteko sakoneko elkarrizketa. Alde horretatik, elkarrizketatuen anonimotasuna bermatzeko ez dira elkarrizketen transkribapenak eranskinean jarri.

Elkarrizketaren formatuari dagokionez, Corbettak (2009) proposatzen duen irizpideen arabera elkarrizketak egiterakoan erabili den galdetegiak honako izaera edukiko luke: erdi egituratua.¹⁴⁴ Izan ere, elkarrizketan lantzeko gaiak aurretiaz gidoian zehaztu arren, azken honek funtzio orientatiboa izan du soilik. Orokorrean, egoeraren arabera egokitu

¹⁴⁴ Honatx, Corbetak (2009, 353, 357. or.) egiten duen bereizketa: “En la entrevista estructurada las preguntas planteadas por el entrevistador se establecen de antemano, tanto en la forma como en el contenido; en la entrevista semiestructurada se establece de antemano el contenido, pero no la forma de las preguntas; por último, en la entrevista no estructurada, ni siquiera el contenido de las preguntas se fija previamente, y éste puede variar en función del sujeto. (...) En la entrevista no estructurada está en la singularidad de los temas y proceso de la entrevista. El único objetivo del entrevistador es plantear los temas que desea abordar, en el curso de la conversación (...) Para concluir diremos que la diferencia entre la entrevista semiestructurada y la entrevista no estructurada es más bien difusa, y que el verdadero contraste está entre estas dos y la entrevista estructurada”.

dira galderak. Alde horretatik, elkarrizketan zehar elkarrizketatuak gai interesgarriren bat atera badu, hari horri tira zaio eta elkarrizketatzaileari egoki iruditu zaion unean, berriro, gidoiak zehaztutako puntuetara itzuli da elkarrizketa (V. Eranskina).

6.2 Datuen analisia

Elkarrizketa horietatik datu ugari ekoitzi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko lanketa egiteko. Analisia errazteko, kode zuhaitz batzuen inguruan antolatu dira elkarrizketatuen bizipen eta pertzepzioak (VI. Eranskina). Ez hori bakarrik, laginketa estratifikatua erabili denez, aukera dago bizipen horiek elkarrizketatuen ezaugarri soziolinguistiko eta politikoen arabera sailkatzeko. Horrela, laginaren diseinuan oinarrituta eta sistema informatikoek lagunduta posible izan da datuen analisia bi mailatan egitea: batetik, edukiari dagokion azterketa; eta bestetik, elkarrizketatuen ezaugarriek edukiaren izaeran duten eraginari dagokiona.

6.2.1 Lehen mailako analisia: edukien analisia

Luzea bezain emankorra izan da edukien analisia. Hasiera batean diseinatutako ikerketak izaera hipotetiko-deduktiboa zuen. Alegia, lehen planteamenduaren helburua zen lerrokatze linguistiko elektoralen inguruan akademian tradizio luzea duen clivajearen teoriak esaten zuena jaso eta euskal kasuarekin kontrastatzea. Horretarako, sintonian egon behar zuten galdetegian landuko ziren puntuak, kode zuhaitzak hartuko zuen egiturak eta atal teorikoak. Alabaina, elkarrizketatuen bizipenak jaso ostean, ustekabeko bat gertatu zen: desfasea zegoen elkarrizketatuen esperientzia sozialetatik sortutako kode zuhaitzaren izaeraren eta atal teorikoak eskaintzen zuen interpretazio markoaren artean.

Behetik gora kode zuhaitzak sortzen hasiz gero, atal teorikoak ez zuen baliabiderik eskaintzen errealitatea teoriarekin kontrastatzeko. Izan ere, atal teorikoak ez zuen erantzunik elkarrizketatuen artean agertzen ziren mundu ikuskera anitzak osotasunean barne biltzeko. Adibide bat jartzearren, akademian erreferente diren autoreek eskaintzen dituzten interpretazio markoetan ez zen aurreikusten espainiar lerrokatze linguistiko elektoralaren existentzia esplizituki aipatu beharraren premiarik. Alabaina, zenbait elkarrizketatuk euskal lerrokatze linguistikoaren egoera minorizatua azaltzeko ezinbestekotzat jotzen zuen bestearen existentziatik abiatzea. Esperientzia sozial batzuei entzungor egiteak suposatzen zuen elkarrizketatu horien bizipenak marko hegemonikora bihur murriztea eta elkarrizketen bidez lortutako informazioaren zati bat itzalean uztea.

Horrenbestez, honako galdera sortu zen: zenbateraino da zuzena marko teorikoa, baldin eta hautesleen portaera elektoralak osotasunean azaltzeko muga estrukturalak baditu?

Horren guztiaren gaineko gogoetak ekarri du ikerketaren diseinua goitik behera aldatzea. Hala, erabakia hartu zen sakoneko elkarrizketatik lortu diren esperientzia sozialak erdigunean jartzekoa. Beraz, hemendik aurrera atal teorikoaren funtzioa izango zen kode zuhaitza hartzen ari zen formari zentzua ematea. Gauzak horrela, ikerketak izaera induktiboa hartu du bigarren fase batean.

Edonola ere, ikerketa honetan bi faseak dira garrantzitsuak: bai diseinu hipotetiko-deduktiboaren mugak jabetzera iristeko egin beharreko bidea, baita bigarren fasean sortu den zuhaitz kodeari dagokiona ere. Izan ere, bien arteko gurutzaketarik gabe ez zen posible izango azken emaitza honetara iristea. Azken batean atal teoriko hegemonikoak eskaintzen duen sistematizazioak ahalbidetu du bestela agertuko ez ziren zenbait aldagai elkarrizketetan lantzea, eta alderantziz, elkarrizketatuak izan dira marko horren mugak erakutsi eta fenomeno bere osotasunean ulertzeko ildo nagusiak zedarritu dituztenak. Azkenerako bi puntu nagusitan banatu dira elkarrizketatuen esperientzia sozialak.

79. taula: Kode nagusien inguruko xehetasunak.

<p>1. Saretze bertikala</p>	<p>Euskal alderdiei bozkatzten dieten euskal hiztunek beren portaerari ematen dioten zentzua azaltzerakoan ikusi da hauteslearen pentsamendua ez dela abstraktua, hau da, elkarrizketatuen pentsamendua ingurumari zehatz batean gorpuzten dela. Ildo horretatik ikusi da beren portaera elektoralara zuzenki lotua dagoela bizitzan zehar izan dituzten bizipenekin, emozioekin eta harreman sareekin. Horregatik erabaki da beharrezkoa dela elkarrizketatuek euskal saretze bertikalaren inguruan dituzten bizipenak, identifikazioak eta iritziak jasotzea.</p>
<p>1.1. Euskal hiztun elkartea</p>	<p>Euskal hiztun elkartea da euskal saretze bertikalaren oinarria. Kategoria honen baitan biltzen dira euskal hiztun moduan elkarrizketatuek dituzten bizipenak eta iritziak, hala nola: euskara erabiltzeko duten ohitura, euskara jabekuntza prozesuaren xehetasunak, hizkuntza bakoitzarekiko duten atxikimendua, ingurune eleaniztun batean hizkuntza gutxitu bateko hiztun izateak eragiten duen biolentzia fisiko zein sinbolikoa eta abar.</p>
<p>1.2. Euskal nazionalismoa</p>	<p>Sistema normatiboa da euskal saretze bertikalaren bigarren dimentsioa. Hala, kategoria honen baitan bildu dira euskaltasunaren inguruan elkarrizketatuek esandakoak. Alde horretatik, elkarrizketetan agertu dira naziotasuna sentitzeko eta definitzeko modu desberdinak. Azpimultzoak egiterakoan arreta jarri da euskarak naziotasuna zedarrizteko duen garrantzian. Era berean, kategoria honen barruan jaso dira elkarrizketatuek euskal nazionalismoaren, autodeterminazioaren edota independentziaren inguruan dituzten iritziak.</p>
<p>1.3. Euskal erakundetzea</p>	<p>Elkarrizketatuek luze eta zabal hitz egin dute euskal estatugintza prozesuaz. Bereziki, eduki gehiena pilatu da euskal estatu egiturarik ez edukitzeak eragin duen menderakuntza kulturalaren inguruan. Egoera hori bera historiako une desberdinetan nola erreproduzitu den eta elkarrizketatuek hori guztia nola bizi izan duten jaso da kategoria honen azpian. Era berean, kategoria honetan bildu dira alderdi politikoez nazioegintza prozesuan jokatu duten paperaren inguruan esandakoak. Hirugarren kategoria horrek osatzen du euskal saretze bertikala osatzeko beharrezkoa den sistema organizatiboaren dimentsioa.</p>
<p>2. Portaera elektoral</p>	<p>Elkarrizketatuek beren portaera elektoralari ematen dioten zentzua nekez ulertzen da euskal politikagintzaren inguruan egiten duen irakurketa kontuan izan gabe. Horregatik erabaki da portaera elektoralaren inguruko azalpena hiru kode hauetan banatzea.</p>
<p>2.1. Erritu arrotza</p>	<p>Hauteskunde autonomikoak erritu modernoak dira, Espainiar sistema politikoa legitimatzeko funtzioa betetzen dutenak. Estatu gabeko nazioa da euskal nazioa, eta ondorioz, ez du sistema politikoa beregainik. Beste modu batera esanda, hauteskundeetan parte hartzen duenean sistema arrotza ari da legitimatzen. Elkarrizketatu batzuek azpimarratu dute desfase horrek kontraesanak sortzen dizkietela, beste batzuek, aldiz, ez dute horrelako sentimendurik. Horregatik, beharrezkoa ikusi da elkarrizketatuek beren portaera elektoralara esplizituki azaldu aurretik fenomeno horren inguruan dituzten bizipen horiek kategoria honen azpian jasotzea.</p>
<p>2.2. Alderdi sistema</p>	<p>Alderdi sistemak dira gizarteko gatazka sozial nagusiak identifikatzeko elementu adierazgarrienak. Alde horretatik, kategoria honetan bildu dira elkarrizketatuek alderdi politikoen inguruan esandakoak. Adierazpen horiek lerroartean eskaintzen dituzte lerrokatze linguistiko elektoralara ulertzeko gako nagusiak. Era berean, elkarrizketatuei gustatuko litzazkieken aliantzen inguruan esandakoak jaso dira, baita botoa ematerakoan jarraitzen duen logikaren inguruan aipatutakoak ere.</p>
<p>2.3. Sendotasuna</p>	<p>Elkarrizketetan ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara bizitzeko eta sentitzeko moduak anitzak direla. Alde horretatik, kategoria honen baitan bildu dira elkarrizketatuek euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean eragiten duten aldagaien inguruan esandakoak, hala nola: hauteslearen lehen hizkuntza, ideologia nazionala, eremu soziolinguistikoa eta gainerako aldagaiak.</p>

Iturria: Egilea.

6.2.2 Bigarren mailako analisisia: eredu idealak

Edukien azterketatik haratago doa bigarren mailako analisisia deitu dena. Izan ere, kasu honetan bere horretan aztertu nahi dena ez da elkarrizketatuak bere portaerari ematen dion zentzua, elkarrizketatuaren ezaugarri soziodemografiko eta ideologikoen arabera azken hori nola aldatzen den baizik.

Gogoan izan behar da laginketa egiterakoan lagina estratifikatua eta ez-proporzionala izatea erabaki dela. Horrela, datuak aztertzerakoan bi dimentsio ditu ikertzaileak aukeran. Batetik, diskurtsoa, hau da, elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzua –edukien analisisian landu dena–, eta bestea, diskurtsoa baldintzatzen duten elkarrizketatuen ezaugarri soziodemografiko eta ideologikoei dagokiena. Bigarren analisi honen helburua da elkarrizketatuek esandakoa ordenatzea subjektuen ezaugarrien arabera. Horrela, adibidez, elkarrizketatuaren lehen hizkuntza hari-eroale gisa hartuta, aukera dago ikusteko nola aldatzen den euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna. Beste modu batera esanda, bigarren mailako analisiak ahalbidetzen duena da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan eredu idealak sortzea.

El concepto tipo-ideal, escribe Weber, se obtiene mediante la acentuación unilateral de uno o de varios puntos de vista, y la conexión de una serie de fenómenos particulares conocido y comunes, presente en mayor o menor medida [...], dentro de un marco conceptual unitario. Dada su pureza conceptual, este marco nunca puede encontrarse empíricamente en la realidad; se trata de una utopía, y la labor histórica debe encargarse de determinar en cada caso la mayor o menor distancia entre la realidad y ese marco ideal [...]. Éste tiene el significado de un concepto, límite ideal puro, con el que la realidad se debe medir y comparar, a fin de ilustrar determinados elementos significativos de su contenido empírico (Rossi, 1974, honako honek aipatua Corbetta, 2009, 21-22. or.).

Eredu idealak ahalbidetzen duena da analisisia egiterakoan arreta hirugarren aldagaian jarri beharrean, subjektua jartzea guztiaren erdigunean.

El objetivo no es entender las relaciones entre las variables, sino comprender las manifestaciones en su individualidad: la categoría del nexos causal se sustituye por la de experiencia vivida. Se busca reconstruir modelos, tipologías, secuencias a partir de casos analizados en su totalidad. Y, en consecuencia, el punto de partida (tanto para el análisis de los datos como para la reflexión teórica) lo constituye el individuo, no la variable (Corbetta, 2009, 349. or.).

Gauzak horrela, emaitzen atalean aztertzen da zein kasutan gertatzen den euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren eredu ideala. Alde horretatik, lan honetan iturri desberdinak erabili dira hirugarren aldagai horiek hautatzeko. Ruiz Olabuenaga eta besteek (1998, 291-346. or.) egindako lanean esaterako, datuek erakusten dute euskal alderdiei bozkatzeko joera sendotu egiten dela euskal hiztunen artean, hauteslea heldua eta Euskal Herrian jaiotakoa denean. Era berean, Martínez-Herrera eta Barcelók

azpimarratzen dute EAEko botoan eragina dutela euskal alderdiei bozkatzekoan honako aldagaiek: lehen hizkuntzak, hauteslearen jatorriak (norberarenak eta gurasoenak) eta ideologia nazionalak. Hiru horiek, elkar elikatzen direla ulertzen du autoreak (Martínez-Herrera eta Barceló, 2014, 335. or.). Ildo beretik, 5. kapituluaren ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoral sendoenak udalerrri euskaldunetan gertatzen direla. Ez hori bakarrik, datuek erakutsi dute euskara gaitasuna baino gehiago, hauteslearen lehen hizkuntza eta erabilera direla euskal alderdiei bozkatzeko joera indartzen dutenak. Ikusirik, generoak erlazio lineala duela euskararen erabileraren ehunekoetan (Altuna eta Hernandez, 2018), interesgarria iruditu da lerrokatze linguistiko elektoralean duen eragina aztertzea. Bestalde, 5. atalean ikusi da azken hauteskundeetan euskal ezkerrearen kasuan erlazio lineala sendoagoa dela euskal eskuinaren kasuan baino. Horregatik guztiagatik, honako aldagai hauek hartu dira kontuan eredu idealak aztertzeko.

80. taula: Eredu idealak: euskal lerrokatze linguistikoaren sendotasuna hauteslearen ezaugarrien arabera (+ /-).

Hirugarren aldagaiak	Euskal alderdiei bozkatzeko dien euskal hiztuna	
	+	-
	(Lotura sendoagoa)	(Lotura ahulagoa)
Botoa	EH Bildu	EAJ
Lehen hizkuntza	Euskara (ere) bai	Gaztelania
Sorterria	Euskal Herrian jaioa	Euskal Herritik kanpo jaioa
Gurasoen jatorria	Euskal Herrian jaioa(k)	Biak Euskal Herritik kanpo jaioak
Ideologia nazionala	Euskal abertzalea	Espainiar abertzalea edo beste bat
Eremu soziolinguistikoa	Udalerrri euskalduna	Udalerrri ez hain euskalduna
Generoa	Emakumea	Gizona
Adina	1978an edo lehenago jaioa	1979 baino geroago jaioa

Iturria: Egilea.

Laburbilduz, bigarren mailako azterketa honen helburua da ikustea goian proposatzen diren aldagai horietatik zeintzuk diren euskal lerrokatze linguistikoaren sendotasunean eragiten dutenak. Alde horretatik, honakoa da adierazgarriak diren aldagaien kasuetan definitu nahi dena: zein da bi aldagaien arteko lotura sendoagoa izatea eragiten duen soslaia?

7. EMAITZAK

Bosgarren kapituluan ikusi da Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: espainiarra eta euskalduna. Alde horretatik, atal honen xedea da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara nola eta zergatik gertatzen den ulertzea. Horretarako, beren portaera elektoralaren inguruan galdetzen zaie 2015/2016ko Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan euskal alderdiei bozkatu zieten euskal hiztunei.

Elkarrizketatuek beren portaera elektoralari ematen dioten zentzua interpretatzeko ezinbestekoa da ekoitzitako informazioa marko teorikoarekin harremanean jartzea. Alde horretatik, lan hau *clivajeen teoriak* eskaintzen duen oinarritzko tresna teorikoez baliatu da hautesleen portaera elektoralara interpretatzeko (Lipset eta Rokkan, 2012). Labur esanda, teoria honen arabera gizarteko gatazka sozial nagusien inguruan artikulatzen diren *clivajeeek* soilik dute gaitasuna lerrokatze elektoralak eragiteko. Horiek identifikatzeko alderdi sistemari jarri behar da arreta. Izan ere, alderdi politikoak dira estratifikazio sozialean posizio jakin bat duten gizataldeen interesak sistema politikoan ordezkatzeari arduratzen direnak. Gauzak horrela, hauteslearen portaera elektoralara ulertu nahi bada, ezinbestekoa da alderdi sistemaren konfigurazioa ahalbidetu duen prozesu historiko gatazkatsua kontuan izatea.

Alde horretatik, atal teorikoan ikusi da akademian hegemoniko den *clivajeen teoriaren* gaineko irakurketak begirada modernoan hobesten duela. Era berean, eredu desberdinak aztertu ostean ikusi da begirada modernoan oinarritzen diren ereduak mugak dituztela euskal lerrokatze linguistiko elektoralara osotasunean azaltzeko. Horren aurrean, lan honetan proposatu da Nazio zapalduaren ereduak eskaintzen duen begiradatik erreparatzea fenomenoari, ezinbestekoa baita bi elementu bereiztea: saretze bertikala eta *clivajea* (ikusi 2.2.2.2. azpikapituluua).

Saretze bertikalaren inguruko eredu idealaren arabera, hauteslearen portaera politikoa determinatzen du bere erreferentziazko kultur taldeak. Alde horretatik, bosgarren kapituluan ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak pitzadurak dituela, eta ondorioz, eredu idealera hurbiltzen diren kasuetan bakarrik gertatzen da kultura eta politikaren arteko sinbiosia. Gainerakoan, eredu idealetik urrundu ahala gero eta ahulagoa da hizkuntzak hauteslearen portaera elektoralara azaltzeko duen gaitasuna. Gauzak horrela, Nazio zapalduaren ereduak eskaintzen duen begiradatik interesatzen zaiguna da aztertzea zergatik eta nola gertatzen diren deslerrokatzeak. Alde horretatik, atal teorikoan ikusi da Goldbergekek (2020) deslerrokatze elektoralak ulertzeko hiru

dimentsio bereizten dituela: 1) egiturazko deslerrokatzea; 2) portaerazko deslerrokatzea; 3) deslerrokatze politikoa.

Egiturazko deslerrokatzea gertatzen da saretze bertikalaren oinarrian dagoen talde soziala txikitzen denean. Bi dira fenomeno horren atzean dauden arrazoiak: 1) talde sozial horretako kideak hiltzea eta ordezkorik ez sartzea; 2) bertako zenbait kide beste talde sozial batera igarotzea. Beste hitz batzuekin esanda, logika horren arabera euskal kasuan egiturazko deslerrokatzea gertatzen da euskal hiztun elkartearen tamaina txikitzen denean. Izan ere, saretze bertikalaren eredu idealaren arabera, euskal hiztun elkartearen zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta apalagoa izango da euskal alderdiek jasotako babes elektoralak.

Aldiz, portaerazko deslerrokatzea gertatzen da euskal hiztun elkartearen portaera elektoralak homogeen izateari uzten dionean. Hori gertatzen da saretze bertikalaren barne kohesioa ahultzen den kasuetan (alegia, lausotu egiten denean saretze bertikalaren eten hesia). Ondorioz, saretze bertikalaren muinetik zenbat eta gehiago urrunduta, hautesleek joera handiagoa izango dute saretze bertikal arrotzaren parte den erdal alderdi politikoei bozkatzeko. Laburbilduz, portaerazko deslerrokatzea gertatu dela esan daiteke honako kasuetan: euskal saretze bertikalak gaitasuna galtzen duenean bere baitan kokatzen den hauteslearen portaera elektoralak baldintzatzeko. Horregatik da garrantzitsua deslerrokatzeak ulertzeko saretze bertikalaren barne egiturak barrutik ezagutzea.

Deslerrokatzei dagokienez, bada hirugarren dimentsio bat kontuan izan beharrekoa: deslerrokatze politikoa. Alabaina, azken horrek gainditu egiten ditu lan honen mugak. Izan ere, aipatutako deslerrokatzea gertatzen da talde sozial bateko kideek erabakitzen dutenean sistema politikoan parte ez hartzea. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan, ordea, botoa ematean elkarrizketatuek *de facto* erabaki dute erdal sistema politikoan parte hartzea. Beraz, deslerrokatze hori aztertzea nahi bada elkarrizketatu beharreko hautesleak dira abstentziora jo duten euskal hiztunak. Azken horiek ez dira euskal lerrokatze linguistikoaren parte.

Gauzak horrela, aurrera begira, orain arte aipatutako deslerrokatze guztien artean, bigarren deslerrokatzea da kapitulu honetan lantzen dena. Hau da, portaerazko deslerrokatzeari dagokiona. Fenomeno hori hobeto ezagutzeko, bi ataletan banatu da emaitzen kapitulua. Lehen atalean aztertzen da zeintzuk diren euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren oinarrian dagoen saretze bertikalaren ezaugarri nagusiak.

Bigarren atalean, berriz, aztertzen da zenbatekoa den aipatutako saretze bertikal horrek duen eragina euskal abertzale bozkatzaren duten euskal hiztunen portaera elektoralan.

81. taula: Emaizten atalaren laburpen taula.

7. EMAITZEN ATALAREN EGITURA

7.1. Non gorpuzten da euskal lerrokatze linguistiko elektoralan?

7.1.1. Sistema soziala: Euskal hiztun elkarte

7.1.1.1. Ukipen egoera: hizkuntza gatazka eta hizkuntzaren ordezkapena

7.1.1.2. Hizkuntza identitatea euskal hiztun elkarte elebidunean

7.1.1.3. Bizipen linguistikoak eta jarrerak

- *Hizkuntza gaitasuna*
- *Hizkuntza transmisioa*
- *Hizkuntza erabilera*
- *Hizkuntzen inguruko jarrerak*

7.1.2. Sistema normatiboa: Euskal nazionalismoa

7.1.2.1. Euskal naziotasunaren inguruko pertzepzioak

- *Euskalduntasunaren izaera: kulturala eta politikoa*
- *Nazio zapalduaren ajea Aro Garaikidean: desfasea hiritartasunaren eta naziotasunaren artean*
- *Kultura erauzi/ukatutako euskaldunak*
- *Politikoa ez den euskalduntasuna*

7.1.2.2. Euskal hiztun elkartearen eta estatuaren arteko harremana

- *Nazio naturala, edozein politikaren aurretiko egoera*
- *Euskal identitatea eta unibertsaltasun abstraktua: balizko albo ondorio epistemikoak*

7.1.3. Sistema organizatiboa: Euskal erakundetzea

7.1.3.1. Euskal erakundetze prozesu akeztua

- *1936ko gerra eta ondorengo urteak: erdalgintza nazionalaren aroa*
- *Euskal susperraldia frankismoan*
- *Autonomiaren aroa: jatorrizko pekatuaren kontraesanak*

7.1.3.2. Alderdi politikoak Hego Euskal Herrian

- *Euskal alderdiak: banaketa kultural/politikoaren ajeak*
- *Espainiar alderdiak: euskal kulturaz hiritartasunaren gerizpetik*

7.1.4. Hausnarketa euskal saretze bertikalaren inguruan

7.2. Zergatik bozkatzaren diete euskal hiztunek euskal alderdiei?

7.2.1. Hauteskunde autonomikoak: Espainiar estatu-nazioa erreproduzitzen duen erritua

7.2.1.1. Estaturik ezean nazio mailako hauteskunderik ez

7.2.1.2. Hiritartasun espainiarra, euskal naziotasuna eta parte hartzea

7.2.2. Alderdi sistema eta portaera elektoral

7.2.2.1. Alderdi sistemaren egitura

- *Alderdien sailkapena ardatz nazionalan.*
- *Alderdien sailkapena ardatz sozialean*

7.2.2.2. Botoari emandako zentzua

- *Kulturatik politikari begira*
- *Politikatik kulturari begira*

7.2.2.3. Botoa eta lehentasunezko bazkidea

- *Kulturatik politikari begira*
- *Politikatik kulturari begira*

7.2.3. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna

7.2.3.1. Lehen hizkuntza

7.2.3.2. Ideologia nazionala

7.2.3.3. Ingurune soziolinguistikoa


7.2.3.4. Besteak

7.2.4. Hausnarketa lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan

7.1. Non gorpuzten da euskal lerrokatze linguistiko elektorala?

Emaitzen lehen azpikapitulu honetan aztertzen da zeintzuk diren euskal lerrokatze linguistiko elektorala gertatzea ahalbidetzen duen saretze bertikalaren ezaugarriak. Alde horretatik, Bartoliniren (2005) lana hartu da erreferentzia gisa, euskal saretze bertikalaren barneko hezurduraren nondik norakoak aztertzeko. Azken honen arabera, saretze bertikala –clivajea, Bartoliniren hitzetan– eratzen da sistema sozialaren, normatiboaren eta organizatiboaren gainezartzea gertatzen denean. Euskal lerrokatze linguistiko elektorala non gorpuzten den ulertu nahi bada, beraz, ezinbestekoa da euskal saretze bertikala osatzen duten hiru sistema horiek barrutik ezagutzea.

75. irudia: Euskal saretze bertikalaren oinarrizko hiru geruzak.



Iturria: Bartolini (2005). Egileak moldatua.

Ildo horretatik, azpikapitulu honetan ahalegina egiten da Nazio zapalduaren ereduak eskaintzen duen begiradatik aztertzeko elkarrizketatuek euskal saretze bertikalaren inguruan dituzten pertzepzioak. Horretarako, irudian agertzen diren hiru dimentsioak aztertzen dira banan bana: euskal hiztun elkarteak (sistema soziala), euskal nazionalismoa (sistema normatiboa) eta euskal erakundetzea (sistema organizatiboa).

7.1.1 Sistema soziala: Euskal hiztun elkarteak

Hego Euskal Herriko hautesle guztiak Espainiar estatuko hiritarrak dira legez. Aipatutako hiritar multzo hori, ordea, bere baitan anitza da ezaugarri sozialen arabera. Aniztasun hori interpretatzerakoan, Bartolinik (2005, 11. or.) hobesten du gizarte egituraren inguruko adiera zabala erabiltzea.¹⁴⁵ Horrela, autoreak ulertzen du gizartean talde sozial desberdinak daudela interes politiko berdinak garatzeko baldintza

¹⁴⁵ Honatx, bere hitzak: “Le terme “structure sociale” ne se réfère pas aux seuls critères “économiques” ou “démographiques” mais à l’ensemble des critères de différenciation tels que le lignage, la propriété, la classe, l’éducation, les qualifications, le pouvoir, le statut.” (Bartolini, 2005, 11. or.).

objektiboak dituztenak, hala nola: langileak, erlijio taldeak, hizkuntza komunitateak, nekazariak eta abar. Bartoliniren arabera, talde sozial horiek dira elivajearen azpiko geruza edo zimendua osatzen dutenak. Lan honetan euskal hiztun elkarteak da euskal saretze bertikalaren oinarritzeko elementua.

Horregatik, euskal saretze bertikala barrutik ezagutu nahi bada, aurrez, beharrezkoa da euskal hiztun elkarteak definitzea. Horretarako, Mikel Zalbidetik (2020) idatzitako “*Hiztun elkarteak, azal eta mami*” artikulua hartu da erreferentzia moduan. Lan horretan autore hori saiatzeko da “perspektiba teorikoari eutsiz” eta “gure *hic e nunc* honetan pausatuz begiak” hizkuntza komunitatearen inguruko auziari barrutik eta errotik heltzen. Ildo horretatik, bi ekarpen proposatzen ditu autoreak: batetik, hizkuntza komunitateak kategoriaren ordean hizkuntza elkarteak erabiltzea;¹⁴⁶ eta bestetik, euskal hiztun elkartearen nondik norakoak ulertzeko ikuspegi prototipikotik abiatzea.

Laburbilduz: osaera etnokulturala eta garapen bide soziopolitikoak alde batera utzita, hiru elementu nagusi ditu Sprachgemeinschaft prototipikoak: a) hiztun elkarteetan banaturik dago mundua, oro har: hiztun elkarte bakar baten kide gara gizakiok, normalean; b) hiztun elkarte bakoitzean hizkuntza bat eta bera (egiten) dute normalean hiztun guztiek, eta c) alboko hiztun elkarteekiko eten hesi nabarmenaz bereizirik eta babesturik daude hiztunok, zein beren lurraldean. Hiztun elkartearen berezko izaera naturala, eta elkarte bakoitzaren batasun- eta bereizkunde oinarri bikoitza azpimarratzen du hiztun elkartearen ikuspegi prototipikoak. (Zalbidetik, 2020, 16. or.).

Begi bistakoa da euskal hiztun elkarteak bizi duen errealitatea askoz konplexuagoa dela hiztun elkartearen gaineko ikuspegi prototipikoak irudikatzen duen argazkia baino. Alde horretatik, soziolinguistika arduratu da urte luzez ikuspegi prototipikoaren eta errealitatearen artean dagoen desfasea zuzentzeko azalpen teorikoak eskaintzen.¹⁴⁷ Lan honetan Heinz Klossen hiztun elkartearen inguruko ikuspegi prototipikoari egiten dizkion lau zehaztapen jasotzen dira euskal hiztun elkarteak zedarrizteko baliagarri direlakoan. Zalbidetik (2020, 20-21. or.) honela laburbiltzen ditu ideiak horiek: 1) “Hiztun

¹⁴⁶ Kategoria honen bidez, hizkuntza horretaz baliatzen diren hiztun multzoa ekartzen du definizioaren erdigunera –praktika edo erabilera bera–, betiere, hizkuntza komunitateak kategoria ezaugarritzen duen hiztunen kontzientzia subjektiboa gutxietsi gabe.

¹⁴⁷ Zalbidetik (2020, 16-26. or.) artikulua horretan jasotzen ditu soziolinguistikaren barrutian erreferente izan diren zenbait autorek hizkuntza elkartearen ikuspegi prototipikoari egindako zuzenketak. Honatx, autore bakoitzak ikuspegi prototipikoari egiten dion zuzenketa: 1) Albert Dauzat (“hizkuntzak ez dira erabat homogeno”); 2) Otto Jespersen (hiztun elkarteek magnitude desberdinak izan ditzakete: familiak, leinuak, tribuak edota nazioak izan daitezke); 3) Heinz Kloss (“hiztun elkarteak ari garelarik, jendakiaren eguneroko mintzajardun arrunta da oinarri, ez arbasoen genealogia eta ez bestelako hainbat faktore peri- edo estralinguistikoa”); 4) Bloomfield (hiztun elkartearen nortasuna eta batasuna ematen diona da hizkuntza bera erabiltzea eta euren artean interakzio bizi izatea); 5) Uriel Weinreich (hiztun elkarteak ukipenean daude, alegia “ez dira munduko hizkuntza mosaiko globalaren pieza autarkiko-beregainak”, eta ukipen horiek harreman “asimetrikoetan” gertatzen dira). Horiez gain, beste autore batzuk aipatzen dira testuan zehar, hala nola: John J. Gunperz, William Labov edota Joshua A. Fishman. Zalbidetik arabera, azken horiek aurrez aipatutako autoreen zuzenketak jaso bakarrik ez, beraien proposamenetan –Zalbidetik dio– “are formulazio bihurriagoetara lerratu” dira.

elkartea ez da batasun etnokultural edo arbaso elkartearekin, arrazarekin eta, oro har, sailkapen irizpide estralinguistikoekin nahastu behar: bi gauza dira horiek”; 2) “ahuldutako hiztun elkarte txiki gehienak elebidun dira”; 3) “hiztun elkartea behar bezala definitzeko, hizkuntza hori gutxi asko ezagutzen dutenen eta eguneroko jardunean hizkuntza horretaz baliatzen direnen artean zorrotz bereizi behar da”; eta lau, “hiztun elkartean (hots: hizkuntzen) arteko mugak ez dira beti zorrotzak eta argiak”. Zalbidere arabera aipatu berri diren lau “bereizkunde horiek gabe herren gelditzen da” egungo errealitatearen irakurketa, bereziki “belaunaz belauneko jarraipen ahalmena arriskupean” duten hiztun elkartetan.

Gauzak horrela, zehaztuen horiek guztiak aintzat hartzea beharrezko ikusi da euskal kasuaren azterketa egiterakoan. Jarraian, ahuldutako hiztun elkartearen perspektibatik aztertzen da elkarrizketatuek elebitasunaren, hizkuntza ordezkapenaren edota praktika linguistikoaren inguruan esandakoak.

7.1.1.1 Ukipen egoera: hizkuntza gatazka eta hizkuntzaren ordezkapena

Hiztun elkartearen gaineko ideia prototipikoaren arabera euskal hiztun elkartea ez legoke hizkuntza ukipenezko egoeran. Hala, euskal hiztun elkarteko kideak elebakarrak izanik, euskara hutsez biziko lirateke. Alabaina, bestelakoa da euskal hiztun elkarteak bizi duen errealitatea. Azken 500 urteotan, adibidez, bi hiztun elkarte eduki ditu inguruan bera baino indartsuagoak izan direnak: hegoaldean, gaztelar hiztun elkartea; eta iparraldean, frantziar hiztun elkartea. Ukipen egoera horren testuinguruan gertatu da diglosia eta mintzaldatzea.

Juaristik (2018) bi eredu ideal bereizten ditu ukipen egoera hori aztertzeko orduan euskal soziolinguistikari proposatu diren teoriaren artean: adostasunaren teoria eta gatazkaren teoria. Alde horretatik, Juaristik uste du “azken 15 urteotan, gatazkan oinarritutako diskurtso eta azterketak guztiz alboratu gabe, adostasunean oinarritzen den paradigmak pisu garrantzitsua hartu duela”. Diskurtsoari dagokionez, lan hau gertuago dago gatazkaren teoria bezala definitzen duen paradigmaren kokatzen diren autoreek esandakoetatik. Horregatik, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* (1979) ikerketa hartzen da hizpide analisiari hasiera emateko. Siadeco (1979) taldeak egindako ikerketa horretan aipatzen da hizkuntza gatazkaren testuinguruan ulertu behar dela Euskal Herrian gertatzen den hizkuntza ukipena. Zehatzago esanda, fenomeno hori izendatzeko diglosiaren ideia hobetsi zuten.¹⁴⁸ Horren arabera, euskara herri xehearen

¹⁴⁸ Honatx, hitzez hitz ikerketak esandakoa: “Diglosia delako kontzeptu hau, egun, bi hizkuntzen arteko banatze edo gainezarmen linguistikozko egoera bat esplikatzen da: bi hizkuntzetatik bati goikoa

hizkuntza zen bitartean, erdal hizkuntzek –hegoaldean gaztelaniak– betetzen zituzten goi mailako funtzio sozialak. Diglosia zen, beraz, gizartean gertatzen ari zen mintzaldatzearen erantzule. Lan hura argitaratu zenetik lau hamarkada pasa eta gero, badirudi arnasmuneko elkarrizketatuen arazo nagusia diglosia izatetik, diglosia eza bihurtu dela.

- (1) Nik pentsatzen diat guk erdaraz dakigula derrigortu gaituelako eta asimilazio prozesua egon delako. Lehen egoera diglosiko batean funtzio batzuk euskarak betetzen zizkian, eta besteak, espainolak. Beraz pertsona batek udaletxera joan behar ez bazuen euskaraz bizi huen. Orain, ordea, udaletxean euskaraz egiten diagu, baina gero kalean erdaraz. Orain diglosia joan dek. Nolabait esateko diglosia eza arazo bihurtu dek arnasmuneetan euskararen biziraupenerako. Erdara etxera sartu zaiguk. Elebakarrik ez egotea euskararen biziraupenerako eta euskal kulturaren biziraupenerako asimilazio prozesuan aurrerago egotea dek. Hori esan beharra zagok! Espainolen artean esate baterako ez zekiat ze ehuneko egongo dan ingelesez ez dakienena. Kalean inork ez dik egiten Espainian ingelesez. Egoera diglosikoa han zagok orain. Funtzio jakin batzuetarako soilik hitz egiten dek ingelesez. Gure asimilazioa total aurreratuta zagok. Horregatik dek hautu bihurtutako gauza bat euskararena. (24_Elkarrizketa; E3).

Elkarrizketatuaren arabera, egungo arazo larriena ez da administrazioan gaztelania erabili beharra. Aitzitik, azken hamarkadatan egoerak hobera egin du eremu horretan. Orain, arazoa da gaztelania etxean sartu dela, baita arnasmuneetan ere. Zalbidetik (2011) esango lukeen moduan, pitzatu egin da diglosia gertatzeko ezinbestekoa den konpartimentazio territorial eta soziofuntzionala. Alabaina, azken honek diglosiaren purgatorioa etorkizuneko euskararen berme gisa ikusten duen bitartean, gatazkaren teoriatik, diglosia ulertzen da prozesu gatazkatsu gisa. Hala, epe ertainera begira, bi aterabide soilik ikusten dizkiote egoerari: normalizazioa edo asimilazioa.

Luzea izan da egungo egoera sasi diglosiko honetara iritsi arteko bidea. Asimilazio prozesuari dagokionez, Txepetxek (1980, 25-26. or.) argi eta garbi esaten du asimilazioa beti konkistaren eskutik gertatzen dela. Horrelako egoeretan, bi aterabide ditu menpeko herriak: asimilatzen utzi eta desagertzea edo erresistentzia. Azken hori ezerezteko, Txepetxek dio bi bide jorratu izan dituztela hiztun elkarte menperatzaileek: sari bidezko asimilazioa (onura indibidualak ematen dituen) eta errepresioa (kolektibo osoa seinalatzen eta zigortzen duena). Bi kasuak agertu dira elkarrizketatuen bizipenetan.

- (2) Klaro ni 1940ko hamarkadan jaioa naiz eta pues nik 20 urte nituenean, 60ko hamarkadan ginen eta hor ere oraindik arazoak zeuden. Bueno alde batera anedokta bat bezala jarriko dut. Plazara festetan eta edozein plazataran ateratzen ginelarik, neskak eta ez ziguten horrenbeste kasu egiten euskaldunak ginelako eta euskaraz mintzatzen ginelako. (...) Orduan prestigio handia ematen zuen erdaraz ondo egiteak. (7_Elkarrizketa; A1).
- (3) Nire ama adibidez, izan zen neskamea. Orduan, zer egiten zuten? Ba nolabait neska euskaldunak nahi zituzten lan horietarako eta egiten zuten dena erdaraz. Eskala baxuagoko jendea ziren. (...) Niri kontatu hola nire familia zuzenak kasuak, pues hori ba zigortua izatea euskaraz egiteagatik eta

esaten zaio, komunikazio formalean erabiltzen dena hura delako: eta besteari behekoa, familia barruko elkarrizketan bakarrik erabiltzen delako. (...) Garbi dago eskoletan eta Unibertsitatean erakusten eta administrazioan eta komunikabideetan erabiltzen den hizkuntza kultuak duen esanahi menderatzailea. (...) Berak du nagusitasunezko posizio garbia eta prestigioa etxeko sukaldeko hizkuntzaren gain. (...) Horrela sentitu dugu euskaldunok aspaldidaniko mendeetatik hona”(Siadeco, 1979, 18. or.).

- ez zait tokatu aditzea. Baina bai jakitea pixka bat destinatuta zeudela hemen Nafarroan izateko bigarren mailako giza multzo bat. (1_Elkarrizketa; A2).
- (4) Pentsa, zer gertatu zitzaidan joaten nintzelako umearekin euskaraz hitz egiten kaletik. Pentsa zen 1971, sartu denda batean eta umea zioan ukitzea sagar batzuek eta esan nion: mesedez geldi, geldi! Eta dendakoak esan zidan: señora, habla usted en vasco! Hasi nire kontra eta dendatik bidali zidaten (...) A sí que tela marinera! Hori denbora horietan. Jendeak ikara zuen. (10_Elkarrizketa; A2).
- (5) Es que solastu behar zen. Bai, es que ez genuen beste aukerarik. Erdaraz edo bestela belarrondokoa. (13_Elkarrizketa; A1).
- (6) Nik badakit Arrasaten eta ibili nintzen denboran Iñaki deitzearren belarri ondokoa. Fraideetan eta hainbestearino ez zen. Baina nazionaletan bai. Euskaraz izena deitzearren! (8_Elkarrizketa; A1).

Ikusten den moduan, euskarak bigarren mailako estatusa izan du elkarrizketatuen arabera. Prestigio eza aipatu dute gako moduan elkarrizketatuek. Txepetxek (1991, 345. or.) azpimarratzen du diglosiak hiztun elkartearen barne egitura ahultzeaz gain, elebitasunaren bidetik norbanakoa trantsiziozko elebitasun egoera batera eramaten duela. Muturreko kasuetan, elebitasun horren ondorioz posible da belaunaldi gutxiren buruan etxeko transmisioan hizkuntza ordezkapena gertatzea. Edonola ere, horra iritsi aurretik gradu desberdinak ditu diglosiaren prozesuak.

Elkarrizketatuen bizipenetan ikusten da EAEko eta NFEko autonomia estatutuen sorrera mugarri garrantzitsua izan zela euskal hiztun elkartearentzat. Alde horretatik, elkarrizketatuek aipatzen dute hainbat esparrutan aldaketa handiak gertatu zirela, hala nola: administrazioan edota hezkuntzan. Edonola ere, orduetik lau hamarkada pasa diren honetan elkarrizketatuek urruti ikusten dute euskara eta gaztelaniaren arteko oreka ekolinguistikoa.

- (7) Nik uste gaur egun Euskal Herrian, de hecho edozein herritan, gaztelaniar elebakar bat lasai ederrean bizi daiteke baina euskaldun elebakkarra ez zait iruditzen berdin bizi al denik. (25_Elkarrizketa; E3).
- (8) Mungian oso eroso ez dago arazorik [euskara jakin gabe bizitzeko]. Gainera, ia denak egiten dabe erdaraz berba asike... [-Eta erdararik gabe bizi zaitezke Mungian?¹⁴⁹] Ez, keba. Gainera orain kanpoko jende gehiago etorri da. (26_Elkarrizketa; E4).

Txepetxek (1991, 335. or.) aipatzen du egiturazkoa dela diglosiaren oinarrian dagoen arazoa, hau da, bere aburuz desfasea dago hiztun elkarteak dituen behar naturalen eta Estatu hizkuntzak beste hizkuntzengan ezartzen duen dominazioaren artean. Arazo horri aterabidea aurkitu arte, gatazkatsua izaten jarraituko du hizkuntza ukipenak.¹⁵⁰

¹⁴⁹ Honako hau ikertzaileak egin duen galdera da. Aurrerantzean ere, modu honetara adieraziko dira ikertzailearen galderak: gidoia aurrean dutela, parentesi artean eta etzanda).

¹⁵⁰ Honatx, Txepetxen hobesten duen begirada: “Para recomponer el equilibrio (que no olvidemos implica al Hombre en su conjunto) sólo cabe que los estados existentes se articulen políticamente sobre el principio de igualdad de las naciones idiomáticas que hay en su seno, poniendo al servicio de cada una de ellas los instrumentos necesarios para que puedan desarrollar íntegramente su propia cultura. Inevitablemente esto ha de suponer a corto y medio plazo una modificación profunda de actitudes y hábitos de comportamiento de aquellos estados constituidos sobre la ideología de la desigualdad. Pero tal modificación al liberar la energía productora y creativa de los pueblos, supone a la larga un enriquecimiento espiritual de tales países al orientarlos en la dirección específica del progreso humano”. (Txepetx, 1991, 335. or.).

Azpikapitulua amaitu aurretik, honakoa da hizkuntza ordezkapenaren harira elkarrizketatuek aipatu duten beste aldagai garrantzitsua: 1960ko hamarkadan Espainiar lurraldetik Hego Euskal Herrira etorri zen immigrazioa. Elkarrizketatuek aipatu dute zenbait udalerritan immigrazioak errotik aldatu zuela hainbat udalerritako errealitate soziolinguistikoa.

- (9) Altsasuri dagokionez, erdaraz zergatik hitz egiten den ulertzeko faktore soziohistorikoak daude dudarik gabe. Eta XX. mendeko 50-60ko hamarkadetara joan behar gara. Hor dugu batez ere arrazoi nagusia. Altsasura trenbidea etorri zen. Trenarekin batera industrializazioa eta industrializazioarekin batera etorkinak. Eta etorkinekin batera soziologia guztiz aldatu zen Altsasun. Pentsa Altsasu 3.000 biztanleko herri bat zen eta gaur egun 7.600 biztanleko herri bat da. Hor non dago arrazoa? Ba batez ere hor. Kanpoko etorkinak etorri ziren eta klaro, gaur egun etorkin horien ondorengoek badakite euskaraz. Baina ez dute euskaraz hitz egiten. Eta hor baita ere, ikusi dezakegu Altsasun propioa genuen hizkuntzaren desagertzea. (5_Elkarrizketa; E6).

Ikusten den moduan, Hego Euskal Herrian ukipen egoeran dago euskal hiztun elkarte politikoki eta sozialki bera baino boteretsuagoa eta handiagoa den gaztelar hiztun elkarterekin. Zalbideren hitzetan, “behinolako diglosia betearen azken arrastoak baizik gelditzen ez zaizkion elebitasun partzialeko egoera mugikorra” da euskal hiztun elkarteak bizi duena.

7.1.1.2 Hizkuntza identitatea euskal hiztun elkarte elebidunean

Ikuspegi prototipikoaren arabera “hiztun elkarte bakar baten kide gara gizakiok, normalean”. Ondorioz, hizkuntza nortasuna garatzerakoan normalena da soilik garatzea norbera parte den hiztun elkartearekiko identifikazioa. Alabaina, euskal hiztun elkartearen inguruan ikusi berri da Zalbideren arabera “elebitasun partzialeko egoera mugikorra” bezala definitzen duen parametroetan kokatzen dela. Gauzak horrela, honakoa da atal honetan jakin nahi dena: zein da elkarrizketatuek euskal hiztun elkartearekiko duten kidetasun sentimendua?

Galdera hori erantzun baino lehen, garrantzitsua da elkarrizketatuen artean agertu den honako ideia azpimarratzea: kulturbiduna da euskal elebiduna. Alegia, euskal hiztunei ez zaizkie arrotzak egiten gaztelar kulturako erreferentziak (Coyos, 2010, 139. or.). Izatez, zalantza gehiago sortzen da elkarrizketatuek euskal kultur erreferentzien inguruan duten ezagutzaren inguruan.

- (10) Ez diagu horretaz hitz egiten, baino zentzu batean hemen denok gaituk espainolen komunitatekoak. Erabat, denok! Guk telebistako programa guztiak entenditzen dizkiagu Madrileko batek bezala. Ulertzen diat euren hori dena: literatura, erreferentziak... (24_Elkarrizketa; E3).
- (11) Egia esateko Eitb gutxi. Ez daukagu telebista euskaraz ikusteko ohiturarik. [-Berria egunkaria eta hauek?] Horiek gehiago, baina orokorrean ez. (34_Elkarrizketa; F7).
- (12) Edo guk hasten dugu prozesu bat pixka bat hortik aldentzeko... baina [kultur erreferentzietan] dagokienez] espainiarrak gara. Azkenean ze telebista kontsumitzen dugu, EITB 1? Ez! Tele 5 jartzen dugu edo La Sexta. Eta astelehenean, Operación Triunfo ikustera. (27_Elkarrizketa; E4).

Alde horretatik, egunerokotasunean euskaraz bizi diren elkarrizketatuak dira euskal hiztun elkartearekin atxikimendu sendoena erakutsi dutenak. Beste horrenbeste gertatzen da gaztelania erabiltzen dutenen eta lehen hizkuntza gaztelera dutenen kasuan. Azken horiek, sentimendu berezia erakutsi dute erdal hizkuntzaren inguruan.

- (13) Euskaldunarekin dudarik gabe. Bai, ze erran bezala lehenbiziko joera beti euskaraz da. Gero, ez badaki orduan aldatzen duzu baino... (25_Elkarrizketa; E3).
- (14) Eduki dugu suerte bat, ni fedezkoa naiz eta zenbat aldiz gure jainkoari, nik hari ere euskaraz errezatzen diot. Gure jainkoari esaten diot ze suerte Euskal Herrian jaiotzea eta hemen bizi garen bezala bizitzea. (...) Umeak maite dute Euskal Herria eta euskara, ez dakizu! Gure txiki hauek. (18_Elkarrizketa; A3).
- (15) Hizkuntza guztiak ez dira berdin sentitzen. Hizkuntza bereziena materno da. Klaro, nire gurasoak erdaraz egin didate eta hori berezia da. (22_Elkarrizketa; C6).

Hautesleak zenbat eta harreman gehiago izan bi hiztun elkarterekin orduan eta konplexuagoa da hiztun elkartearekiko kidetasunaren korapiloa askatzea. Kasu askotan gurutzatu egin dira lehen hizkuntzaren edo hizkuntza erabileraren eta hizkuntza elkartearekiko kidetasun sentimenduak. Are gehiago, zenbait elkarrizketatuk azpimarratu dute bi hiztun elkarteren parte sentitzen direla. Alde horretatik, bi noranzko bereizi dira, alegia, euskal hiztun elkartearen jaio arren, espainiar hiztun elkartearen parte (ere) sentitzera pasa direnak, eta alderantziz.

- (16) Bietan ikusten dut. O sea, bai, ez dot ikusten dut nire burua batean bakarrik. Bietatik jasotzen dut eta bien parte naiz. (...) [-Zerk lotzen zaitu komunitate horietako bakoitzera?] Euskararen adibidez, kulturak asko... Musika, literatura, dantza eta bertsoa adibidez. Eta erdaraz ba, o sea gaztelaniaz ba be bai, arte desberdinak eta holan. (...) [-Zure gurasoak euskaldunak direla esan duzu, horiek ere bi komunitateetakoak berdin sentitzen dira?] Ez, euskal komunitatearekin gehiago identifikatzen dira. [-Zer dago aldaketa horren atzean?]. Lehen igual musikagaz edo zegon lotura zen euskalduna, hemen. Ez zegon internet eta hori, horrek asko egin dau. Bai jaso dute kultura erdalduna eta ez daurie euren parte ikusi. Nire kasuan bai. (26_Elkarrizketa; E4).
- (17) Ez bi hizkuntza, gehiago sentitzen ditut neure. Hierarkia esaten badidazu, nik beti esaten det, minorizatua lehendabizi, euskara. Gero gaztelania, eta ingelesa, ikasi dudalako. (...). Baina bueno. Hierarkizatuta nik egin beharko banu ranking-a, oso argi egingo nuke horrela. Nahiz eta ama hizkuntza gaztelania izan. Eta agian igual ez dakit momentu honetan zaila da ze hizkuntzetan adierazten dituzun zure ideiak eta sentipenak. Ze baliabide dituzun batean eta bestean. Agian nik ere jarraitzen dut izaten baliabide gehiago erdaraz. Hala ere ez zait batere kostatzen euskaraz egitea. (29_Elkarrizketa; D8).

Horiez gain, badira elkarrizketatuak erdal hiztun elkarteren baten parte sentitzen direnak, baina, erdal hiztun elkarte hori ez da gaztelar hiztun elkarte.

- (18) Eske da esaten dizudana, nik erdaraz [gaztelaniaz] ez dut hitz egiten. Nik Hego Amerikako beste hizkuntza batean hitz egiten dut.¹⁵¹ Orduan bai, nik nirea azken hori sentitzen dut eta gustuen horrekin sentitzen naiz, baina hori batez ere nire etxean. (34_Elkarrizketa; F7).

Behin puntu honetara iritsita garrantzitsua da azpimarratzea, beste behin, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak osatzen duten hautesle guztiak euskal hiztunak direla. Alabaina, erdaldun hutsak dira NFEko eta EAEko hautesleen zati handi bat. Alde

¹⁵¹ Hizkuntza hori zein den ez da zehaztu elkarrizketatuaren anonimotasuna bermatzeko.

horretatik, espainiar lerrokatze linguistiko elektorala aztertzen ariko bagina, bestelako izaera hartuko luke kidesun sentimenduaren azterketak. Izan ere, praktika eta atxikimendua txanpon beraren bi aurpegi badira, elebakarrak zailagoa izango du ezagutzen ez duen hiztun elkartearekiko kidesun sentimendua garatzea. Alde horretatik, interesgarria litzateke aztertzea euskal elebakarrek erdal hiztun elkartearekiko kidesun sentimendua garatuko ote luketen, eta hala den kasuetan, ikustea nola justifikatzen duten euren kidesuna. Azken kasu hori, ordea, elebitasuna dela eta errealitatean ez da gertatzen. Honako elkarrizketatuak, argi eta garbi azaltzen du hizkuntza bat ez ezagutzeak sortzen dituen mugak nolakoak diren.

- (19) Bai guztiz. Nire ikuspuntutik, hemen, egon dira bi Iruñea. UPNko eta Opuseko Iruñea eta Iruñea euskalduna edo kolorezko Iruñea. Eta klaro euskara nik uste dut tresna bat dela bigarren Iruñea horretan sartzeko. Ze bestela ez baduzu euskara ezagutzen, geratzen zara bakarrik alde batekin. Eta euskalduna bazara biak ikusi al dituzu. (12_Elkarrizketa; E8).

Laburbilduz, euskal hiztun elkarteak da euskal saretze bertikalaren oinarrian dagoen taldea. Gertatzen dena da sistema horren parte diren elkarrizketatu guztiak elebidun kulturbidun diren neurrian erdal sistemaren parte ere badirela, nahiz eta elkarrizketatu guztiek ez agertu gaztelar hiztun elkartearekiko kidesun sentimendua. Bereziki, gaztelaraz bizi direnak erakutsi dute erdal hiztun elkartearekiko kidesun sentimendu sendoena. Alabaina, kidesun sentimendu hori ikusi da dinamikoa dela. Alegia, erdal hiztun elkarteak jaio denak gerta daiteke bizipenengatik atxikimendu handiago izatea euskal hiztun elkartearekiko, eta alderantziz. Elkarrizketek erakusten dutena da euskal hiztunek beren eleaniztun izaeragatik erdal mundua ondo ezagutzen dutela; are gehiago, zenbaiten kasuan gaztelania da lehen hizkuntza eta egunero gehien erabiltzen dutena. Horregatik, zenbait elkarrizketatuen kasuan atxikimendu berezia sentitzera iristen dira erdal hiztun elkartearekiko. Alde horretatik, honakoa ondorioztatzen da Bartolinik atal teorikoan aipatzen duena gaira ekarrita: euskal hiztun elkartearekiko zenbat eta atxikimendu apalagoa izan, orduan eta urrunago kokatuko da elkarrizketatua saretze bertikalaren zentrotik.

7.1.1.3 Bizipen linguistikoak eta jarrerak

Ikusi da euskal hiztun elkartearen kidesun sentimendua hiztunak hizkuntzarekiko dituen bizipen, ohitura eta jarrerak baldintzatzen dutela. Gauzak horrela, horiek guztiak aztertu nahi dira ondorengo lerroetan.

Bizipen linguistikoak eta jarrerak aztertzeko Eusko Jaurlaritzak (2019) argitaratzen duen Inkesta Soziolinguistikoan aintzat hartzen diren ohiko lau aldagaiak hartu dira kontuan: hizkuntza gaitasuna, transmisioa, erabilera eta jarrera.

❖ a) Hizkuntza gaitasuna

Orain arteko analisiaren norabidea zedarritu da Zalbideren (2020) hiztun elkarte prototipikoaren ideia eta Siadecoren (1979) ikerketak eskaintzen duen begiradaren arabera. Bide bera jarraitzen da euskal lerrokatze linguistikoaren sistema soziala osatzen duten euskal hiztun elkarteko kide direnen hizkuntza gaitasuna aztertzerakoan ere. Alde horretatik, Siadecok (1979, 16. or.) azpimarratzen du azken horien hizkuntza gaitasuna aztertzekeo tresna teoriko gisa kamuts gelditzen dela euskaldun/ez-euskaldun banaketa. Horren aurrean proposatzen du errealitate konplexu hori beste hizkuntzekiko dialektikan aztertzea.

Nola azertu, ordea, errealitate konplexu hori osotasunean? Iurrebasok (2016) tresna teoriko eguneratuak eskaintzen ditu Euskal Herriko gizartean dagoen eleaniztasuna euskaratik pentsatzeko. Autore honek dio hizkuntza gaitasuna elkarrizketatuek egunerokoan dituzten praktika linguistikoetan azertu behar dela. Alde horretatik, hizkuntza gaitasuna *continuum* gisa aztertzea proposatzen du modu dikotomikoan ulertu beharrean. Beste hitz batzuekin esanda, kontua ez da erantzuna euskaraz badakizu bai/ez mugatzea, gaitasun praktikoa egoera kokatuetan aztertzea baizik (Iurrebaso, 2016, 86. or.). Era berean, hobetsi den begirada dela eta, Hego Euskal Herriari dagokionez, elkarrizketatuaren euskara gaitasuna azertu da gaztelera gaitasunarekin harremanetan. Iurrebasok ondorioztatzen du euskal hiztunen artean honako profil desberdinak bereizten direla, betiere, erdal hizkuntzekiko harremanetan: bat, euskaldun elebakarrak; bi, euskaldun hartzaileak; hiru, euskal elebidunak; lau, elebidun orekatuak; bost, erdal elebidunak; sei, erdal hartzaileak eta zazpi, erdaldun elebakarrak (Iurrebaso, 2016, 92. or.).

Elkarrizketatuen artean ikusi da *continuum* baten baitan elebitasun modu desberdinak agertzen direla erdaldun hartzailetik/erdal elebidunetik hasi eta euskaldun hartzaile/euskal elebiduna artean. Hau da, elkarrizketatuak bi hizkuntzetan “ongi” edo “nahiko ongi” moldatzen dira, nahiz eta batzuk euskaraz errazago aritu eta beste batzuk gaztelaniaz. Era berean, badira bi hizkuntzak modu orekatuan menderatzen dituztela aitortu dutenak ere. Azter ditzagun horietako bakoitzaren bizipenak.

Hasteko eta behin, elkarrizketatuen profil linguistikoaren inguruan egin beharreko lehen ñabardura da euskal elebakarrik ez dagoela. Aitzitik, legeak berak jasotzen du hautesle guztiak adin nagusira iristean gaztelania gaitasuna izan behar dutela (ikusi. 4.1. atala). Besterik da hautesle batek hizkuntza batean edo bestean gaitasun gehiago izatea. Horretan jartzen da begirada jarraian. Alde horretatik, elkarrizketatuei dagokienez,

komeni da azpimarratzea etxetik euskara soilik jasotzen duten eta egunero ia euskaraz bakarrik bizi izan direnen kasuan umetan euskal elebakarraren profilean kokatzen direla. Hala, gerora bereganatu dute gaztelania gaitasuna –gehienetan hezkuntza sistemaren bidez– eta gerora igaro dira erdal eledun izatera. Kasu horietan, elkarrizketatu helduenak dira gaztelania gaitasunaren barneratze prozesuaren inguruan bizipen traumatikoenak dituztenak. Besteak beste, zenbaiten kasuan euren gurasoak eta ingurunea euskal elebakarrak zirelako eta gaztelania irakaskuntza prozesu bortitza izan zutelako. Honela aipatzen du 1940ko hamarkadan jaiotako udalerrri euskaldun bateko elkarrizketatuak:

- (20) Esan behar da gaztelaniaz ikastea asko kostatu zaigula. Bortxaz ikasi genuen. Eskolara joan eta gaztelania bakarrik egiten zen, eta orduan, segitzen genuen lagunartean eta familian euskaraz egiten. Erraten dizudan bezala, gaizki ikusia zen erdaraz ez ongi egitea, eta bueno, nahiko gaizki pasatzen genuen. Poliki-poliki lortu genuen ikastea biak eta defendatzen gara. (7_Elkarrizketa; A1).

Elkarrizketatuak aipatzen du garai batean gaztelaniaz egitea kosta egiten zitzaiola, nahiz eta egun ondo moldatzen den. Euskara gaitasuna natural barneratu zuen bezala, gaztelania aipatzen du bortxaz ikasi zuela. Pablo Iztuetak (2016, 420-421. or.) dioen moduan, Hego Euskal Herrian frankismo garaian erdal hizkuntzaren zabalkuntza prozesuan agente garrantzitsua izan zen hezkuntza sistema. Izan ere, gerraostean indarren egon zen eskola eredu bakarra nazional-katolikoa izan zen, zeinetan euskararen erabilera hezkuntzan errotik desagerrarazi zuen. Hala, ia euskal elebakar ziren horiek eskolaren bidez gaztelania ikasi eta gaztelaniaz alfabetatu ziren. Alde horretatik, frankismo garaian jaiotako beste elkarrizketatu batek aipatu duenez, nahiz eta euskal elebiduna izan, euskalkia hitz egiten du soilik. Eskolan ez zuen euskaraz alfabetatzeko aukerarik eduki. Kasu honek erakusten du kontraesan handia bizi dutela gisa honetako hautesleek: ahozkotasunean euskal elebidun diren bitartean, erdal hartzaileak dira idatzian.

- (21) Bai nik ez dut liburutan ikasi. Nik aitak eta amak zer irakatsi huraxe dakit bakar bakarrik. (13_Elkarrizketa; A1).
- (22) Euskaldun zaharra naiz. Amarengandik jaso nuen. Ama jaio zen Sakanan eta, nahiz eta aita, erdalduna izan, amak euskaraz egiten zuen etxean gu txikiak ginenean. Horregatik ikasi nuen. Ez nintzen eskolara joan euskaraz. Gaztelaniaz egin nituen ikasketa guztiak, bai eskola, bai unibertsitatean eta bai institutuan ere. Dena erdaraz. Beraz, euskaldun zaharra naiz eta alfabetatu naiz jada heldua nintzenean. (1_Elkarrizketa; A2).

Elkarrizketatuen artean bat edo bestek aipatu du jatorrizko euskalduna izanik, helduaroan alfabetatu dela. Auzi hori sakonago aztertzen da ondorengo ataletan. Edonola ere, helduen alfabetatze mugimenduaren inguruan aipatu behar da azken horrek berebiziko garrantzia izan duela euskaldun kopuru handi batek euskaraz idatzizko komunikazio gaitasuna izateko. Gazteen kasuan, berriz, azken hamarkadetan gero eta gehiago dira hezkuntza sistemaren bidez euskaraz alfabetatzen ari direnak.

Horrek eragin du gero eta kasu arraroagoa izatea aurrez aipatutako desfasea, hau da, hiztun bat bere jatorrizko hizkuntzan ez alfabetatua izatea. Ondorioz, euskaldun oso dira normalean adin talde gazteenetan dauden euskaldun zaharrak. Txepetxen (1991, 201-229. or.) ustez, talde hori da hizkuntza normalizaziorako oinarria eta ernamuina. Alde horretatik, elkarrizketatuek aipatzen dute azken urteotan euskararen alfabetatzean eta normalizazioan aurrerapauso handia eman direla, eta euskara, tresna gisa eremu desberdinetan erabiltzeko doitu dela. Alabaina, pitzadurak agertzen dira oraindik. Elkarrizketatu honek, adibidez, euskara erabat doitu gabe dagoela aipatu du oraindik gauza espezifikotarako, edo gutxienez, dauden baliabide horiek berak ez dituela erabat barneratu:

- (23) Euskaraz hobeto adierazten ditut [sentimenduak]. Gero egixe da adibidez karreran eta testu asko irakurri dudanez erdaraz, ba igual idatziz segun ze errekurtsio edo segun zer esanahi, gauza espezifiko batzuk erdaraz hobeto. Baina igerri egiten dut batik bat fluidez aldetik euskaraz askoz hobeto moldatzen naizela. Erdaraz egin behar badot in ber naiz parau pentsatzen. Gutxienez lehenengo 10-15 minutu. Gero konbertsazioan sartu eta txipe aldatutakoan bai, baino por lo jeneral euskaraz hobeto. (23_Elkarrizketa; E1).

Ikusten den moduan, esparru teknikoetan euskararen normalizazioa ez da erabatekoa. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, azken elkarrizketatu horretan islatzen da sistemaren erdigunean kokatzen den taldearen egoeraren nolakoa. Horien kasuan, euskara da eskuartean duten tresna linguistiko doituena. Alabaina, zenbait esparrutan hobeto moldatzen dira beste hizkuntza batzuetan. Euskara gaitasunaren kamustasunak eragiten du zenbait funtziotarako gaztelera hobestea.

Egoera oso bestelakoa bizi dute eguneroko behar sozial ia guztiak betetzeko gaztelaniaz hobeto moldatzen diren hautesleek. Elkarrizketatuen artean zenbaitek aitortu dute euskara gaitasun mugatua dutela. Batzuen kasuan hutsune hori mugatzen da ahozko jardunera, beste batzuek, hartzaile gisa ere mugak dituzte, bereziki elkarrizketa euskalki jakin batzuetan egiten denean.

- (24) B mailako titulua atera nuen duela 20 urte. Atera nuen eta bueno hortik aurrera, defenditzen naiz. Nahiz eta nire joera beti, segun zertaz hitz egin behar dudana, gai eztabaidatsu edo teknikoetan eta, joera den erdarara pasatzekoa. (3_Elkarrizketa; A6).
- (25) Nire familiako bat Lekeitiokoa da eta euskalkian ezin dut. Mesedez esaten diot... Eta azkenean pixka bat euskaraz eta pixka bat gaztelaniaz. (22_Elkarrizketa; C6).

Bi eredu horien artean, aniztasuna da nagusi. Alde horretatik, adierazgarria da ikustea hizkuntza gaitasuna ez dela estatikoa. Are gehiago, elkarrizketatuen kasuak aztertu ostean ikusi da bi noranzkotan gertatu direla aldaketak. Batetik, euskara gaitasuna landu eta sistemaren erdigunera hurbilduz joan diren elkarrizketatuak daude. Bestetik, alderantzizkako prozesua egin dutenak. Azken horien kasuan, adibidez, euskaldun zaharra izan eta denborarekin igaro dira funtzio batzuetan elebidun orekatu izatera.

- (26) Ez da nire ama hizkuntza baina bai sentitzen dut nire hizkuntza bat dela. Nik bestelako hizkuntzak hitz egiten ditut eta ez dut harreman edo sentimendu bera. Egia da hor borrokan nabilela esan dizudan bezala C2 horrekin ez dudalako lortzen baina beti esaten didate “jatortasuna” falta zaidala eta jarraitzen dut borrokan. Baina gustura nabil ikasten eta saiatzen naiz euskaraz irakurtzen, irratia entzuten...(16_Elkarrizketa; G8).
- (27) Euskaraz! [kuadrillan hitz egitea gustatuko litzaioke]. Neri gehien gustatzen zait berba egitea euskaraz eta be bai entzutea. Asko gustatzen zait entzutea euskaraz (...). Ta ez dakit, igual erraztasun gehiago dudalako, bueno, erraztasun gehiago ez, berdin. (26_Elkarrizketa; E4).

Bada aipatu beharreko beste elementu bat. Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batzuen presentzia agertu da elkarrizketatuen artean, zehazki, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak direnen artean. Edonola ere, Euskal Herrian jaiotakoen artean, bereziki gazteenen artean, bada hizkuntza bat guztiek ezagutzen dutena: ingelesa. Horien artean, inork ez du esan euskara baino ingelesez erraztasun handiagoa duenik. Horrek ez du esan nahi, ordea, gisa horretako soslairik duenik ez dagoenik. Aurrera begira zantzuak daude pentsatzeko errealitateak eskatuko duela kategoriak egokitzea eta hizkuntza gaitasuna euskara/erdara ardatzean ulertu ordez, euskara/erdarak ardatzera igarotzea.

- (28) Harremana aldatzen doa. Ez dakit, duela pare bat urte euskara eta gaztelania sentitzen nituen oso gertuko. Bat atxikipenaren aldetik eta bestea erabileragatik. Ingelesa oso beharrezkoa da lagun asko ditudalako ingelesak eta nire lan profesionalean lan asko eta asko ingelesez egiten dudalako. Eta gaur egun, ez dakit, konpondu gabeko gatazka bat daukat gaztelaniarekin. Pixka bat segurtasun falta sartu zaidalako ez dudalako ia-ia erabiltzen astean zehar. Eta orduan joaten naiz eta hasten naiz gaztelaniaz hitz egiten, baina, beldurrez. Eta orduan, lehen euskararekin gertatzen zitzaidana orain gaztelaniarekin pasatzen hasi zait. Eta bitartean ingelesez akatsak egingo ditut baina lasai, eroso eta konfiantzarekin. Orduan ez dakit. (27_Elkarrizketa; E4).

Laburbilduz, Iurrebasok dioen moduan, elkar elikatzen dira hizkuntza erabilera eta hizkuntza gaitasuna. Hori horrela izanik, hizkuntza gaitasunaren ikuspegitik jaiotzez euskaldun zaharra izateak ez du esan nahi betiko hiztun elkartearen erdigunean kokatzen denik. Euskararekin jaio ala ez, garrantzitsuena da bizitzako egoera sozial guztietan elkarrizketatuak euskaraz egiteko gaitasun erlatibo positiboa izatea. Ildo horretatik, euskara lehen hizkuntza izan arren, hiztun elkartearen muinetik urruntzen dira gaztelaraz arlo desberdinetan gaitasun handiagoa izaten amaitzen duten horiek. Alderantziz, beste horrenbeste gertatzen da erdal hiztun elkartearen baitan jaiotzen denarekin. Posible da lehen hizkuntza gaztelara izan eta euskal hiztun elkartearen erdigunean kokatzea bizitzan zehar euskara doitu eta landuz joan delako. Alde horretatik, euskal lerrokatze linguistikoa aztertzerakoan ikusi da hizkuntza gaitasun desberdina duten kideak daudela.

❖ **b) Hizkuntza transmisioa**

Hiztun elkarte prototipikoaren ideiarekin arabera hiztun elkartearen hizkuntza propioa modu naturalean jasotzen dute elkarte horretako hiztun guztiek. Izan ere, eredu idealaren arabera, elebakarrak dira denak, eta ondorioz, bere ondorengoei hizkuntza

hori besterik ezin die transmititu. Alabaina, ikuspegi prototipikoaren aldean konplexuagoa da euskal hiztun elkartearen egoera, bereziki botere harreman asimetrikoetan oinarritzen den hiztun elkarte desberdinen ukipen egoera gatazkatsuaren eraginez. Honako galdera sortzen da transmisioaren auziari mendeko egoeratik begiratzean: zer gertatzen da familiako transmisioarekin, hiztun elkarte prototipikoaren ordezt mintzaldatze prozesuan murgilduta dagoen menpeko hizkuntza batez ari bagara hizketan? Eleaniztasun desorekatu horren aurrean zein da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren parte diren elkarrizketatuek dituzten bizipenak?

Elkarrizketatuen artean aniztasuna da nagusi hizkuntza transmisioaren eta familiako hizkuntza politikari erreparatuta. Alde batean, familian euskara soilik jaso dutenak daude, beste aldean, berriz, etxetik gaztelera soilik jaso dutenak. Bi eredu horien erdian daude gainerakoak.

Familian euskara soilik jaso duten elkarrizketatuen kasuan bi eredu desberdin agertu dira gurasoen lehen hizkuntzari dagokionez: batetik, euskararen hizkuntza transmisioa eten ez den familiak daude, alegia, azken bi belaunalditan gutxienez euskara soilik transmititu duten familiak; eta bestetik, gutxienez bi gurasoetatik baten lehen hizkuntza gaztelania izan arren, gerora euskara ikasi eta etxean euskara soilik transmititu dutenak.

- (29) Gazte gaztetatik etxean lehendabiziko euskaraz ikasi genuen. (...) Gero jada pixka bat handituz joan ginenean hasi ginen dena erdaraz eta erdaraz. Baina txiki txikitan dena euskaraz. (...) gurasoak euskaldunak ziren. Haiek ez zekiten deus. Aita, por ejemplo, joan zenean serbizio militarra egitera, 18 urterekin (...). Ez zekien deus. Ez bai eta ez. Ez zekien deus erdaraz. Dena dena dena euskaraz. (13_Elkarrizketa; A1).
- (30) Familian euskaraz hitz egiten dugu bi aldetatik, amak eta aitak. Eta eurek be bai beren familian euskaraz eta euskaldunak dira. (26_Elkarrizketa; E4).
- (31) Lehen hizkuntza euskara. Aitak ikasi beharra izan zuen gu jaio aurretik, baina etxean euskaraz. (27_Elkarrizketa; E4).

Etxean soilik euskara jaso dutenen artean, euren familiaren hizkuntza politikaren inguruan galdetuta, elkarrizketatu guztiek nabarmendu dute euskara transmititzearen garrantzia. Elkarrizketatu honek, adibidez, bere ondorengoei euskara transmitituko liokela azpimarratzen du munduko edozein txokotan bizi dela ere. Aipatzen duen arrazoi nagusia da hizkuntza bere herentzia kulturala dela.

- (32) Nik euskara erakutsiko nieke (...) Ze ni Alemania juango banintzake, eta Alemanian bizi, eta seme-alabak alemanak izango baliake, nik erakutsi egingo notzen euskara, ze nire izatien parte da. (...) aparte, hizkuntza bat eta berak ekartzen duen errealitatea gehiago ezagutuko luketela, eta be bai nire ondarea da. Nire herentzia kulturala da. Orduan erakutsi egingo nieke. (23_Elkarrizketa; E1).

Hori horrela bada, zergatik hainbat euskaldunek ez diote euskara transmititu bere ondorengoei? Bi arrazoi agertu dira transmisio galera azaltzeko: errepresioa eta diskriminazioa. Horrek guztiak eragin du euskaldunek inferioritate konplexua izatea.

- (33) Gaztelania bai aitarena eta bai amarena. Aitona-amonena euskara zen lehen hizkuntza, guztiena. Haiena bai. Azkenean betiko kontua, ez? Ba hori diktadura garaian ezin zenez euskara ikasi ba azkenean gurasoek ez dakite. (4_Elkarrizketa; E6).

Aipatutako kasu horietan guztietan, euskararen transmisioa osoki galdu zen belaunaldi batean, nahiz eta guraso batek gutxienez euskara izan lehen hizkuntza. Alabaina, familian gaztelera soilik jaso duten elkarrizketatuen artean bada beste soslai bat: guraso erdaldunez osatutako familien kasua. Azken horiei dagokienez, euskara ez-ezagutza da gaztelera soilik transmititzeko arrazoi nagusia.

- (34) Gaztelania. Nire gurasoak dira Lizarraldeko herri batekoak. Eta etorri ziren Iruñera lanera. Haiek ez dute harremanik izan euskararekin eta ni eraman ninduten monjen eskola batera eta ez nuen euskara ikasi. (12_Elkarrizketa; E8).

Gaztelera transmititu den familietan ikusten da elkarrizketatuak euskarara bide desberdinetatik iritsi direla. Lan honetan, orain arte, hizkuntza transmisioaz aritzerakoan arreta berezia jarri da familiaren transmisioan. Alabaina, zenbait ikertzailek proposatzen dute euskararen transmisioa ez murriztea ama hizkuntzara. Paula Kasaresek (2015, 28. or.), adibidez, proposatzen du familia euskaldunaren ideia zabaltzea. Azken honen arabera, zenbait familietan etxean euskara irakastea ezinezko izan arren –ez-ezagutzagatik–, gurasoek ahalegina egin dute euren umeak euskaldun izateko. Horretarako, besteak beste ikastoletara edota D eredura eraman dituzte eta harremanetan jartzen saiatu dira “umeak ttikitatik euskararekin”. Bere arabera ondo legoke kasu horietan familia horiek euskaldun bezala hartzea.¹⁵² Izan ere, ikuspegi holistikoa aukera ematen du euskara transmisio moduen inguruan ertzetan dauden bizipenak beste ikuspuntu batetik ulertzeko.

- (35) Ni txikitatik hasi nintzen D ereduan. Hiru urtetatik sartu nintzen eskolan eta hortik aurrera euskaraz. Eta suposatzen dut gurasoek zeukatela euskararen, ez dakit, nostalgia edo. Eta hortik aurrera, ba, horixe. Euskaraz hasi nintzen eta ikasketa denak egin ditut euskaraz. (4_Elkarrizketa; E6).
- (36) Garai horietan, ez zuen inork euskaraz hitz egiten eta sortu zen B ereduan ikasteko aukera. Orduan nire gurasoak horren aldeko apustua egin zuten eta orduan matrikulatu ginen B ereduan. Erdia euskaraz egin genuen eta beste erdia erdaraz. (9_Elkarrizketa; A6).

Dena dela, Fishmanek (1993) azpimarratu zuen hizkuntza transmisioan hezkuntzak eragin handia duen arren, hizkuntzaren biziberritzea soilik “familia auzogiroek eratzen duten konplexu osabetezkoak” eraman dezakeela aurrera. Alde horretatik, elkarrizketatuen kasuan interesgarria da ikustea nola arrazoitzen duten, etxean gaztelania soilik jaso dutenek, euskara txertatzea transmisioaren familia politikan.

- (37) Klaro, ez dut seme-alabarik, baina gerora helburua da euskaraz bizitzea eta transmititzea. Nik badakit gaztelania nire ama hizkuntza dela, eta gustatzen zait. Uste dut gaztelania ere hizkuntza

¹⁵² Kasaresen (2015, 27. or.) arabera, “euskararen transmisioaren ikusmolde ohikoak batik bat gurasoen hizkuntza gaitasunari erreparatu dio eta egun haurrak euskaldun hazten ari diren familia anitz bere aztergunetik kanpo utzi ditu”.

- polita dela, baina nik badakit seme-alabarik izanez gero, gaztelania izango dutela bai ala bai (...). Beraz nik transmitituko nieke euskara. (28_Elkarrizketa; H8).
- (38) Niri gustatuko litzaidake, nik askotan lortzen ez dudana haiek egitea: euskaraz pentsatzea. (12_Elkarrizketa; E8).

Orain arte ikusi da euskaraz edo gaztelera soilik transmititu dieten elkarrizketatuen hizkuntza transmisioa. Hala ere, bada beste hirugarren talde bat: euskararekin batera familian beste hizkuntza bat jaso dutenak. Oso bizipen anitzak agertu dira multzo honetan. Elkarrizketatu batzuen kasuan, familiak igaro dira euskara soilik transmititzetik, gaztelania ere transmititzera. Kasu honetan bi arrazoi desberdin agertu dira: gurasoetako bat erdalduna izatea edota errepresioa.

- (39) Nire neba nagusia ni baino urte batzuk nagusiagoa zen eta erdaraz ez zekienez orduan arazo handiak izan zituzten eskolatzeko. (...) Orduan ni geroago jaio nintzen eta niri ez zidaten euskaraz egiten. Orduan euren artean egiten zuten euskaraz etxean baina niri erdaraz. Nik belarria oso eginda dut. Betidanik entzun dut. (...) Orduan 18 urterekin edo holan hasi nintzen berriz euskara ikasten. (19_Elkarrizketa; A2).
- (40) Nik esaten nuen, hor genituen bizilagunak, eta horietako bat baserrikoa. Eta berak niri hitz egiten zidan euskaraz eta zituen hiru seme-alaba, baina ez zien euskaraz egiten. Eta hor beste familia batean ere. Eta nik esaten nien: ¿Cómo no le habláis en euskara? ¿cómo no le habláis? Eta berak: porque el marido no sabe! Eta nik ere esaten nien gure etxean ere bikoteak ez daki! Baina nosotros tenemos que expandir nuestro idioma. Es que eso es sagrado! ¡Han luchado nuestros mayores para que nosotros sepamos eta nola demonios guk... nola ez diozu hitz egiten euskaraz! Eta esaten zidaten ya orain, ya orain. (10_Elkarrizketa; A2).

Era berean, alderantzizko joera ere gertatu da. Alegia, soilik gaztelania transmititzen zen familietan euskara txertatzea transmisioan. Elkarrizketatuek, kasu horretan mahai gainean jarri dute gurasoek familia euskaldunberritzen egindako ahalegina.

- (41) Bai jaio nintzenetik. Gurasoak beti izan dira erdaldunak. Baina ama gaztetan hasi zen AEKn euskara ikasten eta orduan txikitatik nire etxean hitz egin da euskaraz. Orain jada ez baina jaio nintzenean amak hitz egiten zidan euskaraz. (33_Elkarrizketa; E4).
- (42) Bai etxean euskaraz eta gaztelaniaz. Biak. Gurasoak euskaldun berriak izan ziren bere garaian 20 eta piko urterekin ikasi zuten euskara. Orduan etxean bi hizkuntza. (...) Lehenengo oroitzapenak euskararekin ikastola inguruan ditut. Gurasoekin suposatzen dut euskaraz hitz egingo nuela txiki-txikitan. Orduan gehienbat. Baina esango nuke nahiko eremu erdaldunean bizi izan naizela beti. (...) Beraiek argi zuten hemen bizitza eraikitzeke hemengo hizkuntza ikasi nahi zutela, eta are gehiago, hizkuntza gutxitua izanda. Eta hori lehenetasun bezala jarri zuten. (20_Elkarrizketa; G4).

Laburbilduz, aniztasuna da elkarrizketatuen artean hizkuntzaren transmisioaren inguruan jaso diren bizipenen ezaugarri nagusia. Elkarrizketatu batzuek ikusten da familiatik jaso dutela euskara, aldiz, beste batzuek beste hizkuntz sozializazio bide batzuek baliatu dira, hala nola: eskola, AEK eta abar. Horrek guztiak elkarrizketatuen hizkuntza erabileran duen eragina ikustea da aurrera begirako erronka.

❖ **c) Hizkuntza erabilera**

Hiztun elkarte prototipikoaren arabera hizkuntza berean komunikatzen dira une oro hiztun elkarteko hiztun denak. Alabaina, zer gertatzen da ahuldutako hiztun elkarte horretako hiztun guztiak elebidunak direnean? Elkarrizketatuen artean, desberdintasun

handiak agertzen dira erabilera maiztasunaren inguruan. Jarraian, xehetasun horiek aztertzeko Zalbidetik (2016, 19-21. or.) hobesten duen erreferentzia sistema hartu da abiapuntu moduan. Azken honek, bost mailaketa bereizten ditu erabilera maiztasunaren arabera: “E4 (euskaraz gazteleraz baino gehiago), E3 (euskaraz gazteleraz beste), E2 (euskaraz gazteleraz baino gutxiago), E1 (oso gutxi euskaraz) eta E0 (beti gazteleraz)”. Zati banatze boskoitz horri erabilera trinkoa (ET) gehitzen dio “ $ET = E4 + E3$ ”. Lan honetan E0 kasuan kokatzen den elkarrizketaturik ez dago, izan ere, elkarrizketa euskaraz egin denez ezinezkoa da beti gazteleraz bizitzea.

Soslaiei dagokienez, lan honetan arreta jarri da bereziki euskararen erabilera trinkoan. Horrela, hiztun elkartearen muina osatzen duten hiztunen bizipenak aztertzeaz gain, bide batez, zein diren ikusten da elkarrizketatuen kasuan euskararen erabilera ahultzen duten aldakortasun iturriak, hala nola: eremu soziofuntzionala, rol harremanak, egoera, adina eta abar (Zalbidetik, 2016, 21-23. or.).

Analisiarekin hasi aurretik zenbait ñabardura egitea komeni da mendeko egoeran begirada jarrita. Elebakarrek gaitasuna dute soilik hizkuntza batean hitz egiteko. Euskal hiztuna euskaraz egiten duena bada, definizioz, euskal elebakarrak ezin du erdal hiztuna izan. Azken horien kasuan, E5 soslaia sortu beharko litzateke. Izan ere, euskal elebakarrentzat euskaraz hitz egitea ez da hautua, beharra baizik. Kontua da erdal hiztunak ez bezala, Hego Euskal Herrian euskal hiztun guztiak elebidunak direla. Ondorioz, euskaraz gehien hitz egiten duenari ere, egoera diglosikoak eraginda, gazteleraz hitz egitea egokitzen zaio tarteka (E4). Alde horretatik, Zalbidetik (2016, 92. or.) bereziki bi aldagai aipatzen ditu euskararen erabilera maiztasunean eragina dutenak, Inkesta Soziolinguistikoa lantaldeak esandakoa gogoraraziz: bat, euskaldunen dentsitatea harreman sarean; eta bi, euskaraz egiteko erraztasuna. Era berean, beste hiru aldagai gehitzen ditu azken horiekin harremana dutenak: lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa. Atal honetan ikusten da E4 soslaia duten elkarrizketatuak zer bizipen dituzten eta berau baino soslai baxuagokoak direnek zergatik duten gaztelaniaz aritzeko joera.

Elkarrizketatuen artean bat baino gehiago dira ikuspegi prototipikoak irudikatzen duen euskal hiztunaren eredu idealera hurbiltzen direnak eta ia beti euskaraz bizi direnak – udalerrri euskaldunekoak, euskaldun dentsitatea harreman sarean, euskara lehen hizkuntza, hizkuntzarekiko interesa eta abar–:

(43) Nik ehuneko handi baten euskaraz egiten diat. Lagunartean euskaraz, bikotekidearekin euskaraz, etxean euskaraz, gurasoekin eta abar ere bai. Lanean euskaraz... Beste kontu bat duk kontsumitzen ditudan gauzak izan daitezkeela erdaraz: telebistak, liburuak, egunkariak eta horrelako gauzak. (...)

[-Zergatik egiten dituk harremanak euskaraz eta ez gaztelaniaz?] Bueno hasteko eta behin errezagoa delako niretzat edo horrela natural egiten zaidalako. Ez diat planteatzen zergatik egin behar dudan erdaraz besteak euskaraz baldin badaki. Galdera ere arraroa egiten zaiak. Besteak euskaraz baldin badaki ez zaiak zergatik hitz egin behar diaten erdaraz. Gertatzen dek, baina niri ez zaiak bestela irtetzen. (24_Elkarrizketa; E3).

- (44) Euskaraz bizi naiz. Batzuetan lagun batzuk badauzkat ez dakitenak eta orduan horiekin erdaraz. Eta lanean ere ez dakienarekin erdaraz. Baina gure etxean dena da euskaraz. Nire ama, umea eta gizonak ere bai. (...) Joaten bazara Bilbora nire umeak esaten dute: ama hemen dena da erdaraz? Rarue egiten dakie. Hemen dena da euskaraz. Normala da euskaraz egitea. Erdaraz eginez gero umeekin esango lukete, nongoak zarie? (...) Hemen Zornotza pasatu ezker aldaketa handia dago. Badoa apurka-apurka baina oraindik... (21_Elkarrizketa; B1).
- (45) Nik uste euskara betitik izan dudanez erabiltzen dut komunikatzeko tresna bat bezala. Ez? Edozeinekin harremanetan jartzekoan lehenbizi joko nuke euskarara. Gero bertzeak ez baldin badaki, orduan ja hasiko ginen begiratzen ze erregistro gehiago ditugun. (25_Elkarrizketa; E3).

Edonola ere, E5 eredu idealera gehien hurbiltzen diren elkarrizketatu horien kasuan, beti dago elementuren bat mintzaldaketa eragiten duena: lana, lagunak... Aipatu diren kasuetan, erdaldunen presentzia da elkarrizketatuak gaztelaniaz aritzea behartzen dituen. Alabaina, hiztun horiek ez dira beti gaztelaniara pasatzen hartzailea erdalduna delako. Elkarrizketatu batek dio Hegoaldearen eta Iparraldearen artean dagoen muga politikoak eragin zuzena duela euskara erabilera trinkoa duten hiztunen arteko hizkuntzaren erabilerari dagokionez. Bere kasuan, Iparraldeko euskaldunekin elkartzen denean dio gaztelaniaz egiteko joera duela bi arrazoiengatik: 1) euskara batuaren normalizazio falta; 2) bi aldeetako euskaldunek gaztelania estandarrean harremantzeko duten gaitasuna.

- (46) Iparraldeko euskaldunak deitzen diegu, nahiz eta euskara diferentea egiten dugun. Ez dugu elkar ulertzen hagitz ongi. Aiseago aritzen gara espainolez frantses batekin, euskaraz, iparraldeko euskaldun batekin baino. Egia da hori. (...) Denak euskaldunak dira, gu ere bai eta haiek ere bai. Baina ez dugu elkar oso ongi ulertzen, eta orduan, errazagoa denez aritzen gara erdaraz. Hori da errealitatea nik ikusten dudana nire punto de vistatik. (7_Elkarrizketa; A1).

Aipu horrek berak nahiko ongi erakusten du zeinen hauskorrak diren euskara erabilera trinkoa duten hiztunen ohiturak. Honako galdera ondo dator gaiaren inguruan gogoeta egiteko: Santanderreko eta Cadizeko bi gaztelar hiztun, ingelesera pasatzen dira hizketan hasten direnean? Normalean, ez. Horregatik guztiagatik, udalerrri euskaldunetako euskal hiztunen baitan ere ikusten da euskararen erabilera trinkoa hirugarren aldagai batzuen eraginpean dagoela. Hori horrela bada, arnaguneetan bizi diren eta euskara erabilera trinkoa duten elkarrizketatuen artean, zein da hiztun elkartearen erdigunetik urrundu ahala gainerako elkarrizketatuek bizi duten egoera?

Azken horiek aipatu dute euskaldunen dentsitatea dela euskararen erabilera maiztasunean eragina duen aldagai nagusietakoa. Ogia erosterakoan edota auzokideekin hitz egiterakoan beti ez baita gertatzen aurrean dagoena elebiduna izatea. Adibidez, Gasteizko elkarrizketatuak aipatzen du nahiz eta euskaraz bizitzeko ahalegina egin, Gipuzkoan bizi zenean baino oztopo gehiago dituela:

- (47) Lehen ni Gipuzkoan bizi nintzen eta orain hemen [Gasteizen]. Eta orain hemen nabaritzen dut nik egin behar dudala ahalegina euskaraz komunikatzeko. Gipuzkoan leku batzuetan ere bai, baina ez zen hainbesteko. (28_Elkarriketa; H8).

Alabaina, askotan arazoa ez da aurrean dituztenek euskaraz ez jakitea. Elkarriketatu batzuek aipatu dute euskal hiztunen artean ere gaztelaniaz aritzeko joera dutela. Horrelako kasuetan aipatu dute gaztelararen erabilera eragiten duten arrazoi nagusietakoak honako hauek direla: ohitura eta hizkuntza gaitasuna.

- (48) Zuk ezagutzen baduzu pertsona bat hizkuntza batean, zaila da aldatzen. Aurrenetik gaztelaniaz hitz egin ezker zaila da aldatzea ohitura. Baina hasten bazara euskaraz, errazagoa da jarraitzea euskaraz (...) Oso zaila da aldatzea. Ez da ateratzen. Artifiziala da. (22_Elkarriketa; C6).
- (49) Bilobak ditut eta alde horretatik beraiekin saiatzen naiz euskaraz egiten. Euskaraldi kanpainan, nahiz eta ahobizi izan, belarriprest jarri naiz. Zeren, a ver, gainera nabaritzen dut. Norbaitek hitz egiten badu euskaraz nirekin kosta egiten zait hastea. Baina, joe baina ordu erdi bat edo bi orduz euskaraz entzutean, tak, nire txipa aldatu egiten dut. Hori nabaritzen dut. Behar badut euskaraz, bestela erdarara joaten naiz normalki. (3_Elkarriketa; A6).

Ikusten den moduan, ataka estu baten erdian aurkitzen da euskal hiztuna euskara gaitasun erlatibo baxuagoa eta ingurune erdalduna uztartzen direnean. Izan ere, euskara erabiltzeko ingurunerik gabe oso zaila da hizkuntza gaitasunari dagokionez, nahikotasun mailara iristea. Era berean, Txepetxek (1991, 39-43. or.) dioten moduan, nahikotasun mailarik gabe zailagoa da hiztunak motibatzea. Euskarari errezeloz begiratzea da azken emaitza.

- (50) Behartuta zaudek euskaraz ikastea eskolan, baina ez zeukatek bermatuta euskaraz bizitzea (...) Orduan, gehienek nahiago ditek erdalduna izan. Motxila bat duk. Euskara duk inposizioaren hizkuntza beraientzat. Gaizki hitz egiten duten hizkuntza bat, non egunero eskolara joan behar diren gaizki hitz egiten duten hizkuntza batean eskola denak hartzea, idaztea eta hitz egitea. Beraien hizkuntza gaztelania izanik. (17_Elkarriketa; C3).

Fenomeno hori begi-bistakoa da hiztun dentsitate apaleko eremuetan. Euskal elebidunak urtu egiten dira itogune¹⁵³ –arnasgune ez dena– horietan. Horrek eragiten du euskara eskolako hizkuntza modura soilik ikustea gazteen artean. Hala, joera dute eguneroko bizitzan gaztelaniaz aritzeko.

- (51) Baina oro har nik esango nuke gaur egun Altsasun, ez ondoko herrietan, baina bai Altsasun, euskara hezkuntzarekin erlazionatuta dagoen hizkuntza dela. Nahiz eta 30 urte baino gutxiago dituzten artean %90ak euskaraz dakien. (5_Elkarriketa; E6).
- (52) Bazegoen gure klasean ikasle bakarra euskaldun zaharra zena. Beste guztiok euskaldun berriak ginen eta egia da guretzat nahiko zen ikasketekin lotura zeukan zerbait. Ez genuen ba bueno hortik kanpo euskaraz bizi zitekeenik ere pentsatzen. Hortik kanpo egiten genituen ikasketak, musika eta horrelakoak gaztelaniaz ziren. Egia da oso lotua zegoela ikasketekin. (16_Elkarriketa; G8).

Honela ikusita, badirudi XXI. mendean euskara dela inposatzen den hizkuntza. Aldiz, gaztelaraz aritzea erabaki indibidual eta askea dela. Alabaina, orain arte ikusi da euskal hiztunen euskararen erabilera apala izatearen atzean dagoen arrazoia, ukipen egoeran dauden bi hiztun elkarteren arteko harreman asimetrikoa dela. Hala, Tuterako

¹⁵³ Nonbait norbaiti entzun edo irakurritako kategoria da itogunea, baina ez da egilea aurkitu.

elkarrizketatuak uste du aurreiritzi jakin batzuk egon ez balira, bere garaian ziur legokela euskara gehiago erabiliko zukeela.

- (53) Beti zaindu izan ditut ume euskaldunak. Eta hasieran umeekin beti hitz egiten dut euskaraz. (...) Eta orduan parkean geunden eta nik askotan beste umeekin zeudenean hitz egiten nien gaztelaniaz. Baina gero pentsatu nuen... no, no! Ni ez nago zure umearekin hitz egiten. Eske askotan en plan presio hori de bua mira este niño, qué me van a decir, porque el niño este... eta horregatik nik askotan jotzen nuen gaztelaniara. Presio horregatik eta aurreiritzi horiengatik nik uste dut horregatik galtzen dela. (33_Elkarrizketa; E4).

Laburbilduz, euskararen erabileraren inguruan ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara osatzen duten elkarrizketatuen artean errealitate desberdinak agertu direla. Zenbait elkarrizketaturi natural egiten zaie lehen hitza euskaraz egitea, beste batzuei ez. Edonola ere, guztiek aipatu dute egun ez dela posible euskara hutsez bizitzea. Horretarako zailtasunak, bereziki bi aldagaien inguruan artikulatzen dira: euskara gaitasuna eta euskaldun dentsitate baxua. Bi aldagai horiek elkar elikatzen diren kasuetan, motibazio sendorik gabe zaila da euskara ikasi eta erabiltzeko jarrerari eustea. Horrek guztiak eragiten du euskal hiztunak euskararen erabilera apala izatea, eta apurka euskal hiztun elkartetik urrunduz, espainiar hiztun elkartearen hizkuntza eta kultura barneratzen joatea.

❖ **d) Hizkuntzen inguruko jarrerak**

Euskal hiztun elkartearen kide dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren parte diren elkarrizketatuak. Alabaina, elkarren artean desberdinak dira hizkuntzaren inguruan dituzten jarrerak, motibazioak, iritziak eta usteak. Azken urteotan hainbat proposamen egin dira euskararen inguruan hiztunek dituzten jarrerak sailkatu eta teorizatu asmoz. Proposamen horien artean, entzutetsuenetakoa izan da Martinez de Lunak (2013) idatzitako artikulua, “*Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena*” izeneko. BAT aldizkarian monografikoa egin zen 2013an aurreko alean argitaratu zen bere artikulua inguruan. Azken honek proposatzen du euskararen inguruan bi marko kognitibo egon direla 80ko hamarkadatik atzera: framing aldarrikatzailea eta framing uzkurra.

Framing aldarrikatzailearen arabera euskara da euskaldunen “zinezko hizkuntza bakarra eta euskal izaeraren ardatza”. Aldiz, “erdara biak –gaztelania zein frantsesa– hizkuntza arrotz eta inposatuak dira”. Begirada honen arabera euskara egoera gutxituan dago, hiztun elkarte hegemonikoak asimilatze ahalegin betean dabilzalako. Horren aurrean euskararen aldeko “diskriminazio positiboa” eskatzen dute: “gizarte osoa euskalduntzea da diskurtso mota honen jomuga, batzuek euskara gustukoa izan ala ez”. Framing uzkuraren kasuan, berriz, teoriarik euskara bizirautearen garrantzia ukatzen ez badu ere,

arbuaiatu edo inposiziotzat ikusten ditu bere aldeko interbentzioak “erdaldunen hizkuntza eskubideen kontrakoak direla argudiatuz”. Sentimendu horiek bere babesgunea “nortasun espainiardun herritarrengan” aurkitzen dutela aipatzen du, nahiz eta azken urteotan “sentimendu abertzalea dutenengana ere” hedatu den. Horren aurrean, Martinez de Lunak proposatzen du hirugarren bidea lantzea: Framing berria deiturikoa. Ideia honetan funtsatzen da: euskararen aldeko jarrera ezin da soilik funtsatu auzi identitarioan. Alegia, bere ideia da estrategia orokorra prestatzea ezinbestekoa dela euskal herritar guztiek euren ondare gisa ikusi dezaten. Horretarako, arrazoibide identitarioen aurrean hobesten dituen ideiak dira hizkuntza gutxituarena edota euskal herritar gisa “denok defendatu beharreko hizkuntzatzat” hartzea. Ondorengo lerroetan aztertzen da elkarrizketatuek euskararen inguruan aurkeztu dituzten iritziak marko hauen arabera non kokatzen diren.

Elkarrizketatuen artean ez dago framing uzkuraren arrazoiketa osotasunean bere egiten duenik. Alabaina, horrek ez du esan nahi elkarrizketatu guztiek framing aldarrikatzailea osorik erosten dutenik. Hori guztia interpretatzeko lan honetan proposatzen da hiztun elkarte prototipikoaren ideiatik abiatzea irakurketa. Gogoratu behar da ikuspegi horretatik elebakarrak direla hiztun elkarte bateko kide guztiak. Alabaina, ukipen egoeraren eraginez, bestetasunaren kontzientzia garatu dute euskal hiztunek. Elebitasunaren ondorioz hasierako bestetasun hori gutasun bihurtzeraino –euskaldunak erdaldun, eta alderantziz, erdaldunak euskal elebidun–. Alde horretatik, zenbait elkarrizketatuk aipatu dute umetan euskal elebakarrak zirela, eta beraz, euskararen inguruko ikaskuntza “naturala” izan zela. Alegia, etxekoen eta ingurukoen erabilerak eraginda jaso zutela euskara. Ondorioz, besteak beste, balio funtzionalak motibatzen du gisa horretako hiztuna euskara ikasten jarraitzera. Elkarrizketatu horiek euskararekiko oroitzapen onak dituzte; aldiz, bestela oroitzen dute gaztelaniaren ikaste prozesua. Zehazki, elkarrizketatu horiek gaztelania hizkuntzaren inguruan duten irudia da inposatutako hizkuntzarena.

- (54) Zenbat negar egin nuen nik? Etxera joan eta. Etxean dena euskaraz egiten genuen baina eskolan dena erdaraz egin behar. (...) Erdara inposatuta ikasi genuen. (18_Elkarrizketa; A3).
- (55) Baserrietan bakarrik egiten zen euskara. Kanean erdara eta nahiko behartuta egoten ginen erdaraz egiteko. (8_Elkarrizketa; A1).
- (56) Ez zekiat zergatik den. Balitekek azkeneko urtetako bilakaera politikoa izatea. Baina gaztelaniarekiko erresignazioa edo halako amorru sentimendu bat badiat. Gainera ezin kendu bat edo estorbu bat. Eta horregatik, badiat espainolarekiko halako zera bat. (...) Nik uste horrek sufrimendu bat sortzen duela horrela bizitzeak. Niretzat euskara praktikara eramaten dugunean hizkuntza problema bat dek. (24_Elkarrizketa; E3).

Ezinbestekoa da euskararen aldeko joera ulertzeko gaztelaniak euren bizitzan izan duen eragina ulertzea. Ikusten den moduan, framing aldarrikatzailearen zantzuak ageri dira adierazpen horietan. Elkarrizketatuek azpimarratzen dute gaztelaniaren inposizioa auzi

politikoa dela. Berez ez dute arazorik gaztelaniarekin. Izatez, gaztelar hiztunak dira guztiak. Izatekotan, euskaraz hitz egin ezinaren inguruan gorpuzten da gaztelaniarekin duten arazoa. Horren atzean elkarrizketatuek ikusten dute espainiar proiektu nazionala dagoela. Arrazoiketa horren arabera, hizkuntza berez ez da politikoa. Euskaraz egin ezin izanak bihurtzen du politikoa, eta horrek sortzen du errezeloa espainiar proiektu nazionalaren inguruan. Gainerakoan, jarrera ona dute euskaldunek erdal hizkuntzekiko, baita Framing berriaren inguruan kokatzen direnen kasuan ere.

- (57) Abiapuntua izaten da, norbanakoaren hausnarketa eta norbanakoen erabakia. Nik ikusten badut nire lagunak euskaldunak direla nik nahiago dut euskaldunekin euskaraz egin, erdaraz egitea baino. (...) Berdin zait, momentu honetan batetik bestera inongo prejuiziorik gabe aldatzea hizkuntza, baina beti oso kontzientea izanda egoera diglosikoan bizi garela eta minorizatuaren alde egin behar dugula. Bai, kontzientzia pixka bat baldin badaukagu. Nik irakurtzen ditut nobelak gaztelaniaz pila bat. (...) Eske bizi behar ditugu egoera horiek oso natural baina normalean natural bizi ez dituztenak, hain zuzen dira monolinguisismoaren alde daudenak. Eta beti minorizatuaren alde egiten dugunak azalpenak eman behar ditugu. Ja iristen da momentu bat esaten duzuna hau sinestezina da. (29_Elkarrizketa; D8).

Elkarrizketatu gehienak bat datoz erdal elebakarraren pribilegioa azpimarratzerakoan. Euskararen normalizazioaren aldeko diskurtsoari dagokionez, batzuek hizkuntzaren egoera minorizatuaren jartzen dute azpimarra, eta besteek, berriz, auzi identitarioetan. Edonola ere, biak dira elkarren osagarri praktikan. Izan ere, euskal identitateagatik euskararen alde egiten dutenek hizkuntza minorizatuaren alde diharduten bitartean, munduko edozein hizkuntza minorizatuaren alde diharduena ez dabil bere identitatearen aurka. Hori horrela izan arren, elkarrizketatuak jabetzen dira framing uzkurra oraindik gizartean presente dagoela.

- (58) Kontra bazagok jendea, por supuesto dagola. Jende batek ez dik adierazten hain garbi eta gutxiago hirekiko, ze bazekik hik nondik jotzen dekan. Baina bueno, beste jende bat argi eta garbi zeok euskararen kontra. Manifestazioak egin izan dituk inposizioaren izenean. Euskera eta ikurriña eta bazekiat zer eta ez zekiat zer. (...) Hemen UPNko jendeak eta badik Facebooken talde bat, eta horien politika dek, behin eta berriz, eta behin eta berriz, euskara ez! Horren kontra eta horren kontra. Euskararen kontra, kontra, kontra eta kontra... eta lortzen diabe. (11_Elkarrizketa; E4).
- (59) Bilboko auzo batean (...) oso ume txikiak, adibidez 10 urtekoak eta, ba Korrika pasa zenean, zirikatze aldera edo errebelde izateko aldera, altu esaten zutela gu hemen korrikaren alde esan beharrean, gu hemen Espainiaren alde. Eta lagunak esaten zuen asko inpaktatu ziola detaile horrek. Betidanik izan da (...) errebindikazioa ondo ikusia zegoena. Eta umeekin berriz kontrakoa (16_Elkarrizketa; G8).

Aurrez esan bezala, elkarrizketatuen artean inor ez da osotasunean framing uzkurrean kokatzen. Alabaina, zenbait elkarrizketatuk jarrera moderatuagoa erakutsi dute hainbat punturen inguruan framing aldarrikatzailearen diskurtso klasikoak erakutsi izan duena baino. Azken horien kezka da erdal hiztunak euskaraz ez jakiteagatik edo erabiltzeko ohitura apala dutelako diskriminatzea. Hori saihestu nahi dute.

- (60) Nik alabari inskripzioa egin nionean eskolarako aukera zen dena erdaraz edo dena euskaraz, eta euskarazkoan ematen zuten tarteka espainola asignatura. (...) Punto medio bat izan behar zuela uste zuen jendeak. Ez arrunt itxia: ez batera ez bestera. (...) Nik ez nuen zalantzarik egin euskara

hautatzerakoan. Baina bai erraten nuen tartekoa falta zela. Pixka bat euskaraz eta pixka bat erdaraz. (13_Elkarrizketa; A1).

- (61) Esaten zuten, zergatik ez duzue hitz egin euskaraz? Ba begira elebidun den neurrian nik daukat eskubidea euskaraz eta gaztelaniaz egiteko. Eta kasu honetan, gaztelaniaz. Zergatik ez? Biak dira ofizialak. (22_Elkarrizketa; C6).

Gainerakoan, elkarrizketatuen artean motibazio eta jarrera desberdinak agertu dira euskara ikastearen inguruan. Batzuek ikuspegi identitarioa azpimarratu dute aldagai nagusi gisa; besteek, berriz, euskara ikasteko pausoa eman bazuten, elkarbizitza izan zela aipatu dute motibazio nagusia. Era berean, bada ikuspuntu internazionalista erakutsi duenik ere.

- (62) Hemengo jende nagusiak, gazteak entzuten dituen euskaraz irrifarra egiten du. Jende askoz ez du euskara ikasteko aukerarik izan. Gerra garaia, gero zonalde industrializatua, atzerritar asko... jende askok ez du aukera hori izan eta abertzale sentimendu hori daukatenez eta beraien seme-alabek edo bilobek euskaraz ikasten dutenean sekulako poza hartzen dute. (30_Elkarrizketa; A6).
- (63) Hizkuntza da medio de comunicación. (...) horregatik edozein hizkuntza badakizu hobe da zeren bestea ez duzu jarri behar en tu terreno (...) bestela inposatzen duzu zure aukera. Nik horregatik ikasi nuen. (14_Elkarrizketa; D6).
- (64) Iritsi nintzenean. Bai duela urte batzuk, pues lehenengo hilabetetan ez a lo mejor, ezta ere lehenengo urtean, baina nahiko goiz apuntatu nintzen euskaltegi batean. [-Zergatik hasi zinen?] Ba pixka bat dena. Lagunak, bikotea eta familia eta batetik, eta bestetik, nire ideiak katalan bezala katalana hizkuntza garrantzitsua da eta ezagutzea nahi nuke. Eta beraz, hemen euskararekin ere berdin-berdina. (15_Elkarrizketa; H8).

Laburbilduz, euskararen aldeko jarrera erakutsi dute elkarrizketatuek. Hala ere, iritzi anitzak daude normalizazioaren bidean eman behar den pausoen eta intentsitatearen inguruan. Alde horretatik, Framing uzkurra agertu ez bada ere, ezin esan guztiak Framing aldarrikatzailearen parte direnik. Hirugarren diskurtso bat ere agertu da, hain zuzen, Martinez de Lunak Framing berria bezala definitzen duena. Elkarrizketatuen artean, beraz, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera agertu duten elkarrizketatu guztiek ez dituzte arrazoi identitarioak aipatu. Akademian balore unibertsal bezala kategorizatzen diren (bizikidetzak, gutxiengoak eta abar) elementuei lotuta justifikatzen dute euskararen aldeko jarrera. Ikusten den moduan, politikarekin harreman estua dute euskararen inguruko jarrerak. Alde horretatik, argi geratu da elkarrizketatuen artean modu desberdinetan ulertzen dela euskarak politikarekin duen harreman hori.

7.1.2 Sistema normatiboa: Euskal nazionalismoa

Aurrez aipatu den moduan, saretze bertikala hezuramamitzeko gainezartzea gertatu behar da gutxienik sistema sozialaren, normatiboaren eta organizatiboaren artean. Atal teorikoan azaldu da euskal saretze bertikalean gorpuzten dela euskal lerrokatze linguistiko elektoralak. Gauzak horrela, honakoa da sortzen den galdera: sistema sozialaren muina euskal hiztun elkarteak bada, zein da sistema normatiboa ezagutzeko aztertu beharreko elementua?

Lan honetan uste da arreta euskal nazionalismoan jarri behar dela, euskal saretze bertikalaren dimentsio normatiboa ezagutzeko. Izan ere, azken honek zedarritzen ditu sistema sozialaren eta organizatiboaren arteko harremanen nondik norakoak. Atal honetan interesatzen dena da ikustea zein den elkarrizketatuen begietara hizkuntzak (edo hiztun elkarteak) euskal naziotasuna zedarritzerakoan duen zentraltasuna. Hamaika lan idatzi dira nazionalismoaren eta hizkuntzaren inguruan Renanek *Zer da nazioa?* galdera luzatu zuenetik. Ezin da ahaztu, ordea, nazioaren aipamenak zuzenean edo zeharka askoz lehenagokoak direla. Horregatik egon da akademian nazioaren inguruko eztabaidaren oinarrian Modernitatearen auzia (Smith, 2000). Muinean eztabaidatzen dena honakoa da: bereiztea dago nazio etniko (aurre-moderno) eta politikoaren (moderno) artean, edota dikotomia hori interesatutzat jo eta nazio auzia ulertu behar da nazio bakoitzaren partikularitasunetik abiatuta eta botere harremanen logikan? Honek guztiak, nazionalismoaren eta estatugintzaren arteko harremana jartzen du auzitan. Horregatik da interesgarria nazionalismoaren inguruko azterketa. Sistema sozialaren eta organizatiboaren arteko harremana artikulatzen eta legitimatzen duen kontakizuna delako.

Ondorengo ataletan, akademian hegemonikoa den kontakizun modernoa zalantzan jartzen da elkarrizketatuek nazio auziaren inguruan adierazten dutena, Nazio zapalduaren ereduaren arabera berrirakurritik.

7.1.2.1 Euskal naziotasunaren inguruko pertzepzioak

Nazio zapalduaren ereduak azpimarratzen duena da modernitateaz hitz egin beharrean, modernitateez hitz egin behar dela. XV. mendeko Errenazimentuaren garaietatik hasita hainbatetan egin dio ihes historiaren trenak euskal nazioari (Azurmendi, 2000). Horrek ez du esan nahi, ordea, modernitatea eta euskal nazioa kategoria kontrajarriak direnik. Hori da lan honetan hobesten den posizioa. Horren aurrean aldarrikatzen da euskal nazioaren modernitatea, izatez, modernitaterik eza baino gehiago, ez-modernitatea izan dela. Hau da, atal teorikoan ez-mundu bezala izendatu dugun espazio horretatik abiatuta ulertu behar dela.

Begirada honetatik ulertzen da asimilatu gabeko euskalduntasunak bi izaerak barne biltzen dituela: kulturala eta politikoa. Are gehiago, azken honek euskaratik, euskaraz eta euskal matrize tenporal/espazialek erreparatzen dio munduari. Alabaina, modernitate hegemonikoa izan zuten nazioek munduko esperientzia soziala antolatu izan dute nahieran. Hala, Estatu Modernoaren sorrerarekin aurrena, eta bereziki, estatu-nazioaren aroan, euren mundu ikuskera besteek ezarritako kategorietan kokatu

beharrean aurkitu dira modernitate hegemonikoaren trenea hartu ez zuten nazioak. Hori dela eta, lan honetan ulertzen da asimilazioa dela Modernitate hegemonikoaren ezaugarri nagusietakoa, zehatzago esanda, bestetasun epistemikoaren ukazioa. Euskal nazioaren aldetik erresistentzia saiakerak agertu badira ere, mendeko egoeran egoteak eragin du euskal nazioaren baitan pitzadura kultural/politikoak agertzea. Horrela, nazioa ulertzeko ikuspegi desberdinak agertu dira naziotasuna ulertzeko modu klasikoaz gain.

❖ **a) Euskalduntasunaren izaera: kulturala eta politikoa**

Ariketa konplexu bezain arriskutsua da euskalduntasuna esaldi bakar batean definitzea. Ataka horri irtenbidea aurkitzeko pentsatu da euskal autore klasiko baten adibide historiko batetik abiatzea: “Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden / Bana haien lengoajiaz [euskaraz] bertze oro burlatzen”. Ikusten den moduan, Bernat Etxeparek euskalduntasuna hizkuntzaren gainean ardazteaz gain, zeharka ulertarazten du hizkuntzaren izaera xumeagatik euskaldunak besteen mespretxuak jasotzen dituela. Aipu hori agertzen da euskaraz argitaratutako lehen liburuan, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) izenekoan. Ia bost mende geroago, iseka eta burla oroz gain, hizkuntzak naziotasunaren ardatza izaten jarraitzen du elkarrizketatuen aipamenetan:

(65) Nik uste dut baietz. Nik uste dut euskaldunari izaera ematen dion elementu eraginkorrena hizkuntza dela zalantzari gabe. (29_Elkarrizketa; D8).

(66) Nik uste dut Euskal Herriak daukan loturarik handienetakoa dela euskara. (33_Elkarrizketa; E4).

Edonola ere, naziotasuna definitzerakoan hizkuntzarena ez da izan aipatu den aldagai bakarra. Beste aldagai batzuk ere agertu dira hizkuntzarekin batera, hala nola: historia, ahaidetasuna, lurraldea edota kultura bere osotasunean. Honatx, elkarrizketatu batzuek zergatik sentitzen diren euskaldun arrazoitzerakoan esandakoak:

(67) Euskara hitz egiten dudalako. Iruditzen zaidalako komunitate bat dagoela euskalduna dena. Eta kulturagatik, ez? Kulturagatik eta historiagatik. (26_Elkarrizketa; E4).

(68) Nik uste badela ezaugarri kultural bat. Ez da bakarrik lurraldea. Baizik eta, pues hori, kultura hori baino askoz gehiago da. Orduan, ba bai. Pues zure literatura, zure komunikabideak... kultura batek dauzkan alde guztiak ez? (1_Elkarrizketa; A2).

(69) Ba familia eta lekua euskalduna delako eta horrek egin nau. Hemen ezin nuen ez euskalduna izan! Ezin da. Zure familia euskalduna da eta zu euskaldun sentimenduan bizi zara, bai aitarengandik eta bai amarengandik. (19_Elkarrizketa; A2).

Ikusten den moduan, euskaltasunak oinarri kulturala du elkarrizketatuen arabera. Alabaina, euskalduntasuna ez da soilik kulturara mugatzen. Elkarrizketatuek aipatzen dute euskaldun izateak alderdi kulturaletik bezainbat politikotik duela. Alegia, euskaldun izatea ez dela zerbait edukitzea soilik, euskalduntasuna zedarritzerakoan diote nahiaren edota borondatearen aldagaia ere kontuan hartu behar dela:

- (70) Ni euskalduna naiz, baina ez naiz euskalduna Euskal Herrian jaio naizelako bakarrik, sino, euskal kulturarekin harremana dudalako eta euskaraz bizi nahi dudalako. Ez bakarrik eremu geografiko batean jaio naizelako. Ez naiz espainiarra sentitzen, eta badakit, gaur egun hemen jaio naizela eta legez Espainia dela. Baina ez sentitzen naizelako. Nik uste askotan dela sentimendua, baina batez ere herri horrengatik egiten duzunarengatik. Que más da Bilbon jaio ez baduzu gero ezer egiten. (33_Elkarrizketa; E4).
- (71) Nire ustez gakoa da euskara. Eta nik beti esaten dut ni euskalduna naiz, batez ere, euskaraz bizi naizelako edo behintzat euskaraz bizitzea erabaki dudalako. Ez dut uste beharrezkoa izango denik dena menderatzea eta kontrolatzea. Baina bai ahalegina, eta tristea da ahalegina hitza esatea, baina bai ahalegin hori egitea euskaraz bizitzeko. Hori da gakoa. (28_Elkarrizketa; H8).

Aipu horietan argi ikusten da zenbait elkarrizketaturentzat euskalduntasuna ez da kulturala (hizkuntza) soilik, politikoa ere bada (nahi izatea, sentitzea, ekitea...). Azken elkarrizketatuek biak batera ulertzen dituzte. Beste batzuek, honako ñabardura egiten dute: euskaldun izan zaitezke bi hanka horietako bat falta arren.

- (72) Euskaldun da nire ustez euskal kulturaren jabe, euskal kulturaren ezaugarri nagusia hizkuntza den heinean. Orduan ba bueno euskara baldin badakizu euskaldun zara eta espainol sentitu zaitezke. Ez dut uste asko egongo direnik, eta gainera, nik badakit, euskaldunak diren zonetan euskaldun hitzak daukala inplikazio politikoa. Hemen baino gehiago nik uste. Hemen euskaldun esan dizudana, euskalduna da hizkuntza ezagutza duena. Euskalduna naiz euskara dakidalako, gero sentimendua ez dakit (...) Hemen esango nuke be bai euskaraz ez dakien jendeak esatea gerta daiteke soy euskaldun pentsatzen horrekin ari dela esaten soy vasco... lotzen duelako itzulpen moduan. Euskaldun berdin vasco... ¿cómo se dice vasco? Euskaldun. Hortaz yo soy euskaldun eta benetan nahi du esan yo soy vasco, me siento vasco. (30_Elkarrizketa; A6).
- (73) Euskaldun izan zaitezke euskara jakin gabe, beste asko euskaldun garen moduan euskara asko erabili gabe. Hizkuntzaren aldagaia dago identitatearen izaera horretan, baina beste gauza asko ere egiten dute norbait euskaldun sentitzea. Zuk nahi baduzu bazara! (20_Elkarrizketa; G4).

Honek guztiak galdera bat jartzen du mahai gainean: normalizatu egin behar al da euskalduntasun etnikoaren eta zibikoaren zatiketa, edota menderakuntzaren parametroetan irakurri behar dira nazioaren baitan gertatzen diren pitzadurak? Lan honetan ulertzen da nazioa natural erreproduzitzen den lekuan euskalduntasunaren oinarria kultura dela, eta beste nazioekin ukipen egoera gatazkatsuak izateak abertzaletasunaren iratzartzea eragiten duela. Kasu horrek erakusten du nazioaren ideia klasikoak izaera biak barne biltzen dituela. Aldiz, menderakuntza politikoa da pitzadura kultural eta politikoen erantzule.

- (74) [euskaldunak] Nik uste orokorrean izango zen euskaraz badakiena. Gero, nahiko abertzaleak orokorrean. (25_Elkarrizketa; E3).

Beraz, horrengatik uste da egokia dela jarraian bere burua matrize espazial/tenporal arrotzean kokatzera behartua aurkitu duen nazio baten perspektibatik aztertzea euskal nazioak bizi dituen pitzadura kulturalak eta politikoak.

❖ **b) Nazio zapalduaren ajea Aro Garaikidean: desfasea hiritartasunen eta naziotasunaren artean**

1789an gertatu zen Frantziako Iraultza “liberté, fraternité, egalite” lelopean. Espainiar estatuaren kasuan 1812an onartu zen aurreneko Konstituzioa. Azken honek,

indargabetze urteak eta azalberritzeak izango ditu ondorengo mende eta erdian. Hala, egun indarrean den 1978ko Espainiar Konstituzioak azpimarratzen du 1. artikuluan askatasuna eta berdintasuna balio nagusi dituelarik Espainiar estatuak aniztasun politikoa aldarrikatzen duela. Alde horretatik, estatuaren boterea aipatzen du nazioaren subiranotasunean oinarritzen dela. Horrez gain, 2. artikuluan agertzen da Konstituzioaren legitimazioa espainiar nazioaren batasun zatiezinetik datorkiola. Are gehiago, 3. artikulua azpimarratzen du Estatuaren hizkuntza ofizial bakarria gaztelania dela.

Formulazio honen arabera, espainiar hiritarrek osatzen dute nazio politikoa. Aldiz, euskalduna da nazio politikoaren baitan bereizten den *nazionalitatea*. Logika horretatik abiatuta gainerako hizkuntzak, adibidez, euskara, Espainiaren kultur ondare izango dira hizkuntza bakoitzari dagokion erregioan. Ikusten den bezala, legeak espainiar hiritartasuna inposatzeaz gain, gaztelaniaren ezagutza nahitaezkoa dela dio. Horrela justifikatzen da espainiar saretze bertikalaren txirikordatzea: Estatu, nazioa eta hizkuntza nazionala.

Ikusten den moduan, euskal saretze bertikalaren kontrako zentzuan formulatzen da Espainiako Konstituzioan hiru dimentsioen gainezartzea, alegia, Estatutik hasita eta ez hitzun elkartetik. Honek guztiak, zalantza eragiten du elkarrizketatuen artean dimentsio normatiboaren inguruan:

- (75) Espainiarren arabera zer dago nazioaren barruan, nazio gehiago? Hori ez diat entenditzen. (...) Gu espainola garela eta horrela aritzen dituk. (...) Horrek ez dik zentzurik. Mobilen barruan mobilek al daude, edo gaztaren barruan gazta? Filosofikoki ezinezkoa duk. Beste kontu bat duk estatu baten barruan gaudela nazio bat baino gehiago eta nazio batek duela boterea. Logikoa den bezala gehiago direlako. Ez zagok beste misteriorik niretzat. (24_Elkarrizketa; E3).

Nazioaren ideia klasikoa gogoan izanik, elkarrizketatuei galdetu zaie espainiar identitatearen inguruan. Horrela, ikusi nahi izan da nola erantzuten dieten sarri euskaldunen inguruan planteatzen diren galderei, zeinuz aldatuta. Hala, elkarrizketatuei galdetu zaie ea posible den pertsona espainiarra izatea eta gaztelaniaz ez jakitea. Honatx erantzun horietako bat:

- (76) Euskadin? Inoiz ez dut pentsatu! Espainola izatea gaztelania gabe? Ez, gaur egun zaila izango zen. (32_Elkarrizketa; E6).

Zergatik da horren zaila espainiar kasuan, horren ohikoa bada euskaldunen artean? Espainiar Konstituzioak espainiar hiritarrak gaztelania ezagutzera behartzen dituelako (EK 3. artikulua). Hain da normala espainiarrak gaztelania jakitea non elkarrizketatuei galdera bera egitea arraroa egiten zaien. Desfase hori dagoenaren gaineko

kontzientziarik ez dute agertu zenbait elkarrizketatuk. Adibide honek argi erakusten du pitzadura kulturalik ez duela espainiar nazioak.

Bestetik, elkarrizketatuei galdetu zaie ea Espainiar hiritar gisa nortasun agirian jartzen duenarekin identifikatzen diren eta beren borondatearekin bat datorren. Elkarrizketatu batzuek azpimarratzen dute espainiar hiritartasuna beraiek inposizio gisa sentitzen dutela.

(77) Ez, espainola ez nauk sentitzen. [NAN] Inposizio bezala sentitzen diat. (11_Elkarrizketa; E4).

(78) Ba horri [DNIari] ez diot garrantzi handiegirik ematen. Nik nire eskura beste gauza batzuk ditut borrokatzeko. Baina inposaketa bat. (12_Elkarrizketa; E8).

Elkarrizketatuen erantzunek auzitan jartzen dute espainiar nazio politikoaren borondatezko atxikimenduaren mitoa. Edonola ere, hiritartasunaren inposizioak ahalbidetzen dio nazioaren pitzadura politikoa ekiditea.

Espainiar estatu-nazioak bermatzen du espainiar nazio kulturalaren batasun politikoa erreproduzitzea. Are gehiago, hiritartasunaren izenean eragiten du beste nazioetako kideen asimilazioa. Azken hori bi modutara egiten du: gaztelania ezagutza unibertsala bihurtuz (kultura) eta espainiar hiritartasuna inposatuz (politika).

Garbi ikusi da horrek guztiak elkarrizketatuen artean berebiziko eragina duela. Asimilazio kulturalaren eta politikoaren sintomak eragiten ditu elkarrizketatuen artean. Adibidez, bere burua euskal abertzaletzat duen elkarrizketatu honek espainiar ardatzaren errepresentazioak bere egin ditu oharkabean.

(79) Gu iparrekoak gara geografikoki. [-*Eta Frantzia hegoaldeko euskaldunak?*] Ah klaro, hola pentsatuta bai, nik pentsatzen nuen Estatu mailan. Klaro hola pentsatuta gu hegoaldekoak gara. (4_Elkarrizketa; E6).

Nazioaren ideia politikoak Estatua jartzen du guztiaren erdian. Honela, subjektu politiko izateari utzi eta Espainiaren objektu izatera igarotzen da estatu gabeko nazioa. Horren ondorio da euskaldunak bere burua Madrilen koordinatuetan kokatzera igarotzea. Ez hori bakarrik, subjektu izateari uztean euskaldunak bi historia desberdinetan banatzen dira Frantzian eta Espainian.

(80) Iparralde zaukeagu Estatu Frantziarraren menpe. Ahaztuta zauzkeagu hango kontuak. Igual telebista pizten diagu eta Valladolideko albistea entzuten diagu baina zaila dek Behe Nafarroako edo Zuberoako albistea entzutea. Heuk bilatu behar dituk. Zubi horiek eraiki behar dituk eta heuk bilatu. Propio. Orain Nafarroako eguna Baigorriin zagok. Heuk bilatu behar dek noiz den eta nola joan. Bazekiat zer eta ez zekiat zer. Zaila duk eta zubiak nahi dizkiagu mantendu baino konpromiso horrek ere esfortzua eskatzen dik. Baino hor intentatzen duk horiek mantentzea. Baino errazago ikusten diagu bestela. Jada zubiak eginda zeuzkaagu Nafarroak adibidez Errioxarekin, edo ez zekiat zenekin. Hori errazagoa duk. Zailagoa duk Iparraldearekin egitea. (11_Elkarrizketa; E4).

Ikusten den moduan, iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunen bereizketa kultural eta politikoa bultzatzen du nazio politiko espainiarraren ideiak. Hori modu askotara erreproduzitzen da: errepideak, osasun sistema, telebista, zerga ordainketa... Are gehiago, erregioen banaketak ere euskal nazioaren bereizketa bultzatzen du Hegoaldeko euskaldunen artean, hots, NFEko eta EAEko autonomiak banatzeak.

- (81) Nik ikusten diatena dek UPNko Navarrismo honek, (...) ez zekiat... bere identitatea eta nirea oso desberdinak direla. Beraiek hain espainol sentitzea eta ni hain euskaldun sentitzea, eta hain Euskal Herriko sentitzea, ba bueno hori. Beste aldetik ikusten diat, EAEn bizi nintzenean beti Nafarroa eta Nafarroa esaten genian, baino orain Nafarroara etorri eta ikusten diat askotan EAE bere bidetik doala, eta gu, hemen gaudela pixka bat baztarrean. Aberri eguna hemen egingo duk baina bukaera EAE ari duk bere politika egiten eta gu hemen gaudek. Batzuetan ikusten diat, ez zekiat utzita bezala. Ez zekiat nola esplikatu baino hori. Eta Iparraldearen inguruan ez diat ezer esango. Pentsatzen diat nola sentituko diren. Igual han bizi nintzenean ez nian holakorik pentsatzen baina hona etorri naizenean bizitzera bai ikusten diatela hori. (11_Elkarrizketa; E4).

Asimilazio prozesua aurreratua dagoen arren, zenbait elkarrizketatuk jabetzen dira mendeko egoeran daudela euskaldunak. Horren aurrean ahaleginak egiten dituzte batasun nazional horri eusteko. Nagusiki, euskal abertzale gisa identifikatzen dira ahalegin hori egin dutenak.

- (82) Ni abertzalea naiz.(...) Eta noski euskalduna eta Nafarroakoa naiz. Nafarra naiz eta nik Nafarroa, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta baita ere Iparraldeko lurraldeekin batera, geografikoki eta politikoki, ez dakit, instituzio berdinean ikusten ditut. Hau da Euskadi, eta kulturalki hitz egiten badugu, Euskal Herrian. (5_Elkarrizketa; E6).

Laburbilduz, ondorio politiko eta kulturalak ditu estatu-nazioen aroan estatu gabeko nazioa izateak. Ikusi da Espainiar Konstituzioak bermatzen duen bakarra espainiar nazioaren batasun kultural/politiko dela. Are gehiago, euskal nazioaren baitan pitzadurak eragiten dituela. Ondorengo bi ataletan pitzadura horietan arakutzen da.

❖ **c) Kultura erauzi/ukatutako euskaldunak**

Espainiar saretze bertikalaren kasuak erakusten du baldintza normaletan espainiar naziotasuna bere egiten duten kideek hizkuntza nazionala ezagutzen dutela. Are gehiago, estatu egiturak ikusi da hori horrela izateaz arduratzen direla. Bien bitartean, ordea, euskal nazioa pitzatuta dago: batetik, politikoki zatituta dagoelako –iparraldea/hegoaldea–; bestetik, kulturalki erdaldunduta dagoelako –Hego Euskal Herriaren kasuan gaztelaniaren nagusitasunagatik–. Bigarren aldagai honetan jartzen da arreta jarraian.

- (83) Abertzale gehienak erdaldunak dituk nire ustez. Abertzale gehienak Bilbo inguruan bizi dituk eta ez dituk euskaldunak asko eta asko. Gehienak han bizi dituk. (17_Elkarrizketa; C3).

Bi irakurketa egin dira egoera honen aurrean: bata, itxaropentsua; eta bestea, ezkorra. Aurreneko irakurketari dagokionez, elkarrizketatu batzuek azpimarratu dute euskal

abertzaletasunak bermea eskaintzen duela denborarekin jendeak aurrez ukatu/erauzi izan zaion euskara berreskuratzeke. Alde horretatik, norberak bere burua euskalduntzea lortzen ez duen kasuetan, gutxienez, elkarrizketatuek adierazi dute euskal abertzaleek ondorengo belaunaldiei transmititzeko jarrera dutela.

- (84) Euskalduna izan zaitezke eta hitz egingo duzu euskara perfektu, baina ez baduzu sentimendu hori [abertzalea], ez baduzu ez diozu euskarari garrantzirik ematen eta ez duzu ezer egiten [-*Horrek bere seme-alabei ze hizkuntza transmitituko die?*]. gaztelania fijo! (19_Elkarrizketa; A2).
- (85) Nik daukat lehengusu bat 50 urte baino gehiago dituena eta da euskalduna topera. Bere amorru handiena da euskaraz ez jakitea. (...) Hori da betidanik duen arantza. Eta gero aukerak egongo dira. Herri guztietan dugu euskaltegia. Baina lana dela eta, seme-alabak eta, egunerokotasun hori... gogorra egiten zaie euskaltegira joatea. (...) Baina umeak bai. Bere seme-alabak euskaldunak dira. (9_Elkarrizketa; A6).

Euskara ikasterik lortzen ez duten kasuetan, elkarrizketatuek aipatu dute euskararen berreskurapena bide malkartsu eta nekeza dela. Horregatik, beren aburuz ezin zaio esan euskal sentimendu abertzalea duen bati ez dela euskalduna. Alderantziz, euskaldun horien pitzadura kulturala proposatzen dute nazioaren mendeko egoeraren testuinguruan ulertzea.

- (86) Nik uste baietz. Gehienbat erran bezala aurreko belaunaldi hori, euskara galdu zuenak baino borroka egin duenak berdin-berdin. Azkenean anitzek igual ez dute solasten euskaraz, baina ez dizute oztopatzen zuri euskara solastea ezta ere. Adibidez, nik gogoan dut nire amaren kasua. Berak ez du euskaraz solasten, baina inoiz ez dit oztopatu euskaraz solastea. Alderantziz, nik berari euskaraz egiten diot eta berak gaztelaniaz erantzun. Eta, nahi dut erran, niri komunikatzea ahalbidetzen dit pertsona horrek. Eta, aldrebes, berak eman didan balioa izandu da euskara ikastea eta babestea. Orduan nik pertsona hori bai euskalduntzat hartuko nuela. (25_Elkarrizketa; E3).
- (87) Niri ukatu didate euskara txikitari. O sea, borrokatu izan behar dut euskara lortzeko, eta horrek, eragina izan du nire abertzaletasun sentimenduan. (...) Igual pertsona batzuk saiatu dira ikasten baina ez dute lortu, eta ulertzen dute eta pues igual horiek agian bai euskaldunak dira. (12_Elkarrizketa; E8).

Orain arte ikusi da euskal abertzaletasunak euskararen berreskurapena ahalbidetzen duela, lehenengoan ez bada, bigarren belaunaldian. Horrek guztiak erakusten du hizkuntza gaitasuna elementu zentrala dela euskalduntasuna definitzerakoan. Alegia, euskalduna izan eta euskara ez jakitea ulertzen da osatu gabeko proiektu bezala.

Ildo horretatik, elkarrizketatu batzuek ezkortasun puntu bat aipatu dute euskararen erabilerarekin. Izan ere, zenbaitek aitortu dute euskal abertzale izan eta gaztelania hitz egiteko joera dutela.

- (88) Nik uste dut sentimendu asko eta gero ekintza gutxi. Nik horrela definituko nuke zona honetako euskaldun baten profila. Denok maite dugu euskara baina gutxi erabiltzen dugu. (30_Elkarrizketa; A6).
- (89) Neure nahi dot euskara izatea baina nik, adibidez, beti pentsatzen dot erdaraz. (...) Nire kuadrillan eta Bizkaian asko ikusten den gauza da, jendeak nahi du euskaraz bizi. Nire kuadrillan abertzaleak direlako gehienak, baina erdaraz egiten dugu. Komunitatean abertzaleak gara, euskaltzaleak gara baina erdaraz egiten dugu. (...) Nik uste dut komoditateagatik dela. (32_Elkarrizketa; E6).

Laburbilduz, bi mezu desberdin jaso dira elkarrizketatuen aldetik. Alde batetik, euskal abertzaletasunaren eskutik euskararen berreskurapena gauzatuko den esperantza. Eta

bestetik, kezka, euskararen erabileraren inguruan. Euskal abertzale izateak ez baitu neurri berean bermatzen bere erabileran sakontzea.

❖ **d) Politikoa ez den euskalduntasuna**

Aurreko atalean ikusi da pitzadurak daudela euskalduntasunaren eta hizkuntza erabileraren artean. Hala ere, elkarrizketatuek aipatu dute horregatik ez diotela uzten euskaldun izateari. Alde horretatik, zentzuzkoa da pentsatzea euskaldun batzuk gaztelaniaz bizi diren bezala, neurri apalago batean bada ere, espainiar sentimenduari uko egiten ez dioten batzuek euskaraz bizitzeko joera izango dutela.

Aipatutako soslaiari dagokionez, Odriozolak (2017) azpimarratzen du Euskal Herrian arrazoi historikoak medio, badirela euskal etniako diren herritarrak kontzientzia nazionala garatzera iritsi ez direnak. Azken horiek, euskara etxekotzat, espazio pribaturako, familiarako ikusten dute, baina gainerakoan espainiar proiektu politikoa ez dute zalantzan jartzen. Kontua ez da kontzientzia euskaldunik ez dutela; izatez, euskaldun petoak dira. Alabaina, espainiar nazionalismoak ezarritako dikotomia etniko/zibikoan kokatzen dute euren euskalduntasuna.

(90) Ni lehenbiziko naiz Doñamarikua. Hori da. Doñamarikua eta baserrikoa. Hori a mucha honra! Eta gero jada nahi dutena izango naiz, baina ni Doñamarikoa eta baserritarra! (...) Gero gehiena Nafarroakoa. (13_Elkarrizketa; A1).

Elkarrizketatu honek azpimarratzen du politikoki ez duela eragozpenik espainiar nazioaren baitan bere burua kokatzeko, betiere, bere partikularitasun etnikoa errespetatzen badiote. Euskal saretze bertikalak zentzua izan dezan, mahai gainean jarri beharreko galdera da zein den Espainiar estatuak euskalduntasun etnikoari egiten dion eskaintzaren izaera: bizikidetzarako gonbidapen zintzoa edota bigarren mailako gizatalde gisa erabat itzali arte kaiola batean bizitzea.

7.1.2.2 Euskal hiztun elkartearen eta estatuaren arteko harremana

Nazio zapalduaren ereduaren arabera nazionalismoa ez da bihur-murritzten Frantziako Iraultza osteko arora. Aldiz, begirada modernoaren ezaugarri nagusia da euskal nazionalismoa estatu-nazioaren aurkako erreakzio periferiko gisa ulertzen duela (Conversi, 1997; Núñez Seixas, 1999; Granja, 1995). Begirada honek akademian duen nagusitasunak eragin du euskal abertzaletasunarekin harreman estua izan duten hainbat ikertzailek, ñabardurekin bada ere, bere egitea akademian epistemologia modernotik zedarritutako irizpideak (Letamendia, 1997; Mess, 1994). Gaur egun, begirada modernoa hegemonikoa da euskal nazionalismoaren inguruko ikasketetan, bai euskal abertzaleen

artean, baita ikertzaile erdaldunen artean ere. Alabaina, begirada hegemonikoa izateak ez du esan nahi begirada bakarra denik.

Euskal ikerketetan bada bigarren talde bat hurbilpen modernoa auzitan jartzen duena. Azken horiek, nazionalismoaren auziari politikatik erreparatu beharrean, kulturatik erreparatzen diote (Azurmendi, 2000; P. Iztueta, 1996). Horrela, euskal kasua Europa Mendebaldeko periodizazio hegemonikoaren kategorietara bihur-murriztu beharrean (estatu-nazioen matrizerara egokitzen dena), autore horiek ahalegina egiten dute euskal nazionalismoaren historiografia propioa idazteko euskaratik eta euskaraz.

82. taula: Hurbilpen desberdinen atzean dagoen eskema orokorra. Euskal nazionalismoaren faseak.

	HURBILPEN KULTURALA (Kulturatik politika interpretatzen)	HURBILPEN POLITIKOA (Politikatik kultura interpretatzen)
Aro Modernoa	Euskaldunak eta ez-modernitate	Euskaldunak eta ez-modernitate
	1.- XVI-XVII mendea: lehen errenazimentua Ipar Euskal Herrian 2.- XVIII mendea: bigarren errenazimentua Hego Euskal Herrian	00.- Protonazionalismoa
Aro Garaikidea	Estatu gabeko nazioa eta bere buruaren autoerakundetze politikoa	Espainiar nazio politikoaren aurkako erreakzioa
	3.- 1876-1936: Euskal pizkundea 4.- 1956-2011: Euskal susperraldia 5.- 2011-...: Errenazimentu garaikidea?	0.- Erreakzio aurre-modernoa: Karlismoa (1840-1876) 1.- Erreakzioa: Nazionalismo Sabindarra (1893-1936) 2.- Erreakzioa: Nazionalismo Iraultzailea (1960-2011) 3.- Erreakzioa: Independentismo ez nazionalista? (2011-...)

Iturria: Egilea.

Elkar elikatu eta osatu izan dira azken hamarkadetan hurbilpen kulturala eta politikoa. Edonola ere, XX. mendearen hondarretik aurrera hazten joan zen hurbilpen kulturala hobesten dutenen aldetik hizkuntzaren eta nazioaren arteko harremanaren inguruko kezka (J. M. Odriozola, 2008; Sarasua, 2013). Honako galdera zebilen denen artean: zein da euskararen garrantzia diskurtso abertzalean? (O. Odriozola eta Zabalo, 2014). Euskal letretan, 2015ean iritsi zen auzi horren inguruko eztabaida bere puntu gorenera.¹⁵⁴ Urte horretan, euskal pentsalarien artean euskal nazionalismoaren inguruko proposamen eraberrituak agertu ziren “euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren dibortzio kanpaiak” iradokiz (Agirre, 2015). Proposamen horiek, bereziki ezkerreko abertzaletasunaren sektore konkretu batean zuten jatorria. Hala, azken horiek

¹⁵⁴ Urte horretan gai honen inguruan bi argitalpen garrantzitsu izan ziren: 1) 2015ean *Jakin* aldizkariak argitaratu zuen 208 alea; 2) *Txalaparta* argitaletxeak urte berean argitaratu zuen *Independentzia helburu* (2015) liburua. Deigarria da bi lan horien izenburuetan dagoen desberdintasuna. *Jakin* aldizkariak, adibidez, honako izenburua jarri zion eztabaida hori biltzen duen monografikoari: *Herria, nazioa eta estatua... eta euskararekin zer?* Txalapartak argitaratutako liburua, berriz, *Independentzia helburu* du izenburua. EAJren inguruan kokatzen den *Hermes* aldizkarian ere, 2020an argitaratu zen 66. alean, euskaltasunaren inguruan egiten da gogoeta, EAJren iragana, oraina eta etorkizuna hizpide hartuta. Bertan agertzen diren zenbait elementuk antzekotasunak dituzte aurrez aipatutako bi bilduma horietan lantzen diren eztabaidekin.

azpimarratzen zuten Euskal Estatuaren izenean hurbilpen kulturalaren aldarrikapen nagusiarekin moztea. Hau da, naziotasuna zedarrizterakoan hizkuntzari zentraltasuna aitortzen dion jarrera gainditzea.

Nazionalismoaren berritze hori gauzatzeko bi arrazoi proposatzen zituzten hurbilpen politikotik: bat, hizkuntzan funtsatutako abertzaletasunak hegemonia politikoa ahalbidetzeko duen gaitasun falta; eta bi, euskal nazionalismoak klase subalterno erdal hitzuna euskal proiektu abertzalean integartzeko zuen zailtasuna. Hurbilpen politikoaren arabera, bi gabezia horien soluzioa Euskal Estatuak eskaintzen zuen (Apaolaza, 2015; Goikoetxea, 2015). Batekoz beste, azken urteotan indarra hartu du euskal naziotasuna ikuspegi politikotik formulatzen duen korranteak. Horren aurrean, hurbilpen kulturalak azpimarratu du hizkuntza naziotasunaren erdigunetik kentzea baino gehiago, benetako erronka dela, euskara eramatea euskal nazioarekin identifikatzen diren erdal hiztunen –euskotarren edota Euskal Herri Langilearen– bizitzen erdigunera.

Nazio zapalduaren ereduaren begiradatik proposatzen da elkarrizketatuak euskal naziotasuna zedarrizterakoan hizkuntzari ematen dioten garrantzia (eza), menderakuntza eta asimilazioaren parametroetan interpretatzea.¹⁵⁵ Horregatik interesgarria deritzot honako bi puntuak azaltzea.

❖ **a) Nazio naturala, edozein politikaren aurretiko egoera**

Atal teorikoan ikusi den moduan, nazioaren inguruko ideia klasikoak azpimarratzen du nazioa hizkuntzan errekonozitzen dela. Alabaina, zer gertatzen da nazio bat beste batekin ukipen egoera gatazkatsuan dagoenean eta nazio zapalduaren baitan pitzadurak sortzen hasten direnean? Tirabirak hasten direla identitate nazionalaren inguruan.

(91) Ez da euskaragatik bakarrik. Abertzaletasuna ez da euskara bakarrik. Da bizitzeko modu bat edo bertze ideia bat duguna. Gurea badakiguna zer den. Ttikitatik ikasi duzuna. Eta ikusi duzuna baita ere beste aldea. Nahi duzu nolabait ere berezi bigarren horretatik. Ez dakit bizitzeko modua bera oso txarra zelako, orduan nahi duzu, mentalki deus ere egin gabe, naturalki beste zerbait egin. Eskapatu handik. Orduan zure helburua da nolabait ere separatzea handik. Ez dakit erran

¹⁵⁵ Ez da ariketa berria jarraian proposatzen dena. Aitzitik, horretan datza lan honek bere egiten duen 56ko belaunaldiaren ekarpen nagusia. Labur azaltzeko, XX. mende erdialdeko euskal nazionalismoaren gaineko irakurketa egiteko, garrantzitsua da aurrez 1956an ospatu ziren Paris eta Arantzazuko bilerak kontuan izatea (P. Iztueta, 1985, 392-393. or.). Pariseko bilerak euskal nazioaren egoerari politikatik kezka begiratzen zion. EAJren eta ETAREN zatiketa etorriko da handik urte gutxira. Etxe barruko bilkurak, hau da, Arantzazukoak, kulturatik erreparatzen zion jatorri politikoa zuen euskararen arazoari. Adibidez, testuinguru honetan kokatzen da *Jakin* aldizkariaren sorrera. Nábarduraz eta xehetasunez osatu beharreko bereizketa honekin adierazi nahi dena da euskal nazionalismoaren baitan Landabururen eta Krutwigen (edo ETAREN V. Batzarra) proposamenak zertan bereizten diren aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa dela, aurrez, ikustea, zertan zetozen bat Martin Ugalde eta Txillardegik (Torrealdai, 1999). Hori da hurbilpen kulturalak azpimarratzen duena: *kultura, politikaren aurretik*. Edo beste modu batera esanda, zerk bereizten gaituen aztertzeke batzen gaituen horretatik abiatzea irakurketa.

Espainiatik separatu edo ideia hartatik separatu. Ez da igual gauza bera baino bueno. Oso naturala da tiratzea beti handik eskapatzera. Eta orduan handik eskapo bilatzen duzu helburu bat zu zure buruaren jabe izatea. (7_Elkarrizketa; A1).

Elkarrizketatuak esandakoak lerroartean irakurriz gero, argi eta garbi ikusten da honakoa dela bere abertzaletasunaren sorreran dagoena: natural jaso duen munduaren, eta kanpotik ezarri nahi diotenaren arteko talka. Alde horretatik, mundu hori zedarritzerakoan esaten du ez dela hizkuntza soilik, azken horrek inguratzen duen unibertso guztia baizik. Beraz, burujabetza dioenean unibertso horren askatasunaren inguruan dihardu. Alabaina, horretarako ezinbestekoa du bortxaz ezartzen dioten erdal mundu horretatik ihes egitea, gaitetik kentzea. Gauzak horrela, nazioa izatez ez da politikoa, aitzitik, errealitateak egiten du nazio auzia politikoa izatea. Modernitatean estatu arrotza da nazio zapalduen errealitate hori inbaditu duena (Azurmendi, 2017, 51-52. or.).

Horregatik, hainbat elkarrizketatuk independentziaren alde daudela aipatzen dutenean azpimarratzen dute arrazoi nagusia zera dela: euskal errealitatea erreproduzitzeko bitarteko baten beharra. Estatu arrotzen menpean ikusten dute ahultzen ari dela euskal nazioa.

- (92) Gure estatua behar dugu. Nik pentsatzen dut euskara eta Euskal Herrian terreno handia daukagu egiteko. Jendeak ikastea nahi badu ere, yasta, borondate onena. Baina zentroa Madrilan (...) jartzen bada, debildu egiten gara. Eta ez zaigu komeni debiltzerik. Euskalduna egin behar da indartu. Eta gu gauden zazpi probintzia hauetan hemen egin behar gera indartu. (18_Elkarrizketa; A3).

Alabaina, gauza bat da independentziaren aldekoa izatea eta bestea da independentziaren nolakotasuna. Alde horretatik, bi ñabardura interesgarri egiten dituzte ondorengo elkarrizketatuek: 1) Independentzia eta auzi soziala bereizten dituzte; 2) zalantzan jartzen dute estatu-nazioaren antolaketa atzean dagoen ikuspegi modernoa.

- (93) Ni independentista nauk gure nazioa garatzeko modu hobea izango litzatekeen ustetan, ez baldin bada hala ez zekiat. Hombre, nahi gabe ere hobea izango huake, baino ez zekiat baskoak agintzera pasako ote liratekeen. Jarri 7 probintziak independente eta osatzen dugula estatua. Eta gure problema ez dek askatzen. Hiru nazio izaten jarraituko geniake. Gertatuko litzatekeena dek kontrario txikiagoa izango zela, baina, berdin-berdin gu baino handiagoa. Ezkertiar izatea berriz motiboa dek independentista izateko baina bereizi egiten diat. (24_Elkarrizketa; E3).
- (94) Nik beti esaten dut, independentzia errentagarria ez bada baina bihar erabakitzeko aukera izango banukeen, horren alde bozkatuko nuke. (32_Elkarrizketa; E6).
- (95) Niretzako inportanteagoa da Euskadi ez independente bat eta euskalduna, eta euskaraz mintzatzen dena. Euskadi independente bat, beste edozein erdaratan baino. Izan aleman, frantses edo espainola. Izan ere, gure lurra da eta gure arbasoena. Gure arbasoak burrukatu eban lurra da baina niretzat danok batzen gaituna eta muina euskara da. (23_Elkarrizketa; E1).

Lehen puntuari dagokionez, independentzia zaletasunaren oinarrian aipatzen dute abertzaletasuna dagoela. Horrela, independentziaren alde daude euskal nazioaren iraupenerako mesedegarria den neurrian. Dimentsio soziala ulertzen dute bigarren fase

batean datorren eztabaida gisa. Are gehiago, elkarrizketatu batek aipatu du ikuspuntu sozial batetik errentagarria ez balitzateke ere, independentziaren alde egongo litzatekela.

Bigarren puntuaren kasuan, erlatibizatu egiten dute begirada modernoaren logikatik artikulatzen den Euskal estatu-nazioaren sorrerak ekar lezakeen onura. Izan ere, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan independentzia lortu arren, elkarrizketatuen artean aipatu da lurralde horretan eratuko litzatekeen Euskal estatu-nazio hipotetikoan, espainiar eta frantziar nazioak izango liratekeela hegemonikoak. Ondorioz, independentziak, zentzu modernoan ulertuta, elkarrizketatuaren arabera, ez du *de facto* nazioaren inguruko korapiloa askatzen. Edonola ere, lehen fase batean aitortzen dute Estatu egitura berriak egungo botere harreman asimetrikoak berregokituko lituzkela.

Begirada kulturalaren oinarritzko ideia da abertzaletasuna dela independentzia nahiaren motorra. Horrek babes hesia eskaintzen dio hizkuntza gutxituari. Ikuspegi politiko batetik, ordea, hori arazo bihurtzen da. Izan ere, euskara ez da hegemonikoa euskal abertzaleen artean ere. Hala, gizartearen gehiengoa euskal hiztuna izatera igarotzen ez den bitartean, zaila da independentzia nahia gehiengoa izatea gizartean. Kontuan izanik, sistema politiko guztia euskararen diglosia eta asimilazioan sakontzeko antolatuta dagoela, elkarrizketatuek aipatu dute egun ez daudela baldintzak prozesu independentista abian jartzeko.

(96) [-*zein da EAJko boto emaileen artean independentziaren inguruko jarrera...*] Alde gaude! [-*Ez lituzke botoak galduko Kataluniako bidea jarraituz gero?*] Bai. Gauza bat da esatea eta bestea [egitea] (...) Ea nola doan hori eta ikusiko da. Hala ere, EAJ beste gauza batzuetan dago. (22_Elkarrizketa; C6).

Laburbilduz, atal honetan ikusi da hurbilpen kulturalari jarraituz, nazio naturalak harreman zuzena duela hizkuntzarekin eta horren inguruan sortzen den unibertsoarekin. Alabaina, elkarrizketatuek adierazi dute estatu gabeko nazioa izateak nazioarentzat ondorio lazarriak dituela. Mendeko testuinguru horretan, politikoa bihurtzen da kulturaren auzia. Horregatik, estatu egitura propioen alde agertu dira elkarrizketatuak, bereziki euskal mundua erreproduzitzen jarraitzea bermatzen duen funtsezko erakundea izan daitekeelako. Hemen sortzen da bigarren zalantza: Euskal estatu-nazioa lortu ezker amaitu da arazo nazionala? Elkarrizketatuek aipatu dute etorkizuneko Euskal estatu-nazio hipotetiko horretan ere, arriskua legokela euskaldunak mendeko izaten jarraitzeko. Politikari dagokionez, hurbilpen kulturalaren ildotik ikusten da hizkuntza gizartean hegemoniko ez den artean zaila izango dela prozesu independentista abian jartzea irizpide modernoak nagusi diren gizarte sisteman.

❖ **b) Euskal identitatea eta unibertsaltasun abstraktua: balizko albo-ondorio epistemikoak.**

Elkarrizketatu guztiak, ordea, ez datoz bat kultura politikaren aurretikoa denaren ustearekin. Aitzitik, beste batzuek kultura ulertzen dute politikari subordinatuta. Horregatik, aurreko azpikapituluan ikusi den arrazoiketak ez du bete-betean bat egiten hurbilpen politikoa hobesten duten elkarrizketatuek esandakoarekin. Azken hauek ere, neurri handi batean euskaltzaleak dira. Horietako zenbaitzuk, gainera, oso euskaltzaleak eta independentziaren aldekoak. Alabaina, hizkuntza eta estatuaren arteko harremana zedarritzerakoan hari eroale gisa kultura hartu beharrean, garrantzia hartzen duen dimentsioa da politikoa.

(97) Abertzaletasuna da brikolajea. Edozein gauzak balio du abertzaletasunarentzat. Izan la Real, Athletic o bertsolaritza. Gauza oso normala da hori. Hori da alde batetik, eta bestetik, alderdi politikoak nola hasi diren jolasten politikan. (...) nik uste aldaketa egon dela, batez ere, azken 30 urte hauetan. Hasieran bazegoen kontzientzia nahiko garbia eraiki egin behar dugu euskal nazioa berri bat, Estatu berri bat. Orduan, Nafarroa eta Iparraldea... Hori oso kontzeptualizatuta zegoen. Han bazeuden intelektual batzuk horrelako zerak egiten. Zer gertatu da ordea? (...) Politikaren jolasean sartzen bazara horrelako ideiak galtzen dira. (14_Elkarrizketa; D6).

Begirada politiko honetatik, erdigunean jartzen den ideia da nazioak elite batek diseinatu eta moldatzen dituela. Horregatik, berebiziko garrantzia hartzen dute pentsalariak. Alde horretatik, nazioaren definizio klasikoa zalantzan jarri ahala, hegemoniaren aldagaia sartzen da jokoan.

Garaian garaiko testuinguruaren arabera, modu desberdinetara irudikatu du euskal intelligentsiak euskal nazioa. Pentsalari bakoitzak eskura zituen baliabideekin oratu izan du nazio definizioa. Horregatik da garrantzitsua horrelako kasuetan pentsalarien bizitza eta testuingurua kontuan hartzea. XIX. mende amaieran, adibidez, Sabino Aranak egin zuen *euskotarraren* nazio definizioa ulertzeko ezinbestekoa da garaiko Bilbo kontuan hartzea (Larronde, 1977; Azurmendi, 1979). Beste horrenbeste gertatzen da 1960ko hamarkadan, ETArekin V. Batzarrak proposatu zuen *Euskal Langile Herria* nazio definizioarekin (Jauregi, 1981). Ikuspuntu politikotik, azken hori izan zen euskal abertzaletasunak XX. mende erdialdera izan zuen berrikuntza nagusia.

XXI. mendearen bigarren hamarkadan proposatu diren berrikuntza teorikoei dagokienez, honako bi dira hizkuntza eta estatugintzaren inguruan ekarpen garrantzitsuenetakoak: 1) euskarak ez du euskaldun egiten, subalternozateak baizik; 2) euskarak nazio hizkuntza izatek igaro behar du estatu hizkuntza izatera (Apaolaza, 2015; Goikoetxea, 2015). Horrela lortzen dena da Euskal Estatu bihurtzea auzi sozialak askatzeko bitartekoa, tartean, euskararen auzia. Alde horretatik, elkarrizketatuen artean ikusten da pentsalariak proposatutako berrikuntza teoriko horiek barneratuz doazela.

- (98) Izatekotan euskal abertzalea naiz, baina hausnarketak egin ditut eta ez dakit ze puntutaraino naizen abertzalea edo ze puntutaraino ezker independentista, eta bueno ez dakit Euskal Herriko beste tokietan berdina gertatzen den, baina abertzale etiketa batzuetan oso zurruna da, ez? Eta igual horregatik ezker independentista naiz (...) baina argi daukat zerbait ez badut atsegin mundu honetan dela espainiar nazionalismoa. (27_Elkarriketa; E4).

Ildo horretatik, independentziaren alde agertu dira hurbilpen politikoa hobetsi duten euskal abertzale gehienak. Alabaina, Euskal Estatuaren aldeko arrazoiak azaltzerakoan, hizkuntza arrazoi bat gehiago da independentziaren alde egoteko, baina ez bakarria. Hurbilpen kulturalen ez bezala, auzi soziala da enborreko aldagaia.

- (99) Hik ez daukak zertan interes linguistiko identitario bat izan independentzia nahi izateko. Eduki dezakeek ikuspegi egoista bat edo ekonomikoa, besterik gabe, hobeto joango zaizkelako independentziarekin. Bate inportarik izan gabe hizkuntza. Edo euskal selekzioa egotea piper bat inporta gabe. Abertzaletasuna ez duk baldintza independentista izateko. (17_Elkarriketa; C3).
- (100) Ez dakit. Independentista naiz euskalduna naizelako? Ez dakit. Galdera ona da, inoiz ez diot nire buruari hori galdetu. Ez dakit. Nik uste dut, a ver, zergatik independentista? Ba hausnarketa egin beharko nuke baina nik uste dut alde batetik argi dago diferenteak garena, Espainiako beste lurraldeekin konparatuta. Hemen askoz gizarte antolatuagoa dugula eta eranginkorragoa. Nik ikusten dut hemengo osasun sailera eta hemengo anbulatorioetara joan, eta joan gero Burgoseko hospital edo Salamankako zera batera, eta diferentziak daude antolaketan. (...) Hemen askoz kontrol gehiago eta askoz gehiago baloratu ditugu zerbitzu publiko oinarrikoak: hezkuntza eta osasungintza. Eta nik uste dut independentista... orain arte erakutsi dugu denon artean kontrola badagoela gizarte honetan, salbuespenak salbuespen, eta nahiko ondo gestionatzeko kapazak garena eta utzi gestionatzen gurea eta besteei ere lagunduko diogu gestionatzen. Baina ez gaitzaten gestionatu gureak beste toki batetik. (29_Elkarriketa; D8).

Elkarriketatu batzuek argi eta garbi adierazten dute Euskal Estatuaren alde daudela, baina ez edozein baldintzatan. Alegia, batzuek ez dute begi onez ikusten Euskal Estatu eskuindar baten ideia. Ideialena uste dute dela auzi soziala eta nazionala eskutik joatea.

- (101) [Euskal Estatu baina eskuindarra] Ni ez nago prest hori aldarrikatzeko. (...) kategoria horiekin ez dut nahi. [-Batera ikusten duzu borroka soziala eta hizkuntzarekin borroka?] Ideialena litzateke elkarrekin joatea, nahiz eta erreala izan ez doazela beti batera. (20_Elkarriketa; G4).

Hurbilpen kulturalak ez du ukatzen hurbilpen politikoa euskal subjektu politikoa zabaltzeko eta nazio auzia bestelako auzi sozialekin uztartzeko potentzialik ez duenik. Aitzitik, auzi soziala eta nazionala uztartzeak subjektu politikoa zabaltzeaz gain, bi proiektu askatzaile txirikordaten ditu. Alabaina, hurbilpen kulturalak begirada honi egiten dion kritika nagusia da euskara euskal identitatearen erdigunetik desplazatzean, euskal nazio klasikoa urtu egiten dela nazio politikoaren baitan. Horrela, nazioaren dibisio etniko eta zibikoa erreproduzitzen da. Horrek arrisku epistemiko batzuk ditu: unibertsaltasunaren izenean euskal alteritatea desegitea erdal subjektuan. Horregatik, hurbilpen kulturalak proposatzen duena da auzi sozialaren eta nazionalaren arteko harremana, begirada modernotik kanpo birformulaztea, alegia, ez-mundutik.

- (102) Subjektua zein den ere duda egiten diagu. Hor zagok aurreneko okerra. Euskaldunak gure historia idazteko euskaraz bizi izan den jende horren historia idatzi beharko geniake. (...) Galdeketa bat etorriko balitz independentzia bai edo ez eta, erdaldunek erabakiko lukete eta ez euskaldunek. Gaizki esanda egongo dek baino, nik uste erdaldunei ari garena galdetzen euskaldunek nola bizi nahi dugun edo existitu behar dugun edo zer. Autodeterminazioan euskaldunek erabaki beharko genuke

bakarrik. O sea, euskaldunek uste diat merezi dugula leku bat gure mundua transmititzeko. (24_Elkarrizketa; E3).

Laburbilduz, hurbilpen politikoaren ekarpen nagusia da euskal subjektua zabaltzen duela ahalik eta jende gehiena barnebilduko duen proposamen baten mesedetan. Alde horretatik, hurbilpen kulturalak azpimarratzen du gisa horretako planteamenduak egiterakoan arriskua dagoela erdal kategoriak barneratu eta euskal alteritate epistemikoa desegiteko. Hurbilpen horiek, modu batera edo bestera, baldintzatu egin dute euskal nazioaren erakundetze prozesua.

7.1.3 Sistema organizatiboa: Euskal erakundetzea

Hirugarren azpikapitulu honetan euskal erakundetze prozesua aztertu nahi da euskal saretze bertikalaren dimentsio organizatiboaren nondik norakoak ezagutzeko. Atal teorikoan zehaztu da euskaldunak pentsamendu abismala bezala definitu den mugaren beste aldean kokatzen direla, hau da, ez-munduan. Hala, Hegoko Epistemologietatik abiatuta euskal kasura ekarri nahi da Douliánnek (2019) Latinoamerikaren inguruan egiten duen galdera: Europan Mendebaldeko nazio hegemonikoetatik pentsatutako estatugintza prozesuek –izan ezkerrekoak edo eskuinekoak– erantzun diezaioke modu eta zentzu egokian, euskaldunek euskal erakundetzearen inguruan dituzten galdera, bizipen eta beharrei?

Lan honetan zalantzan jartzen da Nazio zapalduaren ereduari jarraituz Estatuaren inguruan teorizatu duten paradigma nagusiek –liberalismoak eta marxismoak– mito modernoak gainditu ezean euskal kasua azaltzeko duten gaitasuna.

Gauzak horrela, ondorengo atalean zehar bi auzi aztertzen dira elkarrizketatuen bizipen eta pertzepzioetan oinarrituta: batetik, euskal nazioak bizi izan duen erakundetze prozesu akeztua; eta bestetik, prozesu horren baitan euskal alderdi politikoek hartzen duten forma eta garatzen duten diskurtsoa.

7.1.3.1 Euskal erakundetze prozesu akeztua

Euskal erakundetze prozesuaren inguruko azterketa egiteko, abiapuntu moduan hizpide hartzen da Europa Mendebaldeko Estatuaren inguruan Juan José Linzek (2009, 444-445. or.) egiten duen sailkapena. Azken horren helburua da Estatuaren eta nazioaren artean gertatzen diren gatazka eta desfaseak argitzeko tipologia desberdinak eskaintzea. Alde horretatik, Linzek honako hiru eredu bereizten ditu: 1) estatu-nazioa (adibidez, Portugal), 2) estatu multinazionalak (adibidez, Espainia) eta 3) «nazio-estatu» estatua

(adibidez, Suitza edo Belgika). Alde horretatik, interesgarria da zein den ikustea euskal estatugintzari uzten dion tartea: hutsaren hurrengoa. Linzen arabera, Estatu multinazionala aterabide zentzuzkoena da estatu gabeko nazioek nazio-estatu eratzeari uko egitea (adibidez, euskaldunak), eta horren trukean, estatudun nazioak balazta jartzea estatu-nazioa egikaritzeko proiektuari (adibidez, espainiarrak).

España es hoy día un Estado para todos los españoles, un Estado-nación para una gran parte de la población y sólo un Estado, pero no una nación para importantes minorías. (Linz, 2008, 65. or.).

Quando la transición tiene lugar, como sucedió en España, sin desintegración del Estado porque fue posible hacer una distinción entre el régimen y el Estado (...) La construcción de un nuevo tipo de Estado liberal democrático que incorpore a la nación que desafió a la anterior concepción del Estado nacional centralizado podría generar una nueva nación-Estado compatible con las naciones bajo su gobierno. Un Estado democrático, multinacional, multicultural y multilingüe es posible. (...) La construcción de Estados multinacionales es complicada, pero no imposible si las dos ideas dominantes (que todo Estado debe esforzarse por convertirse en un Estado nacional y que toda nación debe aspirar a convertirse en un Estado) se abandonan (Linz, 2008, 573-574. or.).

Mario Zubiagak (2013, 6-7. or.) zalantzan jartzen du Linzen aterabidea eta honela laburbiltzen du auzia: Estatu beregaina duen nazioak estatu-nazioa desio duen moduan, Estatua behar du nazio zapalduak biziraungo badu. Alde horretatik, euskal estatugintza ulertu nahi bada, bi aldagai izan behar dira kontuan: 1) Espainiar estatutik egiten den espainiar nazio-gintza; 2) euskal nazio zapalduaren aldetik abian jartzen den estatugintza. Aurrenekoaren kasuan, Zubiagak (2013, 7. or.) aipatzen du Frantziako kasuarekin alderatuz “Espainiako nazio eraikuntza prozesua ahula izan” dela. Hori dela eta, euskal nazioak indar gehiago izan du mobilizatzeko Hego Euskal Herrian Ipar Euskal Herrian baino. Hala ere, espainiar nazioak begirada modernoa alde batera uzten ez duen bitartean, euskal estatugintza prozesua beti izango da mobilizazio liskartsua. Azken batean, “aginterik gabeko eremurik ez dagoen neurrian, estatu berri baten eraikuntzak indarrean dagoen “beste” estatu baten aginte eremua ezbaian” jartzen baitu.

Nazio zapalduaren ereduaren logikatik begiratu gero, espainiar eta euskal estatugintza elkarrengandik bereizteaz gain, bada eginkizun bat airean gelditzen dena: euskal estatugintza prozesu anitzak nazioaren gaineko begiradaren arabera aletzea. Izan ere, ez da gauza bera euskal estatugintza prozesua abian jartzea estatu-nazioa ardatz hartuta (hurbilpen politikoa). Edota, nazioaren autoeraketa sustatuz nazio-estatu eratzeko ahalegina egitea (hurbilpen kulturala).

Hori guztia kontuan izanik, hiru hari-muturretatik tira da euskal erakundetze akeztua elkarriketatuen begietatik aztertzeke: 1) estatugintza espainiar hegemonikoak eragindako espainiar nazio-gintza; 2) euskal nazionalismoa garatutako euskal

erakundetzea; eta, 3) euskal erakundetze prozesu desberdinen abiapuntu epistemikoaren gaineko gogoeta.

❖ **a) 1936ko gerra eta ondorengo urteak: erdalgintza nazionalaren aroa**

Hego Euskal Herria Estatu Espainiarraren mugen barruan dagoen lurraldea den neurrian, espainiar mundu ikuskera barneratzen dute bertan bizi diren hiritar guztiek erakunde desberdinetatik etengabe erreproduzitzen den errealitatearen bidez: ohiturak, ikurrak, hizkuntza nazionala, instituzioekiko leialtasuna (Billig, 2014). Aldiz, gatazka iturri da Estatu gabeko nazioek estatugintza prozesuak abian jartzea.

XVI. mendetik XIX. mendera bitartean, esaterako, euskal estatugintza prozesuak atzerakada izan zuen. Hego Euskal Herrian 1808tik aurrera prozesu hori bizkortu egin zen, harik eta 1876an hiru lurraldeetan mende luzez indarrean izan ziren foruak abolitzen dituzten arte (Intxausti, 1977). Alde horretatik, azken ordutik hona euskal estatugintza prozesuarentzat inflexio puntu nagusia izan da Sabino Aranaren eskutik sortu zen euskal mugimendu abertzale modernoa. Azken horrek, besteak beste, 1895ean EAJ sortu zuen. Beste gauza batzuen artean, euskal matrize espazial/tenporala ardatz izango duen lehen alderdi politikoa.

Hasiera batean, EAJk Bilbo eta inguruetan lortu zituen emaitza hoberenak. Luze gabe, ordea, Gipuzkoara ere zabaldu zen euskal mugimendu abertzalea (M. Aizpuru, 2000). Urte gutxian garrantzi handia hartu zuen alderdi sisteman. 1917an, esaterako, Bizkaiko Diputazioan gehiengoa lortu zuen. Gertakari hau mugarri izan zen euskal nazionalismoarentzat.¹⁵⁶ Ondorengo urtean sortu ziren Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza (1918). Horiek bezala, beste hainbat jarduera eta erakunde indartu ziren ondorengo urteetan: egunkari abertzaleak, aisialdi taldeak, sindikatuak eta abar. Laburbilduz, euskal matrizean (ez beti euskaraz) sustraitutako erakundetze prozesua jarri zen martxan. Horrela, urte batzuetan (1923-1930) legez kanpo egon arren, 1930eko hamarkadan indarberrituta iratzarri zen euskal mugimendu abertzalea.¹⁵⁷ Alabaina, 1936an Espainiar estatuan gerra lehertu zen eta Hego Euskal Herriko euskal abertzaleek gerran parte hartu beharra izan zuten. Euskal mugimendu nazionalistek frankisten aurka borrokatu zuten 36ko gerran (Pablo eta Mees, 2005, 169-173. or.). Errepublikaren

¹⁵⁶ “Al ganar la Comución Nacionalista las elecciones provinciales de Vizcaya en marzo de 1917 y conseguir por primera vez la mayoría absoluta en la Diputación con sus once diputados se dispuso a formar el gobierno de la provincia (...) Esta nueva era, tan anhelada por la base nacionalista, duró aproximadamente dos años hasta que en las elecciones de julio de 1919 la Comución perdió su mayoría y por lo tanto, la responsabilidad de gobernar.”(Mess, 1992, 226. or.).

¹⁵⁷ De Pablok eta besteek (1998, 96-99. or.) xehetasun handiz azaltzen dute 36ko gerra aurretik mugimendu abertzalea nola zegoen erakundetuta eremu politiko, sindikal eta kulturalen.

aldekoek, ordea, gerra galdu zuten. Hala, 1939tik 1975era iraun zuen erregimen frankistak Espainiar estatuan. Bizkaia eta Gipuzkoa esaterako “provincias traidoras” moduan izendatu zituzten. Azken horiek bizkar eman baitzioten altxamendu frankistari.

Frankismo garaian bi fenomeno gertatu ziren: batetik, euskal estatugintzaren aztarnak ezabatzen saiatu ziren –adibidez, Gipuzkoa eta Bizkaian kontzertu ekonomikoa kendu zuten–; eta bestetik, espainiar naziogintza inposatu zuten indarrez –gizartearen erdalduntze erabatekoa eraginez–. Gertakari honek errotik moztu zuen XIX. mendearen amaieratik aurrera sortu zen euskal mugimendu abertzaleak abian jarritako euskal erakundetze prozesua, baita horren inguruan gertatutako pizkunde kulturala ere. Elkarrizketatuek uste dute Frankismoak euskal naziogintzan berebiziko atzerakada ekarri zuela, nahiz eta atzerakada horren zantzuak lehenagokoak izan ziren.

(103) Bai baina alde aurretik zetorren minorizazio prozesua zen. (...) Frankismoak lortu zuena izan zen minorizazio prozesu hori areagotzea. Eta pena bat, ze azkenean pila bat kostatzen da hizkuntza bat biziberritzea. Eta duela 100 urte hasiko bagina biziberritze prozesuarekin, seguruenez orain askoz hobeto geundeke. Baina frankismoaren ondoren egin beharreko lana asko zen. (27_Elkarrizketa; E4).

Frankismoaren garai ilunak ezagutu zituzten elkarrizketatuek aipatu dute euskal komunitatea zapaldua eta mesprextatua izan zela.

(104) Gerra denboran oso abertzaleak izan ziren aurrekoak eta oso gaizki pasa zuten... hil zen etxeko bat 20 urte ingururekin. (...) Zuri hiltzen zaizu familiakoa euskara ari zarelako zabaltzen eta nola ez zera izango [abertzale]? (10_Elkarrizketa; A2).

(105) Nik uste dut baietz. Aita eta ama ez dira izan asko kontatzekoak baina oso inportantea izan zen abertzaletasuna gerra aurrean euskarari eusteko. Hauei guztiei gertatu zitzairen gero eskola oso gogorra izatea eurentzat. Izan ere, andereño edo maisu zirenak gehienak kartzelara joan ziren, batik batik, errepublikan euskaraz irakasten zutenak. Gero salaketak egon ziren euren artean. Horiek salatuak izan ziren. Gero irakasleak del regimen jarri zituzten, beraienak. Eta orduan, beraienak euskaraz egiteagatik a golpe y a hostias! (19_Elkarrizketa; A2).

Gerraostean mugimendu abertzalea bi pusketan egin zen. Batzuk iparraldera edo erbestera joan ziren eta handik jarraitu zuten lanean (Beltza, 1977). Beste batzuk, aldiz, hegoaldean gelditu ziren baina mugimendu abertzalearen egiturak ia erabat desegin ziren. Euskal egitura politikorik ezean ezinezko zen euskal naziogintza prozesua garatzea. Hala, 40ko hamarkadatik hasi eta 50eko hamarkada bitartean, estatuaren aldetik espainiar naziogintzak bere aurpegiak gordinena erakutsi zuen. Elkarrizketatuek aipatu dutena izan da senide edota gertukoek kasu askotan gerraren gordintasuna eta sufrimendua barrutik eramane zutela. Horrek guztiak, kasu askotan belaunaldien arteko etena ekarri zuen: hizkuntza galera, memoriaren kriminalizazioa... Erregimenak bazekien errepresioa baino eraginkorragoa zela atxikimendu subjektiboa. Horregatik, gerraosteko euskal belaunaldi gaztea espainiar hezkuntza sistemaren bidez “espainiarren” saiatu ziren.

- (106) Gogoratzen naiz ni batxilerra egiteko eta nire anaiak ere igual. Ikasi behar genuen Formación del espíritu nacional obligatuta eta ikasi behar genuen cara al sol eta hori. (10_Elkarrizketa; A2).
- (107) Cara al Sol danok kantatu behar izaten genituen, hori fraideetan. Hori urte batzuetan, gerora ez. Ze gero kendu zuten hori. Lehenengotan ni gogoratzen naiz, 1940ko hamarkadan ohitura dezente zegoela. (8_Elkarrizketa; A1).

Elkarrizketatuek gogoan dute nola ikasten zuten bortxaz espainiar espiritu nazionala. Estatu aparatuetatik barne-muinetaraino sartzen zuten aurrena hizkuntza, eta gero, mezu espainiar nazionalista eta eskuindarra. Ikusten den moduan, espainiartasun politiko unibertsalak jatorria zuen espainiar partikularitasun kulturean. Era berean, soldaduska izan zen espainiar sentimendua erreproduzitzeko beste bidea. Bourdieuk (1985, 78-86. or.) esango lukeen moduan, igarotze erritu horrek, espainiar identitatea erreproduzitzeaz gain, gizon eta emakumeen bereizketa erreproduzitzen zuen. Garai hartako espainiartasun hegemonikoa beraz eskuindarra eta patriarkala zen.

- (108) Etortzen ziren baseritik neska eta mutilak erdaraz hitz egitera ikastera. Ze baserritan hitz egiten zuten denak euskaraz eta komeni zitzaizen erdaraz hitz egiten ikastea, mutilak soldaduskara joateko eta neskak neskame izateko. (10_Elkarrizketa; A2).

Neskame zihoazen euskaldun emakumezkoek gazteleraz ikasi behar izaten zuten, besteak beste, elite ekonomikoa erdalduna zelako. Goitik beherako erdalduntze bertikalak eraginda euskararen atzerakada handia gertatu zen. Are gehiago, elkarrizketatu bat edo bestek aipatu du beren sendian euskaraz hitz egiteari beldurra ziotela zenbaitek.

- (109) Gogoratzen dut gainera, nire amaren amak, askotan esaten zuela berak zekala beldurra euskaraz hitz egiteko. Ze bera txikitan bizitako egoera batetik, bere bizilagun batek salatu zuen bere aita, eta eraman zuten Francoren jendeak. Horren ondorioz, berak betidanik jakin izan du euskaraz baina hitz egin oso gutxi. (4_Elkarrizketa; E6).

Euskaldun izatea baztertua izatea zen. Horregatik jendeak barneratu egin zuen euskaldun izatearen beldurra. Gehienera ere, espazio pribaturako balioa soilik aitortzen zitzaion. Ez zen hizkuntza, soilik, euskal abertzaletasun kutsua zuen guztia zegoen gaizki ikusita. Espazio pribatura murriztu zen euskara eta euskal abertzaletasuna.

- (110) Gizon bat etorri zitzaidan, 1973a zen, ni umea kotxean nuela eta umearekin euskaraz hitz egiten. Eta etorri eta esan zidan. Uste ba por la calle provocando! Eta ni hasieran gelditu nintzen isilik. Y le digo: pues? Eta berak: Hable usted en cristiano! (10_Elkarrizketa; A2).
- (111) Bai. Nahiko neurtuta etxean eta baserrian. Baina bestela han hemen kalean eta beti erdaraz hitz egin behar izaten zen. Harremanak udaletxean eta erdaraz egin behar izaten zen. (8_Elkarrizketa; A1).

Denborarekin espainiar gizartearen zati handi bat legitimazioa ukatzen hasi zitzaion sistemari. 1939-1975 bitartean, munduan aldaketa handiak gertatu ziren. 1945etik aurrera demokraziaren arerio nagusia komunismoa izatera igaro zen, eta faxismoa –eta bere deribatuak–, pixkanaka mendebaldearen konplize bihurtu ziren (Beltza, 1977, 7. or.). Hori izan zen Espainiar estatuaren kasua. Belaunaldi berriek, ordea, 1960ko

hamarkadan gertatu zen erregimenaren homologatze prozesuarekin ez zuten nahikoa. 1936ko gerran iltzatutako Espainia hura eraberritu nahi zuten. Alde horretatik, euskal abertzaleek sistema horren baitan arrakalak sortzen berebiziko ekarpena egin zuten. Ordurako euskal abertzaletasunaren baitan beste erakunde bat sortu zen: ETA. Espainiar sektore ez frankistak eta euskal abertzaleek helburu desberdinak izan arren, 1960ko hamarkadan geltoki berera iristea zuten helburua: erregimen frankistaren amaierara. Hala, Espainiaren erregimenaren amaiera, hein handi batean, euskal borroka politikoaren eskutik etorri zen. Ekarpen hori ez zen borondate berdinarekin eskertu espainiarren aldetik. Euskaldunei ez baitzitzairen beren etorkizuna erabakitzeke eskubiderik aitortu espainiar sektore ez frankisten aldetik: 1978ko erregimenaren sorrerarekin euskaldunak Espainiar estatuko erregio bateko nazionalitate izatera kondenatu zituzten. Independentziaren ordez, Autonomia Estatutua eskaini zitzairen. Euskaldunen zati batek ontzat eman zuen eskaintza hura. Edonola ere, kaiola hura espainiarrek emandako oparia baino gehiago, urteetako borrokaren bidez berreskuratutako botere politikoa izan zen. Borroka horien testuinguruan ulertu behar da 60/70eko hamarkadan gertatu zen euskal naziogintzaren susperraldia eta euskal erakundetze propioa.

❖ **b) Euskal susperraldia frankismoan**

Frankismoaren baitan gertatu zen euskal susperraldi kulturala azaltzerakoan honako elementuak bereizten dira beste batzuen artean: 1) ikastolen fenomeno, 2) euskal kantagintza berria, 3) euskara batua, 4) helduen alfabetatze-euskalduntzea eta 5) euskal literatura berria (P. Iztueta, 1985; Larrinaga, 2007, 156-173. or.).

Euskal erakundetzearen ikuspegitik, bi joera bereizi ziren. Alde batetik, euskaldunek garai hartan hainbat erakunde sortzeari ekin zioten –adibidez: ikastolak, AEK–. Bestetik, hasiera batean euskal naziogintzarako pentsatuak ez ziren hainbat erakunderen ahalmen politikoa erabili zuten naziogintzarako –adibidez, Loiola Irratia–. Zaila da euskal susperraldi honi abiapuntua jartzea. Intxaustik (2007) aipatzen du Frankismoak gogor zapaldu zuela euskal mundua baina 50eko hamarkadatik aurrera askatasun espazio txiki batzuk agertzen hasi zirela. Itogune horren erdian, arnasgune horietako bat euskal eliza izan zen (P. Iztueta, 1981).

(112) Eliza euskalduna izan zen totalmente. Hemen eliza izan da auzo bakoitzean. Eta abadeak denetan zeuden. Eta bai, bai. Nik pentsatzen dut abadiak zaindu zutela euskara. Doktrina eta horrelakoak euskaraz. (8_Elkarrizketa; A1).

Elizatik jarri ziren martxan esaterako hainbat euskarazko aldizkari edota euskaldunentzat zuzendutako Irratiak.¹⁵⁸ Paper garrantzitsua jokatu zuten horiek euskal mezua euskaldunen artean zabaltzeko. Elkarrizketatuek azpimarratu dute euskaldunentzat oso garrantzitsuak izan direla.

(113) Irratia eta hemen asko entzuten zen Loiola Irratia eta Arrate eta euskaraz. Hemen baserriko jendeak eta emisora horiek dira euskaraz izaten zirenak. Oraindik ere bai. (8_Elkarrizketa; A1).

(114) [Basarriren Nire Bordatzotik] Hori bai Diario Vascon eta. Bestela gutxi. Zeruko Argia eta... Horiek ziren lehenengoak. (8_Elkarrizketa; A1).

Euskalduntasuna errepresioaren ondorioz itzaltzen ari zen arren, zenbait herri euskaldunetan oraindik euskara hutsean bizi zirenen dentsitate maila handia zen. Gizarte hark bere behar kulturalak ia osotasunean euskaraz eta euskaratik asetzen zituen: indar fisikoaren lehiarako herri kirolak, hitzaren jolaserako bertsolariak eta giza harremanetarako erromeriak. Ekonomia jarduera nagusia berriz ziren baserria eta azoka. Mundu hori euskal elebakar hartzaile edota asko jota euskal elebiduna zen. Hala, bizi indar handiarekin mantendu zen 60ko hamarkada bitarte. Alabaina, mundu hori soilik Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Iparraldeko mendialdeko udalerrri euskaldunetan mantentzen zen. Gainerakoan, euskal abertzale asko erdal munduan bizi ziren eta euskararen inguruan zuten ez-ezagutza, kasu askotan, erabatekoa zen. Euskal susperraldiaren abaroan, ikastolekin eta batera, euskara zabaltzeaz gain, Euskal Herri guztian ezagun egin ziren euskaraz bizi zen komunitate horren erreferente kulturalak.

(115) Niretzat bai, mitikoak izan dira mutiko denboran Uztapide eta Basarri. Horiek ziren niretzat numero uno. Uztapide gehiago halan da be. (...) Gasteizen eta keba. Hain inork ez zituzten ezagutzen horiek. Han bertsolari mugimendua hasi da oraintxe. Ikastolak sartu direnean eta bueno apur bat hor mugimendua. Baina bestela nik ez dut uste berandu arte bertsolariak eta hor parte hartu dutenik. (8_Elkarrizketa; A1).

Benetako apustua izan zen ikastolena. Berauek izan dira erdal eremuetako belaunaldi gaztea euskalduntzea ahalbidetu duten erakunde garrantzitsuenetakoak. Euskararen inguruan eratutako erakunde honek aurrez beste nazio hegemonikoek egin zuten moduan, batasun nazionala gorpuzten saiatu ziren nazio erakunde baten magalean belaunaldi gazteenak heziz. Kontua ez zen euskaraz irakastea. Bertan lantzen zen curriculuma erabat desberdina zen Espainiako hezkuntza sistema nazionalak lantzen zuenarekin alderatuta. Hizkuntzatik haratago zihoan proiektuaren mamia. Urte horietan

¹⁵⁸ Euskal Irratigintzari dagokionez, 50eko eta 60ko hamarkadan hiru izan ziren bereziki azpimarragarriak: Loiola Irratia, Segura Irratia eta Arrate Irratia. Honela laburbiltzen du Gutierrezek (2002, 54-55. or.) irrati hauen jarduna: "Hego Euskal Herrian ere irrati parrokiak sortu ziren 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran. Irrati haiek ezaugarri propioa izan zuten: kasu gehienetan baserriarren zonaldeetan kokatu ziren eta, beren mezu ebanjelikoa herritar guztiei helarazteko helburuz, euskara erabiltzen zuten, eliztar euskaldunek uler zezaten. Ikusiko denez, euskaraz aritzeak buruhauste bat baino gehiago ekarri zien irrati-tietako arduradunei. Halaber, apaiz euskaltzale eta kulturazale batzuk izan ziren irrati gehienek bultzatzaile, eta, ondorioz, eduki erlijiosoez gain, euskal kultura eta ohiturak bultzatzen saiatu ziren".

guztietan euskal kultur mugimenduak berebiziko aldaketa bizi izan zuen. Mugimendu hura jende anitzek eta kolektibo anitzek osatzen zuten. Bakoitzak bere esperientziatik abiatuta posible egin zuten euskal erakundetze propioa garatzea garaiko legearen ertzetan.

- (116) De hecho, lehenengo ikastola sortu zenean parrokiaren menpe egon zen eta Guardia Zibila etortzen ziren denboralditik denboraldia informe eske abadietara. Ikastolan hasieran elizaren mendean hasiera eman zitzaion ikastolei. (8_Elkarrizketa; A1).
- (117) Eman genuen dirua sartzeko. 25.000 pezeta denbora haietan eh! Eta eman genion ikastola aurrera joateko. (10_Elkarrizketa; A2).
- (118) Nik uste garai haietan, karo, zure semea ikastola batera eramatea hori zen egundoko apustu garbia. Izan behar zen egundoko exitoa edo egundoko frakaso. Horregatik, pauso hori emateko zure gurasoentzat izan behar zen, osea, oso zaila. Abertzale ez izanda hori oso zaila zen. Abertzale baten ikuspuntutik izan behar zen. Ni adibidez, hasi nintzen, Elizako sotoetan. Orduan klaro. Ume pilo bat sartuta holako lokal txikitxo batetan eta dena eta klaro. Inguruan zeuden La Salle edo Salesianoak, eskola potenteak. Klaro zure umeak zulo horretan sartu edo eskola potente batera sartu ezta? Orduan, klaro ingurua ere izan behar zuen nahiko abertzalea. (6_Elkarrizketa; A2).

Elkarrizketatuek aipatzen dute seme-alabak ikastolara eramatea garai hartan apustu handia izan zela. Euskal eremuetan arazoa euskaraz alfabetatzea zen. Ingurune ez euskaldunetan, aldiz, bi lan zituzten: euskaraz ikasi eta alfabetatzea. Espainian hiritarrak gaztelaniaz alfabetatzeaz hezkuntza sistema arduratzen zen. Euskal nazioak horrelako erakunderik ez zuenez, hutsetik sortu beharra izan zuen. Deigarria da guraso askok poltsikotik jarri behar izana dirua erakunde horiek sortzeko, eta hasieran, gainera, ez zuen inork ziurtatzen guztia ondo irtengo zenik.

Euskaldunek zuten beste hutsunea zen, ahozkotasunean euskal elebidun izan arren, asko eta asko gaztelaniaz alfabetatu zirela. Erdal hiztun asko zegoen euskaraz ikasi nahi bai, baina horretarako bitartekorik ez zutenak. Era berean, jende asko zegoen abertzale izan gabe ere euskara ikasi nahi zuena. Ikusten zen ikastolen bidez gazteak euskaldunduta bakarrik ez zela nahikoa. Horien guztien beharrak asetzeko sortu zen Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea: AEK. Ildo horretatik, gau eskolak jarri ziren martxan. Elkarrizketatu batzuek aipatu dute horrela euskaldundu zirela.

- (119) Soldaduskan hasi nintzen berak bidali zidan liburu batetik: Euskara hire laguna. Eta horrekin hasi nintzen. Gero etorri nintzen jada eta gau eskolan hasi nintzen. Eta bueno, ja hasi nintzen euskaraz egiten. (3_Elkarrizketa; A6).

Euskararen aldeko mugimendu horren ekitaldi gorena izan zen 1976an antolatu zen *24 orduak euskaraz* jaialdia. Frankismoaren amaieran, 10.000 pertsona bildu ziren euskaraz eta euskaratik egindako ekitaldi batean. Ekitaldi hori izan zen urte luzez egindako lanaren emaitza. Herri Irratiak antolatzen zuen, eta ikusle horietako asko ikastola eta gau eskoletan euskaldundutako jendea zen. Euskal kantagintza berria arduratu zen giroa alaitzeaz... Kulturaren inguruan islatu zen euskal nazioaren batasun politikoa egun horretan.

Garai hura bizi izan zuten elkarrizketatu guztiek aipatzen dute euskarak eta euskal kulturaren aldarrikapenak politikoki desberdinak ziren hainbat pertsona eta mugimendu batzeko balio zuela. Alabaina, Frankismoaren amaiera gero eta gertuago zegoela ikustean, batasun nazional hori puskatu egin zuen politikak. Elkarrizketatu honek penaz gogoratzen ditu horren garai ederrak bizi eta abertzaleen artean aurrera begira sortu zen konpondu ezina.

(120) Lehenengo denak ginen lagunak eta denok joaten ginen euskarazko klaseetara. (...) Ordu libreetan euskaraz hitz egiten genuen eta euskara lantzeko. Irakurtzen euskarazko gauzak eta bultzatzeko pixka bat. Eta gero, pues hori, hortik hasi zenean ofizialtasuna eta partiduak eta abar, nire etxean beti izan gara partidukoak, PNVkoak. (...) Gaztetatik eta nik gogoratzen dut kriston bronkak. Ordura arte guztiak ginen abertzaleak diktadorearen kontra, euskararen alde... eta gero jada gure artean ez ginen lagunak. Oso tristea izan zen. (...) Ni bakarrik nengoen EAJn beste guztiak HBkoak ziren. (...) Baina ni ez nintzen sentitu gaizki, ze orain arte denak bat izan gara. Baina gero dena zen kapitalismo, komunismo, mezu soziala a tope. Eta orduan zer, ni nintzen fatxa? Mesedez! Baina mezua horrela zen. (19_Elkarrizketa; A2).

Laburbilduz, Frankismo garaian herrigintzatik abian jarritako euskal erakundetze prozesuak erakusten du euskal naziogintzan sakontzeko instrumentu garrantzitsuak izan zirela. Espainiar naziogintza itogarriaren aurrean posible izan zen euskal estatugintza abian jartzea. Hori guztia ez zen posible izango bestelako mundu bat amesteak ematen zuen indarragatik izan ez balitz. Mugimendu hori bere baitan anitza zen eta guztiak euskaltzale izanagatik, denak ez ziren euskal abertzaleak. Euskal abertzaletasunari dagokionez, denetariko jendea zegoen mugimendu euskaltzalean: bai Ezker Abertzalekoak baina baita EAJ ingurukoak ere. Autonomiaren aroa begitantzean bidegurutzean aurkituko dira Frankismoaren aurkako borrokak norabide berean arraun egiten jarri zituen arima desberdin horiek guztiak.

❖ **c) Autonomiaren aroa: jatorrizko pekatuaren kontraesanak**

“Madrilekin herritik herrira hitz egiten ez dugun bitartean, ez dugu esaten ahalko «zatoz Enbajadore jauna, Lehendakaria zain duzu» (...)

“Jaun-andereak, burumakur ez dago aurrera egiterik, alderdiarekin ezin badugu batasunik egin, herriarekin egin beharko dugu, ez?”

1977an, Xibertan. Telesforo Montzon

1975ean hil zen Francisco Franco diktadorea eta horrek sistema politiko berria eratzeko atea zabaldu zuen. 1977an Xibertako mahaia eratu zen euskal abertzale guztiak biltzen zituena. Alabaina, elkarrizketa horiek ez ziren ongi atera.¹⁵⁹ 1978an onartu zen Espainiar

¹⁵⁹ Aurreneko bileran bertan bi jarrera desberdin agertu ziren (Barriola et al., 2011, 93-94. or.). KASetik ueste zen “Parlamentuan parte hartuz papurrak soilik lor daitezkeela”, aldiz, EAJak ueste zuen “parte hartzeak, estatuaren bidez, egituraketa politiko eta administratibo progresiboa lortzeko aukera emango liokela

Konstituzioa, urtebete geroago, Euskal Estatutua eta herritarrei galdeketa egin gabe 1982an sartu zen indarrean Nafarroako Foru Erregimena. Euskal alderdiek horren aurrean jarrera desberdinak hartu zituzten. EAJk hasieratik Estatutuaren aldeko apustua egin zuen. Ezker Abertzaleak, berriz, Estatutuaren aurrean abstenitu eta KAS alternatiba proposatu zuen. Bitartean ETak estrategia militarrekin jarraitu zuen.

(121) Franco hil zen eta nik pentsatzen det puska baten ez zela ezer askorik sumatu. (...) Tejero ere 1982an atera zen. Horregatik ba. Garai zailak izan ziren. Gero ETA sortu zenetik eta, haiek ere egiten zuten borroka. (...) Momentu gogorrak izan ziren! (18_Elkarrizketa; A3).

Elkarrizketatuen hitzetan garai gogorrak izan ziren haiek. Asko zegoen jokoan, besteak beste, Hego Euskal Herriaren autodeterminazioa eta lau lurralderen batasuna. Alde horretatik, EAEk eta NFEk beren estatutuak lortu bazituzten ere, lurralde batasuna hautsi egin zen Hego Euskal Herriko lurraldeen artean. Elkarrizketatuek aipatzen dute naziogintza prozesuan erakundetze erregional horrek berebiziko eragina izan duela. Autonomia desberdinetan banatuta egoteak Espainiar iruditeria erreproduzitzen laguntzen dutelakoan daude. Euren arabera, kulturak EAEko eta NFEko euskaldunak batzen dituen bezala, autonomiek euskalduntasuna pitzatzen dute espainiar identitate erregionalen bidez.

(122) Bukaeran politika eta hola egitean, administrazioak banatuta gaudek (...). Hitz egin dezakek Euskal Herriaz baina eguneroko politikan, administrazioaren ikuspegitik banatuta egoteak bakoitzak bere politika izatea ekartzen dik. Zaila duk orokorrean hitz egitea. Pixka bat abstraktua geratzen duk askotan orokorrean hitz egitea. Denak batzen gaitik, herri bat izateak, denak batera gaituk. Baina administrazioetik banatuta egoteak, nahi edo ez nahi, hori ere askotan egiten diagu, diskurtsoan eragiten dik. Hemengoa eta hangoa esatea. (11_Elkarrizketa; E4).

(123) Nik uste erdalgintza tantaka irabazten doala. Erdal naziogintza alegia. Haiek ere nazioa etengabe egiten ari dituk. Ez dek nazio espainola ez dagoela eta egun batetik sortzen dela. Egunero egiten dik nazioa telebistak eguraldiarekin, futboleko partidarekin. Esaten dute futboletik kanpo utzi behar dela politika. Hain justu ere zer da ba futbola. Liga espainola bidez denbora guztian nazioa egiten ari dituk. Gu ere ari gaituk, gure neurrian. (24_Elkarrizketa; E3).

Elkarrizketatuak aipatzen duena beste hitzetan esanda, futbola da Frankismo garaiko *formación del espíritu nacional* hura gaur egun. Adibide garbia da Espainiar Liga. Biolentzia sinbolikoa eragiten du espainiar erakundetzeak euskaldunengan futbolaren eta beste erakunde batzuen bidez.¹⁶⁰ Elkarrizketatuaren arabera, Espainiarekiko batasun ideia zabaldu eta unibertso partekatua erreproduzitzen du autonomia desberdinen artean, betiere, Iparraldeko euskaldunak Frantziako Ligari begira dauden bitartean.

herriari”. Hori izan zen bakoitzaren abiapuntua, euskal abertzaletasunaren gaitzerako, ordea, ez ziren adostasunera iritsi.

¹⁶⁰ Ekain Rojok (2013, 102. or.) honela dio futbolaren inguruan: “Nahiz eta kirol globalena izan, nazio adierazpenen zaindari bitarteko nagusietako bailitzan har daiteke. Hala, nazio-estatuetan adibidez, lehen ekonomia burujabetza galdua izan bada, eta berezko izatea adierazten duten sinbolo gero eta bakanagoak daudenean, futbol nazio taldea ikur gailenetakoa da”.

Bestalde, elkarrizketatu batek baino gehiagok aipatu du autonomiek lurraldetasunaren ikuspegitik pitzadura eragin badute ere, euskarak administrazioan izan duen aurrerapena oso garrantzitsua izan dela. Hau da, egungo sistema autonomikoak eskaintzen dituzten tresnek ahalbidetzen dute euskalgintzan sakontzea.

- (124) Frankismo denboran dena erdaraz zen. Kartel guztiak, publikazio guztiak. Orain dena euskaraz egiten da. (...) Aldaketa inportantea izandu zen. Frankismoa bukatu zenean aldaketa oso inportantea izan zen. Kosta zen hasierako momentuan (...) Hastea kosta zen aunitz baina denborarekin bultzada eman zaio euskarari eta hura izandu da nik uste puntu kritikoa non hasi zen euskara indartzen. (7_Elkarrizketa; A1).
- (125) Nire semeak jada egongo dira gizarte eta administrazio euskaldun batean. (...) imajinatu, nire kasuan bakarrik erdaraz egingo niela, nahiz eta erdaldunak izan ikastolako edo ikastetxeko etxeko lanak euskaraz izango ziren. Nik laguntza bat eskaini al diet. Baina nire amaren kasuan ez. Euskara dago jada ondo sartuta. (...) Gaur egun dago normalizatuta eta gero eta normalizatuagoa egongo da. Nik uste dut hemendik 20 urtera, administrazioan jende denak, hobeto edo txartoago baina jakingo du euskaraz. (32_Elkarrizketa; E6).

Ikusten den moduan, auziari nondik begiraten zaion araberakoa da lurraldearen gaineko egituraketa erregionalaren inguruan egiten diren hausnarketen norabidea. Nazio auziari dagokionez, eztabaida horiek guztiak ongien biltzen dituen adibide nagusietakoa da hezkuntza sistemari dagokiona. Azken honek, euskal abertzaletasunaren baitan espektro politiko guztietan eragin zuen desadostasuna. Jarraian, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen adibidea hartzen da euskal erakundetzearen inguruan dauden begirada desberdinak aztertzeko. Elkarrizketatuek denetariko iritziak plazaratu dituzte.

- (126) Gaur egun nik pentsatzen dut, (...) eskola inklusiboa izan behar dela, ikastolak publikatu behar direla, ez direla ghettoak eraiki behar, ez direla erdal eta euskal munduak bereizi behar. Ez diot asmo txarrez, alderantziz, baina mundu paraleloak bizi ditugu (...) Gure apustua izan zen ikastola. (...) Baina gure ikastola edota auzoko eskola publikoa A edo B eremuan, eske dira bi mundu. Hola elkarren ondoan dauden bi mundu. Eta horregatik esaten dut, nik, hor jende pilo bat behar dela eta benetako indar progresistak batu behar direla eta aldaketak eragin behar dituztela sektore batzuetan. (29_Elkarrizketa; D8).
- (127) Autoeraketan gehiago sinesten diat. Nik pentsatzen diat gure nazio askapena ekarriko duela euskaldunok gure burua antolatzeak. Gure komunitatea trinkotzeak ekarriko dik. Hori sozialismoak ez dik ekartzen. Eta sozialismoak problema dik azaltzeko gure problema. (24_Elkarrizketa; E3).
- (128) Nik eskolan nahiago Axular erakutsi. Cervantes ba inportantea da baina gu euskaldunak gara. Zuk Madrilen gauza bera galdetu dezakezu. Zer gurago duzu zure umeak Cervantes edo Shakespeare ikastea. Ba hark esango dizu Cervantes espainola delako. Ba gure kasuan berdina. Guk Axular nahiago dugu Cervantes baino euskalduna garelako. (32_Elkarrizketa; E6).
- (129) Zure helburua bada zure seme-alabek euskaraz ikastea bi modu dituzu: bat da Tuteran. Hemen bakarrik duzu bat, eta bidaliko duzu ikastolara. Baina imajinatu Etxarri batean. Han agian bidaltzen duzu publikora euskara bada zure helmuga. (33_Elkarrizketa; E4).

Nazio auziari dagokionez, Madrileko hezkuntza sistemak ez du inongo arazorik. Gaztelaniaz gaztelar curriculumak ikasi nahi duenak aukeran du eskola pribatua edo publikoa. Maila ekonomikoak soilik pribatu/publiko zatiketari eragiten dio, ez aldagai nazionalari. Aldiz, euskal kasuan bi oztopo sortzen dira nazio zapaldua izateagatik: 1) oztopo kulturala, hau da, hezkuntza sistemari dagokionez ikastola da erakunde nazional bakarra euskal lurraldean, eta gainerakoak –izan pribatu edo publikoak– estatu-nazio

arrotzen deribatuak dira matrize espazial/temporalari dagokionez, baita D ereduan irakasten duten eskola publikoen kasuan ere; 2) oztopo ekonomikoa, legediak ikastolak sailkatzen ditu sare pribatuaren baitan. Gauzak horrela, euskal hezkuntza nazional publikorik ez dago. Nazio zapalduaren begiradatik ulertzen da kontua ez dela tematzea honako kategorietan: ikastolak pribatuak diren edota D ereduan irakasten den EAEko eskola publikoa espainiarra den. Oinarrizko galdera da ea zergatik duen euskal nazioak beste nazio normalizatuek ez duten arazoa.

Zatiketa kultural eta politiko horrek eragiten duena da elkarrizketatuen artean ikastolen inguruan iritzi desberdinak agertzea. Horietako bakoitzak dituen bizipenen, baliabide ekonomikoen eta nazio auziaren inguruan hobesten duen begiradaren arabera oztopo bati edo besteari emango dio lehentasuna. Gaiaren inguruan, hurbilpen politikoa egiten dutenek arreta jartzen dute aurrez aipatutako oztopo ekonomikoetan. Azken horien arabera, sare publikoan D eredua kalitatezkoa izatea ezinbestekoa da euskara herritar guztiengana zabaltzeko, bereziki maila ekonomiko apala duten familietara. Ikastolak publikatzeak bultzada emango lioke helburu horri. Gainerakoan arriskua da euskara soilik mugatzea familia euskaldunetan jaio diren, edota, arazo ekonomikorik ez duten familietara. Aldiz, oztopo kulturaletik abiatzen dute irakurketa hurbilpen kulturala hobesten duten elkarrizketatuek. Horien arabera, euskal epistemologia propioa garatzea da proiektuaren ardatza. Horregatik, D eredua bere horretan ez da soluzioa. Benetako aterabidea litzateke euskal hezkuntza sistemaren baitan sare publiko eta nazionala osatzea.

Tirabira zahar-berri hauek gorabehera, 1990ko hamarkada amaieran abertzaleen arteko batasuna lortzeko itzaropena piztu zen euskal gizartean; azkenean, ordea, ez zen posible izan. Lizarra Garaziko hitzarmena hautsi egin zen eta horrekin batera euskal abertzale askoren batasun nazionalaren ametsa zapuztu zen.

Kontuak kontu, batasun nazionala apaldu ahala ondorengo urteetan erabat ahuldu dira euskal naziogintzarako aurrez eraginkorrak ziren hainbat erakunde, adibidez, EITB. Elkarrizketatuen arabera, erakunde honek egun ez du betetzen nazio batek bere burua etengabe azalberritzeko eta trinkotzeko funtzioa. Are gehiago, euskaldunen artean nagusi da erdal komunikabideen kontsumoa.

(130) Azkenean jende askok jada ez du EITB ikusten eta egoten da La Sexta ikusten. Hortik jasotzen du informazioa. (16_Elkarrizketa; G8).

(131) Inguru erdaldunetan oso kontsumo gutxi daukate, oso gutxi. Hemen Muskizen badaukagu oso antzoki handi bat. Hirurehun pertsonarentzat. (...) Musikari famatuak etorri direnean, ba Benito Lertxundik bai bete zuen baina beste inork ez ditu bete 300 plaza. Kontsumo gutxi. (30_Elkarrizketa; A6).

Ildo horretatik, gerraosteko garaitik gaur egungo egoeraren gaineko irakurketa egiterakoan elkarriketatu batek azpimarratu du autonomia aroan gerran birrindu ziren erakunde politikoak eraikitzea lortu bada ere, nazio kulturala neurri berean berreskuratzea ez dela lortu.

(132) Jende asko zagok galdu duena hizkuntza. Gerraren ondoren. Nola kuantifikatzen dituk? Zenbat dituk Bilbon inguruan euskara galdutakoak errepresioagatik? Horiek galdu egin diabe baina beraien familiak igual gerrako gudariak dituk. (...) Beraien aitona edo aita eta ama agian euskaldunak hituan, eta beraiek ez dituk. Klaro, beraiek gero ez ditek ikasi, inolako beharrik ez dutelako izan Barakaldon euskaraz bizitzeko. Eta identitarioki ere ez ditek beharrik sentitu. Izan ere, inor baino gehiago sentitzen dituk Euskal herritarrak. Ze gudari familiakoak dituk igual. Biktima linguistiko asko zegok inguru horietan (...) Etxeak bai, baina etxe horietan bizi zen jendea lehengora bueltatu ahal izateko, lehengo normalizazio linguistiko eta kulturala ez duk berreraikuntza horretan %30era iritsi Euskal Herrian. (17_Elkarrizketa; C3).

Laburbilduz, euskal nazioak ez du Estatu beregainik. Horren ondorioz, bi bide jorratu dira euskal lurraldearen baitan botere politikoa pilotzeko: 1) Espainiar estatuaren deszentralizazioa; 2) euskal nazioaren autoeraketa. Euskal abertzaletasunaren ikuspegitik, aurrenekoaren muga da erakunde horietatik erreproduzitzen den naziogintzak sarri ez dituela gainditzen sistema politikoak ezartzen dituen muga epistemikoak. Aldiz, bigarren estatugintzari gertatzen zaio espainiar nazioaren begietara legitimitaterik ez duen erakundea dela. Horregatik, sistemak ez ditu onartzen eta bide ezberdinak jorratzen ditu erakunde horiek sistemaren parametroetara bihur murriztu edota desagertarazteko. Ildo horretatik, deszentralizazioaren arloan azken lau hamarkadetan zenbait aurrerapauso egin badira ere, euskal nazioaren autoeraketan bestelakoa da egoera. Azken urteetan egin dena atzera egin da.

7.1.3.2 Alderdi politikoak Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren ezaugarri nagusia da bi naziotasun desberdinetako alderdiek lortzen dutela ordezkaritza politikoa: espainiarrek eta euskaldunek. Euskal alderdi politikoen kasuan, euskal saretze bertikalean dago euren jatorria. Izatez, alderdi politikoak kokatzen dira saretze bertikalaren azken harmailan.

Alabaina, atal honetan zehar ikusi da euskal saretze bertikal horrek pitzadurak dituela sistema sozial, normatibo eta organizatiboan. Gauzak horrela, jarraian aztertu nahi dena da mendeko egoeran egoteak saretze bertikalean eragindako pitzadurek nola baldintzatzen duten euskal alderdi politikoek euskal naziogintzaren inguruan dituzten diskurtsoak eta praktikak. Elkarrizketatuen iritziak jaso dira gai horren inguruko gogoeta egiteko.

❖ **a) Euskal alderdiak: banaketa kultural/politikoaren ajeak**

Hurbilketa soziologikoak azpimarratzen du alderdien helburua dela gizatalde jakin baten interesak ordezkatzea alderdi sisteman. Ildo horretatik, euskal alderdien helburu politikoa litzateke euskal nazioaren interes politikoak defendatzea, tartean, hizkuntza nazionalaren normalizazioa. Nazio normalizatueta boto emaileen gehiengoak hizkuntza nazionala hitz egiteaz gain, gehiengoak proiektu nazionala babesten duenez, desfaserik ez dago jatorri kulturalaren eta praktika politikoaren artean. Alabaina, zer gertatzen da nazio zapalduetan?

1895ean lehen euskal alderdia sortu zenetik (EAJ), alderdi barruan pitzadura politiko eta kulturala ezin josirik ibili dira euskal abertzaleak. 1961eko urriaren 6an, EAJko ordezkarien aurrean, Parisen, Txillardegik, gogor salatu zuen euskal alderdi abertzaleak gaztelania erabiltzeko zuen joera. Ondorengo urteetan, Txillardegi berak sortutako ETA erakundea ere ez zen libratu gaitz horretatik. Are gehiago, euskal alderdien hizkuntz politiken inguruan 1991n *Jakin* aldizkarian argitaratutako 62. alea aztertuz gero, argi eta garbi ikusten da pitzadura horrek erabat josi gabe jarraitzen zuela 1990eko hamarkadan. Azken urteotan egindako ikerketek erakutsi dute euskal alderdiek oraindik ez dutela aho batez aldarrikatzen euskara lehentasunezko hizkuntza izan behar duela (Goirigolzarri, 2017). Elkarrizketatuek berretsi egin dute euskal alderdiek arazoak dituztela euren nazio proiektua, hizkuntza barne, normalizatzeko.

(133) Hor zagok gure koxka. Eske ez zagok imajinatu ere egiterik [alderdi espainiar bat gaztelaniaren kontra]. Ez dek entenditzen ez teorian eta ez praktikan. Galdera ez duk existitzen. Baina hemen zergatik bai? Gure egoera anormalagatik. Guk beti galderak ere anormalak egiten dizkiagu egoera ere hala delako (...) PNV Kantabriara begira zagok eta ezker abertzalea ere Barakaldotik pasatzen hasita zagok. Bateren bat iparraldera begira bazagok hori ezker abertzalea dek eh, inor egotekotan. Baina EAJ behizat ez zagok iparraldera begira. (...) Nik uste PNVk naziogintza bigarren mailan duela nahiko nabarmen. Baina han ere denetik egongo dek. Egongo dek jendea beste modura pentsatzen duena. (...). Baina ezker abertzaleak ere bi arima horiek bazauzkak. (24_Elkarriketa; E3).

Arazo horiek aipatzerakoan, elkarrizketatuek azpimarratu dute talka egiten dutela euskal alderdi abertzaleen interes kulturek eta helburu politikoek. Alegia, euskal kulturaren inguruan diskurtsoa leundu ezean emaitza elektoralak lortzeko aukera apaltzen denaren ustea dute.

(134) Euskarak EAJri ez dio inongo botorik ematen nire ustez. Hobeto esanda, boto batzuk ematen dizkio baina ez gehienak. Klaro, EAJ Espainiako parte izaten jarraitzearen aldeko boto asko zeuzkak. Ehuneko altua esango nuke. Eta bere boto emaile horiek ez lukete ondo hartuko euskararen legedi berria eta hori. (...). EAJrentzat euskara lehentasuna balitz, askoz milioi gehiago egongo lirakeke euskararentzat eta beste politika batzuk egongo lirakeke. (17_Elkarriketa; C3).

(135) Neretzat EH Bilduk, diskurtsoa jaitsi egin du... Ez dauka hola diskurtso, nola esan, radikala. Zergatik? (...) Porque quiere parecerse al PNV. Eta zergatik nahi du holako irtenbidea? Porque quiere quitar los votos. Oso erraza da. Quiere quitar los votos y quiere controlar la hegemonía en el país. Hori da nire irakurketa politikoa. (14_Elkarriketa; D6).

Edonola ere, elkarrizketatuek argi dute euskararen auziak erabat baztertzeak boto galera eragingo lukeela euskal alderdietan, baita EAJren kasuan ere. Horregatik iruditzen zaie euskal mugimendu abertzalean oraindik euskarari garrantzia ematen dion jendea badagoela.

- (136) Hombre, PNVk ere egin behar lukeela [zerbait euskararen gaian], bestela bere botante batzuek ere amaituko zuten botoa kentzen. Pentsatzen dut nik. Ze PNV gainera ere, batzuk muy vascos dira baina beste batzuk euskaldunak ere badira. (2_Elkarrizketa; D7).

Ildo horretatik, hiru elementu interesgarri agertzen dira elkarrizketatuen iritzietan. Batetik, euskararen eta euskal proiektu nazionalaren alde norbait badago, horiek euskal alderdi abertzaleak dira. Bestetik, elkarrizketatuen artean iritzi aniztasuna dago zein alderdi politikok duen naziogintzaren eta euskara normalizazioaren inguruan jarrera sendoena. Batzuek aipatzen dute bi indarrek –EAJ eta EH Bilduk– jarrera bera dutela, beste batzuek, aldiz, aipatzen dute EH Bilduk gaiari serioago heltzen diola. Hirugarrenik, alderdi bakoitzaren baitan ere naziogintzari dagokionez arima desberdinak daude, bai EAJn eta baita Ezker Abertzalean ere.

- (137) Euskararen alde abertzaleak daude. Eta beste gauza bat esango dizut eta gure kontra doa pixka bat. Orain partidoetan eta begiratuz gero bai garai hartan eta bai orain, PNV eta HBko jendea, HBkoek askoz gehiago egiten dute euskararen alde eta gehiago errebindikatzen dute arlo guztietan gu baino. (...) Gipuzkoan euskaldunagoak dira (...) Horregatik, euskararen eskubidea eskatzen hobeak dira Bildu eta ezker abertzalekoak. (19_Elkarrizketa; A2).
- (138) Nik berdin esango nuke. (...) herriko euskara batzordetara berdin joaten gara batzuek zein besteok [euskal alderdi abertzaleak]. Euskararen aldeko historietan ez nuke esango desadostasunik izan dugunik. Ez nuke esango. (30_Elkarrizketa; A6).
- (139) Nik uste ezetz. [EAJ eta Geroa Bai]. Ez dira ausartzen batik bat Nafarroaren kasuan. Lortu dute boterea baino *ahí ahí*. Nik uste beldurra dutela. Bai. Ikusten dute, egiten dituzten neurriak euskararen alde dira oso oso txikiak. Bestela badituzte telebista guztietan UPNkoak esaten inposatzen ari direla euskara. Horregatik uste dut ez direla ausartzen. (12_Elkarrizketa; E8).
- (140) Azkenean alderdi batek jende asko biltzen du. Orduan suposatzen dut denetarik egongo dela, nahiz eta denok euskararen alde egon. (...). Nik esango nuke, EH Bilduk egiten duela gehiago kaleetan. Ez dakit beti daukate gehiago euskara. EAJk egiten du gehiago instituzioetan. (4_Elkarrizketa; E6).
- (141) Bilduren kasuan iruditzen zait [hizkuntza] zutabe garrantzitsuenetako bat dela. (34_Elkarrizketa; F7).
- (142) Gehienak abertzaleak dira euskara bultzatzen dutenak (...) EAJ eta EH Bildu. (3_Elkarrizketa; A6).

Orain arte aipatutakoaz gain, bada laugarren elementu bat arreta jarri beharrekoa. Elkarrizketatuen artean inork ez du aipatu euskal alderdiak gaztelaniaren aurka daudenik. Beste horrenbeste gertatzen al da espainiar alderdien eta euskararen inguruan?

❖ **b) Espainiar alderdiak: euskal kulturaz hiritartasunaren gerizpetik**

Aurreko azpikapituluan aipatu da elkarrizketatuen arabera ez zuela zentzurik galdetzeak espainiar alderdi politikoak gaztelaniaren alde dauden ala ez. Espainiar saretze bertikalaren kasua eredu idealera hurbiltzen den neurrian, espainiar alderdiek ez dute pitzadura kultural/politikorik. Horregatik, interesgarriagoa iritzi da aztertzea espainiar

alderdiek euskal nazioaren inguruan duten jarrera, betiere, nazioaren inguruko mito modernoarekiko harremanetan. Izan ere, espainiar alderdiek mito hori bere egiteak eragiten du euskal nazioaren pitzadura kultural/politikoan sakontzea. Gertakari horrek bi forma hartzen ditu: politikoa eta kulturala.

Forma politikoari dagokionez, elkarrizketatuek aipatu dute espainiar alderdien kasuan (ia) guztiak euskal nazioaren autodeterminazioaren aurka daudela. Hori bai, espainiar nazioaren autodeterminazioa ez dute zalantzan jartzen. Euskal nazioaren autodeterminazioaren aldeko jarrera izan dezakeen alderdi bakarra uste dute Podemos dela. Edonola ere, elkarrizketatuek nabarmentzen dute azken orduan Podemosek ere espainiar nazio politikoaren alde egingo lukeela. Alde horretatik, espainiar alderdiek euskal nazioaren autodeterminazioaren aurka duten jarrerak lortzen duena da euskal nazioari ez aitortzea izaera politiko propio eta burujabea.

- (143) Iruditzen zaiak gurekiko euskaldunekiko zintzotasuna dela euskal nazionalista ez den bat autodeterminazioaren alde egotea. Nazio bat gera aitortzea eta eskubidea ematea gure egoera administratiboaren inguruan erabakitzeke. Nolabait esateko, ordea, gertatzen dena honakoa dek. Nik uste PP autodeterminazioaren alde dagoela baina bere autodeterminazioaren alde zagok. (...) Iruditzen zaiak haiek beren burua autodeterminatua dutelako, haientzat ez dela problema. Problema gure autodeterminazioa duk. Haiek ez dutena nahi dek gu galtzea. (...) Podemosen pentsatzen diat denetako jendea egongo dela. Baina denbora kontua dek. Benetako galderak etortzen dianen pentsatzen diat beti nazio espainolaren alde egiten dutela. (...) Segun beren proiektua nola gauzatu eta hori dena. Beren boto guztiakin autodeterminazioaren alde egingo balute oso ondo. Baina ez dituk jartzen eta ez dituk jarriko. (24_Elkarrizketa; E3).

Euskal nazionalismoaren gaineko asimilazioak forma kulturala hartzen du alderdi politikoek hizkuntza gutxituaren normalizazioaren aurrean askatasuna eta inposizioa aipatzen hasten direnean. Espainiar nazioa politikoki nazio normalizatua izanik, legearen babesa du gaztelania ezagutza nahitaezkoa izan eta gaztelania erabilera bermatzeko. Euskararen kasuan, normalizazio juridiko eza justifikatzen da arrazoien eta aurrerabidearen izenean. Horregatik, euskararen normalizazioaren aldeko jarrerak ulertzen dira inposizio moduan. Ikuspegi horretatik, elkarrizketatuek uste dute alderdi espainiarrak euskal nazioaren alderdi kulturala ahultzeko proiektura engaiatzen direla.

- (144) Euskara ez zaie inporta. Garbi dago! “Tenemos que españolizar a los alumnos catalanes” (...) PPK segitzen badu indarra izaten denbora luze eta hartzen baditu erkidego gehiago... ze azkenean, ni Nafarroakoa izanda ya sufritu dut nahiko! Zenbat gehiago kendu behar digute? Noraino murriztu behar digute gehiago... ze ya Frankismo garaira itzuli beharko gara! (25_Elkarrizketa; E3).
- (145) UPNk esaten du defendatzen duela euskara baina bakarrik bere tokietan. Haien ustez euskara batua ez da existitzen. Orduan bakarrik egin behar da euskara Baztanen eta Nafarroa Iparraldean. (12_Elkarrizketa; E8).
- (146) Nafarroan euskara etxeko zerbait dela ikusten duten alderdiak daude. Adibidez, UPN. UPN, PP (...) Gero badago baita ere Alderdi Sozialista, Ezkerra-Izquierda eta, alderdi politiko horiek euskara batuaren kontra ez daude, noski, D ereduaren alde daude, baina, beti esaten dute familia askatasuna bermatu behar dela. Eta beti daude baita ere horrekin, Nafarroako Gobernuarekin ezin duela euskara inposatu eta abar. (5_Elkarrizketa; E6).
- (147) Enteratu nintzen Idoia Mendiak esan zuenari buruz, (...) pixka bat harritu ninduen egia esanda. Eta uste dut PSOE eta PPren artean uste dut agian ez dagoela desberdintasun handiegirik. (31_Elkarrizketa; E8).

- (148) Hemen UPNren politikak eta gogor egiten dutela eta justu ematen duten islada edo intentatzen diate, eta askotan lortzen diate zapaltzea, gu generala zapaltzaileak. Euskara galtzen ari garenak zapaltzaileak garela. (...) Nafarroan eta zenbatekoa duk euskaldunen ehunekoak? Ba ez zekiat ehuneko 33 edo 30 bat edo gutxiago. Hor inguruan ibiliko gaituk edo gutxiago. Orduan, ba erreza duk hik mezu horrekin joaten bahaiz eta gehiengo bati holako mezua sartzen badiok ba erraza duk (...) Bazekiabek kalte egiten eta esaten diabe gu euskara ari garela inposatzen. Bat eta beste. Administrazioan ere ia inon ez ditek euskara eskatzen (...) Ze inposizio zagok hor? Ezta puntuatzeko ere. Beste hizkuntzen pare ere ez. (...) Nik uste inposizio bakarra beraiena dela. Ia ezinezkoa dek euskaraz bizitzea hemen. (11_Elkarriketa; E4).
- (149) Asimilazioa dek horiek [PPK] euskaldunei egiten dien eskaintza. Haiek ez ziek euskaldunei hitz egiten. Ez diat uste euskaldunei hizketan ari direnik. Iruditzen zaidak euskaldunek erdaldunei hitz egin beharra dugula boto gehienak hor daudelako eta abar. (24_Elkarriketa; E3).

Ikusten den moduan, hasi ezkerretik eta eskuineko alderdietaraino, bere egiten dute mito modernoa espainiar alderdi guztiek, alegia, ontzat ematen dute nazioaren gaineko dibisio etniko/zibikoa. Behin hau esanda, euskararen inguruan duten jarrera ez da berdina ezkerreko eta eskuineko alderdien artean. Elkarrizketatuek aipatu dute espainiar ezkerreko alderdiek eskuinekoek baino jarrera abegikorragoa dutela. Dikotomia onartu arren, euskal kulturaren iraupenerako neurri batzuk hartzearen alde egon direla. Are gehiago, elkarrizketatu batzuek zalantza egin dute Podemosek euskararen inguruan EAJk baino jarrera abegikorragoa izan ez ote duen.

- (150) Pentsatzen dut ETAk armak utzi zituenetik, eta beste giro politiko bat daukagunetik, PSOE eta Podemos erakartzeko ere aukera izango dela. Adibidez, PSOEko hautetsiek esango dutelako orain euskal presoak ekartzearen alde egon daitezkeela, ez? Eta pentsatzen dut neurri berean euskararen alde ere gertatu daitekeela horrelako zerbaite. Baina PP ez dut ikusten beraien posizioa aldatzen. (27_Elkarriketa; E4).
- (151) A ver, PSEko euskaldunek beti jokatu izan dute paper oso inportantea (...) Neri gustatuko litzaidake PPrene barrenean horrelako jarrerak balira. (29_Elkarriketa; D8).
- (152) Alderdi Popularra nire ustez erabileraren kontra dago. Eta alderdi sozialista, lehen esan dudan moduan, diskurtsoa segun non eta norekin eta noren aurrean baina denetik entzun dugu eta gauza batzuk oso larriak. (28_Elkarriketa; H8).
- (153) EAJk nire ustez euskararen aldeko diskurtsoa du baina gero administrazioetan eta hori diskurtso hori askotan ez da egia bihurtzen. Eta Podemos ez da euskararen kontrako diskurtsoa. Euskararen aldeko diskurtsoa ere, ez dakit. Askatasunaren aldeko diskurtsoa edo bakoitzak hitz egin dezala nahi duena... Ez da kontrakoa, baina aldekoa ezta ere. (28_Elkarriketa; H8).
- (154) Gehien erabiltzen dutenak ezker abertzalea, lehen postuan jarriko nuke. (...) EAJ eta Podemosen artean ez dakit zein jarriko nukeen bigarren. Bueno jarriko dut EAJ. Bigarren postuan Euskal Alderdi Jeltzalea jarriko dut. Hirugarren postuan, Podemos, nire ustez beti erakusten dutelako sentsibilitatea dutela holako errealitatearekiko. Nahiz eta abertzaleak ez diren sentsibilitatea daukatelako. Eta beti hitz egiten dutelako Espainiari buruz Estatu plurinazional bat bezala eta abar. (31_Elkarriketa; E8).

Gainerakoan, elkarrizketatuek aipatu dute oraindik zenbait alderdik hizkuntzaren auzia lotzen duela ETA erakundearen jardun armatuarekin, betiere, hizkuntzaren normalizazioa oztopatzeko. Hala ere, elkarrizketatuek azpimarratu dute diskurtso honek gero eta eraginkortasun txikiagoa duela.

- (155) Oraindik ETA eta ez zekiat zer. Biolentoak, terroristak... segitzea nahi ditek horrekin. Argumentuak gero eta gutxiago zeuzkatek eta ari zizkobek amaitzen. Orain egiten diabena dek ikurriñaren kontra, baten edo bestearen kontra. Baina beti beraiek inbentatzen dute hortik erasotzea. Beraien aukera bakarria hori duk eta intentatzen dute aprobetxatzea. Hortik jokatzea. (11_Elkarriketa; E4).

Laburbilduz, mito modernista gainditu ezean euskararen inposizioaren inguruan hitz egiteko bidea zabaltzen da hiritartasunaren gerizpe gozotik. Elkarrizketatuen artean aipatu da espainiar alderdi politikoak nazioaren gaineko mito modernoa bere egiten dutela. Horrek eragiten du euskal nazioaren pitzadura kultural eta politikoa areagotzea. Politikaren ikuspegitik, ez dute onartzen euskal nazioaren autodeterminazioa. Aldiz, gaztelaniaren nahitaezko ezagutza eta erabilera hegemonikoa begi onez ikusteaz gain, inposizioa aipatzen dute euskararen normalizaziorako urratsak egiten diren kasuetan. Alabaina, elkarrizketatuek aipatu dute espainiar alderdi guztiek ez dutela euskal nazioaren asimilazioaren aurrean jarrera berdina: ezkerreko espainiar alderdiei jarrera abegikorragoa aitortzen diete euskararen inguruan eskuinekoei baino.

7.1.4 Hausnarketa euskal saretze bertikalaren inguruan

Kapitulu hau saretze bertikalaren ideiaz baliatu da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren azterketan sakontzeko. Alde horretatik, atal teorikoan ikusi da clivajea osatzeko hiru sistema desberdinen artean gainezartzea gertatu behar dela (sistema sozialaren, sistema normatiboaren eta sistema organizatiboaren artean). Euskal saretze bertikalaren kasuan, honako elementu hauek aztertu dira sistema horiek aztertzeko: euskal hiztun elkarteak, euskal nazionalismoa eta euskal erakundetzea.

Sistema sozialari dagokionez, elkarrizketatuen artean ikusi da euskal hiztun elkartearen errealitateak ez duela zerikusirik hiztun elkartearen inguruko ikuspegi prototipikoarekin. Edonola ere, azken hori ondo etorri da ukipen egoeran dagoen euskal hiztun elkartearen elebitasun egoera ulertzeko. Euskal hiztun elkarteak gaztelar hiztun elkartearekin bizi duen harreman gatazkatsuak eragin du historikoki goi klaseak bizkar eman izana euskarari prestigio gehien duten funtzioetan, hala nola: administrazioan, hezkuntzan edota idatzizko jardueretan. Diglosiaren ondorio izan da euskal hiztun elkarteak mendeetan izan duen atzerakada eta asimilazioa. Denborarekin, hizkuntza ordezkapena gertatu da herri xehearen baitan egunerokotasunean ezinbestekoak diren funtzioetan. Prozesu horrek XX. mendean hartzen dituen ezaugarriak ulertzeko bi aldagai izan behar dira kontuan: errepresioa eta immigrazioa. Euskararen gaineko jazarpenak eta erdal hiztunen etorrera masiboak ezinezko egin du erdal hiztun elkartearen euskalduntzea. Aitzitik, alderantzizkoa gertatu da: euskal hiztun elkartearen erabateko erdalduntzea. Frankismoa arduratu zen azken euskal elebakarrak erdalduntzeaz. Harrezkerotik, euskal hiztun elkarteak, gutxienez, elebiduna da Hego

Euskal Herrian. 1960ko hamarkadatik hona euskal suspertzea gertatu den arren, oraindik urrun dago euskararen normalizazioa.

Horregatik, urte luzez euskarak eremu jakin batzuetan baino ez du lortu du bizirik irautea, gehienetan, jarduera soziofuntzional jakin batzuei lotuta. Hala ere, autonomiaren aroan, bereziki goi mailako beste espazio batzuetara iristeko ahalmena izan du euskarak. Egun, oso nahasia da euskararen egoera. Goi mailako zenbait funtziotan bere lekua egin badu ere, galtzen ari da diglosia egoera mantentzen duten azken zonaldeak, hau da, arnasmuneak. Laburbilduz, goi jardueretan ez da nagusitzen euskara eta urtzen ari da oinarria. Arnasmuneak kenduta, Euskal Herrian elebitasuna da nagusi, eta “euskal hiztun elkartearen jardunak ez dauka konpartimentazio sendorik: ez perspektiba territorialean eta ez, bereziki, diglosiaren definizio gehien-gehienek hain noraezekoa duten osaera soziofuntzionalen” (Zalbide, 2011, 99. or.).

Gauzak horrela, mendeko egora horren logikan ulertu behar da elkarrizketatuek euskal hiztun elkartearekin duten atxikimendua. Elkarrizketatuen artean modu desberdinetako identifikazio ereduak agertu dira euskal hiztun elkartearekiko. Batean daude euskal hiztun elkartearekin erabateko identifikazioa dutenak. Horiek, gaztelania ezagutza dute baina ez dute euskararekin duten harreman afektibo bera. Beste aldean, beren burua hein handi batean erdal hiztun elkartearen parte ere badirela ikusten duten elkarrizketatuak daude. Erdal hiztun elkartearen esatean ez da kontzeptua mugatu behar gaztelar hiztun elkartera, euskal hiztun elkartearen ez den besteren batera baizik. Izan ere, elkarrizketatuen artean badira kasuak atxikimendu nagusia euskal edo gaztelar hiztun elkartearen ez den beste hiztun elkarteren batekin dutenak. Bi kasu horien artean daude beren buruak bi hiztun elkartetan ikusten dituztenak. Identifikazio sentimendu horiek aztertzean ikusi da elkarrizketatuak egunero erabiltzen duen hizkuntzak edota familian transmititzen denak berebiziko eragina duela hiztun elkartearekiko harremana sendotzeko orduan, hiztunen hizkuntza ideologiak izan dezakeen eraginarekin batera.

Ildo horretatik, zera aztertu da: zer joera soziolinguistiko dituzten euskal hiztun elkartearen parte diren elkarrizketatuek euskararen ezagutzaren, transmisioaren eta erabileraren inguruan. Alde horretatik, elkarrizketatuen artean ikusi da guztiak euskal hiztun elkarrekoak izan arren, errealitate linguistiko oso desberdinak bizi dituztela. Hala, elkarrizketatuen bizipenetan ikusi da euskara erabiltzeko duten joera, besteak beste, euren hizkuntza gaitasunak eta inguruan dituzten harreman sareek baldintzatzen dutela. Edonola ere, aldagai horiek ez dira determinanteak. Aitzitik, elkarrizketatuen bizipenek erakutsi dute praktika linguistikoan hizkuntzaren inguruan dituzten jarrerak eragina dutela. Alegia, posible da arnasmunean bizi den eta euskaraz hizkuntza gaitasun erlatibo

altuagoa duen norbaitek gazteleraz aritzeko joera izatea, eta alderantziz, udalerrri ez euskaldunetako elebidun orekatu batek, euskaraz aritzeko berebiziko ahalegina egitea motibazio identitario edo soziala duelako. Honakoa da hortik ateratzen den ondorio nagusia: euskal hiztun elkartearen gaineko azterketari ikuspegi dinamikotik begiraturaz gero, erdigunetik gero eta gertuago daude euskara gaitasuna izateaz gain, egunero erabiltzeko eta transmititzeko borondatea erakusten dutenak.

Sistema normatiboari dagokionez, euskal nazionalismoaren inguruko azterketa egin da bigarren dimentsioaren ezaugarriak zein diren ezagutzeko. Elkarrizketatuek euskalduntasunaren inguruan dituzten pertzepzioak jaso ostean ikusi da akademian nagusi den perspektiba dikotomikotik harago –alemaniar/frantziar nazioa–, zenbait elkarrizketatuek euskalduntasuna osotasun gisa ulertzen duela, alegia, txanpon beraren bi aldeak direla azpimarratu dute nazioaren izaera kulturala eta politikoa. Horrek guztiak eragin du ikerketa honek naziotasunaren eztabaida beste perspektiba batetik aztertzea, begirada modernoa zalantzan jartzeraino. Kasu honetan, nazio klasikoaren ideiatik abiatuz heldu zaio gaiari eta nazio zapalduen begiradatik interpretatu dira elkarrizketatuek aipatu dituzten pitzadura kultural/politikoak.

Alde horretatik, elkarrizketatuek esan dituztenak aztertzean ikusi da nazioa natural dagoen lekuetan oraindik euskalduntasun kultural/politiko osotasun gisa ulertzen dela. Era berean, elkarrizketatu horien iruditerian ikusi da honako ideia dagoela iltzatua: jazarpen handia sufritu du euskal nazioak. Hala, elkarrizketatuek behin eta berriz aipatu dute estaturik ez izatearen kontua. Aipatu dute estatu gabeko nazio izateak bi ondorio kaltegarri izan dituela: batetik, administrazio arrotzek euskal nazioaren baitan ipar eta hegoaren arteko bereizketa eragitea; eta bigarrenik, estatugintza erregionalak euskal kulturagintza indartu beharrean, espainiartasun erregionalistarekin bateragarria den euskaltasun etnikoa indartzen duela. Egoera horren aurrean elkarrizketatu multzo batek aipatu du euskaldun gisa Espainian bizitzeko eragozpenik ez dutela. Alabaina, beste batzuek aipatu dute ezin dutela beren proiektu politikoa askatasunez garatu.

Horrek guztiak bigarren gai bat lantzerantz eramanez du ikerketa: naziotasuna zedarrizterakoan hizkuntzak eta estatugintzak izan behar duten harremana. Alde horretatik, bi hurbilpen bereizi dira: kulturala eta politikoa. Aurrengoaren arabera, hizkuntza da naziotasuna zedarrizteko enborreko aldagaia. Are gehiago, hurbilpen honen ezaugarri nagusia da nazioa politikoa baino lehen kulturala dela aldarrikatzen duela. Ondorioz, euskal estatugintza prozesuaren erdigunean jartzen du hizkuntzaren auzia. Begirada honen muga nagusia da euskara hizkuntza gutxitua izanik, politikoki zailtasunak dituela prozesu independentistaren alde engaiatzeko gizaratearen gehiengoa.

Aldiz, hurbilpen politikoa abiatzen da esfera politikotik. Hori dela eta, naziotasuna zedarritzerakoan kultura pasatzen da elementu aurre-politikoa izatetik, auzi politikoa izatera. Ondorioz, ikuspegi honetatik naziotasuna zedarritzerakoan ulertzen da auzi soziala eta nazionala eskutik helduta doazela. Kasu honetan, hurbilpen politikoa ahulgune nagusia da euskal alteritate epistemikoa ezerezean gelditzeko arriskua dagoela.

Sistema organizatiboaren izaera ulertzeko berebiziko garrantzia du orain arte ikusitakoak. Izan ere, euskal nazioaren inguruko pertzepzio eta iritzi horien gainean antolatu da euskal erakundetze prozesua. Azken horri dagokionez, elkarrizketatuen bizipenak jaso ostean ondorioztatu da euskal erakundetzeak estatu-nazio espainiarraren matrize espazial/tenporala gainditzen duen kasuetan prozesu gatazkatsua bihurtzen dela. Alde horretatik, elkarrizketatuek azpimarratu dute euskal nazioa mendekoa izateak eragin duela euskal estatugintza akeztua izatea. Horrela, prozesu desberdinak bizi behar izan ditu aldi berean: batetik, espainiar estatugintzaren aldetik asimilazioa; eta bestetik, herrigintzatik sustatutako nazio erakundetze propioa. Borroka horren fruitua/kondena izan zen 1978ko erregimenarekin finkatu zen Autonomia Estatutua. Elkarrizketatuek aipatu dute Frankismoko garaiekin alderatuta euskalgintzarako aukera berriak zabaldu zituela aro honek, baina azken horrek bere ajea ere baduela: sistema autonomikoa nazioaren ideia modernoan oinarritzen dela, eta ondorioz, euskal estatugintzak mugak dituela. Horrek praktikan eragiten du euskal estatugintza egiterakoan euskal nazioaren baitan bertan kontraesan eta iritzi aniztasuna egotea. Fenomeno horren adibide gisa aztertu da hezkuntza sistemaren inguruan ikastolekin gertatutakoa. Honek guztiak erakusten du euskal nazio zapalduak euskal erakundetzea pentsatu behar duela espainiar nazioak ezartzen dituen kategorien logikatik kanpo, baldin eta, bere egoerari erantzun osoa eskaini nahi badio.

Alderdi politikoak erakunde nazionalak dira, sistema politikoan gizatalde desberdinak ordezkatzeko xedea dutenak. Alde horretatik, bi jatorri nazional desberdineko alderdiek lortzen dute ordezkaritza Hego Euskal Herrian: euskaldunak eta espainiarrak. Elkarrizketatuek aipatu dute hizkuntzaren eta nazioaren auziari biek ala biek posizio desberdinetatik erreparatzen diotela. Euskal alderdi politikoak nazioaren zatiketa kultural/politikoan korapilatuta dabiltzan bitartean, espainiar alderdi politikoek euskal auziaren inguruan dihardute, baina hiritartasunak eskaintzen duen gerizpe gozotik. Edonola ere, espainiar alderdien inguruan aritzerakoan, elkarrizketatuek aipatu dute jarrera desberdina dutela ezkerreko eta eskuineko alderdiek. Alde horretatik, biek ala biek, mito moderno bere egin arren, elkarrizketatuek azpimarratu dutena da

eskuindarrek euskal nazio etnikoaren asimilazio erabatekoa bilatzen duten bitartean, espainiar ezkerrek jarrera abegikorragoa duela euskal kulturarekin.

7.2. Zergatik bozkaten diete euskal hiztunek euskal alderdiei?

Euskal saretze bertikalak elkarrizketatuen portaera elektoralean duen eragina aztertzea da azpikapitulu honen helburua. Horretarako, ezinbestekoa da euskal saretze bertikalaren baitan agertu diren pitzadura kultural eta politikoak kontuan izatea. Atal teorikoan ikusi da eredu idealaren arabera saretze bertikalak hauteslearen portaera determinatu behar duela dimentsio nazionalean –hala dio Belgikar ereduak–. Alabaina, saretze horrek zenbat eta pitzadura sakonagoak izan, orduan eta handiagoa da boto emaleen artean gertatzen diren deslerrokatzeak. Horregatik aztertzen da jarraian portaerazko deslerrokatzearen eta euskal saretze bertikalak bizi duen pitzadura politiko/kulturalaren harremana.

Atal teorikoan ikusi den moduan, mito modernoa da pitzadura horren oinarrian dagoen aldagaia. Beste modu batera esanda, mito modernoa da menderakuntza kognitiboa legitimatzen duen kontakizuna. Horregatik, komenigarria da gogorapen batzuk egitea bere inguruan. Lan honen laugarren atalean ikusi da Espainiar estatuko hauteskundeetan hautesle izateko baldintza batzuk bete behar direla. Baldintza horietako bi dira espainiar hiritarra izatea eta boto eskubidea ez murriztuta edukitzea. Hautesle eroldaren parte dira aldagai horiek betetzen dituztenak. Alabaina, aurreko azpikapitulu (7.1 atala) ikusi da hautesle horietako asko ez direla espainiar sentitzen. Edonola ere, hiritartasun espainiarra dute, eta beraz, hauteskundeetan parte hartzeko aukera ere bai. Elkarrizketatuen kasuan, euskal alderdiei bozkatu dieten neurrian parte hartu dute hauteskundeetan. Honakoa da mito modernoari dagokionez lan honetan interesatzen dena: nola bizi dute desfase nazional hori elkarrizketatuek, hau da, euskal naziotasuna sentitu eta espainiar hiritar gisa botoa ematea? Zein da mendeko egoera horretan beren botoari eman dioten zentzua?

Galdera horiek erantzuteko azpikapitulu hau banatu da beste hiru puntutan. Hasteko eta behin, elkarrizketatuak hauteskunde autonomikoen izaera erregionalaren inguruan esandakoak jasotzen dira. Bigarren atalean, berriz, elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzua aztertzen da hurbilpen soziologikoak eskaintzen dituen tresna

teorikoetan oinarrituta. Hirugarren atalean, analisiaren hari eroalea da hautesleen ezaugarri soziodemografiko eta ideologikoez euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean duten eragina aztertzea. Horrela, azken helburua da euskal hiztunek alderdi abertzaleei bozkatzeko duten joeraren inguruan eredu idealak eraikitzea.

7.2.1. Hauteskunde autonomikoak: Espainiar estatu-nazioa erreproduzitzen duen erritua


Hauteskundeak erritu mota bat dira.¹⁶¹ Ondorioz, ezinbestekoa da euskal lerrokatze linguistikoa ulertu nahi bada errituaren azterketarako oinarritzko eduki batzuk aurkeztea. Lan honetan bi autore klasiko hauen ekarpen teorikoak baliatzen dira hauteskunde autonomikoen inguruko hurbilketa egiteko: Malinowski eta Durkheim.

Malinowskiren (1995 [1948]) oinarritzko hipotesia da erritua eta mitoa txirikordatu egiten direla.¹⁶² Beraz, honakoa da aurrera jarraitu aurretik argitu beharreko galdera: zein da espainiar hauteskunde autonomikoen oinarrian dagoen mitoa? Malinowskiren kategoriak erabiliz lan honetan uste da *espainiar tribuaren ipuin sakratua* dela nazio politikoaren inguruko kontakizun modernoa, hain zuzen ere, 1978ko Espainiar Konstituzioak jasotzen duena. Horrela, hautesleak botoa ematen duenean mito modernistan oinarritzen den espainiar nazio politikoaren ideari ari zaio gurtza egiten. Jarraian ahalegina egiten da lan honetan hobetsi den begirada argitzeko eta bide batez akademian errituen inguruan erabili ohi diren kategorietatik abiatuz lan honen posizioa justifikatzeko.

¹⁶¹ Ikerketa elektoralak zedarrizterakoan ikertzaile gehienek ez dute aintzat hartzen hauteskundearen erritu izaera. Begirada hau landu beharrean fenomenoak kuantifikatzeari garrantzia gehiago ematen diote. Ezaguna den moduan urak aspalditik datoz. Horren atzean arrazoi desberdinak daude. Alabaina, horietako bat da pentsamendu modernoak bere garaian ezarri zuen dikotomia: soziologia –gizarte aurreratuak– eta antropologia –gizarte primitiboak–. Europa Mendebaldeko antropologoak urteetan joan izan dira afrikar nahiz melanesiar kulturak aztertzerako. Hamarkadak pasa dira jabetzerako Europar Mendebaldean ere badirela errituak antropologiaren begietatik aztertzeko interesgarri direnak. Edonola ere, oraindik kostatu egiten da ulertzea demokrazia liberalaren zutabe diren hauteskundeek uste baino antzekotasun gehiago dituztela Ndembu gizarteak bizitza antolatzeke dituen errituekin. Peñak (1995, 23. or.) dioen moduan: “tanto las elecciones como las campañas políticas casi nunca se han mirado desde un punto de vista etnográfico, como rituales cíclicos que poseen una dimensión significativa en la vida nacional, en cuanto que contribuyen a organizar, reproducir y/o construir imágenes colectivas dirigidas hacia la legitimidad e identidad del sistema sociocultural y político”. Ikusten den moduan, Peñak aipatzen du hauteskundeek bizitza nazionalaren inguruko dimentsio desberdinak antolatu eta eraikitzeke balio dutela. Gauzak horrela, zer gertatzen da hauteskundeetan parte hartzerako erdi behartuta dauden eta hauteskunde nazionalik ez duten estatu gabeko nazio-kideekin?

¹⁶² Malinowskiren (1995, 118. or.) arabera txanpon beraren bi alde dira “alde batetik, mythos-a, tribu baten ipuin sakratuak eta, beste aldetik, tribu horren errito egintzak, egintza moralak, gizarte antolaketa eta jarduerak praktikakoak ere”.

76. irudia: Hauteskunde autonomikoetan erreproduzitzen den gurpil zorua.



Iturria: Egilea.

Durkheimek 1912an idatzitako *Las formas elementales de la vida religiosa* lanean aipatzen da sistema erlijioso batek honako elementu hauek barne bildu behar dituela: batetik, sakratuaren inguruko sinismen eta praktika multzoa; eta bestetik, azken horiek bere egiten dituen talde sozial artikulatua, hau da, eliza (administrazioa, predikatzailak eta jarraitzaileak).¹⁶³ Sistema erlijiosoak bi zatitan banatzen du unibertsoa: sakratua eta profanoa. Alde horretatik, errituen bidez lortzen da aldian behin sakratuaren inguruko sinismen eta praktikak zaharberritzea. Elementu horiek ikerketa honen parametrotan gorpuztuz gero ondorioztatzen da 1978ko Espainiar Konstituzioa dela espainiar tribuaren sinbolo gorena. Dokumentu horrek bereizten ditu mundu sakratua (espainiar nazio politikoa) eta gainerakoa, profanoa (adibidez, KAS alternatiba). Bibliarekin predikatzailak egiten duten moduan, sinismen eta praktika multzo hori erreproduzitzeaz arduratzen dira botere politikoak, alderdi hegemonikoak eta beren inguruan dabilzan pentsalariak. Horrela, elizaren papera estatuak betetzen duen bitartean hauteskundeetan botoa ematera joaten direnek osatzen dute sinestun praktikanteen komunitatea. Behin hori esanda, ikuspegi funtzionalista batetik erritu batek bi eginkizun ditu: batetik, komunitate barruko tentsioak orekatzea (hauteskunde autonomikoen kasuan, adibidez, kaleko gatazka sozialak instituzionalizatzea edota zentro/periferia ardatzean artikulatzen diren gatazkak erregulatzeko alde desberdinei ahotza eta boterea eskaintzea); eta bestetik, erritu horretan parte hartzen duten norbanakoen batasun morala erreproduzitzea (nazio politikoarekiko atxikimendua sustatzea). Beraz, nazio aldagaiari dagokionez hauteskunde autonomikoek betetzen duten eginkizuna da Estatu bateko gatazka nazionalak logika etno-erregionaletara bihurtzea, eta horrela, espainiar hiritarren batasun nazionala erreproduzitzea.

Espainiar nazio politikoaren sakratutasunean sinesten duten hautesle fededunentzat ez dago kontraesanik beren fede politiko-nazionalaren eta hauteskunde autonomikoetan

¹⁶³ Honatx Durkheim (1982 [1912], 42. or.) beraren hitzak: “Llegamos pues a la definición siguiente: Una religión es un sistema solidario de creencias y de prácticas relativas a las cosas sagradas, es decir, separadas, interdictivas, creencias y prácticas que unen en una misma comunidad moral, llamada Iglesia, a todos aquellos que se adhieren a ellas”.

parte hartzeak erreproduzitzen dituen gizarte antolaketaren artean. Hautesle batzuek, adibidez, gobernu ezkertiarra goa nahiko duten bitartean, besteek, aldarrikatuko dute erakundeetatik sinesmen eskuindarragoak erreproduzitzea. Era berean, batzuek aldarrikatuko dute zentralizazioa, besteek, berriz, deszentralizazioa. Edonola ere, horiek guztiek oinarrian dagoen espainiar nazio politikoaren batasuna ez dute zalantzan jartzen. Hauteskundeetan, tentsioak orekatzen dira epe baterako komunitatearen morala adostuz (hau da, gobernu aldaketak eta proiektu politiko desberdinak). Ikusten den moduan, ordea, Durkheimek proposatzen duen errituen inguruko marko funtzionalistak (ordena eta oreka ardatz duenak) ikertzaileari eskaintzen dion alternatiba da errituen ikuspegitik nazio auzia erreakzio etno-erregional gisa interpretatzea. Alabaina, zer gertatzen da espainiar nazioaren parte izan nahi ez duen baina hiritartasun espainiarra inposatuta duen hauteslearekin?¹⁶⁴ Nola ulertu azken horiek erritu honen inguruan dituzten bizipenak? Kontraesan hori sentitu dutenen jarrera ulertzeko ezinbestekoa da beste behin nazio zapaldu izateak eragiten duen pitzadura kultural/politiko aintzat hartzea. Are gehiago, errituaren gaineko analisisa egiterakoan gatazkaren teoriatik eta “ez-mundua” bezala definitu den posiziotik abiatzea.

83. taula: Hiritartasun inposatua duten hautesle euskaldunen kasua.

ERRITUAN PARTE HARTU?	ARRAZOIA	ALBO KALTEA
EZ	Ez dute ontzat ikusten Espainiar nazio politikoaren mito. Alde horretatik, hobesten duten jarrera da errituan parte ez hartzea. Izan ere, parte hartzeak suposatzen du mito horretan artikulatzen den gizarte antolaketa legitimatzea.	Esfera politiko hegemonikotik desagertzea.
BAI	Espazio politiko hegemonikoan salatu nahi dute euskal nazioak bizi duen zatiketa kultural/politiko. Asmoa da zatiketa josten joatea espazio politiko hegemonikoan erdietsitako boterearekin.	Sistema arrotzaren arauetara makurtzean zeharka legitimazioa irabazten du espainiar nazio politikoaren ideiak.

Iturria: Egilea

Euskaldunek bizi duten zapalkuntza egoerak zera dakar: sistema politiko arrotzen artean zatituta egonik, bere hauteskunde propiorik ez izatea. Euskal hauteskunde nazionalen faltan, euskalduna kondenatuta dago munduaren eskema hegemonikoetara bihur-murriztera bere mundu ikuskera. Hala, hauteskunde autonomikoetan parte hartzea erabakitzen duen hautesleak bere egiten du euskal nazioaren gaineko dikotomia etniko/zibikoa. Alabaina, nazio zapalduaren perspektibatik ulertzen da portaera hori borondateak baino gehiago halabeharrak eragindako egoera dela.

¹⁶⁴ Atal honen premiarik ez litzateke egongo zenbait elkarrizketatuk kontraesan hori sentitu ez balute beren portaera azaltzekoan. Gainerako kasuan nahikoa da azterketa abiatzea 7.2.2 ataletik.

Kasu horretan, elkarrizketatuek hauteskundeetan parte hartzea erabakitzen badute ezinbestekoa da errituaren beste elementu bat kontuan izatea: izaera eraldatzailea. Ikuspegi horretatik ulertzen da hautesle euskaldunek erritu horretan parte hartzen badute bestelako mitologia batekin identifikatzen direlako dela, hau da, euskal pitzadura kultural/politikoak josteko ahalegina legitimatzen duen kontakizunarekin. Horregatik, lan honetan azpimarratu nahi da hainbat pentsalarik aipatu duten moduan errituaren oinarritzko kontakizuna eraldatuz –hau da, beste mito batengatik ordezkaturaz– erritua bera errealitate alternatiboak erreproduzitzera iritsi daitekeela. Beste modu batera esanda, hauteskunde autonomikoak espainiar nazio politikoa erreproduzitu beharrean, euskal eraikuntza nazionalerako abiapuntua izan daitezkeela. Errituaren eta mitoaren gaineko zeinu aldaketa da kasu honetan kontuan hartu beharrekoa.

7.2.1.1. Estaturik ezean nazio mailako hauteskunderik ez

Espainiar Estatuan hauteskundeak bi modutara sailkatzen dira lurraldearen ikuspuntutik: batetik, estatu-nazioa osotasunean kontuan hartzen dutenak (orokorrak eta europarrak); eta bestetik, bere deribatuak (autonomikoak edota udalerrri mailakoak). Lan honetan Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoak aztergai izan arren, uste da hoberena dela bere inguruko analisia Espainiako hauteskunde orokorretatik abiatzea. Izan ere, hauteskunde orokorrak dira espainiar nazio politikoaren borondatea jasotzen duen erritu nagusia. Bertan erabakitzen da zeintzuk izango diren politika nazionala deitzen denaren aktore nagusiak eta zein izango den bakoitzaren pisu elektoralak. Gainerakoak bere deribatuak dira, besteak beste, EAEko eta NFEko hauteskundeak. Hauteskunde orokorrak, beraz, nazio politikoa erreproduzitzen duen neurrian, espainiar hauteskunde nazionalak izango liriteke. Alabaina, elkarrizketatu batek ñabardura bat egiten du horren aurrean.

(156) Eske hauteskunde nazionalak espainiarrei ere ez nieke deituko. (...). Guk ez ditugu hauteskunde nazionalak eta espainiarrak dituzte plusnazionalak. (20_Elkarrizketa; G4).

Elkarrizketatu honek bezala, besteek ere ez dute uste erabat zuzena denik hauteskunde nazionalaren kategoria. Espainiar hauteskunde orokorrak nazioaren ideia modernoaren arabera antolatu izanak eragiten du txanpon beraren bi aurpegi izatea honako bi gertakariak: espainiar nazioaren batasuna eta euskal nazioaren asimilazioa. Beste hitz batzuetan esanda, euskal nazio politikoaren ukapenean oinarritzen da espainiar nazio politikoaren existentzia. Alde horretatik, estatu-nazioa da euskal nazioaren mendeko egoera objektibatzen duen erakundea.

(157) Euskaldunok ez dauzkagu hauteskunde nazionalik. Nazionalak izango ziren Pirinio alde bietako hauteskundeak. Baina ez daude. (...) Munizipalak ditugun bezala, badauzkagu Erkidegoko

hauteskundeak eta Nafarroako hauteskundeak. Eta gero Iparraldean, departamentutan dauzkatenak. Frantzia estatu zentralista da, eta dituzten hauteskundeak dituzte. (32_Elkarrizketa; E6).

- (158)[Hauteskunde nazionalen baliokidea] Niretzat erkidegoa da baina berriro, ez du Euskal lurralde osoa kontuan hartzen. Ze Nafarroa falta da eta Ipar Euskal Herria ere bai. Orduan, ezta ere, ez naiz sentitzen guztiz identifikatua hauteskunde horiekin. (...) Euroeskualdeko hauteskundeak egiten badira horiek. Baina hori, ez dakit Nafarroa batu datekeen EAera, eta gero, Iparraldea elkartu. Orduan izango litzateke. (27_Elkarrizketa; E4).

Elkarrizketatuen artean ikusten da kosta egiten zaiela euren buruak hegemoniko diren markoetan kokatzea. Ez dago euren neurrira egindako hauteskunderik. Horregatik ez dira guztiz identifikatuta sentitzen hauteskunde autonomikoekin. EAeko elkarrizketatuak, esaterako, aipatzen du hauteskunde nazionalak izateko beste bi lurralde eranstea falta dela: Ipar Euskal Herria eta NFEa. Egun, hauteskunde nazionala izan beharrean, bi hauteskunde erregional ditu euskaldunak (Ipar Euskal Herrian ezta hori ere). Estatu-nazioan oinarritzen den marko juridikoak ezinezkoa egiten du euskal hauteskunde nazionalak ospatzea. Estatu matrize moduan ez duen mundu antolaketak ez du onartzen horrelakorik (profanoa da aipatutakoa). Alde horretatik, euroeskualdeko hauteskundeak antolatzeko ezinak erakusten du proiektu europarraren zimenduak estatu propioa duten nazio hegemonikoetan funtsatzen direla. Euskal nazioak Estatu-nazioa lortu ez duenez, beste nazio batzuen menpean jarraitzen du.

Horren aurrean, zenbait elkarrizketatuk hauteskunde erregionalak abiapuntu bezala ikusten dituzte biharko euskal proiektu politikoa eraikitzeko. Egun utopia da proiektu hori.

- (159)Euskaldun asko daude beste leku batzuetan hiru probintziatik kanpo. (...) Azken finean da, ez dakit, EAE gauza bat da, baina euskal hitza da zabalik dagoen proiektu politiko identitario bat atea zabalik duena Nafarroa eta Iparraldea batzeko. Azken batean Euskal Herria izango litzatekeena eta hori guztia. (6_Elkarrizketa; A2).

Era berean, ordea, menderakuntzak uzten dituen aztarnak agertzen dira beste elkarrizketatu batzuen adierazpenetan. Errituak erreproduzitzen duen desfase kultural/politikoa halabeharrez onartzeko joera ikusten baita, nahiz eta besteek ezarritako kategoriak guztiz onartu ez.

- (160)Pues Nafarroakoak nire kasuan izango lirateke [erreferentziatzko hauteskundeak]. Hombre niri asko axola zait ere zer gertatzen den EAEn eta beti egoten naiz atenta a ver zer gertatzen den eta nor irabazten duen. (1_Elkarrizketa; A2).

Administrazio mailako eskema mentalak nagusitzeak euskal eta nafar kategorien bereizketa sendotzea ekarri du Hego Euskal Herrian. Iparraldeko egoera oraindik eta kezkarriagoa dela adierazi dute elkarrizketatuek. Sistema elektoral desberdina dutenez, Hegoaldeak ezagutza apala du Iparraldeko egoera sozial eta elektoralaren inguruan. Horrek eragiten du hobeto ezagutzea Andaluziako sistema elektoral Iparraldekoa baino. Ildo horretatik, administrazio banaketa dela eta, zenbait

elkarrizketatuk arriskua ikusten dute zentro erregionalak indartzeko. Errezeloa dute euskaldunen politika euskal/nafar/iparralde esparru erregional horietako batera bihurtzeko joera ote dagoen. Auzi horrekin erabat lotuta daude Uxue Barkos eta Iñigo Urkullu lehendakariaren inguruan agertu diren adierazpenak.

(161) Nik garbi diat Urkullu euskaldun zati baten lehendakari dela. Hori garbi diat. Bukaeran zatiketa batek min handia egiten ziguk. Eta orduan, politikariak ari dituk Nafarroa edo EAEn inguruan hitz egiten eta diskurtso desberdinak ari dituk. (...) Urkullugatik hitz egitea, EAEn inguruan eta hango politikaz hitz egitea dek. Esaten diatena, zaila duk eta Iparraldea neuri ere ahaztu egiten zaiak. Bukaeran EAE eta Nafarroaz hitz egiten amaitzen diat eta neuretzat ere Iparraldea gogoan hartzea zaila duk. (11_Elkarrizketa; E4).

(162) Eta nik diodanean lehendakariak hau esan du, ni nenbilen Urkullugatik. Eta berak esan etzan Euskal Herrian bi lehendakari daude. Klara hori logikoa ere bada. (...) Niretzako bat izan beharko zuen denontzako, baina egoerak ez du lagatzen, egoera politiko administratiboak. Baina niretzako bai dauka lehendakari titulua NFEko presidentek. (23_Elkarrizketa; E1).

Lehendakariaren gaineko auziak erakusten du mundu ikuskera desberdinek talka egiten dutela: EAE (3 lurralde) eta Euskadi/Euskal Herria (7 lurralde). Aitzitik, EAEn Estatutuan hiru lurraldeei Euskadi deitzen zaie. Alabaina, azken hori historikoki erabili izan da 7 lurralde barne biltzen dituen proiektu politikoa adierazteko. Beste horrenbeste gertatzen da Nafarroarekin. Honek guztiak erakusten du *euskal* kategoria prozesu gatazkatsu luze baten emaitza dela. Hauteskunderi dagokienez, kontua da hegoaldean nazio espainiarra dela errituaren gaineko monopolioa duena eta horrek eragiten du euskal proiektua subordinatzea espainiar nazio politikoari. Orain arte ikusitako guztia kontuan izanik, erritu arrotz batean parte hartzearen inguruan elkarrizketatuek dituzten iritziak eta bizipenak jasotzen dira jaraian.

7.2.1.2. Hiritartasun espainiarra, euskal naziotasuna eta parte hartzea

1978an sartu zen indarrean Espainiako Konstituzioa. Dokumentu horretan zehazten da Espainiako Estatu demokratikoa eta soziala izateaz gain, Autonomia Erkidegoetan egituratzen dela. Erakunde horietako batzuei izaera berezia aitortu zitzaion, tartean, NFEri eta EAEn.

NFEren kasuan, Nafarroako parlamentuak aukera du artikulua berezi bat baliatuz bertako hiritarrek hala erabaki ezker EAEnekin elkartzeko. Prozesu hori martxan jartzea hauteskunde autonomikoetan hautatzen den gobernuari dagokio. Gauzak horrela, hauteskunde autonomikoak izan arren, erregio bateko gobernu baten gidaritza baino askoz gehiago dago jokoan Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetan. Hain zuzen ere, euskal/espainiar nazioen estatugintza. Beste horrenbeste esan dezakegu EAEn hauteskunde autonomikoaren inguruan. Bera baita Hego Euskal Herriaren batasuna ahalbidetzeko gehiengoak osatu behar diren bigarren barrutia. Horregatik guztiagatik,

elkarrizketatuen artean sentimendu desberdinak agertu dira hauteskunde autonomikoak ulertzeko eta bizitzeko dauden moduen artean.

Hiru ikuspegi bereizi dira nazio ardatza abiapuntu hartuta: batetik, euskal perspektibatik euskal nazioaren desfase kultural/politikoaz jabetzen direnak daude, horiek uste dute nazio eraikuntzarako duen garrantziagatik hauteskunde autonomikoek esanahi berezia dutela; eta bestetik, erdal naziotasuna dutenak daude. Alabaina, bi azpitaldetan banatzen da erdal naziotasuna dutenen multzoa: lehen azpitaldean daude espainiar identitatea dutenak, horiek adierazi dute hauteskunde autonomikoak estatu-nazioaren deribatu diren neurrian bere sentitzen dituztela; bigarren azpitaldean, berriz, espainiarra ez den beste erdal naziotasun bat bere egiten dutenak daude, zeinetan baikoitzak bere ñabardurekin baina guztiek hauteskunde autonomiko eta orokorrak arrotz sentitzen dituzten –bai Espainiarrak, baita euskal sasi-nortasuna izan dezaketenak ere–.

(163) Sentimendu aldetik ez, inondik inora. Nik beti berdinari ematen diot botoa baina sentimendu aldetik niretzat inportanteenak dira autonomikoak. Nik autonomikoetan beti nahi dut Euskadin partidu abertzale bat egotea, gobernu abertzale bat egotea. Munizipaletan jakina be bai, baina hor nire esperientzia eta jende askorena da munizipaletan askotan pertsonari ematen zaio botoa. (...). Espainoletan botoa ematen dut beharrean sentitzen naizelako. Ikusteko Espainian ere Euskal Herria existitzen dela eta sekulako errepresentazioa dugula eta abertzaleak garela hemen, Madrilen ikusi dezaten. Nik horregatik ematen du botoa. (...) Baina benetan niretzako sentimenduari begiratzen badiot autonomikoak dira potenteenak. (30_Elkarrizketa; A6).

(164) Bai, nik bai. Oraindik bai [bere sentitzen ditu hauteskundeak]. Ze azken finean nolabait oraindik Espainian enkajaturata gaudelako. Etorkizunean ez dakit zer gertatuko den, baina nire ustetan argi eta garbi Euskal Herriak edo Euskadik duen eragina Espainian argi dago. Zentzu horretan, badaukagu bertan zer esan. Izan ere, uste dut bertan dauden euskal politikariak kriston lana egiten dutela, nolabait, Euskadirentzat zentzu horretan. Uste dut badaukagula zer esan horretan. (31_Elkarrizketa; E8).

(165) Hauteskunde biak arrotzak sentitzen ditut [espainiarrak eta sasi-euskaldunak]. Ez maila berdinean baina bai. Gero baita, adibidez, sentitzen dut konpromiso bat dudala nik hemengo jendearekin. Zentzu horretan nahiz eta ez sentitu independentzia a muerte eta hola, sentitzen dut konpromiso bat badudala (...) bozkatzeko. (34_Elkarrizketa; F7).

Ikusten den moduan, ikerketa objektua bera aberasten du erritua hiritartasunetik aztertu beharrean naziotasunetik aztertzeak. Hori egiteak ahalbidetzen baitu fenomenoari pentsamendu abismalaren mugaren beste aldetik begiratzen dioten elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzua osotasunean aztertzea. Izan ere, erritua posizio eta botere harreman desberdinetan bizi dute elkarrizketatuek. Hiritartasunaren begiradatik guztiak berdina dira, espainiarrak, baina beste batzuek desfasea bizi dute hiritartasunaren eta sentimendu nazionalaren artean –euskaldunek eta erdaldun ez espainiarrek–. Azken bi horien kasuan, modu batean edo bestean sentitzen dute erritu hauetan parte hartzera egoerak behartzen dituela. Nazio klasikoaren begiradatik, normalena litzateke naziokide bakoitzak bere hauteskunde nazionaletan parte hartzea. Hori ezinezkoa da bi arrazoiengatik: batetik, estatu-nazioa antolaketa politiko gisa nazio politikoaren ideian oinarritzen delako, zeinaren arabera hiritarren kontratu sozialak legitimatzen duen lurraldearen gaineko subiranotasuna; eta bigarrenik, logika horren

arabera hauteskunde “nazionalak” soilik nazio hegemonikoek dituztelako. Espainiako Estatuaren kasuan espainiarrek soilik dituzte hauteskunde “nazionalak”, nazio hegemonikoa eurak baitira estatuaren baitan. Euskaldunen kasuan bestelakoa da egoera. Hori horrela izanik, euskal begiradatik botoa ematen duten zenbaitek aipatzen dute erritu arrotz honi desobedientzia nazionala egitea hausnartu beharrekoa dela.

(166) Egingo bagenu erabateko ukazioa euskaldun guztiok, estrategia bezala, igual oso emaitza onak lortuko genizkiake nazioaren iraupenerako. Debatea egongo huke egia esan. Erabateko abstentzioa euskaldun guztiok. Baina ez gaituk hari hori soilik erabakitzen (...) Kurioso da Kataluniako erreferendumarena ere. Kontrako boto emalea mobilizatzea eskatzen ziotek beti. Alderantziz ez dek hala gertatzen (...) Nolabait niri iruditzen zaiak euskaldunaren nazioak eta euskal komunitateak daukala botere gune batzuetan egon beharra. Boterea zegok antolatuta. Administrazioan legebiltzarra, diputazioa, udalerrak... dena o batez ez diat horrela ikusten. Nik uste joan egin behar dela eta independente bagina ere hor ez duk bukatzen. Mundua handiagoa dek eta botere gunea handiagoa duk. Ematen dik independentzia absolutua dela, eta ez duk hala, eta beste puntu batetik ulertu behar dela iruditzen zaiak. (24_Elkarrizketa; E3).

Desobedientziak dakarrena da espainiar komunitatearen batasun morala erreproduzitzea xede duen errituari legitimitaterik ez aitortzea. Alabaina, desobedientzia horrek ez badu euskal lurraldean erritua bera deslegitimatzeke ahalmenik, etxe-kalte gerta dakioke. Izan ere, desobedientzia egitean errituak berak barne tentsioak orekatzeko sektore kritikoari eskaintzen dion botere kuota bereganatzeko aukera galduko bailuke.¹⁶⁵ Horregatik guztiagatik, elkarrizketatuen artean aipatu da analisi horiek errealitatean euskaldunak duen botere harremanaren arabera egin behar direla. Erritua deslegitimatzeke edota zentzua aldatzeke ahalmena izan arte, elkarrizketatuek defendatu dute euskaldunak ahal duen botere gune gehienak okupatu behar dituela, baita Espainiako Kongresua bera ere.

(167) Nik adibidez, bai municipalak, bai Foru Aldundikoak eta bai Autonomia erkidegoko hauteskundeak nireak bailiran ikusten ditut. Espainolak inportanteak dira atera ahal ditugun gauzei esker, baina ez dira gureak. (32_Elkarrizketa; E6).

(168) Nik euskal abertzale bezala ikusten dut kongresuan eta senatuan garrantzitsua dela egotea gure eskubideak defendatzeko, betiere, erresponsabilitatez eta inoren kontra egin gabe. Baina, gure ahotsa defendatzeko. Gure ahotsa eta autogobernua defendatzeko. (5_Elkarrizketa; E6).

Hauteskunde autonomikoetan parte hartzeari dagokionez, interesgarria da botoa emateko arrazoi gisa nazio auzia agertzea, kontuan izanda printzipioz erritu horren bitartez espainiar nazioa erreproduzitzen dela. Alabaina, zeinu aldaketaren bidez askatzen dute errituan parte hartzeak suposatzen dien kontraesana. Hala, auzi nazionala bera da errituan parte hartzera bultzatzen dituen, zehatzago esanda, euskaldunek bizi duten zapalkuntza egoera. Elkarrizketatuen artean bizipen desberdinak agertzen dira,

¹⁶⁵ Kataluniako erreferendumaren kasuan, espainiarrak dira desobedientzia nazionala egiten dutenak Katalunian independentziaren galdeketa –espainiar ezkerreko sektore bat izan ezik, beste guztiok uko egiten diote eskaintza horri–. Are gehiago, galdeketa aurrera ateratzen den kasuan indar militarrek arduratzen dira galdeketa loteslea ez izateaz. Horretan datza desberdintasuna: Estatuaren biolentziaren monopolioa edukitzean.

tartean ilegalizazioa. Alde horretatik, elkarrizketatuaren ustez Estatuak boto eskubidea ukatu izanak erakusten du botoa ematearen garrantzia zenbaterainokoa den.

- (169) Autonomikoetan nik uste dut abertzale izanda garrantzi handia emoten zaiola botoari. Porque azkenean, aukera gehiago dauz zure botoagaz aukeratu duzun alderdiak irabazteko eta holan. Baina Espainiako hauteskundeetan adibidez ez. Argi dago zure botoak edukiko duela garrantzia baina ez hainbeste. Eta gero Europako Parlamentua nahiko urrun ikusten dut nik adibidez. (...) Udalerrietako kasuan, uste dut gehiago pertsonari begira bozkatzeko dela. Nik pertsonalki ez baino jendeak orokorrean bai. Alkatara aurkezten diren figurak dira herrian nahiko ezagunak. (26_Elkarriketa; E4).
- (170) Nik uste oso kontziente izan naizela eta ez naizela asko abstenitu hain zuzen ere horregatik, igual beste alde batean egongo banintz edo igual ez nuen hain garrantzitsua ikusiko. Baina kasu honetan, es que hemen matxakaturak geunden [euskaldunak]. (...) Ikusten nuelako gu oso baztertuak geundela hemen eta aktiboak izan behar garela. Ez gaitzela geratu era pasibo batean etxean. Behar hori nik sentitu izan dut bozkatzera. (1_Elkarriketa; A2).
- (171) Hori galtzen joan dek. Gazteak uste dik bozka badiagu eta puntu. Nik jada urte batzuk bazauzkat eta guk oraindik gure memorian ez dek urte gutxi bozka ukatu egin zigutekela. Gu partidu ilegalizatuetatik eta ibili izan gaituk. Mila izen desberdinekin. Egun batean bat eta hori ilegalizatutakoan, beste batekin irteten genian. Azkenean ez genekian ia nori bozkatu behar genion ere. (...) Guk izan diagu zea hori. Garai gogor hori. Ilegala huan, ezin bozkatu, papeletak ematen, kontaktan ezin egon.... garai horiek bizi izan dizkiagu. (...) Nik argi diat joan beharra dagoela eta ahal didaten bitartean emango diatela. Sekula ezin dek esan ez diatela emango. Nik neuk kontzientziak sekula ez zidak dudarik ere egin bozka ematearena. (11_Elkarriketa; E4).

Bestetik, hauteskunde autonomikoen funtzio taktiko bat dute zenbait elkarrizketatuentzat. Alde horretatik, elkarrizketatuek azpimarratzen dute etorkizuneko proiektu nazionala eraikitzeko bitarteko nagusia hauteskunde autonomikoetan euskal nazionalismoaren proiektua indartzea dela.

- (172) Niretzat beharrezkoa da hemen botoa ematea. Igual European ba azkenean daude 750 parlamentario eta gu bakarrik gara bat. Orduan gara parte txiki bat, hor European. Baina hemen gure hauteskundeak dira eta beharrezkoa da botoa ematea. Behintzat EAE aurrera eramateko, eta gero, Nafarroa eta Iparraldearen kasuan, sostengua eman eta apoioa eman. Nire kasuan PNV, Geroa Bai edo PNBri botoa emateko eta Iparraldea eta Nafarroa ere aurrera eramateko. (32_Elkarriketa; E6).
- (173) Horregatik, guretzat garrantzitsuena dira Nafarroakoak. Eta bestekin biltzen hasi aurretik moldatuko nuke nire etxea. Eta lortzen badugu nire etxea ondo paratzea, orduan ikusiko dugu beste famoso emienda hori jartzen dugun martxan. (7_Elkarriketa; A1).

Alabaina, beste elkarrizketatu batzuek erlatibizatu egin nahi izan dute auzi nazionalak parte hartzerakoan izan dezakeen garrantzia bi modutara: batetik, nazio zapaldu izatearen kontzientzia zenbait hauteslerengan ez dagoela adieraziz; eta bestetik, kontzientzia sozialaren aldagaia ere kontuan izan behar dela azpimarratuz.

- (174) Ziur aski te influye baina uste dut adibidez pertsona bat Murtziako izanda (...) adibidez esaten du nik con el castellano nahikoa. No tengo nada que ver con euskara, catalán y con gallego. Baina sozialki edo lanean egoera oso txarrean dago eta esango du nire botoa eman behar dut hori aldatzeko. Orduan, garrantzitsua da hizkuntzagatik, edo auzi sozialagatik edo feminismoarengatik. (15_Elkarriketa; H8).
- (175) Nik uste ezetz, galdu dela nahiko kontzientzia hori, nahiz eta igual bozkatzera joaten direnak boto abertzalea bota. Igual aunitz ez dira bozkatzera joango. Hori da erran nahi dutena. Ez, horrenbeste bozkatzera zer bozkatu duten, baizik eta bozkatzera joatea edo erratea bozkatzera jada borroka egitea da. Eta ez dutela kontzientzia hori. Zuk erratea bai eske gaurko eguna garrantzitsua da niretzat eta ikusten da aunitzek ez dutela kontzientzia hori. (25_Elkarriketa; E3).

Laburbilduz, azpikapitulu honetan ikusi da elkarrizketatuen artean hauteskunde autonomikoetan parte hartzea modu desberdinetara bizi dutela. Espainiar naziotasuna duten elkarrizketatu batzuek hauteskundeak natural bizi dituzten bezala, beste batzuek erritu arrotz gisa bizi dituzte. Euskal naziotasuna dutenen kasuan, adibidez, kontraesan bezala ikusten dute nazio politiko espainiarra erreproduzitzen duen errituan parte hartzea. Alabaina, desobedientzia nazionala egiteko baldintzak ez daudela ikusita, apustu taktikoa da hauteskundeetan parte hartzea. Xedea da ahalik eta botere gune gehien irabaztea. Errituaren inguruan mitoa ordezkatzuz zeinu aldaketa eginda gaitzen dute kontraesana. Alde horretatik, elkarrizketatuek aipatu dute beharrezkoa dela botere gune horiek euskal nazio gintzaren zerbitzurako erabiltzea, baita euskal estatugintza artikulatzeko ere. Besteak beste, NFE eta EAE elkartzuz. Alabaina, zenbait elkarrizketatuek erlatibizatu egin nahi izan dute auzi nazionalak botoa ematerakoan duen eragina. Azken horiek azpimarratu dute euskal alderdiei bozkatzeko dieten hautesleentz artean guztiek ez dutela nazio zapaldua izatearen kontzientziarik, are gehiago, zenbaitentzat bestelako auzi sozialek bozkatzekoan garrantzi handiagoa dutelakoan daude.

7.2.2. Alderdi sistema eta portaera elektorala

Hurbilpen soziologikoaren arabera, gizarteko zatiketek eragindako gatazka sozialen gainean artikulatzen diren clivajeak dira lerrokatze linguistiko elektoralek eragiten dituztenak. Bere jatorrizko hizkuntzan clivajeak esan nahi du "bereizketa". Ildo horretatik, hauteskunde soziologian hartzen duen zentzua da gizarteko zatiketa nagusiek eragiten dituzten gatazken gainean artikulatzen den sistema konposatuarena. Horregatik guztiagatik, komeni da akademian hegemonikoa den planteamenduari ñabardura batzuk egitea nazio zapalduaren begiradatik. Izan ere, hala egin ezean, suposatzen da euskal clivaje nazionala gizarte zatiketa batean artikulatzen dela, hots, nazio politikoa zatitzen duen nazio etnikoan. Hala, ikerketa gehienek azpimarratzen dute bi direla euskal alderdi sisteman dauden gizarte gatazka nagusiak: soziala eta nazionala –logika periferikoan– (Linz, 1986). Horrela, euskal nazionalismoak hartzen duen zentzua da espainiar nazio politikoaren zatiketa xede duen ideologiarena. Bestelakoa da euskal nazio klasikoaren abiapuntua. Azken horren arabera ertzetako kasuetan nazionalismoa garatzen da norberaren bizirautea ziurtatzeko jarrera gisa. Izatez, nazionalismoak ez du zertan inoren kontrako erreakzioa izan. Aitzitik, mugimendu askatzailea da nazio zapalduen kasuan. Kontua da nazionalismoa ideologia menderatzailea bihurtzen dela mito moderno bere egiten duenean. Horregatik, saretze

bertikalaren ideia erabiltzea hobetsi da lan honetan euskal lerrokatze linguistiko elektorala aztertzeko.

Begirada berri honetatik ulertzen da Hego Euskal Herrian bi naziok lortu dutela saretze bertikala hezurmamitzea: nazio euskaldunak eta espainiarrak. Hain zuzen ere, bi horiek dira Hego Euskal Herriko alderdi sisteman ordezkariak lortzen dutenak. Nazio klasikoaren ikuspegitik proposatzen da clivaje soziala nazio horietako bakoitzaren baitan ulertzea, alegia, euskal eta espainiar saretze bertikalen baitan gertatzen den clivaje moduan –eta ez matrizizat Estatu duen clivaje “unibertsal” gisa–. Perspektiba honetatik aztertzen da elkarrizketatuek portaera elektoralaren inguruan esandakoak.

Gauzak horrela, euskal saretze bertikalak elkarrizketatuen portaeran duen eragina ulertzeko honako hiru aldagaitan jartzen da arreta: bat, alderdi sistemaren inguruko irudikapena; bi, botoari emandako zentzua; eta hiru, beste alderdiekiko hurbiltasuna eta bozkatzeko disponibilitatea.

7.2.2.1. Alderdi sistemaren egitura

Hurbilpen soziologikoaren arabera alderdi sistemaren hezurdura determinatzeko ahalmena duten gizarte gatazkek eragiten dituzte lerrokatze elektoral garrantzitsuenak. Alde horretatik, akademian hegemonikoa den begiradaren arabera bi dira Hego Euskal Herriko alderdi sistema egituratzea lortzen duten auziak: nazionala eta soziala. Are gehiago, auzi nazionala zentro/periferia ardatzean artikulatzen den bitartean, auzi soziala mamitzen da ugazaba/langile ardatzean.

Alabaina, elkarrizketatu guztiak ez datoz bat akademian alderdi sistema irudikatzen hobesten diren irizpideekin. Horrek mahai gainean jartzen du premia zkoa dela euskal lerrokatze linguistiko elektorala interpretatzeko markoa berregokitzea. Jarraian, hainbat elkarrizketatuk aipatutakoaren eta akademiak proposatzen duen marko teorikoaren artean dagoen desfasea zertan datzan aztertzen da.

Horretarako, honako bi elementuetan jartzen da arreta. Batetik, ardatz nazionalari dagokionez aztertu nahi da zenbateraino duten barneratuta elkarrizketatuek mito modernista. Horren berri izateko, mitoari berari buelta eman eta bi auzi aztertzen dira: bat, elkarrizketatuek espainiar alderdien izaera nazionalistaren inguruan dituzten usteak; eta bi, euskal alderdien izaera nazionalaren inguruan dituzten pertzepzioak nazio zapaldu baten testuinguruan. Bigarren puntu batean aztertzen da elkarrizketatuen

arabera Hego Euskal Herriko alderdi sisteman ordezkariak lortzen duten alderdiak non kokatzen diren ardatz sozialean.

❖ **a) Alderdien sailkapena ardatz nazionalean**

Akademian hegemoniko den sailkapenaren arabera, bi multzotan banatzen dira alderdi politikoak EAEko eta NFEko alderdi sisteman: alderdi estatalak eta ez-estatalak (Montero et al., 1998). Lehenen ezaugarria da Estatuko lurralde osoan eragiteko asmoa duten alderdia izatea. Alderdi ez-estatalak beste bi azpitaldetan banatzen dira: erregionalistak eta nazionalistak. Akademian hobesten den kontakizun honen arabera, alderdi estatalistak eta erregionalistak ez dira nazionalistak. Alabaina, elkarrizketatu guztiak ez dira bat etorri banaketa horrekin.

Elkarrizketatu batzuek azpimarratu dute alderdi estatalak alderdi nazionalistak direla, hots, nazionalista espainiarrak. Elkarrizketatuen artean adostasun zabala dago adieraztean espainiar eskuina nazionalista dela. PSOEn kasuan ere, espainiar nazionalistatzat jotzen dute neurri handi batean. Alabaina, bada Frankismoaren hondarretan bestelako jarrera erakutsi zuela aipatzen duenik.

(176) Alderdi espainolak, alderdi espainiar nazionalistak izan zitezkeek eta izan bazeudek, PP den bezala edo PSOE den moduan. Edo Vox den bezala. Nire ustez horiek nazionalistak dituk. Ze nazio espainolaren rasgo horien esaltazioa egiten ditek guk egiten diagun bezala Euskal Herriarena. (17_Elkarrizketa; C3).

(177) Garai horretan, trantsizio garaian PSOE beste PSOE bat zen. Garai horretan ni gogoratzen naiz Iruñeko manifa batean PSOE lehenengo lerroan autodeterminazio eskubidearen alde! (...) PSOE ez da monolitikoa. (29_Elkarrizketa; D8).

Ikusten den bezala, elkarrizketatuen artean zalantza gehiago sortu da ezkerreko espainiar alderdi politikoaren inguruan nazionalista gisa kategorizatzerakoan. Bereziki, Podemosen kasuan agertu da iritziz aniztasun handiena. Izan ere, elkarrizketatu batzuek ikusten dute espainiar ezkerreko Espainiar estatuarekiko errezeloa duela, 1978ko erregimenak ez baitzuen guztiz hautsi frankismoarekin.

(178) Podemos ez diat ikusten hain abertzale edo nazionalista espainola. Uste diat gehiago diskurtso sozial bat egiten duela, eta teoriarik behintzat, erabakitze eskubidea defendatu egiten dik. (17_Elkarrizketa; C3).

(179) Azkenean, Espainiako estatua nola dagoen antolatuta eta Espainiako sinboloak oso lotuta daude Frankismoarekin. Eta lotura horretan ez da hausturarik egon eta horregatik ezkerreko jendea normalean ikusten baduzu ere, ez bakarrik katalanekin, baizik gurekin ere harremana dutenekin, berdin du edo Aragoikoak, Kastillakoak... denek badute ezkerreko sentsazio bat badago. Espainiar maila batean edo bestean eroso ez sentitzeko sentsazioa. (16_Elkarrizketa; G8).

Alabaina, gauza bat da 1978ko erregimenarekin bat ez etortzea eta beste gauza da espainiar nazionalista ez izatea. Azken batean, Madrilan kokatzen da alderdi horien oinarri kulturala, baita antolaketa politikoaren zentroa ere. Horregatik guztiagatik, beste

elkarrizketatu batzuek argi dute Podemos nazionalista espainiarra dela. Are gehiago, nazionalista kategoria ez dute kontu peioratibo modura ikusten. Beste kontu bat da nazio auzia askatzerakoan, mito modernoa ulertzeko modu hertsia goa edo malguagoa izatea. Honatx, beste elkarrizketatu batzuek Podemosen inguruan esandakoa.

(180) Nik uste dut aldea dela Podemos eta PPre artean soziala. Sentimendua ez. Filosofia sozial hori da aldatzen dena. (19_Elkarrizketa; A2).

(181) Hombre ez dudarik eduki. Nik ez dut uste Podemos euskaldunak direnik. Bi hiru gauza esaten dituztenak begi onez guk ikustea ez du esan nahi horiek euskaldunak direnik. Nire ustez ez. (...) Jarriko genuke Bildu eta gero PNV jarriko genuke ze pentsatzen det laister joango dela Urkullu. (...). Eta beste guztiak espainolak dira. Hor guztiak dira guretzat txarrak. Podemos eta PSOE, bueno, ez dakit, baina beste guztiak infernura! (18_Elkarrizketa; A3).

Ikusten den moduan, elkarrizketatu batzuek espainiar ezkerreko alderdi estataltan izaera nazionalista zalantzan jartzen badute ere, argi dagoena da elkarrizketatuek bereizi egiten dituztela alderdi euskaldunak eta espainiarrak.

Bestalde, bigarren eztabaida sortzen da espainiar alderdi ez-estataltan inguruan. Kasu honetan, oinarrian dagoen korapiloa bestelakoa da: ea alderdi erregionalak nazionalistak diren ala ez. UPNren kasua da argigarriena. Azken honen inguruan elkarrizketatuek ia aho batez aipatu dute nabarrismoaren atzean mezu nazionalista espainiarra ezkututzen dela.

(182) Nik garbi diat nazionalista espainiarrak direla eta gu baino nazionalistagoak direla askotan. UPNko jendea oso oso espainolak dituk. Askotan gainera hori egiten duen jendeak, nabarrismoa aipatzen duten jende horrek, erre fuerte horrekin eh, bukaeran askotan dituk kanpotik etorritakoak. Ez dituk bertakoak ere hori aldarrikatzen dutenak. Barcina ere burgalesa huen eta beitu nola zioen nabarrismoa eta hemen ze min egin zuen. Nafarroa mailan begira ze min egin zigun. Eta beraiek, beraiek Nafarroa ipintzen dute aurrean, baina gero begira gaur egun prest zeudek, C's eta hauek foroen aurka egon arren, hemen lortu diren eskubideen kontra egin arren, orain prest zaudek PP eta C'sekin batera joateko. Zerrek hago? Nafarroa inporta zaik edo benetan inporta zaik espainolizatzea Nafarroa? Nik uste diat argi eta garbi dagoela oraingo hauteskundeetan nola dijoazten Navarra Suma koalizio honek, bukaeran nahi duena duk gauza denen gaineratik hori! Nafarroa espainola bihurtzea eta bost inporta zeok foruak lortu eta holakoak. Horren gaineratik beste guztia zagok. (11_Elkarrizketa; E4).

Hori horrela izanik, alderdi ez estataltan artean banaketa erregionalak/nazionalistak bereizketa egiteak ez du balio euskal lerrokatze linguistikoa bere osotasunean ulertzeko. Izan ere, erregionalistatzat jotzen dena elkarrizketatuen perspektibatik nazionalista baita, hau da, nazionalista espainiarra. Are gehiago, zenbait elkarrizketatuk aipatu dute UPNri ez zaiola Nafarroa interesatzen. Alderantziz, Nafarroa ahotan erabiltzen dute espainiar identitatea eta hizkuntza zabaltzeko. Ondorioz, orain arte ikusitakoa kontuan izanik, euskal lerrokatze linguistikoko elektoralak aztertzerakoan ikusten da komenigarria dela kontuan izatea alderdi estataltak eta erregionalistak badutela elkar batzen dituen aldagai amankomuna: biak espainiar nazionalistak izatea. Horregatik, ez du zentzurik espainiar eta euskal alderdiak, nazionalista/ez-nazionalista kategorien bidez banatzeak. Honela laburtzen du elkarrizketatu batek.

(183) Horiei ez diogu nazionalista esaten lortu dutelako euren nazioa [estatua]. Guk borrokatu behar dugu, oraindik ez dugu. (12_Elkarrizketa; E8).

Ikusten den moduan, elkarrizketatuak lerroartean dio estatuaren gerizpean ezkututzen dela alderdi espainiarren izaera nazionalista. Horrela askatzen dira lehen bi auziak. Gainerakoan, azpikapitulu honetan hirugarren puntu gisa interesgarria da aztertzea ea euskal alderdiak nazionalistak diren. Kasu honetan ere iritzi aniztasuna da nagusi. Oro har, bi alderdi aipatzen dituzte euskal alderdien multzoan: EH Bildu eta EAJ.

(184) Nortzuk diren alderdi euskaldunak? De momento Podemos eta badabiltza zerbait bueltaka baina momentuen Bildu eta PNV. (8_Elkarrizketa; A1).

Edonola ere, zenbait elkarrizketatuk adierazten du alderdi euskaldun horiek desabantaila batetik abiatzen direla: euskaldunak gutxiengo dira gizartean. Ondorioz, bigarren mailan uzten dute euskal nazioaren aldeko defentsa nazionala botoen izenean. Elkarrizketatuaren arabera, joera hori bereziki EAJrekin ikusten da, baina beste horrenbeste gertatzen da ezker abertzalean ere.

(185) EAJren baitan korronte nagusia korronte baskoa duk eta ezker abertzalean ere zalantza egiten diat. (...) Botanteak behar dizkik eta botante euskaldunak gutxiengo gaituk. Baldin eta boterean egon nahi badik, alderdi politiko batek botanteak nahi badizkik, erdaldunei keinu egin beharra zeukak, erdaldunen botoak behar dituelako. Euskaldun guztiek sortuko bagendu alderdia euskaldun guztiek botoa emango geniokeena, bestela baino boto gutxiago izango geniake. Askoz konpaktuagoa izango huke baino... (24_Elkarrizketa; E3).

Euskal alderdiak behartuta daude gobernu erdietsi nahi badute erdaldunei keinu egitera. Hori da elkarrizketatuak aipatu duena. Alde horretatik, EAJ eta EH Bilduren kasuan zenbait elkarrizketatuk adierazten dute ez direla horren nazionalistak. Nazio zapaldua izanik, kondenatuta baitaude nazioaren gaineko zatiketa kultural/politikoan katramilatuta bizitzera.

(186) Nire ustez, Bilduren kasuan inportanteagoak dira aldaketa sozialak independentzia baino. Nire ustez, ez dira horren nazionalistak. (12_Elkarrizketa; E8).

(187) Nola izango da ba gaurko egunean PNV gu bezalako nazionalista. Ez, ez. PSOerekin tratua egiten duenak ezin du izan (...). Nik adibidez, Ibarretxe asko maite dut eta Carlos ere bai. Oso handiak izan dira biak. Horiek bai. Horiei EAK bakarrik lagundu zien. Ibarretxe EAJkoa izan arren, EAK bakarrik apoiatu zuen. PNVk ez zuen nahi bera aurrera ateratzerik. (...) Nik Ibarretxerekin amaituko nuke PNVrena. (18_Elkarrizketa; A3).

Laburbilduz, Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren hezurdura nagusiak aztertzean, desfase interesgarri bat agertu da elkarrizketatuen iritzien eta teoriaren artean. Akademian hegemoniko den begiradaren aurkako noranzkoan, elkarrizketatuek esan dute alderdi nazionalistarik bada horiek alderdi espainiarrak direla. Aldiz, euskal alderdiei nazionalista deitu arren, kasu askotan uste dute ez direla behar beste nazionalistak. Espainiar alderdien kasuan, mito modernoak eragiten du euren nazioaren aldeko defentsaz gain, bestearen asimilazioa justifikatzea. Ildo horretatik, espainiar alderdien inguruan elkarrizketatuek aipatu dute ezkerreko alderdiek jarrera

abegikorragoa dutela euskal nazioarekiko. Bestetik, euskal alderdien kasuan, nazio zapaldua izateak eragiten du euskal alderdien baitan pitzadura kultural eta politikoak agertzea.

❖ **b) Alderdien sailkapena ardatz sozialean**

Atal teorikoan bi multzotan bereizi dira alderdiak ardatz sozialean: zentro-ezkerrekoak (EH Bildu, Podemos, I-E eta PSOE-EE) eta zentro-eskuinekoak (PP, UPN, EAJ eta Geroa Bai). Elkarrizketatuak luze eta zabal aritu dira horren inguruan hizketan. Alde horretatik, jarraian komenigarri ikusi da atal teorikoari hainbat ñabardura egitea elkarrizketatuek esandakoetan oinarrituta.

Espainiar alderdiei dagokienez, elkarrizketatuek zalantza agertu dute PSOEn kokapenaren inguruan. Zenbaitek azpimarratu dute PSOEk izena ezkertiarra duela baina aspaldion eskuineko alderdi baten jokabidea erakutsi duela.

(188) PP ere eskumakoa da eta gainera kutsu horrekin. (...). Eta gero ba ez dakit, PSOEek ere nik kokatuko nuke eskuman gero eta gehiago, baina bueno ezkerreko ukitutxoekin, ez? Hori bai, gero eta gehiago euren politikak eskumarago jotzen dute baina bueno. Egia da gai zehatzetan edo puntu zehatzetan agian hitz egiteko aukera gehiago egon daitezkeela. (16_Elkarrizketa; G8).

Elkarrizketatuen artean agertu den beste gai bat da EH Bilduren eta Podemosen arteko konparaketa. Zenbaitek aipatu dute EH Bildu ezkertiarra dela Podemos baino, beste batzuk, aldiz, irudipena dute EH Bilduren kasuan nazio auzia dela eta, auzi sozialak bigarren mailako protagonismoa ote duen.

(189) EH Bildu Podemos baino ezkertiarra da. Podemosek oraindik ez du bere bidea aurkitu. (18_Elkarrizketa; A3).

(190) Egia esanda ikusten duzunean bozkatzaileen kopurua jartzen gaituzte garena baino ezkerreko. Normalean 0 eta 10en artean, ba batzuetan 1ean jartzen gaituzte. Nik uste dut jendeak pentsatzen duela ezkerreko alderdia dela, eta hori garbi dutela, baita gure [EH Bilduren] bozkatzaileak ez direnak ere. Baina bai, euskal kontu horrek pisu handia dauka. (16_Elkarrizketa; G8).

Zentro eskuineko alderdiak aztertuz gero, elkarrizketatuen artean ez da zalantzarik agertu PP eta UPNren izaeraren inguruan. Azken horiek, eskuineko alderditzat izendatu dituzte. EAJren inguruan, berriz, bestelako iritziak ere agertu dira. Izan ere, EAJ eskuineko alderdi gisa definitu arren, eskuin tradizionalarekin alderatuz, elkarrizketatuek uste dute zenbait arlotan jarrera aurrerakoiak dituela. Edonola ere, honen aurrean beste elkarrizketatu batzuek aipatu dute eskuin moderatua bada, kasu askotan, beste aukerarik izan ez duelako dela.

(191) PNV beti esaten duk dela euskal eskuina. Baina politika sozialetan (...) ezin duk konparatu PPrekin. Hemen bazeudek zerbitzu sozialak, eta hemen dauden protokolo asko, ez zeudek Espainian edo eskuindarrak diren leku askotan. (17_Elkarrizketa; C3).

- (192) Ni nahiz eta PNVkoa izan ez dut nire burua eskuinekoa ikusten. Ni zentrora. Ni langilea naiz, langileen semea, nire aitite eta amama langileak izan dira denak, nekazariak. Ez dut nire burua eskuinean ikusten. Tradizioen aldetik bai, tradizioak mantentzea gustatzen zaidalako. Baina eskuin politikoan, ordea, ez dut ikusten nire burua. Nik zentro eta zentro-ezkerra nahiago. (30_Elkarrizketa; A6).
- (193) Sistema dagoen bezala mantentzearen aldekoak dira. Nik lerrokatzen dut PNV eskuin rantzioarekin. Batzuetan oso progre itxuraz azaltzen dira baina gero praktikan benetan lerrokatu behar direnean, praktizismo guztia ateratzen zaie barrenetik eta lerrokatzen dira jarrera kontserbadoreetan. Gero ze predikatzen duten beste gauza bat da. (...) Memoria pixka bat dugunak hori gogoratzen zaigu. Baina egia da baita ere, hemen beraiek gestionatu dituztela gauzak eta hemen beste tokietan baina kontrol askoz handiagoa izan denez gero, beste gauza batzuen artean, orduan gestionatu behar izan dute oso ondo. Derrigorrean, zintzo zintzo. Klaro, egingo zuten egoera soziala beste bat izan balitz? Ba hau da galdera! (29_Elkarrizketa; D8).

Elkarrizketatu batek, EAeko EAJ definitu du *catch-all party* gisa. Alde horretatik, elkarrizketatuak esan du bere ideologia nagusia dela zentralitatea okupatzea. Parametro horien logikan ulertu behar dela dio sarri eskuina izan arren dituen politika sozialak. Azken batean, helburua gobernuan egotea denez, berdin da ze politika egin. Ondorioz, gizartea aurrerakoia izateak eragiten du behartuta egotea alderdia ezkerreko jarrera eta diskurtsoak hartzera.

- (194) Argi eta garbi PNV eskuman kokatzen da. Baina egia da ez duela adibidez PPK edo izan dezakeen kutsu frankista hori. Eskuma litzateke baina Europar ikusi daitekeen eskuma horietako bat eta gaitasun hori dauka: *catch-all party* izatekoa. Ba batzuetan gaitasun handia dauka diskurtsoan ezkerrekoagoa emateko. Eta ezkerrean dauden terminoak bereganatzeko beste zentzu bat emanez. Diskurtsoa hartuz gero, erraza da ezagutzen ez duen batek pentsatzea ezkerreko dagoela. Baina gero praktikan eskumako alderdia da baina gaitasun hori dauka. (16_Elkarrizketa; G8).

Alde horretatik, interesgarria da Geroa Bai alderdiaren inguruan beste elkarrizketatu batek esandakoa. Elkarrizketatu honek azpimarratu du Geroa Bai ez dela EAJ, koalizioa baizik. Alde horretatik aipatu du nahiz eta askotan Geroa Bai eskuinekotzat jotzeko joera egon, Nafarroan ez dagoela oraindik euskal eskuina bezala ezagutzen den alderdirik. Honek mahai gainean jartzen du EH Bilduren eta Geroa Bairen koalizio izaera. Izan ere, EAEn EAJ izan ezik, euskal alderdi nagusiak (Sortu eta EA, adibidez) Hego Euskal Herrian koalizioan aurkezten dira. Koalizioan aurkezteak ahalbidetzen du sentsibilitate desberdinak bildu eta ahalik eta hautesle gehienak alderdi horrekin identifikatzea. Hala ere, gerta daiteke kontrakoa, hau da, gehiegi zabalduta eta identitatea galtzea.

- (195) Geroa Bai koalizioa da eta hor ikusten dut denetarik dagoela. Are gehiago, nik uste EAJ Nafarroan bakarrik joango balitz ez lukeela orain bezalako ordezkariarik lortuko. Eta esperientzia aurreko hauteskundeetan horrelakoa izaten zen. Ez dut gutxietsi nahi beraien papera, baina esan nahi dut, Geroa Bai ez dela EAJ. Nahiz eta askok etiketa hori jarri. Gero bestalde, esan behar da eta aitortu behar da Geroa Baik badaukala lider bat oso potentea. Bera ez da EAJkoa. (...) Nire ustez bere papera oso garrantzitsua izan da. Bai holako pertsonak badaude eta guk suertea hori daukagu. (1_Elkarrizketa; A2).

Laburbilduz, azpikapitulu honetan ikusi da elkarrizketatuen arabera Espainiako alderdi eskuindarrak EAJ baino eskuindarragoak direla. Alde horretatik, iritzi desberdinak agertu dira EAJren eskuindar izaeraren inguruan. Batzuen arabera, alderdi eskuindarra da EAJ izatez. Alabaina, gertatzen dena da euskal gizartea espainiar gizartea baino

progresistagoa dela, eta horrek behartzen duela ezkerreko diskurtsoa bere egitera. Beste batzuen ustez, beste arrazoi batzuk daude horren atzean: historia partikularra, gerra galdu zuen alderdia izatea... Gainerakoan, EH Bildu eta Podemos dira alderdi sistema ordezkariak lortzen duten alderdien artean ezker aldera gehien egiten dutenak. Elkarrizketatuek aipatu dute euren iritziz bi alderdi horien artean ezkertiarrena EH Bildu dela. Alabaina, zenbait elkarrizketaturi iruditzen zaie nazio auziari ematen dion pisuagatik askotan itzalean gelditzen dela auzi soziala.

7.2.2.2. Botoari emandako zentzua

Hego Euskal Herriko alderdi sistemak interpretatzeko orduan ikusi da elkarrizketatuen artean marko kognitibo desberdinak daudela. Mito modernoaren auzia da irakurketa desberdin horien oinarrian dagoena. Azken honek eragiten du zenbait kasutan euskal saretze bertikala espainiar saretze bertikalaren azpisistema gisa interpretatzea.

Lan honetan nazioaren gaineko irudi klasikoan oinarrituz ulertzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren oinarrian dagoena euskal saretze bertikala dela, ez estatu-nazioaren aurkako erreakzio gisa artikulatzen den clivaje nazionala. Ondorioz, lan honen helburua ez da eztabaidatzea clivaje nazionala edo soziala zein den garrantzitsuagoa (Leonisio eta Strijbis, 2014), auzi soziala zein saretze bertikalek interpretatzen den ikustea baizik. Alde horretatik, lan honetan uste da gisa horretako eztabaidak saretze bertikala pitzatuta dagoen kasuetan sortzen direla.

Gauzak horrela, bi joera bereizi dira hautesleak beren portaerari ematen dioten zentzuaren arabera: batetik, beren portaera elektorala azaltzerakoan irakurketa kulturala egiten dutenak; eta bestetik, beren portaera elektorala azaltzerakoan irakurketa politikatik abiatzen dutenak. Elkarrizketatu guztiek bozkatzeko diete euskal alderdiei, baina desberdina da justifikatzeko erabiltzen duten marko kognitiboa.

❖ **a) Kulturatik politikari begira**

Elkarrizketatuak beren portaera elektorala azaltzeko irakurketa kulturatik abiatzen dutela zehaztean esan nahi da euskal saretze bertikalak elkarrizketatuen portaera elektoralean duen eragina erabatekoa dela. Perspektiba hori bere egiten duten euskal abertzaleek azpimarratzen dute alderdi sistema supermerkatu bat bada, beraiek beti euskal alderdien saskira joaten direla gustuko alderdiaren bila, eta gero, saski horretan gehien gustatzen zaien alea hartzen dutela: batzuek ezkerrekoak eta beste batzuek

eskuinekoak. Alabaina, saskiz ez dute aldatzen. Horregatik da normala euskaldunak euskal alderdiei bozkatzea.

(196) Azkenean zu euskalduna sentitzen baldin bazara, abertzaletasunera lerratuko zara. Lehenbiziko identifikatuko zara euskalduna zaren edo espainiarra zaren. Ez? Behin abertzale edo ez abertzale botoa identifikatuta, hor ja sartuko zinen Bildu edo Geroa Bai edota PP, PSOE edo Podemos eta horietan. Behin ja multzo horietako batean sartuta, filtro horretatik, gero izango zen zu zer sentitzen zaren, ze maila sozialetakoa edo non ikusten duzun karentzia bat. Nik ikusten badut, ni naiz enprededore bat, enpresak sortu behar ditut eta dirua nahi dut ba jartzen zara PPren alde edo nik zer dakit... Joe baino gero ikusten baduzu langile zanpatua naiz eta zure beharraren arabera, ba jada bai aldatzen joaten zarela. Baino lehenengo filtroa nik behinik behin garbi ikusten dudana da euskalduna edo ez euskalduna dela eta horren berak jada baldintzatzen dizula. (25_Elkarriketa; E3).

Irakurketa kulturatik abiatzen duenak ulertzen du auzi nazional eta sozialaren arteko harremana ez dela hierarkia kontua, hurrenkera kontua baizik. Kontua ez da zer den garrantzitsuagoa, ezkertiarra edo nazionalista izatea. Begirada honen arabera, hautesle guztiak dira saretze bertikal baten parte –izan euskalduna edo espainiarra– eta horren baitan gero batzuk ezkerrera lerratzen dira eta besteak eskuinera.

“Parafernalia” hitza erabiltzen du elkarrizketatu batek euskal saretze bertikala deskribatzeko. Bere arabera, saretze nazional horren amaraunean dabilenak nekez bozkatzeko dio erdal saretze nazionalan sustraitutako alderdi bati. Berak aipatzen du Herri Urrats, bertsolaritza, Durangoko Azoka, euskal musika... mundu horren inguruan bizitza ardazten duenak euskal alderdiei bozkatzeko diola. Izan ere, mundu horretan bizi direnak euskara jakin bakarrik ez, euskaraz bizi dira. Euskaraz pentsatzen dute eta euskararen inguruan artikulatzen dute euren proiektu politikoa. Beste gauza bat da euskaraz jakitea lanpostu bat lortzeko. Kasu horietan kulturak ez du zentzu politikorik. Hori da euskaldunak Espainian lan egiteko gaztelaniaz ikastea bezala. Ondorioz, elkarrizketatu honen arabera kultura da botoa determinatzen duen aldagaia, hau da, euskal saretze bertikalaren bidez sinbiosia gertatzen da kulturaren eta politikaren artean.

(197) Parafernalia guztiarekin bat egitea da kontua. (...) Horrekin bat eginez gero ezin duzu beste gauzarik bozkatu. Ezin baduzu abertzale botoa eman agian ez duzu botoa emango. (...) Ez da bakarrik euskara jakitea, da zergatik eta zertarako euskara! Euskaraz bizitzeko edo euskara lanpostu bat izateko. Zein izan da helburua. (...) Zuk borondatez ikasten baduzu pentsaturik Euskal Herrian bizitzeko euskaraz egin behar dela, hori pentsatuz gero egingo duzu. (19_Elkarriketa; A2).

Fenomeno hori, ordea, ez da gertatzen euskal kasuan bakarrik. Aitzitik, beste horrenbeste gertatzen da espainiar saretze nazionalarekin ere. Arrazoiketa horri jarraituz elkarrizketatu askok aipatu dute logikoena litzatekeela espainiar hautesleek espainiar alderdiei bozkatzea.

(198) Logikoa iruditzen zait botatzea espainolak espainolari, guk euskaldunek euskaldunei bozkatzeko diegun bezala. (8_Elkarriketa; A1).

Gauzak horrela, hasierako ideia itzuliz ikusten da elkarrizketatu batzuegan euskal saretze bertikalak duen eragina erabatekoa dela. Hori da euskal lerrokatze linguistikoaren bizkarrezurra, hots, saretze bertikala da euskal alderdiak eratzea ahalbidetzen duena. Hortik aurrera, euskal klivaje soziala da aztertu beharrekoa, baldin eta ezker eta eskuin ardatzean zatitzen den botoa ulertu nahi bada.

(199) Zergatik PNV? Abertzale naizelako, euskotarra naizelako, euskaltzalea naizelako, bakearen alde nagoelako. Eta zergatik ez nagon, adibidez, Bildun edo Sortun? Nire burua ez dut ezkertiarizat ikusten. (32_Elkarrizketa; E6).

(200) Bueno ez dakit. Nik lehenengo esaten dut espainiarrak direnak ez. Hori da nire lehenengo logika, eta gero pues (...) esango nuke pues bueno ez zaizkit asko geratzen la verdad. Orduan esango nuke EH Bildu edo Geroa Bai. Es que Geroa Bairen politika da eskuineko politika eta ni gauza horiekin ez nator bat. Orduan, berriro agian, EH Bilduk Nafarroa mailan ez ditu gauzak denak ondo egin, baina emango nieke berriro. (33_Elkarrizketa; E4).

Madrileko hauteskunde autonomikoei erreparatuz gero, hango alderdi sisteman ikusten da alderdi guztiak espainiar saretze bertikalean dutela jatorria. Ondorioz, Madrilgo kasuan begiratu batera aldagai soziala da alderdi bati edo besteari botoa ematea baldintzatzen duena. Alabaina, horrek ez du esan nahi Madrilgo hautesleek bozkatzekoan soilik irakurketa politikoa egiten dutenik. Hego Euskal Herrian bezala, Madrilen ere, kulturatik egingo dute irakurketa hautesleen gehiengoak. Hau da, hautua egiten dute espainiar alderdiei bozkatzeko. Kontua da alderdi guztien jatorria espainiarra izatean hautu hori ikusezin bihurtzen dela. Egoera bestelakoa da nazio desberdinetako alderdiak gurutzatzen diren hauteskundeetan, adibidez, Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan. Kasu honetan ere bi galbahe pasatzen ditu hautesleak: aurrena kulturala eta bigarrena politikoa. Alabaina, galbahe kulturala pasatzerakoan begi bistakoa da euskal/espainiar hautua. Hauteslea behartuta dago posizionatzera.

Are gehiago, lan guztian zehar ikusi den moduan euskal saretze bertikala ez da egoera normalizatuan aurkitzen. Horrek eragiten du euskal alderdiek bere egitea zatiketa kultural/politikoa. Kasu horietan, elkarrizketatuek uste dute EAJri bozkatzeko lieken askok EH Bilduri bozkatzeko diotela alderdi erregionala bihurtu denaren pertzepzioa dutelako. Aipatutako hau da hurbilpen kulturalaren muturreko kasua. Alderantziko kasurik ez da agertu, alegia, EAJri bozkatu izana EH Bildu EAJ baino alderdi “espainolagoa” denaren pertzepzioa izategatik.

(201) Nire kasuan nire botoa nire naziotasunak eta euskalduntasunak markatzen dik zati handi baten. Gero ja beste gauza batzuek inportantzia hartzen ditek. Baina gehienbat horrek markatzen dik. (...) Nik bazezkat lagunak ezker abertzaleari botoa ematen diotenak eta esaten dutenak garbi ez direla ezkerrekoak berak. Eta ohartzen direnak. (...) Gerora begira hor badik ezker abertzaleak erronka galanta. Nola nazioaren ikuspegitik botoa ematen dion jendea ez atzeratzea beste politika ekonomiko batekin. Hor ez zekiat zer pasako den. (24_Elkarrizketa; E3).

(202) Ondarroan jende asko da EH Bildurekiko afina dena eta gerta daiteke horietako zenbaiten jarrera egunerokoan izatea ez feminista, arrazista edo liberala. Baina liberala ba bueno merkatu libre bat

eta hola. Gobernuak ez du zertan inpuetoak zertan altza eta gero laguntzetatik bizi dena. Esaten diozu zure buruari, zelan zaude Bilduri bozkatzen? Ba klaro. Ondarroan asko entzuten da EAJ espainol eta urteetan egon da diskurtso hori. Ba orduan niretzat alde batetik hori da. Bilduri ez dio botatzen jendeak ezkerre delako, baizik euskalduna delako. (23_Elkarrizketa; E1).

Bigarren botoa nori emango lieken galdetzerakoan interesgarria da irakurketa kulturala egiten dutenek adierazitakoa. Izan ere, azken horiek esaten dute espainiar alderdiei botoa eman aurretik, euskal saretzean saiatuko lirakeela alternatiba bilatzen.

- (203) Nik nire aldetik, EAJ ez balego Bilduri botako nioke. PSOE baino lehenago. [-Zergatik?] Abertzaletasunagatik. Nahiz eta pentsatu gauzetaz desberdin, oinarria hori da. Orduan nik pentsatzen dut ba hori. Emango niokela botoa Bilduri. (3_Elkarrizketa; A6).
- (204) Ze zaila, baina nik uste Geroa Bai. Podemos ez dut sinesten. (...). Ez dakit. [-Zerk eragiten dizu zalantza izatea?] Es que alde batetik, izango zen Geroa Bai euskara eta Podemos ezkertiarra delako. Baina uste dut Podemos ez dela batere ezkertiarra eta Geroa Bai ere ez duela euskararen alde egingo. (12_Elkarrizketa; E8).
- (205) Abertzale ardatza, hori mantentzea da lehen puntua. (18_Elkarrizketa; A3).
- (206) Bildu apurtzen bada, nik uste dut PNV kenduta hurrengo alderdia izango zen EA. Ze azkenean gure eziziñoa izan zen, oraindik ere, nik pentsatzen dut oraindik geratzen direla ez jeltzaleak baina bai jeltzaleak. Hau da, eziziñoa izan zenean, de la noche a la mañana, ez zara egiten ezkertiarra. Nik uste hurrengo alderdia izango zela EA. Gaur egun dagoen EA agian ez baina hurrengoak dena abertzaleak, euskaltzaleak eta independentista izango ziren. Espainolei boto bat ere ez. Abstentzioa edo boto en blanco. (32_Elkarrizketa; E6).

Ikusten den bezala, elkarrizketa horien arabera unibertsal izaera du euskal saretze bertikalak. Izan ere, bere baitan borroka sozial guztiak barne bildu daitezke. Hala, borroka horietakoren bat artikulatuta ez badago, alternatiba ez da saretze bertikalez aldatzea, bere baitan dimentsio hori erakundetzea baizik. Hori da hobesten duten aukera. Horregatik, ez diete elkarrizketatuek espainiar alderdiei bozkatzen. Alde horretatik, elkarrizketatu horien artean aipatu da botoa aldatu izan duten kasuetan ere beti euskal alderdien artean aldatu izan dutela. Arrazoi desberdinak azaldu dituzte botoa aldatzea justifikatzeko: garaiko gatazka politikoaren gordintasuna; 90eko hamarkada inguruan jarrera erregionalak nagusitu zirela EAJn; koalizioak eta alderdi sistemaren berregituraketa eta abar.

- (207) Lehenengo bi hauteskunde horietan, ez nien botoa ematen EHAKri baizik eta Aralarri eman izan nion botoa. (27_Elkarrizketa; E4).
- (208) Garai hartan EAJri botoa ematea diferentea zen. Gero EA banatu zen horregatik. Orduan segituan joan ziren paktuak egitea erdaldunekin. Segituan hasi ziren. Guk behar dugu gureekin bat egitea bestela indarra galtzen dugu. (18_Elkarrizketa; A3).
- (209) Nik bozkatu izan dut EA orain Bildu alderdian dagoena. Baina badaude EAko kideak izan zirenak Geroa Bai alderdian daudenak. Beraz, nik uste amankomunean ditugula gauza asko... (1_Elkarrizketa; A2).

Elkarrizketatu hauen arabera kulturak baldintzatzen du lehen fasean botoa. Baina baita bigarren fase batean ere, alegia, beste bati ez ematerakoan. Alde horretatik, elkarrizketatu guztiek ia aho batez azpimarratu dute botoa emango ez lioketen alderdiak PP eta gainerako espainiar alderdi eskuindarrak izango lirakeela. EAJko boto emaleen artean ere antzeko adierazpenak agertu dira. Zergatik ez lioketen bozkatuko galdetuta

esan dute PPren proiektua hein handi baten euskalduntasun politikoaren ukapenean ardazten dela.

- (210) Ez! Ba lehenengo ta behin Frankismoaren jarraipena delako eta defendatzen dituen gauzak ez ditut defendatzen ia bat bez. Gaur egungo politika jarraitzen duen partidua delako eta ez nago ados. Sin más! (26_Elkarrizketa; E4).
- (211) Ez sekula ez. Uste dut ez duela ze ikusirik nire ideologiarekin. Justu kontrakoa. Ni euskalduna sentitzen naiz. Independentista edo euskaraz bizi nahi dut eta nire ustez PPk egiten du dena kontrakoa hori kentzeko. (...) Eta gainera gure kasuan, argi dago alderdi popularrak ahal duena egiten duela ba gure eskubideak edo gaur arte lortu ditugun eskubideak kentzeko. (28_Elkarrizketa; H8).

Laburbilduz, elkarrizketatuak botoa baldintzatzen duten aldagaien inguruan aritu dira hizketan. Azpikapitulu honetatik ateratzen den ondorio nagusia da euskal lerrokatze linguistikoaren oinarrian dagoen aldagaia euskal saretze bertikala dela. Txirikordatze kultural/politiko horrek ahalbidetzen du portaera politikoa kulturak determinatzea. Beste modu batera esanda, euskal abertzale sentitzen direnek euskal alderdiei botoa ematea. Alabaina, euskal saretze bertikala ez dago normalizatuta, aitzitik, pitzatuta dago, puskatuta. Nazio zapaldu izatearen ondorio nagusietakoa da euskal saretze bertikaletik erne diren alderdiak euskal alderdi bezala ez identifikatzea. Zehatzago esanda, espainiar alderdi erregional gisa ikustea zenbait hautesleren partetik. Zaila da imajinatzea, PP alderdia behar beste espainiar nazionalista ez izateagatik espainiar bat Podemosen boto emalea izatea. Hori bera, baina kontrako zentzuan gertatzen da elkarrizketatu horien arabera Hego Euskal Herrian.

❖ **b) Politikatik kulturari begira**

Aurreko azpikapituluan ikusi da elkarrizketatu batzuek botoa ematerakoan lehenengo irizpidetzat dutela euskaldun/espainiar bereizketa. Hurrenkera horretan bigarren erabakia da nori eman botoa erabakitzea, hau da, ezker edo eskuineko euskal alderdiei. Hautesle horien kasuan, ez da aurreikusten espainiar alderdiei bozkatzea. Izan ere, Espainiar saretze bertikalean dute jatorria alderdi horiek. Ikuspegi kulturala indartsua da saretze bertikal nazionala normalizatuta dagoen lekuetan. Horregatik komeni da euskal nazio zapalduaren kasua aztertzerakoan deseraiketa Madriletik abiatzea:

- (212) Madrilen inkostienteki ematen dek botoa. Hark ematen dik botoa ze iritzi daukan ekonomian egin behar duen interbentzioari buruz, ze iritzi duen klimari buruz, ze iritzi duen kulturari inbertitu behar duen kontuei buruz. Baina dena gaztelaniaz bizi dik naturaltasunez. Gure kasuan, berriz, hortik bozkatzen diagu. Nik ez diat imajinatzen euskaldun bat botoa ematen PP edo PSOeri. Ez baldin bada praktikoa azkeneko helburuari begira. Ikusten dutelako, adibidez, Podemosi bezala autodeterminazioaren alde egiteko hari ematea hobe zela. (24_Elkarrizketa; E3).

Euskal nazioa, ordea, nazio zapaldua da eta pitzadurak ditu. Pitzadura politikoari dagokionez, ondorio nagusia da euskal kulturaren auzia urtu egiten dela dimentsio sozialean artikulatzen diren borroketan, hau da, lurralde bateko biztanleria guztiari

eragiten diotenetan. Azken horrek berebiziko eragina du euskal saretze horren parte diren norbanakoen mundu ikuskeran. Izan ere, zenbait kasutan hautesleek euskal nazioaren gaineko zatiketa kultural/politikoa barneratzen dute beraien portaera azaltzerakoan.

- (213) Lehenengo ezkerreko politikak. Alde horretatik alderdi bakoitzak ze programa duen, eta gero ea abertzale den. Nik bozkatzen dutena abertzalea da ze ni abertzalea naiz. Baina lehenengo garrantzia ematen diodana da... bueno más o menos biak. Lehenengo ezkerrekoa baina uste dot biak lotuta doazela, abertzale izatea eta ezkerrekoa izatea. Horregatik, no se. (...) Lehenengo igual, gutxiengo eskubideak defendatzeari garrantzia ematea. Gero baita euskarari ere. Eta, klaro, gutxiengo gero feminismoaz lotuta dago, langileekin eta etorkinekin. [-*Denboran aldatzen joan da aldagai horietako bakoitzaren garrantzia?*] Ez, bueno orain garrantzia gutxiago ematen diot abertzaletasunari edota beste era batera ikusten dut. Aldatu dut apur bat. (...) Nintzen abertzalea eta ezkerrekoa dena batuta, baina orain igual garrantzia gehiago ematen dotzet eskubideak defendatzeari eta hori! No se, biztanleria guztia barne biltzen duen politika aurrera eramateari. [-*Ez abertzaleenak bakarrik?*] Hori da! (26_Elkarriketa; E4).
- (214) Langile familia bateko semea naiz (...) Hortaz bozka ezkertiarra oso garbi eduki dut. Eta beti oso kritiko izan naiz PNVrekin. PNVrekin ba ez dakit historian zehar ikusi ditudan txantxuiluak eta gauza asko ez dut onartzen. (...) Zaila da ze aldagai izaten duen eragin handiena momentu bakoitzean. Baina nik esango nuke historikoki galdetu bazenit, zer zera gehiago nazionalistagoa edo ezkertiaragoa? Nik jarriko nuke lehendabizi ezkertiarago eta gero nazionalista, ez? Edo biak batera paraleloan? Ez dakit, agian igual lerro konbergenteak dira, ze historian zehar ere izan dira eta izan beharko lirateke, nire ustez. Hori da utopia. Nik utopia konbergentzia horretan ikusten dut. (29_Elkarriketa; D8).

Irakurketa politikoa egiteak ez du esan nahi irakurketa kulturala egiten dutenak bezain abertzale edo euskaltzale ez direnik. Aitzitik, posible da azken horiek irakurketa kulturala egiten dutenak baino euskaltzaleago edo nazionalistago sentitzea. Desberdintasuna da azken horiek nazioaren inguruan irakurketa modernista dutela. Horrela, euskal subjektu politikoaren auzia formulatzen da kultur aniztasunetik abiatuta, ez interkulturalitatetik. Hala, muturreko kasuetan ulertzen da kulturaren auzia borroka partikularra dela, aldiz, borroka soziala da unibertsala. Horrela, aurrenengoa subordinatzen zaio bigarrengoari. Formulazio horrek bi ondorio ditu: 1) subjektu politikoa bihurtzen da anitzagoa eta zabalagoa; 2) subjektu politikoa zabaltzerakoan arriskua dago alteritate epistemikoa desagiteko. Hor sartzen da jokoan hegemoniaren jolasa. Euskal nazionalismoaren baitan aspaldikoak dira unibertsaltasunaren eta partikulartasunaren inguruko eztabaidak. 1960ko hamarkadan, adibidez, ETaren baitan marxismoak indarra hartu zuen garaian, luze eztabaidatu zen horren inguruan. Adibidez, ETaren V. Biltzarrean *Euskal Langile Herria* formulazioa proposatu zen nazio auziaren eta auzi sozialaren inguruko korapiloa askatzeko asmoz. XXI. mendearen lehen hamarkadan, berriz, bestelako proposamenak agertu dira hurbilketa politikotik, hala nola, *euskalduntasun subalternoarena*. Aipatutako horrek ere proposatzen du borroka feminista, sozialista eta nazionala poliedro beraren aurpegi ezberdinak direla. Ondorioz, zer gertatzen da euskal naziotasuna partekatzen duten baina bestelako proposamen sozial bat duten proiektu politikoekin? Ezkerretik begirada politikoa hobesteak, adibidez, zaildu egiten du saretze

bertikal bereko euskal alderdi eskuindarrei bozkatzea. Aitzitik, errazagoa da saretze bertikalez aldatzea.

- (215) Ezkerretik Podemosi. Eta horrela ere egin izan dut. PNV ez nuke inoiz bozkatuko. Inoiz. Niretzat PNV PP da, nahiz eta abertzalea izan. Ez nuke inoiz bozkatuko. (20_Elkarriketa; G4).
- (216) Ba bi boto ezberdin dauzkat. O sea, Euskal Herri mailakoetan eta herri mailakoetan bati bozkatzen diot eta estatu mailakoetan beste batzuei. [-Zertan oinarritzen zara?] Eraginkortasunean. [-Zeini esaterik bai?] Estatu mailan Podemosi bozkatu izan diot eta hemen Bilduri. Eske niretzat inportanteena da denen aurretik ezkerreko mugimenduarena. (34_Elkarriketa; F7).

Era berean, badira hautesleak euskal abertzale sentitu ez arren, euskal alderdiei bozka eman eta euren portaera elektorala irakurketa politikotik egiten dutenak. Horietako zenbaitzuek aipatzen dute euskal alderdiei botoa emateko arrazoi nagusia gestioa dela, ez motibazio nazionala. Honen atzean dagoen ideia da euskal alderdiek benetako apustu nazionala bigarren mailan uzten dutela politikan emaitza hobek lortzeko. Hegemoniaren izenean, nazioaren zatiketa kultural/politikoaren barneratze dute. Hala, politikoki irakurketa koherentea da euskal nazionalista ez izanagatik euskal alderdiei botoa ematea. Azkenean, Espainiar batasuna zalantzan jarri gabe onura sozialak eta estabilitatea lortzen baitituzte Espainiako erregio periferiko bateko hautesleek.

- (217) [EAJri botoa] Irakurketa politikoa ondoren. Ez da sentimenduz. Momentu batean nik uste dut horrelako hegemonia kontrolatzeko, nor dauka aukera konfliktorik edo ahalik eta gatazka gutxiena izateko? Ba nik uste dut dela PNV. Bestea izango litzateke, oso abertzalea naiz eta ez dakit zer... (14_Elkarriketa; D6).
- (218) Klaro, azkenean da jende bat hauteskunde espainoletan alderdi espainiarreri bozkatzen diona. Eta espainola delako botatzen diona espainolai. Baina bada jende bat badena edo ez dena definitzen nazionalitate batez, baina bai dela gustura EAJko gestioarekin. Boto multzo handia duk. Ze imajinatu. Nik adibidez, ezagun batzuk ditut Espainiako etorkinak direnak. Haiek etorri ziren hona gazte-gazte. Jada pasa dira 50 urte etorri zirenetik, eta haiek bai direla espainolak, baina erdi ondarroarez ere egiten dabe. Bertako azentuaz ere bai eta grazia egiten dabe nola egiten daben euskaraz. Baina gerokun praktikuk ere badira. Eztira horren patriota espainolak. Ikusten dabe hemen Bizkaian sekulako ondo daude egiten hau. Euskadin sekulako gauzak lortzen dira, eta azkenean, kriston pentsio geratu jaku. Halakuk eta bestelakuk ... [-Boto horren atzean nazio auzirik ez dago?] Klaro, bi boto mota izango lirateke gero. Bat, be bai gestioagatik. Nik biagatik bozkatzen dot. Baina bada sektore bat, edo boto multzo bat, bozkatzen duena horrela. Baina era berdinean EH Bildurekin ere gauza bera gertatzen da. EH Bilduri bada jendea bozkatzen diona ez duelako nahi EAJren erdua jarraitu. (23_Elkarriketa; E1).

Ikusten den moduan, euskal alderdiek espainiar marko politikoak zalantzan ez jartzeak eragiten du balizko euskal boto emaileen multzoak hazkundera izatea. Izan ere, horrela euskal alderdiek espainiarren botoak ere jaso ditzazkete logika erregionaletik, euskal nazionalisten botoez gain. Elkarriketatuek azpimarratzen dute horretaz baliatzen direla EAJ eta EH Bildu. Alabaina, aurrera jarraitu aurretik, ñabardura bat egin behar da erdal naziotasuna duten elkarriketatuen portaera elektorala ulertzeko. Izan ere, zenbaitek espainiar gisa euskal alderdiei bozkatzen dietenean boto erregionalista edo boto periferikoa izan arren buruan, beste batzuk, internazionalismotik ematen dute botoa.

- (219) [Euskara ikasteko motibazioa] Hizkuntzekiko dudak konpromiso politikoak. Betidanik... Hasten zara Aragoiko abertzaleen sentimendua pizten eta han agertzen dira Zeltak, Irlanda... internazionalista. (...) Gu gazteak ginenean eta aukera zegoenean para las clásicas estas de Europa,

votábamos a HB. Bai, bai... Aukera zegoenean eta hala bozkutzen genuen. Bai askotan. (...) Hor Aragoien ere gauzak aldatu ziren. Hasiera batean bazen alderdi bat Chunta Aragonesista, gure garaian militanteak izan ginen Aragoiko abertzaleatasun hori bultzatze aldera. Hori gero epeltzen joan zen eta handik ere beste lerro bat atera da eta gero hori bai ibili dela EH Bildukin zenbait gauzatan. (2_Elkarrizketa; D7).

- (220) Ez da erraza azaltzea baina... Uste dut faktore desberdinak daudela eta agian bi direla nagusi. Nire etxea ez da inoiz abertzalea izan. Beti izan naiz hazia balore batzuetan esaten dutela ba nolabait garrantzitsua dela konpartitzea eta agian zure egoera hobea bada ondokoarekin alderatuta, ba horrek ez duela esan nahi zuk zure kasa joan behar zarela. Hori gehituta, ETA existitzen zenaren kontua, eragiten zuen ba ez nuela ezta kontenplazten Ezker Abertzaleari botoa ematea. Niretzat zen nahiko linea gorria (...). Baina ETA desagertu zenean, ba bai. Aukera bat izaten hasi zen niretzat Ezker Abertzalea eta gero iritsi da momentu bat, non, baita Kataluniarekin gertatu dena baina hori baino lehen ere, ikusi dudala nolabait utopikoki edo idealki oso polita dela esatea jo ba goazen Espainia aldatzera, eta Espainiak ulertuko du errealtate plurinazional bat dagoela eta abar. Baina gero ikusi dut hori dela oso zaila, eta Espainian dagoela kriston indarra 78ko erregimenean finkatuta. Eta 78ko erregimenean bertatik datozenentzat oso zaila da ulertzea plurinazionaltasun hori edo dena delakoa. Iritsi da momentu bat, ba pentsatu dudana agian bada momentua, utopia alde batera utzi eta zergatik ez da izango aukera posible bat independentzia eskatzea eta gure kabuz eraikitzea. (31_Elkarrizketa; E8).

Laburbilduz, atal honetan ikusi da euskal saretze bertikalak pitzadurak edukitzeak eragiten duela irakurketa kulturalaz gain, irakurketa politikoa egiten duten boto emaileak izatea. Guztira, hiru azalpen bereizten dira ikuspegi politikoaren baitan: nazionala, periferikoa eta internazionalista. Lehenari dagokionez, elkarrizketatuen artean ikusi da subjektu politikoa zedarritzerakoan kulturak elementu determinantea izateari uzten diola. Bigarren azalpenari dagokionez, elkarrizketatu batzuek aipatu dute euskal alderdiak ikusten dituztela espainiar saretze bertikalaren periferia gisa. Hain zuzen ere, horregatik bozkutzen diete euskal alderdiei, funtsean, euskal alderdiek espainiarrek inposatutako nazioaren gaineko zatiketa etniko politikoa barneratzen dutelako. Beste elkarrizketatu batzuek, berriz, beren abiapuntu kulturala baztertu gabe ikusten dute euskal nazioa nazio zapaldua dela. Hori dela eta, euskal alderdiei bozkutzen diete internazionalismotik.

7.2.2.3. Botoa eta lehentasunezko bazkidea

Hautesleen portaera elektoralek harago, euskal saretze bertikalak eragina du alderdien jardunbide politikoaren inguruan elkarrizketatuek izan ditzaketan iritzietan. Eragin hori aztertze, ordea, ezinbestekoa da zentrotik abiatzea ertzeko kasuaren deseraiketa. Madrileko hauteskunde autonomikoetan aldagai soziala da paktuak eta koalizioak determinatzen dituenak. Izan ere, alderdi guztiak espainiar saretze bertikal beretik erdituak dira, eta beraz, clivaje soziala da elkarrengandik bereizten dituenak. Euskal kasuan, auzia nahasiagoa da; izan ere, hegoaldean euskal sistema politikoa subordinatuta dago Espainiako sistema politikoari. Honako galdera sortzen da mito modernoak sistema politikoa goitik behera gurutzatzen duen kasuetan: zein da elkarrizketatuen arabera eurek bozkatu duten alderdiak izan behar duen lehentasunezko bazkidea?

Elkarrizketatu artean iritzi desberdinak agertu dira. Bi multzotan banatu dira iritzi horiek: batetik, irakurketa kulturatik abiatuta nazio askapena lortzeko batasun nazionala aldarrikatzen dutenak daude; bestetik, irakurketa politikotik abiatzen direnak daude. Azken horiek azpimarratzen dute arrazoi bategatik (egonkortasuna) edo besteagatik (askapen soziala) batasun nazionala baino hobe dela lehentasunezko bazkidea bilatzea alderdi espainiarren artean.

❖ **a) Kulturatik politikari begira**

Kulturatik irakurketa abiatzen dutenek azpimarratzen dutena da euskal alderdi abertzaleak hizkuntzak eta kulturak batzen dituela. Horregatik, zenbait elkarrizketatuk nazioaren gaineko eten kultural/politikoak josteko ezinbestekoa ikusten dute EH Bildu eta EAJren arteko harremana sendotzea. Lanean zehar ikusi da ahalegin desberdinak egin izan direla. Nagusiak bi izan dira: Xiberta eta Lizarra Garazi. Alabaina, bi kasuetan ahalegina ez zen aurrera atera. Zenbait elkarrizketatuk saiakera horiek aurrera atera ez izanaren pena aipatu dute eta aurrera begira ere aldarrikatu dute horretan sakondu beharra dagoela:

(221) Niretzat gu diodanean euskaldunak gara. Politikoez eta egingo dute berea. [-*Batasuna kulturak ematen du?*] Hombre! Eta hori indarrez eman behar da. Eta nik gure umei beti irakatsi diet argi eta garbi. (...) Penagarrixe da, jo gure artean batzuetan inbidia edo gorrotoa dela eta... Nire aitak askotan esaten du jo euskaldunek euren artean zergatik ezin dute konpondu. Eta, pena da! (21_Elkarrizketa; B1).

Espainiarren batasun politikoa Estatuak bermatzen duen bitartean, Ipar eta Hego ardatzetan banatzen ditu euskaldunak Frantziar eta Espainiar estatuak. Horrez gain, euskaldunak auzi sozialak zatitzen ditu ezker/eskuin ardatzean. Espainiarrak ere zatitzen ditu auzi sozialak. Alabaina, zatiketa horrek ez du zalantzan jartzen batasun politikoa euskaldunen kasuan gertatzen den moduan. Alde horretatik, elkarrizketatuen hitzetan agertzen da kultura puska desberdinetan banatzeak sortzen duen mina. Izan ere, bere kasuan bere euskalduntasuna ez da kulturara mugatzen, politikoa ere bada. Espainiartasuna kulturala eta politikoa den moduan. Alabaina, ezin da euskalduntasuna politikoki espainiarrek bizi duten moduan bizi, aurrez Iparraldean eta Hegoaldean kulturalki puskak josten ez badira. Ikusten den moduan, mito modernoak mekanismoak artikulatu ditu euskaldunen proiektu politikoaren gainean menderakuntza erreproduzitzeko. Kanpotik inposatutako zatiketek areagotu egin dituzte euskal alderdien arteko tirabirak. Elkar batzen dituen abiapuntu kulturala bera dela ere eztabaidagai bihurtu baita.

Xibertako elkarrizketak porrot egin berritan Telesforo Montzonek esan zuen alderdien artean ezinezko zena herriak egin beharko zuela. Euskal Herrian ordutik hamaika mugimendu eta erakunde sortu dira asmo horrekin. Alabaina, elkarrizketatuek aipatu dute alderdi politikoek mugimendu horiek monopolizatzeko ahalegina egiten dutela. Hori egitean, herri mugimenduetan sortzen dira alderdi politikoen artean dauden arazoak.

(222) Ez dakit, osea, ez dot nahi ezta txarto berba egin baina askotan gertatzen da mugimendu sozial bat sortzen denean, bai Euskadin eta Katalunian ere bai, ERCk eta CUPEk mugimendu sozialak monopolizatu egiten dituzte. Hemen ere bai. Gizartetik sortzen diren mugimendu sozialak, adibidez, Gure Eskurekin gertatzen dena monopolizatu egiten dute. (...) Nahiz eta, EH Bildu bezala ez batu. Badakizu horko jendea dela. PNV edo lo que sea. (23_Elkarrizketa; E1).

Edonola ere, esperientzia positiboak ere agertu dira. Alde horretatik, elkarrizketatuek begi onez ikusi dute EH Bildu eta EAJ edo Geroa Baiko alderdien artean kultur auzian adostasunetara iristea, nahiz eta jakinaren gainean egon desadosunak dituztela auzi politikoen inguruan.

(223) Geroa Baiko jendearekin eta badiat harremana. (...) Ezagutzen diaten jendea euskalduna ere baduk. Erdalduna ere baziok. Baina bueno beraiekin daukedan harremana ez dek txarra izen baizik eta euskarak batuta egin izan dizkiagu gauzak. Baina beti jakinda bakoitza ze lineatan dagon. Askotan ez diagu politika bera aurretik jarri, hizkuntza baizik. Eta hizkuntzarekin gauzak egin dizkiagu. (11_Elkarrizketa; E4)

(224) Hombre nik uste denontzako igual onena izango litzatekeela Bildurekin egitea. (...) O sea biak Euskadikoak dira eta Euskadikoak ongi zaintzen dugu gure lurra. Besteak ez dakit. (4_Elkarrizketa; E6).

Laburbilduz, elkarrizketatuen zati handi batek naturalizat ikusten du EH Bilduren eta EAJren arteko lankidetzaz. Alabaina, nazio zapaldua izateari clivaje soziala gehituz gero, praktikan zaila da adostasunetara iristea euskal nazioak bizi duen menderakuntza egoera askatzeko bide-orria zehazterakoan. Edonola ere, elkarrizketatuen artean borondatea agertu da alderdien artean egiten ez dena herri mugimenduetatik sustatzeko.

❖ **b) Politikatik kulturari begira**

Nazioaren mito modernoaren gainean legitimatzen da estatu-nazioa. Era berean, hauteskundeak dira legitimazio hori berritzeko oinarrizko errituak. Mito modernoak egiten duena da euskal alderdiak erritu horren parte bihurtzea eta logika etno-erregionalistetara bihur-murriztea. Horregatik, bidegurutze batean aurkitzen dira elkarrizketatuak galdetzen dietenean nor nahi duten izatea aurrera begira bozkatu duten alderdiaren bidelaguna.

Alde horretatik, hainbat elkarrizketatuk aipatzen dute ez dutela begi onez ikusten EH Bilduren bidelaguna EAJ izatea. Ezkertiar gisa iruditzen zaie eskuineko alderdi batekin elkartzek kontraesanak sortzen dituela.

- (225) Ezkerreko mugimenduarekin ikusiko nuke batera. Eske niretzat horrela da. Nire ustez ez dauka logikarik ezkerreko mugimendu bat eskuineko mugimendu batekin gai batengatik lotzea. (34_Elkarriketa; F7).
- (226) Nik ez dakit PNVrekin elkartuko nintzatekeen. Benetan esaten dizut. Ez dakit. Hor zalantzak izaten ditut eta batzuetan hitz egiten dugu horri buruz. Ba tipo Katalunia. Ba hala goazen denak batera. Denak batera hori, (...) Lagunek eta esaten dute: ¿Qué es lo primero, el estado o el proyecto del estado? Zer nahi dugu, independente izan eta ikusiko dugu zer egin? Batzuek esaten dute hori ez da horrela, eta nik ere zalantzak ditut. EH Bildu eta PNV elkartuta igual lortu daiteke independentzia, baina orduan zer? Nik izan nahi dut independente, baina ez edozein modelorekin! Orduan ba hori zalantzak eta buruhaustak. (2_Elkarriketa; D7).

Horrela, irakurketa politikoa egiten duten EH Bilduko boto emaileen artean, joera handiagoa dago ezkerreko espainiar alderdiak hobesteko bidelagun gisa. Edonola ere, hurbilpen kulturalaren nahiz politikoaren kasuan, argi dagoena da espainiar eskuina ikusten dutela lehentasunezko bazkideen artean azkenengoa.

- (227) Eta nik uste diat aurrerakoiak diren herritar horiek bildu behar dituen koalizio edo mugimendu bat sortu beharko litzatekela. Hori duk idealena eta hori izan daiteke partidu ia gehienetatik kenduta PP eta Vox. (17_Elkarriketa; C3).

EAJren boto emaileen kasuan, antzeko zerbaite ikusten da. Alabaina kasu honetan, irakurketa politikatik eginez gero, PSOE da lehenesten duten bidelaguna.

- (228) A ver. Hor dago futbol partida. Sozio preferentea, zuk pentsatzen baduzu, hemen 5 eta 5 elkartzen bagera beti edukiko dugu mayoria [EH Bildu eta EAJak]. Azken batean zergatik ez gara ados jartzen? Te quiere ocupar tu espacio. Alde horretatik, logikoena da zeintzuk egingo dugu mayoria? Berez, EH Bildu eta PNVk. Baina horrek zer darama Katalunia bezala? Gehiengoa gara eta orain zer erabakitzen da? Hori da beste bide bat. (...) Sozio berez izan behar da hori [EH Bildu]. Baina zer gertatzen da errealitatean? Nola bakoitzak bere espazioa duen eta nola besteekin ez duzun adosten problema hori, ba adosten duzu PSOErekin. (3_Elkarriketa; A6).

Elkarriketatuen aipuan ikusten da hegemonia politikoaren inguruko lehiak asko zailtzen duela EH Bildu eta EAJren arteko adostasuna. Horregatik, EAJren hautua da PSOErekin paktua egin eta zentralitatea mantentzea. Gainerakoan arriskua baitago gatazka egoera batean sartzeko Estatuarekin. Alde horretatik, beste elkarrizketatu batekin honako gogoetarekin laburbiltzen du auzia:

- (229) PNV PSOErekin egon dek eta naziogintzan ikuspegitik beraren zeratxo bat egiten dik. Eusten zioz minimo bati. Galdera dek ezker abertzalea besteekin juntatuta zenbaterainoko indarra duen naziogintzan sakontzeko. Interesgarria dek etorkizuneko independentzia batean zer izan daitekeen. Hor dezenteko mugak ikusten dizkiat. Nik nazio ikuspegitik euskal nazionalista diren alderdiek gustatuko litzaidake itun bat egitea euskal naziozko kontuak blindatzea. Eta besteekin, berriz, nazionalista espainolarekin hori egitea ezinezkoa duk. Praktikan ezinezkoa izango dela iruditzen zaiak. (24_Elkarriketa; E3).

Elkarriketatuak lerroartean azpimarratzen duena da egungo autonomia estatutuak nazioaren gaineko dikotomia etniko/zibikoa bere egiten duela. Alabaina, euskal alderdi batek kudeatzen duen bitartean naziogintza prozesuak bizirik irauteko lain gutxienez egiten dela. Alabaina, normalizaziorik ez da aurreikusten hortik. Alde horretatik, elkarrizketatuak zalantza du EAJren ordez ezker abertzalea gobernura iritsita zenbateko gaitasuna izango lukeen naziogintza prozesu hori iraultzekoa. Alde horretatik, argi eta

garbi dio nazionalista gisa euskal alderdiek euskal nazioari dagozkion aldagaiak blindatu beharko lituzketela. Teorian espainiar alderdiek euskal naziogintza babesteko eragozpenik eduki behar ez luketen arren, mito modernoa bere egiten dutenez, elkarrizketatuak dio haiekin lankidetzan praktikan euskal naziogintza normalizatzea ezinezkoa dela. Izan ere, onartzen duten naziogintza bakarra da zatiketa etniko/kulturala bere egiten duena. Alabaina, euren aurka fronte nazionala eratuz gero, gerta daiteke agian egun euskal abertzaletasunak bere eskutan dituen egitura gutxi horiek ere galtzea.

7.2.3. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna

Lan guztian zehar ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak ulertzeko moduak anitzak direla. Lan honetan hobetsi den begiradaren arabera, horretan zerikusirik handia du euskal nazioak bizi duen egoera gutxituak. Atal teorikoan ikusi da lerrokatze linguistiko elektoralaren oinarrian saretze bertikala dagoela. Belgikar ereduaren ezaugarri nagusia da nazio kide bakoitzak bere alderdiari bozkatzeko diola (Anduiza eta Bosch, 2012, 161-165. or.). Kasu horretan, bat egiten dute hizkuntzak, naziotasunak eta erakunde politikoak. Hautesleek saretze bertikalaren amaraunean hartzen dute babes. Horrela, boto fluxuak ekiditen dituzten sare iragazgaitzak sortzen dira. Deslerrokatze elektoralak ez da ohikoa. Euskal kasuan, ordea, nazio zapaldua izanik bestelakoa da egoera. Kasu honetan, mendeko egoerak eragin du euskal saretze bertikalaren pitzadura. Horrek eragiten du saretze bertikala ahultzea eta boto joerak Belgikar eredutik urruntzea. Alegia, deslerrokatze elektoralak gertatzea euskal saretze bertikalaren parte diren elkarrizketatuen artean.

Hori guztia kontuan izanda, atal honen xedea da euskal lerrokatze linguistikoaren sendotasunean eragiten duten aldagaiak identifikatzea. Beste modu batera esanda, elementu desberdinak identifikatu nahi dira deslerrokatzea gertatzea oztopatzen dutenak.¹⁶⁶ Alde horretatik, lan honetan ondorioztatu da euskal lerrokatzearen sendotasunean eragiten duten hauteslearen aldagai nagusiak hiru direla: 1) lehen

¹⁶⁶ Horretarako, atal metodologikoan azaldu den moduan bi dimentsio gurutzatu dira analisia egiteko: alde batetik, elkarrizketatuek dituzten pertzepzioak jaso dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean eragiten duten hirugarren aldagaien inguruan; bestetik, elkarrizketatuek beren portaera elektoralak azaltzen zuten bitartean aztertu da elkarrizketatuaren soslaiaren arabera alderdi abertzaletik bozkatzeko joera sendoagoa edo ahulagoa den. Izan ere, laginketa estratifikatua erabili denez ikertzaileak aukera du aztertze nola aldatzen den elkarrizketatuek euskal lerrokatze linguistikoaren inguruan duten iritzia beren posizio soziologiko eta politikoetatik abiatuta.

hizkuntza, 2) ideologia nazionala, 3) eremu soziolinguistikoa. Hiru elementu horiek eragiten dute euskal saretze bertikalarekiko atxikimendua areagotzea eta boto fluxuak eragozte.

84. taula: Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren eredu ideala.

HAUTESLEAREN EZAUGARRIAK	LERROKATZEAREN SENDOTASUNA	
	+	-
LEHEN HIZKUNTZA	Euskara (ere bai)	Gaztelera
IDEOLOGIA NAZIONALA	Euskal abertzalea	Espainiar abertzalea edo besteren bat
EREMU SOZIOLINGUISTIKOA	Lurgune euskalduna	Lurgune ez hain euskalduna

Iturria: Egilea.

Lanean zehar aztertu diren gainerako elementuetan ikusi da ez dutela zuzenean eragiten euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean: 1) sorlekuak (EHan jaioa/EHTik kanpo jaioa), 2) gurasoen jatorriak (EHan jaioa(k)/EHTik kanpo jaioak), 3) botoak (EH Bildu/EAJ), 4) generoak (gizon/emakume) eta 5) adinak (1978an baino lehen edo geroago jaioa).

7.2.3.1. Lehen hizkuntza

Belgikar ereduaren arabera lerrokatze linguistiko elektoralaren ezaugarri nagusietakoa da naziokide guztiak beren hizkuntza nazionalan bizi direla. Horrek esan nahi du naziokide batek bere hizkuntza ezagutzeaz gain, erabili eta transmititu egiten duela. Madrileko kasua da Espainiar estatuan Belgikar ereduarekin alderatu daitekeena. Bertan, ia erabatekoa da gaztelania ezagutza eta naturala da gaztelania erabilera eta transmisioa. Are gehiago, guztiek espainiar alderdiei ematen diete botoa. Bestelakoa da euskararen egoera Hego Euskal Herrian. Azken honen kasuan, hauskorra da familiako hizkuntza transmisioa. Testuinguru horretan ikusi da elkarrizketatuen lehen hizkuntza euskara den kasuetan, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendoagoa dela. Beste modu batera esanda, oro har, euskal saretze bertikalarekin duten atxikimendua handiagoa da hautesle horien kasuan lehen hizkuntza gaztelera duten hautesleen kasuan baino.

Analisi horrekin bat egiten dute elkarrizketatuen pertzepzioek. Gogoratu behar da nazio klasikoaren arabera, bi izaera barne biltzen dituela nazioak bere baitan: kulturala eta politikoa. Alabaina, mendekotasun politikoan bizi den nazioak nekez mantendu dezake nazioa pitzadura gabe natural. Horrek eragiten du pitzadura kulturala, hau da, hizkuntza transmisioaren etena. Hizkuntza barneratzeko bi modu daudela aipatu da lanean zehar: lehen aukera da familiatik edota gutxienez haurtzaroan beste bideren batetik euskaraz

jasotzea –lehen sozializazioa–; eta bestea, kontzientzia politikoagatik edota beste arrazoi batengatik gerora euskara ikastea –bigarren sozializazioa–. Alde horretatik, bada desberdintasun bat bi kasuen artean: kulturalki euskaldun jaio dira aurrenekoak, bigarrenak, berriz, erdaldun. Hautesle gehienek azpimarratu dute euskaldun zaharra izateak –zehatzago esanda, *gaztelar hiztun berria* izateak– indartu egiten duela euskal hiztun izan eta euskal alderdiei bozkatzeko joera.

(230) Nik uste baietz. Azkenean sentitzen duzu oso gauza propio bezala. Azkenean, familiak transmititzen dizuna ez dakit nolabait odolean daramazu. Zenbait kasutan igual zu heldua zarenean agian ulertu dezakezu ez dela gauza ona transmititu dizutena, baina nire kasuan, beti era positiboan izan denez sentitu dut oso natural. Orduan, nik uste badagoela edo izan daitekeela joera gehiago abertzale izateko hori etxetik bertatik jaso baduzu. (1_Elkarrizketa; A2).

Elkarrizketatuen artean “natural” hitza da inplizituki edo esplizituki behin baino gehiagotan agertu den kategoria.

(231) Geroa Bai hasi zenean iruditu zitzaidan normala, sentziloa eta arrunta zela. Eta erraten duzu eman behar diogu konfiantza pixka bat. (13_Elkarrizketa; A1).

Euskaldun zaharrek jaiotzen direnetik euskaratik begiratzen diote munduari. Zenbait kasutan, gainera, erdaldun berri izatean hizkuntza gaitasun erlatibo handiena euskaraz dute eta hiztun elkarte horren inguruan artikulatzen dira bere giza harreman funtsezkoenak (besteak beste, familia edo lagunak). Beraz, espainiar saretze bertikalaren sistema soziala ez zaie horren etxeko egiten. Harreman horietatik kanpo gaztelania inposatu izanak, hau da, gaztelania ezagutza nahitaezko izateak edota gizaratean espainiar elebakar pribilegiatuak egoteak behartu ditu elkarrizketatuak euren ez den hizkuntza ikastera. Norberaren joera naturalak bortxaz aldatzeak eragiten du gainerakoan natural biziko zuten euskalduntasunaren inguruan kontzientzia politikoa indartzea. Soslai hori duenak joera izango du euskal saretze bertikalari atxikimendu sendoa izateko.

Alabaina, euskara transmisioa beti ez da natural gertatzen. Zenbait kasutan transmisio hori gertatzen da ahalegin handi baten ondoren. Horrelakoetan, euskararekin batera kontzientzia politikoa ere transmititu zaio euskal hiztunari. Izan ere, kontzientzia politikoa da kulturaren transmisioa ahalbidetu duena.

(232) Ez dakit, ni Gasteizen jaio naiz eta euskalduna naiz. Orduan esango nuke oso familia jakin batekoa naizela. Nire gurasoak euskaldunak direlako eta euskara transmititzea erabaki zutelako. Eta bitartean herri batean, baino klaro hau tranpa da, ze azken batean herri txiki euskaldun gehienetako ideologia abertzalea da, ez? Orduan, desberdina dena da herri txiki horietan euskara eta botoaren lotura argia da ideologia ia bakarria delako. Eta hemen, lotura argia da, euskaraz egiten dugunak profil horretakoak garelako. (27_Elkarrizketa; E4).

(233) Ama hizkuntza izateak erraztu egiten du baina ikasten dutenek ere aurrera ematen dute. Batzuetan ama hizkuntza izateak lasaitu egiten zaitu. Ez diozu garrantzirik ematen. Baina ikasi baduzu eta esfortzu handia egin baduzu ba bai. Hor kontua da maitasuna. (...) Jende asko dago lana lortzeagatik ikasi duena. Gero lana lortuz gero ez dute egiten. Horiek ikasi dute euskara helburu batekin. Eta helburua ez da izan sentimentala. Helburua izan da lanpostua. Lanpostu hori lortzeko

atera dute profila, baina gero lanpostu horretan ez du sekula euskara egiten. Horiek ez dute abertzale bozkatuko! (19_Elkarrizketa; A2).

Ikusten den moduan, lehen hizkuntza euskara izateak bi egoeretan indartzen du euskal lerrokatze linguistiko elektoralara: batetik, hizkuntzaren transmisioa natural gertatzen denean, eta bestetik, oztopoak daudenean. Behin hori esanda, ordea, horrek ez du esan nahi lehen hizkuntza euskara duten guztiek euskal alderdiei bozkatu behar dietenik. Badira kasuak, euskara lehen hizkuntza izan arren, espainiar alderdiei bozkatzen dietenak. Beste horrenbeste esan daiteke gaztelania edo beste hizkuntza bat lehen hizkuntza dutenen artean ere. Posible da gaztelania lehen hizkuntza izan eta euskal alderdiei bozkatzea. Horrek guztiak erakusten du azken batean bizipenek baldintzatzen dutela hauteslearen borondatea. Izan ere, aldakorra da elkarrizketatuek euskal saretze bertikalarekiko duten atxikimendua. Horregatik guztiagatik, lehen hizkuntzak deslerrokatze linguistiko elektoralara gertatzea ekiditen badu ere, ezin da fenomeno hori modu esentzialistan ulertu. Aitzitik, dinamikoa da euskal lerrokatze linguistiko elektoralara.

- (234) Adibidez, Etxarri Aranatzan. Azken honetan, ia-ia guztiek euskaraz hitz egiten dute kalean eta etxean, eta Etxarri Aranatzan, espainola sentitzen den jendea badago. Alderdi Popularrak bi zinegotzi ditu. EH Bildu eta Alderdi Popularra, ez dago alderdi gehiagorik. Edo Leitzaan, beti UPN egon da eta derecha espainola ere egon da. Agian euskalduna da. Ez euskara batuan, baizik eta bertako euskararen. Eta euskalduna da eta bere bizitza euskaraz egiten du. Baina buruan espainola du eta espainola sentitzen da. (5_Elkarrizketa; E6).
- (235) Segun ze euskaldun zahar esaten duzun. Igual irudikatzen badut 18 urteko bat, ez dakit zer esan. Esaten badidazu 40 edo 50-60 urtekoak, bai. 18 urteko hauek zer egingo duten ez dakit. Hemen dena aldatu da. Belaunaldien arteko desberdintasuna kristorena da. Nik ez dakit, gaur egungo gazteak zer egingo duten. Ideiarik ez daukat. [-Euskaldun zahar diren adin nagusikoen artean abertzale bozkatzen dute?] PNV edo EH Bildu, bai, esango nuke ehuneko handi batean. (2_Elkarrizketa; D7).
- (236) Lehen hizkuntza da lehenengo eragina duena zalantzarik gabe. Baina ez beti eraginkorrena eta norberaren bizipenak dira eraginkorrenak. (...) Ez dakit baina gure aurrekoek joera gehiago zuten botoa emateko Espainiako alderdi bati. Baina nik ya 17 urterekin gauzak oso argi nituen, eta nahiz eta familia bide batetik joan, nire harremanak beste bide batetik zihoazen. Nire harremanak, nire bizitza, nire bidea beste norabide batetik zioan. (...) Nire lehen hizkuntza gaztelania zen baina nik nire esperientziak bizi izan nituen herri mugimenduetan eta beste toki batzuetan. Horrek eraman ninduen ni euskal mundura eta bozka abertzalea eramatera. (29_Elkarrizketa; D8).

Bizipenei dagokienez, ezinbestekoa da honakoa gogoan izatea. Erdaldun zahar batek euskal hiztun berria izateko ahalegin handia egin duen bitartean (askotan, euskaltegia bere poltsikotik ordaintzeraino), askoz erosoagoa da euskal hiztun zahararentzat erdal hiztun berri izatea. Izan ere, erakunde espainiarrak arduratzen dira Estatu espainiarraren lurgunean dauden hiritar guztiak erdalduntzen. Euskal kasuan, ez da horrelakorik gertatzen. Azpimarragarria da etxetik gaztelania jaso duten hainbat elkarrizketatuk egindako ahalegina euskara ikasi eta ondorengoei euskara transmititzeko. Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa joera orokor gisa, etxetik euskara jaso dutenek joera gehiago izatea euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko.

7.2.3.2. Ideologia nazionala

Lerrokatze linguistiko elektoralaren eredu idealaren arabera normalena da boto emaile guztiek naziotasun bera duten alderdiei bozkatzea. Izan ere, saretze bertikala gertatzeko berebiziko garrantzia du dimentsio normatiboak. Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen kasuan, beraz, logika horri jarraituz normalena da euskaldunek euskal alderdiei bozkatzea, eta espainiarrek, espainiar alderdiei. Alde horretatik, lan honetan ez da kontrakorik frogatu. Alderantziz, elkarrizketatuek esandakoak ikusi ostean ondorioztatu da hautesleak euskal abertzale sentitzen diren kasuetan sendoagoa dela euskal lerrokatze linguistiko elektoralala. Euren jokaerak bakarrik ez, elkarrizketatuek euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan duten pertzepzioak ere bat egiten du aipatutakoarekin.

(237) Kasu hauetan, euskaraz baldin badakizu eta euskara propio sentitzen baduzu, hau da, hezkuntzatik at euskara propio sentitzen baduzu (...) hor bai euskaldun izatearekin, euskal aberriarekin eta Euskal Herriarekin batasun bat ematen da eta azkenean joera izan daiteke Euskal Herria edo euskararekin joera gehiago duten alderdiei botoa ematea. (5_Elkarrizketa; E6).

Ikusten den moduan, euskal saretze bertikalaren oinarrizko elementua da euskal abertzaletasuna. Ondorioz, euskal hiztun batek kontzientzia nazionala duen kasuetan, ez da horren ohikoa saretze bertikalaren amaraunetik ihes egitea. Elkarrizketatuen aipuetan ikusi da gurpil zoroa sortzen dela euskararen erabileraren eta sentimendu nazionalaren artean. Batak bestea elikatzen du eta horrek dakar saretze bertikalari hauteslea leiala izatea. Oro har, hautesle horiek erakusten dute euskal erakundetzea sustatzearen aldeko jarrera. Horrela, erakunde horien ahalmen politikoa erabiliz ahalbidetzen da naziogintzan sakontzea eta euskararen normalizazioan urratsak ematea.

Euskal nazioa, ordea, nazio zapaldua da eta pitzadura kultural/politikoak ditu. Alde horretatik, euskal abertzale izateak pitzadura horiek jostera eramaten du hauteslea bi modutara: ez dakiena euskara ikastera bultzatuz, eta alderantziz, euskara dakienaren kasuan erabilera sustatuz.

(238) Nire kasuan nire amaren familia eta nire amaren izeko eta osaba, jaio ziren aman partekoak denak ezker aldean, herri industrial batean. Baina aitona amonak ziren Espainiako erregio batekoak. Ba familiaren parte horrekin beti erdaraz eta PNVri ematen diote bozka baina gestioagatik. Aitaren partekoak gertatzen zen hemengoak zirela, gaztetan euskaraz ikasi zuten, aitona eta amonak euskaraz bazekiten baina ez zuten erabiltzen. Gurasoek ez zekiten euskaraz, baina zeukaten identitate nazionala sartuta. Euskaldunak ez baina abertzaleak ziren. Ba orduan pixkanaka-pixkanaka. Nire aitaren aldetik hori transmititzean, niri nahiz eta erdalduna izan hori sartu zidaten. (...) Eta hortik aurrera ba pixka bat zuk badauzkatzu zure ideia eta gero hizkuntza arloan saiatzen zara hori aldatzen. (32_Elkarrizketa; E6).

(239) Gaur egun gazte guztiek ikasten dute euskaraz. Kanean entzuten dena beste gauza bat. Baina pentsa sentimendu apurtxo bat dutenak, horrek euskara gehiago egingo du besteak baino. (6_Elkarrizketa; A2).

(240) Nik uste dut retroalimentatu egiten dela. Bai, euskaldun izateak eragiten dizu maitatzea euskara eta horrekin datorren dena. Eta euskal kultura guzti horretan bustitzeak eragiten dizu maitatzea euskaldun izatea edo zeure euskaldun izatea finkatu egiten du. (23_Elkarrizketa; E1).

Horregatik, elkarrizketatuen arabera mito modernoa bere egiten duten espainiar alderdiek ez dute nahi euskararen normalizazioa. Izan ere, euskara zabalduz, euskal abertzaletasunari ateak zabaltzen zaizkio. Are gehiago, hanka motz gelditzen da euskararen inposizioaren diskurtsoa. Azken batean, espainiar alderdiek galdu egiten dute euskararen ez-ezagutzak abertzaletasunaren zabalkundeari mugak jartzeko eskaintzen duen bermea.

- (241) Denborarekin dudarik gabe horrek bere efektua eginen duela. Eta horri daukate beldurra alderdi espainolistak, alderdi popularrak eta sozialistek eta. Baina badakite hori pasatu behar duela. Badakite eta orduan horrekin daude pixka bat beldurtuak. Horregatik ez dute oraindik publiko egiten hemen: guk ere bultzatu behar dugu euskara. Ez dute egiten ahal. Zergatik beldur hori dute: “A través de la lengua nos van a meter el abertzalismo”. (7_Elkarrizketa; A1).
- (242) Igual hik gizarte euskaldun bat sortzen baduk UPNren diskurtsoa bukatu egin zaik: hauek jartzen badituk boterean hik lanik ez duk edukiko, ze hauek eskatuko diate euskara bai ala bai, eta hik ezingo duk lana egin, hik administrazioan ezingo dek lana egin, ezta hezkuntzan ere, ate denak ixten zaizkik... diskurtso hori bukatu egiten zaik gizarte euskaldun bat era natural baten sortzen baduk eta bate zearik gabe. Orduan, beraiek horren kontra egitea zaila dek. Zer esan behar diok euskaraz egiten duen familia euskaldun bati horrekin. Zer esan behar diok hi ateak itxi? Ikasi egin beharko duk. Bazakiagu denok. Ez baduzue ikasi duk ez duzelako nahi! Alde horretatik, gauzak erraztu egingo dituk. Diskurtso horiek amaitu egingo hituan eta beldurraren diskurtso hori amaitu egingo huan eta orduan ba jende hori, ba mundu hori, bozka abertzalea gerturatu egingo huan. Askoz boto gehiago izango hituan. (11_Elkarrizketa; E4).

Horren aurrean espainiar alderdien helburua da behin hizkuntza gaitasuna zabaltzen denean, hizkuntzaren eta politikaren zilbor hestea etetea. Alde horretatik, euskarak naziotasuna zedarrizterakoan duen garrantzia zenbat eta ahulagoa izan orduan eta joera gehiago egongo da espainiar alderdiei bozkatzeko.

- (243) Horrek esan nahi du euskara dela gauza bat eta abertzaletasuna dela bestea oso diferentea. Eta abertzaletasuna nik uste ari dela galtzen euskara irabazten ari den guztia. Eta hori ez da ona. Hori oso txarra da gerorako. Ez mantentzea abertzaletasuna. (...) Behinik behin, fideltasuna izateko botoa ematerakoan. Ikusi dugu oso garbi azkenekotan Podemos Lesakan garaile. Eta herriko etxean Bildu eta Geroa Bai bakarrik. (7_Elkarrizketa; A1).

Gauzak horrela, euskal abertzale ez den batek euskal alderdiei bozkatu diezaiekeen arren, ikerketan zehar ikusi da azken horiek espainiar alderdiei bozkatzeko joera handiagoa izango dutela. Alegia, deslerrokatze elektoralak gertatzeko aukera gehiago dago hauteslea euskal abertzalea ez den kasuetan.

7.2.3.3. Ingurune soziolinguistikoa

Euskal lerrokatze linguistikoko elektoralak eredu idealera hurbiltzen da sinbiosia gertatzen denean hizkuntzaren, nazio sentimenduaren eta botoaren artean. Belgikar ereduaren arabera lurralde batean flandrieraz hiz egiten da eta beste lurraldean valoniarrak dira nagusi. Ordezkaritza politikoa hautatzerakoan hauteskunde barrutiak erreferentzia moduan hartzen direla kontuan izanda, saretze bertikala lurralde batean hegemoniko

denean naturala da lerrokatze linguistiko elektorala gertatzea. Alegia, lurralde batean guztiek alderdi valoniarrei bozkatzea eta bestean flandriarrei. Euskal kasuari dagokionez, lan honetan atera den ondorioa da euskal hiztunek euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko joera handiagoa dutela udalerrri euskaldunetan, udalerrri ez hain euskaldunetan baino. Arrazoia da udalerrri horietan euskal saretze bertikalaren osasuna hobe dela, hau da, pitzadura gutxiago dituela. Ondorioz, deslerrokatze linguistiko elektoralak gertatzeko joera txikiagoa izango dute bertako hautesleek. Elkarrizketatuen pertzepzioak ere neurri handi batean bat datoz lan honetan ondorioztatutakoarekin.

Madrileko kasua adibide gisa hartuz gero, autonomia erkidego horretan hautesle guztiek dute gaztelania ezagutza eta guztiek bozkatzen diete espainiar alderdi nazionalistei. Espainiar saretze bertikala hegemonikoa denez, kasu horretan perfektua da espainiar lerrokatze linguistiko elektorala. Deslerrokatzerik ez da apenas gertatzen espainiar lerrokatze linguistiko elektoraren kasuan. Alabaina, errealitate desberdinak agertzen dira espainiar saretze bertikalak hegemoniko izateari utzi ahala, bereziki nazio desberdinak gainezartzen diren erregioetan, besteak beste: EAE, NFE, Galizia edo Katalunian. Hego Euskal Herriko kasuan, espainiar alderdiek jasotzen duten babes elektorala oso apala da gaztelania transmisioa eta etxeko erabilera %20 baino apalagoa den udalerrietan. Datu soziolinguistiko horiek lortzeko, ordea, ezinbestekoa da udalerrri horretako euskara ezagutza oso altua izatea. Hain zuzen ere, udalerrri horietan dago osasuntsuen euskal saretze bertikala.

- (244) Nik uste baietz, ze azkenean nire identitatea sortu da inguruko jendearekin, hezkuntzarekin, familiarekin... Orduan klaro, igual beste kontestu batean jaio banintzen edo sozializatu baldin banintzen gauzak beste era batera izango ziren. (25_Elkarrizketa; E3).
- (245) Bai, nik uste dut baietz. Euskara hitz egiten dan herri horietan asko lotzen da euskaldun izatearekin. Orduan azkenean, euskara da lehen hizkuntza eta euskaldunak dira eta abertzaletasun sentimendu gehiago dago, ez? Horregatik. (26_Elkarrizketa; E4).
- (246) Pues iruditzen zait herri txikietan dela derrigorrezkoagoa bezala [euskal alderdiei bozkatzea]. Nolabait ez daukazula buruan besterik. Igual hemen, Iruñerrian, nik ezagutzen dut jende euskalduna Podemos bozkatzen duena. Hemen jendea libreago sentitzen da herri txikietan baino. A ver, askatasuna ulertzen dut ez derrigortuta daudelako beste batengatik, baizik eta zure buruak berak derrigortzen zaituelako. (1_Elkarrizketa; A2).
- (247) *Hombre* kondizionatuta egongo da. Ze azkenean guk txikitan zer ikusten dugun hortik abiatzen gara. Hemen jende asko dago eskola kristautik irten direnak, gurasoak EAJkoak direnak eta seme-alabak ezker abertzalera jo. Baina kanpotarrak edukita gurasoak Ondarroa batean seguramente urtengo duzu nazionalista bai edo bai. (23_Elkarrizketa; E1).

Udalerrri euskaldunetako hautesleentzat naturala da beren bizitza euskal lerrokatze linguistiko elektoraren amaraunean artikulatzea (aisia, lanbidea, familia, eskola eta abar). Horrek eragiten du ordezkariak politikoa lortzen duten alderdi bakarrak euskaldunak izatea. Deslerrokatzerik ez da gertatzen hautesleen artean.

- (248) Hemen sekula ez PPK eta PSOEek, sekula ez dute parterik izan udaletxean. (...) Bueno ba ez dagoelako jenderik bide horretatik joango denik. Hizkuntzak parte bat izango du. PP izan da Gasteizko zerbeit, eta PSOE be bai. Herri txiki hauetan partidu horiek ez daude. (...) Euskararen

alde Podemos ez behintzat. Hemen ez dago Podemosik. Hemen dago EH Bildu eta EA, bueno oraintxe ez dakit, entre Bildu eta EA ez dakit ze erlazio duten. Eta gero PNV. Beste partidurik ez dago. (8_Elkarriketa; A1).

(249) Eske Lesakan herri mailan bi alderdi bakarrik izan gara, eta biak abertzaleak. Ez ikuspuntu berarekin baina abertzaleak biak. (7_Elkarriketa; A1).

Hori horrela izanik, elkarrizketatu batek aipatu du kuantitatiboki ez bada ere kualitatiboki udalerrri horiek berebiziko garrantzia dutela. Izan ere, ebidentzia bat jartzen dute mahai gainean: Espainiar estatuaren baitan euskal logikan artikulatutako munduak daude. Horrela, udalerrri horietan halabeharrez auzi sozialari aterabidea aurkitu behar zaio euskal munduaren baitan. Beste modu batera esanda, baldintzak sortzen dira espainiar saretze bertikalari subordinatu gabeko estatugintza pentsatu eta abian jartzeko (zatiketa kultural/politiko barneratuko ez duena). Izan ere, gizartean bertan natural ulertzen da kulturaren partikulartasunak barne biltzen dituela borroka sozial guztiak. Hori guztia nahasiagoa da udalerrri ez hain euskaldunetan. Izan ere, zenbat eta erdal hiztunagoa izan udalerrria, joera dago anitzagoa izateko alderdi sistemak hartzen duen forma.

(250) Bai. Azpeitian gehienak dira euskaldunak. Eta gehienek ematen diote bozka alderdi abertzaleei. Eta Basauri guztiz diferentea da. Azpeitian igual gestioan bakarrik desberdintzen dituzu EAJ edo Bildu. Basaurin gestioa desberdintzen duzu Bildu, PNV, PSOE, PP eta Podemos. Dagoen espektro politikoa handiagoa da. Orduan, askoz diferenteagoa da. (32_Elkarriketa; E6).

(251) Altsasu oso herri anitza da ideologikoki. Ideologia asko daude eta horren adibide da Altsasuko udaletxean 5 alderdi politiko egotea. Oso anitza da baina hizkuntzari dagokionez bereizketa hori ez da ikusten. Klean ez da ikusten. Oso anitza da. Beste herri batzuetan badago muturreko ideologia bat eta beste muturrekoa, ondoko udalerrietan hori ikusi daiteke, hemen ez. (5_Elkarriketa; E6).

Euskal saretze bertikala ahultzen den lekuetan ez da hutsunea gelditzen. Aitzitik, espainiar saretze bertikalak betetzen du euskal saretzeak galdutako espazioa. Kontuan izanik euskal arnagune linguistikoak ere ahultzen ari direla, logikoa da pentsatzea horrek bere eragina izan beharko lukeela emaitza elektoraletan. Alde horretatik, elkarrizketatuek aipatu dute gaztelerak euskal munduan duen presentzia geroz eta handiagoa izateak bere eragina izan duela, bereziki belaunaldi gazteenetan.

(252) Baina adibidez, bai ikusten dut hedabideetan eta batez be Interneten, ez dagoela komunitate euskalduna euskaraz berba egiten duena. Gure Kasa badago baina adibidez, ja ez dago wazenmank. Ni umea nintzenean ere Goenkale. Nire ez zait gustatzen baina Goazen dago. Kantak eta umeentzako. Hori pila bat gustatzen zitzaizkidan. Horrelako programak eta beharrezkoak dira. Txirri, Mirri eta Txiribiton edo Takolo, Pirritx eta Porrotx. Gaur egun ez dira ikusten horrenbeste. Modatik pasa dira? Hor beste birlanketa bat egin beharko da. Topa zein diren failluk eta gaur egungo gazteei nola bideratu (23_Elkarriketa; E1).

(253) Nik uste gure adinekoek mantenduko dugula lehentasun hori baino gazteak ez. Eta de hecho, azkeneko hauteskundeetan, generaletan, Espainiko kongresurako, Lesakan Podemosek irabazi zuen. Horrek esan nahi du jende gazteak denak Podemos botatu duela. (7_Elkarriketa; A1).

(254) Hala ere oso interesgarria izan zen nola izan zen bozka hemen Nafarroan. Jende guztia pasatu zen Podemosek Madrigo hauteskundeetan. Eta nik uste gazteek hori egin zutela, Podemos bozkatu. Pablo Iglesias eta bere rolloa. Orduan nik uste mugak lausoagoak direla gazteen artean. Eta, gainera, nik uste adineko pertsonen beste garai batzuk bizi izan dituzte eta orduan bere botoa zen finkoagoa edo fidelagoa. Gauzak oso zirelako sota, caballo y rey. Orain nik uste gazteek beste egoera batean bizi direla eta ez dutela berdin sentitzen asuntua. (1_Elkarriketa; A2).

Elkarrizketatuek kezka agertu dute udalerrri euskaldunetako hautesle gazteen kultur kontsumo birtualak portaera elektoralean izan dezakeen eraginaren inguruan. Zeharka adierazten dute berau izan daitekeela udalerrri euskaldunetako deslerrokatzeen iturburua. Alde horretatik, euskal saretze bertikalaren muina pitzatzen ari bada, zein ote da udalerrri ez hain euskaldunetako belaunaldi gazteak bizi duen egoera? Kasu horretan, elkarrizketatuek azpimarratzen dute praktikan euskaldun izatea oso zaila dela. Ondorioz, kontzientzia politiko oso sendoa izan ezean gaztelar munduak asimilatzeke arriskua dago. Horrela, espainiar alderdien diskurtsoa barneratzen dute.

Laburbilduz, elkarrizketatuek beren portaerari eman dioten zentzuaren arabera ikusten da lerrokatze linguistiko elektorala udalerrri euskaldunetan mantentzen dela sendoen. Izan ere, salbuespenak salbuespen, udalerrri horietan aurkitzen da euskal saretze bertikala osasuntsuen. Udalerrria zenbat eta erdaldunagoa, orduan eta ahulagoa da euskal saretze bertikalaren presentzia eta bere baitan dituen pitzadurak orduan eta handiagoak dira. Azken batean, udalerrri euskaldunek eskaintzen dutena da euskaraz eta euskaratik bizitzea ahalbidetzen duen harreman sarea.

7.2.3.4. Gainerako aldagaiak

Orain arte ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralearen sendotasunean eragina dutela hauteslearen lehen hizkuntzak, ideologia nazionalak eta bizitokiaren ezaugarri soziolinguistikoak. Beste aldagai batzuk ere aztertu dira, hala nola: adina, generoa, gurasoaren eta hauteslearen sorterrria edota botoa. Alabaina, atera den ondorioa izan da azken horiek ez dutela eragiten aurrez aipatu diren aldagai horiek bezala, ez zuzenean behintzat.

Adinaren aldagaiari dagokionez, elkarrizketatuek esandakoak aztertu ostean ikusi da adinak bere horretan ez duela eragiten hautesle euskal hiztun batengan euskal alderdiei botoa emateko orduan. Beste kontu bat da adin nagusiko elkarrizketatuen artean agertu izana euskal lerrokatze linguistiko elektoralearen inguruan jarrera sendoena, bereziki euskal abertzale sentitzen diren eta etxetik euskara jaso duten udalerrri euskaldunetako elkarrizketatuengan. Alabaina, kasu horretan euskal lerrokatze linguistiko elektoralearen sendotasunean eragiten duen aldagaia ez da adina, aurrez aipatu diren aldagaiak baizik. Gertatzen dena da gaur egun euskal nazioaren eta hiztun elkartearen errealitate soziala eta politikoa guztiz desberdina dela duela hamarkada batzuetako egoerarekin alderatuz. Horregatik, lan honetan uste da deslerrokatzeak harreman gehiago duela saretze bertikalean gertatu diren pitzadurekin, belaunaldi kontuarekin baino. Hori da lan

honetan ondorioztatu dena. Edonola ere, elkarrizketatuen artean iritzi desberdinak agertu dira adinak deslerrokatze linguistiko elektoralean duen eraginaren inguruan.

- (255) Euren familiak izan ziren abertzaleak eta handik jaso dutelako. Hurrengo belaunaldia 36ko gerratik datorren belaunaldia da. Orduan abertzaleak izan zirenak euskaraz hitz egin dute eta euskaldunak izan dira eta orduan hori transmititu diote. Guri ez zaigu horrenbeste heldu. Igual euskara ez da egon horren lotuta euskalduntasunarekin. Gehiago dago lotuta eskolarekin eta hori, askorentzat. (26_Elkarrizketa; E4).
- (256) Guk adibidez bageneukan gaztetan joera Maskaradetara eta iparraldera joateko eta han euskaraz egin. Oraingo gazteak ez dakite zer den maskarada bat. Orain gauzak denborarekin galtzen joan gara. Mugimendu hori... (...) orain Cadizera doaz! Gu asteburuetan Sara edo Senperera joaten ginon hartu han etxetxo bat eta. (...) Hori galtzen ari gara (19_Elkarrizketa; A2).

Generoarena da aztertu den bigarren aldagaia. Alde horretatik, elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzua aztertzerakoan ondorioztatu da gizon eta emakumeen artean ez dagoela desberdintasunik euskal lerrokatze linguistiko elektoralari dagokionez. Egia da elkarrizketatuen artean aipatu dela emakume izateak sentsibilitate gehiago izatea eragin dezakeela euskarak bizi duen mendeko egoeraren inguruan. Izan ere, emakumeak ere mendeko egoeran aurkitzen dira euskaldunak bezala. Hala ere, gisa horretako aipuetatik haratago, lan honetan ez da praktikan desberdintasunik ikusi hautesleak euskal alderdiei bozkatzeko izan dezaketen joeraren inguruan, azken hori euskal hiztuna eta emakumea den kasuetan.

- (257) Nik uste gizona edo emakume izateak ez duela garrantzirik. Ze azkenean identifikatuta sentitzen zara berdin berdin espainola edo euskalduna. Eta ez dut uste deus inporta duenik emakume edo gizona izan. (25_Elkarrizketa; E3).
- (258) Nik uste dut gertatzen dela, zu beti minoritarioa izan bazara eta beti jendea aurka dagoen zerbait defendatu behar baldin baduzu. Konturatzen zara ez dela zurea borroka bakarra. Badaude beste borroka txiki gehiago ere. Zu konturatzen zara arraroa zarela Tuteran euskalduna izateagatik. Eta konturatzen zara, eta daukazu sentsibilitate gehiago esateko: pertsona horri egiten diote bullyinga den bezalakoa delako! Edo, nik emakume izateagatik jasotzen ditut hainbat gauza! Orduan nik uste dut ez dela kasualitatea, eta ondorioz, mugitzen dira ondorio txarrak jasaten dituzten pertsonak, prest daudenak. (33_Elkarrizketa; E4).

Alderdi politikoen kasuan, EH Bildu eta EAJko boto emaileek beren portaerari ematen dioten zentzua aztertu ostean ondorioztatu da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna bi kasuetan berdina dela. Euskal abertzale sentitzen den udalerrri euskaldun bateko euskaldun zaharren kasuan, berdin du botoa nori eman, EH Bilduri edota EAJri, bi kasuetan apala izango da espainiar alderdiei bozkatzeko hautesleak duen joera. Eredu idealetik urrundu ahala bi alderdietako boto emaileetan ikusten da deslerrokatzeak gertatzeko joera bera dagoela. Ondorioz, alderdi politikoa baino gehiago lan honetan uste da euskal abertzaletasuna ulertzeko modua dela deslerrokatzeak ahultzen dituen, alderdi bateko eta besteko boto emaileen kasuan. Horregatik, botoa ematerakoan irakurketa kulturatik politikara egiten den bitartean, berdin du EH Bilduri edo Geroa Bai/EAJri botoa ematen zaion, lerrokatze elektoralaren sendotasunak ez du zertan aldatu.

Hauteslearen sorterrria eta gurasoen sorterrria da kontuan hartu diren beste bi aldagaiak. Alde horretatik, elkarrizketatuak esandakoa aztertu ostean ondorioztatu da hautesle euskal hiztun bat Euskal Herritik kanpo jaio edota Euskal Herrian bertan jaiotakoa izateak ez duela eragiten euskal alderdiei bozkatzeko duen joeran. Euskal Herritik kanpo jaio diren elkarrizketatuen kasuan, egia da deslerrokatze linguistiko elektoralara gertatzeko joera handiagoa ikusi dela. Alabaina, hauteslearen sorterrria da aldagai determinantea? Edota beste elementu bat ezkututzen da horren atzean?

(259) Ni Euskal Herritik kanpo jaiotakoa naiz eta abertzalea naiz, hombre gazte etorri nintzen baino igual han jarraitu banuen... jo baino etxean euskaldunak izenda beti izango nintzen. Bertan geundenean beti esaten ziguten euskaldunak ginela. [-Beraz, natural egin zitzaizuen euskal alderdiei bozkatzear?] Bai, bai. (21_Elkarrizketa; B1).

Hain zuzen, honako elkarrizketatu honen kasuan ikusten da Euskal Herritik kanpo jaiotakoa izan arren, gurasoak euskaldunak direla eta bere kasuan euskara duela lehen hizkuntza. Horrek eragiten du euskararen eta euskal alderdien aldeko botoaren arteko harremana modu naturalean ulertzea. Alde horretatik, adibide honek erakusten du sorterrria baino gehiago, hautesleak euskal munduarekin duen harremana dela garrantzitsua. Berdin du munduko ze txokotan jaiotakoa zaren baldin eta zure naziotasuna garatzeko aukera baduzu. Mundu horren oinarritzko elementuak barneratu badituzu. Euskal Herritik kanpo jaiotzeak eragiten duena da mundu horrekiko harremana zailtzea. Gainerakoan, Tuteran jaiotakoa izateak ez du eragiten de facto euskal lerrokatze linguistiko elektoralara sendoagoa izatea. Izan ere, Euskal Herrian jaiotzeak ez du esan nahi euskal munduan bizi denik hauteslea. Posible da Euskal Herritik kanpo jaio den bat udalerrri euskaldunean bizitzea eta horrela harreman sendoagoa izatea euskal munduarekin Tuteran jaiotako batek baino. Horregatik, sorterrria baino gehiago beste aldagai batzuk dira deslerrokatzea gertatzeko joera indartzen dutenak.

Beste horrenbeste gertatzen da gurasoen jatorriarekin. Izan ere, bere horretan gurasoak euskal herritik kanpo jaiotakoak izateak ez du esan nahi euskal lerrokatze linguistiko elektoralara ahulagoa izan behar duenik. Gerta daiteke 36ko gerra zela eta erbestera ihes egin beharra edukitzea familia batek, eta gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak izan arren, familia eta hauteslea euskal saretze bertikalaren parte izatea. Kasu horretan, gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak izateak ez du deslerrokatzea eragiten. Gertatzen dena da gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dituztenen artean kasu ohikoena ez dela hori. Gehien kasuan, Espainiar estatuko beste herrialdeetakoak dira edota munduko beste txoko batzuetakoak. Orduan, azken horien artean probabilitate handia dago gaztelania edota beste hizkuntzaren bat transmititzeko familian eta beste

nazio sentimendu bat garatzeko. Alde horretatik, azken horiek udalerrri euskaldunetan ez badira bizi, zaila da euskal mundura hurbiltzea. Are zailagoa, integratzea.

- (260) Bai, nire kasuan bai. Ni abertzalea naiz nire familia izan delako eta familiarik jaso dudanagatik. Nik uste dut baita pentsatu dutela mas que nada familiaren influentzia. Familiak, euskara erabili de, eta beti izan da abertzalea eta gerra garaitik etortzen dan ikuspegi bat da eta hori jaso dot nik. (26_Elkarrizketa; E4).
- (261) Bai badaude eta gehienbat ikusten dut hori ikastolara eta euren umeak bidaltzen dituztenak euskara ikasteko. Ez hutsik euskara ikasi, baizik eta euskarak ekartzen ditun balioak eta ohiturak hori dena ikasi ahal izateko bidaltzen dituztenak. Eta horiek pentsatzen dut gero etorkizun batean, pentsatzen dut ze perfil jarraitzen duten, eta orduan zer botatuko duten gutxi gorabehera [euskal abertzale]. Ordun, nik uste bai posible dela baina beti egon behar da nahi bat eta hori aitzinera eramatea. Eta baita ere posibilitatea. (25_Elkarrizketa; E3).

Horregatik guztiagatik, familiaren edota norberaren jatorria esaten denean, interesgarria da begirada modernoa deseraiki eta hiritartasunetik begiratu beharrean, naziotasunetik begiratzea aldagaiari. Izan ere, posta kode konkretu bat duen udalerrri batean jaiotzeak ez du eragiten lerrokatzea sendoagoa edo ahulagoa izatea, udalerrri horretan euskal saretze bertikalak duen egoerak eta hautesleak azken horren baitan duen posizioak baldintzatzen du portaera elektoralara. Horregatik, jatorri geografikoa baino gehiago, udalerrriaren izaera soziolinguistikoa da garrantzitsua.

7.2.4. Hausnarketa lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan

Azpikapitulu honen helburua da clivajeen teoriak eskaintzen dituen oinarri teorikoez baliatuta elkarrizketatuek euren portaera elektoralaren inguruan esandakoak interpretatzea. Alde horretatik, elkarrizketatuek esandakoak entzun eta gero ikusi da ezinbestekoa dela euskal lerrokatze linguistikoaren barne aniztasuna bere osotasunean ulertzeko hiritartasunaren eta naziotasunaren artean bereizketa egitea. Izan ere, zenbait elkarrizketatuk aipatu dute desfasea dagoela hauteskunde autonomikoez legitimatzen duten nazio politikoaren eta euren nazio identitatearen artean. Gauzak horrela, hautesle horien botoa ulertzeko garrantzitsua da begirada nazio zapalduaren posizioan kokatzea.

Begi-bistakoa da elkarrizketatu guztiek hauteskundeetan parte hartu dutela euskal alderdiei bozkatu dieten neurrian. Horrela, ordea, hautesleek parte hartzen dute nazio politikoaren mitoan oinarritzen den erritu arrotz batean. Edonola ere, botoa emateak ez du esan nahi elkarrizketatu guztiek mito hori onartzen dutenik. Alderantziz, zenbait elkarrizketatuk bestelako zentzu bat ematen die hauteskunderi. Alegia, euskal pitzadura kultural/politikoaren josteko ahalegin gisa ulertzen dute euskal alderdiei emandako botoa.

Dena dela, aipatutako desfasea bizitzeko modu desberdinak agertu dira elkarrizketatuen artean. Orotara hiru multzo banatu daitezke; batetik, hauteskunde autonomikoak bere hauteskunde gisa ikusten dituztenak (azken horiek ez dute desfaserik sentitzen nazio identitatearen eta erritu honek erreproduzitzen duen naziotasunaren artean); bigarrenik, kontzientzia gehiago edo gutxiagorekin baina aipatutako desfase kultural-politikoaz azpimarratzen duten elkarrizketatuak daude; eta hirugarrenik, aipagarria da espainiar edo euskaldun sentitzen ez diren elkarrizketatuen kasua. Azken horiek aipatu dute hauteskunde autonomikoak arrotzak direla eurentzat, baina ez eskaldun sentitzen direlako. Euskaldunek bezala espainiarra ez den beste naziotasun bat dutelako. Bereziko garrantzia du hirugarren multzo hori ere badagoela kontuan izateak. Hala egin ezean, euskaldunentzat aldarrikatzen den alteritate epistemikoa beste batzuei ukatzen baitzaie.

Bigarren azpikapituluaren urrats bat gehiago eman da elkarrizketatuek beren portaera elektoralari ematen dioten zentzua ulertzeko. Horretarako, alderdi sisteman jarri da arreta eta aztertu nahi izan da mito modernoaren eragina zenbatekoa den Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren egituraketa interpretatzerakoan. Funtsezkoa da elkarrizketatuek alderdi sistemaren inguruan dituzten iritziak aintzat hartzea. Izan ere, horren arabera da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak hartzen duen zentzua. Elkarrizketatuek saretze bertikalean duten posizioaren eta mito modernoa barneratzeko duten joeraren arabera bizipen erabat ezberdinak agertu dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralazaltzerakoan.

Lan honetan hiru dimentsioren inguruan jarri da arreta begirada ezberdin horiek sistematizatzeko: 1) Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren hezurdura; 2) botoari emandako zentzua; 3) lehentasuneko bazkideak. Alde horretatik, esperientzia ezberdin horiek sintetizatu ostean bi joera bereizi dira hautesleak beren portaerari ematen dioten zentzuaren arabera: batetik, beren portaera elektoralazaltzerakoan irakurketa kulturatik abiatzen dutenak; eta bestetik, beren portaera elektoralazaltzerakoan irakurketa politikatik abiatzen dutenak. Alde horretatik, lan honetan ondorioztatu da euskal saretze bertikalaren egitura zenbat eta sendoagoa izan, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren parte diren euskaldunek irakurketa kulturatik abiatzeko joera orduan eta handiagoa izango dela.

Azkenik, hirugarren azpikapituluaren ikusi da hauteslearen ezaugarri soziodemografiko eta ideologikoen baldintzatzen dutela euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna. Alde horretatik, lan honetan ondorioztatu da euskal hiztunen artean euskal

alderdiei bozkatzeko joera sendoena gertatzen dela hauteslea honako ezaugarri soziolinguistiko eta politikoak dituenen:

- **Lehen hizkuntza euskara:** euskal lerrokatze linguistiko elektorala osatzen duten hautesleen lehen hizkuntzak anitzak dira, alabaina, nagusiki bi dira besteen gainetik agertzen direnak: gaztelania eta euskara. Alde horretatik, lan honetan ikusi da erdal hiztun berrien artean euskal lerrokatze linguistikoa sendoagoa dela. Arrazoi nagusia da azken horientzat euskara naturala dela. Horrela, gorputzean sentitzen dute euskara nazio zapaldu izatean euskararen menperakuntza egoera. Hala, baldintza objektiboak dituzte zapaldu izaeraren kontzientzia subjektiboa garatzeko. Azken horrek, sendotu egiten du hautesleek euskal saretze bertikalarekin izan dezaketen harremana.
- **Euskal abertzalea:** Euskal lerrokatze linguistiko elektorala sendoagoa da euskal kontzientzia abertzalea duten hautesleen artean, beste naziotasun bat bere egiten dutenen artean baino. Alabaina, euskal naziotasunaren baitan ezinbestekoa da ñabardura bat egitea. Euskal nazionalismoaren baitan egin diren formulazioak anitzak dira. Alde horretatik, lerrokatze linguistiko elektoral sendoena gertatzen da naziotasuna zedarritzerakoan hizkuntza oinarrizko elementua dela ulertzen den kasuan.
- **Lurgune euskalduna:** Euskal Herriak 7 lurralde hartzen ditu bere baitan. Alabaina, euskal nazioak eremu guztietan ez du bizi indar bera. Alde horretatik lan honetan ondorioztatu da euskal hiztun elkarte trinkoen dagoen udalerrietan bizi diren hautesleek joera handiagoa izango dutela euskal hiztun izan eta euskal alderdiei bozkatzeko. Azken batean, euskararen presentzia zenbat eta apalagoa izan, hots, kulturalki zenbat eta espainiarragoa, orduan eta joera gehiago duela ikusi da hautesle euskal hiztunak jatorria espainiar saretze bertikalean duen alderdiren bati bozkatzeko.

Hiru aldagai horiez gain, beste aldagai batzuk ere aztertu dira euskal lerrokatze linguistikoaren sendotasunean eragina izan dezaketenak, hala nola: adina, botoa, generoa, norbere sorterrria, gurasoen sorterrria. Alde horretatik, azken horiek euskal hiztun baten portaera elektoralean duten eragina aztertzean ikusi da aldagai horiek izatekotan ere zeharka eragiten dutela euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean.

LAUGARREN ATALA: ONDORIOAK

Ikaste prozesu luze baten emaitza da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruan egin den ikerketa hau. Prozesuari dagokionez, lan hau bere bidea egiten joan da ikasitakoa desikasiz. Horregatik, garrantzitsua da kontuan izatea lan honen erredakzioa ez dela lineala izan.

Atal teorikoan ikusi den moduan, akademian hegemoniko den begirada modernoak eragiten du euskal sena aintzat ez hartzea eta erdal mundu ikuskerari pribilegio epistemikoa aitortzea. Testuinguru horretan ulertu behar da hastapenetan lan honek hartu zuen norabidea. Alegia, euskal lerrokatze linguistiko elektorala interpretatzerakoan marko teoriko homologatuak eskaintzen duen koordinatuak hobetsi izana, hau da, zentro/periferia ardatza. Denborarekin jabetu nintzen, ordea, bide okerretik nabilela. Begirada horretatik, ikerketaren ekarpen intelektuala otzana bezain kamutsa zen. Izan ere, ikerketaren muinean arazo bat agertu zen: desfasea zegoen akademian hegemonikoa zen marko teorikoak eskaintzen zuen azalpen ereduaren eta aztergai nuen fenomenoak –euskal lerrokatze linguistiko elektoralak– errealitatean hartzen zuen formaren artean. Marko teorikoak fenomenoaren zati bat azaltzen bazuen ere, ez zen gai auziari osotasunean erantzuteko. Ertzeko kasuak adabaki baten moduan josten zituen gorputz teorikora. Gero eta argiago ikusten nuen oinarrizko patroiak huts egiten zuela eta euskal kasuaren azalpena bortxaz itsasten zitzaiola patroio orokorrari. Are gehiago, oker hori zuzendu ezean marko teorikoa menderakuntza forma bihurtzen zen, hots, kartzela epistemikoa. Ondorioa honakoa zen: hauteskunde soziologian erabiliena zen marko teorikoak mugak zituen euskal lerrokatze linguistiko elektorala osotasunean azaltzeko. Orduan erabaki nuen berriz abiapuntura itzultzea: hain zuzen, arrazoiaren eta aurrerapenaren konplexuak eraginda sena bazterrean utzi nuen bidegurutzera.

Gutziz aberasgarria izan da itzulerako bidea ikerketarentzat. Izan ere, bide horretan tokatu zait marko hegemonikoa behetik gora berrinterpretatzea. Eginbehar nagusia izan da modernitate hegemonikoa izan ez duen nazio bateko fenomeno sozialak osotasunean ulertu ahal izateko soziologia modernoaren tresna teorikoak egokitzea. Zeinu aldaketaren bidez, kontakizun alternatiboa irudikatzea izan da ariketa konplexuena. Alegia, pentsamendu modernoarentzat “ertzeko kasua” edota “marjeneko anomalia” dena, erdigunea bihurtzea Nazio zapalduaren ereduaren bidez. Horrela, pentsamendu modernoak hautsitako puskak –adibidez, naziotasun etnikoa/politikoak– jostea izan da orduz geroztik eginkizun nagusia. Laburbilduz, marko teoriko berri honen helburua izan da pentsamendu modernoak bereizitako gogo-gorputzak josi eta botere harreman

asimetrikoen ikuspegitik euskal lerrokatze linguistikoa osotasunean ulertzeko marko interpretatzailea eskaintzea.

Nekez ulertu daitezke lan honen helburuak eta ondorioak, joan-etorritz osatu den bidaia hori kontuan izan gabe. Ikerketaren hasierako helburua zen euskal lerrokatze linguistiko elektorala sakon aztertzea. Horretarako egin beharrekoa zen hauteskunde soziologiak eskaintzen zituen tresna metodologiko eta teorikoak –clivajeen teoria– euskal kasuan aplikatzea. Ondorioz, hasierako diseinuaren arabera, lan honen ekarpen funtsezkoa zen euskal kasuaren azterketaren bidez lerrokatze linguistiko elektoralen inguruko ezagutza aberastea. Alabaina, lana aurreratzen joan ahala egokitu egin dira ikerketa beraren helburua eta hipotesiak.

Hori horrela izanik, hiru hipotesi proposatzen dira ikerketa honetan: aurrenekoak dio Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan euskal lerrokatze linguistiko elektorala gertatzen dela; bigarren hipotesiaren arabera anitzak dira euskal lerrokatze linguistiko elektorala bizitzeko eta ulertzeko moduak. Amaitzeko, hirugarren hipotesiaren arabera pentsamendu modernoak mugak ditu euskal lerrokatze linguistiko elektorala osotasunean azaltzeko. Lanean zehar puntu horiek banan bana aztertu dira eta jarraian aurkezten diren ondoriotara iritsi da ikerketa.


1. ONDORIOA: Euskal Lerrokatze linguistiko elektoralaren existentzia

Ikerketaren azken geltokia den hirugarren hipotesia probatzeko ezinbestekoa da ezertan hasi baino lehen frogatzea Hego Euskal Herrian euskal lerrokatze linguistiko elektorala gertatzen dela. Izan ere, ezin da euskal pentsamenduaren premia aldarrikatu berau frogatzeko erabiliko den ikerketa objektuaren existentzia erakutsi gabe. Era berean, horrek guztiak eskatzen du ikerketa objektua behar den bezala kokatzea testuinguruan. Alde horretatik, ikerketa honetan ondorioztatu da Hego Euskal Herrian bi lerrokatze linguistiko elektoral gertatzen direla: espainiar lerrokatze linguistiko elektorala eta euskal lerrokatze linguistiko elektorala. Ezinbestekoa da aipatu berri dugun ñabardura hori egitea, izan ere, ikerketa gehienetan itzalean gelditzen da gaztelania eta boto espainiarraren arteko lotura. Edonola ere, gure kasuan behin espainiar lerrokatze elektorala argitara aterata, euskal lerrokatze elektorala da aztergai nagusia.

Bi bide erabili dira berau aztertzeko, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa. Hurbilpen kuantitatiboari dagokionez, datuek erakutsi dute udalerrri bateko euskara gaitasuna, erabilera eta transmisioa igo ahala euskal alderdiek jasotzen duten botoen ehunekoak ere gora egiten duela. Beste modu batera esanda, ikerketa honen bidez

ondorioztatu da erlazio lineal positiboa eta sendoa dagoela bi aldagaien artean Hego Euskal Herrian. Horrela ikusi da euskal alderdi abertzaleen indarguneak udalerri euskaldunak direla, eta alderantziz, alderdi espainiarrek babes elektoral handiena ingurune ez euskaldunetan lortzen dutela.

77. irudia: Euskal lerrokatze linguistiko elektoralari. Sendotasuna eta dinamikotasuna.



Iturria: Egilea.

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralari dagokionez, garrantzitsua da bi ezaugarri azpimarratzea: sendotasuna eta dinamikotasuna. Aurreneko ezaugarriaren kasuan, hauteskunde desberdinetan egindako kalkuluen arabera behin eta berriz gertatzen da euskal lerrokatze linguistiko elektoralari. Bestetik, datuek erakusten dute euskara gaitasuna, transmisioa eta erabilera hazi den udalerrietan euskal alderdi abertzaleen babes elektoralari hazi egin dela. Beraz, horrek berresten du aldagaien arteko harremana dinamikoa dela.

Aurrera jarraitu aurretik, ordea, komenigarria da honakoa azpimarratzea: Hego Euskal Herrian hautesle guztiek dakite gaztelaniaz. Beraz, matematikoki zentzua galtzen du espainiar ezagutzaren eta espainiar botoaren arteko harreman lineala aztertzeak. Gauzak horrela, espainiar lerrokatze linguistiko elektoralak erakusten du aldagai adierazgarria ez dela hizkuntza gaitasuna, hizkuntza transmisioa eta hizkuntza erabilera baizik. Ondorio hori, ordea, ezin da literalki aplikatu euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan. Izan ere, datuek erakusten dute erlazio lineala dagoela hizkuntza gaitasunaren eta botoaren artean.

Zer dago bien arteko desberdintasunaren atzean? Nazio zapalduaren ereduaren begiradatik lan honetan uste da erdal hiztun elebakarraren pribilegioak eragiten duela hizkuntza gaitasunaren eta botoaren arteko erlazio lineala. Horregatik, euskara

hizkuntza gutxitua izanik, kontrako noranzkoan ulertu behar da fenomenoak. Hala, hautesle batek euskal alderdiei bozkatzekoan euskara gaitasunak duen eragina baino interesgarriagoa da aztertzea euskara gaitasunik ez izateak zer-nola eragiten duen hautesleen portaera elektoralean, batez ere bi arrazoigatik: batetik, euskara gaitasuna ez izateak euskararen transmisioa eta erabilera mugatzen duelako, eta bestetik, euskara gabe hauteslea erdal munduan bizi delako. Hala, euskal hiztunak diren guztiek gaztelania dakiten bitartean, Hego Euskal Herrian bizi diren erdal hiztunei euskaraz eta euskaratik eraikitako euskal mundu horren parte izatea oztopatzen zaie. Gauzak horrela, Hego Euskal Herrian erdal komunitatea elebakar mantentzen den bitartean kontuan izan behar da espainiar alderdiak izango direla gizartea ez euskalduntzearen harira onura elektoralak lortzen dituzten bakarrak.

Behin puntu honetara iritsita, garrantzitsua da honakoa kontuan izatea: korrelazio koefizientearekin bakarrik ezin da esan norbanakoaren botoa hizkuntzak determinatzen duenik. Izan ere, korrelazio indizeak bi aldagairen arteko harremanaren sendotasuna kuantifikatzen du probabilitateen logikan. Azken horrek gizarte gertakari baten existentziaren berri ematen digu. Alabaina, hortik saltoa dago hizkuntzak norbanako konkretuen botoa determinatzen duela esatera. Gauzak horrela, sakoneko elkarrizketak egin dira ikerketan zehar falazia ekologikoan ez erortzeko eta norbanakoaren portaera barrutik hobeto ezagutzeko.


Alde horretatik, elkarrizketa horietan ikusi da Hego Euskal Herriko hauteskunde elektoraletan lerrokatze linguistiko elektoralak gertatzeko oinarriko baldintzak betetzen direla. Beste modu batera esanda, lan honetan ondorioztatu da *euskal saretze bertikala* artikulatzen dela Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan. Hein handi batean Belgikar ereduari jarraitzen dio azken honek, baina nazio zapaldua izatearen herrenarekin, hau da, pitzadura politiko/kulturalarekin. Desfase hori abiapuntutzat harturik ikusi da gainerakoan gainezartzea gertatzen dela sistema sozialaren (euskal hiztun elkartea), sistema normatiboaren (euskal nazionalismoa) eta sistema organizatiboaren (euskal erakundetzea) artean.

78. irudia: Euskal saretze bertikala.

LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALAK EUSKAL HERRIAN



Euskal lerrokatzea: euskal alderdiei bozkatzeko dieten euskal hiztunak



Iturria: Egilea.

Euskal saretze bertikala da euskal hiztunak euskal alderdiei bozkatzeko duten joeraren atzean dagoen gorputz artikulatua. Alde horretatik, euskal alderdi politikoak izebergaren goiko punta besterik ez dira erakundetze prozesu horren baitan. Azken horiek, hautesleei eskaintzen diete prozesu historiko baten inguruan beraien intereseko izan daitekeen kontakizuna. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasuan, honela egokitzen da Belgikar ereduaren azalpena: euskarak egiten gaitu euskaldun eta euskaldunek euskal alderdiei ematen diete botoa. Izan ere, euskal alderdiak dira euskaraz bizi den nazioaren interes politikoak hauteskundeetan ordezkatzeko dituzten erakundeak.

Madriren edota Parisen espainiarrek/frantziarrek alderdi espainiar/frantsesei bozkatzeko dieten moduan, hainbat elkarrizketatuk adierazi dute euskal alderdi abertzaleei antzeko logika jarraituz bozkatzeko diete. Natural hitza erabili dute horietako batzuek. Horrela, euskalduna izan eta erdal alderdiei bozkatzeko normala ez den zerbait dela ulertzen

emanaz. Alabaina, pitzadurak ditu euskal saretze bertikalak. Horrek eragiten du euskal alderdiei bozkatzeko dieten euskal hiztun guztiek bat ez etortzea saretze bertikalaren irudi idealak eskaintzen duen azalpenarekin. Alde horretatik, elkarrizketatuen artean ikusi da anitza dela euskal lerrokatze linguistiko elektoralari ematen dioten zentzua.

2. ONDORIOA: Aniztasuna euskal lerrokatze linguistikoa azaltzerakoan

Lan honetan ikusi da Hego Euskal Herriko alderdi sisteman bi lerrokatze gertatzen direla: espainiar eta euskal lerrokatze linguistiko elektoralak. Azken horren kasuan frogatu da fenomenoaren muinean euskal saretze bertikala dagoela. Espainiar lerrokatze elektoralaren inguruan, berriz, aurreikusi da beste horrenbeste gertatzen dela, baina kasu horretan, espainiar saretze bertikalean gorpuzten da lerrokatzea. Hori guztia posible da Hego Euskal Herriko gizartearen bi proiektu nazional daudelako erakundetuta: euskalduna eta espainiarra. Alabaina, lan guztian zehar ikusi da Hego Euskal Herrian euskal saretze bertikala mendeko egoeran dagoela. Horregatik, Nazio zapalduaren ereduak kontuan hartzea ezinbestekoa da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren barne aniztasuna osotasunean ulertzeko. Perspektiba honetatik ulertzen da euskal saretze bertikalean jatorria duten alderdiak bi irizpideren edo klivajeren arabera banatzen direla: irizpide soziala (ezker/eskuin) eta lurraldetasuna (nazionalak/erregionalak). Espainiar alderdiak, aldiz, beste bi irizpideren arabera banatzen dira: irizpide soziala (ezker/eskuin) eta lurraldetasuna (zentro/periferia).


Espainiar saretze bertikala Estatuak normalizatzen duen bitartean, euskal saretze bertikala hautsita dago politikoki (bi Estatu eta hiru administraziotan banatuta) eta kulturalki (hizkuntza nazionala ulertzen eta erabiltzen ez dute naziokideak ditu). Horregatik, Belgikar ereduak ez du guztiz azaltzen Hego Euskal Herriko alderdi sistemaren egoera bi arrazoigatik: batetik, euskal auzi nazionalak gainditu egiten duelako estatu-nazioaren matrize espazial/temporalak; eta bestetik, euskal saretze bertikalaren ertzetan sortzen diren pitzadurek eragiten dutelako zalantzan jartzea Belgikar ereduaren arabera normala dena, hau da: hizkuntzaren, nazioaren eta erakunde estatuen arteko sinbiosia. Horrek eragiten du euskaldunen artean botoa azaltzerakoan bestelako interpretazio batzuk agertzea. Berezi bi ikuspegi bereizten dira: kulturatik politikara hurbiltzen direnak eta politikatik kulturara. Horiek guztiak, ordea, proposamen nazionalista gisa kategorizatzen dira. Bien bitartean, 1978ko Espainiako Konstituzioaren lehen hiru artikuluetan goitik behera inposatzen da kulturaren eta politikaren arteko batasuna (Estatuak, nazioa eta hizkuntza). Horrela, Estatuaren gerizpean ezkututzen da espainiar nazioaren partikularitasun kulturala.

Ildo horretatik, Estatu beregaina edukitzeak ahalbidetzen dio espainiar proiektu modernoari lurralde osoan kultur batasuna inposatzeko biolentziaren monopolioaz baliatzea. Horretarako legitimazioa aurkitzen du mito modernoan. Planteamendu politiko honek Estatuaren mugen baitan dauden beste nazio guztiak kondenatzen ditu espainiar proiektu nazionalari subordinatzera “Estatu bat, nazio bat, hizkuntza bat” ideian oinarrituta. Asimilazio prozesu hori da euskal saretze bertikalean arrakalak eragiten dituen: batetik, politikoki euskal nazioari burujabea izatea ukatzen diolako; eta bestetik, estatu egitura arrotzetatik hizkuntza arrotza inposatzen duelako. Laburbilduz, nazioaren pitzadurak handitu ahala euskalduntasuna natural erreproduzitzen diren esparruak ahulduz eta bizi indarra galtzen doaz.

Hortik sortu dira euskal nazionalismoaren inguruko estereotipo eta konplexu desberdinak, besteak beste, izaera esentzialista, gatazkatsua, atzerakoia eta baztertzailarena. Egoera horren aurrean, euskaltasunaren inguruko formulazio berriak proposatu dira euskal pentsalarien aldetik. Alabaina, zenbait kasutan ikusten da euskaldunak bere egin dituela mito modernoaren premisak, besteak beste, euskararen eta nazioaren arteko harremana malgutu behar dela aldarrikatzen duenean. Alde horretatik, mito modernoak eragindako konplexua Troiako Zaldia bezala da euskal saretze bertikalaren egitura barrutik armagabetzeko. Izan ere, estatu egitura burujaberik gabe abertzaletasuna da hizkuntzaren azken babeslekua. Testuinguru horretan kokatzen da 56ko belaunaldiaren ekarpena. Azken horrek azpimarratzen du euskal nazioaren menderakuntzatik askatzeko bi zentzutan egin behar dela lana: batetik, Espainiar proiektu nazional modernoaren izaera asimilatzailea azpimarratzea; eta bestetik, euskal nazionalismoak mito moderno bere egitea saihestea.

Elkarrizketatuen aipamenetan ikusi da mito modernoak euskal lerrokatze linguistiko elektoralean bere arrastoa utzi duela. Horren adibide dira lanean zehar ikusi diren pitzadura guztiak. Oro har, hiru abiapuntu eta sei azpimultzo bereizi dira euskal alderdiei bozkatzeko dieten elkarrizketatuek beren portaerari ematen dioten zentzuaren arabera.

79. irudia: Euskal lerrokatze linguistiko elektoral interpretatzeko eskema.



Iturria: Egilea.

Sailkapen hori egiterakoan bi aldagai hartzen dira kontuan: 1) hauteslearen kokapena eta 2) pentsamenduaren izaera. Alde horretatik, hauteslearen kokapena aipatzen denean aztertu nahi da hautesleak zein saretze bertikaletan kokatzen den, hau da, gorpuztasunaren aldagaia jarri nahi da erdigunean; aldiz, pentsamendua aipatutakoan ikusi nahi da ea hautesleak mito modernoak bere egin duen, alegia, gorpuztasun horretatik abiatuta epistemologia propioa garatu duen edota errealitateari pentsamendu modernoak ezarritako kategorietatik begiratzen dion.

- a) Euskal saretze bertikalaren parte diren hautesleak ez-munduan kokatzen dira euskal abertzale gisa. Alabaina, bi azpimultzo bereizten dira beren portaerari ematen dioten zentzuaren arabera: batetik, irakurketa kulturala egiten dutenak; eta bestetik, irakurketa politikoa egiten dutenak. Biek logika nazionalean bozkatu arren, zertan datza bien arteko desberdintasuna? Lehenaren kasuan, hautesleak pentsamendua artikulatzen dute pentsamendu modernoak ezartzen dituen kategorietatik kanpo, hau da, euskal epistemologiatik. Horrela, bat egiten dute hauteslearen gogo-gorputzek. Elkarrizketatu horiek argi dute kultura dela naziotasunaren abiapuntua. Alde horretatik, hauteskunde autonomikoetan leialak dira euskal alderdiei bozkatzerakoan. Era berean, euskal nazioa mendeko egoeran dagoela ikusita, lehentasunezkoa dela uste dute euskal alderdi abertzaleen batasuna lortzea. Izan ere, ezkerreko nahiz eskuineko euskal hautesleak helburu bera partekatzen dute: ez-mundutik mundurako jauzia egitea. Hau da, nazio burujabea izatea. Ildo hori aurrera eramatearen truke, hautesleak prest daude arlo sozialean dauden kontraesanak bigarren fase baterako uzteko. Aldarrikapen horren atzean ez dago misteriorik. Izan ere,

munduko nazio normalizatu guztietan hori da egoera. Irakurketa politikatik abiatzen dutenen kasuan, berriz, bestelakoa da mundu ikuskera. Azken horiek auzi soziala lehenesteko joera dute batasun nazionala aldarrikatu beharrean. Euskal abertzale gisa beraien izatea ez-munduan gorpuzten den arren, korapilatuta gelditzen dira pentsamendu modernoaren kategorietan. Horren ondorio nagusia da hautesleek nazio etniko eta zibikoaren kategoriak barneratzen dituztela. Ikuspegi horretatik, begirada politikoak euskal subjektu politikoa zabaltzeko eta jende berriarengana iristeko aurkera ematen badu ere, formulazioaren nolakotasunaren arabera nazio zapalduaren alteritate epistemikoa desagertzeko arriskua dago nazio hegemonikoaren mesedetan. Hala, hautesleak bere errealitateari begiratzen dio mundua bezala izendatu den espaziotik, hau da, erdal gorpuztasunetik eraikitako kategorietatik. Ikusten den moduan, kasu honetan desfasea dago gogo-gorpuzten artean. Izan ere, kategorია horiek pentsatu dituzte bestelako bizipen eta behar batzuk dituztenek. Menderakuntza eta asimilazioa eragiten du aipatutako injustizia epistemikoak muturreko kasuetan. Azken honen ezaugarria da pentsamendu propioa garatzeko ezintasuna eta kategoría arrotzen naturalizazioa.

- b) Bigarren multzoa osatzen dute espainiar saretze bertikalaren parte diren hautesleek. Azken horien izatea gorpuzten da mundua bezala definitu den espazio hautemangarrian. Izatez, euskal hiztunak dira eta euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko diete, baina ez dira euskal abertzaleak. Zer dago deslerrokatze horren atzean? Alde horretatik, orotara bi azpimultzotan banatzen dira beren portaera elektoralari eman dioten zentzuaren arabera: azalpen periferikoa eta azalpen internazionalista. Aurrenekoaren kasuan, euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko diotenean ez dute bozkatzeko euskal naziogintzan sakontzeko, alderantziz, euskal alderdiei bozkatzeko diete egonkortasun ekonomikoagatik edota eskubide sozialak babesteko aukera hoberena delako. Elkarrizketatu horiek ulertzen dute euskal alderdiak espainiar alderdi periferikoak direla. Nazioaren inguruko dikotomia etniko/zibikotik abiatuta, euskal alderdiak erreakzio etnoerregional gisa ikusten dituzte. Alde horretatik, hautesle hauek izango dute botoa aldatzeko joera handiena, bereziki euskal alderdiek espainiar nazio politikoa zalantzan jarri eta praktika politikoan subordinazioa auzitan jartzen duten garaian. Ikusten den moduan, asimilazioa da soslai honetako boto emaileak egotea eragiten duena. Bigarren multzoan kokatzen diren hautesleen kasuan, bere burua espainiar saretze bertikalaren amaraunean kokatu arren, hautesleak jabetzen dira espainiar proiektuak mito

moderno bere egiten duen bitartean menderakuntza eragiten duela. Alde horretatik, hautesle horiek zalantzan jartzen dute espainiar nazio politikoaren ideia. Hala, 1978ko Konstituzioak menderakuntza erreproduzitzen duela ulertzen dute. Ildo horretatik, euskal alderdiei bozkatzeko diete espainiar bezala euskal nazioa menderatzen ez jarraitzeko. Kasu honetan botoak hartzen duen zentzua da internazionalista.

- c) Hirugarren multzoa osatzen dute alderdi politikoak sortzeko adina ahalmen ez duten erdal saretze bertikaletako kide diren hautesleek. Azken horiek, espainiar hiritartasuna edukiagatik, sentimenduz ez dira ez espainiar, ez euskal abertzaleak sentitzen. Alderdi sisteman euren naziotasunarekin bat egiten duen alderdi politikorik ez izatean, bozkatu beharrean aurkitzen dira beste naziotasun bat duten alderdiei. Behin puntu honetara iritsita, hautesle hauek bi multzotan bereizten dira hautesleak portaera elektoralari ematen dion zentzuaren arabera: periferikoa eta internazionalista. Logika periferikoan bozkatzeko dutenek espainiar hiritartasunetik bozkatzeko dute, alegia, euskal auzi nazionala ez dute aintzat hartzen euskal alderdiei bozkatzekoan. Euskal alderdiei bozkatzeko diete espainiar alderdi erregionalak bailiran, eta portaera elektoralaren atzean naziotasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiak daude. Aldiz, naziotasunetik abiatuz beren botoari zentzu internazionalista ematen diotenak jabetzen dira auzi sozialetik haratago auzi nazionala dagoela askatzeko Hego Euskal Herriko hauteskundeetan. Soslaia hobeto ulertzeko, adibidez, eredu honen eredu ideala litzateke katalan edo galiziar abertzale (edo beste nazio bateko) euskal hiztun baten kasua. Espainiar proiektu nazionalak bere nazioan eragiten duen menderakuntzaren testuinguruan garatutako kontzientziak eramaten du Hego Euskal Herriko hauteskundeetan euskal alderdiei bozkatzera.

Orain arte ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralaz azaltzeko orduan hiru abiapuntu eta sei azpimultzo banatu direla. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunari dagokionez, analisisian ikusi da hautesleak lehen hizkuntza euskara izateak, udalerrri euskaldunetan bizitzea, eta euskal naziotasuna izateak indartu egiten dutela euskal hiztun batek euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko joera. Hala, ezaugarri horiek dituzten elkarrizketatuek tipo idealetik urruntzen diren elkarrizketatuek baino joera handiagoa dute beren botoa euskal ardatzean artikulatu eta euskal alderdiei bozkatzeko. Hain zuzen ere, soslai horretako hautesleak dira botoari zentzu nazionala emateaz gain, botoaren irakurketa kulturatik politikara egiteko joera handiena dutenak. Alabaina, identitateak badu bigarren alde bat dinamikoa, subjektiboa, bizipenei eta

sentimenduei lotua. Alde horretatik, bi joera ikusi dira elkarrizketatuen artean. Batzuen kasuan ikusi da aipatutako baldintza objektiboak idealak izan ez arren, euskal identitatea garatu dutela eguneroko bizipenetatik abiatuta eta beren portaerari zentzu nazionala eman diotela, zenbait kasutan gainera botoaren irakurketa kulturatik egiteraino. Eta alderantziz, euskaldun zaharra eta udalerrri euskaldunekoa izan arren, posible da hauteslea etnikoki euskal hiztuna izan baina politikoki espainiarra sentitzea. Honek erakusten du elkarrizketatu bat Euskal Herritik kanpo jaioa izan arren, gurasoak erdaldunak eduki eta euskaldun berria izanagatik, euskal saretze bertikalaren muinean kokatzea posible dela. Esentzian baino borondatean eta praktikan dago gakoa.

Belgikar eredu idealak dioen moduan, gogoratu saretze bertikalak egoera normalizatuetan daudenean lerrokatze linguistiko elektoralak perfektuak direla. Kasu horretan homogeneouskoa da errealitatea. Euskal kasuan, saretze bertikala politikoki eta kulturalki arrakalaz josita egoteak eragiten du errealitatea proportzioan anitzagoa izatea. Alde horretatik, analisisian ikusi da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak gorpuztasun desberdinak hartzen dituela: euskal ardatza, espainiar ardatza eta besteak bezala izendatu dena. Puntu honetan hartzen du ikerketak sakontasuna. Izan ere, honakoa da sortzen den galdera: posible da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak bere osotasunean ulertzea pentsamendua soilik gorpuztuz espainiarrean (munduan) artikulatuta? Euskal saretze bertikalean kokatzen diren hautesleen portaera elektoralak logika periferikora bihur-murrizteak ez al du hautesleen artean dauden bizipen sozialen zati handi bat ezkutuan uzten? Are larriagoa dena, bortxaz euskal begirada espainiar gorpuztasunetik sortutako kategorietara bihur murrizten? Lan honetan uste da soziologia modernoak eskaintzen dituen tresna teorikoek eta epistemikoek mugak dituztela “moderniarik” izan ez duen euskal nazioaren baitan gertatzen diren fenomeno sozialak azaltzeko. Horregatik, lan honetan ahalegina egin da erakusteko euskal fenomeno sozialak osotasunean ezagutzeko ezinbestekoa dela euskal gertakariak euskal pentsamendutik ere aztertzea.

3. ONDORIOA: Euskal pentsamendua: ezagutza iturri izateaz gain, proiektu etiko eta askatzailea.

Agertzen dan pentsamendu hau zer da?
Munduan zear agintzen duan pentsamendu orokor horren
oiartzun huts bat, ala geure kreazio bat?

Juan Mari Torrealdai (1969)

Eskuliburu gehien arabera hiru dira soziologia modernoaren gurasoak: Durkheim, Marx eta Weber. Hiru autoreak paradigma desberdinen eredu ideal gisa proposatzen diren arren, elementu bat dute amankomunean: filosofia modernoa. Hain zuzen ere, horregatik dira soziologia modernoaren gurasoak, soziologiaren zimenduak pentsamendu modernoaren gainean ezarri zituztelako. Alabaina, euskal nazioak ez du modernitaterik izan, ez behintzat nazio normalizatuek izan duten antzekorik. Horregatik, euskal fenomeno sozialak aztertzerakoan ikusi da zailtasunak daudela fenomenoaren atzean ezkutatzen den esperientzia soziala osotasunean ezagutzeko, betiere, soziologia modernoak eskaintzen dituen tresna epistemologiko eta teorikoak hitzez hitz hartuz gero.

Honekin ez da esan nahi soziologia modernoak eskaintzen dituen tresnak eta baliabideak euskal kasua azaltzeko baliorik ez dutenik. Urrutira joan gabe, ikerketa honen bizkarrezurra osatu da aipatutako hiru autore horien irakaspenetan. Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren existentzia frogatzeko, adibidez, ikerketa baliatu da Durkheimen gizarte gertakariaren inguruan egin zuen ekarpenaz. Are gehiago, Max Weberren eredu idealak erabili dira euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasuna barrutik ezagutzeko. Hori gutxi ez eta, atal teorikoa osatzerakoan Marxek proposatu zuen metodoa jarraitu ez bada ere, begirada kritikoz heldu zaio gaiari teoriaren eta praxiaren arteko elkarrekintza bilatuz. Ildo horretatik, desberdintasun nagusia da hark langileen mundu ikuspegia ikerketara eramanean zuten moduan, lan honetan ahalegina egin dela euskal epistemidizioa gainditzeko gizaki abstraktuaren mitoa auzitan jarritz.

Ikusten den bezala, lan honetan ez da proposatzen soziologia modernoarekin etetea, bere mugak identifikatu eta azken horiek osatzea baizik. Horregatik, euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren inguruko lan honen bidez erakutsi nahi izan da ezinbestekoa dela euskal kasuak aztertzerakoan soziologia begirada postmodernotik egitea. Horretarako, beharrezkoa da Gizarte Zientziak irekitzea (Wallerstein, 2006). Alde horretatik, lan honetan euskal lerrokatze linguistiko elektoralak aztertuz honako lau premisa hauek jarri dira auzitan: 1) Descartesek proposatzen duen gorputzaren eta

gogoaren arteko bereizketa; 2) estatua matrize espazial/temporal gisa hartzen duen begirada; 3) unibertsaltasunaren (nazio politikoa) eta partikularitasunaren (nazio etnikoa) arteko dibisioa; 4) ikertzaile ez-engaiatu eta neutralaren inguruko mitoa.

Premisa horiek zalantzan jarri ezean, nazio hegemonikoetako ikertzaileek zientzia erabiltzen dute aurrerapenaren, unibertsaltasunaren eta neutraltasunaren izenean bestetasun epistemikoa azpiratu eta mundua euren betaurrekoetatik erreproduzitzeko. Pentsamendu modernoak arduratzen da menderakuntza hori legitimatzeaz. Euskal nazioak, modernitate hegemonikorik gabeko nazio zapaldu den neurrian, pentsamendu modernoak gainditzea ezinbestekoa du menperakuntzaren atzaparretatik askatu nahi badu. Askapen prozesu hori bideratzeko, ikerketa unitate pribilegiatua da euskal nazio normalizatua (hain zuzen ere, euskal saretze bertikalaren erdigunean kokatzen dena).

Euskal lerrokatze linguistiko elektorala aztertzean ikusi da oraindik euskal nazioaren gaineko asimilazioa ez dela erabatekoa. Hautesleak beren portaera azaltzerakoan ez dituzte barneratu guztiz pentsamendu modernoak ezarritako kategoria arrotzak. Kuantitatiboki, egun gutxiengoa dira euskal alderdiei bozkatzeko dietenen artean euskaraz bizi direnak. Are gutxiago dira euskal lerrokatze linguistikoaren baitan beren botoa euskal pentsamenduan artikulatu eta dikotomia etniko/zibikoaren zepoan erortzen ez direnak. Alabaina, kualitatiboki balio erantsia du hautesle horien esperientzia sozialak. Izan ere, euskal gogo-gorputzak bat eginda botoa ematen duten horiek erakusten dute pentsamendu moderno hegemonikoak mugak dituela euskal lerrokatze linguistiko elektorala osotasunean azaltzeko. Azken horiek, beren portaerari ematen dioten zentzuak ez du bat egiten pentsamendu modernoaren oinarriko premisekin.

Hori ikusita, lan honetan proposatzen da pentsamendua artikulatzea hain zuzen ere oraindik asimilatu gabe dagoen nazio normalizatu horretan. Horrela, Estatuak utzi egiten dio matrize espazial/temporalari izateari. Nazio zapalduaren eremuan oinarrituz ahalegina egiten da nazioaren gaineko dibisio etniko/zibikoa josteko. Ikusten den moduan, soziologia begirada honetatik egitean ikertzailea ez da ikusle soila. Harremanetan dago ikerketa objektuarekin. Ikerketan subjektibotasuna txertatzeak ez du esan nahi ikerketa horrek objektibo izateari uzten dionik. Alderantziz, horrela azpimarratu nahi dena da pentsamendu oro gorpuztasun batetik abiatzen dela, hau da, ezagutza testuinguru sozio-historiko konkretu batean garatzen dela. Bereziki, errealitatea pentsamendu modernoaren premisen arabera aztertzen dutenen kasuan. Honek guztiak, zalantzan jartzen du Descartesek gizakiaren eta bera inguratzen duen errealitatearen inguruan proposatzen zuen ideia modernoak. Testuinguru horretan

hartzen du zentzua Torrealdaik duela mende erdi bat proposatu zuen galderak: “Agertzen dan pentsamendu hau zer da? Munduan zear agintzen duan pentsamendu orokor horren oiartzun huts bat, ala geure kreazio bat?”

Lan guztian zehar ikusi da menderakuntza eragiten duela euskal pentsamendua irudikatzeak pentsamendu moderno hegemonikoaren oihartzun gisa. Horren aurrean, lan honetan ondorioztatu da euskal pentsamendua euskaldunen kreazio bat dela. Are gehiago, ondorioztatu da pentsamendurik sortzen ez duen herria herri hila dela. Pluraltasun epistemikoa errespetatzea da munduko nazioen etorkizuna ziurtatzeko berme bakarra. Beraz, ikerketak euskal pentsamendutik egitea proiektu askatzailea da ezagutza iturri izateaz gain. Horregatik, pluraltasun epistemologikoaren alde egiten da lan honetan. Izan ere, horrela bakarrik lortzen baita elkar aberastea: bakoitzak bere partikulartasunetik ezagutza unibertsalak sortuz. Ondorioz, euskal pentsamendua jarrera etiko bat ere bada, munduan euskaldun gisa gure gorpuztasuna bizi dugunontzat. Are gehiago, euskal ikertzaileek munduari egin diezaioketen ekarpen nagusia da epistemologia propio bat garatzeko ahalegina egitea.

Gauzak horrela, lan honetan ondorioztatu da gizarte zientzietan fenomeno bat bere osotasunean ulertu nahi bada ezinbestekoa dela pentsamendu modernoa ezaugarritzen duen epistemologia unibertsalaren ideia utzi eta epistemologia pluribertsal baten aldeko apustua egitea. Beste hitzetan esanda, pentsamendu kokatu eta askea garatzea. Euskal lerrokatze linguistiko elektoraren inguruko lan honek bere aletxo jarri nahi izan du euskal soziologia postmodernoren beharrezkotasuna arrazoitzeko. Ildo horretatik, espainiar pentsamenduak balio beza espainiarren botoa azaltzeko, eta alderantziz, euskal pentsamenduak, euskaratik eta euskaraz ematen den botoa ulertzeko. Kulturartekotasuna ardatz harturik, ezagutza propioaren itzulpenaren bidez elkar aberastea da gizarte zientzien etorkizuneko erronka.

4. Aurrera begirakoak

Aurrera begirakoak azaltzen hasi aurretik garrantzitsua da nondik gatozen kontuan izatea. Izan ere, nahi eta ezinaren historia da euskal pentsamenduarena. Erakunde nagusien babesik gabe, norbanako engaiatuen eta herri mugimenduaren bizkar gelditu da euskal begiradatik mundua aztertzearen erronka. Alde horretatik, emankorra izan da azken hamarkadetan hainbat ikerlerrotan egin den bidea. Alabaina, ezin esan hori denik ikerketa elektoraleen kasua. Ikerketa solteetatik harago, ez da egon talde kontsolidaturik Euskal Herriko hautesleen portaera elektorala euskal begiradatik eta euskaraz aztertzeaz arduratu denik. Egia da azken urteotan saiakera batzuk egin direla. Horren adibide dira

Euskal Estatu irudikatzen (2016) ikerketa edota gerora Telesforo Monzon eLab erakundearen baitan sortu den Naziometroa taldea. Horrek guztiak erakusten du aurrerapausoak eman direla arlo honetan. Dena dela, oraindik bide luzea dago egiteko.

Horregatik guztiagatik, Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen inguruan azken lau hamarkadetan egin diren lan nagusiak honako bi erakundeetan dute jatorria: Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). Azken honen kasuan, Euskobarometroa ikerketa taldea da Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen inguruan lan gehien argitaratu duena. Alde horretatik, azpimarragarria da bi erakunde horiek mundu mailako ikertzaile erreferenteek proposatutako teoriak euskal kasuan aplikatzen egin duten lana. Alabaina, ikerketa guztian zehar erakutsi den moduan, bi erakunde horiek hobesten duten begirada modernoak mugak ditu euskal lerrokatze linguistiko elektoral bere osotasunean azaltzeko. Begirada horretatik, ahotsik gabe gelditzen dira ez-munduan bere izatea gorpuzten duten hautesleak (zehazki, botoa euskal pentsamendutik ematen dutenak).

Gauzak horrela, lehen begiratuan badirudi epe motzera dagoen eginkizun nagusia hori dela. Alegia, euskaldunen iritzi politikoak euskaratik eta euskaraz ikertzeko ahalegina egitea. Ikerketa honen kasuan, ahalegin hori legitimatu nahi da euskal soziologia postmoderno aldarrikatzen denean. Alde horretatik, lan honetan aurrera begira lantzea interesgarri izan daitezkeen bi egiteko konketu gelditu dira osatu gabe.

Batetik, interesgarria litzateke Ipar Euskal Herrira zabaltzea lan honetan Hego Euskal Herrirako proposatu den Nazio zapalduaren eredia. Hori egiteak aukera ematen du lan honetan proposatu den eredu teorikoak balio praktikoa duen berresteko. Eta, bestetik, Nazio zapalduaren eredia berrestek eskatzen duena da clivajeen teoria berrirakurtzea. Alde horretatik, lan honek amaitu gabe uzten duen eginkizun nagusia da euskal alderdi sistemaren historia bere osotasunean xehe-xehe aztertzea (honatx interesgarriak izan daitezkeen zenbait elementu: zenbat euskal alderdi egon diren sailkatzea, euskal alderdiak zein diren eta zein ez erabakitzea, horietako bakoitza noiz sortu zen eta noiz desagertu dokumentatzea, alderdi bakoitzaren eragite eremua eta ideologia zehaztea, barne egiturak eta kide kopurua...). Hori egin gabe ezinezkoa izango da mito modernoaren kateetatik guztiz askatzea.

Ikusten den moduan, egiteko dago euskal historiaren irakurketa integrala euskal pentsamendutik. Behinola Ildefonso Gurrutxagak (2002 [1956]) esan zuen moduan sinplea da euskal pentsamendua erdi pusketan apurtuta egotearen arrazoia: mendeetan barrena, salbuespenak salbuespen, euskaldunok ez dugu eduki unibertsitaterik edota

monasteriorik denbora luzez euskal pentsamendua oratzera eskaini denik. Are gutxiago, babes ekonomiko eta politikoak ematen duen lasaitasun eta bermearekin. Ia beti, euskal pentsamendua findu da zentsuraren mugetan eta errepresioaren mamuari ihesi. Mendeetako bidaia ilun horretan, itsasargia bezala izan da 56ko belaunaldia euskaldunentzat. Modernitatean euskal nazioak egikaritzetik izan ez zuen errenazimendu euskarazkoaren oinarriak ezarri zituen 56ko belaunaldiak XX. mendearen erditik aurrera. 36ko gerrak ia guztiz eten zuen transmisioaren azken hari-muturretatik tiraka kate-begi sendo bat osatu dute, ondorengo belaunaldiek jarraipena eman diezaiogun. XXI. mendearen gauden honetan, euskal errenazimendu euskarazkoa lantzea da euskal ikertzaileen egiteko nagusia. Ez baita gauza bera pentsamendua euskaraz edota euskal pentsamendua sortzea.

Horregatik guztiagatik, lan honek asko zor dio 56ko belaunaldia izenez ezagutzen den korronteari. Izan ere, belaunaldi honen partaideek, bakoitzak bere esparrutik, ahalegina egin dute errealitatea pentsamendu propiotik aztertzeko. Belaunaldi honek, bere gorpuztasunetik abiatuta eta ez-munduan kokatzen diren esperientzia sozialak balioan jarritz birpentsatu du mundua. Are gehiago, mahai gainean jarri duen ideia izan da pentsamendua etengabe sortu behar dela. Ez hori bakarrik. Belaunaldi bakoitzak bere kontestura egokitu behar duela pentsamendua, eta alderantziz, errealitatea transformatu egin behar duela bere utopiak egikaritzeko. Horretan saiatu gara, hain zuzen ere: euskal pentsamendutik eta euskaraz ikertuz Euskal Herri euskaldun bat eraikitzeke oinarriak jartzen.

Esan bezala, ordea, arazoa ez da mugatzen ikerketa elektoraletera. Luzera begira egiteko dagoen zeregin nagusia da Paulo Iztuetak euskal intelligentsia kimatua deitzen dion komunitatea saretzea. Ez dirudi bidea traba eta zailtasunik gabea izango denik. Jokin Zaitegiren garaian bezala orain ere, haizeak kontrako norantzan jotzen du. Lanean zehar ikusi da sistema hegemonikoa arduratzen dela euskal kasuan injustizia epistemikoa erreproduzitzeaz. Pentsamenduari dagokionez, euskal nazioak ez du unibertsitate ofizialik munduaren inguruan euskaldunek egiten duten irakurketa legitimatzeko. EHUUn euskaraz irakasten da baina ezin da esan euskal unibertsitate normalizatua denik (interesgarria litzateke jakitea unibertsitate honetan egiten diren ikerketen artean zenbat diren proportzioan euskaraz eta euskaratik egiten direnak). Beste horrenbeste esan daiteke EAeko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko gainerako unibertsitate publiko nahiz pribatuen inguruan. Aldiz, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) kasuan, euskal unibertsitatea izateko asmoa du, baina Estatu arrotzak ez dio erakunde horri aitortzen maila goreneko hezkuntza erakundearen izaera. Horra nola gorpuzten den nazioaren

pitzadura kultural eta politikoa. Zorigaitzezko drama nazional horretan irauten du euskal pentsamenduak bizirik. Ez kasualitatez. Orain arte iraun badu izan da hainbat ikertzailek bitza eman dutelako euskal errenazimendu euskarazkoa xede duen proiektuaren alde. Konplexurik gabe esan behar da euskal nazioak pentsalari prestatu bezain zintzoak izan dituela, etekin ekonomikoen eta prestigio akademikoaren gainetik herrigintza jarri dutenak. Beharbada ez dira agertuko historia unibertsalaren urrezko orrietan. Alabaina, eurak dira gutako askok euskaraz ikasi, euskaraz irakurri eta euskaratik munduari begiratzea posible egin dutenak. Horien guztien izenak, esanak eta lan egiteko moldeak baloratu eta ahanzturan ez galtzea da euskal pentsamenduak etorkizuna izan dezan berme nagusia.

BOSGARREN ATALA: BIBLIOGRAFIA ETA DATU ITURRIAK

Bibliografia:

- Achón, J. Á. (2018). El “contrato callado”. Sobre Manuel de Larramendi y la transformación del vínculo comunitario. *Sancho el Sabio, Ale berezia*(2), 149-175. or.
- Agirre, L. (2015). Zuzendariaren hitzak. *Jakin*, (208), 7-10. or.
- Agirre, L. eta Eskisabel, I. (2019). *Trikua esnatu da*. Susa.
- Agirreazkuenaga, I. (2003). *Diversidad y convivencia lingüística: Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del Euskara*. Gipukoako Foru Aldundia.
- Agirreazkuenaga, I. (2009). Euskararen araubide juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (70), 15-40. or.
- Agirreazkuenaga, J. (2002). Bilboko Lore Jokoen mendeurrena gogoratuz eta garaiko eztabaidak gaurkotuz. Ciudad y nuevos imaginarios culturales. *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, (11), 9-25. or.
- Agirrebaltzategi, P. (1977). Biharko Euskal Unibertsitatea. *Jakin*, (1), 72-91. or.
- Ahedo, I. (2004). *Pasado y presente del nacionalismo en Iparralde*. Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Aitzol, J. A. (1986). Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa. In *Jose Ariztimuño Aitzol: Idazlan guztiak-Obras completas* (1.^a ed., Vol. 2). Erein.
- Aizpuru, A. (2019). Txillardegi, postmodernitatea eta postkolonialismoa. *Jakin*, (232), 11-31. or.
- Aizpuru, M. (2000). *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923). Orígenes, organización y actuación política*. EHU.
- Aizpuru, M. (2010). XXI. mende hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa. *Uztaro*, (75), 49-68. or.
- Albero, J. (2005). Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko harremana Nafarroan. *Jakin*, (149), 11-25. or.
- Alkorta, E. (2016). Bozka abertzalea eta independentismoaren arteko harremana Euskal Autonomia Erkidegoan. *Inguruak*, (60), 122-145. or.
- Altuna, J. eta Hernandez, J. M. (2018). %2,7a—Euskara, generoaz mintzo? *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (106), 115-144. or.
- Álvarez, J. (2014). Juan Linz y nosotros. *Revista de Estudios Políticos*, (166), 81-84. or.
- Amezaga, J. (2013). Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, (194-195), 11-50. or.
- Amezaga, J. (2017). Aurrera begira jarrita: Komunikazio estrategia bat behar dugu. In *2017 Euskal hedabideen urtekaria* (39-52. or.). Behategia.
- Amezaga, J. (2020). Euskarazko komunikazioa lau hamarkada eta gero: Irakurketa kritikoa. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (116), 27-50. or.
- Andrés, F. (2014). Juan J. Linz en España. *Revista de Estudios Políticos*, (166), 227-229. or.
- Anduiza, E. eta Bosch, A. (2012). *Comportamiento político y electoral*. Ariel.
- Ansolabehere, S. eta Puy, M. S. (2016). Identity voting. *Public Choice*, (169), 77-95. or.
- Ansolabehere, S. eta Puy, M. S. (2018). Measuring issue-salience in voters' preferences. *Electoral Studies*, (51), 103-114. or.
- Aoiz, F. (2005). *El jarrón roto: La transición en Navarra: Una cuestión de Estado*. Txalaparta.

- Apaolaza, U. (2015). Abertzaletasunetik Independentismora. In *Independentzia helburu* (117-184. or.). Txalaparta.
- Araujo, J. O. (2011). *Los sistemas electorales autonómicos*. Generalitat de Catalunya, Departament de Governació i Relacions Institucionals Institut d'Estudis Autonòmics.
- Ardantza, J. A. (2011). *Euskadi bihotzean: Oroitzapenak*. Txertoa.
- Artetxe, K. (2010). *Komunitate zientifiko euskalduna: Azterketa historiko eta bibliometrikoa*. [Doktorego tesia]. EHU.
- Arzoz, X. (2006). Estatuto jurídico del euskera en Navarra. In J. M. Pérez Fernández (Ed.), *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas en España* (387-417. or.). Atelier.
- Askoren artean. (1978). *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia.
- Astibia, I. (2010). Egia deserosoa: Hizkuntza-politikari buruz inoiz kontatu ez dizutena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (77), 95-115. or.
- Aztiker. (2002). *Euskal Herria datuen talaiatik*. Udalbiltza.
- Azurmendi, J. (1971). *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. Euskal Elkargoa.
- Azurmendi, J. (1979). *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*. Hordago Lur.
- Azurmendi, J. (1992). Esencia y Esencialismo: Análisis de un concepto. In X. Palacios, (Ed.), *Ética y nacionalismo* (163-221. or.). Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.
- Azurmendi, J. (1997). *Demokratak eta biolentoak*. Elkar.
- Azurmendi, J. (2000). *Espainolak eta Euskaldunak* (9. ed.). Elkarlanean.
- Azurmendi, J. (2009). *Azken egunak Gandiagarekin. Adiskidearen heriotzaren aurrean bakarrizketak*. Elkar.
- Azurmendi, J. (2014). *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*. Elkar.
- Azurmendi, J. (2017). *Hizkuntza, nazioa, estatua*. Elkar.
- Barriola, L., Larzabal, B., Mendiboure, M., Mendiburu, L., Parot, U., Purroy, M. eta Zamora, P. (2011). *Xibertako aktak*. Anai Artea.
- Bartolini, S. (2005). La formations des clivages. *Revue internationale de politique comparée*, 12(1), 9-32.
- Bartolini, S. eta Mair, P. (2007). *Identity, competition and electoral availability: The stabilisation of european electorates 1885-1985*. ECPR Press.
- Basterretxea, J. I. (1980). Hauteskundeak eta euskara. *Jakin*, (14-15), 183-189. or.
- Battle, A. (Ed.). (2001). *Diez textos básicos de ciencia política* (2. ed.). Ariel.
- Bauman, Z. (2004). *Modernidad Líquida* (M. Rosenberg, Itzul.; 3. ed.). Fondo de Cultura Económica.
- Bazan, I. (2001). Apéndices. In *El historiador Esteban de Garibay* (179-198. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Behategia. (2017). *2017 euskal hedabideen behategia*.
- Beltza, E. L. (1977). *El nacionalismo Vasco en el exilio 1937-1960*. Txertoa.
- Bergara, A. (1996). *Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. Arartekoa.
- Bericat, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social*. Editorial Ariel.
- Bidador, J. M. (2001). El euskara en los medios de comunicación navarros durante el siglo XX: incidencia de la Ley del Vasce en la información. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, (46), 647-659. or.
- Billig, M. (2014). *Nacionalismo banal* (R. García, Itzul.). Capitan Swing.
- Bourdieu, P. (1985). *¿Qué significa hablar?* Akal.
- Campbell, A., Converse, P., Miller, W., eta Stokes, D. (1980). *The American Voter: Unabridged Edition*. University of Chicago.
- Conversi, Daniele. (1997). *The Basques, the Catalans, and Spain: Alternative routes to nationalist mobilisation*. Hurst.
- Corbetta, P. (2009). *Metodología y técnicas de investigación social* (M. Díaz Ugarte eta S. Díaz Ugarte, itzul.). McGraw Hill.

- Corcuera, J. (2001). *La patria de los vascos: Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco, 1876-1903*. Taurus.
- Coyos, J.-B. (2010). Hizkuntza ukipena. In A. Zarraga, J.-B. Coyos, J. M. Hernandez, L. Joly, I. Larrea, L. Martinez, B. Uranga, eta P. Bilbao (Ed.), *Soziolinguistika eskuliburua* (135-180. or.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia eta Soziolinguistika Klusterra.
- D'Elia, V. V. (2009). El sujeto económico y la racionalidad en Adam Smith. *Revista de economía institucional*, 11(21), 37-43. or.
- Dalton, R. (1996). Political Cleavages, Issues, and Electoral Change. In L. LeDuc, R. G. Niemi, eta P. Norris (Ed.), *Elections and Voting in Global Perspective* (319-342. or.). Sage Publications.
- Davant, J.-L. (1977). *Aberrri eta klase burruka euskal mugimenduan*. Elkar.
- De la Calle, L. (2005). Cuando la proximidad deja de ser importante: Modelos espaciales y voto en la política vasca. 1994-2001. *Revista Española de Ciencia Política*, (12), 21-52. or.
- Del Castillo, P. (1978). La campaña del referéndum constitucional. *Revista de estudios políticos*, (6), 153-174. or.
- Del Castillo, P. (1979). Referéndum del Estatuto de Autonomía en el País Vasco. *Revista del Departamento de Derecho Político*, (5), 201-210. or.
- Doulián, N. (2019). (Des)narrando el estado: Del liberalismo y marxismo hacia un «pensamiento otro». *Hologramática*, (29), 153-174. or.
- Downs, A. (1957). *An economic theory of democracy*. Harper & Row.
- Downs, A. (2001). Teoría económica de la acción política en una democracia. In A. Batlle (Ed.), *Diez textos básicos de ciencia política* (2. ed., 93-111. or.). Ariel.
- Durkheim, É. (1967). *De la división del trabajo social* (D. Maldavsky, Itzul.). Editorial Schapire.
- Durkheim, É. (1982). *Las formas elementales de la vida religiosa* (R. Ramos, Itzul.). Akal editor.
- Durkheim, É. (1997). *Metodo soziologikoaren arauak* (A. Sarriegi, Itzul.). Gaiak.
- Durkheim, É. (2012). *El Suicidio* (S. Chaparro, Itzul.; 2. ed.). Akal Universitaria.
- Dussel, E. (1994). *1492 El encubrimiento del Otro: Hacia el origen del «Mito de la Modernidad»*. Plural Editores.
- Egaña, I. (1996). *Diccionario histórico-político de Euskal Herria*. Txalaparta.
- Erize, X. (2016). Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboan bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. In B. Uranga eta U. Anduaga (Ed.), *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)* (13-24. or.). Soziolinguistika Klusterra.
- Etxeberria, F. (2006). Euskara eta gaztelania ikastea bermatuko duen hizkuntz eredu baten alde. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (60), 99-116. or.
- Etxeberria, H. (2015). EAEko gehiengo euskalduna dituen udalerriak epaitegi erdaldunetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (97), 67-97. or.
- Etxeberria, J. (1989). *Giza zientziei egokitutako estatistika: SPSS/PC + programa-paketea erabiliz*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Etxeberria, J. (2011). *Estatistika aplikatua: Teoria eta praktika*. Elhuyar.
- Eusko Jaurlaritza. (2013). *V. inkesta soziolinguistikoa 2011*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. (2016). *Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan: V. Plangintzaldiko (2013-2017) tarteko ebaluazio txostena*.
- Eusko Jaurlaritza. (2018). *Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren datuak Euskadin*.
- Eusko Jaurlaritza. (2019). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ezkurdia, G. (2008). Euskal Herria gaiaren garapena XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan. *Ikastaria: cuadernos de educación*, (16), 85-98. or.
- Ezkurdia, G. (2019). Euskaldun izatetik elebidun izatera: Euskalduntzearen ardura. *Hermes*, (62), 24-40. or.

- Fishman, J. (1993). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (10), 37-46. or.
- Franklin, M. N. (2010). Cleavage Research: A Critical Appraisal. *West European Politics*, 33(3), 648-658.
- Gaindegia. (2016). *Euskal Herriko geografia demografikoa: bilakaera eta joerak*. Udalbiltza. https://www.gaindegia.eus/sites/gaindegia.eus/files/argitalpen-eranskin/demografia_eus-2016-maiatza.pdf
- Garaikoetxea, C. (2002). *Euskadi: La transición inacabada*. Planeta Singular.
- Garate, G. (1972). *Marx eta nazioa*. Etorbidean kultura.
- Garmendia, E. (2018). *Carlos Garaikoetxea: Lider bat lehendakari*. Berria-Elkar-Jakin.
- Garmendia, H. (2015). Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura. *Jakin*, (208), 25-41. or.
- Garmendia, H. (2019, abendua). *Hauteskunde lerrokatzeak: Euskara eta boto abertzalea*. Joxe Azurmendi: euskal pentsamenduaren ur-jauzia kongresuan aurkeztutako komunikazioa. Donostia.
- Garmendia, H. eta Urteaga, E. (2019). Iparra galdu gabe! Euskal alderdi-sistema ez da Espainiar estatuko azpi-sistema elektoral bat. In O. Arbelaitz, U. Etxeberria, A. Latatu, eta M.J. Omaetxebarria (Ed.), *III. Iker gazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulua bilduma. Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea*. (44-50. or.). UEU.
- Gartzia, P. (2019, abendua). *Azurmendi, Arantzazuko pentsalaria*. Joxe Azurmendi: euskal pentsamenduaren ur-jauzia kongresuan aurkeztutako komunikazioa. Donostia.
- Gellner, E. (1988). *Naciones y nacionalismo*. Alianza.
- Goienetxe, M. (1975). *Histoire de la colonisation française au Pays Basque*. Elkar.
- Goienetxe, M. (1999). *Historia general del País Vasco: Prehistoria, Época Romana, Edad Media*. Tomo 1. Tarttalo.
- Goikoetxea, J. (2015). Euskal Estatugintza Feminista. In *Independentzia helburu* (185-258. or.). Txalaparta.
- Goirigolzarri, J. (2017). *Hizkuntzak eta alderdi politikoak: Diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Goldberg, A. (2020). The evolution of cleavage voting in four Western countries: Structural, behavioral or political dealignment? *European Journal of Political Research*, 59(1), 68-90. or.
- Granja, J. L. de la. (1986). *Nacionalismo y II República en el País Vasco: Estatutos de autonomía, partidos y elecciones, historia de acción nacionalista, 1930-1936*. Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Granja, J. L. de la. (1995). *El nacionalismo vasco: Un siglo de historia*. Tecnos.
- Grosfoguel, R. (2006). La descolonización de la economía política y los estudios postcoloniales: Transmodernidad, pensamiento fronterizo y colonialidad global: *Tabula Rasa*, (4), 17-48. or.
- Grosfoguel, R. (2008). Hacia un pluri-versalismo transmoderno decolonial. *Tabula Rasa*, (9), 199-215. or.
- Grosfoguel, R. (2009). Izquierdas e Izquierdas Otras: Entre el proyecto de la izquierda eurocéntrica y el proyecto transmoderno de la nuevas izquierdas descoloniales. *Tabula Rasa*, (11), 9-29. or.
- Grosfoguel, R. (2011). La descolonización del conocimiento: Diálogo crítico entre la visión descolonial de Frantz Fanon y la sociología descolonial de Boaventura de Sousa Santos. In A. Vianello (Ed.), *Formas-Otras: Saber, nombrar, narrar, hacer. IV Training Seminar de jóvenes investigadores en Dinámicas Interculturales*, (97-108. or.). CIDOB
- Grosfoguel, R. (2012). Retos de los Estudios Étnicos en Estados Unidos y en el sistema universitario global occidentalizado: Entre el multiculturalismo liberal, las políticas identitaristas, la colonización disciplinaria, y las epistemologías descoloniales. *Revista de Relaciones Internacionales*, (19), 13-25. or.

- Grosfoguel, R. (2013). Racismo/sexismo epistémico, universidades occidentalizadas y los cuatro genocidios/epistemicidios del largo siglo XVI. *Tabula Rasa*, (19), 31-58. or.
- Grosfoguel, R. (2016). Caos sistémico, crisis civilizatoria y proyectos descoloniales: Pensar más allá del proceso civilizatorio de la modernidad/colonialidad. *Tabula Rasa*, (25), 153-174. or.
- Guinjoan, M. (2009). Cleavages y sistemas electorales: Una nueva aproximación. *Revista de Estudios Políticos*, (144), 87-121. or.
- Gurrutxaga, I. (2002). El problema de una historia vasca. In M. L. San Miguel (Ed.), *Aprendamos nuestra historia* (104-106. or.). Saturraran.
- Gutierrez, A. (2002). *Euskal irratigintzaren historia*. UEU.
- Harluxeta, K., Mimiague, P., eta Torrealday, J. M. (1979). Euskal Herriko Botua. *Jakin*, (11), 5-26. or.
- Hobsbawm, E. J. (1991). *Naciones y nacionalismo desde 1780* (J. Beltran, Itzul.). Editorial Crítica.
- Igartua, I. eta Zabaltza, X. (2012). *Euskararen historia laburra*. Etxepare Euskal Institutua.
- Intxausti, J. (1977). Foruetatik Autonomiara. *Jakin*, (3), 25-54. or.
- Intxausti, J. (1985). Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian. In J. Intxausti (Ed.), *Euskal Herria: Errealitate eta egitasmo II* (361-386. or.). Laboral Kutxa.
- Intxausti, J. (1990). *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Intxausti, J. (1993). Granada 1492: Garbiketa etniko baten bezperan. *Jakin*, (74), 63-76. or.
- Intxausti, J. (2007). *Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan. *Jakin*, (158), 53-76. or.
- Irigoién, J. (1985). Demografía y mercado de trabajo (1936-1984). In J. Intxausti (Ed.), *Euskal Herria: Errealitate eta egitasmo II* (121-135. or.). Laboral Kutxa.
- Iriondo, I. (2008). *Ibarretxe: Entre el poder y el querer*. Gara.
- Iriondo, Iñaki. eta Sola, R. (2005). *Bihar, Euskal Herria: Elkarrizketa Arnaldo Otegiarekin*. Baigorri.
- Isasi, X. (2011). Terminologiak anpara gaitzala. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (79-80), 175-184. or.
- Iurrebaso, I. (2015). Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan. EAE, 1981-2011. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (95), 71-103. or.
- Iurrebaso, I. (2016). Hainbat gogoeta hizkuntza-gaitasunaren inguruan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (99), 81-95. or.
- Izagirre, K. (2015). Mito baten sorburua. *Jakin*, (208), 41-50. or.
- Iztueta, I. (2015). *Euskal Kultura vs Cultura Vasca*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (1985). Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984). In J. Intxausti (Ed.), *Euskal Herria: Errealitate eta egitasmo II* (392-403. or.). Laboral Kutxa.
- Iztueta, P. (1981). *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975*. Elkar.
- Iztueta, P. (1996). *Intelligentsia kimatuaren orbelak*. Kutxa Fundazioa.
- Iztueta, P. (2000a). *Erbesteko euskal pentsamendua*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2000b). *Euskal irakaskuntza autonomi aroan (1983-1994)*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2015). *ZABALen isuria (1973-1976): Ezker abertzalea paradigma berrien aurrean*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2016). *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. eta Apalategi, J. (1974). *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*. Zabal.

- Jauregi, G. (1981). *Ideología y estrategia política de ETA: Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Siglo Veintiuno de España.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Juaristi, P. (2013). *Aldagai bakarreko estadistika deskribatzailea eta inferentziala gizarte zientzietan: Teoria eta adibideak*. EHU.
- Juaristi, P. (2018). Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan. *Euskera*, 63(2-1), 299-322. or.
- Kasares, P. (2004). *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian*. Deustuko Unibertsitatea.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (94), 13-45. or.
- Kedourie, E. (1985). *Nacionalismo*. Centro de Estudios Constitucionales.
- Kontseilua. (2018). *Hizkuntza-eskubideak bermatzeko lege-proposamena*.
- Kriesi, H. (1998). The transformation of cleavage politics: The 1997 Stein Rokkan lecture. *European Journal of Political Research*, (33), 165-185. or.
- Kuartango, J. A. (2017). Euskararen ofizialtasuna euskal autonomia erkidegoko administrazio orokorrean. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (105), 47-81. or.
- Kuschick, M. (2004). Teorías del comportamiento electoral y algunas de sus aplicaciones. *Revista Mexicana de Ciencias Políticas y Sociales*, 46(190), 47-70. or.
- Laclau, E. (2005). *La razón populista* (S. Laclau, Itzul.). Fondo de Cultura Económica.
- Laclau, E. eta Mouffe, M. (2001). *Hegemonía y estrategia socialista*. Siglo XXI.
- Lagares Diez, N. eta Oñate, P. (2019). Los resultados electorales y los sistemas de partidos. In N. Lagares, C. Ortega, P. Oñate (Ed.), *Las elecciones autonómicas de 2015 y 2016* (165-189. or.). CIS.
- Lago, I. (2002). Cleavages y umbrales: Las consecuencias políticas de los sistemas electorales autonómicos, 1980-2000. *Revista Española de Ciencia Política*, (7), 131-158. or.
- Larrinaga, A. (2007a). *Kulturgileak eta kulturaren esparrua I*. Utriusque Vasconiae.
- Larrinaga, A. (2007b). *Kulturgileak eta kulturaren esparrua II*. Utriusque Vasconiae.
- Larronde, J.-Claude. (1977). *El nacionalismo vasco: Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. Ediciones Vascas.
- Larzabal, B. (2015). Bozak Ipar Euskal Herrian. In P. Iztueta eta J. Apalategi (Ed.), *Euskal Pentsamendu berritzailearen sorrerak: Zabal testu hautatuak* (99-108. or.). Zabal.
- Lasagabaster, I. (2006). *Una introducción histórica a las instituciones políticas vascas*. Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Lazarsfeld, P., Berelson, B., eta Gaudet, H. (1948). *The people's choice: How the voter makes up his mind in a presidential campaign*. Columbia University Press.
- LeDuc, L., eta Niemi, R. G. (2014). Voting Behavior: Choice and Context. In L. LeDuc, R. G. Niemi, eta N. Pippa (Ed.), *Comparing Democracies 4: Elections and Voting in a Changing World* (133-150. or.). Sage Publications.
- Leonisio, R. (2014, abendua). *Las bases electorales de los partidos nacionalistas vascos en Navarra*. Las Bases Electorales de los Partidos Nacionalistas en las Comunidades Autónomas Españolas Kongresuan aurkeztutako komunikazioa.
- Leonisio, R. (2015). Del triángulo al cuadrado. Aplicación de la teoría de los cleavages a la historia política vasca. *Historia Actual Online*, (36), 175-186. or.
- Leonisio, R. eta Scantamburlo, M. (2019). La competición política en el País Vasco, 1980-2016. In B. Gómez, L. Cabeza, eta S. Alonso (Ed.), *En busca del poder territorial: Cuatro décadas de elecciones autonómicas en España* (255-280. or.). CIS.
- Leonisio, R., eta Strijbis, O. (2014). Más allá de la autoubicación: Por qué el nacionalismo predice mejor el comportamiento electoral en el País Vasco. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (146), 47-68. or.
- Letamendia, F. (1997). *Juegos de espejos: Conflictos nacionales centro-periferia*. Editorial Trotta.

- Lijphart, A. (1979). Religious vs. Linguistic vs. Class Voting: The «Crucial Experiment» of Comparing Belgium, Canada, South Africa and Switzerland. *The American Political Science Review*, 73(2), 442-458. or.
- Linz, J. J. (1986). *Conflicto en Euskadi*. Espasa Calpe.
- Linz, J. J. (2008). *Juan J. Linz Obras Escogidas: Nación, Estado y lengua* (J. R. Montero eta T. J. Miley, Ed.; Vol. 2). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Linz, J. J. (2009). *Juan J. Linz Obras Escogidas: Democracias: Quiebras, transiciones y retos* (J. R. Montero eta T. J. Miley, Ed.; Vol. 4). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Linz, J. J., Gómez-Reino, M., Vila, D., eta Andrés, O. (1981). *Atlas electoral del País Vasco y Navarra*. Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Lipset, S. M., eta Rokkan, S. (2012). Estructuras de división, sistemas de partidos y alineamientos electorales. In I. Delgado Sotillos eta L. López Nieto (Ed.), *Análisis político y electoral* (134-185. or.). UNED.
- Llera, F. J. (1981). Caracterización sociopolítica del sistema de partidos de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra. *Revista de estudios políticos*, (20), 61-86. or.
- Llera, F. J. (1985a). El sistema de partidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Revista de estudios políticos*, (46-47), 527-552. or.
- Llera, F. J. (1985b). *Postfranquismo y fuerzas políticas en Euskadi: Sociología electoral del País Vasco*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Llera, F. J. (1989). Continuidad y cambio en la política vasca: Notas sobre identidades sociales y cultura política. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (47), 107-135. or.
- Llera, F. J. (2014). Juan Linz, el maestro y el amigo: Una laudatio. *Revista de Estudios Políticos*, (166), 157-167. or.
- Llera, F. J. (2016a). Introducción. In F.J. Llera (Ed.), *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012* (19-26. or.). CIS.
- Llera, F. J. (2016b). Elecciones en un nuevo ciclo político. In F.J. Llera (Ed.), *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012* (27-64. or.). CIS.
- Llera, F. J. (2016c). La moderación del sistema de partidos de pluralismo polarizado. In F. J. Llera (Ed.), *Las elecciones autonómicas en el País Vasco* (247-266. or.). CIS.
- Llera, F. J. (Ed.). (2016d). *Las elecciones autonómicas en el País Vasco*. CIS.
- Lopez-Goñi, I., eta Mariñelarena, P. (2006). Nafarroako ikastolak iraganetik etorkizunerantz. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (58), 107-114. or.
- Luxan, M. (2004). Evolución demográfica y movimientos migratorios. In Joseba Agirreazkuenaga (Ed.), *Historia de Euskal Herria* (Vol. 6, 11-32. or.). Lur.
- Liotard, J.-F. (1987). *La postmodernidad (explicada a los niños)* (E. Lynch, Itzul.). Gedisa.
- Liotard, J.-F. (1989). *La condición postmoderna: Informe sobre el saber* (M. Antolín, Itzul.). Catedra.
- Malinowski, B. (1975). *Los argonautas del Pacífico Occidental*. Ediciones Península.
- Malinowski, B. (1995). *Magia, Zientzia eta Erljioa: Mitoa psikologia primitiboan*. Gaiak.
- Martinez de Luna, I. (2013). Euskarak duen «Framing» Berri baten premia asetzeko proposamena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (86), 13-83. or.
- Martínez-Herrera, E., eta Barceló, J. (2014). Identidades y nacionalismos territoriales en las elecciones autonómicas de 2011-2012. In F. Palarés (Ed.), *Elecciones autonómicas 2009-2012* (307-338. or.). CIS.
- Marx, K., eta Engels, F. (2003). *El Manifiesto Comunista*. Alba.
- Mauss, M. (2012). *Ensayo sobre el don* (J. Bucci, Itzul.). Katz.
- Memmi, A. (1974). *Kolonizatuaren ezaugarria* (Txillardegí, Itzul.). Jakin.
- Mess, L. (1992). *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social*. Sabino Arana Fundazioa.
- Mess, L. (1994). Nazionalismoa eta bere teoria. *Uztaro*, (11), 15-27. or.

- Monedero, J. C. (2005). Presentación: Conciencia de frontera: La teoría posmoderna de Boaventura de Sousa Santos. In B.D.S. Santos (Ed.), *El milenio huérfano: Ensayos para una nueva cultura política* (15-96. or.). Trotta.
- Montecinos, E. (2007). Análisis del comportamiento electoral: De la elección racional a la teoría de redes. *Revista de Ciencias Sociales*, 13(1), 9-22. or.
- Montero, J. R., Llera, F. J., eta Pallarés, F. (1998). Los partidos de ámbito no estatal en España: Notas actitudinales sobre nacionalismos y regionalismos. In R. Agranoff, R. Bañón i Martínez (Ed.), *El estado de las autonomías: ¿hacia un nuevo federalismo?* (205-244. or.). Eusko Jaurlaritzia.
- Mouffe, C. (2005). Esfera publiko agonistikoaren alde. *Uztaro*, (53), 53-61. or.
- Munarriz, F. (2012). *El tiempo de las luces: Entrevista con Arnaldo Otegi*. Gara.
- Nafarroako Arartekoa. (2010). *Nafarroako Parlamentuak Eskatutako Txostena: Elebitasuna eta herritarren hizkuntza eskubideen egoera*.
- Nafarroako Gobernu. (2015). *Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa 2011*. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila.
- Nohlen, D. (1981). *Sistemas electorales del mundo*. Centro de Estudios Constitucionales.
- Nohlen, D. (1994). *Sistemas electorales y partidos políticos*. Universidad nacional autónoma de México.
- Núñez Seixas, X. M. (1999). *Los nacionalismos en la España contemporánea [Siglos XIX y XX]*. Hipòtesi.
- Odrizola, J. M. (2008). *Abertzaleak eta euskara*. Elkar.
- Odrizola, J. M. (2017). *Nora goaz euskalduntasun honekin*. Elkar.
- Odrizola, O. eta Zabalo, J. (2014). Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: Ardatz ala osagarri? *Uztaro*, (91), 67-82. or.
- Orzaiz, I. eta Senar, J. (2016). *Nafarroa orain ala inoiz ez*. Berria-Elkar-Jakin.
- Pablo, S. de, Granja, J. L. de la, eta Mees, L. (1998). *Documentos para la historia del nacionalismo vasco: De los fueros a nuestros días*. Ariel.
- Pablo, S. de, eta Mees, L. (2005). *El péndulo patriótico: Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*. Crítica.
- Pallares, F. (1991). Estado autonómico y sistema de partidos: Una aproximación electoral. *Revista de Estudios Políticos*, (71), 281-323. or.
- Paramio, L. (2000). Clase y voto: Intereses, identidades y preferencias. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (90), 19-93.
- Peña, S. L. (1995). Rito y símbolo en la campaña electoral para la alcaldía de Bogotá. *Análisis Político*, (24), 22-35. or.
- Pérez-Nievas, S., eta Bonet, E. (2006). Identidades regionales y reivindicación de autogobierno. El etnorregionalismo en el voto a partidos nacionalistas de Bélgica, España y Reino Unido. *Revista Española de Ciencia Política*, (15), 123-161. or.
- Pérez-Nievas, S., eta Fernández-Esquer, C. (2019). El sistema de partidos en la Comunidad Foral de Navarra. In B. Gómez, L. Cabeza, eta S. Alonso (Ed.), *En busca del poder territorial: Cuatro décadas de elecciones autonómicas en España* (391-413. or.). CIS.
- Petschen, S. (1990). *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: Documentos (1492-1989): Vol. I*. Eusko Jaurlaritzia.
- Polanyi, K. (1997). *La Gran Transformación: Crítica al liberalismo económico* (J. Varela eta F. Álvarez-Uría, Itzul.). La Piqueta.
- Ramos, R. (2006). Euskararen egoera udal administrazioan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (58), 89-100.
- Retortillo, A., eta Leonisio, R. (2016). Competición y movilización diferencial. In F.J. Llera (Ed.), *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012* (175-191. or.). CIS.
- Rivera, J., eta Jaráiz, E. (2015). Modelos de explicación y componentes del voto en las elecciones autonómicas catalanas de 2015. *Revista Española de Ciencia Política*, (42), 13-43. or.
- Rivero, G. (2015). Heterogeneous preferences in multidimensional spatial voting models: Ideology and nationalism in Spain. *Electoral Studies*, (40), 136-145. or.

- Robinson, W. S. (1950). Ecological correlations and the behavior of individuals. *American Sociological Review*, 15(3), 351-357. or.
- Rojo, E. (2013). Futbola nazionalismoen biziraupenaren isla globalizazioan eta nazio-estatuaren boterearen zaindaria. *Uztaro*, (84), 89-104. or.
- Ruiz, A. M. (2007). Los instrumentos de medida de las identidades en los estudios del CIS y el Eurobarómetro: Problemas de validez de la denominada escala Moreno. *Reis*, (117), 161-182. or.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (2007). *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. eta Urrutia, V. (1978). Nafarroako hauteskunde orokorrak. *Jakin*, (6), 88-99. or.
- Ruiz Olabuenaga, J. I., Vicente Torrado, T. L., eta Ruiz Vieyetz, E. J. (1998). *Sociología electoral vasca*. Universidad de Deusto.
- Santos, B. D. S. (2005). *El milenio huérfano: Ensayos para una nueva cultura política*. Trotta.
- Santos, B. D. S. (2006). La universidad en el siglo XXI. Para una reforma democrática y emancipadora de la universidad. *Revista del Postgrado en Ciencias del Desarrollo*, (15), 13-70. or.
- Santos, B. D. S. (2011). Introducción: Las epistemologías del Sur. In A. Vianello (Ed.), *Formas-Otras: Saber, nombrar, narrar, hacer. IV Training Seminar de jóvenes investigadores en Dinámicas Interculturales*, (11-22. or.). CIDOB.
- Santos, B. D. S. (2014). Más allá del pensamiento abismal: De las líneas globales a una ecología de saberes. In B. D. S. Santos eta M. P. Meneses (Ed.), *Epistemologías del Sur* (21-66. or.). Akal.
- Santos, B. D. S. (2018a). *Construyendo las Epistemologías del Sur. Antología.: Vol. I*. CLACSO.
- Santos, B. D. S. (2018b). *Construyendo las Epistemologías del Sur. Antología.: Vol. II*. CLACSO.
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa: Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela.
- Sartori, G. (2012). *Partidos y sistemas de partidos*. Alianza Editorial.
- Sartre, J. P. (1974). Hitzaurrea. In A. Memmi, *Kolonizatuaren ezaugarria*. Jakin.
- Siadeco (Ed.). (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. EV.
- Siegfried, A. (1913). *Tableau politique de la France de l'Ouest sous la troisième république*. Librairie Armand Colin.
- Smith, A. D. (2000). *Nacionalismo y modernidad: Un estudio crítico de las teorías recientes sobre naciones y nacionalismo*. Istmo.
- Smith, A. D. (2004). *Nacionalismo: Teoría, ideología, historia*. Alianza Editorial.
- Sonnleitner, W. (2013). Explorando las dimensiones territoriales del comportamiento político: Reflexiones teórico-metodológicas sobre la geografía electoral, la cartografía exploratoria y los enfoques espaciales del voto. *Estudios Sociológicos*, 31(ale berezia), 97-142. or.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016*.
- Sudupe, P. (2011a). *50eko Hamarkadako Euskal Literatura: I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Utriusque Vasconiae.
- Sudupe, P. (2011b). *50eko Hamarkadako Euskal Literatura: II. Kazetaritza eta saiakera*. Utriusque Vasconiae.
- Sudupe, P. (2011c). *50eko Hamarkadako Euskal Literatura: III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Utriusque Vasconiae.
- Superti, C. (2020). Protesting with the ballot: Diffusion of methods of electoral protest in Spain. *Electoral Studies*, 65, 1-13. or.
- Tönnies, F. (1979). *Comunidad y asociación*. Ediciones Península.
- Torrealdai, J. M. (1977). *Euskal idazleak gaur*. Jakin.
- Torrealdai, J. M. (1998). *El Libro Negro de Euskera*. Ttarttalo.
- Torrealdai, J. M. (1999). Txillardegi eta Martin Ugaldere arteko gutunak (1961-1969). *Jakin*, (114), 117-180. or.

- Torrens, X. (2005). Los Sistemas Electorales. In M. Caminal eta X. Torrens (Ed.), *Manual de ciencia política* (343-371. or.). Tecnos.
- Touraine, A. (1978). *La voix et le regard*. Seuil.
- Txepetx. (1980). *Lengua y Pueblo*. Pamiela.
- Txepetx. (1991). *Un futuro para nuestro pasado*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Txillardegui. (1994). *Euskal Herria helburu*. Txalaparta.
- Ugalde, M. (1977). *Euskal kondairaren sintesia*. Ediciones Vascas.
- Urrutia, I. (2006). Estatuto jurídico del euskera en el País Vasco. In J. M. Pérez Fernández (Ed.), *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas en España* (417-448. or.). Atelier.
- Urteaga, E. (2004). *La politique linguistique au Pays Basque*. L'Harmattan.
- Urteaga, E. (2006). *La langue basque dans tous ses états*. L'Harmattan.
- Urteaga, E. (2007). *Le vote nationaliste Basque*. L'Harmattan.
- Urteaga, E. (2019). *La nouvelle politique linguistique au Pays Basque*. L'Harmattan.
- Urteaga, E. (2020). *L'essor du vote nationaliste basque*. L'Harmattan.
- UZEI. (2012). *Hauteskundeen Hiztegia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Wallerstein, I. (Ed.). (2006). *Abrir las ciencias sociales*. Siglo XXI.
- Ware, A. (2004). *Partidos políticos y sistemas de partidos*. Istmo.
- Zabaleta Gorrotxategi, I. (2017). *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zabaleta Imaz, I. (2000). *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zabalo, J., Larrinaga, A., Iraola, I., Saratxo, M., Amurrio, M., Mateos, T., Fullaondo, A., eta Anduaga, U. (2016). *Euskal Estatua Irudikatzen: Euskal Estatuaren aurreko iritziak eta jarrerak Euskal Herrian: Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*. Ipar Hegoa Fundazioa.
- Zaitegi. (1956). YAKINI eskutitza. *Jakin*, (2), 173.
- Zalakain, J.M. (2003). EGUNKARIA itxi dute, baina proiektua bizirik dago. *Uztaro*, (45), 29-69. or.
- Zalbide, M. (2011). Diglosiaren purgatorioz. Teoriatik tiraka. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (79-80), 13-152. or.
- Zalbide, M. (2016). Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (100), 11-190. or.
- Zalbide, M. (2020). Hitzun elkarte, azal eta mami. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (115), 11-43. or.
- Zeruko Argia. (1978, abenduak 17). Editoriala. *Zeruko Argia*, 3.
- Zubiaga, M. (2013). *Euskal estatua eta nazioa, ekintza kolektibo gisa: Euskal estatugintzaz*. Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Zuckerman, A. (1975). Political Cleavage: A Conceptual and Theoretical Analysis. *British Journal of Political Science*, 5(2), 231-248. or.

Web orriak eta datuak eskuratu diren erakundeak:

- EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea): Erakunde honetatik lortu dira euskararen datu soziolinguistikoak.

Eustat. (d. g.). Datu-bankua. Eustat.eus. https://eu.eustat.eus/banku/id_All/indexArbol.html

- **EUSKO JAURLARITZA:** Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bere web orrian eskuragarri dituen datuez baliatu da ikerketa EAEko hauteskunde autonomikoetako hautesleen portaera aztertzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. (d. g.). *Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa*. Euskadi.eus. <https://www.euskadi.eus/hauteskundeak/>

- **NAFARROAKO ESTADISTIKA ERAKUNDEA:** Erakunde honek bere web orrian eskuragarri ditu Nafarroako parlamenturako hauteskundeetan izan diren emaitza elektoralak. Lan honetan datu horiez baliatu gara analisisia egiteko.

Nafarroako Estatistika Erakundea. (d.g.). Nafarroako Hauteskundeetako Emaitzak. [Administracionelectronica.navarra.es](https://administracionelectronica.navarra.es). <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3>

- **EUSKARABIDEA:** Erakunde honen bidez lortu dira Nafarroako datu soziolinguistikoak. Eskaera egin da udalerrri mailako datuak eskuratzeko.
- **GAINDEGIA:** Errealitate soziolinguistiko eta elektoralaren inguruko irudiak egiteko oinarri moduan hartu dira erakunde honek eskaintzen dituen plantillak.

Gaindegia. (d. g.). Mapa geografikoak. Euskalgeo.eus. <https://euskalgeo.eus/eu/deskargak/zonifikazio-administratiboa>

- **CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas):** Erakunde honek nornahirentzat eskuragarri ditu Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoen inguruan azken hamarkadetan egin dituen inkestak. Lan honetan inkesta horietaz baliatu gara ikerketan sakontzeko.

CIS. (d. g.). Hauteskunde inkestak. Cis.es. <http://www.cis.es/cis/opencms/ES/NoticiasNovedades/InfoCIS/2014/PlataformaOnLineBancodeDatos.html>

SEIGARREN ATALA: ERANSKINAK

Eranskinen atalean zortzi puntu bereizi dira ikerketa honen osagarri gisa aurkezten diren materialen izaeraren arabera. Aurreneko zazpi eranskinak, ondorengo orrietan daude jasota. Zortzigarrena, dokumentuari erantsita aurkezten den aparteko CD batean jasota da.

I . ERANSKINA: *Hego Euskal Herriko alderdi sistemen hezurdura (1980-2016)*

II . ERANSKINA: *EAEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko argibideak*

III . ERANSKINA: *NFEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko argibideak*

IV. ERANSKINA : *Zenbaki bidezko analisi korrelatiboa: laginaren ezaugarriak*

V. ERANSKINA: *Galdetegia*

VI. ERANSKINA: *Kode zuhaitza*

VII. ERANSKINA: *Hego Euskal Herriko udalerriak*


VIII. ERANSKINA: *CDa. 1) Ikerketa egiteko erabili diren oinarrizko datu soziolinguistikoak. 2) Ikerketa egiteko erabili diren oinarrizko datu elektoralak. 3) Korrelazio koefizientearen emaitza guztiak SPSS programaren bidez kalkulatu.*

I. ERANSKINA


Hego Euskal Herriko alderdi sistemen hezurdua (1980-2016)

A) EAeko hauteskunde autonomikoetako kasua (1980-2016)


EAeko alderdi sistema: 1980ko hauteskundeak




EAeko alderdi sistema: 1984ko hauteskundeak




EAeko alderdi sistema: 1986ko hauteskundeak




EAEko alderdi sistema: 1990eko hauteskundeak




EAEko alderdi sistema: 1994ko hauteskundeak



EAEko alderdi sistema: 1998ko hauteskundeak




EAEko alderdi sistema: 2001eko hauteskundeak




EAEko alderdi sistema: 2005eko hauteskundeak

Euskal alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala /erregionala

Espainiar alderdiak



X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia


Frantziar alderdiak



Oharra: Kasu honetan Batasuna ordezkatzen duen heinean, kontsideratu da EHAK alderdiaren jarduera eremua nazionala dela.


EAEko alderdi sistema: 2009ko hauteskundeak

Euskal alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala /erregionala

Espainiar alderdiak



X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia


Frantziar alderdiak



Oharra: Kasu honetan alderdi sistema egituratu da boto baliogabea kontuan hartuta. Hori egitean, EB-B alderdiak Gipuzkoan lortu zuen eserlekua galduko luke. Horregatik, lanean zehar sailkatu da ordezkaritzarik lortu ez balu bezala. Era berean, D3Mren jarduera eremua kontsideratu da nazionala dela, Batasunaren legez kanporatzearen aurrean sortutako alderdia delako.


EAEko alderdi sistema: 2012ko hauteskundeak

Euskal alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala /erregionala

Espainiar alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia

Frantziar alderdiak



EAEko alderdi sistema: 2016ko hauteskundeak

Euskal alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala/erregionala

Espainiar alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia

Frantziar alderdiak




B) NFEko hauteskunde autonomikoetako kasua (1983-2015)


NFEko alderdi sistema: 1983ko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 1987ko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 1991ko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 1995eko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 1999ko hauteskundeak



NFEko alderdi sistema: 2003ko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 2007ko hauteskundeak




NFEko alderdi sistema: 2011ko hauteskundeak

Euskal alderdi sistema




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala/erregionala

Espainiar alderdiak




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia

Frantziar alderdiak




NFEko alderdi sistema: 2015eko hauteskundeak

Euskal alderdi sistema




X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: nazionala/erregionala

Espainiar alderdiak



X ardatza: ezker/eskuin
Y ardatza: zentro/periferia

Frantziar alderdiak



II. ERANSKINA

EAEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko argibideak

1. ANALISI UNITATEA: EAEko udalerriak.

- 1980ko hauteskunde autonomikoak: 228 udalerri (atzerriko botoa ez da aztertu)
- 2016ko hauteskunde autonomikoak: 251 udalerri (atzerriko botoa ez da aztertu)

2. BEHAKETA OBJEKTUA: Babes elektoralak.

• I. BEHAKETA: Alderdi mailako azterketa

- Udalerri bakoitzeko alderdi bozkatuena
- Udalerri bakoitzeko bigarren alderdi bozkatuena

• II. BEHAKETA: Multzoen arabera azterketa

- Parlamentuan ordezkariak lortu duten alderdiak
 - Euskal alderdiak
 - Euskal ezkerria
 - Euskal eskuina
 - Espainiar alderdiak
 - Espainiar ezkerria
 - Espainiar eskuina
- Parlamentuan ordezkariarik lortu ez duten alderdiak
 - Besteak

3. DATU ITURRIA: Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun saila.

- **Link-a:** <https://www.euskadi.eus/hauteskundeak/> (azkeneko aldiz begiratuta 2021/05/15)

4. IRIZPIDEAK ETA ÑABARDURAK:

- **Gorabeherak udalerrien kontaketa:** EAEko udalerri kopurua ez da finkoa 1980-2016 bitartean. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eskuragarri jartzen dituen datuetan honako udalerri hauek gehitu dira 2016ko zerrendan, 1980an agertzen ez zirenak:
 - ARABA: -
 - GIZPUZKOA: 1) Mendaró; 2) Lasarte-Oria; 3) Astigarraga; 4) Baliarrain; 5) Orendain; 6) Altzaga; 7) Gaztelu.
 - BIZKAIA: 1) Berriatua; 2) Derio; 3) Erandio; 4) Loiu; 5) Sondika; 6) Zamudio; 7) Forua; 8) Kortezubi; 9) Murueta; 10) Nabarniz; 11) Iurreta; 12) Ajangiz; 13) Alonsotegi; 14) Zierbena; 15) Arratzu; 16) Ziortza-Bolibar.
 - GUZTIRA: 23 udalerri.
- **Zer egin udalerri horiekin?** Bi erabaki bereizi dira: bata, urtez urteko azterketari dagokiona; eta bestea, bilakaera historikoari dagokiona (1980-2016).

- URTEZ URTEKO ANALISIA: Datuak bere horretan mantendu dira 2016ko hauteskundeetako analisia egiterakoan.
 - ANALISI HISTORIKOA (1980-2016): Bi bloke bereizi dira bilakaera historikoa aztertzeko: batetik, jarraikortasunez hauteskundeetara aurkeztu diren 228 udalerrri daude; bestetik, gainerako 23ak.
- **Irizpidea adosteko zailtasunak:** Azken 23 horien kasuan 1980ko hauteskundeen izenean ikerketa honetan erabili diren datuak dira aurreneko aldiz udalerrri burujabe gisa aurkeztu ziren hauteskundeetakoak.

E1. taula: 1980ko eta 2016ko hauteskunde autonomikoetako desfasea orekatzeko irizpideak

	JATORRIZKO UDALERRIA	UDALERRI BURUJABEA									2016	
		HAUTESKUNDEETAKO LEHEN DATUAK									UDALERRIA	EUSKAL BOTO ABERTZALE A
	1980 URTEA	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009		
1	Elgoibar eta Mutriku		81								MENDARO	72
2	Hernani, Urnieta eta Andoain			54							LASARTE-ORIA	46
3	Donostia				91						ASTIGARRAGA	70
4	Ikaztegieta				100						BALIARRAIN	96
5	Ikaztegieta				99						ORENDAIN	94
6	Itsasondo				98						ALTZAGA	88
7	Leaburu						97				GAZTELU	85
8	Ondarroa		95								BERRIATUA	94
9	Bilbo		69								DERIO	61
10	Bilbo		68								ERANDIO	57
11	Bilbo		88								LOIU	74
12	Bilbo		82								SONDIKA	71
13	Bilbo		82								ZAMUDIO	78
14	Gernika-Lumo				93						FORUA	89
15	Gernika-Lumo				98						KORTEZUBI	93
16	Gernika-Lumo				97						MURUETA	89
17	Gernika-Lumo				100						NABARNIZ	93
18	Durango				69						IURRETA	66
19	Gernika-Lumo					99					AJANGIZ	93
20	Barakaldo					77					ALONSOTEGI	69
21	Abanto-Zierbena						76				ZIERBENA	74
22	Gernika-Lumo					98					ARRATZU	95
23	Markina-Xemein									97	ZIORTZA - BOLIBAR	97

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Egileak moldatua.

- **Mapak:** Mapak egiteko geruza honako web gune honetatik deskargatu da: <https://euskalgeo.eus/eu/deskargak>.
- **Hautagai zerrendek jasotako babes elektoralak:** hautagai zerrendek jasotako botoak hartu dira erreferentzia gisa EAEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko. Horrela saihestu nahi izan da irudiak eta taulak aurkezterakoan boto zuriak sor dezakeen nahastea.

III. ERANSKINA

NFEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko argibideak

1. ANALISI UNITATEA: NFEko udalerriak.

- 1983ko hauteskunde autonomikoak: 264 udalerri (atzerriko botoa ez da aztertu)
- 2015eko hauteskunde autonomikoak: 272 udalerri (atzerriko botoa ez da aztertu)

2. BEHAKETA OBJEKTUA: Babes elektorala.

• I. BEHAKETA: Alderdi mailako azterketa

- Udalerri bakoitzeko alderdi bozkatuena
- Udalerri bakoitzeko bigarren alderdi bozkatuena

• II. BEHAKETA: Multzoen arabera azterketa

- Parlamentuan ordezkariak lortu duten alderdiak
 - Euskal alderdiak
 - *Euskal ezkerria*
 - *Euskal eskuina*
 - Espainiar alderdiak
 - *Espainiar ezkerria*
 - *Espainiar eskuina*
- Parlamentuan ordezkariak ez lortu duten alderdiak
 - Besteak

3. DATU ITURRIA: Nafarroako Estatistika Erakundeak.

• **Link-a:**

<https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3> (azkeneko aldiz begiratuta 2021/05/15)

4. IRIZPIDEAK ETA ÑABARDURAK:

- **Gorabeherak udalerrien kontaketa:** NFEko udalerri kopurua ez da finkoa izan 1983-2015 bitartean. Nafarroako Estatistika Erakundeak eskuragarri jartzen dituen datuetan honako udalerri hauek gehitu dira 2015eko zerrendan, 1983an agertzen ez zirenak:
 - NAFARROA: Barañain; Berriobeiti; Berriozar; Irurtzun; Beriain; Orkoien; Zizur Nagusia eta Lekunberri.
 - GUZTIRA: 8 udalerri.
- **Zer egin udalerri horiekin?** Bi erabaki bereizi dira: bata, urtez urteko azterketari dagokiona; eta bestea, bilakaera historikoari dagokiona (1983-2015).
 - URTEZ URTEKO ANALISIA: 2015eko hauteskundeetako datuak bere horretan mantendu dira analisia egiterakoan.

- ANALISI HISTORIKOA (1983-2015): Bi bloke bereizi dira bilakaera historikoa aztertzeko: batetik, jarraikortasunez hauteskundeetara aurkeztu diren 264 udalerrriak daude; bestetik, gainerako 8ak.
-

E2. taula: 1983ko eta 2015eko hauteskundetako autonomikoetako desfasea orekatzeko hobetsitako irizpideak

		JATORRIZKO UDALERRIA	UDALERRI BURUJABEA HAUTESKUNDEETAKO LEHEN DATUAK							2015	
			1983 URTEA	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007	UDALERRIA
1	BARAÑAIN	Zizur	16							BARAÑAIN	31
2	BERRIOBEITI	Ansoain	18							BERRIOBEITI	36
3	BERRIOZAR	Ansoain	18							BERRIOZAR	38
4	IRURTZUN	Arakil	27							IRURTZUN	49
5	BERIÁIN	Galar	9							BERIÁIN	18
6	ORKOIEN	Olza	21							ORKOIEN	32
7	ZIZUR NAGUSIA	Zizur	16							ZIZUR NAGUSIA	36
8	LEKUNBERRI	Larraun	48							LEKUNBERRI	64

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

- **Irizpidea adosteko zailtasunak:** 1983ko hauteskunde autonomikoetako datuen faltan, hasierako asmoa zen 8 udalerrri horien kasuan aurreneko aldi udalerrri burujabe gisa aurkeztu ziren hauteskundeetako datuak erabiltzea. Alabaina, gertatzen dena da 1987-2011 bitartean euskal eskuinak ez duela ordezkariarik lortzen hauteskundeetan. Ondorioz, desfasea dago azken hauteskunde horietako datuak 2015eko datuak alderatzerakoan. Horregatik, kasu honetan hobetsi den alternatiba da 1983ko jatorrizko udalerrriaren datuekin gurutzatzea.
- **Mapak:** Mapak egiteko geruza honako web gune honetatik deskargatu da: <https://euskalgeo.eus/eu/deskargak>.
- **Hautagai zerrendek jasotako babes elektorala:** hautagai zerrendek jasotako botoak hartu dira erreferentzia gisa NFEko bilakaera elektoralaren inguruko azterketa geografiko deskriptiboa egiteko. Horrela saihestu nahi izan da irudiak eta taulak aurkezterakoan boto zuriak sortu dezakeen nahastea.

IV. ERANSKINA

Zenbaki bidezko analisi korrelatiboa: laginaren ezaugarriak
LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA HEGO EUSKAL HERRIAN

1. ANALISI UNITATEA: Hego Euskal Herriko udalerriak.

E3. taula: Datu soziolinguistikoak eta Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Hego EH	516	516	522	523	523	523

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea eta Euskarabidea. Egileak moldatua.

E4. taula: Datu elektoralak eta Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.

	1991/1994	1995/1998	1999/2001	2003/2005	2007/2009	2011/2012	2015/2016
Hego EH	515	522	521	522	523	523	523

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Erakundea. Egileak moldatua.

E5. taula: Analisi korrelatiboa egiteko erabili den lagina. Hego Euskal Herriko udalerrri kopurua.

	1991/1994	1995/1998	1999/2001	2003/2005	2007/2009	2011/2012	2015/2016
Hego EH	513	515	521	522	523	523	523
Erreferentzia 2015/2016	523	523	523	523	523	523	523
Datuak gurutzatu ezinik gelditu diren udalerrriak	10	8	2	1	0	0	0


Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea eta Euskarabidea. Egileak moldatua.

2. UDALERRIAK:

Udalerrri kopurua aldatuz joan da 1991-2016 bitartean Hego Euskal Herrian. Hori dela eta, udalerrri berrien kasuan, ez dago horien datu soziolinguistiko eta elektoralak lortzerik hauteskunde guztietan. Alde horretatik, goiko taulan ikusten da Hego Euskal Herrian 2007tik aurrera 523 udalerrri daudela. Datu horiek gainera konstante mantentzen dira. Gauzak horrela, erreferentzia moduan urte horietako udalerrri zerrenda harturik, ondorego atalean zehazten da korrelazio-koefizientea kalkulatzekoan aurreko hauteskundeetan zein udalerrri ez diren kontuan hartu.

E6. Taula: Datuak gurutzatu gabe gelditu diren udalerrriak

	1991/1994	1995/1998	1999/2001	2003/2005	2007/2009	2011/2012	2015/2016
1	ZIORTZA-BOLIBAR	ZIORTZA-BOLIBAR	ZIORTZA-BOLIBAR	ZIORTZA-BOLIBAR			
2	BERRIOBEITI	BERRIOBEITI	JAVIER				
3	BERRIOZAR	BERRIOZAR					

4	IRURTZUN	IRURTZUN			
5	BERIAIN	BERIAIN			
6	ORKOIEIN	ORKOIEIN			
7	ZIZUR NAGUSIA	ZIZUR NAGUSIA			
8	LEKUNBERRI	LEKUNBERRI			
9	GAZTELU				
10	ZIERBENA				

Iturria: Eustat eta Euskarabidea. Egileak moldatua.

V. ERANSKINA

Galdetegia

SAKONEKO ELKARRIZKETA: EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA

o- SARRERA (Iraupena 5 minutu)

Hasierako urduritasunak uxatzeko kontu batzuk esan. Horretarako, elkarrizketatua eroso sentitzen den eta ikerketarekin zerikusirik ez duten gairen bat atera. Hasierako une hori pasa eta gero honako datu hauen inguruan galdetu.

1. Sorterria
2. Adina
3. Eremu soziolinguistikoa
4. Lehen hizkuntza
5. Gurasoen jatorria
6. Generoa

1- ZATIA: IRAKURKETA SOZIOPOLITIKOA (Aurreikusitako iraupena: 45 minutu)

1.1 SISTEMA SOZIALA (Iraupena: 15 minutu)

1. Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu? Zein hizkuntza menderatzen duzu ongien?
2. Zein hizkuntza transmititu(ko) diozu/zenioke zure ondorengoei? Zergatik?
3. Egunerokotasunean zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien? Ze esparrutan? Zergatik? Trabarik izan duzu inoiz euskaraz bizitzeko?
4. Zein da hizkuntza bakoitzarekin duzun harremana? Zergatik?
5. Denborarekin aldatzen joan al da hiztun elkarte ezberdinekin duzun harremana? Aldatu bada, zertan aldatu da harreman hori?
6. Zein da zure jarrera euskararen normalizazioaren inguruan? Behar adina egiten da euskararen alde?

1.2 SISTEMA NORMATIBOA (Iraupena: 15 minutu)

7. NAN agiriak dio espainiarra zarela, zer iruditzen zaizu?
8. Euskal abertzalea zara? Zergatik?
9. Gauza bera da ser vasco eta euskaldun izatea? Euskal hiztun denak euskaldunak dira?
10. Euskal abertzale askok ez daki euskaraz, eta alderantziz, euskal hiztun asko dago espainiar sentitzen direnak. Nola azaltzen duzu fenomeno hori?
11. Zure ustez, zergatik dago euskara desagertzeko zorian dauden hizkuntzen artean?

12. Posible da euskara normalizatzea Espainiar eta Frantziar Estatu-nazioaren barruan?
13. Independentziaren alde zaude?

1.3 SISTEMA ORGANIZATIBOA (Iraupena: 15 minutu)

14. Zer datorkizu burura Frankismoa aipatuta?
15. Zer azpimarratuko zenuke Frankismoan gertatu zen euskal susperraldiaren inguruan?
16. Zure ustez Frankismo ostean euskalgintzan aurrerapenak gertatu dira? Zein dira autonomia sistemak ekarri dituen onurak eta mugak?
17. Zein da alderdi politiko bakoitzak duen proiektu nazionala (EH BILDU, EAJ, GEROA BAI, UPN, I-E, PP, PSOE, PODEMOS eta abar)?
18. Zein da alderdi bakoitzaren posizioa autodeterminazioaren inguruan (EH BILDU, EAJ, GEROA BAI, UPN, I-E, PP, PSOE, PODEMOS eta abar)?
19. Zein da alderdi bakoitzak euskararen inguruan duen diskurtsoa eta praktika (EH BILDU, EAJ, GEROA BAI, UPN, I-E, PP, PSOE, PODEMOS eta abar)?


2- ZATIA: BOTOA (Aurreikusitako iraupena: 25 minutu)

20. Zergatik bozkatu duzu 2015/2016 EAE edo NFEko hauteskunde autonomikoetan?
21. Hauteskunde guztietan bozkatu izan duzu? Inoiz pentsatu duzu ez bozkatzea? Zergatik?
22. Nola multzokatuko zenituzke Hego Euskal Herriko alderdi politikoak ardatz nazionalaren eta sozialaren arabera?
23. Zein da alderdi bakoitzaren eragite eremua? Azken hori bat dator eremu nazionalarekin?
24. Nola arrazoitzen duzu aztergai diren hauteskundeetan eman zenuen botoa?
25. Beti alderdi berebereri bozkatzeko joera izan duzu? Edo, aldakorra izan da zure portaera elektorala?
26. Zein alderdiri ez zenioke inoiz bozkatu? Zergatik?
27. Bigarren botoa zein alderdiri emango zenioke? Zergatik?
28. Nola irudikatzen duzu alderdi politiko bakoitzaren boto emailearen soslaia (EH BILDU, EAJ, GEROA BAI, UPN, I-E, PP, PSOE, PODEMOS eta abar)?
29. Nor gustatuko litzaizuke izatea zuk bozkatzun duzun alderdiaren lehentasunezko bazkidea edo gobernukidea (EH Bildu, EAJ, PP, PSOE, C'S, PODEMOS eta abar)?
30. Zure ustez, euskal hiztun guztiek joera bera dute euskal alderdiei botoa emateko orduan? Erantzuna ezezkoa denean, zein aldagaik du eragina euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren sendotasunean?

VI. ERANSKINA

Kode zuhaitza
LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA HEGO EUSKAL HERRIAN

E1. irudia: Kode zuhaitza



VII. ERANSKINA

Hego Euskal Herriko udalerriak

E2. irudia: Hego Euskal Herriko udalerriak



Iturria: Gaindegia.

Oharra: Irudi honetan bi udalergi ezberdin gisa agertzen dira Itsaso eta Ezkio. Horregatik, nahiz eta hauteskunderen inguruko datuetan 523 udalerrietako emaitza elektoralak dauden eskuragarri, irudian, 524 udalergi agertzen dira.

E7. Taula: Hego Euskal Herriko udalerriak

Zenbakia	Udalerria	Zenbakia	Udalerria	Zenbakia	Udalerria	Zenbakia	Udalerria
1-50		51-100		101-150		151-200	
1	Dulantzi	51	Lantaron	101	Leaburu	151	Allin
2	Amurrio	52	Ezkio	102	Legazpi	152	Allo
3	Aramaio	53	Abaltzisketa	103	Legorreta	153	Ameskoabarrena
4	Artziniega	54	Aduna	104	Lezo	154	Antzin
5	Armiñon	55	Aizarnazabal	105	Lizartza	155	Andosilla
6	Arratzu-Ubarrundia	56	Albiztur	106	Arrasate	156	Antsoain
7	Asparrena	57	Alegia	107	Mutriku	157	Anue
8	Aiara	58	Alkiza	108	Mutiloa	158	Añorbe
9	Mañueta	59	Altzo	109	Olaberria	159	Agoitz
10	Barrundia	60	Amezketza	110	Oñati	160	Araitz
11	Berantevilla	61	Andoain	111	Orexa	161	Aranaratxe
12	Bernedo	62	Anoeta	112	Orio	162	Arantza
13	Kanpezu	63	Antzuola	113	Ormaiztegi	163	Aranguren
14	Zigoitia	64	Arama	114	Oiartzun	164	Arano
15	Kripan	65	Aretxabaleta	115	Pasaia	165	Arakil
16	Kuartango	66	Asteasu	116	Soraluze	166	Aras
17	Burgelu	67	Ataun	117	Errezil	167	Arbizu
18	Eltziego	68	Aia	118	Errenteria	168	Artze
19	Bilar	69	Azkoitia	119	Leintz Gatzaga	169	Urantzia
20	Iruraitz-Gauna	70	Azpeitia	120	Donostia	170	Arellano
21	Bastida	71	Beasain	121	Segura	171	Areso
22	Lagran	72	Beizama	122	Tolosa	172	Arguedas
23	Guardia (Biaitari)	73	Belauntza	123	Urnietza	173	Aria
24	Lantziego	74	Berastegi	124	Usurbil	174	Aritz
25	Lapuebla de Labarca	75	Berrobi	125	Bergara	175	Armañanzas
26	Leza	76	Bidania-Goiatz	126	Villabona-Amasa	176	Arroitz
27	Laudio	77	Zegama	127	Ordizia	177	Arruazu
28	Arraia-Maeztu	78	Zerain	128	Urretxu	178	Artaxoa
29	Moreda de Alava	79	Zestoa	129	Zaldibia	179	Artazu
30	Navaridas	80	Zizurkil	130	Zarautz	180	Atetz
31	Okondo	81	Deba	131	Zumarraga	181	Aiegi
32	Oion	82	Eibar	132	Zumaia	182	Azagra
33	Urizaharra	83	Elduain	133	Mendaro	183	Azuelo
34	Erriberagoitia	84	Elgoibar	134	Lasarte-Oria	184	Bakaiku
35	Erriberabeitia	85	Elgeta	135	Astigarraga	185	Barasoain
36	Añana	86	Eskoriatza	136	Baliarrain	186	Barbarin
37	Agurain	87	Hondarribia	137	Orendain	187	Bargota
38	Samaniego	88	Gaintza	138	Altzaga	188	Barillas
39	Donemiliaga	89	Gabiria	139	Gaztelu	189	Basaburua
40	Urkabustaiz	90	Getaria	140		190	Baztan
41	Gobiaran	91	Hernani	141	Abaigar	191	Beire
42	Harana	92	Hernialde	142	Abartzuza	192	Belaskoain
43	Villabuena de Alava	93	Ibarra	143	Abaurregaina	193	Berbintzana
44	Legutiano	94	Idiazabal	144	Abaurrepea	194	Bertizarana
45	Gasteiz	95	Ikaztegieta	145	Aberin	195	Betelu
46	Ekora	96	Irun	146	Ablitas	196	Biurrun
47	Zalduondo	97	Irura	147	Adios	197	Buñuel
48	Zanbrana	98	Itsasondo	148	Aguilar Kodeskoa	198	Auritz
49	Zuia	99	Larraul	149	Oibar	199	Burgi
50	Iruña Oka	100	Lazkao	150	Altsasu	200	Burlata

Zenbakia	Udalerrria	Zenbakia	Udalerrria	Zenbakia	Udalerrria	Zenbakia	Udalerrria
201 -250		251 -300		301 -350		351 -400	
201	Busto	251	Galoze	301	Mañeru	351	Orreaga
202	Cabanillas	252	Garaioa	302	Marañón	352	Zare
203	Cabredo	253	Garde	303	Martzilla	353	Saldias
204	Cadreita	254	Garinoain	304	Mélida	354	Jaitz
205	Caparroso	255	Garralda	305	Mendabia	355	San Adrián
206	Cárcar	256	Genevilla	306	Mendoza	356	Zangoza
207	Zarrakaztelu	257	Goizueta	307	Mendigorria	357	San Martin Unx
208	Cascante	258	Goñi	308	Metauten	358	Santsol
209	Kaseda	259	Gorza	309	Milagro	359	Santakara
210	Castejón	260	Gesalatz	310	Mirafuentes	360	Doneztebe
211	Gazteluberri	261	Girgillao	311	Miranda Arga	361	Sartze
212	Cintruénigo	262	Uharte Eguesibar	312	Elo	362	Sartaguda
213	Ziordia	263	Uharte Arakil	313	Monteagudo	363	Sesma
214	Zirauki	264	Ibargoiti	314	Morentin	364	Sorlada
215	Ziritza Etxauribar	265	Iguzkitza	315	Mues	365	Sunbilla
216	Zizur	266	Imotz	316	Murchante	366	Tafalla
217	Corella	267	Irantzu	317	Murieta	367	Tiebas-Muru Artederreta
218	Cortes	268	Izaba	318	Murillo el Cuende	368	Tirapu
219	Desojo	269	Ituren	319	Murillo el Fruto	369	Torralba del Río
220	Deikaztelu	270	Iturmendi	320	Muruzabal Itzarbeibar	370	Torres del Río
221	Donamaria	271	Itza	321	Nabaskoze	371	Tutera
222	Etxalar	272	Itzagaondoa	322	Nazar	372	Tulebras
223	Etxarri Etxauribar	273	Itzaltzu	323	Obanos	373	Ukar
224	Etxarri Aranatz	274	Jaurrieta	324	Oko	374	Uxue
225	Etxauri	275	Xabier	325	Otsagabia	375	Ultzama
226	Egues	276	Txulapain	326	Odieta	376	Untziti
227	Elgorriaga	277	Beintza Labaien	327	Oitz	377	Untzue
228	Elortz	278	Lakuntza	328	Olaibar	378	Urdazubi
229	Eneritz	279	Lana	329	Olatzagutia	379	Urdiain
230	Eratsun	280	Lantz	330	Olexua	380	Urraulgoiti
231	Ergoiena	281	Lapoblación	331	Erriberri	381	Urraulbeiti
232	Erro	282	Larraga	332	Oloritz	382	Urrotz hiribildua
233	Ezkaroze	283	Larragoa	333	Oltza	383	Urrotz
234	Eslaba	284	Larraun	334	Olo	384	Urzainki
235	Espartza Zaraitzu	285	Elizagorria	335	Orbaizeta	385	Uterga
236	Esprontzeda	286	Leatxe	336	Orbara	386	Uztarroze
237	Lizarra	287	Legarda	337	Orisoain	387	Luzaide
238	Esteribar	288	Legaria	338	Orontze	388	Valtierra
239	Etaio	289	Leitza	339	Orotz-Betelu	389	Bera
240	Eulate	290	Leotz	340	Oteitza	390	Viana
241	Ezkabarte	291	Lerga	341	Iruñea	391	Bidankoze
242	Ezkurra	292	Lerin	342	Azkoien	392	Bidaurreta
243	Ezporogi	293	Lesaka	343	Petilla Aragoikoa	393	Alesbes
244	Faltzes	294	Lezaun	344	Piedramillera	394	Villamayor de Monjardin
245	Fitero	295	Ledeia	345	Pitillas	395	Hiriberri Atetz
246	Fontellas	296	Lizoain	346	Gares	396	Villatuerta
247	Funes	297	Lodosa	347	Puiu	397	Atarrabia
248	Fustiñana	298	Longida	348	Ribaforada	398	Igantzi
249	Galar	299	Irunberri	349	Erromantzatura	399	Deierri
250	Galipentzu	300	Lukin	350	Erronkari	400	Esa

Zenbakia	Udalerrria	Zenbakia	Udalerrria	Zenbakia	Udalerrria
401-450		451-500		501-550	
401	Zabaltza Urraulgoiti	451	Garai	501	Urduliz
402	Zubieta	452	Gatika	502	Balmaseda
403	Zugarramurdi	453	Gautegiz-Arteaga	503	Atxondo
404	Zuñiga	454	Gordexola	504	Bedia
405	Barañain	455	Gorliz	505	Areatza
406	Berriobeiti	456	Getxo	506	Igorre
407	Berriozar	457	Gueñes	507	Zaldibar
408	Irurtzun	458	Gernika-Lumo	508	Zalla
409	Beriain	459	Gizaburuaga	509	Zaratamo
410	Orkoien	460	Ibarrangelu	510	Derio
411	Zizur Nagusia	461	Ispaster	511	Erandio
412	Lekunberri	462	Izurtza	512	Loiu
413	Abadiño	463	Lanestosa	513	Sondika
414	Abanto-Zierbena	464	Larrabetzu	514	Zamudio
415	Zornotza	465	Laukiz	515	Forua
416	Amoroto	466	Leioa	516	Kortezubi
417	Arakaldo	467	Lemoa	517	Murueta
418	Arantzazu	468	Lemoiz	518	Nabarniz
419	Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	469	Lekeitio	519	Iurreta
420	Artzentales	470	Mallabia	520	Ajangiz
421	Arrankudiaga	471	Mañaria	521	Alonsotegi
422	Arrieta	472	Markina-Xemein	522	Zierbena
423	Arrigorriaga	473	Maruri-Jatabe	523	Arratzu
424	Bakio	474	Mendata	524	Ziortza-Bolibar
425	Barakaldo	475	Mendexa		
426	Barrika	476	Meñaka		
427	Basauri	477	Ugao		
428	Berango	478	Morga		
429	Bermeo	479	Muxika		
430	Berriatua	480	Mundaka		
431	Berriz	481	Mungia		
432	Bilbo	482	Aulesti		
433	Busturia	483	Muskiz		
434	Karrantza	484	Otxandio		
435	Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia	485	Ondarroa		
436	Zeanuri	486	Urduña		
437	Zeberio	487	Orozko		
438	Dima	488	Sukarrieta		
439	Durango	489	Plentzia		
440	Ea	490	Portugalete		
441	Etxebarri	491	Errigoiti		
442	Markin-Etxebarria	492	Trapagaran		
443	Elantxobe	493	Lezama		
444	Elorrio	494	Santurtzi		
445	Ereño	495	Ortuella		
446	Ermua	496	Sestao		
447	Fruiz	497	Sopela		
448	Galdakao	498	Sopuerta, Garape		
449	Galdames	499	Turtzioz		
450	Gamiz-Fika	500	Ubide		